

## HITZAURREA LEVIATHAN

Thomas Hobbes Malmesburytik hurbil, Westport izeneko ingeles herritxoan jaio zen, North Wiltshire Konderrian, 1588ko apirilaren 5ean, Ingalaterrako Armada Menperaezinenaren inbasio-mehatxupearan ikaraturik zegoen urtean<sup>1</sup>.

Eliz bikario baten semea, antza denez, izaera suminkor eta tolerantzigabekoa zen; Hobbesen lehen hezkuntza otoitz-liburuak irakurtzera eta bere aitaren sermoi eta homiliak beharturik entzutera mugatu zen. Westporteko bikariotzan ordezkotzeko izateko etorritako elizgizonarekin ika-mika bat izanik, pertsonaia atrabilario hark ustegabeki ihes egin zuen, etxea eta familia betiko utzirik, eta “laurogei urte geroago hil zen”, Londresko bazter ilun batean.

Hain goiz aitazurtz geratu izanak pisua izan zuen Hobbesen izaeraren erakuntzan. Nahiz eta haurtzaroak berezkoak dituen jolas eta olgetetan nolabait esku hartu zuen, hala ere bere lehen urteetatik izan zuen halako “malenkonioa kontenplatzaile”, herabetasun eta ziurrezazko kutsu bat, gainerako bere bizitzaldi luzean bere hartan iraun ziotenak.

Amaren aldetiko osaba bat jabetu zen haurraz eta ikasketak jarraitzen lagundu zion Westporteko parroki-eskolan sarraraziz, eta ondoren ikastetxe pribatu batera bidali zuen, non izan zuen irakasle Robert Latimer, kultura klasikoaren ezagutzaile bikaina, zeinak irakatsi zizkion ikasle gazteari grekoa eta latinaren hasi-masiak. Hizkuntza klasikoekiko lehen harreman horrek gerora haren idatzi guztietan nabarmenduko zen filologizatasun bat iratzarriko zion. Hamalau urte zituela, osabak Oxfordeko Magdalen Collegen matrikulatu zuen, eta bertan jarraitu zuen, erdipurdiko arrakastarekin, orduan indarrean zegoen ikas-egitaraua, doktrina eskolastikoz ugari hornitua. Nahiz eta Hobbesek ez zuen aparteko gozamenik izan han jasotako irakaskuntza akademikoarekin, lortu egin zuen Batxiler titulua eta, hogeitazurte zituela, Sir James Hussey Oxfordeko bere irakasleak gomendaturik Cavendish familia ahaltsuko lehen Earl of Devonshire-ren tutore pribatu gisa sartu zen, eta zenbait etenaldi gorabehera, enplegu horren jabe izan zen hil arte.

Cavendishtarren zerbitzuan emandako bere lehen aldian, behin baino gehiagotan izan zuen Hobbesek Kontinentera bidaiak egiteko aukera; eta Ingalaterran, pentsamendua eta letretako figura handietakoren bat ezagutu eta harekin harremanetan sartzeko aukera izan zuen, besteak beste Ben Johnson eta Francis Baconekin, zeinak gomendatu zion bere entsegu sonatuetakoren batzuen latinezko itzulpena. Garia horretakoak dira Hobbesen antzeko beste ariketa batzuk, Tuzididesen Peloponesoko Gerren Historia-ren itzulpena bereziki, 1623an argitaratua; urte horretan familiburua hiltzean, eta etxeak zituen estuasun ekonomiko batzuegatik, Hobbes bere zerbitzuak ematetik libratu zuten eta denboraldi batean antzeko tutoretza bat onartu zuen Sir Gervase Clintonekin.

1630ean berriro Cavendishtarrengana itzultzen da bigarren Earl of Devonshire-z jabetzeko. Bere ikasle gaztearekin batera Europara beste bidaiak egin zuen, non zuzenean ezagutu ahal izan zuen zientzia berria eta Errenazimentuko korrante berritzaileen emaitzatzat Ingalaterraz kanpo gertatutako aldaketa handia. Italian Galileori egin zion bisita eta, haren bitartez, orduan Pisako irakasle zen Claudio Berigardorekin adiskide-harremanetan sartu zen, bere gisa hartuz mundua eta jakiteari buruzko kontzepzio bat, zeina izango zen ezagutza eta gizarteari buruzko bere analisiak garatuko zituen esparrua. Hobbes Londresera itzuli zen 1673an, bere prestakuntza intelektualean behin betiko urrats bat eman zuela erabat sinetsirik, eta ordutik aurrerakoan “filosofoen artean onartua” izateko baliozko lizentziarekin. Urte horretan bertan egin zen Marin Mersenne fraidearen adiskide, zeinarekin harremanetan jarri zen Paristik igarotzean, aitortzen duenez, ezein unibertsitatek irakatsi ziezaiokeena baina askoz gehiago beragandik ikasiz. Aldizkako argitalpen espezialdurik ez zegoelako garaiko humanista eta zientzialarien arteko harremana zaila zen une batean, Mersennek bere gain hartu zuen bere zeldatik europar pentsamenduaren gizon handien arteko harremanak lantzea.

---

<sup>1</sup> Hobbesen autobiografia, latinezko bertsotan idatzia, *Thomas Hobbes Malmesburiensis Opera Philosophica Quae Latinae Scripsit* izenekoaren lehen liburukian sarturik dago, Sir William Molesworthen edizioan (Londres, 1845). Bada ingelesezko itzulpen bat *Vita, carmine, expressa* horrena, Benjamin Farringtoni zor zaiona eta 1958ko Rationalist Annual, 22-31 orr. argitaratua; horien artean Richard Blackbournarena, izenburutzat *Vitae Hobbiana Auctarium* darama, eta *Aubrey's Brief Lives*-en dagoena, zeinaren berriki egindako edizio bat dagoen Ann Arbor, Michigan, 1962. Beroriez baliatu naiz ondoko biografi apunte laburra idazteko.

Ingalaterrara iristean, eta bere ikasleak ordurako ikasketak amaituak zituen arren, Hobbes familiaren baitan gelditu zen, bere nahietarako egokia zen bizimodua eginez. Etxearen adiskide gaztea zen Lucius Careyk Great Teweko landetxean antolaturiko tertuliek ingeles intelektualeriaren, aristokrazia eta apezkeriako pertsonaien floria biltzen zuten, zeinen interesak izaera erlijiozko, politiko eta gizarte-zoko auziei buruzkoak izaten ziren, orduan botere handiaren bi iturburu bakarrak zirenetatik eratorriak: monarkiatik eta elizatik.

1640an bukatzen du Hobbesek bere Zuzenbide Elementuak, hasieratik beretik ingelesez ondutako obra, zeinean aurreratzen diren ondorengo liburuetan landuko diren gai nagusiak. Tratatu horren asmoa “lehen printzipioen argitan”, absolutismoaren justifikazio bat proposatzea izan zen, eta administrazio politikozko aholku praktikoa batzuk ematea araubide monarkiko baten barruan, izan ere urte haietan iraungitzeko zorian baitzegoen Ingalaterran. Bere joera erregetiarrek bere pertsonaren kontrako erreakzio bortitza eragingo zuten beldurrez, Hobbesek Parisera ihes egiten du 1640an. 1642an eztanda egiten du Ingalaterran lehen gerra zibilak. Monarkiaren aldeko taldea Marston Mooren (1644) gertatzen da eta ondoren Charles I leporatzen dute. Erregimen parlamentarioa ezartzean, beste erregetiar batzuek ere Frantzia bilatzen dute babesa, non Hobbesek bere gain hartzen duen Koroaren oinordeko zen Galesko Printzea eta etorkizunean Charles II. izenaren tutoretza.

Zuzenbide Elementuak izan ezik, Hobbesen obra nagusi guztia, Leviathan barne, Frantzia idatziko zen, ia etengabe, 1640-1650 hamarkadan zehar. Elementuak, autoreak bere gogoz erbestera jo baino lehen eskuizkribu gisara soilik hedatu zirenak, bi parte bereizitan argitaratu ziren (Giza izaera eta De corpore politico), biak 1650ean. De Cive 1642an inprimatzen da, eta, bi urte geroago, Mersennen gerizapean, bere “Tractatus Opticus” deritzana agertzen da Parisen Cogitata physico-mathematica bolumenaren barruan, Mersennek berak argitara emana.

1647an Hobbesen lana etenda gelditu zen hilabetetan ohean eduki zuen gaixotasun batengatik, eta ia-ia bizia galdu ere egin zuen. Mersennek absolutzio katolikoa eman zion, eta konfesio anglikanoko eta kredo kalbinistako beste ministro batzuek ere gauza bera egin zuten, nahiz eta Hobbes ez ados egon haietako bat ere onartzearekin.

1648an Charles Printzeak Holandara aldatu zuen lekuz bere egoitza. Bere gaixotasuna gainditu eta tutoretzatik libre zegoelarik, Hobbes berriz ere bere obra handia, Leviathan egiten murgiltzen da buru-belarri, jatorriz gizakiaren grina antisozialek eragindako disoluzio politikoaren zuzengarri gisa pentsatua, eta hasiera batean, monarkiaren aldeko hatsez onduta. Baina liburuaren azken berrikusketan, gauzen egoera berriak erroak ongi ezarriak zituelarik Ingalaterran, eta amets hutsa izaki erregetiarrak garaile gertatzea berehalakoan, Hobbesek Errepasua eta Konklusioa titulaturiko saila eranstean dio tratatuari, zeinean zentzu pragmatikoarekin eta gauzak nola aldatu ziren ikusia, galdera bat egiten du: noiz zaion zilegi menpekoari bere antzinako subiranorekiko obedientziari uko egitea, baldin eta horrek era berreskurazinean subiranotasuna galdua badauka. Eranskin labur horrek Hobbesekin Parisen bizi ziren erbesteratuen artean hainbeste urtetan bere lumaz monarkiaren kausa defendatu zuen gizonarenganako mesfidantza-sentimendua sortu zuen. Bitxia da, Hobbesi buruzko bibliografia urrian, Hobbesen ustezko “konbertsio” hori, Oliver Cromwell agintera igotzearen ia aldi bereko dena, ikustea nola Balmesek jasotzen duen Leviathan-en egilearen pentsamendu osoaren ezaugarri bereizgarritzat. Uste dut egokia dela hona aldatzea bere Historia de la Filosofia-n datorren Hobbesi buruzko kapituluaren eskaintzen dizkigun testigantza eta iruzkina<sup>2</sup>:

Hobbesen arabera, gizakiak eskubidea du bere ahalmenek iristen dutenerako, eta egoera naturalean gaizki oro beste gizakiaren etsai da: homo homini lupus. Egintzen arteko diferentzia lege zibiletik dator; hori botere publikotik jaiotzen da, zeina bere aldetik gizakiek beren buruak ez suntsitzeko egin zuten hitzarmen batetik datorren. Botereak bere ahalmenak mugagabe ditu; zilegi da berak agintzen duen guztia, baita biraoa eta parrizidioa bera ere. De Cive eta Leviathan tirano guztien eta tirania guztien apologia dira.

Zer helbururekin hedatzen zituen Hobbesek doktrina hain arbuiagarriak? Entzun dezagun Lord Clarendon: “Espainiara nentorrela Paristik igaro nintzen; sarritan bisita egiten zidan Hobbesek esan zidan Leviathan izenburua jarri nahi zion liburu bat inprimatzen ari zela Ingalaterran, zeinetik astero zuzentzeko frogaplegu bat jasotzen zuen, eta hilabete barru amaiturik izatea uste zuela. Gehitu zuen bazekiela nik

---

<sup>2</sup> Jaime Balmes, *Obras Completas*, Biblioteca Perenne, Editorial Selecta, Barcelona 1948, 403 or.

liburua irakurtzean ez nuela atsegin izango, aldi berean bere baitan zeuzkan ideia batzuk jakinaraziz; eta nik horrelako doktrinak zergatik argitaratzen zituen esatean, erantzun zidan erdi-benetan, erdi-txantxetan izandako elkarriketa baten ondoren: Egia da Ingalaterra itzultzeko gogo bizia dudala<sup>3</sup>. Hona hemen enigma bat deszifratu eta gizon bat erretratu: Ingalaterrara itzultzeko gogoa zuen, moralak eta gizadiaren lepotik bazen ere. Cromwellek agintzen zuen Ingalaterran; Hobbesen emigratziotik itzuli zen, eta babesleak ongi hartua izan zen. Filosofia mesprezagarria, egia eta ondorekin horrela tratuan aritzen dena.

Hala ere, gauzak ez ziren erabat horrela izan. Obraren edukiari dagokiona orain alde batera utzirik (Balmesek uste duena baino aski konplexuagoa dena gainera), kontua da Leviathan-ek Parisko zirkulu monarkikoen artean sortutako etsaikortasun posibleak ez zuen eragotzi Hobbesek Charles Printzeari, Koroa berreskuratzeko ahaleginean huts egin eta Worcesterreko porrotaren ondoren berriz ere Parisen zegoenari, eskuizkribuaren ale bat igortzea, dotoreki koadernatu eta kaligrafiatua --“engrossed in vellum in a marvellous fair hand”--, Lord Clarendonek berak kontatzen digunez<sup>4</sup>.

Egia da Hobbes Londresera itzuli zela urte horren berorren amaieran (1651), eta Estatuaren Kontseilu berriari men egin ondoren, bakean bizi izateko aukera eman ziotela erdi-erretiro filosofiko batean. Baina goan izatekoa da, halaber, Cromwellen Babesgoaren formalizazio ez zela 1653 arte burutu, ordurako Hobbes Ingalaterran zegoela, data horretan idatzi baitzen Cromwelli nazioaren Lord Babesle titulua eta botereak ematen zizkion dokumentu konstituzionala. John Aubrey, Hobbesen mireslea eta adiskide pertsonalak horren guztiaren aipamena egiten du, Leviathan-ez hitz egitean eta esaten digu Hobbesek liburua idatzi eta argitara eman zuela “Bere Maiestateari kalte edo Oliverri lausengu egiteko inolako asmorik gabe (zeina ez baitzen babesle izendatua izan handik bizpahiru urtetara baizik), horrela bere itzulera errazteko, zeren ez baitago orrialde bakar bat ere obran hura (Cromwell) larderiaturik ez denik”<sup>5</sup>.

Fetter Lane, Londresko bere egoitzan sarturik, Hobbesek De Corpore bere tratatua amaitzen du eta 1655ean argitaratzen du. Garai horretan Hobbesek 67 urte ditu. Orduan berriro egiten ditu jadanik Londresko zirkulu politikoetatik aldendurik zegoen Cavendish familiarekiko bere harremanak, eta Seth Ward eta John Wallis, Oxfordeko profesoreekin polemika luze eta garratzean murgiltzen da, zientzien irakaskuntza unibertsarioa zela eta. 1656an agertzen da De Corpore-ren ingelesezko itzulpena.

Oliver Cromwellen heriotzarekin, 1658an, Babesgoa Richard bere semearen eskuetara pasatzen da, eta urte bete geroago haren erabateko gainbeheratzea eta Monarkiaren Errestaurazioa gertatzen dira Charles II.aren agintepean. Hobbesi harrera beroa egin zion erregeak, behiala ikasle izanak, berau Londresera iritsi eta handik gutxira<sup>6</sup>, eta urtean ehun liberako pentsio bizialdirako bat eman zion. Horrezaz gainera, gaur egun National Portrait Galleryn dagoen eta guztiok ezagutzen dugun ordurako agureturik zegoen Hobbesen erretraturik pintarazi zuen Charlesekin Erret Etxearen kontura.

Baina erregearen babes pertsonala gorabehera, Errestaurazioaren garaiko giroak ez zion mesede egin Leviathan-en egileari, ez hainbeste liburuan adierazitako teoria politiko hertsierengatik, nola bere antiklerikalismo porrokatuarengatik. 1665eko Izurrite Handiaren eta 1666an izandako Londresko Sute Handiaren ondoren, herriaren beldur superstiziozkoek Batzorde bat sortzera eraman zuten Komunaren Ganbara “ateismoa eta profanazioaren kontra”, “joera agnostiko eta biraolariak” edo “Jainkoaren esentzia eta atributuen kontrako” edukiak zituzten argitalpenei buruzko informazioak jasotzeko ahalmenarekin. Horren ondorioz, “Leviathan titulaturiko Mr. Hobbesen liburuaren kontrako” zentsura-eskari bat aldarrikatu zen jendaurrean eta Ganbararen eskuetan utzi zen auzia. Handik ez zen ezer larririk sortu, nahiz eta Hobbesek, okerrenaren beldur, hil ondora arte argi ikusiko ez zuen deskarguzko idatzi luze bat prestatu zuen. Liburuaren ingelesezko edizio berri bat konfiskatu egin zuten, eta Hobbesek latinez

<sup>3</sup> Aipam. Dugald-Steward, *Historia de la Filosofía, 1ª parte*. (Balmesen oharra).

<sup>4</sup> Claredon., *Survey of Leviathan*, 1676, 8. or. Aipaturiko eskuizkribua gaur egun Britainiar Museoko Liburutegian dago gaur egun.

<sup>5</sup> Aubrey, ob. aip., 151-152 orr.

<sup>6</sup> Honela kontatzen du Aubreyk bi pertsonaien halabeharrezko topaketa: Itzulera zoriotsuaren ondorengo bizpahiru egunetara Bere maiestatea kotxez Strandetik igarotzean, Hobbes Jauna zutik zegoen Little Salisburyko villaren atean, non orduan bere Jauna (Lord Cavendish) bizi zen. Erregeak ikusi, adeitasunez kapela erantzi diosalageritzat, eta nola zegoen galdetu zion, handik astebetera Hobbesek elkarrikuste pertsonala izan zuen Bere Maiestatearekin Cowper jaunaren estudioan Erregea bere erretraturako posatzen ari zen bitartean. Bere Maiestateak atseginez aritu zen hizketan Hobbes jaunarekin, eta errege-faboreak bihurtu egin zitzaizkion. (Ob. aip., 152 or.)

berridatzi zuen obra, eta Amsterdamen argitaratzea lortu zuen. Birpasa eta Konklusioa izeneko sail eztabaidatuaren orde, latinezko edizioan hobbestiar proposamen teologikoen defentsa bat eta Heresiaren Historia labur bat sartu ziren. 1668 aldera onduriko bere beste bi obrari, inprimatzeko baimena ukatu zitzaion, halaber, Ingalaterran: Filosofo baten eta Ingeles Zuzenbide Komunaren Aditu baten arteko Elkarriketa, eta latinez idatziriko poema neurtu Historia Ecclesiastica titulaturikoa, ziren obra horiek.

Une hartako Hobbesen kontrako giroak Daniel Scargil 1669an Oxfordetik kanpora bidaltzean jo zuen gorena behar bada, zeinak bere burua Hobbesen dizipulu aldarrikatuz, Leviathan-en inspiraturiko doktrinak irakatsi zien ikasleei, subertsibotzat eta estudianteen fedea eta morala hondatzeko modukotzat jo zirenak. Scargil jendaurrean bere hitzak jatera behartu zuten, bere errakuntzak ustez maisu omen zuenaren printzipio filosofikoei egotziz. Bost urte geroago, Dr. John Fell, Oxfordeko Kristoren Elizako Deanak, Anthony Wooden Historia eta Antzinatea liburuen edizio oharrez hornitu batean, Hobbesen aurka zuzenean zihoan iruzkin-sorta bat sartu zuen, besteak beste, “irritabile illud et vanissimum Malmesburiense animal” izendapena ematen ziolarik<sup>7</sup>. Hobbesen kritiko eta arerioek Errestaurazioko bizitza intelektualean esku hartzen ez uzteko zuten deliberoa erabatekoa izan zen.

Bere azken urteetan, nahiz eta buru-lanetan ari izan, Hobbesek pixkanakako perlesia izan zuen. 1679ko abenduaren 9an hil zen hirugarren Earl of Devonshire-ren oinetxean, 91 urte zituela, ez sukarren edo ezein gaixotasunaren ondorioz, baizik “beregari bizi-jariakina ahitu zelako” eta “kristau onaren gisara”. Aubreyk utzi zigun anekdotario bitxian filosofoaren nortasun eta ohiturez, irakurtzen dugu Hobbes aurpegi oso handia ez zuena izan zela, bekoki zabalekoa, bibote horixka eta berez gorantz kizkurtzen zitzaionekoa, zeina den buru-zorroztasunaren zeinu. Bizarra afeitaturik erabiltzen zuen, beheko ezpainpean zeukan kokots-bizar labur bat salbu. Ez du esan nahi naturak bizar luze eta beneragarriak eman ez zionik, baina nola zen gizaseme izaera irrikor eta umore atseginetako, ez zuen inondik ere mudurritasun eta seriotasun itxurarik erakutsi nahi zorrotza bailitzan. Ez zuen nahi bere jakituria bizarraren estilotik atera zezaten, baizik bere arrazoiaren ahaletik. Ikusmen ona zuen, eta begi nabarrak zituen, azken uneraino biziz eta espirituz beteak. Arrazonamenduaren batean ziharduenean, beraietan (nolabait esateko) ikatz-txingar bat balego bezala egiten zioten dir-dir. Bi begirada-mota zituen: irribarre egitean, pikarria zuen eta ozta-ozta ageri zitzaizkion begiak; baina serio eta zorrotz jartzen zenean, begiak (hau da, betazalak) zirkulu erara irekitzen zitzaizkion: tamaina ertainekoak ziren, ez oso handiak ez oso txikiak (...). Oso liburu gutxi zituen. Sekula ez nuen ikusi (ezta Sir William Pettyk ere) dozenerdi bat liburu baino gehiago bere ikasgelan. Homero eta Virgilio eskuarki bere idazmahaian izaten ziren; batzuetan, Xenofonte, kontakizun historikoren bat, eta Testamentua grekoz (...). Asko irakurria zen, baldin eta bizitza luzekoa izan zela kontutan hartzen bada; baina bere gogoeta irakurketak baino handiago izan zuen. Esan ohi zuen beste batzuek adina irakurri izan balu, sekula ez zuela haiek baino ezagutza gehiago izango. (...) ez da bateragarri arima harmoniatsurekin emakumeak gorrotatzea, ezta ardo ona arbuizatzea ere. Baina Hobbes jauna (oro har) neurritsua izan zen ardoan eta emakumetan bere gaztaroko urteetan. Entzun nion nola esan zuen, bere bizitzan zehar, ehunen bat aldiz edan zuela gehiegi, eta horrek, zeinen luze bizi izan zen kontuan hartzen bada, urtean mozkorraldi bat baino zertxobait gehiago jotzen du. Edaten zuenean, larregiz egiten zuen oka eginez barrena garbitzeko, eta lortu ere aise lortzen zuen (...). Berrogeita hamar urteez geroztik, janarau neurritzko eta erregularra zuen. Zazpiak aldean jaikitzen zen, eta ogia eta gurina gosaltzen zuen; gero paseoa ibiltzen zen, gogoeta eginez, hamarrak arte. Gero oharretan jasotzen zituen bere pentsamenduen emaitzak, zeinak arratsaldean idazten zituen (...). Bazkaria hamaikak puntuan zerbitzatzen zioten, ezin baitzuen ordu biak arte, bere Jaunak jaten zuen ordura arte itxaron. Urdailak ez zion onartzen. Bazkalostean pipakada bat tabako erretzen zuen, eta berehalaxe ohean etzaten zen, paxa laxoturik, eta ordu erdiko losusta egiten zuen. Arratsaldean goizeko bere pentsamenduak idatziz jartzen zituen. Eguneroko bere paseoaz gainera, urtean bizpahiru aldiz tenisean jokatzen zuen (75 urte bete arte egin zuen hori), eta gero etzan eta igurtziak egiten zizkioten. Horrek bizpahiru urte gehiago bizi-eraziko zuelakoan zegoen. (...) Berrogei urteez geroztik osasuna asko hobetu zitzaion. (...) Sanguineo-melancholicus zen, buru-zorroztasun handieneko konstituzioa omen dena fisiologoek diotenez. (...) Zahartzaroan oso burusoildu zen (horrek beneragarri-itxura ematen zion), baina bonete gabe, buruhas ikasten zuen; eta ez zuela inoiz katarrorik izan, baina ohitura horren eragozpenik handiena zela buruko soilunean hazkura egiten zioten euliak etengabe uxatu behar izatea. (...) Hil zenean ia 1.000 liberako kapitala zeukan, eta zeinen karitate-egilea zen jakinik, espero zitekeena baino gehiago zen hori<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> Aip. Charles H. Hinnant in *Thomas Hobbes*, Twayne Publishers, Boston, 1977, 29. or.

<sup>8</sup> Aubrey, *ob. aip.*, 153 or. eta hh.

Hault Hucknalleko hilerrian lurperatu zuten, Londresko Hardwick Halleko parkean. Marmol beltzezko bere hilarrian inskripzio hau irakurtzen da: Vir probus et fama eruditionis domi forisque bene cognitus [Gizaseme zintzoa, bere herrian eta kanpoan ongi ezaguna bere jakite handiarengatik.].

1683an, hil eta handik lau urtetara, Leviathan, De Cive eta beste “Liburu Kaltegarri eta Doktrina Kondenagarriak” proskribatu egin zituen Oxfordeko Unibertsitateak, publikoki sutara botatzeko aginduarekin.

Hobbesen pentsamenduari buruzko bibliografia hain da zabala<sup>9</sup>, non ezer gutxi esan daitekeen berririk, sarrerako orrialde batzuetan, Leviathan-en esanahiaz eta funtsezko argudioaz, zeinak obraren osagai diren lau atalen artean dagoen bereizkuntza gorabehera, guztiak bateratzen eta zentzuz hornitzen dituen. Filosofia moral eta zibileko argudio bat da, zeinaren baliagarritasuna neur daitekeen, Hobbesen iritziz, hura ez ezagutzetik datozen ezbeharretatik.

Gizaki ororen azken helburua, dio funtsean Hobbesez, Zoriona da. Eta hura lortzeko, norbanako bakoitzak derrigor eskuratu behar ditu hartara eramaten duten bitartekoak. Bere jarduera borondatezkoa, hau da, bere grinak menperatzen dituen mugimendua, desiraren eta aiherraren artean kulunka ibiltzen da: desira, gizakiak zerebroan eratzen zaizkion imajinak gura dituenen<sup>10</sup>; aiherra, errefusatu eta gorrotatzen dituenen. Halako moldez, non gizakiari nahigarri gisa agertzen zaion guztia, ongi deituko duen berak, aldiz errefusagarri iruditzen zaizkion objektuak, hau da, imajinak gaizkitzat joko dituen. Ez dago, beraz, ongia eta gaizkiaren arau zorrozki objektiborik, aitzitik horiek gizaki bakoitzak, abagune eta inguruabar desberdinetan, halakotzat jo ditzanaren baitan egongo dira. Alabaina, desira eta aiherraren indarrak norbanakoaren buruan diharduten bitartean, hark argiro bereizi gabe zein izango den azken finean bere maitagaia edo gorrotagaia, deliberatzen ari dela diogu, zeinahi dela ere, eta horrek bere Nahimena zer den islatzen duela. Baina giza kondizioa halakoa da, non , gizakiak bere desira bete duenean, jarraitzen du Hobbesez, gura zuena lortuz, horrek ez du esan nahi atsedena har dezakeenik bere patu onean, ezta horrela lortutako zoriona behin betiko bermaturik dagoenik ere. Guztiz alderantziz baizik; “Zeren”, esango du Hobbesez, “antzinako filosofo moralen liburuetan aipatzen zaizkigun finis ultimus (azken xedea) edo summum bonum (onik handiena) hori ez baitago inon”. Bizitza honetako zoriona ez datza erabat asetako gogamen baten atsedenean, eta arrazoi simple batengatik, zeren desirak bete zaizkion eta zentzumenak eta irudimena egonkor gelditu zaizkion gizakiak une horretan bizi izateari utziko baitziokkeen. “Zoriona desiraren taigabeko aurreramendua da objektu batetik bestera, bat eskuratzea hurrengo lortzeko bide besterik ez izanik (...)”. Gainera, “gizakume guztien nahitako egintzak eta jauginak ez doaz bizitza zorientzua eskuratzeraz soilik, berau segurtatzera baizik” (11. kapitulua).

Eta nola zoriona segurtatzeko ahalegin hori gizaki bakoitzak metatzea iristen duen botereak erabilian jarritz soilik burutu daitekeenez gero, gizadi osoaren lehen makurdura naturala boterearen atzetik boterea eskuratzearen desira betiko eta nekaezina da, heriotzarekin soilik ahitzen den desira. Horrela, botereak metatzeko desira, espezieak izankide duena, ez dator aurretik izan duena baino asetze biziago bat horrela gozatzea espero izateetik, edo botere moderatu batekin ez nahikotzetik, “baizik eta presentean ongi bizi izateko dituen boterea eta bitartekoak ezin dituelako segurtatu, beste batzuk gehiago eskuratu gabe.”.

Horri beste zirkunstantzia bat gehitu behar zaio, argudioaren funtsa zehatz ulertu ahal izateko. Botereak gehitzeko bere desira naturalean, gizaki bakoitzak beste gizaki bati aurre egin behar dio. Eta aberastasunak, ohoreak, karguak, edo beste edozein botere-zeinu lortzeagatik konkurrentzia horrek antagonismora, etsaitasunera eta gerrara eramaten du. Horrek dakarren egoera guduzkoa ezinezkoa litzateke (eta horretan datza Hobbesen argudiaketaren zutabeetako bat) baldin eta gizakien arteko diferentzia naturalak azkeneko horiek lehenekin lehian sartzea ezinezko bihurtuko balu. Baina gertatzen da, dio Hobbesez 13. kapituluko hasierako pasartean, “naturak hain berdinak egin ditu gizakumeak euren gorputz eta arimako ahalmenetan, non zenbaitetan gorputzez besteak baino nabarmenki sendoagoak edo adimenez bizkorragoak diren gizakumeak aurkitzen badira ere, dena orohar kontuan hartzen dugunean, gizakumearengandik gizakumearengana dagoen aldea ez da, izan, gizakume batek beretzat beste batek hark bezainbatean galdatu ezin duen onuraren bat galdatu ahal izaterainokoa. Zeren, gorputz indarrari

---

<sup>9</sup> Hobbesen obrarik ezagunenaren edizioetan sarrarazi ohi diren bibliografia partzialez gainera, bada eskuraeraz den erreperitorio bibliografiko oso bat: *Hobbes Studies (1879-1979) a Bibliography*, William Sacksteder, Philosophy Documentation Center, Bowling Green, Ohio, 1982.

<sup>10</sup> Gizakiari ezagutzaren subjektu gisa banaka harturik eta ezagutze-prozesuari berari eskainita daude *Leviathan-en* Lehen Ataleko hasierako kapituluak. Bertan aurkituko du irakurleak, eta laburbilduan. Hobbesen enpirismo *gnoseologikoaren* aurkezpen bat.

dagokionez, ahulenak indartsuena hiltzeko adinako indarra baitauka”; eta ahalmen mentalen berdintasunari dagokionez, giza jakituria (alde batera utzirik hitzaren arteak eta zientzia positiboak), hau zuhurtasunaren baliokide da, gizakumeek berdinki lortzen duten bertutea “denbora-tarte berean bizi badira”. Oinarrizko berdintasun natural hori guztien artean lehiakortasunak, elkarrenganako mesfidantzak eta aintza-irrikak eragindako desadostasun hirukoitza sortzen du. Hitz batean, naturako egoeran, taigabeko gerra bat gertatzen dela “gizakume orok gizakume ororen aurka”, non ez dagoen inolako lege moralik. Ez da ezer injusturik gerrako egoera naturalean, zeren nozio horrek ez baitu lekurik han. Eta ondorioz, ezin liteke jabetzarik ere izan, ezta nirea eta zurearen arteko bereizkuntza legezkorik ere, ez industriarik, ez merkataritzarik, ez aterik, ez letrarik. Hortik dator, baldintza horien pean, giza bizitza “bakartia, pobrea, nazkagarria, abereen modukoa eta laburra” izatea.

Estatuaren instituziotze-prozesuaz Hobbesek ematen duen azalpena premisa honetatik abiatzen da, beraz: gizaki bakoitzak gizaki bakoitzaren aurka egiten duen gerratik, elkar deuseztatzearen beldurretik. Horrelakoa izan zen egoera gizadia hipotesizko egoera natural batean bizi izan zen bitartean. Uler bedi Hobbes, bere hipotesian, ez dela mintzo egoera hautatu batez, baizik egoera emandako batez, faktore innatuen emaitzaz, inola ere inori atseginik inoiz sortu ezin ziezaiokeen batez. Eta horrela, gizakiak berak dira, naturaz aurkitzen direneko ezbeharraz eta sufrimenduaz gogoeta eginez, beren zorigaitzaren kausari erreparatzen diotenak, eta ondorioztat ateratzen dute ez dela inolako plazerik izango elkarbizitzan erabateko deuseztapenaren mehatxu horretatik babesteko gai izango den botere nagusirik ez den tokian. Mehatxu horrek eragiten dio presioa berez gizakiari, zeinak autodefentsa eta babesaren desira naturalei erantzunez (zeren ez baita ahaztu behar guztiek guztien kontrako gerra horrek baduela, azken finean, babes-helburu bat) jotzen duen, lege naturalaren arabera, estatuaren instituziora, zeinaren eginkizuna den sendatzea edo, gutxienez, sorrerako egoera haren lazgarrikeriak gutxitzea.

Hobbesentzat, lege natural bat “arrazoimenak aurkituriko agindu edo arau orokorra da, zeinaren indarrez gizakumeak debekatzen zaion bere biziarentzat suntsikorra den edo berau zaintzeko bitartekoak kentzen dizkion oro egitea edo berau zaintzeko biderik onentzat daukana ez egitea.” (14. kapitulua).

Gizakiak, bilakaera-prozesuan, aurkitzen duen naturako lehenengo eta oinarrizko legea, bere ezaguerara iristean, honako hau da: gizakume orok bakea bilatu behar duela hura erdiesteko esperantza dueino. Eta horren korolariotzat, gizakumeak prest eta gogotsu egon behar duela, besteak ere horrela daudenean, bakea eta nork bere defentsa beharrezko uste duen punturaino lortzearen, gauza guztietarako eskubidea ez erabiltzeko. Eta besteekiko askatasunari buruz berak besteei utziko liekeen bezainbat askatasunez konformatzea, bera ere.

Beraz, erratua litzateke Estatuaren instituziora jotzean, Hobbesek ulertzen duenez, giza arrazoiaren eskari naturalak direnei uko egite bat ikustea. Hobbesen arabera, ez dago ezer antinaturala denik horretan<sup>11</sup>. Hobbestar Estatua, izan ere, emaitza artifiziale da, baina bere asmakuntza, ikus bedi paradoxa, erabateko adostasunean dago lege naturalekin. Baldin eta gizakiak zuzentzen badu biziraupenezko bulkada oinarrizkoa, zeina hasiera batean agertzen zen beste gizaki bakoitzaren kontra egiten zen gudukatze bortxazko eta jasanezinean, beste era batera asetzeko baizik ez da, arrazoi naturala erabiltzearen bitartez.

Gizakiak berez bere burua babestearen eskubideari uko egitean, eskubide hori beste pertsona bati transferituz, egiten duena (orain ikusiko dugunez, pertsona subiranoa izango dena) biziraupen-legearen arabera jokatzeko da, naturako printzipio gorena baita; zeren “gizakumeak bere eskubideak utzi eta transferitzeko duen zioa eta xedea, bizitzan bere pertsonaren segurtasuna eta bizitzari ez nazkatzeko neurrian iraunarazteko bitartekoak lortzea besterik ez da (14. kapitulua).

Zein da orduan Estatua, hau da, Babesle Handia sortzen duen prozedura? Lehenik, eta gizaki bakoitzak babes desiragarria aurki dezan, beharrezko da botere komun subiranoa ezartzea, bai norbanako bakarrean haragiztatua edo norbanakoen biltzar batean, guztiak ikaratzeko besteko indarra duen batean. Ez da desagertzen, beraz, beldurra elkarbizitzaren faktore baldintzatzaile gisa, baizik eta guztiek guztienganako

---

<sup>11</sup> . Ez da harritzekoa Hobbesen ondoko tradizio absolutistak, gizarte zibilaren eratze-prozesuaren bere azalpenean, berorren izaera naturala gehiago azpimarratzera jotzea, kontratu-artifiziozko aztarna oro ezabatzeraino. Halakoa da, esaterako, Louis de Bonald-en pentsamendu politikoari eusten dion kontzeptzioa, zeinarentzat botere absolutuaren erakuntzak osatzen baitu gizartearen egoera legítimo eta naturala.. Louis de Bonald eta bere teoria politikoaz Leopoldo Eulogio Palaciosen aurkezpen kritikoko lan batzuk ikus daitezke, oraindik orain edizio postumo batean bilduak: *Estudios sobre Bonald*, Speiro, Madrid 1987.

duten beldur orokorra izatetik, guztiek bakarrenganako duten beldur orokor izatera pasatzen da, hau da, botere subiranoarenganako: gizakiak zein bere lekuan mantenduko dituen eta menpekoen egintzak onura kolektiboa lortzera zuzenduko dituen “ezpataren beldurra”. Botere komun hori eraikitzeari buruz Hobbesen hitzak honako hauek dira:

Gizakumei, atzerritarren inbasiotik eta euren arteko zuzengabekerietatik defendatuko dituen, eta euren lanaz eta lurraren fruituz elikatu eta pozik bizi ahal izateko segurtasuna emango dien botere komuna eraikitzeko bide bakarra, euren botere eta indar guztia gizakume bakar bati edo biltzar bati ematea da, askotariko bozez guztien nahimenak nahimen bakar bat izatera ekarri ahal izateko. Edo gauza bera dena, gizakume bat edo gizakumeen biltzar bat izendatzea euren ordezkari izateko; eta bakoitza jabetzea euren ordezkari denak bake eta segurtasun komunari dagozkion gauzetan egin edo eragiten dituen ekintza guztiez eta norbere burua euren autoretzat hartzea; eta, ondorioz, beren nahimena ordezkari horren nahimenaren menpe eta irizmenak haren irizmenaren menpe jartzea. Hau baiespena edo adostasuna baino gehiago da; guztien benetakotasuna da pertsona bat eta berarengan, gizakume bakoitzak gizakume bakoitzarekin egindako hitzarmenaren bidez lortua, bakoitzak bakoitzari esan izan balio bezala: Nik gizon hau edo gizonen biltzar hau eskuesten diat eta neure burua gobernatzeko eskubidea ematen zioat, beldin heuk ere heure eskubidea ematen badiok eta beronen ekintza guztiak berdinki eskuesten badituk. Hau eginik, horrela pertsona bakar batengan baturiko gizatalde handi honi Estatua deritzo, latinez Civitas. Horrelaxe sortzen da Leviathan handi hori, edo, begiramendu gehiagoz hitz egiteko, jainko hilkor hori, zeinari zor diogun, Jainko hilezkorren pean, geure defentsa eta bakea. (...) Eta botere eta indar horren beldurra medio, denen nahimenak barruko bakea eta atzerriko etsaien kontrako elkarlaguntza lortzera bideratzea (...) Eta berarengan datza Estatuaren muina, honelaxe defini dezakeguna: pertsona bat, zeinen egintzen autore jendetza handi bateko kide bakoitza egiten den elkarrekiko hitzarmenez, pertsona horrek denen indar eta bitartekoak erabili ahal ditzan, egoki deritzon moduan, haien bake eta defentsa komunerako.

Elkarrekiko akordio horren ondorioak ez zaizkio inori oharkabea itzuriko Baina hitzarmenaren bi ezaugarri kontuan hartzea komeni da, garrantzi handikotzat jotzen baititut Hobbes hemen esaten ari dena ulertzeko. Lehena, kontratuaren arabera, berorren partetzat subiranoa kanpoan uztea da. Menpekoak, edo hobeki esateko, menpekogaiak, ez dute subiranoa edo asanbladarekin itunik egiten, baizik eta beren artean egiten dute akordioa. Horrek esan nahiko du, zernahi egiten duelarik ere, ezin izango dela kontratua hausteaz subiranoa salatu, zeren ez baitzuen ezertara behartu bere burua Estatua eraikitzean. Jendetzako norbanakoen nahimenaren emaitza da komenioa, zeinek libreki erabakitzen duten menpeko bihurtzea. Begi-bistakoa da, baldin eta subiranoak akordioan esku hartu izan balu beste edozein menpekoek bezala, ez litzateke gaiturik egongo, laster ikusiko dugunez, Hobbesek izendatuko dion botere guztia baliatzeko.

Azpmarratzea komeni da bigarren ezaugarria testuan “pertsona” eta “baimen” terminoei ematen zein esanahi zehatza da; Hobbesek 16. kapitulu luze eta zabal garatzen du auzi hori eta komenioaren definizioan bere zentzurik betena lortzen du. Jadanik esana gelditu da, eta merezi du behin eta berriz esatea, gizarte-itun hobbestarra gizarte zibila giza naturaren postulatuetatik<sup>12</sup> deduzitzen deneko baliabide bat dela; eta pactum unionis gisako bat dela, zeinaren bitartez norbanako-nahimenen aniztasuna murrizten den, guztien edo askotzaren gehiengoaren adostasunez, nahimen korporatibo bakarrera, pertsona bakarrengana, zeinaren egintzez askotzak berak berganatzen dituen bereak izango balitu bezala. Horregatik esan daiteke, zehatz hitz eginez, nahiz eta ironiazkoa izan antzeko konklusio bat, Leviathan-en argudio politiko handi eta sotila azkenean herri-gobernu batean amaitzen dela, zeinean berorren nahimena botere subiranoak “ordezkatzeko” duen, inolako motatako erreibidikaziotarako lekuri gabe, zeren hori kontraesatea izango bailitzateke, gurari zentzugabea, gerri-ituna ezarri deneko terminoei. Araubide subiranoa monarkia izatea (baten gobernu), aristokrazia (gutxien batzuen gobernu), edo demokrazia izatea, Hobbesek esango dioenez, komenioaren funtsarekiko albo-auzia da. Herria izango da beti gobernatzaile, Estatu subiranoaren pertsonak ordezkaturik; menpeko bakoitza izango da beti ezarritako subiranoaren egintza eta judizio guztien autorea<sup>13</sup>.

<sup>12</sup> Esamolde hau orain Richard Peters-en liburutik hartzen dut: *Hobbes*, Greenwood Press, Westport, Connecticut, 1979. Penguin Books, 1956ko edizioaren berrinprimatzea.

<sup>13</sup> Ideia horri erantzuten dio *Leviathan*-en orrialde titularrean ageri den, eta hemen birsortzen dugun grabatu alegoriazkoak. Gorputz politikoaren irudi grafiko horretan, herria dator, multzo estuan, bere bizkaralde eta besoak eratzen.

Baina itunaren eragingarritasuna ezeztaturik geldituko litzateke subiranotasuna daukanari herriak transferitutako eskubideak absolutuak ez balira. Leviathan-en 18. kapituluaren subiranoari dagozkion eskubideen zerrenda eskaintzen da: judikatura-eskubidea, gerra egin eta beste Estatu batzuekin bakea sinatzekoa, menpekoak saritu eta zigortzeko eskubidea, eta abar. Subiranoari ematen zaion botere absolutuaren aurrean izan zitezkeen erreakzioei aurre harturik, Hobbesek ohartarazten du “Norbaitek hemen iharduki dezake menekoen egoera oso miserablea dela, eskuetan horrelako botere mugagabea daukan edo daukatenen desira eta beste grina irregularren pean bizi direlako.”

Eragozpenari ondoko lerroan erantzuten zaio, argudioaren auresuposatuak kontutan izanik, aurrikusgarriak ziren terminotan: “Eta kexatzen direnak ez dira ohartzen gizakumearen egoera ezin dela inoiz ere deserosotasun bat edo beste gabekoa izan, eta edozein gobernu-eratan herriak jeneralean izan dezakeen handiena ere apenas dela kontuan hartzekoa, gerra zibil batek ekartzen dituen miseria eta lazeria izugarriekin konparatuta edo gizakumeek, ez nork agindurik ez legearekiko menpetasunik gabe, eta harrapakeria eta apartatzeko indar behartzailearik gabe dihardutenean izaten duten egoera zabarraren ikusian.”

Pertsona subiranoari ematen zaizkion eskubideen zerrenda luzea irakurketak, eta hartatik ateratzen den doktrina politikoak gaur guretzat zer esan nahi duen alde batera utzirik, nabarmen erakutsiko du bere une historikoan Hobbesek lehen mailako kezka izan zuena, eta neurri handi batean liburuaren eragile izan zena. Obraren tituluan eta gutun eskaintzazkoan enuntziaturik dagoenez, Leviathan-en orrialde guztietan azpitik doan ideia: Hobbesek aipatzen digun Estatuaren gaia, forma eta boterea Elizakoa eta Zibila, parte berdinetan, subsumitzen direnako batasun politikoaren gaia, forma eta boterea dira. Bi terminoen artean sartzen den “eta” lokailu marratxo batez ordezkara liteke. 18. kapituluaren aipaturiko eskubide guztien artetik, Hobbesek hisitukiago azpimarratzen duena ezarritako Estatuko menpekoak, eta gizarte-gorputzaren kide gisa, subiranoari erabateko obedientzia erakustera behartzen dituenak da, bai gai zibiletan eta bai gai erlijiozkotan. Moralista ona zenez, Hobbesek onartzen du gizaki bakoitzak gogoak ematen dion sineste erlijiozkoari in foro interno atxikitzeko duen barne-askatasuna. Baina antolakuntza politikoaren kide den heinean, subiranoaren menpean jarri beharra dauka menpekoen artean bakea iraunarazteko hark beharrezkotzat jo dezan guztia erekin, zeinaren baitan dagoen pertsona subiranoak eta berak soilik, ongi komunera bidetzat jotzen dituen doktrina eta iritziei men egitea. Subiranoak doktrinak kontrolpetzeko eskubidea uzten badu, gizakumeak errebelatu egingo dira espirituen beldurrez”. Hortik dator Leviathan-en bi azken parteak, zeinak beren hedadura gorabehera gutxi iruzkintzen direnak, eta arestiko zenbait ediziotatik baztertuak ere bai, ezinbestekoak izatea autorearen asmorik benetakoaren alertzeko.

Hirugarren Partearen eraso xehe bat da, erreferentzia biblikoak jositako, eliz botereak eta aita santuaren botereak bereiziki, beretzat erreklama lezakeen imperium in imperio horri. Aldi berean artzain-makila eta agintari zibilararen ezpata eskuan hartzen dituen subiranotasun baten aldeko argudioa Kristoren Erreinua ez dela mundu honetakoa aitortzen duen perpaus ebanjelikoan oinarriturik dago; Hobbesek behin eta berriz errepikatzen duenez, Eliza Erromatarreko Pontifize Gorenak ez dute behar bezala ulertu eta ez errespetatu. Ezta beste konfesioetako eliz ordezkariak ere. Subirano legitimoarenez aparte ordenak ematen dituen Eliza oro, epaitzen du Hobbesek, usurpazioz errudun da. Hobbesentzat, mundu honetako elizaren egitekoa fededunei gomendio eta aholkuak ematera mugatzen da; Kristoren Bigarren etorrerarako prestatzera; itxarote horretan lagundu eta adoretzea. Eta kito. 42. kapituluaren liburu luzearen denboran, Hobbesek Bellarmino Kardinalaren, Aitasantugoaren nagusitasunaren defendatzailearen argudioen ezeztapen xehe eta suhar samarra aurkezten du. Kristo errege dela eta Aitasantua eta bere ministroak Kristoren mundu honetako ordezkari direlako printzipioari eusten dion irakaskuntza katolikoaren aurrean, Hobbesek, Eskriturako testuetan bere erantzuna oinarrituz, alderantzizko ondorioak ateratzen ditu, eliz botereak bere buruari egotzi nahi dion edozein “erregetza”-nahi ezabatuz. Elizak ez du erregetzarik, Kristok ez baitu erregetzarik. Erregetza, dio Hobbesek, lurrean egon zen bitartean izan zuen, eta Piztuera unibertsalaren ondoren izango du berriz ere erregetza. Bitartean, “birsorkuntza” batean bizi gara, eta denboraldi horretan ez dago eliz boteretik, botere zibiletik bereiz, ezin obedientziatara behar dezakeenik. Menpekoen batasun-itunak ezarritako subiranoak agindutakoa bakar-bakarrik hartu behar dute Jainkoaren nahitzat, hura baita legeak ordenatu eta diktatzeko pertsona gaitu bakarra. Beren aldetik “Kristoren ministroen eginkizuna, mundu honetan” eginkizun bakartzat “gizakumeak Kristorengan sinestera eta fedea izatera eramatea da”. Baina fedea ez du inolako zerikusirik derrigortzearekin edo aginduekin.

Laugarren Partearen botere zibilararen ginetik elizak duen nagusitasunari egindako eraso bezala kontzebitua, Ilunpearen Erreinu horren salaketa garrantza da, zeina Hobbesek dioenez, ezkututa eraikitzen baitu Eliza



osoak bere burua gizarte independente gisa antolatuz, era desegokian “espiritual” deitzen zaion eskuera bat erreklamatzu beste Estatu batzuetako menpekoei gain, eta haiengan, jardura eta doktrina superstiziozkoen bitartez, legitimoki ezarritako subiranoaren kontra sedizio eta errebeldiaren hazia ereinez. Obraren azken atal horretan, mihi zorrotz eta gupidagabez, askorentzat zalantzarik gabe iraingarri eliz boterearen interesak, bere ustez, oinarritzen direneko espiritualitate-nahikeriei irri egiten die. Hobbestar argudioaren testuinguruan, diatriba hori aurreko guztiaren ondorio logiko besterik ez da, itunaren deuseztapen posiblearen aurrean azken arreta moduko zerbait; beste mundu batean Jainkoak emango omen lituzkeen zigorraren beldurra eragingo lukeen deuseztapena, mundu honetan botere subiranoak sortaraz lezakeena baino askozaz beldurgarriagoak. Botere zibilarekiko beldurra, esango du Hobbesek, ez dago espiritu txar, garbitoki, infernari zaien beldurrez eklipsatzerik. Mehatxu horien kontra Hobbesek justifikazioaren teoria bat proposatzen du teologia erreformistarekin ados dagoena eta agian liburuak daukan puntu askatzaile bakarra dena: gutxi eskatzen zaie fededunei, baieztatzen du Hobbesek, Salbamena lor dezaten; Jesus Kristo ba dela barrenean onartzea aski izango da fededunen arimak justifika daitezen Azken egunean.

Hauxe da, laburbildurik Leviathan-en argudio nagusia. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa litzateke Hobbesi justizia egitea hitzaurre orok onartu beharreko eremu mugatuan. Hobbestar diskurtsoak darabilen estilo filosofikoaren aspektu garrantzizko eta egungoa, adibidez, obran planteaturiko auzi nagusien trataerari ematen zaion isuri linguistikoa da. “Hizkuntzaren filosofoaz” gainera Hobbes eskriturista, historialari, mitologo, fisikari eta geometraz ere hitz egin liteke. Eta, jakina, Hobbes ekonomialari eta soziologoaz, gai oso bateko ezagueraren emarian “egunera zegoen gizona”. Sarrera honen helburuetarako, behin eta berriz esan dezagun Leviathan botere absolutuaren apologia handia eta bere ariketaren defentsa handia dela.

Boterearen errealitate onarturik, aldi eta alde bakoitzean halakotzat hartzen denaren definizioa bila liteke, baita abstraktuan terminoaren esanahi orokorra zer den ere. Hobbesek bi gai horiek, Leviathan-en 10. kapituluari tratatzen ditu. “Gizakiaren BOTEREA, unibertsalki hartuta, gauza on bezala agertzen zaion xedea erdiesteko eskueran daukan bitartekoak dira.

Hori horrela izanik, hurrengo galdera da Hobbesentzat bitarteko horiek zeintzuk diren ikertzea da; edo, gauza bera dena, zerk eragiten duen gizaki bat, besteen usterako, boteretsu izatea, edo bere pertsona OHORE eta DUINTASUNA emanez balioestea. Arazoa, nahiz eta funtsean argudioarekin zerikusirik ez izan, interes handienekoa da. Zeren Hobbesek pertsonalitate boteretsuaren zeinutzat ulertzen zuenetik atera ahal izango dugu gizarte-BALIASUNAZ zer ideia izan zuen.

Hobbesen obrek sortzen duten lilura etengabeaz hitz egin izan da, eta gaur egun irakurtzen eta estudiatzen direneko jakin-min berrituaren berri ematen duen zerbait baldin badago gure mendea botere-arazoez obsesionaturik egotea dela, eta Hobbes, izan ere, bere aztertzaile nagusienetako bat izan baitzen. Boterearen gida analitiko baten bila Leviathan-era doanak aipaturiko 10. kapituluari jo behar du oso bereziki, han eratzen du Hobbesek, “giza botereetan handiena, gehiengoaren botereek pertsona natural edo zibil bakar batengan baturik, haien baiespenez, osatzen dutena da”, bere botere jatorrizkoa edo instrumentalen zerrenda. Lehenbizikoen bitartez –gorputzeko edo gogameneko indar apartekoa, itxura, zuhertasun, trebetasun, bokantza, eskuzabaltasun, prestutasunaren bitartez- bigarrenak lortzen dira – aberastasuna, entzutea, adiskideak-, “eta gizakumeek zorte ona esaten dien Jainkoaren asmo ezkutua”.

Hobbesen kritikalari batzuek –Lord Clarendonek bere garaian, eta, gerora, Strauss eta C.B. Macphersonek-, arreta berezia erakutsi diote Leviathan-i klase-hobespen baten errainu gisa, Hobbesen doktrina politikoak faboratzen edo errefusatzen dituen eredu sozial eta ekonomikoak identifikatzen ahaleginduz. Clarendonek Leviathan-en baitan “Nobleziaren kritika muturreko eta makurra “ikusi zuen”<sup>14</sup>. Antzeko iritzia du Leo Straussek zeinarentzat “nahiz eta Hobbesek pertsonalki oso estimu handitan izan klase aristokratikoa (...), bere filosofia politikoa bizitza aristokratikoaren arauen kontra zuzendurik zeukan, arau burgesak babestuz”<sup>15</sup>. Berrikiago, eta interpretazio-ildo beretik, C.B. Macphersonek hobbestar pentsamenduan Macphersonen berak “possesive market society” deitzen duenaren ereduera moldatzen den doktrina-gorputz bat ikusten du: gizarte hasimasizko eta lehenaren, “zeinean merkataritza-erlazioek forma eman eta blai egiten duten beste edozein gizarte-erlazio, harik eta

<sup>14</sup> . *A Brief and Survey of the Dangerous and Pernicious Errors to Church and State in Mr Hobbes's Book, Entitled Leviathan*, Oxford, 1676, 181 or.

<sup>15</sup> *The Political Philosophy of Hobbes: Its Basis and Genesis*. Ingelesetiko itzulpenetik hartzen dut aipua, Oxford, Clarendon Press, 1936, 120 or.

merkatu-gizarte deitzeko punturaino, eta ez merkatu-ekonomia soilik<sup>16</sup>”. Macphersonen arabera, Hobbes funtsean teoriagile politiko burgesa da, zeinaren subiranoaren betebeharren. gizarte-BALIASUN eta kontribuzio publikoaren ideiak “burgeois through and through” diren.

Bada, izan ere, Leviathan-en ageri diren testu txikiagoen eta horien lagungarritzat ekar litezkeenez gain, balioaren definizio bat, zeinaren arabera “gizakume baten BALIASUNA edo balioa, beste gauza guztiena bezala, harena salneurria da, hau da, haren boterea erabiltzeko emango genukeena”: Horretatik ateratzen du Macphersonek Hobbesek balioespenaren bere teorian, agian inkontzienteki, erabiltzen dituen gizarte-ereduak, merkataritza-konkurrentziak eraenduriko mundu batean nagusi den antzeko “ohore” eta “duintasun” kontzeptu bati erantzuten diotela, zeina ahalegintzen den, ia gainerako guztia alde batera utzirik, lorpen-botereak ia soilak eskuratzen. Baina egia bada ere Hobbesen hitzek interpretazio horretarako bidea zabaltzen dutela, halaber, egia da botere-zeinu desberdinen zerrenda egitean, beste batzuk ere ageri direla “funtsean aristokratikoa den ethos hobbestar” batez hitz egiteko aukera emango luketenak<sup>17</sup>. Hobbesek norbait ohoragarri, duin eta, ondorioz, boteretsu delakoaren ebidentziatzat jasotzen dituen kualitateak aristokratikoak eta heroikoak dira:

“Aberastasunak, eskuzabaltasunarekin batera, boterea dira, lagunak eta zerbitzariak dakartzatelako. Eskuzabaltasunik gabe ez da halakorik gertatzen, kasu honetan aberastasunek ez dutelako gizakumea babesten, baizik besteen bekaizgoaren arriskupean uzten harrapakin gisa. Halaber Hobbesentzat “noblezia boterea da”; “guraso ospetsuak izatea boterea da”; “adorea eta konfiantza izatea boterea da”. Eta abar.”

Hobbesi egotzirik, izaera burgesa eta indibidualismo jabetzazalea nekez ados jar litezke Leviathan-en dauden baieztapen esplizitu askorekin. Hobbesek – eta A.A. Rogow-en urratsetatik nabil-- jabetza pribatuan sinesten du, nahiz eta azpimarratzen duen honek subiranoaren baitan egon beharko duela beti eta haren eskura egon. Liburuko ezein pasarteaz ez dugu gomendiorik aurkitzen, aberastasuna lortzea eta gordetzea beste edozein helburu baino desiragarriagozat proposatzen duenik<sup>18</sup>. Nik beste zerbait gehiago erantsiko nioke. Hobbesentzat, bere ondasunen gain edozein norbanakok erreklama dezakeen jabetza absolutua, subiranoaren eskubideak eskuditzen dituen, hain zuzen ere estatuaren disoluziora jotzen duten doktrinatariko bat da (29. kapitulua). Gizartearen antolakuntza politiko, militar, elizazko eta ekonomikoaren teoria hobbestarra sostengatu eta zuzentzen duen eustazpia ez da, bada, kapitala eskuratu eta gordetzea, oinarritzakoago eta premiazkoagoa den zerbait baizik: biziari iraunaraztea. Jatorrizko paranoia, horrela hitz egiterik balego, ez du pobretasunak sortarazten, elkar deuseztearen beldurrak, gerra zibilak eta heriotzak baizik.

Itun politikoaren –esan dugunez, oso berezia denaren-- printzipioen lehen aurkezpen koherenteetako bat aurkitzeko Hobbesengana jo behar izateak esanahi handirik ez du teoria demokratiko modernoaren alde. Hala eta guztiz ere, prezeptu hobbestar batzuk ezarri beharko litzaizkioke gizarte-hitzarmen orori, elkarbizitza razionaltzeko eskariari erantzuten dioten heinean gutxienez. Horri zor zaio Hobbes arreta bereziaren gai izatea Benthan eta eskola utilitarioarentzat legegitzaren teoriaren bere garapenean, baita guretzat ere izatea.

Leviathan-ek bere baitan mezu sozialista daukalakoa “estatu ahalguztidun baten, gerraurreko Alemanian Nazional Sozialismoak ezarri zuenaren, eta Burdinazko Gortinaren atzean oraindik ere badenaren erakoaren<sup>19</sup>” aldeko manifestu bat Hobbesen teorian ikusten dutenek sostengatu duten interpretazioa da. Bere garaian, eta De Cive argitaratu ondoren, Hobbes “ateotzat” jo zuten, gerora behin eta berriz errepikatu den salakuntza eta agian egia izan litekeen arren, Leviathan-en ezein orrialdetan sostengatzen ez dena.

---

<sup>16</sup> *The Political Theory of Possessive Individualism*, Oxford University Press, 1979 (Jatorriz 1962an argitaratua), 48 or. Macpherson-en apreziazioak *Leviathan*-i egindako bere hitzaurrean ere jasota daude, Penguin Books, Baltimore, 1968

<sup>17</sup> Horrela ulertzen du Charles H. Hinnant-ek: *Thomas Hobbes*, Twayne Publishers, Boston, 1977, 112 or. Iritzi horri, nire ustez, Hobbesek *Leviathan*-en noblezia eta aristokraziari zuzentzen dizkien larderiek duten zentzua gehitzen diot. Nobleak botere gehiegizkoa hartzen duenean, subirano legitimoaren parean jartzeraino, orduan gaitzetsi behar da. Horri buruzko aipamen argi bat “Estatua ahultzera edo desegitera daramaten gauzez” titulutzat duen 29. kapituluan dago.

<sup>18</sup> Arnold A. Rogow: *Thomas Hobbes, Radical in the Service of Reaction*, Norton & Co., N. York, 172 or. eta hh.

<sup>19</sup> M. Ashley: *England in the Seventeenth Century (1603-1714)* Penguin Books, Londres, 1956, 114 or.

Liburuak ahalegin espekulatzailerik gisa esan nahi duenean, Leviathan “ingeles idatziriko filosofia politikozko maisulan handien eta, agian bakartzat” txalotua izan da<sup>20</sup>. Baina “munstro fantastiko” gisa ere ezaugarritu izan dute “ ingeles pentsamenduaren historian fenomeno bakartzat, aurrekorik eta ondokorik gabe; gordin, akademizista eta erratutzat”<sup>21</sup> ere bai.

Ziurrena da egiazko zerbait izatea judizio horietan guztietan Leviathan bezalako liburu anizkun bati aplikatuta, izan ere obraren tamainak, beste edozeren gainetik, eta begikotasun eta ikusezinak alde batera utzirik, imitaezinaren harridura sortzen baitu.

Carlos MELLIZO

# Godolphingo MR. FRANCIS GODOLPHIN NIRE LAGUN TXIT AGURGARRIARI

Jaun agurgarri hori,

Mr. Sidney Godolphin zure anaia bikainak, bizirik zela, nire azterlanak aintzat hartzekotzat zituen, eta, dakizunez, haren iritzi on horren aitoren zintzoen ohorea jasotzerik ere izan nuen; aitoren baliotsuak berez, baina are baliotsuagoak haren pertsonaren bikaintasunagatik. Izan ere, ez da giza bertuterik, dela Jainkoaren zerbitzutan, dela norberaren herriaren, gizarte zibilaren edo adiskidetasun pertsonalaren zerbitzutan jarritako giza bertuterik, diot, haren solasean gardenki agertzen ez zenik; eta ez ezinbestez bereganatuak edo konpromenez adierazi beharrekoak zituelako, baizik berezko zituelako, bere naturaren izaera naharoan distiratsu. Beraz, haren ohorez eta esker onez dedikatzen dizut apalki, eta zerorrenganako debozioz, Estatuari buruzko nire diskurtso hau. Ez dakit zelan hartuko duen munduak, ezta zein moduz islatuko den ere itxura batean aldeko harrera egingo dion jendearengan. Zeren batzuen eta besteen mehatxupearan aurkitzen delarik nolabait, askatasun gehiegiren aldekoak batetik eta autoritate gehiegiren aldekoak bestetik, zail izango baitu bien ezpatapetik zauririk gabe iragaten. Hala ere, botere zibilaren aurreramentua bilatzeko saioak ez luke gaitzetsia izan beharko, nik uste, botere zibilaren beraren aldetik; gizabanako partikularrek ere ez dute esan gura izaten, botere hura kritikatzegatik, gehiegizko botere deritzotenik. Gainera, ni ez naiz mintzo hemen gizakumeez, baizik boterearen aulkiaz abstraktuki (Erromako Kapitolioko kreatura tolesgabe eta inpartzial haietariko bat bainintzen, han barruan zeudenak defendatzen deiarrez, zirenak izatearren ez, baina han egotearren), eta uste dut ez diodala inori ere minik ematen, kanpoan direnei salbu, edota barruan egonik (horrelakorik baldin bada) kanpokoen alde egiten dutenei. Minik gehien eman dezakeena, beharbada, Idazteuneko zenbait testuren aipamena izan daiteke, beste batzuek erabili ohi dituzten aldean helburu desberdinetarako dakartzat eta. Baina behar bezalako menpetasun-legez egin dut, eta nire azterlanerako beharrezko izan dudak neurrian; testuok, izan ere, botere zibilaren etsaien gotorleku izan ohi dira, botere horren aurka bertatik eraso egiteko. Hala eta guztiz ere, nire lan honi orokorrean tamalgarri baderitzozu, izango duzu zeure burua zuritzerik, nire iritzi propioak lakat zaizkidana eta diodan guztia egia dela sinesten dudak gizona naizela esanez, zure anaiaren ohorez egin dudala, eta zeuri ere ohore egitearren; eta horrexetan oinarrituz ausartu naizela (zeu jakitun jarri gabe) titulu hau nireganatzen, zera izatea alegia, halaxe naiz-eta izan ere,

JAUNA,

Zure zerbitzari apal eta menpekoena,

THO. HOBBS

Paris,

1651ko

apirilak

15-25.

<sup>20</sup> M. Oakeshott: *Hobbes on Civil Association*, Blackwell, Oxford, 1975, 3 or.

<sup>21</sup> H.R. Trevor-Roper: *Man and Events*, Harper & Row, N. York, 1957, 236 or.

# SARRERA

NATURA, Jainkoak mundua sortzeko erabili duen eta gobernatzeko darabilen Arte hori, honako honetan ere, beste gauza askotan bezala, imitatzen du gizakiaren arteak: animalia artifizial bat egin ahal izatean. Izan ere, bizitza gorputzadarren mugimendua besterik ez delarik, alegia, gorputzadarron barneko alde printzipalen batean sorburua duen mugimendua, ez al daiteke esan automata denek (beren burua malgukien eta gurpilen bidez mugitzen duten makinek, erlojua kasu) bizitza artifizial bat dutela? Zer da besterik bihotza, malguki bat baino? Eta zer zainak, kordak baino? Zer besterik artikulazioak, gorputz osoari higidura damaioten gurpilak baino, egileak asmatutakoaren arabera? Baina artea harago doa oraindik, naturaren lan razional eta bikainena, gizakia, imitatzen duenean. Zeren artearen bidez sortua izan baita ERREPUBLIKA edo ESTATUA (latinez CIVITAS) deitzen diogun LEVIATHAN handia, gizaki artifizial bat besterik ez dena; izan, gizaki naturalak baino garaiera eta indar handiagoa du, hura babesteko eta defendatzeko asmatua baita; eta harengan, subiranotasuna duzu arima artifiziala, gorputz osoari bizia eta higidura ematen diona; epailetzako eta exekutiboko magistratuak eta beste funtzionari batzuk dituzu artikulazio artifizialak; saria eta zigorra, berriz, subiranotasunaren guneari loturik dauden artikulazio eta gorputzadarrak mugiarazten dituztenak bakoitzak bere eginkizuna bete dezan, zainak dituzu, gorputz naturalean eginkizun huraxe bera dutenak; menbro partikular bakoitzaren dirua eta aberastasunak, indarra dira; salus populi edo herri-segurtasuna, helburu duena; aholkulariak, gorputz artifizial horri ezagutu beharreko gauza guztiak iradokitzen dizkietenak, haren memoria dira; ekitatea eta legeak, arrazoi eta nahimen artifiziala; konkordia, osasuna; sedizioa, eritasuna; eta gerra zibila, heriotza. Azkenez, itun eta hitzarmenek, gorputz politiko honen atalak hasiera batean sortu, elkartu eta batzeko balio izan zutenek, Jainkoak Kreazioan esandako Fiat edo Egin dezagun gizakia hitz haien antza dute.

Gizaki artifizial honen natura deskribatzeko, honako hauetaz arituko naiz:

Lehenik, gizaki horren materia eta egilea: bata eta bestea, gizakumea.

Bigarrenik, zelan eta zein hitzarmenen bidez eginga izan den; zeintzuk diren subirano baten eskubideak eta bidezko boterea edo autoritatea, eta zer ote den botere hori kontserbatzen eta desegiten duena.

Hirugarrenik, zer den Kristau Estatu bat.

Azkenez, zer den Ilunbeen Erreinua.

Lehen puntuari dagokionez, bada esaera bat azkenotan oso gainerabilia: liburuei barik, jendeari irakurtzetik lortzen dela jakinduria. Ondorioz, jakitunak izatearen beste frogarik normalean ageri ez duten pertsonak atsegin handia izan ohi dute gizakumeengan irakurri bide dutena erakusten, hurkoari, berau aurrean egon gabe, egiten dizkieten kritika gupidagabeak medio. Baina bada beste esaera bat oraindik ulertu ez dena eta hurkoa egiaz ezagutzeko bide emango liekeena, baldin horretarako nekerik hartuko balute; hona hemen: nosce te ipsum, irakurzazu zeure burua. Horrek ez du esan gura, orain modan dagoena, boteretsuek beren menpekoekiko jokabide barbaroa bultzatu behar denik, ezta gizakume kaxkarrek zirikatu behar direnik ere beraiek baino hobeak direnekin errespeturik gabe jokatzera; baizik zera irakasten digula, gizakume batak eta besteak gogoeta eta grinetan duten antzekotasunagatik, nork bere baitara begiratu eta nork berak pentsatzean, iriztean, arrazoitzean, igurikatzean, beldur izatean, etab., zer egin ohi duen eta zein arrazoik bultzaturik egin ohi duen gogoan hartzen duenak, izango duela irakurtzerik eta jakiterik, bai, beste gizakume guztiek ere antzeko zirkunstantzietan zein oldozpen eta grina dituzten. Grinen arteko antzekotasunaz ari naiz hemen -gizaki ororengan berdinak diren desira, beldurra, igurikapena, etab.- eta ez grinon objektuen artekoaz, hots, gauza desiratuak, beldurra ematen dutenak, igurikatuak, etab.; zeren azken hauek hain puntutaraino aldatzen baititu bakoitzaren izaerak eta heziketa bereziak, eta hain aise ezkutatu ohi zaizkio gure oharmentari, non giza bihotzeko nolakotasunok, itxurakeriak, iruzurrak, faltsukeriak eta doktrina okerrekin zirriborraturik eta maskaraturik dauden moduan, irakurri ere, bihotzen baitan arakatzen dakienak baizik ezin irakur ditzakeen. Eta zenbaitetan gizakumeen ekintzen bidez haien asmoak hautematen ditugun arren, haienak eta gureak alderatu gabe eta kasu jakin bat aldaraz dezaketenez zertzelada guztiak kontuan hartu gabe eginez gero, koderik gabe deszifratzen jardutea bezala da; eta kasu gehienetan huts egitea, dela uste gehiegi, dela susmo gehiegi izatearren; irakurketa egiten duena bera pertsona ona ala gaiztoa den.

Baina norbaitek besteen irakurketa egin dezakeela emanik ere (inoiz ere ez perfektuki) haien ekintzen bidez, ezagunak dituenekin baizik ez zaio izango baliagarri, eta ezagunak oso gutxi baino ez ditu izango. Nazio oso bat gobernatzen duenak bere baitan irakurri behar du, ez gizakume jakin harengan edo horrengan, baizik gizateria osoarengan; eta hori zaila den arren, edozein hizkuntza edo zientzia ikastea baino zailagoa, hala ere, nik neuk neure irakurketaren emaitza argi eta ordenan azal dezadanean, hauxe izango da bakoitzari geratuko zaion ahalegin bakarra: ea berak ere bere baitan ez duen gauza bera aurkitzen pentsatzea. Izan ere, honelako doktrina motak ez du bestelako demostraziorik onartzen.



# LEHEN PARTEA

## Gizakiaz

### I

#### Zentzuaz

Gizakumearen pentsamenduei dagokienez, lehenengo banan-banan hartuko ditut, eta gero katean, edo elkarrekiko dependentziaz. Banan-banan, gugandik kanpoko edozein gorputzen -eskuarki objektua esaten diegunen- koalitate edo beste akzidenteren baten irudikapena edo antzirudia dira. Objektu horrek eragina du gizakumearen begi, belarri eta beste soinadar batzuetan, eta eragin honen ezberdintasunaren arabera, antzirudi ezberdinak eragiten ditu.

Guztion artean jatorrizkoa guk ZENTZUA esaten dioguna da. (Zeren ez baitago buruerarik gizakumearen adimenduan, lehenbizi zentzu-organoetan sortua ez denik, guztiz edo aldeztuta). Beste guztiak jatorrizko honetatik eratorriak dira.

Zentzuaren kausa naturala ezagutzea ez da behar-beharrezkoa eskuartearen darabilgun arazorako; eta beste leku batean luze dut idatzia kontu honetaz. Hala ere, metodo honetako parte bakoitza behar den moduan betetzeko, berriro ere gauza bera esango dut laburki hemen.

Zentzuaren kausa, kanpoko gorputza edo objektua da, zeinak zentzu bakoitzari dagokion organoa kilikatzen duen, dela zuzenean, dastamen eta ukimenaren kasuan bezala, dela zeharretara, ikusmen, entzumen eta usaimenarekin gertatzen den moduan. Kilikadura honek, nerbioen eta gorputzaren beste zain eta mintz batzuen bidez barrurantz segitzen du burmuinera eta bihotzera. Eta presio honek han erresistentzia edo kontrapresioa, edo presiotik libratzeko bihotzaren ahalegin bat eragiten du, ahalegin honek kanporantz egiten duenez, kanpoko zerbaite dela ematen duelarik. Eta itxura edo fantasia hau gizakumeek zentzua esaten diotena da, eta begirako argia edo itxuraturiko kolorea da; belarriarako, hotsa; sudurrerako, usaina; mihi eta ahosabairako, zaporea; eta gainerako soinadarretarako beroa, hotza, gogortasuna, biguntasuna eta sentituz bereizten ditugun horrelako beste tasunak dira. Sentigarriak esaten diegun koalitate guztiok ez dira, kausatzen dituen objektuan, materiaren higidurak besterik, euron bidez gure organoek mota ezberdineko kilikadurak jasotzen dituztelarik. Eta kilikadura horren hartzaileak garenongan ere, ez dago kilikadura ezberdinak besterik (higidurak higidura besterik ez baitu sortzen). Baina guri fantasia moduan agertzen zaizkigu, lo nahiz itzarrik egon. Eta nola begiei barrurantz sakatzearan edo igurztean halako argi bat dakusagula deritzogun eta belarriari sakatzearan durundia sortzen den, halaxe gertatzen da ikusi edo entzuten ditugun gorputzekin ere, gudan, hautemangarri ez dugun arren, egiten duten eragin handiaren ondorioz. Zeren kolore edo hots horiek, eragiten dituzten gorputzetan edo objektuetan baleude, ezingo lirateke euratatik banandu, de fakto lenteen bidez edo oihartzunaren kasuan isladapenaren bidez banantzen ikusten ditugun bezala; ikusten dugun gauza toki batean ezagutzen dugu, haren itxura beste batean. Eta nahiz eta distantzia batera objektu erreala gudan sortarazten duen fantasia objektuak berak daukala ematen duen, objektua gauza bat da beti, eta irudia edo fantasia beste bat. Halako moldean, non zentzua, kasu orotan, ez baita jatorrizko fantasia besterik, esan dudan legez, presioak kausatua, hau da, kanpoko gauzen higidurek gure begietan, belarrietan eta horretarako ditugun beste organoetan eragindakoa.

Baina Kristandadeko unibertsitate guztietan hedatuta dagoen filosofia eskolastikoak, Aristotelesen zenbait testutan oinarria hartuta, beste doktrina bat erakusten du eta zera dio, ikustearen kausa esplikatzeko, ikusiriko gauzak alderdi guztietatik species ikuskor bat bidaltzen duela, hau da, agerpen ikuskor bat, edo agerkari edo aspektu, edo izaki ikusi bat, berau begian jasotzea delarik ikustea. Eta entzutearen kausa emateko, entzundako gauzak species entzungarri bat bidaltzen duela dio, hau da, aspektu entzungarri bat edo izaki entzungarri ikusi bat, berau belarrira sartzeak egiten duelarik entzutea. Eta ez hori bakarrik, ulertzearen kausa azaltzeko ere, zera diote, gauza ulertuak species ulergarri bat bidaltzen duela, hau da, izaki ulergarri ikusi bat, ulermenara iritsiz, guk hura ulertzea eragiten duena. Ez diot hau unibertsitateetako usadioa gaitzesteko, baizik, unibertsitateek Estatuan duten zereginaz ariko naizenez gero, bide batez, okasio dudan guztietan ikusarazi behar dizuedalako zeintzuk gauza zuzendu behar liratekeen euren, eta gauzotako bat unibertsitatearen sarri esangura gabeko mintzaera erabiltzea dela.

### II

#### Irudimenaz

Inork zalantzan jartzen ez duen egia da gauza bat geldi dagoenean, beste zerbaitek mugiarazten ez badu, geldi egongo dela beti. Baina gauza bat mugimenduan dabilenean, betierean mugimenduan iraungo duela beste zerbaitek gerarazten ez badu, arrazoi bereberean oinarritzen bada ere, hots, ez dagoela ezer bere burua alda dezakeenik, ez da hain erraz onartzekoa. Gertatzen dena da gizakumeek beren neurriaren arabera juzgatzen dituztela, ez bakarrik beste gizakumeak, baizik baita beste gauza guztiak ere; eta

mugitu ondoren mindu-mindu eta neka-neka eginda aurkitzen direnez, uste dute beste edozer gauza ere mugitzeaz nekatu egiten dela eta pausagunea bilatzen duela bere baitatik, kontuan apenas izan gabe bere baitan aurkitzen duen pausagura hori ere ez ote den beste mugimendu bat izango. Horregatik eskolek diote gorputz pisudunak beherantz erortzen badira, atsedena hartzeko eta beren izaera dagokien lekuan mantentzeko dela; gorputz bizigabeei beren kotserbaziorako on denaren guraria eta ezagumena (gizakiak duena baino gehiago dena berau) eratxikiz absurduki.

Gorputz bat mugimenduan ari denean, betiere guztian mugitzen da, zerbaitek galarazten ez badio, eta zernahi izanda ere mugimendu hori galarazten diona, ezingo du instant batean iraungi, handik denboragarrenera eta gradualki baizik. Eta nola uretan olatuak, haizea geratu arren, ez diren geratzen beren mugimenduan handik geroagoraino, horixe bera gertatzen da gizakumearen baitan ere, beronek ikusi, amets egin eta abar egiten duenean. Zeren objektua aurretik kentzen zaigunean edo begiak ixten ditugunean ere, ikusitako gauzaren irudia hantxe atxikitzen zaigu oraindik, nahiz eta ikusten ari garenean baino ilunagoa izan. Eta hauxe da latindarrek imaginatio esaten diotena, ikustean formatzen den imaginan oinarrituz; eta hitz bera darabilte, nahiz eta desegokiro, beste zentzu guztiekiko ere. Baina greziarrek fantasia esaten diote, eta antzirudia esan nahi du, eta egokitasun beraz aplikatu dakioke zentzu bati zein besteri. IRUDIMENA, beraz, zentzu ahuldua besterik ez da, eta gizakietan eta beste kreatura bizidun askotan aurki daiteke, lo zein itzarrik daudela.

Itzarrik dauden gizakumeengan gertatzen den zentzuaren ahultzea, ez da zentzuan egindako mugimendu-ahultzea, baizik honen iluntzea, eguzkiaren argiak izarren argia iluntzen duen moduan gertatzen dena. Izarrek, ikuskor egiten dituen indarra ez dute egunez gutxiago erabiltzen gauez baino. Baina zera gertatzen da, hots, gure begiek, belarriek eta beste organo batzuek kanpoko gorputzetatik jasotzen dituzten kilikadura guztietatik nagusia bakarrik denez sentigarria, eguzkiaren argia izatean nagusia, izarrek ez dutela guran eraginik. Eta begietatik kentzen zaigun objektu orok berak eragindako inpresioa uzten badu ere gure baitan, haren ondoren beste objektu batzuk datoz presenteagoak, guran eragina izatean, aurreko irudia ilundu eta ahultzen dutenak, gizakumearen ahotsari eguneko zarata artean jazotzen zaion antzera. Hemendik zera dator, zenbat eta denbora gehiago iragan den, hainbat eta ahulago dela irudimena. Zeren gizakumearen gorputzaren taigabeko aldaketa, denbora iragan ahala, gure zentzuan kilikaturiko alderdiak suntsituz doa, halako moldez non denboran eta espazioan distantziak efektu bera duen guregan. Zeren, urrunera edo distantzia handira ikusten ari garena lanbrotsu bihurtzen den bezala, haren alderik txikiak bereizi ezinik ibiltzen garelarik, eta nola ahotsak ere ahulago eta inartikulatugoak bihurtzen diren, halaxe denbora luzea iragan ondoren, iraganarekiko gure irudimena ahula da, eta galdu egiten ditugu, adibidez, ikusi ditugun hirietako kale asko eta ekintzetako zertzelada asko. Zentzu ahuldu honi, berez zer den adierazi nahi dugunean (fantasia bera, esan nahi dut), irudimena esaten diogu, lehen esan dudana moduan. Baina ahuldura adierazi nahi dugunean, eta zentzua zimeldu egin dela, zaharra eta iragana dela esan nahi dugunean, orduan oroimena esaten diogu. Horrela, irudimena eta oroimena gauza bera dira, aspektu ezberdinak kontuan izanda, izen ezberdinak hartzen dituenak.

Oroimen ugariari, edo gauza askoren oroimenari, esperientzia esaten diogu. Irudimena, lehenago zentzuak (dela aldi berean osorik, dela aldi ezberdinetan zatika) hautemandako gauzekiko bakarrik da. Lehenengo (objektu osoa iruditzen denean zentzuari aurkeztu zaion moduan) irudimen bakuna da, batek lehen ikusia duen gizona edo zaldia iruditzen duenean bezala. Bestea konposatua da, behin gizon bat eta beste behin zaldi bat ikusi ondoren, geure buruan zentauro bat iruditzen dugunean bezala. Horrela, gizakume batek bere buruaren irudia beste gizakume baten ekintzen irudiarekin konbinatzen duenean, Herkules edo Alexandro dela iruditzen duenean adibidez (abentura-nobelak irakurtzen dituztenei maiz gertatzen zaion legez), irudimen konposatua da hori, propioki hitz eginda adimenduaren fikzio bat besterik ez dena. Badira gizakumeengan (itzarrik daudela ere) beste irudimen batzuk, zentzuan egindako eragin handiek sortuak. Horrela, eguzkiari begiratzen diogunean, eragin horrek luzaro irauten duen eguzkiaren irudia uzten du gure begietan; eta norbait geometri irudiei luzaro eta adi-adi so badago, gero lerroak eta angeluak izango ditu begien aurrean, ilunetan, nahiz eta itzarrik egon. Fantasia mota honek ez du izen berezirik, giza diskurtsoan ohiko izaten ez delako.

Lo dauden irudipenak ametsak esaten diegunak dira. Eta hauek ere (beste irudipen guztiak bezalaxe) lehenago zentzuan izandakoak dira, osorik edo zatika. Baina burmuina eta nerbioak, zentzuaren organo beharrezkoak sortuta egoten direnez lotan gaudenean, kanpoko objektuen eraginak nekez kilikatzeke moduan, ezingo da irudipenik egon lotan, ezta, beraz, ametsik ere, giza gorputzaren barneko aldeak astintzetik sortuak ez badira behintzat. Burmuinarekin eta beste organo batzuekin loturik dauden barneko aldeak asalduz gero, haiei ere mugiarazi egingo die; eta horregatik, han formatzen diren irudiak itzarrik bageunde moduan agertzen zaizkigu. Alde bakarra zera da, zentzu-organoei orduan sortuta daudenez eta egoera horretan eragin indartsuagoak nagusituko zaion eta ilunduko dituen beste objekturik ez dutenez, zentzuaren isiltasun honetan ametsa argiagoa izango dela nahitaez itzarrik gaudeneko pentsamenduak baino. Horregatik zail gertatzen da, eta batzuentzat ezinezko, zentzua eta ametsa elkarretarik zehazki bereiztea. Ni neu, kontuan hartuz ametsetan ez dudala, ez maiz ez etengabeki, pentsatzen itzarrik

nagoenean pentsatzen dudana pertsona, leku, gauza ez egintza beretan, eta ezin dudala ametsetan gogoratu pentsamendu-korda bestetan bezain luzerik, eta, itzarrik nagoenean maiz konturatzen naizenez zein absurdu diren nire ametsak, eta sekula ere ametsik egiten ez dudanez itzarrik otu izaten zaizkidan pentsamenduen absurdutasunaz, itzarrik nagoenean ez nagoela ametsetan jakiteaz konformatzen naiz, nahiz eta ametsetan nagoenean itzarrik nagoela uste izan.

Eta ikusirik gorputz barruko zenbait alde jasotako asaldurek kausatzen dituztela ametsak, asaldapen ezberdinek amets diferenteak sortuko dituzte. Horregatik, hotzez goazenean lotara, beldurrezko ametsak sortzen dira eta zer beldurgarriren baten pentsamendua eta irudia eratzen dira, zeren burmuinetik barruko aldeetara doan mugimendua, eta barruko aldeetatik burminerakoa, elkarrekikoak baitira. Eta horrexegatik baita ere, haserreak itzarrik gaudenean zenbait soinadarretan berotasuna sortzen duen bezala, soinadar horiek beroegi edukitzeak haserrearen eragiten digu lo gaudenean, eta burmuinean etsairen baten irudia sortarazten digu. Era berean, nola atsegintasun naturalak itzarrik gaudenean desira sortarazten duen eta desirak berotasuna beste zenbait soinadarretan, halaxe lo gaudenean alderdi horietan pilaturiko berotasunak zelako edo halako atsegintasuna duen irudiren bat burmuinean agertzea ekarriko du. Laburtuta, ametsak itzarrik gaudeneko geure irudipenen alderantzizkoak ditugu, mugimendua itzarrik gaudenean mutur batean, eta ametsetan gabiltzanean bestean sortzen delarik.

Gizakumearen ametsak, itzarrik dagoenean, haren ametsetatik bereizten zailena izaten dugun egoera, zergatik edo hargatik loak hartu gaituela konturatzen ez garenean gertatzen da. Eta hau erraz jazo dakioke beldurrezko pentsamenduz beterik eta kontzientzia asaldatuta oheratu gabe eta jantziak erantzi gabe loak hartzen duenari, aulki baten jezarrita kuluskan jartzen denari, adibidez, gertatzen zaion moduan. Zeren, penaz dagoenak eta ohean loak hartzen lanak dituenak, fantasia estrainio eta bururik ez hankarik gabekoa badatorkio, nekez uste izango baitu ametsa besterik izan daitekeenik. Marko Brutori buruz (Julio Zesarrek bizia eman ziona, eta haren kuttuna zena eta, hala ere, hura asasinatu zuena berau) irakurtzen dugu, Zesar Augustori kolpea eman bezpera gauean Filiposen zegoela, agerkari izugarri bat izan zuela, historikariek eskuarki ikuskari moduan kontatzen digutena. Baina zirkunstantziak kontuan izanda, erraz pentsa dezakegu amets labur bat besterik ez zela izan. Zeren, bere dendan jezarrita pentsakor eta bere zentzugabeko ekintzaren izugarritasunaz kezkatuta, erraz gerta zekiokkeen, hotzetan erdi-lo, bizikien agorantzen zuenaz amets egitea. Eta beldurrak iratzarri ahala, ezabatuz joan zitzaion agerkaria. Baina ziur ez zekienez lotan egona zenentz, ez zuen arrazoirik aurkitu hori guztia amets bat besterik ez zela izan uste izateko, eta benetako ikuskari bat izan zela pentsatu zuen. Hau ez da inoiz edo behin soilik jazotzen den zera, zeren, erabat itzarrik egonda ere beldurti eta superstiziosoak direnak beldurrezko istorioen batek burua harrapatuta eta ilunetan eta bakarrik badaude, horrelakoxe fantasiak edukitzera aihar izaten baitira, eta hildako gizonen izpirituak eta mamuak ikusi uste izaten baitituzte hilerrietan zehar hara eta hona, baina egiaz euren fantasiaren kontuak edo besteen beldur sinesterez baliatuz inork han ikusterik sekula pentsatuko ez lukeen lekuetan moztortuta paseatzen dabiltzanen pikarokeriak izaten dira.

Ametsak eta bestelako fantasia indartsuak ametsetatik eta sentsazioetatik bereizten ez jakite honexetatik sortu zen, antzinako garaietan, satiroak, faunoak, ninfak eta horrelakoak adoratzeko zituzten jentilen erlijioaren zati handi bat eta gaur egun ere, jende eskolagabeak maitagarri, mamu, eta iratxoez eta baita sorginen ahalmenez ere duen iritzia. Zeren, sorginei dagokienez, ez baitut uste euren sorginkeria inolako botere egiazkotan oinarritzen denik; baina, hala ere, justiziaz ezartzen zaie zigorra hainbeste gaitz egin dezaketenez sinesterekin dutelako eta egin ahal balezate egiteko asmorik falta ez dutelako. Horien ofizioak, ezagutza edo zientzia bat baino areago, erlijioa ematen du. Eta maitagarri eta mamu ibiltariei dagokienez, uste dut euren sinestea apropos irakatsia edo behintzat ez errefusatu izan dela, sinestari mantentzeko exorzismoaren, gurutzeen, ur benedikatuaren eta gizakume mamuzaleen horrelako beste asmakizun batzuen erabilpena. Hala ere, ez dago dudarik Jainkoak egin ditzakeela agerpen supernaturalak. Baina gizakumeek Naturaren abioa gerarazi edo aldatzeari baino -eta Hark hau egiteko ere badu ahalmena- horrelako gauzei beldur gehiago izateko bezain sarri agerkundeak egitea, ez da kristau fedeko puntua. Hala ere, badira gizagaiztoak, Jainkoak edozer egin dezakeela aitzakiatzat hartuta, nahi duten guztia esaten ausartzen direnak euren etekinerako den bitartean, gezurra dela jakinarren. Gizakume zuhurrak ez die sinestari eman behar horrelakoek diotenari, arrazoimen zuzenari onargarri gerta dakion heinean baizik. Izpirituen beldur superstizioso hau kenduko balitz, eta beronekin batera ametsen interpretazioa, profetia faltsuak eta eurokin loturiko beste gauza asko, zeintzuen bidez pertsona handinahi eta maltzurak herri xeheaz abusatzen ari baitira, dauden baino askoz prestatu leudeke gizakumeek gizarte zibileko arauak men egiteko.

Eta honexek behar luke izan eskolen eginkizuna, baina kentzen baino, doktrina horiek elikatzen ari dira. Zeren, zer den irudimena eta zer zentzua ez dakitenez, hartu dutena irakasten dute: batzuek irudipenak berez sortzen direla eta kausarik ez dutela diote; beste batzuek nahimenetik datozela eskuarki, eta pentsamendu onak Jainkoak putz eginda (inspiratuta) datozkiola gizakumeari, eta txarrak Deabruak putz eginda; edo pentsamendu onak Jainkoak isuriak (haren baitaratuak) direla, eta txarrak Deabruak isuriak. Batzuek diote zentzuek gauzen speciesak hartzen dituztela eta gero sen komunari pasatzen diotela, honek



fantasiari aurkezten dizkiolarik, eta fantasiak oroimenari eta oroimenak irizmenari, gauzak eskutik eskura iragaten diren moduan, hitzen ugariak ezer ez ulertzea eginez.

Hitzen edo nahitako beste zeinuen bitartez gizakumearengan (edo iruditzeo ahalmena daukan beste edozein kreaturaren baitan) sortzen den irudipena, eskuarki ulermenaren esaten dioguna da, eta gizakiari eta animalari dagokio. Zeren txakur batek bere ugazabaren deia edo haserrearen ulertuko du, ohituraz, eta gauza bera gertatzen da beste animalia askori dagokionez ere. Gizonarena bereziki den ulermenaren, haren nahia ezezik, haren buruerak eta pentsamenduak eta gauzen izenen segida eta taxuketaren bidez eraturiko baieztapenak, ezeztapenak eta beste hizkuntz molde batzuk ulertzen dituen da. Eta ulermen mota honixe buruz hitz egingo dut ondoren.

### III

Irudipenen sekuentzia edo katea

Pentsamenduen sekuentzia edo KATEA diodanean, zera ulertzen dut, hurrenez hurren pentsamendu bat beste batetik etortzea, (hitzez egindako diskurtsotik bereizi nahian) buru-diskurtsua esaten zaiolarik.

Gizakume bat edozein gauzaz pentsatzen ari denean, haren ondorengo datorren pentsamendua ez da uste bezain ausazkoa. Ez dago pentsamendurik beste baten hurrengo indiferenteki datorrenik. Aldez aurretik osoan edo aldez sentitu ez dugun ezereen irudipenik ez dugun bezala, ezta ere ez dugu izango irudi batetik besterako iragapenik, gure zentzuetan horrelakorik inoiz izan ez badugu. Honen zergatia honako hau da: Fantasia guztiak geure baitan gertatzen diren mugimenduak ditugu, zentzuan jazotako beste mugimendu batzuen hondakin. Eta zentzuan bata bestearen ondoren datozen mugimenduok elkartzuta segitzen dute gero; eta lehenengoa berriro gertatzen den eta nagusi den guztian, bigarrena etorriko da haren ondoren. Eta hau, mugimendua jasotzen duen materiaren koherentziagatik izango da horrela. Mahai horizontal baten gainean ura dagoenean eta atzamarrak berau gidatzean markatzen dugun bideari leku batetik bestera jarraitzen dionean bezala da. Baina zentzuan gauza bera hautematen dugunean, beronen ondoren batzuetan gauza bat eta beste batzuetan beste bat datorrelako, zera gertatzen da gero, hots, zerbait iruditzen dugunean ez dakigula ziur hurrengo zer irudituko dugun. Gauza ziur bakarra zera da, irudi dezaguna aurreko zer horren ondoren etorritakoa dela, une batean edo bestean.

Pentsamenduen katea edo buru-diskurtsua hau mota bitakoa da. Lehenengoa, gidatu gabekoa, pentsurik gabekoa eta iraupen gabea da. Ez dago hemen, ondoren datozkionak gobernatu eta bere baitaratzeo, eta desira baten edo beste grina baten xede eta helburu izateko behar den pentsamendu grinaturik. Kasu horretan esaten dugu pentsamenduak firi-fara dabilazala eta koherentziarik ez dutela, ametsetan gertatzen den bezala. Mota honexen barruan daude, eskuarki, konpainiarik ezezik, ezertarako inolako interesik ere ez duten gizakumeen pentsamenduak. Pentsamenduok beti bezain lantsu ari dira, baina ez dute harmoniarik; biola desafinatu bati gizakume batek aterako liokeen hotsa bezalakoa dira, edo afinatu bat jotzen ez lekikeenak aterako liokeena bezalakoa. Hala ere, adimenduaren firi-fara ibiltze desordenatu honetan ere, gizakumeak sarri hauteman ahal izaten du haren abioa, eta pentsamendu batek bestearekin duen lotura. Oraingo gure gerra zibilari buruzko hitzaldi batean, zerk dirudike deslekukoagorik, norbaitek eginga duen bezala, erromatar moneta baten balioak bere buruari galdezka hastea baino? Eta, hala ere, aipamen honen koherentzia begien bistako egin zitzaidan niri. Zeren gerraren pentsamenduak erregeari beraren etsaiak entregatzeko sarrarazi zuen; pentsamendu honek Kristo saldua izan zenekoa ekarri zuen; eta honek, aldiz, traizioaren salneurria izan zen 30 penikeena. Hemendik erraz eta berez etorri zen galdera maliziatsu hori; eta dena une batean, pentsamendua azkar bai azkar dabilkelako.

Bigarrena iraunkorragoa da, eta desira edo pentsuren batek erregulatua da. Zeren desiratzen ditugun edo beldurtzen gaituzten gauzak egiten diguten eragina indartsua eta iraunkorra izaten baita. Eta eragin hau aldi batez eteten bada ere, berehala hasten da berriro; batzuetan hain indartsua da, non loa eragotzi eta galarazten baitu. Desiratik geuk nahi dugunaren antzeko zerbait lortzen ikusi ditugun bitartekoen pentsamendua sortzen da; eta pentsamendu honetatik, bitarteko horiek lortzeko bitartekoen pentsamendura iragaten gara. Eta horrelaxe jotzen dugu etenik gabe, geure indarren irispidean dagoen bitartekoren batera iritsi arteino. Eta xedea, eraginaren indarrez, burura maiz etortzen zaigunez, honek, gure pentsamenduak firi-fara hasten bazaizkigu ere, berriro berehala bidera ekartzeko balio digu. Zazpi jakitunetarikoa bat honetaz oharturik, honako agindu hau, gaur erabiliaren erabiliak gastatua, eman zien gizakumeei: *Respice finem*, hau da, zeure ekintza guztietan so egiozu eskuratu gura zenukeenari, zure pentsamendu guztiak berau eskuratzeko bidera eramango dituen elementu gisa.

Pentsamendu erregulatuen katea ere bi motakoa da: bat, efektu irudituen kausak eta berau eragiteko bitartekoak bilatzen ditugunean gertatzen dena da, eta gizakiari eta animalari dagokio. Bestea, edozein gauza iruditzean, berak eragin ditzakeen efektu guztiak bilatzen ditugunean gertatzen da, hau da, bera geurea izatea lor dezagunean egin genitzakeen gauza guztiak iruditzen ditugu. Inoiz ez dut honen seinalerik ikusi izan gizakiaz aparteko beste inorengan. Zeren, nekez izan daiteke berezitasun hau grina sentzualak, hala nola, gosea, egarria, sexu-grina eta sumina, besterik ez daukan kreatura bizidun batengan. Laburbilduta, pentsuak gobernatutako adimenduaren diskurtsua hau, latindarrek sagacitas eta solertia esaten zioten bilaketa edo asmatzeko ahalmena besterik ez da: oraingo edo iragandako efektuen baten kausen edo oraingo edo iragandako kausaren baten efektuen bilaketa. Batzuetan gizakumea galdu duena

bilatzen ari izaten da; eta galeraz konturatu zen lekua eta unea abiapuntutzat hartuta, haren adimenduak atzerantz egiten du, lekuz leku eta unez une, azken aldiz noiz eta non izan zuen aldean konturatzeko, hau da, denboran eta espazioan puntu ziur eta zehatz bat aurkitzeko eta bertatik hasita bilaketari hasiera emateko. Eta handik, haren pentsamenduak berriro ere leku eta une berberetan zehar abiatzen dira, bilatzen ari dena galtzea ekarri zioten ekintzak edo zertzeladak zeintzuk izan ziren idorotzeko. Hau gogoramena, edo gogora deitzea esaten duguna da; latindarrek *reminiscentia* esaten zioten, geure aurreko egintzen errekontua egitea balitz moduan.

Batzuetan gizakumeak badaki leku bateko zein eremutan hasi behar duen bila; eta orduan haren pentsamendua leku horretako alde guztietan zehar ibiltzen da, bitxi bat aurkitzeko gela bat eskobatzan dugunean bezalaxe, edo zakur spaniel batek arrastoaren bila soro bat goitik behera usnaka aztertzen duenean bezala, edo gizakume batek errima baten bila hiztegia gora eta behera pasatzen duenean bezala.

Batzuetan gizakumeak ekintza baten abioa edo emaitza zein izango den jakin nahi izaten du eta orduan antzeko ekintza batez eta honek ekarritako emaitzez pentsatzen du, antzeko ekintzak antzeko emai

tzak emango dituela suposatuz. Kriminal batek zernolako bukaera izango duen aurrikusi nahi duenak, aurreko krimenean gertatzen ikusi duena gogoratzen du: haren pentsamenduen ordena haxe da: krimena, polizia, gartzela, epailea, urkabea. Honelako pentsamenduei aurrikuspena, eta zuhurtzia edo probidentzia deritze, eta batzuetan jakinduria, nahiz eta aieruok, zertzelada guztiak kontuan izaten hain zaila izaki, oso engainagarriak diren. Baina bada zerbait ziurra dena: zenbat eta esperientzia handiagoa duen gizakume batek, orduan eta abantaila handiagoa aterako diola beste bati zuhurtzian eta gutxiagotan erratuko dela bere aurrikuspenetan. Naturan oraina bakarrik dago; iragandako gauzak oroimenean bakarrik dute izatea; baina etortzeko dauden gauzek ez dute inolako existentziarik; etorkizuna adimenduak, oraingo ekintzei iraganeko ekintzen ondorioak aplikatuz, fabrikatzen duen fikzioa besterik ez baita. Hau ziurtasun handiagoz egin dezake esperientzia handiagoa duenak, baina sekula ere ez behar adinako ziurtasunaz. Eta emaitza espero dugunaren arabera denean zuhurtzia deitzen bazaio ere, izatez presuntzioa besterik ez da. Zeren etorkizun diren gauzen aurrikuspena, hots, probidentzia, gauza horiek bere nahiaz ekartzeko ahalmena daukanari bakarrik dagokio. Berarengandik bakarrik, eta supernaturalki, dator profezia. Eta eremu naturalean, profetarik onena ondoen igartzen duena da; eta ondoen igartzen duena, igargai dituen kontuetan gehien ikasia eta dakiena da, beronek baitauka igartzeko zeinurik gehien.

Zeinua, ondorioaren aurrekari den gertaera da; eta alderantziz, aurrekariaren ondorioa, aurretik antzeko ondorioak hauteman izan direnean. Zenbat eta maizagotan hautemanak diren, orduan eta ziurragoa zeinua. Eta, beraz, edozein gaitan esperientzia gehiago duenak zeinu gehiago dauka etorkizun dagoena igartzeko, eta, beraz, zuhurrena da, eta horrelako arazoetan hasiberria dena eta talentu natural bereziaren abantailaz haren parera heldzerik ez duena baino askoz ere zuhurragoa, nahiz eta agian gazte askok aurkakoa uste izan.

Hala ere, ez da zuhurtzia gizakia aberearengandik bereizten duena. Badira abereak, urtebeterekin, haur batek hamarrekin baino oharmen handiagoa dutenak eta beren onerako dena bilatzen hura baino zuhurragoak direnak.

Zuhurtzia Etorkizunaren presuntzio bat denez, iraganaren esperientziatik norberegana, iragandako gauzen presuntzio bat ere badago, ez etorkizuneko gauzen esperientziatik, baizik hura bezala iraganak diren gauzenetatik hartua. Nazio prospero bat gerra zibilera lehenengo eta hondamendira gero zernolako bide eta etapetan zehar iritsi den ikusi izan duenak, beste edozein nazioren hondamendia ikustean, honek ere antzeko gerra zibila eta antzeko abioa izan bide duela aterako du. Baina suposamen honek etorkizunari buruzko usteak adinako ziurgabetasun gradua dauka, biak baitaude esperientzian soil-soilik oinarrituak.

Nik gogoratu ahal dudan neurrian, ez dago giza adimenduaren beste ekintzarik gizakumearengan naturalki erroturik dagoenik, eta berau erabiltzeko gizakume jaiotzea eta bost zentzuen erabilmena izanda bizitzea besterik behar ez denik. Apurka-apurka aipatuko ditudan beste ahalmenak eta gizakiari bakarrik dagozkiola diruditenak, ikasketaz eta lanaz lortzen eta garatzen dira; eta gizakume gehienek ikasten dituzte ikaskuntza eta diziplinaren bidez, eta denak datoz hitzak eta hizkuntza asmatzetik. Zentzuaz, pentsamenduez eta pentsamendu-kateaz gain, giza adimenduak ez du beste mugimendurik. Baina hizkuntzaren eta metodoaren laguntzaz, ahalmen horiek gizakia beste kreatura bizidun guztiengandik bereizteko moduko mailaraino gara daitezke.

Iruditzen dugun guztia finitua da. Ez dago, beraz, infinitu esan geniezaiokeen ezeren ideia edo kontzepziorik. Inork ez du bere adimenduan handiera infinituaren irudirik, eta ezin du bururatu abiadura infinitua, denbora infinitua, indar infinitua edo botere infinitua. Zerbait infinitua dela diogunean, zera besterik ez dugu esan nahi, izendatzen dugun gauzaren mugak eta amaiera bururatzeko gauza ez garena. Ez dakugu horrelako gauzen kontzepziorik, geure ezgaitasunarena baizik. Horregatik, Jainkoaren izena ez dugu hura bururatzeko erabiltzen (hura ulertezina baita, eta haren ahala eta handitasuna bururaezinak), hura ohoratu ahal izateko baizik. Eta (lehen esana dudana bezala) bururatzen dugun guztia lehenago zentzuak hautemana izan denez, dena batera edo zatika, ez dago gizakumerik zentzuaren menpe ez

dagoen ezer pentsatu ez irudikatu ahal duenik. Inork, beraz, ezin du ezertaz pentsatu, gauza hori lekuren batean, magnitude bat daukalarik, eta zatitan bana daitekeelarik bururatzen ez badu. Ezin du bururatu osorik leku batean eta osorik beste batean aldi berean; ezta bi gauza edo gehiago egonez toki berean batera. Zeren horrelako ezerk ez du sekula ukan, ez ukan dezake, eraginik zentzuan. Mintzaera absurduak baino ez dira horiek, filosofo engainatuek edo eskolastiko engainatu edo engainatzaileek -inolako arrazoirik gabe- zabalduak.

## IV

### Hizkuntzaz

Inprentaren asmakuntza, nahiz eta asmakizun handia, ez da horren garrantzitsua letren asmakuntzarekin konparatuta. Baina ez dakigu nor izan zen letren erabilera lehenbizi asmatu zuena. Kadmo, Agenor Feniziako erregearen semea, izan omen zen Greziara lehenbizi ekarri zituen. Iraganaren oroitzapena luzatzeko eta munduko hainbat eta hainbat lurraldetan sakabanaturik dagoen gizateria elkartzeko baliagarritasun handiko asmakuntza izan zen; eta zaila ere izan zen, zeren lehenengo mihiaren, ahasbaitaren, ezpainen eta mintzaeraren beste organoen behaketa zehatz eta kontu handikoa behar izan baitzen, hortik gero, letrak gogoratzeko behar ziren karaktere ezberdin guztiak sortzeko. Baina asmakuntzarik nobleen eta baliagarriena, izen edo deituretan eta euron loturetan datzan HIZKUNTZArena izan zen. Elementu hauen bidez gizakumeek beren pentsamenduak erregistratu, iraganak direnean gogoratu eta elkarri jakinarazten dizkiete, alde bien baliagarritasun eta solaserako. Hizkuntzarik gabe ez zatekeen izango gizakumeen artean ez Estaturik, ez gizarterik, ez kontraturik, ez bakerik, lehoien, hartzen eta otsoen artean dagoena baino gehiago. Hizkuntzaren lehen egilea Jainkoa bera izan zen, Adani, kreaturak aurkeztu ahala, haien izenak irakatsi baitzizkion. Idazteunak ez diosku honetaz ezer gehiagorik. Baina hori nahikoa izan zen Adanek, esperientziak eta kreaturen erabilera horretarako beta ematen zion guztian izenak gehitzeko. Eta izen horiek poliki-poliki elkartuz joan zen, esan nahi zuena aditzera eman arte; eta horrela, denbora iragan ahala behar zuen adina hizkuntza eratuz joan zen, nahiz eta ez izan hizlari edo filosofo batek behar duen bezain oparoa. Ezin dut Idazteuneko pasarterik aurkitu, bertatik Adani irudi, zenbaki, neurri, kolore, hots, fantasia, erlazio guztien izenak irakatsi zitzaizkiola zuzenean edo ondorioz deduzitu ahal izateko modukorik; eta are gutxiago hitzen eta hizkerako izenak, hala nola, orokor, berezi, baiezkoa, ezezkoa, galderazkoa, hautabidezkoa, infinitiboa, baliagarriak denok; eta are gutxiago honako hauek bezalako izenak, hots, entitate, berariazkotasun, esentzia eta eskolastikak darabiltzan esangura gabeko beste hainbat hitz.

Baina Adanek eta beronen ondorengoak bereganatu eta gehituriko hizkuntza hau guztia Babeleko Dorrean galdu zen, Jainkoak gizakume guztiak euren errebelamenduarengatik euren hizkuntza ahanzteaz zigortu zituenean. Eta gizakumeak munduan zehar sakabanatzera behartuak izan zirenez, nahitaez sortu behar izan zuen euren artean gaur dagoen hizkuntz ezberdintasunak, asmakuntza guztien ama den derrigorrak erakutsi ahala; eta denbora iragan ahala, ugariago egin ziren alde guztietan.

Hizkuntzaren erabilera orokorra, gure buru-diskurtsoa hitz-diskurtsora eramatean datza, edo gure pentsamendu-katea hitz-kateara. Honek abantaila bi dauka: lehenengoa, geure pentsamendu-sekuentzia erregistraturik uztea da; zeren, pentsamenduek gure oroimenetik ihes egiteko joera dutenez, gu berriro ere lan bera egitera behartuz, haiek finkatzeko erabilitako hitzetara joaz gogora daitezke. Horrela hitzak duten lehenengo emendioa, gogoratzeko seinaleak edo ezaugarriak direla da. Beste bat zera da, askok hitz berak erabiltzen dituztela (elkarrekin lotuta eta ordenatuta jarritz) elkarri edozein gaiz zer uste duten aditzera emateko, edo baita ere zer nahi duten, zerk beldurtzen dituen edo beste grinaren bat zerk pizten dien adierazteko. Eta erabilera honengatik, izenak zeinu direla esaten dugu. Hizkuntzaren erabilera bereziak honako hauexek dira: lehenik, pentsamenduaren bidez oraingo edo iragandako edozein gauzaren kausa zein den aurkitzen dugunean erregistratzea; baita ere zer eragiten duten edo zeintzuk efektu dituzten oraingo edo iragandako gauzek aurkitzen dugunean, hau dena, azken batez, arteak norbereganatzea delarik. Bigarrenik, geureganatu dugun ezagutza besteei erakustea, elkarri aholkuak ematea eta irakastea delarik hau. Hirugarrenik, geure desira eta asmoak besteei ezagutaraztea, elkarri lagundu ahal izateko. Laugarrenik, norbere buruari eta besteei gustua eta atsegina ematea, hitzekin jolastuz plazer eta apainduria hutsarren, inozentziaz.

Erabilera hauei lau abusu dagozkie. Lehenengoa, gizakumeek beren pentsamenduak oker erregistratzen dituztenean, esanahi aldakorrek hitzak erabiliz eta, beraz, euren pentsamendutzat erregistratuz inoiz pentsatu ez dutena, eta, horrela, beren buruak atzipetuz. Bigarrena, hitzak metaforikoki erabiltzen dituztenean, hau da, izenok jarrita daukaten zentzuan barik beste batean; eta orduan besteak engainatzen dituzte. Hirugarrena, hitzez adieraziz hau edo bestea dela euren nahia, egiaz hori ez denean. Laugarrena, elkar mintzeko erabiltzen dituztenean; zeren ikusirik naturak, kreaturak, batzuk hortzez, besteak adarrez, besteak eskuz armatu dituela etsaiari min emateko, hizkuntzaren abusu garbia da, mihiaz min ematea edo iraintzea, geuk gobernatu behar dugunen bat ez bada, zeren orduan ez baita iraintzeko, zuzendu eta onbideratzeko baizik.

Hizkuntzak kausa eta efektuen sekuentzia gogoratzeko duen modua, izenak ezartzean eta elkarrekin lotzean datza.

Izenei dagokienez, batzuk propioak eta gauza bakar bati ezartzekoak dira, hala nola, Jon, Pedro, gizon hau, zuhaitz hau; eta beste batzuk arruntak dira gauza askori dagozkienak, hala nola, gizona, zaldia, zuhaitza. Azken hauetako izen bakoitza izen bakarra den arren, gauza partikular askoren izena da, eta denei batera dagokienez, unibertsala esaten zaio, munduan ez dagoelarik unibertsalik ezer izenak izan ezik, zeren izendatzen diren gauzetako bakoitza indibidual eta singularra baita.

Gauza askori izen unibertsal bakar bat, euren artean tasunen batean edo beste akzidenteren batean elkarren antza dutelako ematen zaie. Eta izen propioek burura gauza bakar bat dakarkiguten bitartean, unibertsalek asko horietariko bakoitza dakarkigute.

Eta izen unibertsalen artean, batzuk hedapen handiagokoak eta beste batzuk txikiagokoak dira, hedapen handiagokoek txikiagokoak hartuz; eta hedapen berdineko beste batzuek, berriz, elkar hartuz. Adibidez, gorputz izenak gizon hitzak baino esanahi zabalagoa dauka, eta hau haren barruan hartuta dago; eta gizon eta razional hitzek hedadura berdina dute eta bata bestearen barruan hartuta daude. Baina honetan ohartu beharra dago, gramatika pasatzen denaren alderantziz, ez dela hemen ulertu behar izen bat beti dela hitz bakar bat; zeren, batzuetan, ingurumariaz, hitz asko izan baitaitezke. Hitz hauek guztiek, adibidez, Bere ekintzetan bere aberriko legeak betetzen dituen, hitz bakar bat egiten dute: zintzoa.

Izen ezarketa honen bidez -batzuk esanahi zabalagokoak, beste batzuk esanahi estuagokoak- adimenduan irudituriko gauzen ondorioen multzoa, terminoen ondorioen multzo bihurtzen dugu. Adibidez, hizkuntzaz inola ere baliatu ezin den gizon batek (esate baterako gor eta mutu jaio eta horrela dirauen batek) triangulu bat eta haren ondoan angelu zuzen bi (lauki baten kantoiak bezalakoak) ikusten baditu, irudi horiez gogoeta eginez, konparazioak egin ahal izango ditu eta trianguluaren hiru angeluek alboan dituen angelu zuzen bien baliokideak direla konturatu. Baina forma diferenteko triangulu bat erakusten bazaio, ezingo du jakin, lehengo lana berriro egin gabe, hiru angelu horiek ere haren berdinak diren ala ez. Baina hizkuntzaz baliatu ahal denak, konturatzen denean berdintasun hori ez dela aldean luzeraren ez triangulu horren ezein ezaugarri partikularren ondorio, aldeak zuzenak eta angeluak hiru izatearena soilki baizik, eta hauxe dela honi triangulu deitzeko arrazoi guztia, dudarik gabe unibertsalki konkludituko du, angeluen baliokidetasun hau berbera dela triangulu guztietan, eta bere aurkikundea honako termino hauetan jasoko du: triangulu ororen hiru angeluek bi angelu zuzenen balio bera dute. Eta horrela, kasu partikular batetik aurkitutako ondorioa, arau unibertsal moduan jasota eta gogoratuta geratzen da, eta gure buru-gogoramena leku eta denboratik aske geratzen da, eta lehenengo aldiz egindako lana berriro egin beharretik libratzen gaitu; eta hemen eta orain egia dena edonon eta edonoiz egia izatea dakar.

Baina geure pentsamenduak erregistratzeko hitzez egiten dugun erabilpena, ez da inon zenbakietan baino ebidenteago. Zenbaki-izenen ordena naturala, bat, bi, hiru, buruz ikasterik izan ez duen sortzetiko tentel batek aditu ditzake erlojuaren kanpai-danbadak eta burukadaz markatu edo bat, bat, bat esan; baina ezin du inola jakin zein ordu jo duen erlojuak. Badirudi garai batean ez zirela erabiltzen zenbakien izenak eta esku bateko edo bietako atzamarrak erabili behar izaten zituztela kontatu nahi zituzten gauzen kontua eramateko. Hortik etorri zen gure zenbakiak hamar izatea nazio guztietan, eta batzuetan bost, baina berriro errepikatuz. Eta hamarreraino kontatzen dakienak, ordenarik gabe esaten baditu, galdu egingo da eta ez du zer egin duen jakingo; eta are ezgaiago izango da batzeko, kentzeko eta aritmetikako beste eragiketak burutzeko. Hitzik gabe, beraz, ez dago zenbakien kontu eramaterik, eta are gutxiago magnitudeen, abiaduraren, indarraren eta gizateriaren existentzia eta ongizaterako beharrezko diren kalkuluak egiterik.

Bi izen elkarri loturik daudenean ondorio edo baiezpene batean, adibidez, gizakumea kreature biziduna da edo gizakumea bada, kreature biziduna da, azken hitzak, hots, kreature bizidunak, lehenengoak, hots, gizakumeak esan nahi duen guztia esan nahi badu, orduan baiezpene edo ondorioa egiazkoa da; bestela gezurrezkoa. Izan ere, egiazkoa eta gezurrezkoa hizkuntzaren atributuak dira, ez gauzenak. Eta hizkuntzarik ez dagoenean, ez dago egiarik ez gezurrik. Egon daiteke errakuntza, gertatuko ez den zerbait espero dugunean edo jazo ez den zerbait susmatzen dugunean bezala; baina ez kasu batean ez bestean egotz dakioke inori egiarik eza.

Ikusirik, bada, egia geure baiezpenean izenak zuzen ordenatzean datzala, egia zehatzaren bila dabilen gizakumeak darabilen hitz bakoitzak zer esan nahi duen gogoratu behar du, eta egokiro kokatu; bestela hitzetan lazkatuta geratuko da, txoria likan bezala, zenbat eta borrokatuago lingiratuago. Eta, beraz, Geometriari (Jainkoak gaurdaino gizateriari eman nahi izan dion zientzia bakarra berau) gizakumeak beren hitzen esanahia finkatzetik hasten dira, esanahiak finkatze honi definizioa deritzo, eta beren arrazonomenduen hasieran jartzen dituzte definiziook.

Hemendik argi geratzen da zein beharrezko duen benetako ezagutzaren atzetik dabilen gizakumeak bere aurretiko autoreen definizioak aztertzea, edo zuzentzeko, artagabe erabakiak izan direnean, edo berak bere kabuz egiteko. Zeren definizioetako errakuntzak anizbidertu egiten baitira arrazonomenduan aurrera egin ahala, gizakumeek absurduetara eramanez, zeintzuk azkenerako ikusi bai baina ekidin ezin dituzten, berriro ere arrazonomenduaren hasierara jo ezik, hantxe baitago beren errakuntzen oinarria. Hemendik

dator ezen liburuez fido direnek, hainbat batuketa txiki suma handi batean, batuketa txikiok zuzen zeuden ala ez kontuan izan gabe sartzen dutenek bezala jokatzeko dutela; eta azkenean begien bistako errakuntza aurkitzen dute; baina euren lehenbiziko oinarriaz dudarik jartzen ez dutenez, ez dakite nola argitu beren buruak eta liburuetan hegaldak galtzen dute denbora, tximini ahotik sartu diren txoriak, beren burua gela batean sartuta aurkitzen dutenean, kristalezko leiho baten argitasun faltsurantz hegaldak hasten diren moduan, ez baitute argitasunik nondik sartu diren konturatzeko. Horrela bada, izenen definizio zuzenean datza hizkuntzaren lehen erabilpena, hau zientzia eskuratzea delarik. Eta definizio okerrean edo definizioz ezean datza lehen abusua, bertatik datozerarik gero iritzi oker eta zentzugabe guztiak. Honek zera dakar, beren ezagupenak liburuaren autoritateak, eta ez norbere hausnarketarik, hartzen dituzten gizakumeak ezjakinak baino beheagoko mailakoak izatea, benetako zientziaren jabe direnak, osteraz, goragoko mailakoak diren bitartean. Zeren ezjakintasuna benetako zientziaren eta doktrina okerrearen bitartean dago. Sen naturala eta irudimena ez daude absurdutasunaren menpean. Natura berez ezin da erratu; eta gizakumeek hizkuntz oparotasunean aurrera egin ahala, normala den baino jakitunago edo eroago bihurtzen dira. Eta, eskolarik gabe, inor ezin da puntako jakitun izan, ezta (oroimeneko gaitzen batek jota, edo organoak gaixorik eduki ezean) puntako zoro ere. Zeren hitzak baitira gizakume jakitunek beren arrazonamendu eta kalkuluetarako erabiltzen dituzten monetak; baina ematen zaaien balio guztia Aristoteles baten, Zizeron baten edo Tomas baten edo gizakumea besterik ez den beste edozein doktoreren autoritateak badator, eroen monetak dira.

Izendagarria, kalkulu batean sar edo kontuan har daitekeen eta batuketa baterako beste bati gehi dakioken edo kenketa batez kendu eta geratzen den oro da. Latindarrek rationes esaten zieten dirukontuei, eta kontatzeari ratiocinatio; eta guk fakturretan eta kontu-liburuetan partidak esaten diegunen haiek nomina, hau da, izenak, eta badirudi hemendixe datorrela haiek ratio hitza beste gauza guztietan ere kalkuluak egitera hedatu izana. Greziarrek hitz bakar bat zeukaten, λογος hala hizkuntza nola arrazonamendua izendatzeko; arrazonamendurik gabe hizkuntzarik ez dagoela barik, hizkuntzarik gabe arrazonamendurik ez dagoela uste zutelako. Eta arrazoitzeko egintzari silogismo deitu zioten, perpaus batetik bestera datorren ondorio ateratzea esan nahi duelarik. Eta gauza bera, dituen akzidente ezberdinen arabera har daitekeenez, gauzen izenak ezberdintasun hau adieraziz jarri eta ezberdintzen dira. Izen-ezberdintasun hau lau izenburu orokorrean bil daiteke.

Lehenik, gauza bat bere materia edo gorputza kontuan hartuta ikus daiteke, hala nola, bizidun, sentigarri, razional, bero, hotz, mugigarri, geldi denez. Izen guztioz materia edo gorputz hitza ematen da aditzera, denak baitira materiarekiko izenak.

Bigarrenik, gauza horretan dagoela pentsatzen dugun akzidenteren bat har dezakegu kontuan, esate baterako, mugitzen ari denez, edo honenbesteko luzera daukanez, bero dagoenez, e.a.; orduan, aldaketa edo mudantza txiki batez, kontuan dugun akzidentearen arabera jartzen diogu izena gauzari berari, bizidunerako, bizia hartzen dugu kontuan; mugigarriarako mugimendua, berorako berotasuna; luzerako luzera eta abar. Izen guztiok, Materia edo Gorputz bat besteetatik bereizten duten akzidenteen eta tasunen izenak dira. Izen abstraktuak deritze, materiatik barik materiaren guk egindako konpututik aterata daudelako.

Hirugarrenik, geure gorputzen propietateak hartzen ditugu kontuan, euren arabera honelako bereizpenak eginez: gauza bat ikusten dugunean, ez dugu jasotzen gauza bera, irudimenean dugun ikuspen, kolore edo ideia baizik; eta zerbait entzuten dugunean, ez dugu gauza bera atzematen, entzutea edo hotsa soilik baizik, zeina gure entzumenak zerbait horri buruz duen fantasia edo kontzepzioa baita; eta hauek fantasien izenak dira.

Laugarrenik, izenak eurak eta esamoldeak kontuan hartu eta izena jartzen diegu. Zeren, orokor, unibertsal, berezi, ekiboko, izenen izenak baitira. Eta baieztapen, galdera, agindu, narrazio, silogismo, hitzaldi, perpaus eta horrelako beste asko esamoldeen izenak dira. Eta hauxe da izen positiboaren barietate guztia, zeintzuen funtzioa naturan dagoena edo giza adimenduaren fikzioz sortutakoa adieraztea den, hala nola, benetan existitzen diren edo existituko bailiren bururatzen ditugun gorputzak, edo benetan edo geuk egindako fikzioan existitzen diren tasunak, edo hitzak edo esamoldeak.

Badira beste izen batzuk ere, negatiboak deritzenak, aztergai den gauzaren izena ez dela adierazteko erabiltzen direnak. Ezer ere ez, inor ere ez, infinitu, menperagaitz, hiru ken lau bezalako hitzak. Hala ere, geure kontuetan, edo geure kontuen zuzenketetan erabili egiten dira; eta, ezereen izenak ez diren arren, iragandako pentsamenduak burura ekartzen dizkigute, desegokiro erabilitako hitzak onartzea galarazten digutelako.

Beste izen guztiak esangura gabeko hotsak baino ez dira, eta bi eratakoak izan daitezke. Bat, berriak direnean eta euren esanahia oraindik ezein definizioz azaldu ez duenean; mota honetako hitz asko taxutu dituzte eskolastikoek, filosofoak nahasiz.

Bestea, gizakumeek hitz bi bat egin eta esanahi kontraesankor eta funts gabeko bat eraikitzen dutenean ateratzen dena da. Mota honetako hitzak gorputz gorputzagabea, edo (gauza bera dena) substantzia gorputzagabea eta beste asko dira. Zeren, baieztapen bat faltsua denean, osagai dituen hitz biek elkartu eta bat

eginda ez baitute inolako esanahirik. Adibidez, koadratu bat biribila dela esatea baiezen faltsua baldin bada, koadratu biribila hitzak ez du inolako esanahirik, hots huts bat besterik ez baita. Antzera batean, bertutea isur edo gora eta behera puzka erabil daitekeela esatea faltsua baldin bada, bertute isuria, bertute infusua hitzak, koadrangelu biribila bezain absurdu eta esanahi gabekoak dira. Eta, hala ere, nekez aurkituko duzu zentzurik ez esanahirik gabeko hitzik Latin edo Grekoazko izenez eginga ez denik. Frantses batek nekez entzungo du gure Salbatzailea parole hitzarekin izendatzen, baina verbe hitzarekin sarri; hala ere verbe eta parole hitzek, bata latinezkoa eta bestea frantsesezkoa direla beste alderik ez dute.

Gizakume bat, esaldi bat entzun ondoren, esaldiaren hitz eta loturen bidez adierazi nahi ziren pentsamenduen jabe egiten denean, ulertu duela esan ohi da. Ulertzea, diskurtsoetik eratorritako kontzepzioa besterik ez baita. Eta horregatik diskurtsoa gizakumeari dagokion gauza berezi bat bada (eta nik hala uste dut), ulertzea ere haren gauza berezia da. Eta, beraz, baiezen absurdu eta faltsuetatik, unibertsalak badira, ezinda ulerpenik etorri, askok ulertzen dituztela uste izan arren, hitzak errepikatu edo buruan itsatsi besterik ez baitute egiten.

Zein motatako esamoldeak balio duten giza adimenduaren gutuziak, abertsioak eta grinak adierazteko, eta euren erabilpen eta abusuari buruz, grinez hitz egin ondoren mintzatuko naiz.

Guregan eragina duten gauzen izenek, hau da, atsegin eta desatsegin ditugunek (gauza berberak ez dutelako eragin bera gizakume guztiengan, ezta gizakume berberarengan aldi guztietan ere) esanahi ez-iraunkorra dute gizakumeen diskurtso arruntetan. Ikusirik izen guztiak direla ezarriak geure kontzepzioak adierazteko eta ditugun eraginak kontzepzioak besterik ez direla; horrela, gauza berberak ezberdinki bururatzen ditugunez, nekez ekidin dezakegu gauzok ezberdinki izendatzea. Zeren bururatzen dugunaren izaera berbera den arren, izaera hori guk ezberdinki jasotzeak gorputz-egituraren eta bakoitzaren aurritutik arabera, geure grina diferenteen kutsua ematen die gauza guztiei. Eta horregatik, arrazoitzean, geure hitzak ondo pisatu beharra dago, zeren guk hitzon izaerarena dela uste dugun esanahiaz gain, hiztunaren izaera, jarrera eta interesetik datorrena ere badaukate eta; horixe da bertute eta bizioen izenei dagokienez jasotzen dena, zeren batek jakinduria deitzen dio beste batek beldurra dela dioenari; eta batek ankerkeria beste batentzat justizia denari, batek etxekalteak besteak eskuzabaltasuna dela dioenari, batek seriotasuna besteak tenteltasuna dela dioenari, e.a. Horrelako izenak, beraz, ezin dira inoiz izan inolako arrazonomenduaren benetako oinarri. Eta hizkuntz metafora eta tropoak ere ez haiek baino gehiago, nahiz eta hauek ez diren haiek bezain arriskutsuak, hauen funsgabetasuna agerikoa baita, eta haiena, berriz, ez.

## V

Arrazoimenaz eta zientziaz

Gizon bat arrazoitzen ari denean, zatien batuketaz batura total bat bururatu besterik ez du egiten, edo, batura bati beste bat kenduz, kenketa bat bururatu. Hau hitzen bidez egiten bada, egiten dena zera da, gauza guztien izenak elkarlotuz, guztiaren izena bururatu, edo guztiaren izenetik eta zati batetik beste zatiaren izena. Eta nahiz eta kasu batzuetan (zenbakietan bezala) batu eta kenduz gain gizakumeek biderkatu eta banatu ere egiten duten, eragiketa berak baino ez dira, zeren biderkaketa gauza berdinen batuketa besterik ez baita eta banaketa gauza baten kenketa ahal hainbat aldiz. Eragiketa hauek ez dira zenbakiekin bakarrik egiten, elkarri erantsi edo kentzeko modurik duten gauza guztiekin baizik. Aritmetikariek zenbakiekin batu eta kentzen irakasten duten bezalaxe, geometriariek gauza bera irakasten dute lerro, irudi (sendar eta azalerakoak), angelu, proportzio, denbora, abiadura gradu, indar, botere eta horrelako gauzekiko; logikariek, berriz, gauza bera egiten dute hitz-sekuentziei dagokienez; hitz bi bata bestearekin batzen dute baiezen bat osatzeko; bi baiezen silogismo bat egiteko eta zenbait silogismo demostrazio bat egiteko; eta batuketa edo silogismo baten konklusioari proposizio bat kentzen diote bestea aurkitzeko. Politikako idazleek itunak batzen dituzte, bata bestearekin, giza betebeharrak ezartzeko; eta juristek legeak eta egitateak, gizabanakoen egintzetan zuzena eta okerra zer den erabakitzeko. Batuketa eta kenketarako lekua eskaintzen duen edozein gaitan arrazoimenarentzat ere lekua dago; eta hark lekurik ez duen edonon, arrazoimenak ez du zereginik.

Hemendik guztitik, defini (hau da, determina) dezakegu arrazoimen hitza zer den eta zer esan nahi duen, adimendu-ahalmenen barruan sartzen dugunean. Zeren ARRAZOIMENA, zentzu honetan, gure pentsamenduak seinaltatzeko eta eurei esanahia emateko adostasunez hartutako izenen ondorio orokorren konputua (hau da, batuketa eta kenketa) besterik ez baita; seinaltatu hitza norberarekiko erabiltzen dut, eta esanahia eman geure konputuak beste gizakume batzuekiko demostratu edo onesten ditugunean.

Nola Aritmetikan praktikoak ez diren gizakumeak nahitaez erratzen diren, eta irakasleak ere maiz erra daitezkeen eta konputu faltsuak egin, halaxe arrazonomenduaren beste eremu batzuetan ere, gizakumerik gaienak, adienak eta praktikoarenak beren buruak engaina eta konklusio gezurrezkoak atera ditzakete. Arrazoimena, berez, beti da arrazoimen zuzena, Aritmetika zientzia ziur eta hutsezina den bezala. Hala ere, ez gizakume baten arrazoimenak, ezta gizakume batzuen arrazoimenak ere, ez dute egiten ziurtasuna; eta konputu bat zuzena denik ere ezin esan daiteke gizakume askok aho batez onetsi dutelako. Beraz, nola konputu bati buruz eztabaida dagoenean aldeek euren artean bat etorrita eta egiazko arrazoia zein den erabakitzeko erabakitzaile edo epaile batengana jo beharra duten, biek haren epaia onartuz, beren

eztabaida kolpeka bukatzea edo erabaki barik geratzea nahi ez badute arrazoi natural baten faltaz, halaxe izan behar du beste edonolako debateetan ere. Eta beren burua besteena baino hobetzat daukaten gizakumeek benetako arrazoa epailetzat aldarrikatzen eta galdatzen dutenean, beren arrazoiak eta ez beste inorenaz gauzak erabakitzea besterik ez dute nahi, jokabide hau gizartean, kartetan fua seinalatu ondoren, norberak karta gehien daukan paloa futzat erabiltzea bezain jasanezina delarik. Zeren beren grinak arrazoi zuzentzat hartu besterik ez baitute egiten, modu batera edo bestera berauen eragina izan ahala, eta beren eztabaidetan, arrazoa eurentzat galdatzeko duten moduaz, arrazoi zuzenik ez daukatela erakusten dute.

Arrazoimenaren erabilera eta xedea ez da lehenengo definizioetatik eta izenen esanahi ezarritik urrun ondorio baten edo batzuen suma edo egia aurkitzea, baizik handik hasi eta ondorioz ondorio jardutea. Zeren ezin baita azken konklusioaren ziurtasunik eduki, beronen oinarri eta ondoriobide izan diren beste guztiena eduki barik. Familiburu batek, kontaduria egitean, faktura partzialen batuketa eginaz joatea bezala da, guztirako kopurura iritsi arteino, hartzedun bakoitzak faktura bakoitzaren batuketa nola batu duen, eta zein kontzeptutan, ardura izan barik. Honek ez dio, bere hartzedunen ziurtasun eta onestasunaz fido izanda guztirako faktura pasatzen uzteak baino mesede handiagorik egiten. Gauza bera gertatzen zaio, beste gauza guztien gainean arrazoitzean ere, autoreez fidatuz konklusioak atera eta autore horiek beren arrazonamenduen oinarritzat hartu dituzten lehen elementuak (hau da, definizioen bidez finkaturiko izenen esanahiak) egiaztatzen ez dituenari; denbora galtzen ari da eta ez du ezer ezagutzen, sinetsi besterik ez baitu egiten.

Gizakume batek hitzik erabili gabe kalkulatzeko duenean, zenbait kasutan egin daitekeena nonbait (esate baterako, gauza bat ikusiz gutxi gora-behera zer jazo den aurretik eta zer gertatuko den gero antzematen dugunean), ondoren jazoko zela uste genuena gertatzen ez bada edo aurretik gertatua zela uste genuena gertatu ez bada, orduan hau ERRAKUNTZA deritzona da, gizonik zuhurrenek ere izan dezaketena. Baina esanahi orokorreko hitzez arazoitzean dugunean eta faltsua den inferentzia orokorrera iristen garenean, nahiz eta honi ere errakuntza esaten zaion, ABSURDU bat da, izan, zentzurik gabeko esaldia. Zeren errakuntza tronpaketa bat besterik ez baita, zerbaite gertatu zela iraganean edo etorkizunean gertatuko dela suposatzean izaten duguna, baina iraganean gertatu izan ez balitz eta etorkizunean gertatuko ez balitz ere, bere baitan ezintasunik ez duena. Baina baiezen orokor bat egiten dugunean, egiazkoa ez bada, haren posibilitatea bururaezina da. Eta beraien hotsa besterik bururatu ezin ditugun hitzak, absurduak, esanahirik eta zentzurik gabekoak deitzen ditugunak dira. Horregatik, gizakume batek hitz egingo balit koadratu biribil batez, edo ogiaren akzidenteez gaztan, edo substantzia inmaterial batez, edo manupeko libre batez, edo nahimen libre batez, edo beste edozein gauza librez, salbu trabak eragotzita egotetik libre dagoenaz, ez nuke esango hau erratuta dagoenik, haren hitzek esanahirik ez dutela baizik, hau da, absurduak direla.

Lehen (bigarren kapituluan), esan dut gizakia beste animalia guztien gainetik dagoela honako ahalmen hauxe daukalako: edozer bururatzen duenean, gai dela haren ondorioak eta eragin ditzakeen efektuak bilatzeko. Eta orain bikaintasun honen beste gradu bat gehitzen dut: gizakume bat gai dela berak aurkituriko ondorioak teorema edo aforismoak deritzen arau orokorretara biltzeko; hau da, zenbakiekin ez ezik, beste gauzei batu edo kendu ahal zaizkien gauza guztiekin arrazoitu eta kalkulatzeko gai dela.

Baina pribilegio hau beste batek ematen du, absurduan erortzeko pribilegioak, gizakia beste kreaturarik menpeko ez duen pribilegioa berau. Eta gizakume guztien artean, beronen menpekoenak filosofiarantz dedikatzen direnak dira. Zeren egia galanta baita Zizeronek filosofoez nonbait zioena: ez dagoela hain absurdurik ezer, filosofoen liburuetan ezin aurkitu daitekeena. Eta arrazoa begien bistakoa da. Zeren ez baitago filosoforik bere arrazoiketa erabiliko dituen hitzak definitu edo azaltzetik hasten duenik, metodo hau geometrian bakarrik erabili izan baita, beronen konklusioak, horregatik, eztabaidaezin bihurtu direlarik.

1. Konklusio absurduen lehenengo kausa metodorik ezari egozten diot, ez baitute beren arrazoiketa definizioetatik hasten, hau da, beren hitzen esanahia zehaztetik, bat, bi, hiru zenbaki-hitzen balioa jakin gabe kontatu ahal balute bezala jokatz.

Eta gorputz guztiak aspektu ezberdinen arabera (aurreko kapituluan ukitu ditut) hartuta sartzen direnez arrazoitzera, aspektuoi izen ezberdinak jartzen zaielarik, absurdu ezberdinak sortzen dira nahasmendutik eta asertzioetan euren izenak desegokiro jostetik. Eta honen ondorioz,

2. Asertzio absurduen bigarren kausa, gorputzen izenak akzidenteei, edo akzidenteentzako gorputzei emateari egozten diot. Horixe egiten dute fedea infusua edo inspiratua dela diotenek, nahiz eta ezer ezin den isuri edo arnastu gorputzen batera izan ezean, edo hedadura gorputza dela, edo mamuak izpirituak direla, e.a., diotenek.

3. Hirugarrena, geure gorputzeko akzidenteei geure gorputzez kanpoko akzideenteen izenak emateari eratxikitzen diot, zera diotenek egiten duten bezala, hots, kolorea gorputzean dago, hotsa airean dago, e.a.

4. Laugarrena, izenei eta esamoldeei gorputzen izenak emateari. Horixe egiten dute gauza unibertsalak daudela, izaki bizidun bat generoa dela, edo gauza bat orokorra dela diotenek.

5. Bosgarrena, izenei eta esamoldeei akzidenteen izenak emateari. Horixe egiten dute gauza baten izaera beraren definizioa da, edo gizon baten agindua beraren nahimena da, e.a., diotenek.

6. Hitz egokiak erabili beharrean, metaforak, tropoak eta beste figura erretorikoak erabiltzeari. Zeren, hizkera arruntean legezko den arren, adibidez, bidea hona edo horra doa, edo garamatza, edo esaera zaharrak hau edo bestea dio esatea, nahiz eta bideak ezin diren inora joan ez esaera zaharrek hitz egin, arrazoitzean eta egia bilatzean, horrelako hizkera molderik ezin da onartu.

7. Zazpigarren kausa, inolako esanahirik ez duten, baina Eskoletatik hartu eta errutinaz ikasten diren hitzei, hala nola, hipostatiko, transubstantziatu, konsubstantziatu, oraintasun eternal eta eskolastikoen gainerako leloei.

Horrelako gauzak ekidin ditzakeena nekez eroriko da inolako absurdutan, arrazonamendu luzea erabili eta beharbada aurrean zetorrena ahortzi egin duelako izan ezik. Zeren gizon guztiek berez berdinean eta ongi arrazoitzen baitute printzipioak dituztenean. Izan ere, nor izan liteke, Geometriari errakuntza bat egin eta, beste batek errorea ikustarazi ondoren, errorea irauteko bezain baboa?

Horregatik argi geratzen da arrazoimena ez dela, zentzua eta oroimena bezala, geurekin batera jaiotako zerbait, ezta, zuhurtzia den bezala, esperientziak soilki eskuratua ere, ahaleginaz eta lanaz erdiesten dena baizik, izen egokiak ezarri lehenengo eta behin, eta gero metodo onaz, hitzak diren elementu hauetatik hasita, asertzioak eratzeraz joaz euren elkarketaren bidez; eta hortik asertzioen elkarketak diren silogismoak eratzeraz, harik eta eskuartearen darabilgun gai bakoitzari dagozkion izenetatik eratorritako ondorio guztiak ezagutzera iritsi arteino; eta hauex da gizakumeek ZIENTZIA esaten diotena. Eta zentzua eta oroimena egitate iragan eta aldaezinen ezagupena besterik ez den bitartean, zientzia ondorioen eta egitate batek beste batekiko duen loturaren ezagutza da; beronen bidez, orain egin dezakegunetik hasita, geuk nahi dugun beste gauza bat, edo antzeko gauza bat hurrengoan nola egin ezagutu ahal dugu. Zeren gauza bat nola gertatzen den, zein kausak eta nola sortua den ikusten dugunean, antzeko kausak kontrolpean ditugunean, jakingo dugu nola eragin haiei antzeko efektuak.

Haurrek, horregatik, ez dute ezelako arrazoimenik, harik eta hizkuntzaren erabilpena iritsi arte; baina kreatura arrazoidunak esaten zaie, gerora arrazoimenaren erabilera izateko ahalbidea erakusten dutelako. Eta gizakumerik gehienei, arrazoimenaren nolabaiteko erabilera eduki arren, gradu bateraino zenbatzeko duten ahalmenean ikusten denez, arrazoimenak ezer gutxirako balio die gizarteko bizitzarako; beren buruak gobernatzen dituzte, batzuek hobetotxoago, beste batzuek txartotxoago, duten esperientzia, oroimen-azkartasuna, eta xede ezberdinetarako aiherkundearen arabera; baina, batez ere, zorte on edo txarraren, eta elkarrekiko errakuntzen arabera. Zientziari edo beren egintzetan arau ziurrez jokatzeari dagokionez, hain urrun daude hortik, non zer diren ere ez baitakite. Geometriari konjurua deritzote. Baina beste zientziei dagokienez, haien hastapenetan irakatsiak eta nolabaiteko aurreramenturik eginak ez badira, nola norberegantzen eta garatzen diren ikusteko adina, sortzapenaren mekanismoak ezagutzen ez eta, emakumeek esaten dietena, hots, euren neba-arrebatxoak jaio ez baina jardinean aurkitu zituztela sinesten duten haurrak bezalakoak dira.

Baina, hala ere, zientziarik ez daukatenek egoera hobe eta nobleagoa dute zuhurtzia naturala daukatelako, arrazoimena gaizki erabiltzearen edo arrazonamendu okerrak egiten dituztenez fidatzearen, faltsu eta absurduak diren arau orokorretan erortzen direnak baino. Zeren kausa eta arauetako ezjakintasunak ez ditu gizakumeak beren bidetik arau faltsuek bezainbat apartatzen, ezta nahi duten gauza baten kausatzat haren kontrako gehiago denaren kausak hartzeak bezainbat ere.

Amaitzeko, giza adimenduaren argia hitz argiak dira, baina definizio zehatzez aurretik anbiguotasunetik araztuak; arrazoimena aurreralekoa da; zientzia gehitzea, bide; eta gizadiaren onura, helburu. Aitzitik, metaforak eta hitz zentzugabe eta anbiguoak ignes fatui bezalakoak dira; eta eurentzat baliatuz arrazoitzea mila absurdutan zehar noraezean ibiltzea da; eta bukaeran ausia, sedizioa, edo erdeinua.

Esperientzia handia zuhurtzia den bezala, zientzia handia jakinduria da. Zeren, guk bie jakinduria esaten badiegu ere, latindarrek beti bereizi izan zuten zuhurtzia eta jakinduria, lehenengoa esperientziarekin lotuz eta bigarrena zientziarekin. Baina bereizpen hau argiago jartzeko, irudi dezagun armak erabiltzeko eskuetan trebetasun natural bikaina duen gizakume bat eta beste bat trebetasun horri ikasitako zientzia erantsi diona, beroni esker jarrera eta goardia guztietan etsai bati eraso zein berarengandik defendatzeko zientzia eskuratu duelarik. Lehenengoaren trebetasuna bigarrenarekiko, zuhurtzia jakinduriarekiko dena litzateke; biak baliagarri, baina bigarrena hutsezin. Baina liburuaren autoritateaz soilik fido izan eta itsuari itsuki segika doazenak, esgrima-maisuaren arau faltsuez fidatuz, hil edo zaurturik utziko duen etsai batekin harrokeriaz beterik borrokatzeraz benturatsen denaren antzekoak dira.

Zientzi seinale batzuk ziurrak eta hutsezinak dira eta beste batzuk ez-ziurrak. Ziurrak dira, zerbaiten zientzia duela aldarrikatzen duenak, zientzia hori irakatsi, hau da beste bati argi demonstratu, ahal dionean; ez-ziurrak dira, diotenari gertaera partikular batzuek bakarrik erantzuten diotenean, eta frogak beharrezkoak zenbait aldiz bakarrik frogatzen dutenean. Zuhurtzi seinaleak denak dira ez-ziurrak, gertaera bat alda dezaketen zirkunstantzia guztiak esperientziak hauteman eta gogoratzea ezinezkoa delako. Baina gizakumeak zientziarik ez daukalako berau gidari hutsezintzat erabiltzerik ez duen edozein gaitan,



norbere irizmen naturala albo batera utzi eta autoreei irakurritako pentsamendu orokorrak, mila salbuespen dutenak, gidaritzat hartuta jokatzeari, erdeinuz eskuarki maisukeria esaten zaion zentzugabekeriaren seinale da. Eta gobernu kontseilueta politika eta historiako beren irakurketak agertzea gustatzen zaien gizakumeen artean ere, oso gutxi dira afera partikularretan, euren interesak jokatzen direnetan, hori egiten dutenak, beren arazo partikularretan zuhurtziaz aski dutelarik, baina publikoan dabiltzanean euren iaotasuna ondo gera dadin ardura handiagoa dute besteen arazoak arrakastaz konpontzeko baino.

## VI

Arruntki grinak deritzen nahitako mugimenduen barne-sorreraz eta berauek adierazteko hizkuntzaz

Animaliek bi mugimendu dituzte beren-berenak direnak: batari bitala deritza, sortzean hasten da eta euren bizitza guztian dirau etenik gabe. Horrelakoak dira odolaren abioa, pultsua, arnasketa, liseriketa, elikapena, irazpena, e.a., eta mugimendu hauek ez dute behar irudimenaren laguntzarik. Bigarrena, animali mugimendua da, nahitako mugimenduak ere esaten zaienak, hala nola, ibiltzea, mintzatzea, geure edozein soinadar mugitzea, lehenago geure adimenduan iruditua izan dena gauzatuz. Esana daukagu lehenengo eta bigarren kapituluaren, zentzua giza gorputzaren organo eta barruko aldeetan, ikusten, entzuten... ditugun gauzek eragindako mugimendua dela, eta irudimena ez dela zentzuaren ondoren gure barruan geratzen den mugimendu horren hondakina besterik. Eta ibiltzea, mintzatzea eta antzeko nahitako mugimenduak lehenago nora, nola eta zer pentsa izanetik datozenek beti, begibistakoa da irudimena dela nahitako mugimendu ororen barne-hasiera. Eta, nahiz eta gizakume eskolagabeek ezin duten bururatu inolako mugimendurik izan daitekeenik mugitua den gauza ikustezina bada, edo gauza hori mugitzen den espazioa (txikia izaki) zentzuaz hautemangaitza bada, hau ez da eragozpen mugimendu horiek benetan gerta daitezen. Zeren, espazioa den txikiena izanda ere, hura zati duen espazio handiagoan mugitzen den gauza orok, zati txiki horretan mugitu behar du lehenbizi. Gizakumearen baitan, ikusteko moduko egintzetan -hala nola, ibili, mintzatu, kolpeka ari, eta beste batzuk- agertu baino lehen gertatzen diren mugimendu-hasiera txiki horiei, AHALEGINAK deritze arruntki.

Ahalegin honi, berau kausatzen duen zerbaitetara zuzentzen denean, GUTIZIA edo DESIRA deritza, bigarrena izen orokorra delarik, eta lehenengoa, sarritan, elikape-desira, hots, gosea eta egarria, adieraztera mugatzen den hitza. Eta ahalegina zerbaitetik aldentzera denean, ABERTSIOA esaten zaio. Hitzok, gutizia eta abertsioa, latindarrendandik hartuak ditugu, eta mugimenduak adierazten dituzte biek, bata hurbiltzera eta besteak aldentzera. Horixe bera gertatzen da esanahi bera daukaten ὀρμη eta ἀφορμη hitz grekoekin ere. Izan ere, Natura bera da gizakumeei ideia horiek ezartzen dizkiena, gero naturaz handiko zerbaiten bila ari direnean behaztopo bihurtzen zaizkienak. Zeren Eskolek ez baitute aurkitzen ibiltzeko edo mugitzeko gutizian benetako mugimendurik; baina gutiziotan mugimenduren bat aitortu behar dutenez, mugimendu metaforikoak esaten diete, hizkera absurdua besterik ez delarik hau, zeren, hitzak metaforikoak direla esaterik badagoen arren, gorputzak eta mugimenduak ezin baitira metaforikoak izan.

Gizakumeei desiratzen dutena, MAITE dutela ere esan ohi da. Eta abertsioa dieten gauzak GORROTATU egiten dituztela ere esaten da. Horrela, desira eta maitasuna gauza bera dira, zera kenduta, hots, desirak objektuaren ausentzia inplikatzeko duela beti eta maitasunak, osteratzen, gehienetan, haren presentzia. Era berean abertsioaz objektuaren ausentzia adierazten dugu eta gorrotoaz haren presentzia.

Gutizia eta abertsioen artean, batzuk sortzetikoak ditu gizakiak, hala nola jangura eta irazkura edo libragura (hauei egokiroago beren gorputzetan sentitzen duten zerbaitetik apartatzeko abertsioak dei dakieke) eta beste batzuk, ez asko. Gainerakoak gauza partikularrekiko gutiziak dira eta gizakumek berarengan edo besteengan gauza horiek eragindako efektuen esperientzia eta egiaztapenetik sortuak dira. Inondik ere ezagutzen ez ditugun edo ez direla existitzen uste dugun gauzez, beraiek dastatzeko eta esperientziatzen ahalegintzeko beste desirarik ezin dugu eduki. Baina abertsioa kalte egin digutela dakigun gauzei ez ezik, kalterik egingo dutenentz ez dakigunei ere badiegu.

Ez maite ez gorroto ditugun gauzak erdeinatu egiten ditugula esaten da. ERDEINUA, bihotzaren mugiaiztasun edo setakeria baino ez da, objektu batzuen eraginari eustera garamatzana, bihotza beste objektu indartsuagoek mugitzen digutelako edo haien esperientziarik ez dugulako.

Eta giza gorputza etengabe aldatzen ari denez, ezinezkoa da gauza berek pertsona berarengan beti gutizia eta abertsio berberak eragitea; eta ezinezkoagoa oraindik gizakume guztiak bat etortzea objektu bat eta beraren desiran.

Baina edozein izanda ere gizakume baten gutizia edo desiraren objektua, haren ikusirako ona izango da beti, eta haren gorroto edo abertsioaren objektua txarra; eta haren erdeinuarena baliogabea eta aintzat ez hartzekoa. Zeren ona, txarra, erdeinagarria, hitzok, darabiltzanarekin erlazionaturik erabiltzen dira beti, ez baitago ezer soilki eta erabat hori denik; ez dago ezta ere objektuen euren izaeratik datorren on eta txarraren arau orokorrik, giza pertsonarengandik etorritakoa baizik (Estaturik ez dagoen tokian) edo

ordezkaritza duen pertsonarengandik edo desakort daudenek akordioz jartzen duten bitartekari edo epailearengandik (Estatu barruan), haren epaia arau bihurtuz.

Latinak bi hitz dauzka on eta txarretik hurbil daudenak, gauza berbera ez badira ere. Hitz horiek pulchrum eta turpe dira. Lehenengoak esan nahi du zerbaitek, agerian dituen seinale batzuetatik, on itxura duela; eta bigarrenak, txar itxura duela. Baina gure hizkuntzan ez dugu eurak adierazteko hain izen orokorrik. Pulchrum esateko, gauza batzuei buruz, ederra esaten dugu; beste gauza batzuei buruz, polita, dotorea, galanta, ohoregarria, gizabidetsua, atsegingarria; eta turpe esateko, zentzugabea, itxuragabea, itsusia, zabarra, nazkagarria eta antzeko hitzak, kasuaren arabera. Hitz hauek guztiok, dagokien lekuan jarrita, ona eta txarra agintzen duten itxura edo aurpegia besterik ez dute esan nahi, \*edo onerako distira edo printza [...]\*. Horrela, onaren barruan hiru mota dago: ona promesan, hau da, pulchrum; ona efektuan, xede desiratua denez, jucundum, atsegingarria deritzona; eta ona bitarteko bezala, utile, baliagarri deritzona. Txarrean ere, beste hainbeste mota daude; txarra promesan, turpe deitzen dutena da; txarra efektuan eta xedearen molestum, hau da, desatsegin, kezkarri; eta txarra bitartekoetan inutile, alferreko, kaltegarri deritzona.

Nola zentzuan benetan geure baitan daukaguna, lehen esan dudan moduan, kanpoko objektuek eragindako mugimendua baino ez den, nahiz eta itxuraz -ikusmenean, argia eta kolorea; entzumenean, hotsa; usaimenean, usaina, e.a.-, halaxe, objektu beraren eragina begietatik, belarrietatik eta beste organo batzuetatik bihotzera iragaten denean ere, han eragiten duen efektua, objektuarenganako gutizia edo harengandiko abertsioa den mugimendu edo ahalegin bat besterik ez da. Baina mugimendu horren agerpena edo zentzua, kasuaren arabera, adimenduaren ATSEGINA edo ATSEKABEA esaten dioguna da.

Gutizia eta, agerpenean, gozamina eta atsegina deritzon mugimendu hau, bizi-mugimenduaren berrespen eta laguntza da, nire ustez. Eta, hargatik, atsegin-iturri diren gauzei, jucunda (à juvando) deritze, lagundu edo indartu egiten dutelako; eta honen aurkakoei, molesta, oztopagarriak, bizi-mugimendu hori oztopatu eta zangotrabatu egiten dutelako.

Beraz, atsegina (edo gozamina) onaren itxura edo sentsazioa da; eta molestia edo atsekabea txarraren itxura edo sentsazioa. Eta, honen ondorioz, gutizia, desira edo maitasun orok gozamen handiago edo txikiagoa darama lagun, eta gorroto edo abertsio orok, atsekabe edo oztopo handiago edo txikiagoa.

Plazer edo gozamenen artean, batzuk objektu presenteren baten sentsaziotik sortuak dira, eta hauei zentzuetao plazerrak esan dakieke (Sentsual hitzak, berau gaitzesten dutenek erabiltzen duten moduan, ez du zentzurik, Legerik ez den bitartean). Horrelakoxeak dira gorputzaren hartze eta iraitze guztiak; baita ere ikusmen, entzumen, usaimen, dastamen eta ukimenean atsegin den guztia.

Beste batzuk gauzen xedea edo ondorioak aurrikusi eta itxarobideak sortzetik datozenak dira, atseginak edo desatseginak izan. Eta ondorio horiek deduzitzen dituenak sentitzen dituen adimenduaren plazerrak dira, orokorrean POZA esaten zaiona. Era berean, ondoez edo atsekabe batzuk zentzuan gertatzen dira, eta MINA esaten zaie; beste batzuk ondorioak itxarrotean datzate eta TRISTURA izena hartzen dute.

Gutizia, desira, maitasuna, abertsioa, gorrotoa, poza eta tristura deritzen grina sinple hauek izen diferenteak hartzen dituzte, berauek kontuan hartzeko ditugun modu ezberdinen arabera. Lehenik, grina baten hurrengo beste bat datorrenean, izen ezberdinak hartzen ditu, desiratzen duguna lortzeko ahalbidez dugun iritziaren arabera. Bigarrenik, desiratzen edo gorrotatzen den objektuaren arabera. Hirugarrenik, grina asko batera kontuan hartzen badira. Laugarrenik, grinen aldatze edo bata bestearen atzetik etortzearen arabera.

Lortzeko ustea daraman gutiziari ESPERANTZA deritzo.

Horri berorri, lortzeko usterik gabe, ETSIPENA.

Objektutik kalteren bat etor dakigukeen ustea daraman abertsioari, BELDURRA.

Gauza berari, gogor jokatzu kalte hori ekiditeko ustearekin batera, ADOREA.

Bat-bateko adoreari, SUMINA.

Esperantza iraunkorrari, geure buruarekiko FIDANTZA.

Etsipen iraunkorrari, geure buruarekiko MESFIDANTZA.

Beste bati egindako kaltearengatik suminari, kalte hori zuzengabekeriaz egin dela uste dugunean, HASERREA.

Inoren ona desiratzeari, ONGURA, BORONDATE ON, KARITATEA esaten diogu. Gizakiari, orokorrean, bejondeiola desiratzeari, NATURA ONA.

Aberastasun desirari, DIRUZALEKERIA, beti ere keria adieraziz erabiltzen den hitza berau, aberastasunak lortzeko gizakumeak elkarrekin haserretuta ibiltzen baitira; hala ere, desira hau berez, gaitzesgarria edo onargarria izan daiteke, aberastasunok lortzeko erabiltzen diren bitartekoen arabera.

Ohore eta kargu publikoen desirari, HANDINAHIA esaten zaio, izen hau ere zentzurik txarrean erabiltzen delarik beti, lehen aipatutako arrazoiengatik.

Geure helburuetara neurri txikian garamatzaten gauzen desirari, eta garrantzi txikiko gauzen beldurrari, UZKURKERIA esaten diogu.

Laguntza eta eragozpen txikien erdeinuari, GOGOHANDITASUNA.

Heriotza edo zauri arriskuan izandako gogohanditasunari, KEMENA, SENDOTASUNA.

Gogohanditasunari aberastasunen erabileran, ESKUZABALTASUNA.

Uzkurkeriari gauza berean, ZIKOIZKERIA, MISERABLETASUNA edo ZUHURTASUNA, segun eta ontzat ala txartzat jotzen den.

Lagunartearekiko maitasuna, ATSEGINTASUNA.

Pertsonenganako maitasunari, baina sentsuari bakarrik gustua emateko, IRRIKA NATURALA.

Mota bereko maitasunari, hausnarketaz, hau da lehenago izandako plazerra irudituz sortuari, HARAGIKERIA.

Pertsona bakarrarenganako amodioari, hark pertsonalki maitatua izateko desirarekin, AMODIO GRINA.

Eta gauza bera, amodioa elkarrekikoa ez ote den beldurrez, JELOSIA.

Norbaiti kalte egiteko desira, norbait horrek egindako zerbait deitoraz dezan lortzeko, MENDEKUA.

Zer eta zergatik jakiteko desirari, JAKINMINA. Grina hau gizakiak ezik beste ezein kreatura bizidunek ez dauka. Eta era honetan, gizakia beste animaliangandik bereizten da, ez arrazoimena duelako soilik, ezpabere grina berezi haxe daukalako ere bai. Animaliangan jateko eta beste zentzu-plazerretarako gutizia da nagusi, honek gauzen zergatiak jakiteko desira ezabatzen dielarik; izan ere, adimenduaren desira hau, ezagutza-sorketa etengabeko eta nekaezinean plazerrak iraun diraelako, haragizko plazer ororen oldar laburra gairatzen duten horietakoa da.

Adimenduak asmatu edo publikoki permitituak diren istorioetatik irudituriko botere ikustezin baten beldurrari, ERLIJIOA esaten diogu; permitituak ez badira, SINESKERIA. Eta irudituriko boterea, geuk iruditutako bezalakoa benetan denean, EGIAZKO ERLIJIOA.

Zergatik ez nola eragindakoa den jakin gabe sorturiko beldurrari, IZU PANIKOA -Pan izuarazle agertzen duten fabuletatik hartutako izena berau-, nahiz eta beldurtzen den lehenengoak beti hauteman nolabait zer den eragilea, besteak, imitazioz, beldurrez kutsatzen direlarik, denek uste izanez besteak badakiela zergatia. Eta, beraz, grina hau pertsonak jende-multzo edo jendetza handian daudenean baino ez da gertatzen.

Gauza berria atzematek sortutako poztasunari, MIRESPENA esaten diogu, gizakiari dagokion grina berau, kausa zein den jakin nahia kilikarazten diolako.

Gizakumeak bere ahal edo gaitasunean pentsatzen duenean sortzen den poztasuna, GLORIA esaten diogun adimenduaren golkoa beteko pozkario hori da. Iraganeko norbere ekintzak esperimintatzean oinarritua bada, norbere buruarekiko fidantzaren berdina da. Baina besteengandiko lausenguetan oinarritzen bada, edo ondorioetan plazer hartzeko norberak suposatua bada, BANALORIA esaten zaio, izenari bete-betean dagokion izena berau, zeren oinarri sendoa duen konfidantzak ahalegin berrietarako bidea sortzen duelako, baina norberak ahala duela suposatzeak ez, eta horregatik arrazoiz esaten zaio banoa edo hutsala. Norberak ahalik ez duela uste izatetik sortutako tristurari, ADIMENDUAREN ERORIALDIA deritzo.

Banaloria, norberak trebeziak dauzkalakoa egitea edo suposatzea da, ez dauzkala jakinik, eta gazteetan gertatzen da gehiago, eta zalduneriako pertsonaien historia edo fikzioetatik elikatzen da, adina eta lanbidea eskuratzeaz kopontzen delarik sarri.

Bat-bateko entusiasmoa, BARREA deritzen keinu horiek egitera garamatzen grina da, eta edo egiten dutenei atsegin zaien ekintza batek sortua, edo beste pertsona batengan deformazioen bat hautematek etorria izaten da, honek, konparazioz, hautemaileek bat-batean beren burua goraltzea dakarrelarik. Grina hau daukatenak, beren ahalmen urritasunaz kargutzen direnak eta beste gizakume batzuen akatsak erreparatuz euren buruestimuari eusteko premia dutenak izan ohi dira sarriagotan. Besteen akatsei barre egitea, beraz, uzkurkeriaren seinale da. Zeren izpiritu handien ezaugarria besteei barregarri geratzetik libratzen laguntzea eta beren buruak trebeenekin bakarrik konparatzea baita.

Aitzitik bat-bateko eroraldia NEGARRA dakarren grina da, esperantza bizi bat edo norberaren boterearen euskarriren bat kolpera desagitea bezalakoa ezbeharren batek sortua. Grina hau gehien daukatenak nagusiki inoren laguntzen menpe daudenak dira, hala nola emakumeak eta haurrak. Horrela, batzuek lagunak galdu izanagatik negar egiten dute; beste batzuek, lagunak maitasunik jasotzen ez dutelako; beste batzuek, ezusteko adiskidetzak mendeku-desirak eten dizkielako. Baina kasu guztietan, hala barrea nola negarra bat-bateko mugimenduak dira, ohiturak ezabatu egiten dituelarik. Zeren zaharturiko txisteei barre edo antzinako lazeriak negar inori ere ez baitiote eragiten.

Norbere ahalmenetan akatsen bat aurkitzeak sortarazten duen tristura LOTSA da, aurpegiko gorritasunean agertzen den grina berau. Norberegaz zer desohoragarriren bat hautematean datza. Gazteengan beren izen onari dioten maitasunaren seinale da, hau goralgarria delarik. Zaharregan gauza beraren seinale da; baina berandutxo heldu zaienez, ez da goralgarri.

Norbere izen onarekiko erdeinuari LOTSAGABETASUNA esaten zaio.

Besteen lazeriak sortutako tristura GUPIDA da, eta horrelako lazeriak norberak ere jasan ditzakeela iruditzeak sortzen da, eta horregatik ERRUKIA ere esaten zaio, eta gure garai honetako

esamoldeaz, ELKARKIDETASUNA. Eta gaiztakeria handien ondorioz etorritako lazeriez gizonik onenek dute urrikirik gutxien, eta lazeria baten aurrean gupida gutxien euron arriskutik urrunen sentitzen direnek dute.

Besteen lazeriekiko erdeinua edo soraiotasuna gizartean KRUELTASUNA deritzona da, eta norbere zortearen segurtasunetik dator. Zeren ezin baitut bururatu besteen ezbehar handiek inor poz dezaketarik, norbere probetxurako xederen bat tartean izan gabe.

Aberastasunean, ohorean edo beste edozein ondasunetan lehiakide dugunaren arrakastarengatik tristurari, honekin batera guk haren pareko izateko edo gainditzeko ahalegin handia egiten dugunean, LEHIAKIDETASUNA deritza. Baina, honez gain, lehiakidearen tokian norbera jartzeko edo hari oztopoak ipintzeko ahalegina ere baldin badago, BEKAIZKOA deritza.

Batzuetan gizakumearen adimenduan objektu berarekiko gutziak eta abertsioak, esperantzak eta beldurrak, elkarren ondoren sortzen dira, eta haren pentsamendura hurrenez hurren aurkezten dira egintza bat burutzetik edo ez burutzetik etor daitezkeen ondorio onak eta txarrak. Eta horrela, gertatu ohi da batzuetan objektu horrekiko gutzia daukagula eta beste batzuetan abertsioa sentitzen dugula; une batzuetan geure desira bete ahal izango dugun esperantza izaten dugu eta beste batzuetan etsi egiten dugu edo egiteko beldur izaten gara. Gauza burutu edo ezinezkotzat utzi arteino gertatzen den desira, abertsio, esperantza eta beldurren multzoari, DELIBERAMENDUA esaten diogu.

Ez dago, beraz, deliberaziorik iragandako gauzez, zeren, bistako denez, ezin alda daitezke. Ezta ere ez dago ezinezkotzat ditugun gauzei buruz, zeren gizakumeek badakite edo uste dute horrelako deliberamendua alferrekoa litzatekeela. Baina posibletzat ditugun gauza ezinezkoen deliberatu ahal dugu, gure deliberamendua alferreko dela jakin gabe. Eta deliberamendua deritza, geure gutzia edo abertsioaren arabera egiteko edo ez egiteko geneukan libertateari bukaera ematen zaiolako.

Gutzia, abertsioa, esperantza eta beldurren hurrenez hurreneko agerpen hau ez zaie gizakumeari baino gutxiago gertatzen beste kreature bizidunei. Abereek ere, beraz, deliberatzen dute.

Deliberagai duguna burutu egin denean edo ezinezkotzat jotzen denean, deliberamendua bukatu egiten dela esaten da, ordura arte egiteko edo ez egiteko askatasuna daukagulako, geure gutzia edo abertsioaren arabera.

Deliberamenduan, egitearen edo ez egitearen aurreko gutzia edo abertsioa NAHIA esaten dioguna da, hots, nahi izateko egintza, ez ahalmena. Eta deliberamendua duten abereek nahia ere ezinbestez izan behar dute. Eskoletan eman ohi den nahimenaren definizioa -gutzia razionala- ez da ona. Zeren, hori horrela balitz, ezingo bailitzateke arrazoiaren kontrako nahitako ekintzarik izan. Eta nahitako ekintza nahimenetik datorrena da. Baina gutzia razionalaren ordezt aurretik egindako deliberamendutik eratorritako gutzia dela badiogu, orduan definizioa hementxe eman dudana bera da. Nahia, beraz, deliberatzeko prozesuaren azken gutzia da. Eta hizketa arruntean esan ohi badugu ere gizakume batek izan zuela behin zerbait egiteko nahia, gero egin gabe geratu bazen ere, hori ez da, izan, aiherkunde bat besterik, ez duelarik nahitako egintzarik egiten, zeren egintza ez dator horretatik, azken aiherkunde edo gutziatik baizik. Zeren bitarteko gutziak nahitako egintzaren bat eragingo balute, orduan, eta arrazoi beragatik, bitarteko abertsioek nahigabeko bihurtuko bailukete egintza hori, eta horrela egintza bera nahitakoa eta nahigabekoa biak batera litzateke.

Hemendik argi dago, ez bakarrik gauza batekiko diruzalekerian, handiguran, desiran edo beste edozein gutizitan sorrera duten egintzak nahitako egintzak direla, baizik baita ere abertsioan edo ez egitetik sorturiko ondorioen beldurrean sorrera dutenak ere.

Grinak adierazteko ditugun hizkuntz moldeak pentsamenduak adierazteko ditugunen alde berdinak eta alde ezberdinak dira. Eta lehenik, eskuarki, grina guztiak adieraz daitezke indikatiboan: maite dut, beldur naiz, poztan naiz, deliberatzen dut, nahi dut, agintzen dut; baina batzuek adierazteko modu bereziak dituzte, zeintzuk, hala ere, ez diren baieztapenak, sorburu duten grinarenez gain, beste konklusio batzuk ateratzeko balio dutenean izan ezik. Deliberamendua subjuntiboan adierazten da, mintzamolde egokia delarik suposamen hutsak, euren ondorio eta guzti, adierazteko. Adibidez, hau eginez gero, hau bestea gertatuko da ondoren. Mintzamolde hau ez da arrazonomendukotik ezberdina, zera kenduta, arrazonomendua hitz orrokorrez egiten dela eta deliberamendua hitz partikularrez gehien batez. Desira eta abertsioaren hizkuntza aginduzkoa da: egizu hau, ez ezazu egin hori. Pertsona bat zerbait egitera behartzen denean edo zerbait egitea debekatzen zaionean, hori agindua da; bestela, erregua edo aholkua. Banaloria, haserre, errukia edo mendekuaren mintzamolde desirazkoa da. Baina ezagutzeko desirak adierazpide berezi bat dauka, galderazkoa deritzona: zer da hau?, noiz izango da?; nola egiten da? zergatik? Grinak adierazteko ez dut beste hizkuntzarik aurkitzen. Zeren biraoak, zinak, laidoak eta abarrak ez dute esanahirik hizkuntza bezala, ohiturazko hitz bezala baizik.

Mintzamolde hauek, diot, geure grinaren adierazpenak edo nahitako adierazleak dira, baina zeinu ziurak ez dira, nahierara erabil daitezkeelako, darabiltzatenek grina horiek eduki zein ez eduki. Grinen presentziaren seinale onenak, pertsonen aurpegikera, gorputzaren mugimenduetan, ekintzetan edo, gizakume hark badauzkala beste bide batzuetatik dakigun xede edo asmoetan aurkituko ditugu.

Eta, deliberamenduan, gutizia eta abertsioak deliberatzen ari garen gauzaren ondorio on edo txarrak aurrikustetik sortzen direlako, gure deliberamenduen efektu ona edo txarra gizakumeak amaiera nekez ikus diezaiokeen ondorio-katea luze bat aurrikusteko daukagun ahalmenaren menpe dago. Baina gizakumeak ondorio horietan txarra baino ona gehiago dela ikusi ahal duen heinean, ondorio-katea guztia autoreek ona ematen duena edo ona dirudiena esaten diotena dela. Eta, aitzitik, txarra ona baino gehiago denean, ondorio-katea guztia txarra ematen duena edo txarra dirudiena izango da. Horrela, bada, esperientziaz edo arrazoimena erabiliz ondorioak ziurtasun handiagoz aurrikusteko ahalmena daukanak, hobeto deliberatzen du eta, nahi duenean, besteei aholku hobea eman ahal die.

Gizakumeak alditik aldira desiratzen dituen gauzak lortzen arrakasta etengabea izatea, hau da, prosperotasun etengabea, ZORIONTASUNA esaten dioguna da; mundu honetako zoriontasuna esan nahi dut. Zeren ez baitago adimenduko LASAITASUNA bezalakorik hemen bizi garen bitartean, bitzta bera mugimendua baita, eta ezingo gara inoiz desiratik eta beldurretik aske bizi, zentzutik libre ere ezin bizi izango garen bezala. Zernolako zoriontasuna daukan Jainkoak ebatzita bera eraspenez ohoratzen dutenentzat, gizakumeak ezin du jakin gozatzen hasi baino lehen. Baina hauek orain ulertezin egiten zaizkigun gozamenak dira, adiezin gertatzen zaigun moduan eskolastikoez darabilten ikuspen dohatsua esamoldea ere.

Gizakumeek zerbaitez iritzi ona daukatela adierazteko erabiltzen duten hizkuntz moldea, LAUDORIOA da. Eta zerbaiten ahala edo handitasuna aditzera emateko erabiltzen dutena, HANDIESPENA. Eta gizakumearen zoriontasunaz duten iritzia adierazteko erabiltzen dutena, greziarrek μακάριος esaten ziotena da, gure hizkuntzan ez daukagularik hori adierazteko hitzik. Eta GRINEZ esandakoa nahikoa da hemen dugun helbururako.

## VII

Diskurtsoaren amaierak edo ebazpenak

Ezagutzeko desirak gobernatutako diskurtso orotan amaiera bat dago azkenean, nahi zena lortuz edo amore emanez bukatzen dena. Eta diskurtso-katearen barruan, hau eteten denean, amaiera bat dago puntu horretarako.

Diskurtsoa adimenduan bakarrik eginga denean, gauza bat izango den ala ez, edo izan den ala ez, ebazteko pentsamenduz osatua da. Halako moldez non, gizakumearen diskurtso-katea hausten dugun edozein unetan zerbaitez izango dela edo ez dela izango, edo izan dela edo ez dela izan uste izanik utziko dugu. Guzti hau iritzia da. Eta onari edo txarrari buruzko deliberamenduetan gutizia alternatiboa zena, iritzi alternatiboa da, era berean, iraganeko eta etorkizuneko egiaren ikerketari dagokionez. Eta deliberamenduko azken gutziari Nahia deritzon bezala, halaxe iraganeko edo etorkizuneko egiaren bilaketako azken iritziari diskurtsoa egiten duenaren azken IRIZMENA, edo ebazpenezko azken epaia deritzo. Eta on eta txarrari buruzko gutizia alternatiboen katea osoari deliberamendua esaten bagenion, egia ala gezurrari buruzko iritzi alternatiboen katea osoari ZALANTZA deritzo.

Ez dago inolako diskurtsorik iraganeko edo etorkizuneko egitate bat erabat ezagutuz buka daitekeenik. Zeren egitatearen ezagutza, sorreran, zentzua da; eta hortik aurrera, oroimena. Ondorioaren ezagutza, lehen esan dudana moduan zientzia deritzona, ez da absolutua, baldintzapetua baizik. Inork ezin dezake jakin diskurtsoaren bidez hau edo hori denik, izan denik edo izango denik. Hori absolutuki ezagutzea da. Diskurtsoaren bidez gizakumeak ezagut dezakeena zera da, hau bada, hura izango dela; hau izan bada, hura izan dela; gero hau izaten bada, hura izango dela. Hori modu baldintzapetuan ezagutzea da, eta ez gauza batetik besterako ondorioak, gauza baten izen batetik gauza beraren beste izenerako ondorioak baizik.

Eta horregatik, diskurtsoa hizkuntzan jartzen denean eta hitzen definiziotik hasten denean, gero eurok elkarlotuz baieztatu orokorrak egiteko, eta hauetatik silogismoetara pasatzeko, amaiera edo sumaren azken emaitza konklusio deritzona da; eta pentsamenduaren eremuan konklusioak esan nahi duena, baldintzazko ezagutza edo hitzen segida ondorioztatuaren ezagutza da, komunzki ZIENTZIA deritzona. Baina diskurtso horren lehen oinarriak definizioak ez badira, edo definizioak behar den moduan lotzen ez badira silogismoak osatzeko, orduan amaiera edo konklusioa IRITZIA da berriro, hau da, batzuetan hitz absurdu eta zentzugabez esandakoa eta ulertezina den zerbaiten egiazkotasunari buruzko iritzia. Bi gizakume edo gehiagok egitate beraren ezagupena dutenean, egitate horri buruz elkarrekiko KONTZIENTE direla esaten da, elkarrekin ezagutzen dutela esatea adina delarik. Eta elkarren arteko harremanetan edo beste baten aurrean egitateen lekukorik onenak direnez, beti izan da eta izango da oso txartat jotako jokabidea gizakume batek bere kontzientziaren kontra hitz egitea, edo beste bat usteldu edo behartzea horixe bera egin dezan. Garai guztietan, kontzientziaren ahotsa arreta zoliz entzun izan da. Gero gizakumeek metaforikoki erabili izan dute hitz hori, beren egitate edo pentsamendu sekretuen ezagupena adierazteko; eta hortik dator kontzientzia mila lekuko adina dela esatea, erretorikoki. Gehituko dut, azkenez, gizakume batzuk hain biziki maitemindurik daudela beren iritziez, absurduenak izanda ere, eta hain temati eusten dietela, non beren iritziei kontzientzia izen errespetagarria ematen dieten; legezkotzat ez balute bezala iritzi aldaketza edo iritzion kontra hitz egitea; eta horrela saiatzen dira esaten badakitela egiazkoak direla, dakiten gauza bakarra beraiek horixe uste dutela denean.

Gizakumearen diskurtsoa definizioetan hasten ez denean, edo berak egindako gogoramenean batean hasten da, eta orduan ere iritzia deritzo, edo besteren batek esandakoan hasten da, hark egia ezagutzeko duen gaitasunaz edo inor ez engainatzeko duen onestasunaz dudarik egiten ez duelako; eta orduan diskurtsoak ez du zerikusirik gauzarekin, pertsonarekin baizik, eta ebazpenari SINESMENA eta FEDEA deritzo: fedea gizakumearengan, sinesmena bai gizakumearengan, bai berak dioenean. Horrela sinesmenean bi iritzi daude: bat gizonak dioenari buruz, bestea haren bertuteari buruz. Gizakumearengan fedea eduki, beraz fido izan, berarengan sinestu gauza bera esan nahi duten mintzamoldeak dira, hau da, gizakumearen egiaztatunari buruzko iritzi bat; baina esaten dena sinestea esandakoaren egia iritzi buruzko iritzia da. Esan beharra dago, norbaitengan sinesten dut, latinezko *credo in* edo grekozko *πιστευω εις* teologoen idazkietan baino ez dela erabiltzen. Bestelako idazkietan aurkitzen duguna, sinesten diot hari, badut fidantza harengan, badut sinespidea harengan, hartaz fido naiz, eta latinez *credo illi*, fido illi, eta grekoz *πιστευω αυτω* Eta eliz erabileran hitz honek duen berezitasunak eztabaida asko sortu du kristau fedearen objektuari buruz.

Baina norbaitengan sinestea esamoldeak, Kredoan erabiltzen den bezala, ez du esan nahi pertsonarenganako fidantza, doktrinaren aitortzea eta onarpena baizik. Horrelaxe sinesten dute Jainkoarengan ez bakarrik kristauak, gizakume guztiek baizik, egiazkotzat hartuz esaten entzuten dutena, ulertu zein ulertu ez, hauxe delarik pertsona batengan jar daitekeen sinespide eta fidantzarik osoena. Hala ere, guztiek ez dute sinesten Kredoko doktrina guztia.

Hemendik deduzi dezakegu esandako gauza bat, dena delakoa, sinesten dugunean eta gauzatik bertatik edo arrazoimen naturalaren printzipioetatik barik esan duenaren autoritatetik eta hartaz dugun iritzi onetik hartutako argudioetan oinarrituz sinesten dugunean, gure fedearen objektua hori esan duen pertsona dela, pertsona horrengan fedea eta konfidantza jartzen dugularik, beraren hitza onartuz. Eta sinesteaz egiten dugun ohorea pertsona horixe eta ez beste inori egiten diogu. Horregatik Liburu Santuak Jainkoaren hitza direla sinesten dugunean, eta Jainkoaren beraren errebeldazio zuzenik ez dugunez, gure sinesmena, fedea eta fidantza Elizarengan jartzen ditugu, haren hitza onartuz eta geure onespina emanez. Profeta batek Jainkoaren izenean diotsana sinesten dutenek profeta horren hitza onartzen dute, ohore egiten diote, berarengan fidantza jarri eta dioena sinesten dute, egiazko profeta ala gezurrezkoa izan. Eta gauza bera gertatzen da beste edozein historiarekin ere. Zeren, nik historialariek Alexandro edo Zesarren ekintza loriatuei buruz dioten guztia sinetsiko ez banu, nik uste haien izpirituek ez luketela minduta sentitzeko arrazoi justurik; ez eurek ez beste inork, historialaria kenduta. Liviok jainkoek behin behi bati hitz eragin ziotela badio, eta guk sinesten ez badugu, ez diogu Jainkoari ukatzen fidantza, Liviori baizik. Begien bistakoa da, bada, edozertan sinestea gizakumeen eta euren idazkien autoritatea beste arrazoirik gabe, Jainkoak bidaliak izan ala ez izan, gizakumeengan fedea izatea dela.

## VIII

Eskuarki adimen-bertuteak deritzenak eta euren kontrako akatsak

Bertutea, jeneralean eta edonolako gai-arazoetan, duen gorentasunarengatik balioztatzen den zerbait da, eta konparazioan datza. Zeren gauza guztiak berdinak balira gizakume guztietan, ezer ere ez bailitzateke estimatua izango. Eta ADIMEN-bertutetzat gizakumeek estimatu, balioztatu eta eduki gura lituzketen adimen-gaitasunak hartzen dira beti. Eskuarki talentu ona esaten zaio, nahiz eta talentu hitza bera gaitasun konkretu bat gainerakoetatik bereizteko ere erabiltzen den.

Bertuteok bi motatakoak dira: naturalak eta eskuratuak. Naturalak esatean, ez dut esan nahi gizakumeak sortzetik dauzkanak, sortzetikoa zentzua bakarrik baita, honetan gizakumeek elkarrengandik eta abereengandik ere hain alde txikia dutelarik, ezen ez litzatekeela sailkatu behar bertuteen artean. Erabileraz eta esperientziaraz soilik, inolako metodo, kultura edo ikasketa barik eskuratzen den talentuaz ari naiz. TALENTU NATURAL hau gauza bitan datza batik bat: iruditzeaz azkartasunean (hau da, pentsamendu batetik bestera pasatzeko agudotasunean) eta aukeraturiko helbururantzko joera tinkoan. Irudimen geldoa, aitzitik, ASTUNTASUNA, tontotasuna eta batzuetan mugitzeko geldotasuna edo mugitua izateko zailtasuna esan nahi duten beste izen batzuen bidez adierazten den akatsa edo mentsa daukana da.

Azkartasunean izaten den alde hau, gizakumeen grinaren artean dagoen aldeak eragina da; batzuek gauza bat maite edo gorrotatzen dute eta besteek beste bat. Eta, beraz, gizakume batzuen pentsamenduak norabide batean doaz eta besteek beste batean, eta irudimenean zehar iraganez doazkien gauzei ezberdinki begieman eta behatzen diete. Eta pentsamenduen segida honetan, gizakumeek pentsagai dituzten gauzetan ikus dezaketena bakarra honako hauxe denez, hots, zertan daukaten elkarren antza edo zertan duten aldea, zertarako balio duten edo nola balio duten jarritako helbururako, besteek nekez ikusten dituzten antzekotasunak aurkitzen dituztenek talentu ona daukatela esan ohi da, kasu honetan esamolde honek irudimen ona daukatela esan nahi duelarik. Baina aipatu aldeak eta antzekotasunik ezak hautematen dituztenez -gauza bat bestetik banatu, bereizi eta iriztea esaten diogun jardura bera-, bereizketa hau erraza ez denean, irizmen ona daukatela esan ohi dugu; eta solasaldi eta negozio kontuan bereiziki denborak, lekuak eta pertsonak bereizi beharra dagoenez, bertute honi BEREIZMENA esaten

zaio. Lehenengoa, hots, irudimena, ez da bertutetzat hartzen irizmena lagun ez badarama; baina bigarrena, hots, irizmena eta bereizmena, berez da gomendatua, irudimenaren laguntzarik gabe ere. Irudimen onerako beharrezkoa den denborak, lekuak eta pertsonak bereizteaz gain, beharrezko da baita ere gizakumearen pentsamenduak euren xedera maiz aplikatzea, hots, nola erabili behar diren ikustera. Hau eginda, bertute hau daukana gai izango da antzekotasunak aise hautemateko, zeintzuk atsegin gertatuko zaizkion, ez bakarrik bere diskurtsoa ilustratzeko eta metafora berri eta egokiz berau edertzeko balioko diotelako, baizik bere aurkikundeen bakantasunarengatik. Baina helburura tinkotasunez zuzendu ezean, irudimen handia zorakeria mota bat da; eta horixe pairatzen dute diskurtso batean sartu ondoren, burura datorkien edozerk euren helburutik atera eta digresio eta parentesi hain ugari eta luzeetan zehar zeharo galtzeraino abiatzen direnek. Ez dut izen berezirik zorakeria mota honi jartzeko, baina berau eragiten duena zera da batzuetan, hots, esperientzi falta, zeinak gizakume batek berri eta original iriztea dakarren, besteez ez bata ez bestea ez deritzotenari; beste batzuetan uzkurkeria da, beste gizakume batzuei garrantzirik gabekoa deritzena inportantetzat jotzera daramana; eta zerbaiti berri eta garrantzitsu deritzonengan, eta beraz, esangarri, gauza honek pixkana-pixkana bere diskurtsorako jarrita daukan bidetik aldentzen du.

Poema on batean, dela epikoa dela dramatikoa, eta era berean hamalaurkuna, epigrama eta horrelako lanetan, gauza biak behar dira, irizmena eta irudimena; baina irudimenak izan behar du gailen, horrelakoetan bitxikeria eta nabarmenkeria baita gustatzen dena, nahiz eta indiskrezioak ez dituen desatsegin bihurtu behar.

Historia on batean irizmenak izan behar du nagusi, zeren historiaren ontasuna metodoan, egian, eta probetxagarritasunarengatik jakingarriak diren episodioak aukeratzean datza. Irudimenak hemen idaztanka edertzeko baino ez du lekurik.

Laudoriozko hitzaldietan eta erretoliketean irudimena da nagusi, helburua ez delako egia, ohorea edo desohorea baizik, konparaketa nobleak edo doilorrak erabiliz lortzen delarik. Irizmenak, ekintza bat zein zertzeladak egiten duen laugarri edo gaitzesgarri iradoki besterik ez du egiten.

Hitzaldi exhortatzaileetan eta alegatuetan, jarritako helbururako zerk, egiak ala disimuluak, lagunduko duen hobeto ikusita, irizmena beharko da gehiago edo irudimena.

Demostrazioan, aholkamenduan eta egiaren bilaketa hertsia orotan, irizmenak egiten du dena. Salbuespenez, batzuetan adimenak alegia egokiren bat behar izaten du irekitzeko, eta orduan irudimena erabiltzen da. Baina metaforak kasu honetan erabat kanpo geratzen dira. Zeren nabarmenki engainakorrek direnez, zorakeria nabaria litzateke aholkamenduan edo arrazonamenduan horrelakorik ametitzea.

Eta bestelako edozein diskurtsotan, bereizmen-mentsa agerikoa bada, fantasia den distiratsuen izanda ere, diskurtso osoa talentu faltaren seinaletzat hartu beharra dago; eta, bereizmena nabarmena bada, aitzitikoa gertatuko da, fantasia hain sarri ez agertuta ere.

Gizakumearen pentsamendu sekretuak nolana hiko gairik gai ibiltzen dira, gauza santu, profano, garbi, lizun, astun, arinetan zehar, inolako lotsa edo maiseorik gabe, hitzezko diskurtsotan egin ezin daitekeena, irizmenak denbora, leku eta pertsonen onspena eman dezan puntutik gora. Anatomilari edo mediku batek esan edo idatz ditzake gauza zikinei buruz dituen iritziak, beren helburua atsegin ematea barik baliagarri izatea delako; baina beste gizon batek gauza berez dituen fantasia nabarmen eta atsegingarriak idatzita jartzea, norbait jende printzipalaren aurrera basatzen ihauska ibili ondoren aurkeztuko balitz bezala da. Eta bereizmen-mentsa da hemen aldea markatzen duena. Antzera batean, adimena berariaz laxo utzita eta lagunartean dagoela, gizakume batek jolas dezake hitzen hotsekin eta esangura ekibokoekin, eta sarri askotan aparteko irudimena erakutsi. Baina hitzaldi batean edo publikoaren aurrean, eta ezazagunen edo begirunez tratatu beharreko pertsonen aurrean, ez dago hitz-jokorik zentzugabekeriatzat joko ez denik; eta aldea hemen ere bereizmen mentsa besterik ez da. Halako moldez, non talentua falta denean, ez baita irudimena, irizmena baizik, falta dena. Beraz, irizmena irudimenik gabe talentua da, baina irudimena irizmenik gabe, ez.

Helburu bat jarrita daukan gizakumearen pentsamenduak gauza askoren inguruan jirabiraka dabiltzalarik, hark hautematen duenean helburu horretara daramatela edo zein helburutara eraman dezaket, baldin hautemate hori erraza edo ohikoa izatetik urrun badago, haren talentu honi ZUHURTZIA deritzo; eta antzeko egoeren eta izandako ondorioen esperientzia eta oroimen handia izatearen menpe dago. Honetan ez dute gizakumeek irudimen eta irizmenean duten hainbateko alderik, adin bereko gizakumeen esperientzia kantitatez hain desberdina izaten ez delako; baina gauza ezberdinen esperientzia da, gizakume bakoitzak bere-bere xedeak dituelako. Familia eta erresuma bat ondo gobernatzeko ez dira zuhurtzi gradu ezberdinak behar; eginkizun ezberdinak burutu behar dira, pinturan naturaleko objektua baino handiagoa, txikiagoa edo berdina pintatzea arte gradu diferenteak ez diren bezalaxe. Etxejaun bat zuhurrago da bere etxeko arazoetan, aholkulari pribatu bat inoren arazoetan baino.

Zuhurtziari bitarteko zuzengabe edo desonestak erabiltzea eranstean badiogu, beldurak edo premiak jotako gizakumeengan eskuarki gertatzen den moduan, MALTZURKERIA esaten diogun jakinduria bihurri hori daukagu, zeina uzkurkeriaren seinale baita. Izan ere, gogohanditasuna laguntza zuzengabe

edo desonestak mesprezatzea da. Eta latindarrek versutia esaten ziotena (euskaraz azpikeria), momentuko arrisku edo larrialdi bat handiagotan sartuz ekiditean datza, gizakume batek, adibidez, beste bati ordaintzeko dirua lapurtzen duenean gertatzen den bezala; hau ez da begirada laburreko maltzurkeria besterik, versutia esaten zaiolarik, versuratik, gainean ditugun interesak ordaintzeko dirua lukurrerian mailegatzeari esan nahi duen hitza berau.

Eskuraturiko talentuari dagokionez (metodo eta ikasketaren bidez eskuraturikoa esan nahi dut), honetan arrazoimena bakarrik dago, zeina hizkuntzaren erabilera zuzenean oinarriturik baitago eta zientzia sortzen duena da. Baina arrazoimenaz eta zientziaz hitz egin dugu dagoeneko bosgarren eta seigarren kapituluetan.

Talentuen artean dauden alde hauen kausak grinetan daude; eta grinetan dauden aldeak gorpuzkera diferenteetatik datoz zati batean, eta heziera ezberdinetik beste zati batean. Zeren, aldea burmuinaren taxukeratik eta zentzuen organoetatik, kanpoko edo barrukoetatik, baletor, gizakumeak ez lirateke diferenteagoak izango ikusmenean, entzumenean eta beste zentzu-ahalmenetan beraien irudimen eta bereizmenetan baino. Aldea, beraz, grinetatik dator, hauek diferenteak baitira, ez bakarrik gizakumeen gorpuzkera diferentearengatik, baizik ohituretan eta hezieran duten ezberdintasunarengatik.

Talentuko ezberdintasunak bizikien eragiten dituzten grinak, botere, aberastasun, jakintza eta ohore-desira dira nagusiki. Eta denak bil daitezke lehenengora, hau da, botere-desirara, zeren aberastasuna, jakintza eta ohorea botere motak besterik ez baitira.

Eta, beraz, hiru gauza horietako batean ere grina handirik ez duen gizakumea, hots, aiherga esaten zaien horietakoa, izan daiteke gizakume on bat, inori kalterik egiten ez dion horietakoa, baina ezingo du eduki ez irudimen bizirik ez irizmen handirik. Zeren pentsamenduak desirakiko, desirak jarritako ikusketari eta espioiak bezalakoak baitira, lurralde ezazagunean barne abiatu eta haiek nahi dituzten gauzetara daraman bidea aurkitzeko. Adimenduaren mugimenduen sendotasun eta azkartasuna hortixe dator; zeren desirarik ez izatea, hilda egotea da eta. Horregatik, grina ahulak edukitzea moteltasuna da, eta edozerekiko, bereizi gabe, grina edukitzea, ARINKERIA eta lekorapena da, eta besteek normalean izan ohi dituzten baino grina gartsuago eta indartsuagoak edukitzea, gizakumeek EROTASUNA esaten diotena da.

Hemendik ateratzen da zorotasun motatan, grinatan bezainbat daudela. Batzuetan, grina ezohiko eta nabarmena gorputz organoen egitura txarretik edo izan duten gaitzen batetik dator; eta batzuetan gaitz hori edo organoen ondoeza grinaren bortiztasunaren edo luzaro iraun izanaren eragina da. Baina kasu biotan zorotasuna izaera bat eta berekoa da.

Beren bortiztasun edo iraupenarengatik zorotasuna eragiten duten grinak edo banaloria, arruntki harrotasuna edo buruiritzia esaten zaiona eta erorialdi handia dira.

Harrotasunak haserrearen menpe jartzen du gizakumea, eta gehiegizko harrotasuna AMORRUA eta SUMINA deritzon zorotasuna da. Eta horrela gertatzen da gehiegizko mendeku desirak, ohiko bihurtzen denean, organoetako gaitza sortzen duela eta amorru bihurtzen dela; gizakume batek bere buruarekiko izan dezakeen estimu gehiegizkoa jainko-inspirazioaren, jakinduriaren, ikasketen, gizabidearen eta horretarikoen jabe dela uste duelako, lekorapen eta arinkeria bilakatzen da; eta bekaizkoarekin nahasita, amorru; zerbaiten egiari buruzko iritzi sutsua ere, besteek kontra eginez gero, amorru bihurtzen da.

Depresioak kausa gabeko beldurren pean jartzen du gizakumea; zorotasun honi eskuarki MALENKONIA esaten zaio eta era ezberdinetan agertzen da: bakardadeari eta hilobieiei izua; jokabide superstiziosoak; batek gauza honi eta besteak beste horri beldurra izatea. Hitz batean, jokabide bitxi eta normaletik kanpokoa eragiten duten grina guztiek zorotasun izen orokorra hartzen dute. Baina norbaitek hartuko balu zorotasun mota guztiak kontatzeko lana, askotzak direla aterako luke. Eta gehiegikerietan badatza zorotasuna, ez dago dudarik grinak eurak ere, txarrerako joera dutenean, zorotasun graduak direla.

Adibidez, nahiz eta inspiratuta daudela uste dutenengan zorotasunaren efektua ez den beti atzemangarria izaten, grina horren eraginez ekintza nabarmenen bat gauzatzen duen gizakume bakarrarengan, gizakume askok inspirazio horrek eraginda jokatzen dutenean, jendetza guztiorren amorrua erraz ikusteko modukoa izaten da. Zeren, zer izan daiteke zorotasun froga hoberik, oihuka, kolpeka eta norbere lagunik onenei harrika ibiltzea baino? Ekintza hauek ez dira ezer, hala ere, jendetza handi batek egin dezakeenarekin konparatuta. Horiek gauza dira, beren bizitza guztian berak babesten eta kalte orotik libratzen ibilitakoei oihu batean itzelak esateko, haien kontra borrokatzeko eta suntsitzeko ere. Eta hau jendetzen zorotasuna bada, gizabanako bakoitzarena ere bada. Zeren nola itsaso zabalean batek ez duen hurbilen daukan uraren zaratarik entzuten, nahiz eta ziur jakin ur arlo horrek beste arloek bezainbat zarata dakarkiola itsasoaren orroe guztiari, halaxe, gizakume batengan edo birengan artegatasun handirik hautematen ez badugu ere, ziur egon gaitzeko haien grina partikularrak ere nahasteetan dabilen nazio baten orroe sediziosoaren zati direla. Eta euren zorotasuna beste ezertan agertuko ez balitz ere, euren buruak jainko-inspirazioaren jabetzat izatea soilik ere argudiorik nahikoa da. Gizon batek zoroetxean solasaldi normal eta atsegin bat gurekin izan ondoren, agur egitean nor den galdetuko bagenio, berak izandako gizabideari hurrengoan erantzun diezaiogun, eta hark Aita Jainkoa dela erantzun, ez genuke harengan beste jokaera nabarmenik ikusi beharrik izango, zoroa dela berresteko.



Norberak inspirazioa, eskuarki Izpiritu Pribatua deritzona, daukan iritzi hau, jenderik gehiena errakuntzaren batean eroria dela aurkitzetik hasten da maiz. Eta egia bitxi hau aurkitzera (horixe deritze eurek, sarri askotan egiazkoa ez den zerbaite aurkitzen badute ere) zein bide edo arrazoik eraman dituen jakin edo gogoratu barik, inspiratu hauek euren buruak miresten dituzte Jainko Guztiahaldunaren grazia berezi bat hartu balute bezala, zeinak egia hori Izpiritu Santuaren bidez supernaturalki errebelatu dien.

Eta zorotasun hori ageriegian jarritako grina besterik ez dela, organoen taxukera txar batek sorturikoak bezalakoak diren ardoak eragindako efektuetan ikus daiteke. Zeren gehiegi edan duten gizakumeen portaera zoroena bezalakoak baita: batzuek hasarretzeari ematen diote, beste batzuek maitatzeari, beste batzuek barreari, nabarmenkiro denek, baina bakoitzak nagusi dituen grinaren arabera. Ardoaren efektuak disimulua kendu besterik ez du egiten eta ez die uzten beren grinaren itxuragabetasuna ikusten. Uste dut gizakumerik sanoenak ere, bakarrik paseatzen ari direla beren adimenduari ezeri lotu gabe fira-fara ibiltzen uzten diotenean, ez luketela nahi izango beren pentsamenduen kaxkartasun eta nabarmenkeria jendaurrean erakusterik; hau, kasurik gehienetan, grinak zorotasun hutsa diren aitorten delarik.

Antzinako eta oraintsuagoko garaietan munduak zorotasunaren iturburuari buruz izan dituen iritziak bi dira. Batzuek grinetatik datorrela diote, beste batzuek deabruengandik edo izpirituengandik, on edo txarrengandik, datorrela, gizakumearen baitara sartu, beraren jabe egin eta modu nabarmen eta berezian mugitzen dituztelarik beraien organoak, zoroek egiten duten bezala. Lehenengo iritzia daukatenez gizakume hauei zoroak esaten diete; baina bigarren iritzikoek deabrudunak esaten diete batzuetan, hau da, izpirituak posedituak; beste batzuetan energumeni esaten diete, hots, izpirituak iharrosiak edo eraginak; eta orain Italian, ez bakarrik pazzi, zoroak, baizik spiritati, posedituak ere esaten diete.

Behin batean Abderara, Greziako hiri batera, jendetza handia bildu zen Andromeda tragedia ikustera. Egun beroa zen oso, eta honen ondorioz, ikusle pilo handi batek sukarra harrapatu zuen; eta sukarraren eta tragediaren eraginez, ezbehar haxe gertatu zitzairen: neurtitz ianbikoak etengabe erreztatzen hasi zirela Perseo eta Andromedaren izenekin. Gaitz honetatik eta sukarretik neguaren etorreraz osatu ziren. Eta orduan pentsatu izan zen zorotasun hura tragedia eragindako grinatik etorria zela. Antzerako beste zoraldi bat gertatu zen Greziako beste hiri batean; dontzeilak bakarrik izan zuten eragina eta batzuek beren buruak urkatzerainoko ondorioak izan zituzten. Askok uste izan zuen orduan deabruaren ekintza izan zela hau. Baina batek susmatu zuen zorotasun hura adimenduko grinaren batetik etor zekiekeela eta, uste izanik neska gazte haiek ez zutela beren ohoreari biziari zioten adina mesprezu, magistratuei zera aholkatu zien, neskak urkatzen hasi ahala arropak erantzeko eta biluzik urkatzen uzteko. Historiak kontatzen digu horrexek jarri ziola bukaera zorotasun hari. Baina, beste alde batetik, greziarrek eurek ere Eumenideen edo Furien eskuhartzeari eratxikitzen zioten zorotasuna, eta batzuetan Cerex, Febo eta beste jainko batzuenari ere bai. Era berean mamuei ere eratxiki zitzairen, uste zelarik airean bizi ziren gorputzak zirela, izpirituak deituaz. Honetan erromatarrek greziarren iritzi bera zuten; eta baita juduek ere, zoroek profetak edo deabrudunak esaten zitelarik (izpiritu onak ala txarrak bultzatuak ziren kontuan izanda); batzuek zoroak deitzen zieten hala profetei nola deabrudunei, eta batzuek gizakume berari deabrudun eta zoro deitzen zioten. Ez da harritzekoa jentilek horrela pentsatzea, zeren gorputzeko gaixotasunak, bizioak, bertuteak eta beste akzidente natural batzuk ere deabruzat zeuzkaten eta adoratu egiten zituzten eta. Eta horrela deabru hitzaz hala sukarrak jotako gizakumea nola deabrua ulertzen zen. Baina juduek iritzi bera izatea harrigarri samar egiten da. Zeren ez Moisesek ez Abrahamek ez zeukaten beren burua profetatzat izpirituen batek posedituak zirelako, baizik Jainkoaren ahotsa entzun zutelako edo ikuskari bat edo amets bat izan zutelako; beraien lege moral edo zeremonietakoetan ere ez zitzairen irakasten horrelako garrik edo izpirituen poseditzerik zegoenik. Esaten denean (Zen.11, 25) Jainkoak Moisesengan bizi zen izpiritua hartu eta Hirurogeita Hamar zaharren gainean ipini zuela, Jainkoaren Izpiritua (Jainkoaren substantzia moduan ulertuta) ez zen banatu. Liburu Santuek Jainkoaren Izpiritua gizakumearengan aipatzen dutenean adierazi nahi dutena zera da, santutasunerako aierkundera duen giza izpiritua. Eta Idazteunak (Ir.28, 3) Aaronentzako jantziak egiteko jakinduri izpirituaz hornitu ditudan artisauei dioenean, ez da esan nahi izpiritu bat jarri zitzaizela barruan jantziak egiteko, baizik haien jakinduria mota horretako lanetan. Antzerako zentzuan esan ohi dugu gizakumearen izpirituak, egintza satsuak burutzen ditutenean, izpiritu satsua dela; eta horrela aipatzen ditugu beste mota bateko izpirituak ere, nahiz eta ez beti, baina bai horrela adierazitako bertutea edo bizioa ezohikoa edo nabarmena denean. Testamentu Zaharreko beste profetak ere ez ziren agertu esanik Garra hartuta zeudela, edo Jainkoak eurekin hitz egiten zuela, baizik ahots, ikuskari edo amets baten bitartez hitz egiten zela. Eta Jainkoaren zama ez da ulertu behar poseditze moduan, agindu moduan baizik. Nola, bada, erori ahal izan ziren juduak poseditzearen iritzi honetan? Ezin dut aurkitu beste arrazoirik, gizakume guztientzat balio duen hau izan ezik, hots, kausa naturalak bilatzeko jakinminik eza, eta zoriona zentzuetako plazer zabarrak eta euretara zuzenen garamatzaten gauzak eskuratzean jartzea. Zeren, gizakume baten adimenduan gaitasun edo akats arraro edo ezohikoren bat ikusten dutenek ez badute, honez gain, zein kausetatik datorkeen ikusten, nekez pentsatuko dute naturala denik; eta naturala ez bada, supernaturala dela pentsatuko dute nahitaez, eta orduan zer izango da, bada, gizon horrengan Jainkoa edo deabrua dagoela baizik? Hortixe etorri zen

harako hartan gertatu zena (Mk.3, 21): gure Salbatzailea jendetzak inguratu zuenean, etxeakoak zoroa ote zen dudatzen hasi ziren, eta hari heltzera atera ziren; baina Eskribek Belzebu zeukala barruan zioten, eta haren indarrez jaurtikitzen zituela deabruak jendearen barrutik, zoro handiagoak txikiagoak izutu balitu bezala. Eta beste batzuek zioten (Jn.10, 20) deabrua dauka eta zoratuta dago, beste batzuek, oster, profetatzen hartuz haxe zioten: hauek ez dira deabrua daukan baten hitzak. Horrela Testamentu Zaharrean ere, Jehu igurztera etorri zena (2 Errom.9, 11) profeta zen. Baina Jehurekin zeuden batzuek galdetu zioten: zertara etorri da zoro hau? Laburbilduta, argi dago juduek jokabide ezohikoa zeukan oro izpiritu on edo txarren batek poseditutzat zeukatela, saduzearrek izan ezik, hauek beste ertzeko errorean erori baitziren, ez zela inolako izpiriturik existitzen sinetsiz (ateismotik oso hurbil dagoen doktrina berau); eta beharbada horrexek ekarri zuen gizakume hauei zoroak baino deabrudunak deitzea.

Baina zergatik, orduan, jokatu zuen gure Salbatzaileak haiek osatzean posedituak izan balira bezala, eta ez zoroak izan bailiren? Honi ezin diot erantzun, Idazteunean lurraren mugimenduari buruz agertzen dena auzitan jartzen dutenei ematen zaien antzeko erantzunaz baizik. Idazteuna gizakumeei Jainkoaren erresuma agertzeko eta euren adimenduak Jainkoaren meneko esangin izan zitezen prestatzeko idatzi zen, mundua, eta filosofia, beraz, gizakumeez eztabaidatzeko utziz, euren arrazoimen naturala erabiliz. Eguna eta gaua egiten duena lurraren edo eguzkiaren mugimendua izatea edo gizakumeen ekintza neurritz gainekoak grinetatik edo deabruarengandik etortzea (zeinari ez zaion adoraziorik zor) berdin dio, Jainko Guztiahaldunari zor diogun obedientzia eta menekotasunari dagokionez, eta honexetarako idatzi zen Idazteuna. Gure Salbatzaileak gaixotasunari pertsona bati egiten zaion bezala hitz egiteari dagokionez, Kristok egin zuen bezala (eta osalariak egiten saiatzen diren moduan, deabruari hitz egin ala ez), hitzez bakarrik osatzen duten guztiak erabili ohi duten mintzamoldea da hori. Zeren ez al zaigu esaten (Mt.8, 26) Kristok haizeei gogor oihukatu ziela, baina, haizeak izpirituak direla esan zenezakeenez, ez al zaigu esaten (Lk.4,39) sukarrari ere gogor egin ziola? Baina honek ez du frogatzen sukarra deabrua denik. Eta deabruetariko askok Kristo aitortu zutela esaten den arren, pasarte hauek gizakume zoro haixek aitortu zutela esanda baino ez dira interpretatu behar. Eta gure Salbatzaileak (Mt. 12 43), gizon batetik irten eta leku idorretan zehar atseden bila eta ezin aurkiturik ibili ondoren, beste zazpi izpiritu okerragoekin itzuli eta pertsona beraren baitara sartzen den izpiritu satsu batez hitz egiten duenean, hau, nonbait ere, parabola bat besterik ez da, zera adierazteko jarria, hots, bere bizioak uzteko ahalegin apur bat egin ondoren, haien indarrak menperatuta, lehen zen baino zazpi bider txarrago bihurtu zela gizon hura. Horrela, beraz, ez dut Idazteunean ezertxo ere ikusten deabrudunak zoroaz aparte beste ezer zirenik uste izatera behartzen gaituenik.

Bada gizakume batzuen diskurtsoan beste akats bat ere zorotasun moten barruan sar daitekeena, hots, lehen ere, bosgarren kapituluari, absurdu izena jarritz aipatu dudana hitzen abusu hori. Eta hau, gizakumeez hitzak esan eta elkarloturik jarrita inondiko esangurarik ez dutenean gertatzen da, hala ere, askok ulertu gabe onartzen dituztelarik, buruz ikasi eta errepikatuz, eta beste batzuk, berriz, hitz horien iluntasunaz baliatzen direlarik besteak engainatzeko. Eta hau, eskolastikoak bezala, gai ulertezinez ari direnen artean edo filosofia zentzugabeko arazoen azterketan dabiltzaneren artean gertatzen da. Gizakume arruntak nekez hitz egiten du bere hitzari esanahirik eman gabe, eta horregatik eskolastiko gailen horiek tenteltzat dauzkate. Baina haiek darabiltzaten hitzak adimenduan daukaten ezeri ere ez dagozkiola ziurtatzeko, adibide batzuk beharko lirateke; eska biezaie baten batek, eskolastiko batek puntu zailen bati dagokion kapituluaren bat, hala nola, Hirutasuna, Jainkotasuna, Kristoren izaera, transubstantiazioa, aukerarena, ea., hizkuntza modernoren batera itzul ditzan, ulertarazteko moduan; edo latin jasangarri samarrera, latina herriaren hizkuntza zenean hiztunentzat ulergarri zen latinera. Zein da honako hitz hauen esanahia: Lehenengo kausak ez du nahitaez eraginik bigarreanean, bigarren kausen funtsezko menpekotasunaren indarrez, zeinaren bidez lagun diezaiokeen eragina izatera? Hitz hauek Suarezen Jainkoaren eskuhartze, mugimendu eta laguntzari buruz izeneko bigarren liburuaren seigarren kapituluaren tituluaren itzulpena dira. Gizakumeez horrelako morteroaz liburuak egiten dituztenean, ez al dira zoroak, edo besteak zorutzen dihardutenak? Eta bereziki transubstantiazio kontu horretan, zera diotenek, hots, zenbait hitz ahoskatuz, zuritasuna, biribiltasuna, magnitudea, koalitetea, ustelgarritasuna, gorpuzgabeak guztiak, e.a., ogizko hostiatik gure Salbatzaile benedikatuaren gorputzera iragaten direla, ez al dute egiten tasun, tude, te guzti horiek, haren gorputza poseditzen duten beste hainbeste izpiritu izatea. Zeren izpiritutzat, gorpuzgabeak izan arren, leku batetik bestera mugigarriak diren gauzak ulertzen baitituzte beti. Halako moldez non, absurdutasun mota hau, zorotasun mota ugarietako bat lege zerranda daiteke eskubide osoz. Baina horrela mintzo direnek, beren desira mundutarrekiko pentsamendu argiak gidari dituztela ari diren guztian, hizkera ilun hau eztabaida eta idazkietarako baztertuta uzten dute eta argitasunezko bitarteak izaten dituzte. Eta esandakoa nahikoa da adimen-bertute eta akatsei buruz.

## IX

Ezagugai ezberdinei buruz

EZAGUTZA mota bi dago: bat egitateen ezagutza eta bestea baiezpene batetik bestera ateratzen den ondorioaren ezagutza. Lehenengoa zentzua eta oroimena dira eta ezagutza absolutua da, egitate bat

gauzatzen ikusten dugunean, edo gauzatu zela gogoratzen dugunean gertatzen dena. Hau lekukoei eskatzen zaion ezagutza mota da. Bigarrena zientzia deitzen duguna da, eta baldintzazkoa da, figura konkretu bat zirkulua izanez gero, haren zentrutik pasatzen den lerro orok zirkulu hori bi zati berdinetan banatuko duela dakigunean gertatzen den ezagupena bezalakoa adibidez. Filosofo bati, hau da, arrazonatu behar duenari, eskatzen zaion ezagutza mota da hau.

Egitateen ezagutza-gordailatzeari Historia deritzo, eta mota bitakoa izan daiteke: bat Natur Historia deritzona, gizakumearen nahiaren menpe ez dauden egitate edo efektuen historia da; mota honetan sartzen dira metalen, landareen, animalien eta lurraldeen eta horietarikoen historia. Bestea historia zibila da, hau da, gizkumeek euren errepubliketan burutzen dituzten nahitako ekintzen historia.

Zientzi gordailuak baiezen batetik bestera datozen ondorioen demostrazioak gordetzeko erabiltzen diren liburuak dira, eta filosofiako liburuak esaten zaie eskuarki; honetarikoak mota askotakoak izan daitezke, gaiaren askotarikotasunaren arabera, eta hurrengo taulan jartzen dudana bezala sailka daitezke.

## X

Boteraz, balioaz, duintasunaz, ohoreaz eta gaitasunaz

Gizakiaren BOTEREA, unibertsalki hartuta, gauza on bezala agertzen zaion xedea erdiesteko eskueran dauzkan bitartekoak dira. Eta jatorrizkoa edo instrumentala izan daiteke.

Botere naturala gorputzeko edo adimenduko ahalmenen gradu gailena da, hala nola ezohiko indarra, edertasuna, zuhurtzia, trebezia, bokantza, eskuzabaltasuna, noblezia. Instrumentalak, hauen bidez edo zortez eskuraturikoak dira eta beste batzuk ere lortzeko bitarteko edo tresna dira, hala nola, aberastasunak, ospea, lagunak eta gizakumeek zorte ona esaten dioten Jainkoaren asmo ezkutua. Zeren boterearen natura puntu honetan fama bezalakoa da, hots, prozesuan aurrera egin ahala gehituz doana; edo gorputz pisudunen mugimendua bezalakoa, hots, zenbat eta jausiera luzeagoa, orduan eta abiadura handiagoa hartzen duena.

Giza botereetan handiena, gehiengoaren botereek pertsona natural edo zibil bakar batengan baturik, haien baiespenez, osatzen dutena da, pertsona honek berak nahi bezala erabil ditzakeelarik, Estatu bateko boterearen kasuan gertatzen den bezala, edo gizakume partikular bakoitzaren nahiaren menpe egonez, fakzio baten edo zenbait fakzio elkarturen kasuan bezala. Beraz, zerbitzariak edukitzea boterea da; lagunak edukitzea boterea da: baturiko indarrak direlako.

Era berean aberastasunak, eskuzabaltasunarekin batera, boterea dira, lagunak eta zerbitzariak dakartzatelako. Eskuzabaltasunik gabe ez da holakorik gertatzen, kasu honetan aberastasunak ez dutelako gizakumea babesten, baizik besteen bekaizkoaren arriskupean uzten harrapakin gisa.

Botere-ospea boterea da, babesa behar dutenen atxikimendua erakartzen duelako.

Norbere aberriarenganako maitasuna izatearen fama ere (Herriartasuna deritzona) boterea da aurreko arrazoi beragatik.

Era berean, gizakume batek askoren maitasuna edo beldurra jasotzea sortzen duen edozein tasun edo tasun hori daukan fama ere boterea da, askoren laguntza eta zerbitzua lortzeko bide baita.

Arrakasta boterea da, jakinduria eta zorte onaren fama ematen baitu, eta gizakumeek arrakastatsuen beldur izatea edo berarengan konfidantza jartzea dakarrelako.

Jadanik boterean dagoenaren xalotasunak gehitu egiten du botere hori, besteen maitasuna bereganatzen duelako.

Zuhurtzi ospea bake edo gerra garaiko jokabidean, boterea da, zeren nahiago baitugu gizakume zuhurren ardurapean eta ez besteenean jarri gu gobernatzeko eginkizuna.

Noblezia boterea da, ez edonon, baina bai aitonsemeek pribilegioak dituzten errepubliketan, zeren pribilegio horietan baitatza haien boterea.

Bokantza boterea da, zuhurtziarekin antzekotasunak dituelako.

Itxura ona boterea da, zeren, ontasunaren agintzaria izanik, emakumeak eta ezezagunak norberaren alde jartzea dakarkielako gizakumeei.

Zientziek botere txikia dakarte, ikusten erraz ez direlako eta inorengan antzemanezinak direlako. Honez gain, gutxiren ondare dira, eta gauza gutxiri buruzko zientzia izan ohi da. Bestalde, zientzia izatez, neurri dexentean bereganatua duenarentzat izan ezik, beste guztientzat hautemanezina da.

Erabilera publikoko arteak, hala nola gotorlekuak, makinak eta beste gerrako gailu batzuk, botere dira, defentsa eta garaitza dakartelako. Eta euren benetakoa ama zientzia bada ere -zehazki matematikak-, zientzia hori argitara egilearen eskuak ateratzen duenez, beronen sorkaritzat hartzen dira (jende arruntak emagina amatzat hartzen du).

Gizakume baten BALIOTASUNA edo balioa, beste gauza guztiena bezala, haren salneurria da, hau da, haren boterea erabiltzeko emango genukeena. Ez da, beraz, absolutua den zerbait, besteen premiaren eta irizmenaren pean dagoena baizik. Soldaduburu bikain bat, prezio handikoa da gerra sorturik edo sortzeaz dagoenean, baina ez hainbeste bake garaian. Epaila ikasi eta salgaitz batek balio handia dauka bake garaian, baina ez horrenbeste gerra garaian. Beste gauza batzuetan bezala, gizakumeei dagokienez ere, saltzaileak barik erosleak erabakitzen duela salneurria. Zeren, gizabanako batek (gehienek egiten duten

moduan) bere buruari baliorik handiena eman arren, beronen egiazko balioa besteez erabakitzen dutena izango da, eta ez beste.

Guk elkarri jartzen diogun balioaren agerpena, komunzki ohorea edo desohorea deritzona da. Gizakume bat goitik balioestea, hura ohoratzea da, eta behetik balioestea desohoratzea. Baina goitik eta behetik, kasu honetan, gizakume bakoitzak bere buruari jartzen dion mailarekiko konparazioz ulertu behar da.

Gizakume baten balio publikoa, hots, Estatuak ematen dion balioa, gizakumeez arruntki DUINTASUNA esaten dioguna da.

Eta Errepublikak emandako balio hau agintaritzaz, epailetza eta herri-karguetan agertzen da, edo baita balio hori goraipatzeko erabiltzen diren izen eta tituluen bidez.

Beste bati era bateko edo besteko mesedeak eskatzea, hura OHORATZEA da, laguntzeko boterea duela uste dugun seinale baita, eta zenbat eta zailagoa izan laguntza, hainbat eta handiagoa da ohorea.

Obeditzea, ohoratzea da, inork ez diolako obeditzen laguntza emateko edo kalte egiteko botererik ez duela uste duenari. Eta, ondorioz, desobeditzea, desohoratzea da.

Gizon bati erregalia handiak ematea, hura ohoratzea da, haren babesa erostea eta haren ahala aitortzea delako. Erregalia txikiak egitea, desohoratzea da, limosna ematea besterik ez delako, eta emaelek laguntza txikia behar duen seinale da.

Beste baten onak etengabe goraipatzen ibiltzea, baita lausengatzea ere, beste hori ohoratzea da, haren babesa eta laguntza bilatzen dugulako. Aintzat ez hartzea, desohoratzea da.

Beste bati aurea uztea edo leku erosoagoan jartzea, ohoratzea da, haren botere handiagoaren aitortza da eta. Harro agertzea, desohoratzea da.

Beste batenganako maitasun edo beldur-seinaleren bat ematea, ohoratzea da, hala maitatzea nola beldur izatea balioestea delako. Beste bat mesprezatu edo berak espero duen hainbat maitasun edo beldur ez agertzea, desohoratzea da, gutxietea delako.

Beste bat goraipatu, handitsi eta zorionak ematea, ohoratzea da, ontasuna, boterea eta zoriona baino gehiago estimatzen denik ez dagoelako. Irainitzea, iseka egitea edo erruki izatea, desohoratzea da.

Beste bati miramenduz hitz egitea, haren aurrean deduz eta apal agertzea, hura ohoratzea da, pertsona hori iraintzeko beldur garen seinale baita. Lazki hitz egitea, haren aurrean lizunkeriak, zikinkeriak, lotsagabekeriak egitea, hura desohoratzea da.

Beste batengan sinestea, harengatik zerbait espero izatea, hartaz fido izatea, ohoratzea da, haren bertute eta boterearen iritzi ona ukatea delako. Mesfidatzea edo ez sinestea, desohoratzea da.

Gizakume baten aholkua edo esan nahi dugun zernahi entzutea, ohoratzea da, jakitun, eleder edo burutsutzat daukagun seinale delako. Mintzo delarik lo egitea, alde egitea edo berbetan ibiltzea, desohoratzea da.

Beste bati berak, edo legeak edo ohiturak, ohore seinaleztat hartzen dituen gauzak egitea, ohoratzea da, besteez egindako ohorea onestean, besteak aitortzen duten boterea aitortzen duelako berak ere. Egin nahi ez izatea, desohoratzea da.

Beste baten iritziarekin bat etortzea, ohoratzea da, haren irizmen eta jakinduria onesten diren seinale delako. Ados ez egotea desohoratzea da, eta bestea oker dagoela eta, desadostasuna gauza askotan edukiez gero, zoroa dela ere aurpegiratzea da.

Imitatzea ohoratzea da, onespen beroa ematea baita. Norbere etsaia imitatzea, hura desohoratzea da.

Beste bat ohoratzen dutenak ohoratzea, hura ohoratzea da, haren irizmena onesten den seinale delako. Haren etsaiak ohoratzea, hura desohoratzea da.

Beste bati aholku-funtzioetarako edo ekintza zailetarako enplegua ematea, hura ohoratzea da, haren jakinduria edo bestelako ahaleen iritzi onaren seinale baita. Eskatzen duenari horrelako enplegua ukatzea, eskatzailea desohoratzea da.

Ohoratzeko bide guztiok naturalak dira eta hala Estatuetan nola eurotatik kanpo gertatzen direnak. Baina Estatuetan, agintaritzaz goren daukanak edo daukatenek ohore-seinaleztat berek nahi dutena izatea erabaki lezakete, ohore berriak sortuz.

Errege batek ohoratu egiten du menekoa, ohoratu nahi duen seinaleztat berak jarritako edozertariko titulu, lanbide, enplegu edo eginkizuna emanda.

Persiako erregeak ohoratu egin zuen Mordekai, agindu zuenean hau errege-jantziz jantzita eta Erregearen Zaldiaren gainean kalerik kale eramateko, aurretik printze bat zuelarik aldarrikatuz Hauze egingo zaio erregeak ohoratu nahi duenari. Baina Persiako beste errege batek, edo berak beste batean, egindako zerbitzu handi baten saritzat Errege jantziz jantzita ibiltzea eskatu zion bati, baimena eman zion hori egiteko baina baldintzat jarritzat erregearen bufoi moduan joan beharko zuela, eta hau desohorea izan zen. Horrela, ohore zibilararen iturria Estatuan datza eta Erregearen nahiaren menpe dago; aldi batekoa da, beraz, eta ohore zibila esaten zaio, magistratutza, karguak, tituluak, eta, leku batzuetan, uniformeak eta armariak izaten direlarik ohore zibilak. Gizakumeez ohoratu egiten dituzte ohore zibilak daukatenak, fabore seinale direlako Estatuan, eta fabore hau boterea da.

Ohoragarri, botere-seinale edo argudio den jabego, ekintza edo koalitate oro da. Eta, beraz, askoren maitasuna edo beldurra jasotzea, botere froga eta seinale da. Gutxik edo inork ere ez ohoratzea, desohoragarria da.

Domeinua eta garaitza ohoragarriak dira boterearen bitartez lortzen direlako; premiak edo beldurrak ekarritako morrontza desohoragarria da.

Zorte ona (iraunkorra bada) ohoragarria da, Jainkoa geure alde daukagun seinale delako. Zorte txarra eta galerak, desohoragarriak. Aberastasunak ohoragarriak dira boterea direlako. Pobrezia, desohoragarria. Gogohanditasuna, eskuzabaltasuna, esperantza, adorea eta konfidantza ohoragarriak dira, botere kontzientzia edukitzetik baitatoz. Uzkurkeria, zuhurkeria, beldurra eta mesfidantza desohoragarriak dira.

Gizon batek berak egin behar duena sasoiz ebatzi edo erabakitzea ohoragarria da, zailtasun eta arrisku txikiak mesprezatzea suposatzen baitu. Eta erabakimenik eza, desohoragarria, eragozpen eta abantaila txikiak gehiegi balioestearen seinale delako. Zeren gizakume batek gauzak pisatu horretarako denbora izanda eta erabakirik hartzen ez duenean, pisu aldeak txikiak baitira, eta horregatik erabakitzen ez badu, larretsi egiten ditu gauza txikiak, hau uzkurkeria delarik.

Esperientzia, jakinduria, bereizmen edo iaotasun handitik datozen edo datozela diruditen ekintza eta hitzak ohoragarriak dira; zeren guztiak botere baitira. Erroretik, ezjakintasunetik, edo zorotasunetik datozen ekintza edo hitz guztiak desohoragarriak dira.

Seriotasuna, buruan beste arazoren bat edukitzetik datorrela dirudienean, ohoragarria da, arazoetan lanpetuta ibiltzea botere-seinale delako. Baina serio agertzeko asmoak eragindakoa badirudi, desohoragarria da. Zeren lehenengoaren seriotasuna, merkantziaz kargaturiko untziaren egonkortasuna bezalakoa da, baina bigarrenarena hareaz eta hondakinez zamatutakoaren egonkortasuna bezalakoa.

Ospetsua izatea, hau da, aberastasun, lanbide, ekintza handi edo beste edozein alderdi on gailenegatik ezaguna izatea, ohoragarria da, horiek botere-seinale baitira. Iluntasuna, aitzitik, desohoragarria da.

Guraso ospetsuak izatea, ohoragarria da, zeren errazago norberegantzen baitira gurasoen laguntzak eta adiskideak. Guraso ilunak izatea, ostera, desohoragarria da.

Ekitatez jokatzu egindako ekintzak, galerak ekarriez gero, ohoragarriak dira, gogohanditasun-seinale baitira, eta gogohanditasuna, botere seinale. Aitzitik, jukutriak, azpikeriak eta ekitaterik eza, desohoragarriak dira.

Aberastasun handien irritsa eta ohore handien desira seinale ohoragarriak dira, zeren eskuratzeko ahala dagoen seinale baitira. Irabazi edo lehentasun txikien irritsa eta desira desohoragarria da.

Ohore kontu honetan ez dio axola ekintza handi eta zail bat, eta, beraz, ahal handiaren seinale dena, zuzena edo zuzengabea den, ohorea ahalaren aintzespenean baitatza, eta ez beste ezertan.

Horrela, antzinako jentilek beren poemetan jainkoak estupro, lapurreta eta beste hainbat ekintza handi baina satsu eta zuzengabe egiten ipintzen zituztenean, ez zuten uste jainkoak desohoratzen zituztenik, handikiro ohoratzen baizik. Horrela, ezer ez zen ospatuago Jupiterrengan, haren adulterioak baino; ezer ez Merkuriorrengan, haren iruzur eta lapurretak baino. Homeroren himno batean, Merkuriori eskainitako laudoriorik handiena honako hauxe izan zen, hots, goizean jaio izanik, eguerdian musika asmatu zuela, eta gaua iritsi baino lehen, lapurtua ziola Apolori ganadua, beronen artzainengandik.

Gizakumeen artean ere, Estatu handiak eratu ziren arte, ez zen pentsatzen desohorea zenik itsaslapur edo bidelapur izatea, legezko jardunak baitziren hauek. Horixe uste zuten ez bakarrik greziarrek, gainerako nazio guztiek ere baizik, antzinateko historietan argi geratzen den bezala. Eta gaurko gure garaian, munduaren alde honetan, duela pribatuak ohoragarriak dira eta izango dira beti, nahiz eta ilegalak izan, harik eta gizartearen desafioa arbuizatzea ohoragarri eta egitea lotsagarri dela ezarriko den garaia heldu arte. Zeren duela sarri askotan adorearen ondorio baitira; eta adorearen oinarria indar edo trebeziaren bat izaten da beti, ahala direlarik beti; baina gehientsuenetan, hitz burugabeak eta borrokakide batarengan edo biengan dagoen desohorearen beldurraren ondorio dira. Eta horrela, burugabekeriak hartaratuta, borrokalekuetara doaz desohorea ekiditeko.

Herentziatzko noblezi ezaugarriak eta armariak, pribilegio nabarmenak badituzte, ohoragarriak dira; bestela ez, zeren euren boterea pribilegio horietan, aberastasunetan edo beste gizakumeengan ere ohoragarri den edozertan baitatza. Ohore mota hau, eskuarki noblezia deritzona, antzinako germaniarrengandik datorrena da, zeren horrelakorik ez baitzen germaniar ohiturarik ezagutzen ez zen lekuetan. Eta gaur egun ere germaniarrak bizi izan ez diren lekuetan ez da ohi horrelakorik. Antzinako greziar gudalburuek, gerraratzean, nahierara pintatzen zituzten ezkutuak, eta hau, ezkutuak pintatu gabe erabiltzea pobrezi seinale eta soldadu soilena zelako. Baina ezkutuok ez ziren herentziaz transmititzen. Erromatarrek transmititzen zituzten famili ezaugarriak, baina irudiak ziren, eta ez arbasoen armariak. Asia, Afrika eta Ameriketako herrien artean, ez dago, ez lehenago egon izan da, horrelakorik. Germaniarrek bakarrik izan zuten ohitura hori eta eurengandik hartu zuten herentziaz Ingalaterrak, Frantziak, Espainiak eta Italiak, germaniarrak, ugari, erromatarren zerbitzutan ibili zirenean edo munduko alderdi horietan beren konkistak egin zituztenean.

Antzina, Alemania, beste herrialdeak bezala, mila jauntxo edo familibururen artean banatuta egon zen hasieran, elkarren arteko etengabeko gerran ibiltzen zirelarik; buru edo jauntxo hauek, armadura janztean, euren jarraitzaileek ezagut zituzten batik bat, eta apainduria gisa ere bai, basapiztiren baten edo beste

edozeren irudia pintatzen zuten beren armadura edo ezkutueta eta erraz ikusteko moduko ezaugarri nabarmenen bat jartzen zuten beren kasketen gailurrean. Apainduriok, bai armetakoak eta bai kasketetakoak, herentziaz pasa ziren beren semeengana; lehensemearenak berdin-berdinak ziren, eta besteenetan aldaketaren bat zegoen, familiburu zaharrak, edo alemaneraz esaten den moduan, Here-altak, egoki zeritzonaren arabera. Baina familia hauetako asko monarkia handi batean bildu zenean, lehen Here-altak egiten zuen ezkutu-bereizpen hau, titulu pribatu bilakatu zen. Eta jaunongandik etorri zen antzinako noblezia handia, eta gehienek adorea eta harrapa-ahalmenarengatik nabarmenak diren animaliak, gazteluak, gotorlekuak, gerrikoak, armak, barrak, oholesiak edo bestelako gerra-ezaugarriak eramaten zituzten irudikatuta, orduko ohore bakarra bertute militarrek baitziren. Gero erregeek bakarrik barik, herri-errepublikak ere ematen zizkieten mota ezberdineko armariak gerrara zihoazenei edo handik zetozenei, adoregarritzat edo egindako zerbitzuen saritzat. Hau guztiau, greziar eta erromatarrek herri germaniarra eta orduan zituen ohiturak aipatuz idatzitako antzinako historietan aurki dezake irakurle arretatsuak.

Ohorezko tituluak, hala nola duke, konde, markes, baroi tituluak, ohoragarriak dira, errepublikako aginte subiranoak emandako balioaren adierazle direnez. Hauek antzinako garaietan kargu eta aginte-tituluak ziren, erromatarrengandik etorritakoak batzuk eta alemanengandik eta frantsesengandik beste batzuk. Dukeak, latinez duces, gerretako generalak ziren; kondeak, comites, adiskidetasuna medio generalarekin ibiltzen ziren eta konkistaturiko eta bakeaturiko plazak gobernatu eta defendatzeko eginkizuna ematen zitzaien; markesak, marchiones, inperioaren markak edo mugak gobernatzen zituzten kondeak ziren. Duke, konde eta markes tituluok, Konstantino Handiaren garaian sartu ziren inperioan eta germaniar militian zuten jatorria. Baina baroi-tituluak frantsesengandik etorritakoa dirudi eta gizon handia esan nahi du. Hauek erregearen edo printzearen gizonak ziren eta gerran beren zainketaren ardura leporatzen zien. Izena, dirudienez, vir-etik dator, gero ber edo bar bilakatu zelarik, galoen hizkuntzan latinez vir hitzak duen esanahi bera duelarik, eta hemendik bero eta baro bilakatu ziren, eta horregatik aipatu gizonen beroiak esaten zitzaien, eta gero baroiak, eta espainieraz Varones. Baina ohorezko tituluen jatorria zehazkiago jakin nahi duenak,

Mr. Selden-en tratatuan, gai honi buruzko bikainena berau, aurkitu ahal izango du neuk egin dudana bezala. Gerora ohorezko tituluok liskarbide bilakatu ziren eta, bakea eta gobernu ona medio, titulu huts bilakatu ziren eta, batez ere Estatu barruan, menekoen lehentasuna, lekua eta ordena bereizteko balio izan zuten; eta ez jabetzarik ez aginpiderik ez zeukaten lekuetako dukeak, kondeak, markesak eta baroiak izendatu ziren; eta beste titulu batzuk ere eman ziren xede beraz.

GAITASUNA, gizakume baten baliotik ezberdina da, eta baita haren merezimendu edo zerbitzutik ere, eta gizakume batek balio duela diogun gauzarako daukan ahalmen edo trebetasun berezia da gaitasuna, trebetasun berezi horri IAIOTASUNA edo gaitasuna esan ohi diogularik.

Zeren buruzagi militar edo epaile izateko edo beste edozein kargu edukitzeko gaiena, berau betetzeko iaioena dena eta koalitatek onenak dituenak; eta aberastasunak edukitzeko gaiena, berau ondo erabiltzeko behar diren koalitatek onenak dituenak. Koalitate hauek ez edukita ere, bat izan daiteke gizon baliozkoa eta beste gauza baterako gai izan. Horregatik, gizon bat aberastasunak, postuak eta karguak edukitzeko gai izan daiteke baina horregatik ezin du beretzat aberastasunik galdatu beste batek baino eskubide handiagoz; eta, beraz, ezin esan daiteke merezi dituela. Merezimenduak eskubidea suposatzen baitu, eta merezi duguna promesaz zor zaigula. Honi buruz gero esango dut gehiago, kontratuez hitz egiten dudanean.

## XI

Ohitura ezberdintasunak

OHITURAK hemen erabiltzean, ez nagokio jokabidearen dezentziari: nola agurtu behar duten pertsonak elkar, edo nola garbitu behar duen ahoa edo erabili behar duen gizakume batek hortzetako zotza, edo nola jokatu behar duen moral txikiko beste gauza batzuetan. Hemen zerari nagokio, gizateriak bakez eta elkartasunez bizitzeko behar dituen koalitaterik. Xede honetarako, kontuan izan behar dugu bizitza honetako zoriontasuna ez datzala adimendu asebetearen atsedenean. Zeren, antzinako filosofo moralen liburuetan aipatzen zaizkigun finis ultimus (azken xedea) edo summum bonum (onik handiena) hori ez baitago inon. Desirak asebetetik edo zentzuak eta irudimena egonkorturik dituen gizakumeak ezin du bizitzen segitu. Zoriona desiraren taigabeko aurreramenak da objektu batetik bestera, bat eskuratzea hurrengo lortzeko bide besterik ez izanik. Honen kausa, gizakumearen desiraren objektua behin eta lipar batez gozatzea barik, geroko desiren bidea betiko aseguratzeko dela da. Eta horregatik gizakume guztien nahitako egintzak eta jauginak ez doaz bizitza zoriontsua eskuratzera soilik, berau segurtatzera ere baizik; eta moduan bakarrik dira ezberdinak, ezberdintasunok, aldeez gizakumeen grinen ezberdintasunetik sortzen direlarik, eta, aldeez bakoitzak efektu desiratua eragiten duten kausei buruz duen ezagupen edo iritziaren ezberdintasunetik.

Horrela, gizateriaren lehenengo jaugintzat, boterea boterearen ondoren lortzeko azkengabeko desira nekagaitza, heriotzarekin bakarrik atertzen dena, jartzen dut. Eta honen kausa ez da beti gizakumeak jada eskuratua duen atsegina baino biziagoa espero duela, edo ezin dela kontentatu neurriko botereaz, baizik

ondo bizitzeko orain dituen boterea eta bitartekoak ezin dituela segurtatu beste batzuk eskuratu barik. Eta horrexegatik erregeak, botere handiena dutenak, berau aseguratzen ahalegintzen dira barruan legeak eta kanpoan gerrak eginez. Eta hau egin ondoren, desira berri bat sortzen da; batzuengan, entzutea lortzekoa konkista berrien bidez; beste batzuengan, erosotasun eta plazer sentzualen desira; beste batzuengan, mirespena sortaraztekoa, arteren batean edo adimenduko beste edozein trebeziatan gailenduz.

Aberastasunak, ohorea eta agintea eskuratzeko norgehiagokak aurkakotasun, etsaitasun eta gerrara darama. Zeren lehiakide bakoitzak bere desirak lortzeko duen bidea, bestea hil, menperatu, ordeztu eta atzera botatzea da. Berezikin laudorioak jasotzeko lehiak Antzinatea gurtzeko joera du. Zeren gizakumeek biziekin borrokatu behar dute, ez hilekin; eta orduan hilei ematen zaie zor zaiena baino gloria handiagoa, bizien gloria ilunduta gera dadin.

Erosotasun eta atsegin sentzualaren desirak aginte komunari obeditzeko gertu jartzen ditu gizakumeak, horrelako desirak dituenak bazterrean uzten duelako bere ahalegin eta lanetik espero dezakeen babesa. Heriotzaren eta zaurien beldurra gauza bererako gertutasuna eragiten du, lehengo arrazoi berarengatik. Aitzitik, gizakume behartsu eta erabakitsuak ez dira konformatzen beraien egoeraz; eta gauza bera jazotzen zaie aginte militarren egarri direnei ere, horrelakoek gerraren kauei segida emateko eta gatazkak eta sedizioak sortzeko joera izaten dutelarik, zeren ez baitago gerran jatorria ez duen ohore militarrik, ezta egoera gatazkatsuak konpontzerik ere lehenago beste nahaste bat sortu ezean.

Ezagutzaren eta bakerako arteen desirak botere komunari obeditzera bultzatzen ditu gizakumeak. Zeren desira horren barruan astia izateko desira doa, eta, ondorioz, norberak sortua ez den beste botere baten babesa aurkitzekoa.

Laudorio-desirak ekintza goraipagarriak egiteko gertutasuna ematen du, baliozko irizmena dutela uste dugun gizakumeek atsegin izateko modukoak; zeren mesprezatzen ditugun gizakumeengandiko laudorioak ere mesprezatu egiten baititugu. Heriotzaz geroztiko ospeak ere gauza bera egiten du. Eta, nahiz eta hil ondoren ez dugun izango lurlean eskaintzen diren laudorioen zentzurik, zeren poz horiek orduan, edo zeruko poz adierazgaitzek irentsita edo ifernuko oinaze ikaragarriek iraungita geratuko baitira, ospe hori, hala ere, ez da guztiz hutsa, zeren gizakumeek atsegin hartzen dute orain berau aurrikusiz eta beren ondorengoei ekar diezaikekeen onurarengatik; eta guzti hau memento horretan ikusi ezin badute ere, iruditu egiten dute; eta zentzuetan atsegingarri den edozer, irudimenean ere atsegingarri da.

Geure parekotzat daukagun batengandik guk hari ordaintzea espero dugun baino mesede handiagoak hartu izanak maitasun faltsurako gertutasuna eragiten digu, izatez gorroto sekretua dena; eta zordun etsiaren egoeran jartzen du gizakumea, eta, hartzeduna inon ere ez ikusteko ahaleginak eginez, berak hura ikusterik ez lukeen tokiren batera joan ledin nahi luke sakonean. Mesedeek behartu egiten dute, eta beharkizuna joputasuna da; eta beharkizun betezina betiko joputasuna, norbere parekoaren jopu denarentzat gorrotagarria delarik. Baina norbera baino goragokotzat daukagun batengandik mesedeak edo onurak hartu izanak maitasunera bultzatzen gaitu; zeren beharkizunak orduan ez baikaitu txikiago sentiarazten; eta gogo onez onartzea, hots, gizakumeek eskerrona deitzen duguna, hain ohore handia izan ohi da ongilearentzat, non eskuarki ordainik askitzat hartua izaten den. Era berean norbere pareko edo beheragoko batengandik mesedeak hartzeak ere maitasunera bultzatzen gaitu, baina beti ere mesedea bihurtzeko esperantzarik badaukagu; zeren hartzailearen asmoan, beharkizuna elkarri laguntza eta zerbitzua ematekoa da. Hemendixe dator bata besteari nork baino nork mesede handiagoa egiteko lehia moduko bat, norgehiagoka nobleen eta baliagarriena delarik. Garaile ateratzen dena pozik geratzen da bere garaipenarekin, eta bestea duinduta lagunaren garaipena aitortzean.

Gizakume bati berak pairatu ahal edo nahi duen baino min handiagoa egin izanak, pairatzailea gorrotatzera lerratzen du minegilea. Zeren harengandik mendekua edo barkazioa espero izatera behartuta aurkituko baita, bata zein bestea gorrotagarri direlarik.

Zapalkuntzaren beldurra gizartearen laguntza espero izateko edo bilatzeko gertu jartzen du gizakumea, zeren horixe beste biderik ez baitago gizakumeak bere bizia eta askatasuna segurtatu ditzan.

Beren agudeziaz fido ez direnak, nahaste eta sedizio-aldian garaitzarako hobeto prestaturik daude beren burua jakitun edo trebetzat dauzkatenak baino. Zeren hauei kontsultatzea gustatzen baitzaie, eta besteak (tranpan harrapatuak izateko beldurrez) lehenengo kolpea ematen dutenak izaten dira. Eta sedizio batean, denak batailarako prestatzen direnean, elkartuta jokatzeko eta indarraren abantaila guztiak erabiltzeko, agudezia edo buruargitasunetik etorritako beste edozein baino estrategia hobea da.

Balio handia duten kontzientziarik izan gabe, euren buruak adoretu eta ausart iruditzen pozik ibiltzen diren gizakume harroputzek arrandikeriara dute joera, eta ez benetako ahaleginera. Zeren arriskua edo zailtasuna agertzen denean, euren ezgaitasuna argi jartzea besterik ez dute nahi izaten.

Besteengandik lausenguak jaso dituztelako edo aurreko ekintzaren baten zorte ona izan dutelako gai sentitzen diren gizakume harroputzek, konfidantza hori beren buruen benetako ezagutzan oinarritu gabekoa denez, pentsatu gabeko erabakiak hartzeko joera dute; eta arriskua edo zailtasuna datorrenean, atzera egiten dute ahal badute; zeren, salbu ateratzeko biderik ez ikustean, bizia baino beren ohorea

arriskatu nahiago izaten baitute, ohorea aitzakia bat jarrita salba daitekeelako, bizia berreskuratzeko modurik ez dagoen bitartean.

Gobernatze konturako jakinduriaren jabe direla uste duten gizakumeek handinahirako joera izaten dute, kontseilaritzan edo magistratutzan kargurik ukan ezean galduta dagoelako haien jakinduriaren ohorea. Horregatik, bokantza handiko hizlariak handinahiak izaten dira, bokantzak jakinduria baitirudi, beraien eta besteen begietarako.

Uzkurkeriak ebazgaiztasunera bultzatzen ditu gizakumeak, eta, beraz, ekintzarako abagune eta betarik onenak galtzera. Zeren ekintzarako ordua heldu arte deliberatzen jardun ondoren, zer egin behar den argi ikustea lortzen ez bada, hori batera edo bestera jokatzeko dauden motiboen arteko aldea handiegia ez den seinale da. Horregatik ez honetara ez hartaratzea, huskeriak kontuan izatearren abagunea galtzea da. Eta hau uzkurkeria da.

Urritasunak (pobreengan bertutea bada ere), gizakume askoren indarra bateratu behar duten ekintzak burutzeko ezgai bihurtzen du gizakumea. Zeren honek ahuldu egiten baitu haren ahalegina, sarien bidez elikatu eta indartsu mantendu beharra dagoenez gero.

Bokantza lausengatzaileak trebetasun hori dutenengan fido izateko gertu jartzen ditu gizakumeak. Hau horrela da, bokantza itxurazko jakinduria delako, eta lausengua itxurazko atsegintasuna. Hauetaz itzal militarra erantsiez gero, koalitateok dituzten gizonei atxiki eta menekotasuna izateko gertu izango da jendea. Lehenengo biek harengandik arriskurik ez duten bermea emango die, eta azkenengoak besteengandik arriskurik ez duten segurantzaz.

Zientziarik ezak, hots, kausak ez ezagutzeak, besteen aholku edo autoritatepean jartzera gertatzen ditu edo, hobeto esanda, behartu egiten ditu gizakumeak. Zeren egia interesatzen zaien guztiek, beren buruez fido ez badira, jakintsuagotzat daukaten eta zertan engainaturik ez duela uste duten besteren batez fidatu beharra baitute.

Hitzen esanahia ez jakiteak, hots, ulermen faltak, gertu jartzen ditu gizakumeak ezagutzen ez dituzten egiak ezezik errorea ere eta, are, fido direnen zentzugabekeria onartzera. Zeren ez errorea ez zentzugabekeria ezin atzeman daitezke hitzak ongi ulertu barik.

Hortixe dator gizakumeek gauza berari izen diferenteak ematea beren grina ezberdinen arabera. Horrela, iritzi pribatu bat onesten dutenean, iritzia esaten diote; baina gaitzesten badute, heresia; eta heresiak iritzi pribatua besterik esan nahi ez duen arren, sumin kutsu handiagoa dauka.

Hortixe dator, baita ere, gizakumeek ezin bereizi izatea, azterketa eta ahalegin handi barik bederen, askoren ekintza bat jende pila baten ekintza bakarretik, hala nola, Katilina hiltzeko Erromako senatore guztiek burutu zuten ekintza bakarra, Zesar hiltzeko senatore talde batek burutu zuen ekintza askotatik. Eta, ondorioz, aiherrak herriaren ekintzat hartzerako gizaalderantz handi batek, bakar batek denak horretara limurtuz agian, egindako ekintza-pila dena.

Zuzenbidea, ekitatea, legea eta justiziaren kausak eta jatorrizko eraketa ez ezagutzeak, ohitura eta eredu bere joko-arautzat hartzea lerratzen du gizakumea; halako moldez non aiherrak da uste izatera zuzengabea zigortu ohi izan dena dela, eta zuzena, aldiz, eredu bat edo (justizi arau faltsu hau erabiltzen duten abokatuek barbaroki esaten duten bezala) aurrekari bat ekarrita zigorgabetasuna edo onespena izan ohi duela frogatu daitekeena; jokabide ona eta txarra bereizteko beren gurasoen eta maisuengandik jasotako zentzaldiak besterik ez duten haurtxoek egiten duten moduan jokatuz. Alde bakarra da haurrek iraunkorki aplikatzen dutela arau hori, eta helduek, osteraz, ez, zeren handi eta temati egitean, ohiturara jotzen dute arrazoia zuzentzeko edo arrazoiak beren ohitura zuzentzeko, zer komeri harixe helduz. Eta horrela, ohituratik aldentzen dira beren interesak hori eskatzen duenean, edo arrazoiaren kontra jartzen dira arrazoia kontra daukaten guztian. Eta hauxe da Zuzenaren eta Okerraren doktrina bai lumaz eta bai ezpataz borrokatua izatea esplikatzen duen zergatia, lerroen eta irudien doktrinari buruz horrelakorik gertatzen ez den bitartean, gizakumeen handigura, irabazia edo irritsak ukitzen ez dituzenez, kontu honetan zein den egia ezer gutxi axola dielako. Zeren ez baitut inolako dudarik egiten, angelu baten hiru angeluak angelu zuzen bi adina direla dioen doktrina gizakumeren batek besteengan domeinua edukitzearen, edo jada domeinua dutenen kontrakoa izan balitz, doktrina hori eztabaidaren bidez barik geometriako liburu guztiak erraz suntsitua izan zatekeela, kalteturikoak hori egiterik inondik izanez gero bederen.

Urruneko kausak ez ezagutzeak jazoera guztiak arartegabeko kausa instrumentalei eratzikitzera bultzatzen du gizakumea, hauexek bakarrik hautematen baititu. Eta hemendixe dator edozein tokitan herri-ogasunera ordaindu beharreko zergak gainzamatuz daudenean beren sumina funtzionariengan, hots, zergabiltzaileengan, ikuskariengan eta haziendako beste enpleguengan hustutzea, eta gobernuari akatsak aurkitzen dietenekin bat egiten dute, eta hortik, justifikaziorik ez espero izateraino jo dutenean, Aginte Gorenari ere eraso egiten diote, zigorraren beldurrez, edo haren barkamena hartzeko lotsaz.

Kausa naturalak ez ezagutzeak sinesberatasunera lerratzen du gizakumea, maiz ezinezko gauzak ere sinesterraino. Zeren, kontrakoa dioen ezer ezagutzen ez dutenez, egiazkoak izan litezkeela baizik, ezin baitiete ezinezkotasunik ikusi. Eta sinesberatasunak, gizakumeei lagunartean daudenean besteak beraiei



entzutea gustatzen zaienez gero, gezurak esatera lerratzen ditu. Eta horrela, ezjakintasunak berak, maliziarik gabe, gizakume batek gezurak sinestea ezezik, esatea ere eragin lezake, eta, zenbaitetan, asmatzea ere bai.

Etorkizunarekiko kezkak gauzen zergatiak ikertzera lerratzen ditu gizakumeak; zeren, berauek ezagutuz orainaldia beren komenentziaren arabera hobeto antolatzeko gaiago egiten baitira.

Jakinminak, edo ezagutu-nahiak, efektua kontuan hartu eta haren kausa bilatzera bultzatzen du gizakumea, eta gero berriro kausaren kausa bilatzera; eta horrela, lehen kausa kausagabea eta eternala, gizakumeek Jainkoa esaten diotena, dagoela pentsatzera iristeraino. Ezin da, beraz, kausa naturalen ikerketa sakonik egin Jainko eternal bat badela sinestera aiherriz gabe, nahiz eta gizakumeek ezin duten izan adimenduan haren naturari erantzuten dion ideiarik. Zeren nola sortzetiko itsu batek, besteak sutondoan berotzeaz hitz egiten entzun eta suak sorturiko berotara eramaten dutenean, erraz burura dezakeen gizakumeek sua esaten dioten eta berak sentitzen duen beroaren kausa den zerbait dagoela han, baina ezin duen sua iruditu eta ikusten dutenek bezalako su horren ideiarik ezin eduki duen, halaxe gizakumeak ere, mundu honetako gauza ikuskorak eta berauen ordena miresgarria abiagunetzat hartuta, gauza horiek Jainkoa esaten diogun kausa bat dutela burura dezake, baina adimenduan beronen ideia edo irudirik izan gabe.

Eta gauzen kausa naturalen ikerketa handirik edo bat ere egiten ez dutenak, jakinezatik bertatik sortzen den norberari kalte edo mesede handia egiteko ahala duenarekiko beldurraren eraginez, aiherriz dira zenbait indar suposatzen eta iruditzen; eta beren fantasien izua sentitzen eta estualdian eurei otoika aritzen eta baita, ezusteko gauza onen bat gertatzen zaienean, eskerrak ematera, beren irudimenaren sorkariak Jainko bihurtuz. Horrela gertatu da, gertatu ere, askotarikoak izanik fantasiak, gizakumeek kontatu ezin ahala Jainko modu sortu dutela munduan. Eta gauza ikustezinekiko beldur haxe izan da bakoitzak bere baitan Erljioa esaten dionaren hazi naturala; baina beraienak barik, beste indar batzuk adoratzeko edo beldur izaten zaienean, orduan sineskeria esaten diote.

Erljioaren hazi hau askok aztertu izan du; eta batzuek indartu, jantzi eta legetan jarri dute; eta beraiek asmatutako etorkizuneko gertaerei buruzko iritziak gehitu dizkiote, uste izanik era horretan besteak gobernatzeko eta beren ahalein erabilera ahalik emankorren bihurtzeko gaiago diratekeela.

## XII

### Erljioaz

Ikusirik, gizakiaren izan ezean beste ezerengan erljioaren seinalerik ez fruiturik dagoela, erljioaren hazi gizakiaren bakarrik dagoela zalantzan jartzeko arrazoirik ez dago; eta koalitatearen batean edo beste izaki bizidunetan aurkitzen ez den hazi honen gradu gorengoren batean datza.

Lehenengo eta behin, gizakiaren bereizgarria da ikusten dituen gertaeren kausak bilatzea. Batzuek besteek baino neurri handiagoan egiten dute hau, baina denek erakusten dute beren ongizatearen edo zorte txarraren kausak bilatzeko jakinahia bederen.

Bigarrenik, hasiera duen zerbait ikusten dugunean, pentsatzen dugu hasteratu zuen kausa bat ere eduki duela, eta gero noiz egin zuen, eta zergatik ez lehenago edo geroago pentsatzen dugu.

Hirugarrenik, animaliek eguneroko jatekoa jan, atsedena hartu eta instintuak ase beste zorionik ez duten bitartean, etorkizunaren aurrikuspen handirik edo bat ere ez izanik ikusten dituzten gauzen ordena, sekuentzia eta elkarloturaren hautematerik eta oroimenik ez dutelako, gizakiak, oster, gertaera bat beste batek sortua dela hautematen du eta zein den aurrekina eta zein ondorioa gogoratzen; eta gauzen zergatiak ziur jakin ezin dituen (zorte on edo txarraren kausak gehienbat ikustezinak baitira), suposatu egiten ditu kausa horiek, dela bere irudimenak iradokitzen dionaren arabera, dela bere lagun eta bera baino jakintsuagotzat dituenen autoritateaz fidatuz.

Lehenengoak eta bigarrenak antsia sortarazten dute. Zeren, behin ziur jakinez gero egundaino gertatu izan diren gauza guztiek beren kausa izan dutela eta gero etorriko direnek ere izango dutela, ezinezkoa baita beldur zaien txar guztietatik babesteko eta desiratzen dituen on guztiak eskuratzeko etengabeki kezkaz dabilen gizakumea etorkizunaren aurrez aurre taigabeko antsi egoeran ez aurkitzea. Eta horrela, gizakume guztiak, aitzinikusleegiak direnak bereziki, Prometeorena bezalako egoeran aurkitzen dira. Zeren, nola Prometeo (itzulita gizon zuhurra esan nahi duena) Kaukaso mendiari, bista handiko lekua berau, kateaz lotuta egon zen, non haren gibelaz elikatzen zen arrano batek gauez osatu ahala egunez irensten baitzion, halaxe beregandik urrunegi dagoen etorkizunari kezkaz begiratzen dion gizakumeak ere, heriotzaren, pobreziaren edo beste edozein lazariaren beldurra bipturik dauka bihotza eta ez du atsedunik ez pausagunerik aurkitzen bere antsian, lotan izan ezik.

Gizateriak, kausen jakinezak eragindako iluntasunean balego bezala, beti lagun duen beldur etengabe honek objektuen bat behar du. Eta horregatik ikus daitekeen ezer ez daukanean, zorte on edo txarraren errua edo erantzukizuna leporatzeko botere edo eragile ikustezinen bat baino ez dauka. Agian zentzu honetan esan zuten poetek jainkoak hasieran gizakiaren beldurra sortu zituela, hau jainkoei dagokienez (hau da, jentilen jainko ugariei dagokienez) egia delarik. Baina Jainko eternal, infinitu eta guztiahaldunaren ezagutza errazago etor daiteke gizakumeek gorputz naturalen kausak eta euren

koalitateak eta eragiketak ezagutzeko duten desiratik, etorkizunean gerta dakiekeenak eragiten dien beldurretik baino. Zeren, gertatu dela ikusten duen efektu batetik, beronen kausa hurbileko edo artekarigabekoaz arrazonatzen duena, eta hemendik kausa horren kausaz, eta kausen bilaketan sakonki murgiltzen dena, azkenean konklusio honexetara iritsiko da: lehen mugitzaile batek izan behar duela (filosofo pagano guztiek ere aitortua dutenez), hau da, gauza guztien lehen kausa eta eternala, berau delarik Jainko izenez esan nahi dutena. Eta hau guztia beren izangoan pentsatzen ibili gabe, zeren norberaren izangoaren kezka honek beldurra sortu, beste gauza batzuen kausak bilatzen galarazi eta zenbat gizakume hainbat jainko iruditze okasioa ematen baitu.

Eta horrela irudituriko eragile horien gai edo substantziari dagokionez, ezin denez ezagutza naturalez bururatu, gizakiaren arimaren kontzeptuarekin bat eginda izan ezik, eta lotan dagoenari ametsetan agertzen zaionaren, edo itzarrik dagoenak ispiluan ikusten duenaren substantzia bereko den zerbait bezala iruditzen denez, irudikapen horiek fantasiaren sorkari besterik ez direla konturatzen ez diren gizakumeek kanpoko munduko benetako substantziaz hartzen dituzte, eta mamuak esaten diete, latindarrak imagines eta umbrae deitzen zieten bezalaxe. Eta izpiritutzat dauzkate, hau da, aireko gorputz sotiltzat, eta izaera berbera eratxikitzen die berak beldurrazten dituzten eragile ikustezinei ere, hauek berek nahi dutenean agertu eta ezabatzen direla salbu. Baina izpiritu horiek gorpuzgabeak eta imaterialak diren iritzia ezin izan da sortu, berez, ezein giza adimendutan. Zeren, nahiz eta gizakumeek elkarren kontrako esanahia duten hitzak elkartuta jarri ahal dituzten, hala nola izpiritu gorpuzgabea, ezin dute honi dagokiokeen irudirik inoiz eduki. Horregatik, beren baitan gogoeta eginez, Jainko infinitu, guztiahaldun eta eternala badela ezagutzera heltzen direnek ulertezina dela eta beren adimenak atzeman lezakeenaz haraindik dagoela aitortu nahiago dute, izpiritu gorpuzgabea dela esanez definitu baino, definizio hau ulertezina bailitzateke. Eta Jainkoari titulu hori ematen badiote, ez dute hori dogmatikoki egiten, Jainko-izaera zein den ulertarazteko asmoz, baizik ikusten ditugun gorputz traketsei dagozkien tasunetatik ahalik urrunen direnak hari eratxikiz jainkozaletasunez ohoratu nahian.

Eragile ikustezin hauek efektuak eragiteko duten moduari buruz, hau da, gauzak gerta daitezen erabiltzen dituzten kausa artekarigabeei buruz pentsatzen dutenari dagokionez, kausatu hitzarekin zer esan nahi den dakiten gizakumeek (ia denek) beren kalkuluetan arautzat erabiltzeko ez dute ikusi dutena hauteman eta gogoratzea beste araurik, hots, behin edo gehiagotan antzeko efektuen aurretik horixe gertatu zela, nahiz aurreko eta ondoreneko gertaeren arteko elkarlotura edo konexiorik ez ikusi. Eta horrela, deduzitzen dute gauzak etorkizunean iraganean bezalatsu gertatuko direla, eta horrela, sineskeriaz, haien benetako kausa denarekin inolako zerikusirik ez duenetik espero dute zorte ona edo txarra. Atenastarrek Lepantoko gerrarako beste Formio bat eskatzen zutenean egiten zutena da, edo ponpeiarrek Afrikako gerrarako beste Eszipion bat eskatuz egiten zutena. Eta beste batzuek ere horrelakoxe gauzak egin izan dituzte gero behin baino gehiagotan. Era berdintsuan, badira batzuk beren zortea pertsona baten presentziari, edo zorte ona edo txarra omen dakarkien leku bati edo ahoskatzen diren zenbait berbari, bereziki euren artean Jainkoaren izena badago, egozten dietenak; berbok sorginketak eta konjuruak (sorginen liturgia) dira, jendearengan harria ogi, ogia gizon, edo zernahi beste edozein gauza bihurtzeko gai direla sinesterainoko eragina dutenak.

Hirugarrenik, gizakumeek botere ikustezinei naturalki eskaintzen dien gurtzari dagokionez, ezin da hau gizakumei egiten dieten begirune-adierazpenen ezberdina izan: opariak, eskariak, eskerrona, kilimusiak gorpuzaz, adeitasun-erakutsiak, portaera neurtua, ondo pentsaturiko hitzak, zin egiteak (hots, egindako agintzariak elkarri segurtatzea). Hemendik gora arrazoimenak ez du ezer iradokitzen eta gizakumeak honekin konforme geratzea nahi du, edo hemendik gorako zeremonietarako eurak baino jakintsuagotzat dituztenez fidatzea.

Azkenez, izaki ikustezin hauek etorkizunean gertatuko diren gauzak, bereziki gizakumeek jeneralean izango duten zorte on edo txarra edo eskuartean darabilen arazo konkretu baten arrakasta edo porrota adierazteko duten erari dagokienez, gizakumeek ezin dute hau naturalki erabaki. Eta etorkizunarekiko aieruak iraganean gertaturikoan oinarrituz bakarrik egin ditzaketenez, erraz gerta dakieke, bizpahiru esperientziaren ondoren, ordutik aurrera gertatuko diren gertaeren pronostikotzat kasual hutsak izandako gertaerak hartzea ezezik, beraiek behinola ontzat edukitako pertsonen pronostikoak sinestera aihar izatea ere.

Eta lau gauza hauetan -mamuetan sinestea, bigarren kausak ez ezagutzea, gizakumeak beldurtzen dituenari debozioa, eta gauza kasualak pronostikotzat hartzea- datza erlijioaren hazi naturala. Gizon bakoitzak dituen fantasia, iritzi eta grina ezberdinak medio hain zeremonia ezberdinak sortu izan ditu erlijioak, non gizon batek egiten dituenek, gehienbatez barregarriak baiteritze beste batek.

Haziok mota bitako gizakumeek erein eta landu baitituzte. Mota batekoek beren asmamenaren arabera elikatu eta ordenatu dituzte. Bestekoek Jainkoak agindu eta zuzenduta egin dute hori; baina mota biotakoek berengan fidantza zutenak obedientzia, lege, bake, karitate eta gizarte zibilerako gaiago egiteko asmoz egin dute hori. Horrela, lehenengo motakoen erlijioa giza politikaren zati da eta lur honetako erregeek beren menekoei exigitzen dieten betebeharrak batzuk irakasten ditu. Eta bigarren motakoen

erlijioa politika jainkotiarra da, eta Jainkoaren Erresumako meneko egin direnentzako aginduak dauzka. Lehenengo motakoak Estatu fundatzaile guztiak izan ziren, eta jentilen legeak eman zituztenak ere bai; bigarrenekoak, Abraham, Moises eta gure Salbatzaile Benedikatua, zeintzuen bitartez heldu zaizkigun Jainkoaren erresumako legeak.

Eta botere ikustezinen izaerari buruzko iritzietan datzan erlijioaren zati horri buruz, ezin aipa daiteke jentilek, leku batean edo bestean, jainkotzat edo deabruzat hartua izan ez den ezer; edo beraien poetek izpiritu batek edo bestek bizitu, habitatu edo poseditutzat iruditu ez duten ezer.

Munduko materia formagabea Kaos deitzen zioten Jainkoa izan zen haientzat.

Zeruak, ozeanoak, planetak, sua, lurra eta haizeak ere jainkoak izan ziren.

Gizona, andrea, txoria, krokodiloa, behia, txakurra, sugea, tipula, porrua, jainkotu egin zituzten. Honez gain, jentilek ia leku guztiak bete zituzten deabru deritzen izpirituz: lautadak Panez eta Satiroz; mendiak Faunoz eta Ninfaz; ibai eta iturri bakoitza izena zemaletan izpiritu batez eta Ninfaz; etxe bakoitza bere Lares edo famili jainkoez; gizakume bakoitza bere Geniusaz; ifernua izpirituz eta Caronte, Cerbero eta Furiak bezalako funtzionariz. Eta gauze leku guztiak zeuden larvae eta lemures edo hildakoen izpirituz eta maitagarri eta mamuen erresuma oso batez beterik. Jainkotasuna eratziki eta elizak eraiki zieten akzidente eta koalitate hutsei ere, hala nola denborari, gauari, egunari, bakeari, konkordiari, amodioari, borrokari, bertuteari, ohoreari, osasunari, gaixotasunari, sukarrari eta antzekoei. Eta zerbait lortu edo kentzeko otoi egiten zutenean, izen hauetako bakoitzaren izpirituak euren buruen gainean zintzilik, otoitzen bidez eskuratu edo ekidin nahi zuten gauza ona edo txarrari jausten uzten edo eusten zien izpirituak balira bezala egiten zieten otoitz. Beren jeinua ere gurtzen zuten, Musak izena emanez; beren jakineza, Fortuna izena emanez; beren haragikeria, Cupidus izenez; beren errasumina, Furiak izenez; beren gorputz atal pribatuak, Priapus izenez, eta beren poluzioak Inkubu eta Sukubuei egozten zieten. Halako moldez, non edozein poetak bere olerkietan pertsonifikatu ahal zuen edozer, jentilek jainko edo deabru bihurtzen baitzuten.

Jentilen erlijioaren autoreak eurak, erlijioaren bigarren oinarria ikusita, hots, gizakumeek kausekiko duten jakineza, eta beraz, beren zortea honekin zerikusirik ez duten kausei eratzikitze joera, honetaz baliatu ziren haren ezjakinean, bigarren kausen orde, bigarren mailako jainko ministerialak sartzeko; eta horrela Venusi eratziki zioten ugaltzearen kausa; Apolori, arteen kausa; sotiltasun eta antzearena, Merkuriari; ekaitz eta trumoiarena, Eolori; eta beste efektu batzuen, beste jainko batzuei, halako moldez, non jentilen artean ia gai ezberdin adina jainko baitzegoen.

Eta gizakumeek beren jainkoak adoratzeko egoki aurkitzen dituzten ekintzei, hau da, opari, otoitz, eskerrak emate eta lehen aipatutako guztiei, jentilen legegileek jainkoen irudiak, pinturaz edo eskulturaz eginak, gehitu zizkieten; eta hau egin zuten ezjakinenek (hau da, jende gehienak edo herriak eskuarki), uste izanik jainkoak benetan zeudela eurak irudikatze egindako irudietan eta, nolabait esateko, irudiotan bizitzen, beldur handiagoa izan ziezaiten. Eta horrela beren jainkoei lursailak, etxeak, ofizialak eta sarrera publikoak emakidatu zizkieten eta giza erabilera orotik aparte jarri; hau da, beren idoloentzat sagaratu eta santu bihurtu zituzten haizuloak, soroak, basoak, mendiak eta isla osoak; eta gizakumeen, animalien eta munstroen formak ezezik, gizakumeen eta animalien ahalmenak ere eratziki zizkieten: zentzuak, mintzamina, sexua, haragizko desira, ugaltze (eta hau ez jainkoartean bakarrik, jainkoen espeziea ugaltzeko, baizik gizon eta emakumeekin ere bai jainko mestizuak, zeruan maizter besterik ez direnak, sortzeko, hala nola Bacchus, Herkules, eta beste batzuk). Honez gain, haserre, mendekua eta bizidun kreaturen beste grina batzuk eta eurotatik datozen egintzak eratziki zizkieten, hala nola iruzurra, lapurreta, adulterioa, sodomia eta boterearen ondorioztat edo atsegin-iturritzat har daitekeen bizio oro, eta halaber gizakumeen artean ohorearen kontrako baino legearen kontrakotzat dauden bizio guztiak.

Azkenez, etorkizunari buruzko pronostikoei, zeintzuk, naturalki, iraganeko esperientzia oinarritutako aieruak besterik ez diren eta, supernaturalki, jainko-errebeldio diren, jentilen erlijioeko autoreek berek, aldeztu ustezko esperientzia eta aldeztu ustezko errebeldioan euskarrituz, kontatu ezin ahala igarpen modu gehitu zieten; eta batzuetan gizakumeei sinestarazi zien Delfos, Delos eta Ammonen sazerdoteen eta beste orakulu ospetsuen erantzun ambiguo edo zentzugabeetan jakin ahalko zutela zer moduko zortea izango zuten; apropos ambiguo egindako erantzunak ziren gertakizunera edozein kasutan egokitu ahal izateko, edo absurduak, leku horietako koba sulfurosoetan izan ohi diren lurrin intoxikatzaileen eraginez. Beste batzuetan Sibilen orrietan ere igarri uste zuten beren zortea, euren profeziez hornituta (agian Nostradamusenez ere, zeren gaur dauden zatiak geroagoko aldiak asmakizunak baitirudite), Erromatar Errepublikako garaian itzala zuten liburuak baitzeuden. Beste batzuetan, Jainko Izpirituak poseditutzat zeuden gizon zoroen hitzaldi zentzugabeetan, poseditze hau izendatzeko entusiasmo hitza erabiltzen zutelarik, eta gertakizunen iragarpenok teomantzia edo profeziatzat jotzen zituzten. Batzuetan gizakume baten etorkizuna honen jaiotegunean izarrek zuten kokaeran ikusten zen; honi horoskopia zeritzan eta astrologia judizialaren zatitzat zeukaten. Beste batzuetan norberaren esperantza eta beldurretan, honi Tumomantzia edo zantzua zeritzalarik. Beste batzuetan sorginen iragarpenetan, zeintzuek hilekin hitz egiten omen zuten, honi Nekromantzia, konjurua edo sorginkeria esaten zitzaion, izatez tunanteria

amarrutsuen bilduma baino ez bazen ere. Beste batzuetan augurium esaten zioten txorien hegakera eta jakera kasualean. Beste batzuetan, sakrifikaturiko animalien erraietan, eta hau aurispizetza zen. Batzuetan, ametsetan. Baita erroien garrasietan ere. Batzuetan, aurpegiko ildoetan, honi Metoposkopia deitzen ziotelarik, edo ahurreko ildoetan, kiromantziaren bidez. Edo omina zeritzaten hitz kasualetan. Batzuetan, munstro edo ezohiko akzidenteetan, hala nola eklipse, kometa, meteoro bitxi, lurrikara, uholde, sortze estrainio eta horrelakoetan, zeintzuei portenta eta ostenta deitzen zieten, etortzearen baten iragarpen edo zantzu zirela uste baitzuten. Batzuetan, azareko jolas hutsetan, hala nola aurpegia ala alderantzia jolasean, bahe baten zuloak kontatzen, Homero eta Virgilioren bertsoak begiratu barik aukeratzen eta beste horrelako mila funsgabeko asmakeriatan. Horrelaxe dira aiher gizakumeak euren sinespidea lortu dutenengandik datorren edozer sinestera, eta hauek, modu bigunez eta trebeziaz, gai dira haien beldur eta ezjakintasunari iraunarazteko.

Eta, horregatik, jentilen artean Estatuen lehen fundatzaile eta legeegileek, helburu bakar herria esangin eta bakez mantentzea baitzuten, kontu handia izan zuten alde guztietan, lehenengo eta behin, erlijioari buruz eurek emandako aginduak ez zirela eurek asmatuak, baizik Jainkoren batek, edo beste Izpirituren batek diktatuak, haien buruetan sarrerazteko; edo bestela, eurak beste hilkor hutsen mailaz goitikoak zirela sinestarazteko, era honetan euren legeak errazago onar zitzen. Horrela Numa Ponpiliok erromatarren artean ezarri zituen zeremoniak Egeria ninfarengandik hartutzat aurkeztu zituen; eta Peruko erresumako lehen errege eta fundatzailea, bera eta bere emaztea Eguzkiaren seme-alabak zirela-eta aurkeztu zen, eta Mahoma, bere erlijio berria ezartzeko, uso itxuran agertu omen zitzaion Izpiritu Santuak hitz egin ziola-eta. Bigarrenik, kontu handiz ibili ziren eurek debekaturiko guztiak jainkoek gogoko ez zituztela sinestarazteko. Hirugarrenik, zeremoniak, erreguak, sakrifizioak eta ospakizunak agindu zituzten sinets zezaten ezen berauen bidez jainko suminkorrak otzantzen zirela, eta Gerrako porrotak, gaixotasun kutsagarri handiak, lurrikarak eta gizakume bakoitzaren ezbehar pertsonalak jainkoen haserreak eragindakoak zirela, eta haserre hau gizakumeek haiek adoratzeko eginbeharra ez betetzetik, edo ahanztetik, edo agindutako zeremonietako punturen batean huts egitetik etorria zela. Eta antzinako erromatarren artean, poetek hemengo bizitzaz geroztiko atsekabe-atseginaz idatzitakoa ukatzea debekatzen ez bazitzairen ere, autoritate eta itzal handiko zenbaitek beren arengetan ageriki ukatu ere ukatu zutelarik, sineste hau kontrakoa baino onartuagoa izan zen beti.

Eta erakunde hauen eta antzekoen bidez erdietsi zuten beren helburua (Estatuko bakea) erdiesteko, jende xehea bere ezbeharretan agintarien kontra mutinatzeke ezgaiago izatea, ezbeharrok euren hutsegite edo utzikeriari, edo zeremonietan egindako akatsen bati, edo legeak ez betetzeari egotziz.

Eta jainkoen ohoretan ospatzen ziren jaialdi eta joko publikoak entretenigarritzat ematen zitzaizkienez, ogia ematea bakarrik behar zen jendea deskonforme eta gaizkiesaka ibil zedin eta Estatuaren kontra matxina zedin ekiditeko. Eta, beraz, ezaguna zen munduaren zatirik handiena konkistatua zuten erromatarrek ez zuten inolako eragozpenik izan edozein erlijio jasateko Erroma hirian bertan ere, beren gobernamentu zibilarekin uztarrezinezko zerbaite eduki ezean. Eta irakurri ere ez dugu egin erlijiorik debekatu zutenik, juduena salbu, juduek, Jainkoaren Erresuma izaki, edozein errege hilkorri edo Estatuari menpekotasuna aitortzea legez kanpoko zela pentsatzen baitzuten. Eta horrela ikusten dugu jentilen artean erlijioa politikaren zati zela.

Baina Jainkoak berak errebelazio supernaturalez erlijioa ezarri duen lekuetan, Erresuma berezia ere egin du beretzat; eta legeak eman ditu, bereganako portaera ezezik elkarrenganakoa ere erregulatzeko, eta, horregatik, Jainkoaren erresuman politika eta lege zibilak erlijioaren zati dira; eta, beraz, domeinu mundutar eta izpiritualaren arteko bereizpenak ez du lekurik. Egia da Jainkoa lurbira guztiko errege dena, baina, hala ere, nazio berezi hautatu bateko errege ere izan daiteke. Zeren honetan, armada guztiaren buru den jeneral batek berea duen erregimentu edo konpainia bat edukitzeak izan lezakeen desegokitasuna besterik ez baitago. Jainkoa bere ahalez lur guztiko errege da, baina itunez bere herri hautatuaren errege da. Baina Jainkoaren erresumari buruz, hala naturalari nola itunezkoari buruz, zabalkiago hitz egiteko beste leku bat utzi dut ondoreneko diskurtsoan.

Erljioaren zabalkundea aztertzen hasita, ez da zail ulertzen zergatik ebazten den haren lehen hazi edo printzipioetan, zeintzuek jainkoren baten eta botere ikustezin eta supernaturalen ideia bat diren eta ezingo dira sekula ezabatu giza izatetik. Aitzitik, eurotatik erlijio berriak sortuko dira, horretarako itzala duten gizakumeek printzipiook landuko dituztelako.

Ikusirik eratua dagoen erlijio oro hasieran jendetzak pertsona batengan jarritako sinesmenaren gainean oinarritzen dela, hura jakintsu eta jendearen zorionaren alde lan egiten duen pertsonatzat ezezik, Jainkoak supernaturalki bere nahia agertu gura izan dion gizon santutzat ere hartuz, hemendik nahitaez ondorioztatzen da ezen, erlijioaren aginpidea dutenek beraien mailako gizakumeengandik espero izaten den jakinduria, egiazkotasun edo maitasunik ez daukatela susmatzen denean, edo jainko-errebelazioaren frogagarrikerik erakutsi ezin dutenean, beraiek sostengatzen duten erlijioa ere susmopean jarri behar dela eta (ezpata zibilaren beldurrik gabe) aurkatua eta arbuatua izan behar duela.

Erljio bat eratu, edo eratua egonik handiagotu duenaren jakinduri ospea suntsitzen duen elementu bat, kontraesanak dauzkan sinesmena ezartzea da. Zeren kontraesan baten parte biak ezin baitira egiazkoak izan, eta, beraz, biak sinetsi beharra ezartzea ezjakintasunaren froga baita, hau egin duena sinesgarritasunik gabe uzten duena adierazten eta errebelazio supernaturaletik etorritakotzat proposatzen dituen gainerako gauza guztietan. Zeren, gizakume batek gauza askori buruzko errebelazioak jaso ditzake, baina sekula ere ez arrazoimen naturalaren aurka doanik.

Egizaletasun ospea kentzen duena, besteei sinesteko agintzen diena eurek sinesten ez dutela ematen duten gauzak egitea edo esatea da; horregatik egiten edo esaten diren gauza horiek eskandalagarriak direla esaten da, gizakumeak erlijioaren bidean jausarazteko behaztopa-harriak direlako, hala nola, injustizia, ankerkeria, profanazioa, zikoizkeria eta lizunkeria. Zeren nork sinets dezake, sustrai horietako batetik datozen egintzak gauzatzen eta hutsegite askoz txikiagoak egiteagatik besteak beldurrazten ohi dituenak, beldurra izan behar diogun botere ikustezin batengan sinesten duenik?

Maitasun ospea kentzen diena, beren interesen atzetik dabiltzala ikustea da; hori gertatzen da, besteei eskatzen diren sinesmenak eurentzako, bakarrik edo batez ere, domeinua, aberastasuna, atsegin segurua eskuratzerako daramatzanean edo daramatzala ematen duenean. Zeren norbere onerako egindakoa, norbere onerako eta ez inoren maitasunagatik egintzat jo behar da.

Azkenez, Jainkoaren deia jaso dutela frogatzeko gizakumeek eskain dezaketen testigantza, mirakuluak edo benetako profezia (hau ere mirakulua baita) egitea edo ezohiko zoriontasuna sortzea da. Eta, horregatik, mirakuluak egindakoengandik hartutako puntuei antzeko mirakuluren bat eginez Jainkoaren deiaren frogarik eman ez dutenek gehitzen dizkieten zatiak, jendea hezia den tokiko usadio eta legeek ezarria dutena beste sinespiderik ez dute jasotzen. Zeren, gauza naturaletan iritxidun gizakumeek seinale naturalak eta frogak behar dituzten bezala, halaxe gauza supernaturaletan ere seinale supernaturalak (mirakuluak) eskatzen dituzte, doktrinak barrutik eta bihotzez onartu baino lehen.

Gizakumeen fedea ahultzearen kausa guztiok argiro agertzen dira honako eredu hauetan guztietan. Lehenik, israeldarren eredia daukagu: mirakuluen bidez eta Egiptotik ateraz bera Jainkoak deitua zela frogatu zien Moises 40 egunez, besterik ez, eurengeandik aldendu zenean, israeldarrek albo batera utzi zuten hark gomendaturiko benetako Jainkoaren jaurespena; eta beren Jainkotzat urrezko zekor bat jarritz (Ir. 32, 1-2), egiptoarregandik askatu berri zirenak beraien idolatriara jausi ziren berriz. Eta berriro ere, Moises, Aaron, Josue eta Jainkoak Israelen buruturiko egintza handiak ikusi zituen belaualdi hura (Epaileak 2, 11) hil zenean, beste belaualdi bat etorri zen, eta Baal adoratu zuen. Mirakuluak falta izan zirenean, beraz, fedeak ere porrot egin zuen.

Berriro ere, Samuelen semeek (1 Sm. 8, 3), beren aita Bersebako epaile izendatu ondoren, azpierozeria onartu eta injustiziaz epaitu zutenean, Israel herriak errefusatu egin zuen Jainkoa euren errege beste herrien errege zen moduan barik bestela izatea; eta horregatik beste nazioek zeukaten moduko errege bat aukeratzeko eurentzat ere eskatu zioten Samueli. Justiziak porrot egitean, beraz, fedeak ere porrot egin zuen, beren Jainkoa beren errege izatetik kentzeraino porrot egin ere.

Eta ikusirik, kristau erlijioa ezarri zenean, Erromatar Inperioko alderdi guztietan orakuluak bukatu zirela, eta kristauak egunero eta leku guztietan harrigarriro ugaritu zirela apostolu eta ebanjelizatzaileen predikatuaren eraginez, arrakasta honen zati handi bat Jentilen Sazerdoteek beren zikinkeria, diruzaleatasun eta printzeen arteko amarruengatik irabazia zuten mesprezuari eratziki dakioke. Erromako Eliza ere alde horrexegatik izan zen abolitua Ingalaterran eta Kristandadeko beste alde askotan. Alde batetik, artzainen fedeak porrot egiteak herriaren fedearen porrota ekarri zuen; eta, honez gain, eskolastikoez Aristotelesen doktrinak sartu zituzten erlijiora. Honek hain kontraesan eta absurdu ugari sortu zuen, non klerigoek gizarteak ezjakin eta maula-intentzioduntzat edukitzea berenganatu zuten eta herria beren kontra errebelatzera eramane zuten, behin dela euren Printzeen nahiaren kontra, Frantzia eta Holandan bezala, edo haien nahia alde zutela, Ingalaterran bezala.

Azkenez, Erromako elizak salbamenerako beharrezkotzat deklaratu zituen puntuen artean, hain ziren asko Aita Santuaren eta Printze kristau batzuen lurraldeetan bizi ziren haren meneko izpiritualen aldeko zirenak, non, printzeen artean sortu zen norgehiagokarengatik izan ez balitz, gerrarik eta zailtasunik gabe atzerritar aginpide oro kendu ahal izango zuten beren erresumetatik, Ingalaterran kendu zuten bezala. Zeren, nor ez da konturatzen nork ateratzen duen etekina sinestaraziz ezen errege batek ez duela Kristorengandiko aginpiderik, apezpikuak koroatua izan ezean? Erregea, apaiza bada, ezin dela ezkondu? Erregea, legezko ezkontzatik jaioa izan edo ez, Erromako aginteak epaitu behar duela? Menekoak beren erregearekiko obedientziatik aska daitezkeela, Erromako epaimahaiak erregea herresetzat epaitu badu? Frantziako Txilperiko bezalako errege bat Zakarias bezalako Aita Santu batek erregetzatik ken dezakeela arrazoirik gabe eta haren erresuma bere menpekoetako bati eman? Klerigoak eta Erregularrak edozein herrialdetan kasu kriminaletan beren erregearen jurisdikziotik salbuetsita egon daitezkeela? Edo nork ez du ikusten noren mesedetan diren Meza pribatuak eta purgatorioko bulden ordainsariak; hauek eta beste interes pribatuaren seinale batzuk nahiko lirateke federik gartsuena horzkatzeko, magistratura zibilak eta usadioak, esan dudan bezala, fededunek euren irakasleen santutasun, jakinduria eta ondradutasunean

дутен fedeak baino askoz euskarri indartsuagoa eskainiko ez balie. Horrela, erlijioak munduan izan dituen aldaketa guztiak kausa bakar eta berari egozten dizkiot, hots, klerigo onartezinei, eta ez bakarrik Katolikoei, erreformaz harroen dagoen Eliza horretakoei ere baizik.

### XIII

Gizateriaren izaera naturala haren zorion eta miseriari dagokionez

Naturak hain berdinak egin ditu gizakumeak euren gorputz eta arimako ahalmenetan, non, zenbaitetan gorputzez besteak baino nabarmenki sendoagoak edo adimenez bizkorragoak diren gizakumeak aurkitzen badira ere, dena oro har kontuan hartzen dugunean, gizakumearengandik gizakumearengana dagoen aldeaz ez da, izan, gizakume batek beretzat beste batek hark bezainbatean galdatu ezin duen onuraren bat galdatu ahal izaterainokoa. Zeren, gorputz indarrari dagokionez, ahulenak indartsuena hiltzeko adinako indarra baitauka, dela pentsu sekretuen bidez, dela arrisku berean berarekin daudenekin bat eginez.

Eta buru-ahalmenei dagokienez, hitzetan oinarritzen diren arteak eta, bereziki, arau orokor eta hutsezinez aritzeko artea, zientzia deitzen dioguna, alde batera utzita -hau oso gutxi baizik ez baitute eta arlo gutxitan gainera, ez delako gurekin batera jaiotzen den sortzetiko ahalmena, ezta geureganatua ere (zuhurtasuna bezala), beste zerbaitek baizik-, uste dut berdintasun handiagoa dagoela gizakumeen artean indar kontuan baino. Zeren zuhurtasuna esperientzia besterik ez da, gizakumeei gradu berdinean ematen zaiena denbora-tarte berean bizi eta berdinki saiatzen diren gauzetan. Berdintasun hori sinesgaitz bihurtzen duena, agian, gizakumeek beren jakinduriari buruz izaten duten buruiritzia izan daiteke, ia gizakume guztiek beren jakinduria jende arruntarena baino askoz handiagoa dela uste izaten baitute, hau da, gizakume guztiena baino handiagoa, eurak eta beste gutxi batzuk kenduta, hauek duten ospeagatik edo eurekin bat datozelako onartzen dituztelarik. Zeren giza natura hain da ezipal kaxkarrekoa, non beste batzuk norbera baino argiagoak edo hitzun hobeak edo ikasiagoak direla aitortu arren, nekez uste izango du asko direnik norbera baino jakitunago direnak, zeren bere talentua hurbiletik ikusten baitu eta besteena urrunetik. Baina honek gizakumeak puntu honetan ezberdinak baino berdinak direla gehiago frogatzen du. Zeren normalean ez dago gauza bat berdintasunez banaturik dagoen seinale argiagorik, gizakume bakoitza egokitu zaionarekin konforme egotea baino.

Gaitasunean dugun berdintasun honetatik geure helburuak eskuratzeko esperantza-berdintasuna sortzen da. Eta, horregatik, gizakume biek biek gozatu ezin duten gauza bera nahi badute, elkarren etsai bihurtzen dira; eta beren helbururako bidean (zeina batez ere beren biziraupena, eta batzuetan beren atsegina izaten baita) elkar suntsitzen edo menperatzen ahalegintzen dira. Hemendixe dator inbasore batek gizakume baten botere soilari baino ez diola beldur; batek landatu, erein, eraikitzen badu edo leku egoki bat badauka, espero daitekeena da beste batzuk beren indarrak batuta etortzea, lanaren fruitua ezezik, bizia eta askatasuna ere hari kentzeko. Eta inbasorea ere besteak izan duen arrisku berean jartzen da berriro.

Eta gizakumeek elkarri eragiten dien deskonfidantzatik babesteko modurik arrazoizkoena aurrezaintza da, hau da, indarrez edo amarruz ahalik gizakumerik gehien kontrolperatzea, norbere boterea arriskutan jartzeko adina indar duen inor ere ez ikustea lortzeraino. Eta hau norberaren biziraupenak eskatzen duena baino ez da eta eskuarki onartua da. Halaber, badirenez batzuk konkista-ekintzetan berek duten boterea kontenplatzen atsegin hartzen dutenak, segurtasunerako behar dutena baino aurrerago jotzen dutelarik honetan, beren muga apalen barruan eroso biziak pozik egongo liratekeen beste batzuek ezingo lukete luzaroan biziraun euren buruak defendatzeko jokabide hutsez, beren ahala inbasioaren bidez gehitu ezean. Eta honen ondorioz, domeinu gehitze hau beharrezko denez gizakumearen biziraupenerako, honek ere zilegi izan beharko luke.

Honez gain, gizakumeek ez dute plazerrik aurkitzen (sufrimendu handia baizik) beste batzuekin elkarbizitzean denak beldurtzeko gauza datekeen botererik ez dagoenean. Zeren gizabanako bakoitzak berak bere burua bezainbatean besteek handiestea nahi du; eta ezespen edo gutxiespen seinalerik barruntatuz gero, berez saiatzen da, ausartzen den neurriraino (eta geldi edukiko dituen botere komun bat ez dutenen artean elkar suntsitzera irits daiteke saiakera), mesprezatzen dutenei kalte egiten bera handiets dezaten eta beste guztiei erodia emateko.

Giza naturan, beraz, hiru gatazka-iturri nagusi aurkitzen ditugu. Lehena, norgehiagoka da, bigarrena mesfidantza eta hirugarrena gloria.

Lehenengoak inbasiora darama gizakumea etekina eskuratzeko; bigarrenak, segurtasuna lortzeko; eta hirugarrenak, ospea norbereganatzeko. Lehenengoak indarkeria darabil, gizakumeak beste gizakume batzuen, euren emazte, seme-alaba eta hazienden jabe egin daitezten. Bigarrenak, hauek defendatzeko; hirugarrenak, irain txikiak kitatzeko, hala nola hitz bat, irri bat, besteritzi bat, edo edozein gutxiespen seinale euren buruaren, edo zeharka euren senideen, lagunen, nazioaren, profesioaren edo ospearen aurka. Hemendik argi geratzen da ezen gizakumeak, denak beldurtuta edukiko dituen botere komunik gabe bizi diren bitartean, gerra deritzon egoeran aurkitzen direla, gizakume orok gizakume ororen aurka dagien gerra izanik. Zeren GERRA ez baitatza batailetan edo borrokatzearen egintzan soilik, batailari ekiteko borondatea aski nabaria den denbora-tartean ere baizik; eta horregatik denboraren nozioa Gerraren naturan sartu beharra dago, eguraldiaren naturan bezalaxe. Zeren, nola eguraldi txarraren natura ez datzan

euri zaparrada bat edo bitan, hauek egun batzuetan irauteko joeran baizik, halaxe gerraren natura ere ez datza gauzatzen den bataila batean, baizik kontrako jokabidea hartzeko segurtasunik ez dagoen denbora guztian batailatzeke gertu egotean. Bestelako aldi oro BAKE garaia da.

Beraz, gerra garaiari, zeinetan gizakume oro gizakume ororen etsai den, dagozkion ondorio guztiak, gizakumeak euren indarrak eta asmamenak damaietena beste segurtasunik gabe bizi diren aldiari ere badagozkio. Horrelako egoeran, lanak ez du lekurik, beronen fruitua inseguru ageri baita, eta, ondorioz, ez dago lur-lanketarik, ez nabigaziorik, ez itsasoz inporta daitekeen produkturik erabiltzerik; ez dago etxebizitzarik eraikitzerik, ezta indar handiaren laguntza behar duten objektuak mugitu eta garraiatzeko tresnarik egiterik ere; ez dago lur-gainazalaren ezagupenik, ez denboraren konputurik; ez dago arterik, ez letrarik, ez gizarterik; eta okerreana dena, etengabeko beldurra eta heriotza bortitzez etengabeko arriskua dago. Eta gizakumearen bizitza bakartia, pobrea, nazkagarria, abereen modukoa eta laburra da.

Gauzak ondo pisatu ez dituenak arraro deritzoke naturak gizakumeei horrela banandu eta elkar inbaditu eta suntsitzeko joera ezarri izanari; eta grinetan oinarrituz egindako arrazonamendu honez mesfidatuz, agian esperientziara joz berretsi nahi duke hau. Horrela bada, begira dezala bere jokabidea: bidaian doanean, armak daramatza aldean eta ongi lagunduta joaten ahalegintzen da; lotara doanean, ateak ixten ditu; eta bere etxean ere giltzaz ixten ditu kutzak; eta horrela jokatzeko du nahiz eta badakien legeak eta agente publiko armatuak daudela, egin dakizkion min eta zuzengabekeria guztiak menderatzeko gertu. Zein da gizakume honek bere hurkoez duen iritzia, zaldigainean armaturik doanean; edo hiritar lagunez, ateak ixten dituenen? Zein bere morroi eta seme-alabez duen iritzia, kutzak giltzaz ixten dituenen? Ez al da ari bere ekintzez gizateria salatzen neuk hitzez egiten dudana bezalaxe? Baina, ez ni ez hura ari gara jokabide honen bidez giza natura akusatzen. Desirak eta beste giza grinak ez dira berenez bekatu. Eta grina horietatik datozen egintzak ere ez dira bekatu, debekatzen dituen lege bat egon arte; eta legeak egin arte ezin dira ezagutu; eta legerik ezin da egin gizakumeei ados jarri eta egiteko ardura izango duena izendatu arte.

Pentsa liteke agian horrelako gerra-egoera gertatu den garairik sekula ez dela izan; eta nik uste dut mundu guztian jeneralean ez dela inoiz horrelakorik gertatu; baina leku askotan horrelaxe bizi dira gaur egun. Zeren, herri basatiek Amerikako leku askotan, familia txikietan dagoen gobernu kenduta, zeintzuen harmonia sexu-jaujin naturalaren menpe dagoen, ez baitaukate inolako gobernurik eta, lehen esan dudana bezala, abere antzera bizi dira gaur egun.

Edonola ere, hauteman daiteke nolako bizimodua izango litzatekeen beldur izateko botere komunik ez legokeen tokian, lehenago bakezko gobernamendu baten pean bizi izandakoek gerra zibileko egoera degeneratura erortzen direnean nolako biziera duten konturatuz.

Baina gizabanakoek bata besteen kontrako gerra-egoeran izandako garairik egon ez balitz ere, erregeak eta aginte subiranoa duten pertsonak garai guztietan daude, beren independentzia dela eta, elkarren etengabeko mesfidantza-egoeran, gladiadore-egoera eta jarreran, beren armak eta begiak elkarri apuntatzen jarrita, hau da, beren gotorleku, goarnizio eta kainoiak beren erresumetako mugetan ipinita, beren auzoak etengabe zelatatuz, gerra-jarreraz. Baina, bitarteko horiez beren menekoen ahalegina eta lana babesten dutenez, egoera honetatik ez dator gizabanakoen askatasunak lagun izan ohi duen miseria.

Gizakume orok gizakume ororen kontra dagien gerra honen ondorio da, baita ere, ezer ezin dela zuzengabea izan. Zuzen eta oker, justizia eta injustiziaren nozioek ez daukate lekurik. Botere komunik ez dagoen tokian, ez dago legerik; eta legerik ez dagoenean, ez dago injustiziarik. Indarra eta iruzurra dira gerrako bertute kardinal biak. Justizia eta injustizia ez dira ez gorputzaren ez adimenduaren ahalmenak. Hala balira, munduan bakarrik legokeen gizakumeak ere izango lituzke, zentzuak eta grinak dituen bezalaxe. Gizartean, ez bakardadean, dauden gizakumeei dagozkien tasunak dira. Horrelako egoeran ezta ere ez dago jabegorik ez domeinurik ez zurearen diferentea den ninerik, dena baita lehenbizi harrapatu ahal duenarena, eta eutsi ahal dion bitartean eutsi ahal dionarena. Eta honainokoa gizakumeak natura hutsez duen egoera kaxkarrari dagokiona da, nahiz eta hemendik ateratzeko ahalbidea ere badaukan, aldeztu grinetan eta aldeztu arrazoimenean datzana.

Gizakumea bakera bultzatzen duten grinak heriotzaren beldurra, eroso bizitzeko behar diren gauzak eskuratzeko desira eta lanaren bidez berauek erdiesteko esperantza dira. Eta arrazoimenak bake-arau komenigarriak iradokitzen ditu, eurotan oinarrituz gizakumeak akordiora irits daitezkeelarik. Arauoi Naturaren Legeak deritze, eta beraiez mintzatuko naiz zehazkiago hurrengo bi kapituluetan.

## XIV

Lehenengo eta bigarren lege naturalez, eta kontratuez

ZUZENBIDE NATURALA, idazleek komunzki Jus Naturale deitzen dutena, gizakume bakoitzak bere natura, hots, bere bizia zaintzeko, bere ahal erabiltzeko duen askatasuna da; eta, ondorioz, bere irizmen eta arrazoimenaren arabera helburu hau erdiesteko bitarteko egokientzat jotzen den edozer egitekoa.

ASKATASUNA, hitzaren esanahi propioaren arabera, kanpoko eragozpenik eza ulertzen da, gizakume bati berak nahi lukeena egiteko ahalmena kentzen dioten eragozpenak izaten direlarik maiz, baina

geratzen zaion ahala bere irizmen eta arrazoimenak agintzen diotenaren arabera erabiltzea galarazten ez diotenak.

LEGE NATURALA (Lex Naturalis) arrazoimenak aurkituriko agindu edo arau orokorra da, zeinaren indarrez gizakumeari debekatzen zaion bere biziarentzat suntsikorra den edo berau zaintzeko bitartekoak kentzen dizkion oro egitea edo berau zaintzeko biderik onentzat daukana ez egitea. Zeren gai honetaz ari direnek Jus eta Lex, ESKUBIDEA eta LEGEA, nahasi ohi duten arren, bereizi beharko lirateke, ESKUBIDEA egiteko edo egin barik geratzeko askatasuna delako, eta LEGEAK, oster, bat edo bestea egitera determinatu eta behartzen duelako; halako moldez, non legea eta eskubidea elkarretarik, obligazioa eta askatasuna bezalaxe bereizten baitira, ezin direlarik gai berarekiko bata eta bestea gertatu.

Eta gizakumearen egoera, aurreko kapituluan azalduta geratu den bezala, gizakume oro gizakume ororen kontrako gerra-egoerakoa denez, bakoitza gobernatzen duena bere arrazoia izanik, eta ez egonik ezer noizbait erabili ahal izango ez lukeena lagungarri bizia salbatzeko bere etsaien aurka, hemendik dator horrelako egoeran gizakume bakoitzak orotarako eskubidea duela, are besteen gorputzarekiko. Eta, horregatik, gizakume bakoitzaren eskubide honek iraun dezan bitartean, ez da ezein gizakumerentzat ere segurtasunik izango (jakitun eta indartsuena izanda ere), ezta Naturak normalean gizakumeei eskaintzen dien bizitzaldian bizitzeko bermerik ere. Eta, ondorioz, arrazoimenaren agindu edo arau orokorra da gizakume orok bakea bilatu behar duela hura erdiesteko esperantza dueino, eta lortu ezin duenean gerraren laguntza eta abantaila guztiak bila eta erabil ditzakeela. Erregela honen lehenbiziko zatiak lehenengo eta funtsezko lege naturala dauka bere barruan, hots, bakea bilatu eta iraunaraztea. Bigarren zatian zuzenbide natural guztia laburbiltzen da: geure buruak defendatzeko irispidean ditugun bitarteko guztiez.

Gizakumeei bakea lortzen saiatzeko agintzen dien naturaren lege funtsezko honetatik dator bigarren lege hau: gizakumeak prest eta gogotsu egon behar duela, besteak ere horrela daudenean, bakea eta norbere defentsa beharrezko uste duen punturaino lortzearren, gauza guztietarako eskubidea ez erabiltzeko. Eta, besteekiko askatasunari buruz, berak besteoi utziko liekeen bezainbat askatasunez konformatzea, hain zuzen, bera ere. Zeren gizakume bakoitzak gogoko duen guztia egiteko eskubideari eusten dion bitartean, gizakume guztiak gerra-egoeran egongo baitira. Baina besteek beren eskubideari uko egiten ez badiete hark bezala, ez dago arrazoirik hark ez inork hori egin dezan, zeren jokabide honek bakerako prest dagoen pertsona barik besteen harrapakin bihurtuko bailuke (eta honetara inor ez dago beharturik). Hau Ebanjelioko lege hark dioena da: besteek zuri egitea nahi duzuna, egiezu zeuk beraiei. Eta gizakumeen lege hark dioena: quod tibi fieri non vis, alteri ne feceris.

Gizakumea zerbaitearako duen eskubideaz ez baliatzea, beste bati berak eskubidea duen gauza bati onura ateratzea galarazteko askatasunik gabe geratzeko da. Zeren bere eskubideari uko dagionak ez baitio besteari lehen ez zeukan eskubiderik ematen, ez baitago ezer ere berez gizakumearen eskubideko ez denik; bere burua bestearen bidetik kendu besterik ez du egiten, besteak bere jatorrizko eskubideaz goza dezan, berarengandiko eragozpenik gabe, beste batzuegandiko eragozpenak izan daitezkeen arren. Horrela beste batek bere eskubideari uko egitean gizakumearen onerako gertatzen den efektua, jatorrizko eskubidea erabiltzeko oztopo egiten dizkieten eragozpenak gutxitu egiten zaizkiola besterik ez da.

Eskubidea, behin hari uko eginez edo behin beste bati transferituz utz daiteke. UKO egite hutsez, uztaileari nork jasoko duen eskubidearen onura axola ez dionean uzten da. TRANSFERITUZ, onura pertsona konkretu batek edo gehiagok jasotzea nahi denean. Eta gizakume batek bere eskubidea bi eratako batean utzi edo eman duenean, orduan esaten da BEHARTUTA dagoela berak eskubidea utzi edo emandako haiei eskubide horri onura ateratzen ez galaraztera; eta bere EGINBEHARRA duela berak nahita buruturiko egintza hori baliogabe ez uztea; eta eragozpenen bat jartzea, INJUSTIZIA eta ZUZENGABEKERIA dela, sine jure dagoelako, aurretik eskubideari uko egin edo transferitu duelako. Horrela, zuzengabekeria edo injustizia munduko eztabaidetan, eskolastikoen debateetan absurdua deitzen diotena bezalakoa da. Zeren absurdua norberak hasieran esandakoa kontraesateari esaten zaion moduan, halaxe munduan injustizia eta zuzengabekeria esaten zaio norberak hasieran nahita egindakoa gero nahita desegiteari. Gizakume batek bere eskubidea uzteko beste barik edo transferitzeko modua, deklarazio edo adierazpen bat da, eskubide hori benetan utzi edo transferitzen duela edo onartu dion beste bati utzi edo transferitu diola adierazten duen zeinu nahitako eta aski baten edo batzuen bidez. Eta zeinu hauek hitzak soilik edo egintzak soilik izan daitezke, edo (sarri jazotzen den moduan) biak, hitzak eta egintzak. Eta hauek gizakumeak lotu eta behartzen dituzten LOKARRIAK dira, indarra euren izaeratik barik (ezer ez baita hausterrazagorik gizakumearen hitza baino), hausteak ondorio txarren bat ekar lezakeen beldurretik datozkien lokarriak.

Gizakumeak bere eskubidea transferitu edo uzten duenean, berari ere beste eskubideren bat transferitzen zaiola kontuan izanda edo hortik onuraren bat etorriko zaiola espero duelako egiten du. Zeren nahitako egintza baita, eta gizakume ororen nahitako egintzak nork beretzat onuraren bat eskuratzea dute xede. Eta horregatik badira eskubide batzuk inork, ez hitzen bidez ez beste ezein zeinuz, utzi edo uko egintzat ulertu ezin ditzakeenak. Lehenik, gizakumeak ezin dio ukorik egin indarkeriaz bizitza kentzeko erasoka



datozkionei kontraeusteko eskubideari, zeren ezin baita ulertu jokabide honek berarentzako onik ekar lezakeenik. Gauza bera esan daiteke zauri, katea eta gartzelatzeari dagokienez, hauek pairatzetik onurarik ez baitator, eta beste bat zauritua eta gartzelatua izatea piratzetik ere ez; eta baita ere gizakumeak ezin duelako jakin, beste batzuk indarkeriaz datozkionean, hiltzeko asmoa dakarten ala ez. Azkenez, gizakumeak bere eskubideak utzi eta transferitzeko duen zioa eta xedea, bizitzan bere pertsonaren segurtasuna eta bizitzari ez nazkatzeko neurrian iraunarazteko bitartekoak lortzea besterik ez da. Gizakume batek, beraz, hitzen edo bestelako zeinuen bidez, ezetsi egiten duela badirudi ere zeinuon bidez nahi zuen xedea, ez da ulertu behar benetan hori esan nahi zuenik, edo benetan hori nahi zuenik, hitz edo egintza horiek nola interpretatuko ziren ez zekiela baizik.

Elkarri eskubidea transferitzea gizakumeek KONTRATUA deitzen diotena da.

Aldea dago, gauza baterako eskubidea transferitzearen eta gauza bera ematean datzan transferentzia edo entregaren artean. Gauza bat eskubidearen transferentziarekin batera eman daiteke, eskudiruzko salerosketan, edo ondasunen eta lurren elkartrukean bezala; eta handik aldi batera ere entrega daiteke.

Horrela, kontratatzaile batakerari kontratuan dagokion gauza entrega dezake, eta besteari bere partea geroagorako zehazturiko unean bete dezan utzi, bitartean berarengan fidantza izanez; eta orduan kontratuari, honi dagokionez, ITUNA edo HITZARMENA deritzo; edo gerta daiteke, baita ere, itundurikoa gero beteko dutela biek kontratatzea; horrelako kasuetan esaten da, besteen fidantza izanda gero betetzen duenak agindutakoa bete duela edo fidantzari eutsi diola, eta ez betetzeari (nahita izanez gero) fidantza haustea deitzen zaio.

Eskubidearen transferentzia elkarrekikoa ez denean, baizik aldeetako batek bestearen edo bere lagunen adiskidetasuna edo zerbitzua bereganatzeko esperantzaz, edo karitate edo eskuzabaltasun-ospea irabazteko ustez, edo norbere gogoia errukiaren penatik libratzeko, edo zeruan saria irabazteko transferitzen duenean, orduan ez dago kontraturik, OPARIA, ERREGALIA, DOHAINA baizik, hitzok gauza bera esan nahi dutelarik.

Kontratu-zeinuak espresuak ala inferituak izan daitezke. Espresuak, zer esan nahi den ulertuta esaten diren hitzak dira; eta hitzok orainaldiari edo lehenaldiari dagozkionak izaten dira, hala nola esaten dugunean, ematen dut, bermatzen dut, eman dut, bermatu dut, hau zurea izatea nahi dut; edo geroaldiari dagozkionak, hala nola esaten dugunean emango dut, bermatuko dut, geroaldiko hitzoi AGINTZARIA deritzolarik.

Inferituriko zeinuak batzuetan hitzen ondorioa dira, beste batzuetan ixiltasunaren ondorioa, beste batzuetan egintzen ondorioa, eta zenbaitetan zerbait ez egitearen ondorioa. Eta, jeneralean, zeinu inferitua, kontratueta, kontratatzailearen nahia adierazteko lain den zernahi da.

Hitzak bakarrik geroarekikoak eta agintzari hutsa adierazten dutenak badira, ez dira erregali-zeinurik aski eta, beraz, behartzen ez dutenak dira. Zeren geroaldiko une bati dagozkionak badira, hala nola Bihar emango dut esaten dugunean, hitz horiek oraindik ez dudala eman esan nahi dute, eta, beraz, neure eskubidea ez dudala transferitu, baizik niregan dirauela harik eta nik beste egintzaren baten bidez transferitu arte. Baina hitzak orainaldi edo iraganaldiarekikoak badira, hala nola, eman dut, edo oraintxe ematen dut bihar entregatzeko, oraintxe ematen dut nire biharko eskubidea, eta hau hitzen indarrez gertatzen da, nire nahia agerian jartzen duen beste argudiorik ez egon arren. Eta alde handia dago honako hitz hauen artean, Volo hoc tuum esse cras eta Cras dabo, esan nahi baita, Hau bihar zure izatea nahi dut eta Bihar emango dizut-en artean; zeren, lehenengo esamoldean erabilitako nahi dut hitzak orainaldian egindako nahimen-egintza bat adierazten baitu, baina, bigarrenean, geroaldian burutuko den nahimen-egintza baten agintzaria; eta, beraz, lehenbiziko hitzek, orainaldikoak direnez, geroko eskubide bat transferitzen dute; bigarrenekoek, aldiz, geroaldikoak izaki, ez dute ezer transferitzen. Baina, hitzez gain, eskubide bat transferitu nahia adierazten duten beste zeinu batzuk ere badira, orduan, opari bat izanda ere, eskubidea transferitu dela uler daiteke, etorkizunari dagozkion hitzak erabili arren; horixe gertatzen da batek saria agintzen duenean lasterketa batean lehenengo iristen denarentzat, hots, oparia da; eta hitzak geroarekikoak izan arren, eskubidea transferiturik dago, zeren hitz egin duenak nahi izan ez balu bere hitzak horrela ulertzea, ez zituzkeen esan behar.

Kontratueta eskubidea batengandik bestearengana pasatzen da, ez bakarrik hitzak orainaldi edo lehenaldiarekikoak direnean, baizik etorkizunarekikoak direnean ere bai; zeren, kontratu oro elkartransferentzia edo eskubideen truke bat baita, eta, beraz, agintzen duenak agintzaria eginez lortu nahi zuen onura jaso duelako, bere eskubidea transferitzeko asmoa daukala ulertu behar da; zeren, bere hitzak horrela ulertzeaz konforme egon ez balitz, besteak ez zukeen lehenago bere parte batetako. Eta horregatik, erosketa, salmenta eta beste kontratu-egintza batzuei dagokienez, agintzaria hitzarmenaren baliokidea da, eta beraz, obligaziozkoa.

Kontratu kontuan bere parte lehenbizi betetzen duenak, besteak berea betetzen duenean jasoko duena MEREZI duela esaten da, eta zor zaion gauza moduan dauka. Halaber, sari bat askori agintzen zaionean irabazten duenari bakarrik ematekotan, edo jendetza bati dirua jaurtikitzen zaionean hartzen duenarentzat izan dadin, oparia dohainik egiten bada ere, horrela irabaztea edo horrela harrapatzea merezi izatea eta

ZOR zaion gauza moduan edukitzea da. Zeren eskubidea saria agintzen edo dirua jaurtikitzen den unean luzatzen da, nahiz eta nork jasoko duen lehiaketaren emaitza gertatzen denean erabaki. Baina merezimendu mota bion artean alde haxe dago, kontratuan neure ahalaren eta kontratatzailearen premiaren indarrez merezi dudala; dohainik emandako oparien kasuan, ostera, emailearen ontasunagatik bakarrik, naiz merezi izateko gai izan. Kontratuan, beste kontratatzailea bere eskubidea uzteko akordioan nirekin ados jarri delako merezi dut nik; baina oparien kasu honetan, nik ez dut merezi emaileak bere eskubidea uztea, baizik zera gertatzen da, hark uztea erabakitzen duenean, eskubidea nirea beste batzuen baino gehiago dela. Eta haxe dela uste dut Eskolek meritum congrui eta meritum condigni-ren artean egiten duten diferentziaren esanahia. Zeren Jainko ahalguztidunak paradisua agindu die, haragikeriazko desirak engainaturik dauden baina berak emandako agindu eta mugak betez mundu honetako ibilaldia egin ahal duten gizakumeei; eta eskolastikoei diote mundu honetatik horrela pasa ahal direnek, paradisua ex congruo mereziko dutela; baina, ezein gizakumek galdata ezin duenez bere zuzentasunez ez beste inolako bere ahalmenez paradisuan sartzeko eskubiderik, Jainkoaren graziaz baizik inork ezin du paradisurik ex condigno merezi. Haxe dela uste dut, esan bezala, bereizpen honen esanahia. Baina eztabaidatzaileek beren jardunean erabiltzen dituzten terminoen esanahiari buruz ados jartzen ez direnez gero beren interesetarako balio dienetik gora, ez dut ezer baieztatu euren esanahiari buruz. Haxe bakarrik diot, opari bat zehazgabeki ematen denean, ahaleginez erdietsi behar den sari gisa, borrokan irabazten duenak merezi duela sari hori eta zor zaion zerbait bezala galda dezakeela.

Akordioa egin orduan aldeetako batek ere betetzen ez duen hitzarmena egiten bada bata besteaz fidatuz, aipatu hitzarmena, natura hutseko egoeran (hots, gizon oro gizon ororen kontrako gerra-egoeran), arrazoizko susmorik izanez gero, baliogabea da. Baina Botere komun bat egonez gero betetzera behartzeko adina eskubide eta indar daukana, ez da baliogabea. Zeren, lehenbizi betetzen duenak ez du besteak gero beteko duen segurantzarik, hitzen lokarriak ahulegiak direlako gizakumeen handinahia, diruzaleasuna, sumina eta beste grinei eusteko, indar behartzaile baten beldurrik ez bada; eta hau ezin da suposatu natura hutseko egoeran, non gizakume guztiak berdinak eta beren beldurren zuzentasunaren epaile diren. Eta horregatik lehenbizi betetzen duenak etsaiari bere burua entregatu besterik ez du egiten, hau bere bizia eta bizitzeko bitartekoak defendatzeko eskubidearen (inoiz utzi ezin dezakeenaren) kontrakoa delarik.

Baina egoera zibilean, bestela beren fidantza hautsiko luketenak behartzeko boterea dagoenean, beldur hau ez da jada arrazoizko, eta, horregatik, hitzarmenaren arabera lehenbizi betetzeko eginbeharra duenak bete egin behar du.

Hitzarmena baliogabetzen duen bedurra, hitzarmena egin ondoren sortutako zerbaitek izan behar du beti, hala nola, egintza berriren bat edo bete nahi ez dela adierazten duen zeinuren bat; horrelakorik ez badago, hitzarmena ezin da baliogabetu. Zeren gizakume batek agintzaria egiteko eragozpen ez dena, ez bailitzateke ametitu behar ez betetzeko eragozpenzat.

Eskubideren bat transferitzen duenak beraz gozatzeko bitartekoak ere transferitzen ditu, bere ahalean dauden heinean. Horrela ulertzen da lursail bat saltzen duenak bazka eta bertan hazten duen guztia ere transferitzen duela; eta errota bat saltzen duenak ezin dezake bira eragiten dion errearen bidea aldatu. Eta gizakume bati gobernu subiranoa burutzeko eskubidea ematen diotenek, soldaduak mantentzeko zergak biltzeko eta justizia administratzeko magistratuak izendatzeko eskubidea ere ematen diotela ulertzen da.

Abere irrazionalekin hitzarmenak egitea ezinezko da, zeren, gure hizkuntza ulertzen ez dutenez, ez dute inolako eskubide transferentziarik ulertzen, ez onartzen; besteei eskubideak transferitzeko ere ez dira gauza; eta alde bietako onarpenik gabe ez dago hitzarmenik.

Jainkoarekin hitzarmenik egitea ezinezkoa da, Jainkoak, dela errebelazio supernaturalez dela bere menpean eta izenean gobernatzen duten loktenenteen bidez, hitz egiten dienen bitartekotasunez izan ezean. Bestela ez genekike guk Jainkoarekin egindako hitzarmenak onartuak diren ala ez. Eta, beraz, lege naturalaren kontrakoa den zerbait egiteko promesa egiten dutenak alferreko promesa egiten ari dira, horrelako promesa betetzea zuzengabea delako. Eta lege naturalak agintzen duen zerbait bada, ez da promesa, legea baizik, behartzen dituen.

Hitzarmenaren gaia edo muina deliberamenaren peko gauza da beti; (zeren hitzarmena nahimenaren egintza baita, hau da, deliberamenaren egintza eta azken egintza) eta, beraz, gero jazoko den zerbait da beti, eta egitea hitzartu duenak bete daitekeela deritzona.

Eta horregatik ezinezkoa dela dakiguna agintzea, ez da hitzarmena. Baina lehen posible ikusten zena gerora ezinezko gertatzen bada, hitzarmena baliozkoa da eta behartu egiten du, hitzartutakoa ez bada ere, haren baliokidea den zerbait betetzera. Eta hau ere ezinezko bada, ahalik gehien benetan betetzera, hau baino gehiagora inor ezin baita behartu.

Gizakumeak era bitara libratzen dira beren hitzarmenetatik: edo hitzartua beteta edo besteak barkatuta. Zeren betetzea obligazioaren bukaera naturala baita eta barkamena askatasuna itzultzea, obligazioaren muina zen eskubidea bihurtzea denez.

Beldurpean egiten diren hitzarmenek, natura hutseko egoeran, behartu egiten dute. Adibidez, nik bizia salbatzeko etsaiari erreskatea edo zerbitzu bat ordaintzea hitzartu badut, betetzera behartzen nau, batek bizia den ondasuna eta besteak dirua edo zerbitzua hartzen duen kontratua delako. Eta, ondorioz, betetzea debekatzen ez duen beste legerik ez dagoenean (natura hutseko egoeran bezala), hitzarmena baliokoa da. Gerrako presonerrak, beraz, erreskatea ordaintzekotan askatzen badira, ordaintzera beharturik daude. Eta printze ahulagoak indartsuagoarekin bake desabantailatsua egiten badu beldurrak eraginda, emandako hitzari eustera behartuta dago, beldur-iturri berri eta bidezko bat sortzen ez bada (lehen esan bezala) berriro gerran hasteko. Eta are egoera zibilean, lapur batengandik libratzeko dirua agindu badiot, ordaintzera beharturik nago, harik eta lege zibilak zamarindu arte. Zeren, legalki obligaziorik gabe egin dezakedana, legalki beldurrak eraginda egitea ere hitzar nezake; eta legalki egitea hitzartzen dudana, ezin dezaket legalki egin gabe utzi.

Aurreko hitzarmenak baliogabetu egiten du geroagoko hitzarmena. Zeren beste gizakume bati bere eskubidea gaur utzi dion gizakumeak ezin dio bihar beste bati utzi; horregatik, bigarren agintzariak ez du inolako eskubiderik transferitzen, baliogabea baita.

Indarretik neure burua indarrez ez defendatzeko hitzarmena, baliogabea da beti. Zeren (lehen agertu dudan moduan), inork ezin du transferitu heriotzatik, zaurietatik eta gertzelarazetik salbatzeko duen eskubidea (hauexek ekiditea da, hain zuzen ere, edozein eskubide uztearen xede), eta, beraz, indarrari ez erantzuteko agintzariak ez du inolako eskubiderik transferitzen ezin hitzarmenetan, eta ez du behartzen. Zeren, nahiz eta gizakume batek egin dezakeen hitzarmen hau, Hauxe eta hauxe egiten ez badut, hil nazazu, ezin du honako hau hitzartu: Hauxe eta hauxe egiten ez badut, ez dizut kontraetsiko hiltzera zatokidanean. Zeren gizakumeak, berez, gaitz txikiena aukeratzen du beti, kasu honetan hiltzeko arriskua erresistentzia kontrajartzean, handiagoa baino lehen, hots, heriotza segurua erresistentziarik ez kontrajartzean. Eta hau egiazkotzat dute gizakume guztiek, kriminalak urkaberak eta gartzelara jende armatuz inguraturik eramateak frogatzen duen moduan, nahiz eta kriminal horiek kondenatu dituen legearen pean egotea baietsi duten.

Norbere burua, barkamenaren segurantzarik gabe, akusatzeko hitzarmena ere baliogabea da. Zeren natura egoeran, non gizakume bakoitza epaile den, akusazioak ez du lekurik: eta egoera zibilean, akusazioaren ondoren zigorra etortzen da eta, hau indarrez exekutatzen denez gero, ez du behartzen gizakumea erresistitu gabe pairatzera. Gauza bera esan daiteke gizakume batek zenbait pertsonen kontra egindako akusazioaz, pertsona horien kondenazioak akusatzailea miseri egoeran jartzen duenean, norberaren aita, emazte edo ongilearen kontrako akusazioan, adibidez, gertatzen den moduan. Zeren horrelako akusatzailearen testigantza, libreki emana ez bada, berez ustela eta, beraz, onartu behar ez dena dela suposatu behar baita; eta gizakume baten testigantzak sinesgarritasunik ez duenean, ez dago testigantza ematera beharturik. Torturapeko akusazioak ere, era berean, ezin dira testigantzatzat jo. Zeren tortura, ondoreneko ikerketan egiaren bilaketarako aieruren bat, argiren bat lortzeko bide gisa bakarrik erabil baitaiteke; eta horrelako egoeran aitortzen dena, tortura jasotzen ari denaren egoera arintzeko da, eta horregatik ez luke behar adinako testigantza sinesgarritasunik eduki behar: zeren akusazio egiazko zein gezurrezko baten bidez bere burua libratzen duenak bere bizia salbatzeko eskubidea erabiliz egiten du.

Hitzen indarra ahulegia izanik, lehen aipatu dudan bezala, gizakumeak beren hitzarmenak betetzera behartzeko, gizakumeen naturan bi laguntza bakarrik daude berau sendotzeko. Eta hauek dira: edo hitza jatearen ondorioen beldurra, edo norberak hitza jateko premiarik gabe agertzeko gloria edo harrotasuna. Azken hau oso gutxitan aurkitzen da aberastasun, aginpide edo zentzu-plazerraren atzetik dabiltzaneren artean bereziki, gizateriaren zatirik handiena delarik horrelakoa. Kontuan gehien hartu behar den grina beldurra da, zeinaren eragile bi objektu orokor izan daitezkeen: bat, izpiritu ikustezinen boterea; bestea, min emango diguten beldur garen gizakumeen boterea. Biotarik, botere handiena bigarrena den arren, eskuarki lehenengoaren beldurra da beldurrik handiena. Lehenengoaren beldurra, gizakume bakoitzarengan, bere erlijioa da, zeinak Gizarte Zibilak baino lehenagoko tokia duen giza naturan. Bigarrenaren beldurrak ez dauka leku hori, edo behintzat ez du gizakumeei beren agintzariak betearazteko adina lekurik, zeren natura hutseko egoeran, botere ezberdintasuna ezin da bereizi, batailan izan ezik. Horrela bada, gizarte zibila agertu aurretik, edo berau gerrak eteten duenean, diruzalekeria, handinahia, haragikeria edo beste edozein desira indartsurako tentaldiaren aurrez aurre, ez dago adostasunez egindako bake hitzarmena indar dezakeen ezer, mundu guztiak Jainkotzat gurtzen duen eta norbere gaiztakeriaren mendekatzaile legez gizakumeak beldur dion botere ikustezin horren beldurra izan ezik. Beraz, botere zibilaren pean ez dauden gizakume biren artean egin daitezkeen gauza bakarra da, biek beldur dioten Jainkoaren izenean zin egitera elkar bultzatu. ZIN hori agintzari bati gehitzen zaion hizkuntz formula bat da, zeinaren bidez agintzen duenak aditzera ematen duen, agindutakoa bete ezean, bere Jainkoaren errukiari uko egiten diola, edo bere kontra mendekua erabil dezan hots egiten diola. Formula paganoa zera zen: Bestela Jupiterrek hil nazala neuk abere hau hiltzen dudan bezala. Gure formula da: Hauxe eta

hauxe egingo dut, Jainkoa lagun dudala. Eta hau, bakoitzak bere erlijioan erabiltzen dituen errito eta zeremoniak burutuz, fidantza hausteko beldurra handiagoa izan dadin.

Hemendik badirudi norberarena ez den errito edo formulaz zina hartzen denean, zin egindakoa alferrekoa dela, eta ez dagoela zinik; eta ezin daitekeela zin egin zin egileak Jainkotzat ez daukan ezeren izenean. Zeren, gizakumeek inoiz euren erregeen izenean zin egin izan duten arren beldurrez edo lausenguz, horrela jokatzuz jainko-ohorea zegokiela aditzera eman nahirik ari ziren. Eta beharrezko ez denean Jainkoaren izenean zin egitea, haren izena profanatzeari besterik ez da; eta beste gauza batzuen izenean zin egitea, gizakumeek hizketa arruntean egiten duten bezala, ez da zin egitea, erlijio gabeko ohitura bat baizik, hizketan beroegi jardutetik etorria.

Badirudi, baita ere, zinak ez diola ezer gehitzen obligazioari. Zeren hitzarmen batek, legezkoa bada, zinik gabe zein zinarekin, berdin behartzen du Jainkoaren begietarako; eta legez kontrakoa bada, ez du inola ere behartzen, zinez berretsia izanik ere.

## XV

Beste zenbait lege naturalez

Norberak atxikiz gero gizateriaren bakea galarazten duten eskubideak beste bati transferitzera behartzen gaituen lege natural horretatik dator hirugarrena: Gizakumeek egiten dituzten hitzarmenak bete egin behar dituztela; lege hau gabe hitzarmenak alferrik egiten dira eta hitz hutsak baino ez dira; eta gizon guztiek gauza guztietarako eskubidea izanez gero, gerra-egoeran aurkitzen gara oraindik.

Eta lege natural honetantxe datza JUSTIZIAREN iturria eta jatorria. Zeren aurretik hitzarmenik egon ez denean, ez da eskubiderik transferitu eta gizon bakoitzak gauza orotarako eskubidea du, eta, ondorioz, egindako ezer ere ezin daiteke injustua izan. Baina hitzarmen bat egiten denean, berau haustea injustua da. Eta INJUSTIZIAREN definizioa hitzarmena ez betetzea besterik ez da. Eta injustua ez den oro, justua da.

Baina elkarfidantzako hitzarmenak, aldeetako batek beteko ez ote duen beldurra dagoenean baliogabeak direnez (aurreko kapituan esan bezala), justiziaren jatorria hitzarmenen burutzea den arren, ezin da injustiziarik egon harik eta beldur horren kausa kendu arte. Eta hau ezin daiteke egin gizakumeak gerra-egoera naturalean dauden bitartean. Horregatik, justua eta injustua hitzak lekua izan aurretik, botere behartzailearen bat egon behar du, gizakumeak berdinki behartzeko beren hitzarmenak betetzera hitzarmena haustetik ateratzea espero duten onura baino handiagoa den zigorraren baten izuz, eta elkarrekiko kontratueta gizakumeak eskuratzen duten jabegoa benetako bihurtzeko, utzi duten eskubide unibertsalaren saritzat; eta horrelako botererik ez dago Estatua eraiki baino lehen. Hauxe berau atera daiteke eskuarki Eskoletan ematen den justiziaren definiziotik, zeren eskolastikoek diote justizia nori berea emateko nahi iraunkorra dela. Eta horregatik norbererik, hau da, jabegorik ez dagoen lekuan, ez dago injustiziarik; eta botere hertsatzailearik eraikita ez dagoen lekuan, hau da, Estaturik ez dagoen tokian, ez dago jabegorik, gizon guztiek dutelarik gauza orotarako eskubidea. Horregatik Estaturik ez dagoen tokian, ezer ere ez da injustua. Horrela justiziaren izaera baliozko diren hitzarmenak betetzean datza; baina hitzarmenen baliozkotasuna, hain zuzen ere, gizakumeak betetzera behartzeko gauza den Botere Zibilaren Eraketarekin hasten da: eta orduantxe hasten da jabegoa ere.

Zentzugabeak bere baitan, eta batzuetan mihiaz ere bai, dio ez dagoela justiziarik, serioski alegatuz, gizakume bakoitzaren biziraupena eta zoriona haren ardurapeko kontua izanik, ezin litekeela arrazoirik izan gizakume bakoitzak honetara daramala uste duena ez egiteko; eta, beraz, hitzarmenak egitea edo ez egitea, betetzea edo ez betetzea, ez da arrazoiaren kontrakoa, norberari onura dakarkionean. Ez du ukatzen hitzarmenak daudenik, ezta hauek batzuetan hautsi eta beste batzuetan bete egiten direnik, ezta eurok hausteari injustizia eta betetzeari justizia esan dakiokenik; baina, ezbaian jartzen du injustizia, Jainkoaren beldurra albo batera utzita (zeren zentzugabe honek bere baitan esana du ez dagoela Jainkorik), ez ote daitekeen ados egon bakoitzari bere ona bilatzea agintzen dion arrazoimen horrekin, bereziki gizakumeari besteen mesprezua eta destainak ezezik, haien boterea ere gutxiesteko moduko onura dakarkionean. Jainkoaren Erresuma bortiztasunez eskuratzen da, baina zer gertatuko litzateke bortiztasun injustuz eskuratuko balitz? Arrazoiaren kontrakoa ote litzateke horrela eskuratzea, ezinezko denean horregatik minik edo kalterik jasotzea? Eta arrazoiaren kontrakoa ez bada, ez da Justiziaren kontrakoa, edo bestela justizia ezin da ontzat jo. Arrazonamendu hau erabilia, gaiztakeria arrakastatsua bertute izena hartu du eta beste gauza guztietan fidantza haustea gaitzetsi dutenek onetsi egin dute Erresuma bat lortzeko zenean. Horrela, Saturno haren seme Jupiterrek eraitsi zuela sinesten zuten paganoek, injustiziaren mendekatzaila ere Jupiter bera zela sinesten zuten. Horrelako zerbait dago Littletoni buruzko iruzkinak Coken testu juridiko batean ere. Bertan autoreak dio koroaren oinordeko legezkoa traizioz konbiktua bada, koroa berarengana etorriko dela hala ere, baina eskuratzaila hori eo instante izango dela gabetua. Adibide hauetatik norbait aiher izan daiteke konklusio moduan ateratzera, ezen erresuma baten oinorde-ustekoak oraindik tronuan jabe dena hiltzen duenean, bere aita izanda ere, esan ahal izango dela injustizia bat, edo deitu nahi duguna, egin duela, baina ezein kasutan esan ahalko dugula arrazoiaren kontrako egintza bat izan dela, gizakumeen nahitako ekintzak norberaren onura

eskuratzeraz doazela eta egintzarik arrazoizkoenak beren xedeetara ondoen garamatzatenak direla kontuan hartuta. Arrazonamendu kolorezko hau faltsua da, hala ere.

Arazoa ez da aldeetako batek ere hitzartua beteko duen segurtasunik ez dagoen elkarrekiko agintzarietako dagokiena, alde hitzemaileen gaineko botere zibilik eraikita ez dagoenean gertatzen den moduan, zeren horrelako agintzariak ez baitira hitzarmenak. Baina, edo aldeetako batek bete duenean, edo betearazteko gauza den boterea badenean, arazoa sortzen da ea arrazoiaren kontrakoa, hau da, bestearen onaren kontrakoa denentz, besteak ere agindurikoa betetzea. Nik ez dela arrazoiaren kontrakoa diot. Hau argi uzteko kontuan izan behar dugu, lehenik, ezen gizakume batek, berak aurrikusi eta kalkulatu ahal duen neurrian, bere burua suntsitzera doan gauza bat egiten duenean, nahiz eta berak aurrikusi gabeko akzidente bat gerta daitekeen eta bere egintza horren emaitza aldatu eta bere onerako bihurtu, gertaera horrek ez du egintza hori arrazoizko eta burutsu bihurtzen. Bigarrenik, kontuan hartu behar dugu gizakume oro (denak beldurrez edukiko dituen botereak ez izaki) gizakume ororen etsai den gerra-egoeran, ez dagoela inor ere bere indar eta argitasunaz suntsipenetik defendatzerik espero dezakeenik aliantzen laguntzarik gabe, zeintzuetan bakoitzak besteak adinako babesa jasotzea espero duen; eta, horregatik, laguntza ematen diotenak engainatzea arrazoizko dela uste duenak, ezin du arrazoiz espero berak bere ahalez lor ditzakeenak beste segurtasun-bitartekorik. Bere hitzarmenak hautsi ditzana, beraz, eta horren arabera hori arrazoiz egin dezakeela uste duela deklaritzen duena, ezin da gizakumeak bakea eta babesa aurkitzeko biltzen diren ezein elkarteren baitan hartua izan, hartzen duenaren errakuntzaz izan ezean; eta hartua denean ere, ez dute han edukiko beren errakuntzaren arriskua ikusi gabe; eta errakuntzok ezin ditu gizakume batek arrazoiz bere segurtasun bitartekotzat hartu; eta horregatik elkartetik kanpo utzi edo egozten badute, galdua da; eta elkartean bizi bada, besteen errakuntzaz da, hark aurrikusi ez kalkulatu ezin zuen gauza berau, eta ondorioz, bere burua zaintzeko arrazoiaren kontra jokatu du; eta horrela, hura suntsitzen laguntzen ez dutenak eurentzako ona zer den ez dakitelako bakarrik daude ezer egin gabe.

Eta zeruko zoriontasun seguru eta betikoa, edozein bidetatik, lortzeari dagokionez, hau ergelkeria da, horretarako irudi daitekeen bide bakarra baino ez baitago: hitzarmena apurtzea barik betetzea.

Eta botere subiranoa errebelamenduz eskuratzeari buruz, gauza nabaria da, lortuta ere, boterea horrela lortzea arrazoiz kontrakoa dela arrazoiz espero daitekeena ez delako eta horrela eskuratuz beste batzuei modu berean eskuratzen irakasten zaielako. Justizia, hots, hitzarmenari eustea, beraz, arrazoimenaren arau bat da, zeinak geure bizitza suntsitzeko den edozer egiten debekatzen digun, eta, ondorioz, lege natural bat da.

Batzuk aurrerago doaz eta ez dituzte lege naturaltzat mundu honetan gizakumearen bizia zaintzen duten arauak, baizik heriotza osteko betiko zoriona lortzen laguntzen diotenak. Eta uste dute hitzarmena hausteak honetara eraman ditzakeela eta, ondorioz, bidezko eta arrazoizko dela hori egitea (horrelakoak dira uste dutenak merezimenduzko egintza dela norbere baietaz eraturiko botere subiranoa hiltzea, eraistea edo beraren kontra errebelatzea). Baina gizakumeak heriotza ondoren izango duen egoeraren ezagupen naturalik ez daukagun bezala, askoz gutxiago hitzarmena haustearren emango zaion sariarena; baina hau supernaturalki omen dakiten beste batzuek oinarrituriko ustea besterik ez dago, edo hau supernaturalki zekitenak ezagutzen zituztenak ezagutzen zituztenengan oinarritua. Fidantza hausteari ezin dakioke arrazoimenaren edo naturaren agindua esan.

Badira beste batzuk, hitzarmenari eustea lege naturala dela ametiturik ere, hitzarmena zenbait pertsonarekin egiten denean salbuespena egiten dutenak, hala nola, hereseekin eta beren hitzarmena betetzen ez dutenekin. Eta hau ere arrazoiz kontrakoa da. Zeren gizakume baten akatsak guk hitzarmena ez betetzeko aski badira, arrazoi berak aski izan beharko zukeen hitzarmena egitea galarazteko.

Justua eta injustua izenek gizakumeei eratzikita gauza bat esan nahi dute, eta egintzei eratzikita beste bat. Gizakumeei eratzikitzen zaizkienean, haien jokabidearen adostasuna edo desadostasuna arrazoiarekiko esan nahi dute. Baina egintzei eratzikitzen zaizkienean, arrazoiareki-

ko adostasuna edo desadostasuna esan nahi dute, baina ez jokabidearena edo bizimoldearena, egintza partikularrena baizik. Gizakume zintzoa, beraz, bere ekintza guztiak zuzenak izan daitezten ahal duen ardura guztia jartzen duena da, eta gizakume gaiztoa horren ardurarik jartzen ez duena. Eta horrelako gizakumeei gure hizkuntzan zuzenak eta zuzengabeak esaten diegu, nahiz eta zintzoak eta gaiztoak duten esanahi bera daukaten. Gizon zuzenak ez du, beraz, galtzen titulu hori bat-bateko grinaren batetik edo gauza edo pertsonekin izandako okerren bat medio sorturiko ekintza zuzengabe bat edo gutxi batzuegatik. Gizakume zuzengabeak ere ez du bere izaera hori galtzen beldurra eraginda ekintzak egitegatik edo ez egitegatik, zeren haren nahimena ez dagoelako justiziak egituraturik, egingo duenetik aterako duela ikusten duen etekinak baizik. Giza ekintzei justizi zapora hori ematen diena, gizakumea bizi-poza lortzearren iruzur egitea edo agintzariak haustea mesprezatzeraz daraman gogo-nobletasun edo gizabidea da (oso gutxitan aurkitzen dena). Jokabidezko justizia honekiko ari dira gizakumeak justizia bertutea eta injustizia bizioa dela esaten dutenean.

Baina ekintzazko justizia duten gizakumeei zintzoak barik errugabeak deitzen zaie, eta horrelako injustizia (zuzengabekeria ere deitzen zaiona) dutenei errudunak.

Esan dezagun berriro ere jokabidezko injustizia kalte egiteko joera edo gaitasuna dela. Egintzarik burutu baino lehen eta pertsona indibidualik kaltetu gabe gertatzen den injustizia da. Baina ekintzazko injustiziak, hau da, zuzengabekeriak, pertsona konkretu bat kaltetzen dela suposatzen du, konkretuki hitzarmen-kide izan dugun hura. Baina, hala ere, sarritan gertatzen da bata-k jaso ohi duela zuzengabekeria, kaltea beste bati doakion bitartean. Horixe gertatzen da, adibidez, ugazabak morroiari arrotz bati dirua emateko agindua ematen dionean; agindua betetzen ez bada, zuzengabekeria ugazabari egiten zaio, morroiak harekin agindua betetzeko hitzarmena egin zuelako; baina kaltea arrotzari doakio, morroiak honekin betebeharririk ez zuenez eta, beraz, zuzengabekeriarik egin ezin zionez gero. Halaber, Estatuetan ere, gizakume pribatuak barka diezazkiokete elkarri zorrak, baina ez jasandako lapurretak eta beste bortizkeriak, zeren zorra ez ordaintzea elkarri egiten zaion zuzengabekeria da, baina lapurreta eta bortizkeria Estatuaren pertsonari egindako zuzengabekeriak dira.

Gizakume bati egiten zaion eta honek, egileari horrela aditzera emanda, nahita onartzen duen edozer ez da harekiko zuzengabekeria. Zeren egiten duenak alde-z aurreko hitzarmen baten bidez nahi duena egiteko daukan jatorrizko eskubideari uko egin ez badio, ez dago hitzarmen-hausterik eta, beraz, zuzengabekeriarik ere ez. Eta hitzarmena egin bada, besteak hori egiteko nahia adierazteak hitzarmena askatu egiten du, eta kasu honetan ere ez zaio zuzengabekeriarik egiten.

Idazleek ekintzazko justizia, trukakor eta banakorrean zatitzen dute: lehenengoa proportzio aritmetikoan datzala diote, eta bigarrena proportzio geometrikoan. Trukakorra, horregatik, kontratatuturiko gauzen balioaren berdintasunean jartzen dute, eta banakorra merezimendu berdina duten gizakumeei onura bera banatzean. Horrela, gauza bat erosi genuen baino garestiago saltzea edo gizakume bati merezi duen baino gehiago ematea injustizia izango da. Kontrataturiko gauza guztien balioa kontratatzaileek eskuratu nahi dutenak neurtzen du, eta horregatik balio justua haiek eman nahi dutena da. Eta merezimendua (hitzarmenez merezitakoa aparte utzita, hitzarmenean alde batek betetzeak beste aldeak ere betetzea merezi baitu, hau justizia trukakorren, eta ez banakorren, barruan dagoelarik) ez da justiziaz zor dena, dohainik ematen dena baizik. Eta horregatik bereizpen hau, ematen zaion zentzuan, ez da zuzena. Zehaztasunez hitz eginda, justizia trukakorra kontratatzailearen justizia da, hau da, hitzarmena betetzea sal-erosketan, errentan eman eta hartzean, mailegua eman eta hartzean, aldatzean, trukatzetan edo beste kontratu-egintzetan.

Eta justizia banakorra arbitratzaile baten justizia da, hots, justua zer den definitzeko egintza. Horregatik (arbitratzaile izendatu dutenek berarengan konfidantza jartzen dutenez), haiek berarengan jarritako konfidantza betetzen badu, bakoitzari berea ematen diola esaten da; eta hau banaketa justua da eta (nahiz eta ez propioki) justizia banakorra deitzen zaio; baina propioki ekitatea da, lege naturala hau ere, gero dagokion lekuan azalduko denez.

Justizia alde-z aurretik izandako hitzarmen baten pean dagoen lege-z, ESKERRONA ere aurretiko mesede baten pean dago, hau da, aurretik dohainik egindako opari baten pean. Eta laugarren lege naturala da, era honetan burura daitekeena: beste batengandik onura bat dohainik hartzen duen gizakumeak ahal duena egin behar du eman dionak ez dezan arrazoizko ziorik ukan borondate ona izana damu izateko. Zeren inork ez du ezer ematen norbere buruari on egitekotan izan ezik, mesedea nahitakoa delako eta nahitako egintza guztien helburua norbere ongia delako. Baina gizakumeei helburu hori zapuztuta geratzen dela ikusten badute, ongurak edo konfidantzak ez du sortzerik izango; eta, ondorioz, elkarlaguntzak ere ez, ezta elkarren arteko abenikoak ere; eta, horregatik, gizakumeei oraindik ere gerra-egoeran segituko dute, gizakumeei bakea bilatzea agintzen dien lehenengo eta oinarrizko lege naturalaren kontrakoa delarik hau. Lege hau hausteari esker-gaitza deritza; eta injustiziak hitzarmenezko obligazioarekin duen erlazio bera du mesedearekin.

Bosgarren lege naturala ELKARREN ONARPENA da, hau da, gizakume bakoitza besteengana egokitzen ahalegin dadila. Hau ulertzeko, kontuan izan behar dugu gizakumeei gizartean bizitzeko duten ahalmenean, gaitasun natural ezberdinak dauzkatela, bakoitzaren sentipen ezberdinetatik sortuak. Eraikin bat egiteko erabiltzen diren harriekin konpara daitezke. Zeren, nola etxegileek, ikusirik latza eta formaz irregularra den harriak betetzen duena baino hutsune handiagoa uzten duela, eta gogorra izaki leuntzen erraz ez dagoela eta, beraz, eraikuntzarako traba dela, albora uzten duten probetxagaitz eta oztopogarritzat jota, halaxe, berez latza delako, beretzat gainezko, baina besteentzat beharrezko dena atxikitzen ahalegintzen den eta, grina tematiak dituelako, zuzendu ezin den gizakumea ere, gizartetik kanpo utzi edo bota behar da, gizarte horrentzat arriskugarri delako. Zeren, ikusirik gizakume bakoitzak, ez bakarrik eskubidez, naturaren beharrez ere baizik, bere ahalean dagoen guztia egin behar bide duela bere biziraupenerako beharrezko den guztia eskuratzeko, gainezkoak diren gauzengatik honen kontra jartzen dena, hemendik sortuko den gerraren errudun da, eta, beraz, bakea bilatzea agintzen duen oinarrizko lege naturalaren kontrakoa da. Lege hau betetzen dutenei ELKARKOIAK deritze (latindarrek commodi deitzen zieten). Betetzen ez dutenei, burugogorrak, elkargaitzak, setatiak, tratagaitzak esaten zaie.

Seigarren lege naturala honako hauxe da, behin bere geroko segurtasuna bermatuta geratuz gero, gizakumeak lehen berari egindako irainak barkatu egin behar dituela, iraintzaileak, egindakoaz damututa, barkamena nahi badu. Zeren, barkamena bakea bermatzea besterik ez baita; baina etsaitasunean dirautenei bermatzen bazaie, ez da bakea, beldurra baizik; baina etorkizunerako bermea eskaintzen dutenei ematen ez bazaie, bakearen kontrakoa den seinale da eta, beraz, lege naturalaren kontrakoa.

Zazpigarrena da mendekuan (hau da, gaizkia gaizkiaz ordaintzea) gizakumeek lehen egindako gaizkiaren handia barik gero etorriko den ongiaren handia begiratzea da. Hemendik dator ez zaigula zilegi zigorra ezartzea, iraintzailea zuzentzeko edo besteen ikasbiderako ez bada. Zeren lege hau aurrekotik datorrena baita, hots, etorkizunerako segurtasuna dagoenean barkatzea agintzen digunetik. Honez gain, ikasbidea eta ondoreneko probetxua kontuan ez duen mendekua, besteari kalte egiteko egintzaren garaitza edo gorespena da, xederik ez duena (xedea etorkizun den zerbaite baita beti); eta xederik ez duen egintzaren gorespena, harropuzkeria da, eta arrazoiaren kontrakoa; eta arrazoirik gabe kalte egiteak gerra ekartzera du joera, eta hau lege naturalaren kontrakoa da, eta eskuarki krudeltasuna esaten zaio.

Eta gorroto edo mesprezu seinale guztiek borrokara eragiten dutenez, gizonik gehienek nahiago dutelako beren bizitza arriskatu mendekuari uko egin baino, zortzigarren lege naturaltzat honako agindu hau jar genezake, inork ez dezala, ez egitez, ez hitzez ez aurpegikeraz ez keinuz, beste gizakume batenganako gorroto edo mesprezurik deklaratu. Lege hau hausteari laidoa esaten zaio.

Nor den gizonik onena galdetzeak ez du lekuri natura hutseko egoeran, non (lehen esan dugunez) gizakume guztiak berdina diren. Gaur dagoen ezberdintasuna lege zibilek sartutakoa da. Badakit Aristotelesen, bere Politikaren lehen liburuan, bere doktrinari oinarria emateko, gizon batzuk, jakitunagoak (bera ere filosofo kontuan horietakoa zela uste zuen), naturaz agintzeko baliozkoagotzat ipini zituela, eta beste batzuk morroi izateko (gorputz indartsukoak, baina bera bezalako filosofoak ez zirenak), ugazaba eta morroia gizakumeek ezarritakoaren emaitza barik talentuz daukaten aldearena balitz bezala, arrazoiaren kontrakoa ezezik esperientziaren kontrakoa ere badena berau. Zeren oso gutxi dira eurak gobernatu baino inork eurak gobernatzea nahiago izaterainoko tentelak diren gizakumeak. Eta euren burua jakituntzat dutenak beraie jakinduriar fido ez direnekin indarrez borrokatzen dutenean, ez dira beti, ezta sarri ere ia inoiz ere, ateratzen garaile.

Ondorioz, naturak gizakumeak berdina egin baditu, berdintasun hau aintzat hartu behar da; edo naturak gizakumeak ezberdina egin baditu ere, berdintasun hori ametitu beharra dago, euren buruak berdintzat dituzten gizakumeak bake-egoeran baldintza berdinetan izan ezik sartuko ez direlako. Eta horregatik bederatzigarren lege naturaltzat honako hauxe jartzen dut: gizakume bakoitzak bestea naturaz berdintzat hartzea. Agindu hau haustea harrokeria da.

Lege honetatik beste bat dator, bake-egoeran sartzeko, ezein gizakumek ez dezala beretzat galda gainerako beste guztiek ere berenganatzea gogo onez nahi ez duen eskubiderik. Bake bila dabilten gizakume guztiek zenbait eskubide naturalak uko egitea, hau da, nahi duten guztia egiteko askatasunik ez edukitzea beharrezko dutenez, halaxe dute beharrezko bizitzaren irauteko zenbait eskubide atxikitzea, hala nola, euren gorputzak gobernatzeko eskubidea, aireaz, uraz, leku batetik bestera mugitzeko ahalmenaz eta bizitzeko eta ondo bizitzeko nahitaezko dituzten beste gauza guztiez gozatzeko eskubidea. Eta bakea egin orduan, gizakumeek besteek ematea nahi ez luketena eurentzat galdatzen badute, aurreko legearen kontrakoa egiten ari dira, naturazko berdintasuna, eta, beraz, lege naturala ere, aitortzea agintzen baitu. Lege hau betetzen dutenei, apalak deitzen diegu eta hausten dutenei argoiak. Greziarrek lege hau hausteari, pleonexia deitzen zioten, hau da, bakoitzari dagokion baino gehiago nahi izatea.

Halaber, gizakume bati beste biren arteko auzian epaitzeko eginkizuna ematen bazaio, lege naturalaren agindua da biak berdin trata dituzten. Hori ez badago, gizakumeen eztabaidak gerraz bakarrik erabaki baitaitezke. Irizmenean alderdikoi dena, beraz, beregan dagoen guztia egiten ari da gizakumeek epaile eta arbitratzaileak erabiltzetik urruntzeko eta, beraz, oinarritzko lege naturalaren kontra gerraren kausa izaten ari da.

Gizakumeen artean bakoitzari arrazoiz dagokiona banatzea agintzen duen lege hau betetzeari EKITATEA deritzo, eta, lehen esan dudana bezala justizia banakorra ere bai; berau hausteari norkeria, *πονοπληψια*. Eta hemendik beste lege bat dator banagarri ez diren gauzez amankomunean gozatzeko, posible den neurrian; eta gauzen kuantitateak ematen badu, murrizketarik gabe; bestela, proportzionalki gauza horren eskubidea duten guztien artean. Bestela izanik, banaketa ezberdina da eta ekitatearen kontrakoa.

Baina badira gauza batzuk ez banagarriak ez amankomunean gozagarriak direnak. Kasu horretan, ekitateak agintzen duen lege naturalak honako hau eskatzen du, eskubide osoa, edo bestela, beronen jabetza txandaka egiten bada, lehenengo jabetza zozketaz erabakitzea. Berdinki banatzea lege naturalekoa baita eta berdinki banatzeko beste biderik ezin baitaiteke irudit.

Zozketa mota bi daude: arbitrala eta naturala. Arbitrala lehiakideen adostasunez erabakitakoa da; naturala, edo primutza (greziarrek *Κληρονομια* deitzen zutena eta zozketaz emana esan nahi duena) edo lehenbizi hartzen duenarena da.

Eta horregatik, ez amankomunean goza ez bana ezin daitezkeen gauza horiek lehenengo jabeari esleitu behar zaizkio, eta kasu batzuetan lehenbizi jaioari, zozketaz eskuraturiko legez.

Lege naturala da baita ere, Bakea egiteko ararteko den orori iragan-agiria luzatzea. Zeren, xedetzat bakea agintzen duen legeak, bitartekotzat arartekotza agintzen baitu, eta arartekotzarako bitartekoa iragan-agiria da.

Eta gizakumeak legeok betetzeko beti prest baleude ere, eztabaida gerta daiteke gizabanakoaren ekintzari buruz. Lehenik, burutu zen ala ez; bigarrenik (burutu bazen), legearen kontrako den ala ez; lehenengoari egitatezko arazo deitzen zaio, bigarrenari eskubidezko arazo; horregatik, arazoan sartuta dauden aldeak, hirugarren baten irizmenaren pean jartzea erabaki ezik, baketik lehen bezain urrun egongo dira. Alde biak bere epaiaren pean dituen beste horri ARBITRATZAILE deitzen zaio. Eta horregatik, lege naturaleko da eztabaidan dabiltzanek beren eskubidea arbitratzaile baten menpe jartzea.

Eta ikusirik gizakume orok gauza guztiak bere onurarako egiten dituela suposatzen dela, inor ez da arbitratzaile egokia bere auzian. Eta balitz ere, ekitateak alde bakoitzari onura berdina eskaintzen dionez, alde bat epailatzat onartzen bada, bestea ere onartu behar da; eta horrela eztabaidak, hots, gerraren kausak indarrean dirauke lege naturalaren kontra.

Arrazoi berarengatik ez litzateke onartu behar arbitratzaile alde baten garaitzak bestearenak baino onura, edo ohore, edo atsegin handiagoa ekarriko liokeela dirudien inor; zeren azpieroste baten pean (nahiz eta azpieroste ekidinezina izan) izango bailitzateke; eta inor ezin da harengana fidantza jartzera behartu. Eta horrela eztabaida eta gerra-egoerak iraun egingo luke lege naturalaren kontra.

Eta egitateei buruzko eztabaida batean epaileak alde batari besteari baino sinesgarritasun handiagorik eman ezin dionean, (beste argudiorik ez badago) hirugarren edo laugarren bati edo gehiagori eman behar die sinesgarritasuna. Zeren bestela, auzia erabakitzeke geratzen da eta nahitaez bertanbehera utzita, hau lege naturalaren kontrakoa delarik.

Hauexek dira gizakumeek multzoan bizirauteko bide moduan bakea bilatzeko agintzen duten lege naturalak, gizarte zibilari buruzkoak soilik direlarik. Badira beste gauza batzuk gizabanakoa suntsitzera doazenak, hala nola hordikeria eta beste gehiegikeriak, hauek ere lege naturalak debekatzen dituenetan sartu behar direlarik. Baina ez dira aipatu beharrekoak, ezta leku hau dagokienak ere.

Lege naturalak deduzitzeko erabili dugun erak sotilegia eman lezakeen arren gizakume guztiek atzeman ahal izateko, gehienak lanpetuegi ari baitira janaria eskuratzen eta gainerakoak arduragabeegiak baitira ulertzeko, hala ere, denak aitzakiarik gabe uzteko, gaitasun eskasena dutenak ere ulertzeko moduko sintesi honexetan laburbildu dira: Ez egiozu inori egin zeuri egiterik nahi ez zenukeenik; honek lagunduta ikusiko du ez duela lege naturalak gehiago ikasi beharrik eta nahikoa izango duela, besteen egintzak norberenekin konparatzean haienei pisutsuegiak baderitze, haienak balantzaren alde batean jartzea eta bereak bestean, bere grinek eta burumaitasunak ez diezaioten pisuari ezer gehitu; eta orduan lege natural guztioi oso arrazoizko iritziko die.

Lege naturalek in foro interno obligatzen gaituzte, hau da, betetzeko desirarekin bigiztatzen gaituzte; baina in foro externo, praktikan jartzera, ez beti. Zeren gizon apal eta tratagarria izan eta agintzari guztiak beste inork hori egiten ez duen denbora eta lekuan betetzen dituenak, besteentzat ehizi izatea eta bere buruaren hondamendi segurua besterik ez du lortzen, hau lege natural guztien oinarriaren kontrakoa delarik, legeok natura zaintzeko baitira. Eta bestera, besteek berarekiko lege horiek beteko dituzten segurtasunik aski izanik, betetzen ez dituenak ez da ari bakea bilatzen, gerra baizik, eta ondorioz bere naturaren suntsipena indarkeriaren bidez.

Eta in foro interno obligatzen duen lege oro hauts daiteke, ez bakarrik legearen kontrako egitate batez, baizik legearekin ados dagoen egintza batez ere, gizakumeak kontrakoa dela uste baldin badu. Zeren, kasu honetan haren egintza legearekin ados dagoena bada ere, haren intentziora legearen kontrakoa da, eta hau, obligazioa in foro interno denez, hura haustea da.

Lege naturalak aldagaitz eta eternalak dira, zeren injustizia, eskergaiztoa, andurrieria, harrokeria, inikitatea, norzeria eta horrelakoak ezin dira sekula legeztatu. Zeren ezinezkoa baita gerrak bizia zaintzea eta bakeak suntsitzea.

Lege hauek, gura izatera eta ahalegintzera -ahalegin benetakoa eta iraunkorra egitera, esan nahi dut- bakarrik obligatzen dutenez, betetzen errazak dira. Ahalegintzea besterik ez dutenez behar, praktikatzan ahalegintzen denak bete egin ditu, eta legea betetzen duena zintzoa da.

Legeon zientzia benetako filosofia moral bakarra da. Zeren filosofia morala giza espeziearekin solasean eta harremanetan ona eta txarra zer den dioskun zientzia baita. Ongia eta Gaizkia gure gutuziak eta abertsioak adierazten dituzten izenak dira, diferenteak direlarik gizakumeen tenperamentu, ohitura eta doktrinen arabera. Eta gizakume ezberdinek aburu diferenteak dituzte ez bakarrik dastamen, usaimen, entzumen, ukimen eta ikusmenaren sentsazioak atsegin edo desatseginak direnentz erabakitzean, baizik bizitza komuneko ekintzak arrazoiarekin ados edo desados daudenentz iriztean. Gizakume bera ere, aldi ezberdinetan ezberdina da, eta batean goraipatu egiten du, hots, ona dela dio, bestean ezetsi eta txarra dela dioena. Eta hemendik eztabaidak, liskarrak eta azkenean gerra sortzen da. Horregatik, gizakumea natura



hutseko egoeran (hots, gerra-egoeran) dagoen bitartean, haren gutizia pertsonala da ongi eta gaizkiaren neurria; eta, horregatik, gizakume guztiak bat datoz honako honetan: bakea ongia dela eta, beraz, lehen esan dudan bezala bakerako bide edo bitarteko diren justizia, eskerrona, apaltasuna, ekitatea, errukia eta gainerako lege naturalak ere onak direla, hots, bertute moralak direla, eta euron kontrako bizioak txarrak. Orain bada, bertute eta bizioaren zientzia filosofia moralak da, eta horregatik lege naturalen benetako doktrina benetako filosofia moralak da. Baina filosofia moralaz idazten dutenek, bertute eta bizio berdinak ezagutzen dituzten arren, ez dute, hala ere, ikusten haien ontasuna zertan datzan, ezta zergatik izan diren goraiatuak bizimodu baketsu, lagunarteko eta erosoak lortzeko bide gisa; eta bertuteok grinaren erdipurdikotasunean jartzen dituzte, sendotasuna egiten duen kausa ausardia barik, beronen gradua balitz bezala, edo eskuzabaltasuna egiten duen kausa oparia barik haren kantitatea balitz bezala. Arrazoiaren agindu hauei gizakumeek legeak esan ohi diete, baina desegokiro, zeren ez baitira bakoitzaren defentsa eta biziraupenera daramaten konklusio edo teorema besterik; legea ordea, propioki, besteengan eskubidezko aginpidea duenaren hitza da. Baina, hala ere, teorema horiek gauza guztietan eskubidezko aginpidea duen Jainkoaren hitzean emandakotzak hartzen baditugu, orduan propioki deitzen zaie legeak.

## XVI

Pertsona, autore eta gauza pertsonatuez

Pertsona zera da, alegia, beraren hitz edo egintzak edo bereak dituela edo egiaz edo fikzioz eratzikitzen zaizkion beste gizakume edo gauzaren baten hitz edo egintzak ordezkatzeko dituztela kontsideratzen duguna.

Bereak dituela kontsideratzen denean, pertsona naturala esaten zaio. Beste baten hitz edo ekintzak ordezkatzeko dituela kontsideratzen denean, pertsona fikziozko edo artifiziala da.

Pertsona hitza latinezkoa da; grekoek *πρῶτον* zuten honen ordaina, eta aurpegia esan nahi du, pertsonak latinez moztarra edo eszenategian antzeztzen den gizakume baten kanpoko itxura esan nahi duen bezala. Batzuetan hitz honek, zehazkiago, aurpegia estaltzen duen moztarra zatia adierazten du, hots, maskara edo aurpegiordekoa. Eszenategitik, inoren hitzak edo egintzak hala auzitegietan nola antzokietan ordezkatzeko dituen normahirengana zabaldu da. Horrela, pertsona aktorea da, hala eszenategian nola hizkera arruntean. Eta pertsonatzea, jokatzeko edo norberaren burua edo beste bat ordezkatzeko da; eta beste baten papera egiten duenak haren pertsona hartzen duela aldean edo haren izenean diharduela esan ohi da. Zentzu honetan darabiltza Zizeronek dioenean: Unus sustineo tres personas: mei, adversarii et iudicis, hots, Hiru pertsona daramatzat, neurea, kontrarioarena eta epailearena. Beste baten izenean diharduenak izen ezberdinak hartzen ditu egokieraren arabera: ordezkari edo ordezkari, loktenente, bikario, abokatu, diputatu, prokuradore eta horretarikoak.

Pertsona artifizialen artean, batzuek eurek ordezkatzeko dituzten hitzak eta egintzak burutzen dituzte. Eta orduan pertsona aktorea da, eta haren hitz eta egintzen jabea autorearen da, kasu honetan aktoreak eskuespenez diharduelarik. Horregatik, ondasun eta edukiez hitz egitean, jabe deritzo, eta latinez dominus eta grekoz *κυριος* egintzez hitz egitean autore deritzo. Eta nola jabetza-eskubideari domeinua deritzon, hala egintza burutzeko eskubideari AUTORITATEA deritzo, eta batzuetan eskuespena. Horrela, autoritatea hitzaz egintza bat burutzeko eskubidea ulertzen da beti; eta eskuespenez egina, eskubidearen jabe denaren komisioz edo baimenaz egina.

Hemendik dator ezen, aktoreak eskuespenez hitzarmena egiten duenean, hitzarmen horrek autorearen berberak egin balu bezalaxe behartzen duela eta hartatik datozkeen ondorio guztien erantzule egiten duela. Eta, horregatik, arestian (XIV. Kap.) gizakume batek bestearekin beren ahalmen naturalaz egindako hitzarmenaren naturari buruz esandako hori guztia egia da baita ere beraiegiengandik hartutako eskuespena duten aktore, ordezkari edo prokuradoreek eginak direnean, duten komisioak eskuesten dituen neurriraino, eta ez gehiagorik.

Eta horregatik, aktore edo ordezkariarekin hitzarmen bat egitean, hark duen eskuespena ezagutu gabe egiten duenak arriskutan jartzen du bere burua. Zeren inor ez baitu behartzen bera autore ez den hitzarmenak eta, beraz, berak emandako eskuespenaren kontra edo haratago egindako hitzarmenak.

Aktoreak autoreak agindutako eta lege naturalaren kontra doan gauzaren bat egiten duenean, alde aurreko hitzarmenaren batek autoreari esana egitera behartuta bazegoen, hura izango da, eta ez aktorearen, lege naturala hausten duena. Zeren, horrelako egintzak lege naturala hausten duen arren, ez baita aktorearena; baina, aitzitik, honek egintza burutzea errefusatzeko badu, hori hitzarmen haustea debekatzen duen lege naturalaren kontrakoa da.

Autorearekin hitzarmena aktorearen bitartez eta honek daukan eskuespena ezagutu barik eta beronen hitzaz fido izanda besterik gabe egiten duena, baldin eskuespena eskatu eta hark erakusten ez badio, ez dago behartuta, zeren autorearekin egindako hitzarmena ez da baliozkoa haren kontra-segurantzarik gabe. Baina hitzarmen hori egiten duenak alde aurretik baldin bazekien ez zezakeela aktorearen hitza beste segurantzarik espero, orduan hitzarmena baliozkoa da, kasu honetan aktoreak bere burua autore bihurtzen duelako. Eta horregatik, eskuespena begibistakoa denean hitzarmenak autorearen, ez aktorearen, behartzen duen

bezalaxe, eskuespena asmatuakoa denean, aktorea bakarrik behartzen du, orduan bera beste autorerik ez baitago.

Fikzioz ordezkagarri ez den gauza gutxi dago. Eliza, ospitale, zubi bat bezalako gauza bizigabeak, erretoreak, zuzendariak, lan-arduradunak pertsona ditzake. Baina gauza bizigabeak ezin dira autore izan, ezta, beraz, beren aktoreei eskuespenik eman ere. Hala ere, aktoreek bai izan dezaketela gauza horiek mantentzeko eskuespena, gauza horien jabe edo administratzaileek eman baldin badiete. Horregatik gauza horiek ezin dira pertsonatu Estatu edo gobernamentu zibilik ez den bitartean.

Era berean, ezaguerarik ez duten haur, tentel eta zoroak, zaintzaile eta tutoreek pertsona ditzakete; baina ezin dira, aldi horretan, beraiek egindako ezein egintzaren autore izan, harik eta, ezaguera erdietsi ondoren, egintza horri arrazoizko iritzi arte. Hala ere, zorotasun aldian, zoroak gobernatzeko eskubidea duenak eman diezaioke eskuespena zaintzaileari. Baina honek ere ez du lekurik Estatu Zibilean izan ezik, Estatu hau ez dagoen bitartean ez baitago pertsonetikiko domeinurik.

Eta idolo bat, edo burmuinaren fikzio huts bat ere pertsona daiteke, jentilen jainkoak pertsonatu ziren bezala, zeintzuek Estatuak izendaturiko funtzionarioek pertsonatu zituzten eta gizakumeek dedikatu ea konsakratzen zizkieten onibarrak eta bestelako ondasunak zeuzkaten. Baina idoloak ezin dira autore izan, idoloa ezer ere ez baita. Autoritatea Estatutik zetorren, eta horregatik, gobernamentu zibila sortu aurretik, jentilen jainkoak ezin ziren pertsonatu.

Egiazko Jainkoa pertsona daiteke, lehenbizi Moisesek pertsonatu zuen bezala, hark israeldarrak ez bere herri gisa, jainkoaren herri gisa baizik, gobernatu baitzituen, Hoc dicit Moses barik Hoc dicit Dominus esanda, Jainkoaren izenean.

Bigarrenik, Jainkoa gizakumearen semeak pertsonatu zuen, bere semeak, Jesukristo gure Salbatzaile Benedikatuak, juduak menperatu eta nazio guztiak bere Aitaren erreinura sarraraztera etorri zenak; baina hau ez zuen bere izenean egin, Aitak bidalia zenez baizik. Eta hirugarrenik, Izpiritu Santuak, edo adore emaileak, apostoluei hitz egin eta eraginez pertsonatu zuen. Izpiritu Santu hau bere kabuz barik Mendekoste egunean bidalia eta beste biengandik etorria den Adore emailea da.

Gizatalde handi bat pertsona bakar bihurtzen da, gizakume edo pertsona batek ordezkatzeko duenean, eta hau gizatalde horretako gizanabanako guztien eta bakoitzaren baiespenaz egiten da. Zeren ordezkariaren batasuna da, eta ez ordezkatuaren batasuna, pertsona bakar izatea egiten duena; eta ordezkaria da pertsona, eta pertsona bakarra, sostengatzen duena. Eta batasuna ezin da beste inola ulertu gizatalde handi bati dagokionez.

Eta gizataldea berez bat ez denez, asko baizik, ezin da bat bakartzat ulertu, euren ordezkariak euren izenean esan edo egiten duen zernahiren autore askotzat baizik. Bakoitzak ematen dio bere aldetik eskuespena guztien ordezkariari, eta ordezkari honek burutzen dituen egintza guztien jabe egiten da, baldin eskuespena mugapenik gabe eman badio. Bestela, zertan eta noraino ordezkatu behar dituen mugatzen diotenean, eurentariko inor ere ez da jabetzen haren ardurapean jarritakoaz baino ezer gehiagoz.

Eta ordezkariak gizakume asko badira, gehiengoaren boza guztien boztzat hartu behar dute. Zeren gutxiengoak baiezkoa agertzen badu esaterako, eta gehiengoak ezezkoa, ezezkoak baiezkoak suntsitzeko nahiko eta sobera izango dira. Eta, beraz, gehiago diren ezezkoak, kontraesan gabe geratuz gero, ordezkarien boz bakarra izango dira.

Eta ordezkariak zenbaki bikoitia egiten badute eta, batik bat zenbakia handia ez denean, baiezko eta ezezkoen kopurua berdina gertatzen bada, ordezkariak mutu eta ezer egiteko ezgai geratzen dira. Hala ere zenbait kasutan alde eta kontrako botu kopuru berdinak erabaki egin dezake arazoa; esate baterako, kondenatu edo absolbitu behar denean, kondenatzeko botu berdinketak absolbitu egiten du; baina ez alderantziz, hots, absolbitzeko berdinketak ez du kondenatzen. Zeren auzi bat entzun ondoren, ez kondenatzea absolbitzea da, baina, alderantziz esatea, hots, ez absolbitzea kondenatzea dela, ez da egia.

Antzeko gauza gertatzen da berehala exekutatu ala geroagorako uztea erabaki behar denean. Zeren bozen berdinketa dagoenean, berehalako exekuzioa ez dekretatzea, geroratzea agintzen duen dekretua baita.

Ordezkari-kopurua bakoitia bada, adibidez hiru edo gehiago pertsona edo biltzar, non bakoitzak aginpidea duen bere ezezko bozaz gainerakoen baiezko boz guztien efektua deusezteko, horrelako kopurua ez da ordezkakorra, zeren gizakumeen iritzi eta interes ezberdinak bitarteko direla, horrelako ordezkaritza, maiz eta ondoriorik larrienak dakartzaten kasuetan, pertsona mutu eta ezgai bihurtzen baita jendetza gobernatzeko, batez ere gerra garaian, eta beste gauza askotarako.

Bi motatako autoreak daude. Lehenengo motakoek sinpleki izen horixe daukate, eta lehen definitu ditut beste baten egintzaren jabe direla esanez. Bigarren motakoak beste baten egintzen edo hitzarmenen jabe baldintzapean dira, hau da, beren gain hartzen dute ekintza, besteak hori une jakin batean edo une jakin bat baino lehenago egiten ez badu. Baldintzapeko autoreoi, FIDATZAILEAK, latinez fidejussores eta sponsores, esaten zaie; eta zor baten fidatzaileak badira, praedes; eta epaile edo magistratu baten aurrean agertzeko fidatzaileak badira, vades.



# BIGARREN PARTEA

## Estatuaz

### XVII

Estatuaren kausa, sorrera eta definizioaz

Gizonek -askatasuna eta besteen domeinua berez maite dutenek- beren buruei murrizketa horiek (zeinekin Estatuetan bizitzen ikusten ditugun) ezartzeko duten xedezko kausa, helburua edo asmoa beren biziraupena eta, beraz, bizitza atseginagoa erdiestea da; hau da, nahi dutena da gizakumeen grina naturaletatik (azaldu den bezala) nahitaez sortzen den gerra-egoera miserable hartatik irten, egoera horretan ez baitago aginte agerikorik jendea beldurrez edukitzeko eta zigorraren beldurraren euren hitzarmenak praktikan jartzera eta hamalau eta hamabosgarren kapituluetan deskribatu ditugun lege naturalak betetzera behartzeko.

Zeren lege naturalak (hala nola justizia, ekitatea, apaltasuna, errukia eta, azken batez, geuri egitea gura genukeena besteei horixe egitea) berenez eta eurak betetzera behartzen gaituen boterearen izurik gabe, gure berezko grinen kontrakoak dira, zeren hauek alderdikeria, harrokeria, mendeku eta horrelakoetara baikaramatzate. Eta hitzarmenak ezpatarik gabe hitz hutsak dira eta gizakumeari segurtasunik txikiena emateko indarrik gabekoak. Horregatik, lege naturalak izan arren (bakoitzak bete nahi dituenean eta arrisku barik izatekotan betetzen dituenak), eraturako aginterik ez badago, edo gure segurtasuna bermatzeko bezain indartsua ez bada, gizakume bakoitzak bere indar eta antzean jarri beharko du bere segurtasuna, eta zilegi izango zaio, beste gizakumeengandik defendatzeko bidea. Gizakumeek familia txikietan bizi izan diren leku guztietan elkarrekiko lapurreta eta harrapaketa izan dute merkataritza modua, eta jokabide hau lege naturalaren kontrakotzat jotzetik urrun, zenbat eta harrapaketa handiagoak egin, orduan eta ohore handiagoa zuten harrapariak. Orduan gizakumeek ez zuten ohorearen legeak beste legerik, hau da, krudelkeriarik ez egitea, gizakumeei bizia eta lanabesak kendu gabe utziz. Eta garai hartan familia txikiek egiten zuten gauza bera egiten dute orain hiri eta erresumek, familia handiagoak besterik ez baitira, beren segurtasunerako, arriskua eta inbasio-beldurra edo inbaditzaileei aurre egin beharra aitzakiatzat jarriz, beren domeinuak handiagotzen dituzte, eta ahalegin guztiak egiten dituzte, justiziaz, auzoak menperatu edo ahultzeko, ageriko indarrez edo ezkutuko amarruz baliatuz, beste bermerik ez dagoela eta; eta ondorengo garaietako jendeak ohorez oroitzen ditu horrela jokatu izanagatik. Gizakume gutxi batzuk gehitzea ez da Estatuei segurtasun hau ematen diena; zeren talde txikiak izanik, batera edo bestera gutxi batzuk gehitzeak garaitza emateko adinako indar-abantaila eta, beraz, inbasiorako adorea ematen baitie. Gure segurtasunerako behar den giza kopurua ez da zenbaki konkretu batez erabakitzen, beldurra diogun etsaiarekiko konparazioz baizik; eta behar adinakoa, etsaiak garaitzarako dituen probabilitateak gerraren emaitza bere alde izan eta gerran saiatzeko bezain argi eta nabariak ez direnean izango da.

Eta giza talde handia izanda ere, beraien ekintzak bakoitzaren irizmen eta gutzietatik zuzentzen badituzte, hortik ezin dezakete espero defentsarik ez babesik, ez etsai komunaren kontra ezta elkarri egindako erasoen kontra ere. Zeren, beren indarra nola erabili eta aplikatu irizten bakoitza bere aldetik ibiliz gero, elkar lagundu barik oztopatu egiten dute, eta elkarkontrakotasunak ezerezeroa ekartzen du daukaten indarra: eta horrela, talde ongi batu batek aise menperatuko ditu eta, honez gain, etsai komunik ez izanda ere, bakoitzaren interesak bitarteko direla, gerran hasiko dira elkarren kontra. Suposatu ahal bagenu gizatalde handi bat justizia eta beste lege naturalak betetzeko bat datorrela jendea ikaratan edukitzeko botere komun baten premiarik gabe, suposatu ahal izango genuke gizateria osoak ere gauza bera egingo lukeela; eta orduan ez legoke, eta egon beharrik ere ez, inolako gobernamentu zibilik ez Estaturik, bakea izango litzatekeelako inor menperatu beharrik gabe.

Ezta ere ez da nahikoa, euren bizitzaldi guztian irautea nahiko luketen segurtasunerako, gizakumeak irizmen bakar batek denboraldi mugatuaren gobernatuak eta zuzenduak izatea, bataila edo gerra batean gertatzen den moduan. Zeren, denak etsai atzerritarraren kontra elkartuta garaitza lortu arren, gero, etsai komunik ez dutenean edo batzuentzat etsai dena besteek laguntzat daukatenean, euren interes ezberdinak direla eta, batasun hura ezabatu egiten da eta euren arteko gerran hasten dira.

Egia da izaki bizidun batzuk, hala nola erleak eta txinaurriak, elkarkoiki bizi direla bata besteekin (horregatik Aristotelesek animalia politikoen artean sartzen ditu), eta hala ere ez dute euren jokabidea zuzentzeko beste gida modurik euren erabaki eta gutziak baizik, ezta hizkuntzarik ere batek denen onerako egokientzat ikusten duena besteei adierazteko. Hau ikusita, gizakume batzuek agian jakin nahi izango dute, zergatik ezin duen gizateriak ere gauza bera egin. Honi erantzunez diot:

Lehenik, gizakumeak etengabeko elkarren lehiak ibiltzen direla ohore eta duintasuna lortzearen norgehiagoka, eta animalia horiek ez; eta ondorioz, gizakumeen artean inbidia eta gorrotoa sortzen da alor honetan, eta azkenerako gerra; baina haien artean ez.

Bigarrenik, kreatura hauen artean ez dagoela alderik guztien onaren eta bakoitzaren onaren artean; eta berez nork bere ona bilatzeko joera izanik, aldi berean denen ona bilatzen ari direla. Baina gizakumeak, zeinaren gozamenen bere burua besteekin konparatzean datzan, gailen izatea baino ezin du zaporatu.

Hirugarrenik, kreatura horiek ez daukatenez, gizakumeek bezala, ezaguerarik, ez akatsik ikusten dute, ez ikusten dutenik pentsatzen, beren arazo komunaren administraketan; gizakumeen artean, oster, asko eta asko dira uste dutenak eurak beste guztiak baino jakitunago eta trebeagoak, hobeak, direla herria gobernatzeko, eta erreformak eta berrikuntzak nor bere bidetik egiten saiatzen dira eta honek gerra zibila eta akort ez egoteak dakartza.

Laugarrenik, kreatura hauek beren desirak eta beste afekturik ere batabesteei aditzera emateko ahotsaren nolabaiteko erabilera baduten arren, ez dira, hala ere, hitzaren artean jabe, zeinaren bidez zenbait gizakume, ordea, gai den besteei ongia gaizkiaren itxura emanez eta gaizkia ongiaren itxura emanez irudikatzen eta ongi eta gaizkiaren bistako handitasuna gehitu edo gutxitzeko, gizakumeen artera deskontentua ekarri eta euren arteko bakea nola nahi eta halaxe nahasten duelarik.

Bosgarrenik, izaki irrazionalak ezin bereizi dutela zuzengabekeria eta kaltea, eta eroso dauden bitartean ez direla beren kideek irainduta sentituko; gizakumea, oster, zenbat eta erosoago egon, orduan eta bazter-nahasleagoa da, zeren orduantxe nahi izaten baitu bere jakinduria erakutsi eta Estatua gobernatzen dutenen ekintzak kontrolatu.

Azkenik, kreaturon adostasuna naturala da; gizakumeena hitzarmenez lortua eta, beraz, artifiziala da. Horregatik ez da harritzekoa hitzarmenez gain, beste zerbaite ere behar izatea beren adostasuna etengabea eta iraunkorra izan dadin; eta hau, gizakumeak beldurretan eduki eta beraien ekintzak denon ona bilatzera bideratuko dituen botere komuna da.

Gizakumeei, atzeritarren inbasiotik eta euren arteko zuzengabekerietatik defendatuko dituen eta euren lanaz eta lurraren fruituez elikatu eta pozik bizi ahal izateko segurtasuna emango dien botere komuna eraikitzen bide bakarra, euren botere eta indar guztia gizakume bakar bati edo biltzar bati ematea da, askotariko bozez guztien nahimenak nahimen bakar bat izatera ekarri ahal izateko. Edo gauza bera dena, gizakume bat edo gizakumeen biltzar bat izendatzea euren ordezkari izateko; eta bakoitza jabetzea euren ordezkari denak bake eta segurtasun komunari dagozkion gauzetan egin edo eragiten dituen ekintza guztiez eta norbere burua euren autoretzat hartzea; eta, ondorioz, beren nahimena ordezkari horren nahimenaren menpe eta irizmenak haren irizmenenaren menpe jartzea. Hau baiespina edo adostasuna baino gehiago da; guztien benetako batasuna da pertsona bat eta berarengan, gizakume bakoitzak gizakume bakoitzarekin egindako hitzarmenaren bidez lortua, bakoitzak bakoitzari esan izan balio bezala: Nik gizon hau edo gizonen biltzar hau eskuesten diat eta neure burua gobernatzeko eskubidea ematen zioat, baldin heuk ere heure eskubidea ematen badiok eta beronen ekintza guztiak berdinki eskuesten badiok. Hau eginik, horrela pertsona bakar batengan baturiko gizatalde handi honi ESTATUA deritzo, latinez CIVITAS. Horrelaxe sortzen da LEVIATHAN handi hori, edo, begiramendu gehiagor hitz egiteko, jainko hilkor hori, zeinari zor diogun, Jainko hilezkorren pean, geure defentsa eta bakea. Zeren Estatuko kide den gizakume partikular bakoitzak emandako aginpide horren bidez lortzen baitu hainbesteko botere eta indarra; eta botere eta indar horren beldurra medio, denen nahimenak barruko bakea eta atzerriko etsaien kontrako elkarlaguntza lortzera bideratzea. Eta berarengan datza Estatuaren muina, honelaxe defini dezakeguna: pertsona bat, zeinen egintzen autore jendetza handi bateko kide bakoitza egiten den elkarrekiko hitzarmenez, pertsona horrek denen indar eta bitartekoak erabili ahal ditzan, egoki deritzon moduan, haien bake eta defentsa komunerako.

Eta Estatuaren pertsona hau daramanari, SUBIRANOA deitzen zaio eta botere subiranoa daukala esaten da; eta beste guztiak haren MENEKOAK dira.

Botere subirano hau eskuratzeko bi bide dago. Bat, indar naturalaren bidez, esate baterako gizon batek bere seme-alabak eta hauen seme-alabak bere gobernamenduaren menpeko egiten dituenean, gai delako denak suntsitzeko, ezetz esaten badiote; edo etsaiak gerraz menperatu eta horrela bere nahia betetzera behartzen dituenean, baldintza horren truke bizia barkatuz. Bestea, gizakumeek gizakume baten edo biltzar baten pean borondatez jartzeko beren artean ados daudenean gertatzen da, beste guztiengandik babestuko dituen konfidantza berarengan ipiniz. Bigarren honi, Estatu politikoa edo erakuntzazko Estatua dei dakiok; eta lehenengoari eskuraketazko Estatua. Eta lehenbizi erakuntzazko Estatuaz ariko naiz.

## XVIII

Erakuntzazko subiranoen eskubideak

Estatu bat eratua dela esaten da, gizatalde handi handi bat ados etorri eta elkarren artean hitzarmena egiten dutenean, gehiengoak aukeratzen duen gizakumeari edo gizakumeen biltzarrari guztien pertsonaren ordezkari jartzeko (hau da, euren ordezkari izateko) eskubidea emateko; euren bakoitzak, hala haren alde nola kontra botua eman duenak, gizakume edo biltzar horren ekintza eta irizmen guztiak bereak bailiren eskuetsiko ditu, euren artean bakez eta besteengandik babestuta bizi daitezen.

Estatuaren erakuntza honetatik datoz herriaren baiespenez botere subiranoa eman zaion gizakume edo biltzarraren eskubide eta ahalmen guztiak.

Lehenbizi, hitzarmena egin dutelako, ulertu behar da ez daudela lehenagoko hitzarmenez beharturik honekin kontraesanean dagoen ezer betetzera. Eta, beraz, Estatua eratu eta pertsona baten ekintza eta iritziak beren ekintza eta iritiztat hartzera hitzarmenez beren buruak behartu dituztenek ezin dezakete euren arteko beste hitzarmenik legez egin, haren baimenik gabe, beste ezein subiranori men egiteko ezertxotan ere. Eta horregatik, monarka baten pean daudenek ezin dezakete hark utzi gabe Monarkia hori eraits eta jendetza banatuaren nahasmendura bihur; ezta beren pertsona edo ordezkartza lehen zeramanetik beste gizakume edo biltzar batengana alda ere, zeren bata bestearekin hitzarturik daude jada beren subiranoa denak egiten duen eta egitea egoki deritzon guztiaren jabetasuna eta autoretza beren gain hartzera, halako moldez non, euretako baten bat akort ez izanez gero, gainerako guztiek hautsi egin beharko luketen gizakume honekin egindako hitzarmena, injustizia baita egiten duena. Eta guztiek eman diote subiranotasuna ere beren pertsona ordezkatzan duenari, eta, beraz, kargutik kentzen badute, berea duena kentzen diote eta hau ere injustizia da. Honez gain, bere subiranoa agintetik eraisten saiatzen dena, hark saiakera honengatik hil edo zigortzen badu, bera izango da jasotako zigorraren autore, erakuntzaz bere subiranoak egiten duen guztiaren autore delako. Eta gizakume batentzat injustizia denez zigorra jasotzea ekarriko dion zerbaite bere autoritatez egitea, aspektu honen arabera ere, gizakume hori gaiztoa da. Eta gizakume batzuek beren subiranoari desobeditzearen hitzarmen berri bat egin nahi izan dutenez, ez gizakumeekin, baizik Jainkoarekin, hau ere gaiztoa da; zeren ez baitago Jainkoarekin hitzarmenik haren pertsona ordezkatzan duen norbaiten bitartez izan ezik, Jainkoaren pean subiranotasuna daukan Jainkoaren loktenteak beste inork ezin duelarik hau egin. Baina Jainkoarekin egintzako hitzarmen hau hain gezur garbia da egin izana nahi lukeenaren kontzientzian ere, ezen egintza zuzengabea ezezik, bilau eta gizatxar baten jarrera dela erakusten baitu.

Bigarrenik, denen pertsonak ordezkatzeko eskubidea gizakumeek beren subirano egiten dutenari elkarren artean egindako hitzarmenez ematen diotenez, eta ez hark hauetako inorekin egindako hitzarmenez, subiranoaren aldetik ezin da hitzarmen-hausterik gertatu; eta, beraz, haren ezein menekok ezin du menpekotasunetik askatu hark kontratua hautsi omen duela eta. Subirano izendatua izan denak ez duela alde aurretik bere menekoekin hitzarmenik egin, gauza nabaria da, zeren edo jendetza osoarekin, hitzarmeneko alde bat bezala hartuz, egin behar izan du hitzarmena, edo gizakume bakoitzarekin hitzarmen bat. Jendetza guztia alde bat dela, ezinezkoa da, zeren oraindik pertsona bat ez direlako; eta zenbat gizakume hainbat hitzarmen egiten badu, hitzarmenok baliogabeak izango dira subiranotasuna jaso ondoren, zeren euretako batek hitzarmen-haustetza alega lezakeen edozein ekintza, haren eta gainerako guztien ekintza izango da, beraietako bakoitzaren izenean eta eskubidez egindakoa baita. Honez gain, euretako batek edo gehiagok subiranoak subiranotasuna eratzean egindako hitzarmenaren haustea gertatu dela alegatzen badu, eta menekoetako zenbaitzuk, edo batek, edo subiranoak berak bakarrik, ez dela hausterik izan alegatzen badu, ez dago orduan auzi hau erabaki lezakeen epailerik; eta, beraz, auzia berriro armetara joango da, eta gizabanako bakoitzak bere indarrak babesteko eskubidea berreskuratuko du, erakuntzan zeukaten helburuaren kontra jokatzuz. Alferreko da, beraz, aurreko hitzarmenaren moduko batez subiranotasuna ematea. Monarka orok bere boterea hitzarmenez, hots, baldintzapean hartzen duen iritzia, egia erraz haxe ez ulertzetik dator, alegia, itunak, hitzak eta pitzak besterik ez izaki, ez daukatela inor behartu, eutsi, gerarazi edo babesteko ezpata publikotik datorkiena beste indarrik, hau da, subiranotasuna daukan gizakume edo biltzarraren esku askeetatik datorkiena, zeinen ekintzak meneko guztiek eutsiak eta berarengan baturik dauden guztien indarrak burutuak diren. Baina biltzar bat subirano egiten denean, inork ez du iruditzen erakundera horrelako itunik pasa denik. Zeren inor ez baita zera esateko bezain tentela, adibidez, Erromatar Herriak erromatarrekin subiranotasuna halako eta halako baldintzen pean izateko hitzarmena egin zuela, berau bete ezean erromatarrek Erromatar Herria agintetik kentzeko ahalmena izanik. Eta hori monarkian zein herri-gobernamendu batean berdin gertatzearen arrazoia jendeak ez hautematea zenbaiten handinahitik dator, begi hobez ikusten baitute herri-gobernamendua (hemen eurak ere tarteko izan daitezkeelako) monarkia baino (azken honetan parte izateko inolako esperantzarik ez daukate eta).

Hirugarrenik, gehiengoak, bozetan bat etorritik, subiranoa aldarrikatu duelako, akort ez dagoenak ere orain bat etorri beharko du besteekin; hau da, subiranoak egingo dituen ekintza guztiak onartu beharko ditu, gehiengoak suntsitzea nahi ez badu. Zeren biltzartuta zeudenen elkartean nahita sartu bada, nahikoa den bestean agertu du bere nahia (eta horregatik hitzarmen tazitua egin du) gehiengoak erabakitzen duena onartzeko; eta, horregatik, hau onartzeari uko edo gehiengoak erabakitakoari protesta egiten badio, egindako hitzarmenaren kontra, eta beraz injustuki, jokatzan du. Eta elkarteko kide izan zela edo ez, bere iritzia eskatu zitzaioela edo ez, hartutako erabakien pean jarri beharko du edo bestela lehen zeukan gerra-egoeran geratu beharko du eta edozein gizakumek suntsitu ahal izango du injustiziarik gabe.

Laugarrenik, erakuntza honen bidez meneko bakoitza eraturiko subiranoaren ekintza eta irizmen guztien autore denez, hemendik dator ezen hark egindako ezer ezin daitekeela meneko batentzat ere zuzengabekeria izan, eta hauetariko batek ere ezingo duela injustiziaz akusatu. Zeren beste baten eskuespenaz zerbaite egiten duenak, ez dio zuzengabekeriari egiten hori egiteko eskuespena eman

zionario. Estatuaren erakuntza honen bidez, gizabanako bakoitza subiranoak egiten duen ororen autore da, eta, beraz, subiranoak injustizia egin izanaz kexatzen dena, bera autore den zerbaitez kexatzen ari da, eta horregatik ez luke bere burua beste inor akusatu behar; eta ez luke bere burua ere zuzengabekeriak akusatu behar, ezinezkoa delako nork bere buruari zuzengabekeriarik egitea. Egia da botere subiranoa dutenek inikitatea jauki dezaketena, baina injustiziarik edo zuzengabekeriarik zentzu propioan ez.

Bosgarrenik, eta arestian esandakoaren ondorio, botere subiranoa duen inori ezin diote menekoek heriotza-zigorra ez bestelako zigorrak ezarri. Zeren, meneko bakoitza bere subiranoaren ekintzen autore denez, berak egindako ekintzengatik beste bat zigortuko bailuke.

Eta erakunde honen xedea denen bakea eta defentsa denez, eta xederako eskubidea duenak bitartekoetarako eskubidea ere baduenek, subiranotasuna duen gizon edo biltzarrari eskubidez dagokiona da bake eta defentsarako bitartekoen eta oztopo eta nahasmenduen ere epaile izatea, eta egin behar dela ikusten duen guztia egitea, bai alde aurretik bakea eta segurtasuna barruko diskordietatik eta atzerriko etsaiengandik aurrezaintzeko, eta bai bakea eta segurtasuna galtzen direnean berreskuratzeko. Eta, beraz, Seigarrenik, subiranotasunari bakearen kontrako eta aldeko diren iritzi eta doktrinen epaile izatea datxeko, eta, ondorioz, baita ere gizakumeek jendetzei hitz egitean, zein egokieratan, zenbateraino, eta zeri buruz jarri behar den konfidantza hizlariengan, eta liburu guztiak publikatu aurretik nork aztertuko dituen erabakitzea. Zeren gizakumeen ekintzak euren iritzietatik datoz eta iritzia ongi gobernatzean datza gizakumeen ekintzen gobernua, euren bakea eta konkordia erdiesteko. Eta doktrina kontuan egia besterik begiratu behar ez bada ere, egia bakearen bidez erregulatzea ez dago honen kontra. Zeren bakearen kontra dagoen doktrina ezin da lege naturalaren kontra legokeen bake eta konkordia baino egiazkoagoa izan. Egia da agintarien eta irakasleen utzikeria edo ezgaitasunarengatik doktrina faltsuak jeneralean zabaltzen diren Estatuan, kontrako egiak eskuarki erasokorrak izan daitezkeela. Hala ere, egia berri baten agerpen bat-bateko eta bortitzenak ere ez du inoiz bakea hausten, batzuetan gerra piztu baizik. Zeren iritzi bat defendatu edo sartzeko armak hartzen ausartzerainoan zabarko gobernaturik dauden gizakume horiek, oraindik ere gerran ari dira, eta ez daude bake-egoeran, elkarren beldurrak eragindako suetenean baizik, eta bataila hastear dutela bizi dira etengabeki. Horregatik, botere subiranoa daukanari epaile izatea edo iritzi eta doktrinen epaile guztiak eratzea dagokio, bakerako beharrezko dena berau, diskordia eta gerra zibiletik aurrebabesteko.

Zazpigarrenik, subiranotasunari datxeko, gizakume bakoitzak, menpekide dituenetako ezeinek molestatu gabe, zein ondasunez goza eta zein ekintza buru dezakeen jakiteko behar dituen arau guztiak ezartzeko aginpide osoa. Eta hau gizakumeek jabetza esaten diotena da. Zeren botere subiranoa eratu aurretik (lehen esan bezala), gizakume guztiek baitzuten gauza guztietarako eskubidea, honek ezinbestez gerra zekarrelarik, eta, beraz, jabetza hau, bakerako beharrezko eta botere subiranoaren pean dagoena izaki, botere horren egintza da bake publikoa lortzeko. Jabetzaren arauok (edo meum eta tuum) edo menekoen ekintzetan ona, txarra, legezkoa, legezkontrakoa denaren arauok, lege zibilak dira, hots, Estatu bakoitzaren legeak, lege zibilaren izena orain Erroma hiriko antzinako legeetara mugatzen bada ere, Erroma orduan munduko zati handi baten buru izaki, hango legeak baitziren garai horretan alde horietako Lege Zibila.

Zortzigarrenik, subiranotasunari epailetzarako eskubidea datxeko, hau da, legeaz, zibilaz zein naturalaz, edo egitatez sor daitezkeen eztabaida guztiak entzun eta erabakitzeke eskubidea. Izan ere, eztabaidak erabaki ahal ezean, menekoek ez dute bata bestearen zuzengabekeriak defendatzerik, meum eta tuum-ari dagozkion legeak alferrekoak dira eta gizakume bakoitzak, bere biziraupenerako berezko eta beharrezko dituen gutzien eraginez, bere indar pribatuaz bere burua babesteko eskubidea dauka, hau gerra-egoera delarik eta Estatu oro eratzean jarritako xedearen kontrakoa.

Bederatzigarrenik, subiranotasunari beste nazio eta Estatuekin gerra eta bakea egiteko eskubidea datxeko; hau da, erabaki hori noiz den herriaren onerako eta zein neurritako indarrak bildu, armatu eta ordaindu behar diren eta gastu horiei erantzuteko menekoengandik zenbat diru batu behar den ebazteko eskubidea. Zeren herriak defentsarako daukan boterea bere armadan datza, eta armadaren indarra guztien indarra aginte baten pean batzean dago, aginte hau eraturiko subiranoari dagokiolarik, zeren militiaren aginteak, beste erakunderik ez dagoenean, berau daukana egiten baitu subirano. Eta horregatik armada bateko jeneral egiten dutenak jeneralisimo bat izango du beti bere gainetik, botere subiranoa izango duena.

Hamargarrenik, subiranotasunari datxeko kontseilari, ministro, magistratu eta funtzionario guztiak aukeratzea, hala bake nola gerra garaian. Zeren, kontuan izanda subiranoak xedea, hots, bake eta defentsa komuna erdiesteko ardura duela, bere helburu hau lortzeko egokientzat dituen bitarteko guztiak erabiltzeko aginpidea duela ulertzen baita.

Hamaikagarrenik, subiranoari bere menpeko oro aberastasun eta ohoreez saritzeko eta gorputz edo diru-zehapenez, edo laidoz, zigortzeko aginpidea dagokio, alde aurretik ezarria dukeen legearen arabera; eta legerik egin ez badu, gizakumeak Estatu zerbitzera animatzeko, eta des-zerbitzurik egitetik apartatzeko, egokientzat duen bidearen arabera.

Azkenez, kontuan izanda gizakumeek nolako balioa ematen dieten beren buruei, nolako errespetua espero izaten duten besteengandik eta zein balio txikia ematen dieten besteei, honek euren arteko etengabeko norgehiagoka, liskarrak eta alderdikeria eta, azken batean, gerra sortuz, elkar suntsitzea eta etsai komunaren kontrako indarra gutxitzea dakarrelarik, beharrezko da Estatua ongi zerbitzatu izan duten edo zerbitza dezaketen gizakumeen balioa neurtzeko ohore-legeak eta ebaluazio publikoa izatea; eta lege horiek betearazteko indarra norbaiten eskuetan izatea. Baina lehen azaldua dugu militia osoa edo Estatuaren indarrak ezezik, eztabaida eta auzi ororen epailetza ere subiranotasunari datxekola. Subiranoari dagokio, beraz, ohore-tituluak ematea eta gizakume bakoitzak zein leku eta duintasun-ordena izango duen eta zernolako errespetu-seinaleak emango dien elkarri bilera publiko eta pribatuetan erabakitzea.

Hauexek dira subiranotasunaren funtsa osatzen duten eskubideak; eta gizakumeak botere subiranoa zein gizakume edo biltzarretan dagoen bereizteko dituen seinaleak dira. Zeren eskubide hauek komunikagaitzak eta banaezinak dira. Moneta txanpontzeko eskubidea, adin txikiko oinordekoen ogasun eta pertsoenez ebaztekoa, merkatuetan erosteko lehentasuna eta beste estatutu-eskubide guztiak subiranoak transferi ditzakeenak dira, bere menekoak babesteko eskubidea atxikiz, hala ere. Baina militia transferitzen badu, alferrik dauka epailetza, ez baitu legea betearazteko modurik; eta dirua biltzeko eskubideari uko egiten badio, alferrik da militia eduki nahi izatea; eta doktrinak kontrolpetzeko eskubidea uzten badu, gizakumeak errebelatu egingo dira izpirituen beldurrez. Eta horrela, esandako eskubideetako edozein aztergai hartu eta bera gabe geratuz gero, ikusiko dugu gainerako guztiak izateak ez duela eraginik izango bakea eta justizia gordetzeko, hots, Estatu oro eratzean izandako xedea erdiesteko. Eta banaketa honexetaz ari da harako hura, hots, bere baitan banandurik dagoen erresumak ezin du iraun. Zeren, horrelako banaketa aurretik gertatu ezean, ezin daiteke elkarren kontrako armaden banaketarik gerta. Ingalaterrako zati handienez zabaldurik egon ez balitz botere hauek erregearen, lorden eta Komunen Ganbararen artean banandurik zeuden iritzia, herria ez zatekeen sekula banandu eta gerra zibil honetan erori, lehenbizi politikaz bat ez zetozenen artean eta gero erlijio askatasunaz ados ez zeudenen artean. Eta honek eskubide subiranoari buruzko puntu honetan halako moldez irakatsi dio jendeari, non gaur egun gutxi baitira Ingalaterran eskubide hauek banaezinak direla ikusten ez dutenak, eta horrelaxe aitortuko dira eskuarki hurrengo bake-garaia datorrenean; eta horrelaxe aitortzen jarraituko dute, beren miseriak ahortzi arte; eta ez luzaroago, herria gaurdaino baino irakaspen hobez hornitu ezean.

Eta eskubide funtsezko eta banaezinak direlako, hemendik nahitaez dator ezen, nahiz eta eurotako baten batek halako edo holako hitzez transferitua dirudien, botere subiranoari berari hitz esplizituz uko egiten ez bazaio eta emakidadunek emakida egiten duenari subiranoaren izena ematen ez badiote, emakida baliogabea da, zeren hark ahal duen guztia eman duenean, subiranotasuna bihurtzen badiogu, dena jasotzen du berriro hari banaezinki atxikitako gauza bezala.

Aginpide handi hau banaezina eta subiranotasunari bereizgaizki atxikia denez, ez du oinarri handirik errege subiranoak singulis majores diren arren, universis minores, hots, meneko guztiak batera hartuta baino botere txikiagokoak direla dioten iritzia. Zeren guztiak batera diotenean gorputz kolektiboa pertsona bat bezala esan nahi ez badute, orduan bakoitza eta guztiak batera gauza bera esan nahi duten esamoldeak dira, eta hizkera hori absurdua da. Baina denak batera esatean pertsona bat ulertzen badute (pertsona hau subiranoak errepresentatzen duena delarik), orduan denek batera duten boterea eta subiranoarena gauza bera da, eta hizkera hau ere absurdua da; absurdu honetaz ongi ohartzen dira subiranotasuna biltzar batean dagoenean, baina ez monarka batean dagoenean; hala ere, subiranotasuna gauza bera da batean zein bestean egon.

Eta boterea bezala, subiranoaren ohoreak ere meneko bakoitzarena eta guztiena baino handiagoa izan behar du, ohorearen iturria subiranotasunean baitago. Lord, konte, duke eta printze karguak hark sortutakoak dira. Nola ugazabaren aurrean zerbitzariak berdina eta ohorerik gabekoak diren, halaxe menekoak ere subiranoaren aurrean. Eta haren bistatik aparte daudenean, batzuk besteak baino distiratsuagoak izan arren, hura aurrean dutenean, ez dute izarrek eguzkiaren aurrean baino distira handiagorik.

Norbaitek hemen iharduki dezake menekoen egoera oso miserablea dela, eskuetan horrelako botere mugagabea daukan edo daukatenen desira eta beste grina irregularren pean bizi direlako. Eta jeneralean monarka baten pean bizi direnek monarkiaren akatsa dela uste izaten dute, eta gobernu demokratiko baten pean edo edozertariko beste biltzar baten pean bizi direnek Estatu-era horrexeri egozten diote oker guztia. Hala ere, boterea, era guztietan, menekoak babesteko lain perfektua bada, berdina da. Eta kexatzen direnak ez dira ohartzen gizakumearen egoera ezin dela inoiz ere deserosotasun bat edo beste gabekoa izan, eta edozein gobernu-eratan herriak jeneralean izan dezakeen handiena ere apenas dela kontuan hartzekoa, gerra zibil batek ekartzen dituen miseria eta lazeria izugarriekin konparatuta, edo gizakumeek ez nork agindurik ez legearekiko menpetasunik gabe, eta harrapakeria eta mendekutik apartatzeko indar behartzaileak gabe dihardutenean izaten duten egoera zabarraren ikusian. Ezta ere ez dute kontuan hartzen gobernatzaile subiranoen presiorik handiena ez datorkiela haiek hartzen duten plazerretik, ezta menekoei min emaketik edo berauek ahultzetik atera lezaketen onuratik, menekoen sendotasunean



baitatza haien indarra eta gloria. Presio hori, aitzitik, menekoen gobernagaiztasunetik dator, beren defentsarako laguntza gogo txarrez ematen dutenez gero, bake-garaian eurengandik ahal duten guztia ateratzera behartzen baitituzte gobernatzaileek, horrela edozein larrialdi edo bat-bateko premiatan, etsaiei eusteko edo abantaila hartzeko bitartekoak eduki ahal izateko. Zeren gizakume guztiek izaeraz handipen-betaurreko nabarmenak dituzte (euren grinak eta buru-maitasuna) eta eurokin begiratuta edozein ordainketa txikiri kexagarri irizten diote; baina perspektibadun betaurrekorik (moralak eta zientzia zibila) gabe daude, gainera datozkien eta ordainketa horiek gabe ekidin ezin daitezkeen miseriak urrunetik ikusteko.

## XIX

Erakuntzazko Estatu mota ezberdinez eta botere subiranorako oinordetzaz

Estatuen arteko ezberdintasuna, subiranoen arteko edo jendetza guztiaren eta kide bakoitzaren ordezkari diren pertsonen arteko ezberdintasunean datza. Eta subiranotasuna edo gizakume batengan edo bat baino gehiagoko biltzarrean dagoenez, biltzar honetara sartzeko eskubidea edo gizakume orok edo gainerakoengandik bereizten diren zenbait gizakumek duenez, argi dago hiru motatakoak izan daitezkeela Estatuak. Zeren ordezkaria edo gizakume bakar batek edo bat baino gehiagok izan behar du; eta bat baino gehiago bada, denen biltzarra edo zati batena da. Ordezkaria gizakume bat denean, Estatu MONARKIA da; elkarrenganatu gura duten guztien biltzarra denean, DEMOKRAZIA edo herri-Estatua da; ordezkaria herri zati baten biltzarra denean, ARISTOKRAZIA deitzen zaio. Beste Estatu motarik ezin da izan, zeren edo batek, edo bat baino gehiagok edo denek izan behar dute botere subirano osoa daukatenak (zeina, azaldu dudana bezala, banaezina den).

Politikako historia eta liburuetan beste gobernu-izen batzuk ere agertzen dira, hala nola tirania eta oligarkia. Baina ez dira gobernu-erakundeak izenak, lehengo eurenak baizik, ezesten ditugunean. Zeren monarkia baten pean kexu direnek tirania deitzen diote, eta Aristokraziarekin pozik ez daudenean, oligarkia. Era berean, Demokrazian minduta bizi direnek, Anarkia (gobernamendurik eza esan nahi du) deitzen diote. Baina pentsatzen dut inork ez duela uste gobernamendurik eza gobernu-erakunde bat denik; eta arrazoi berarengatik ez lukete uste izan behar, gobernuak atsegin dutenean era batekoa denik eta beste era batekoa desatsegin dutenean edo gobernatzaileek zapalduta aurkitzen direnean.

Begibistakoa da askatasun osoan bizi diren gizakumek gizakume bati eman ahal diotela eskuespena, nahi badute, denak ordezkari ditza; edo edozein biltzarri ere eman ahal diotela eskuespen hori; eta ondorioz monarkia baten pean jar daitezke, egoki baderitzote, beste edozein ordezkariaren pean bezalaxe. Horregatik, botere subiranoa eraikita dagoen tokian, herri beraren beste ordezkariarik ezin izan daiteke, subiranoak mugaturiko xede partikularretarako izan ezik. Zeren bi subirano jarriko balira eta nork bere burua bi aktorek, bata bestearen kontrakoak, ordezkatu balu, boterea banatu egin beharko litzateke, hau (gizakumek baketan bizi nahi badute) banaezina delarik, zeren banatzeak gerra-egoerara eramango bailituzke gizakumeak, eta hau subirano oro eratzearen xede den bakearen kontrako da. Eta horregatik, absurdua denez pentsatzea biltzar subirano batek bere menpeko herria gonbidatuko duela euren diputatuak bidaltzera, euren iritzia eta nahiak jakinarazteko ahalmen guztia emanda eta euren ordezkari bakartzat beraiek barik diputatu horiek jarrita, berdina da absurdua hau berau monarkia batean gertatzen dela pentsatzea. Ez dut aditzen nola ez den jendea horrelako egia begibistako batez ohartu azken garaian: hau da, 600 urteko oinordetza zuen monarkia batean, Subirano deitzen zioten bakarria, bere meneko guztientzat Maiestate titulua zuena, eta denak eztaibadarik gabe erregetzat hartua zena, ez zutela, hala ere, beren ordezkariatzat hartzen, ordezkariatza hau erregearen aginduz herriak bere eskariak ordezkatzeko eta erregeari (honek utziez gero) aholkua emateko bidalitako gizakumeei eratxikiz. Honek abisutzat balio lezake herriaren egiazko eta osoko ordezkariak direnak jendearen lanbide honen natura ongi irakatsi diezaioten eta kontuan izan dezaten inolako zirkunstantzian ezein beste ordezkariatza orokorrik onartzea, baldin euren jarritako konfidantzari erantzun nahi badiote.

Hiru Estatu moten arteko aldea ez datza botere ezberdintasunean, bakea eta herriaren segurtasuna ekartzeko komenentzia edo gaitasun ezberdintasunean baizik, horrexetarako eratu ziren eta. Eta monarkia beste biek konparatzean ohar gaitzake, lehenbizi, herriaren pertsona ordezkatzeko duen edo haren ordezkari den biltzarreko kide den edonork bere pertsona ere ordezkatzeko duela. Eta, pertsona politikoa gisa, denon interesa erdiesteaz arduratzen den arren, gehiago arduratzen da, edo ez gutxiago bederen, bere ona, familiarena, senitartekoena eta lagunena erdiesten; eta gehienetan, interes publikoa bere interes pribatuaren kontra etortzea suertatzen bada, berearen aldeko aukera egiten du, gizakumeei grinak arrazoimena baino indartsuagoak izaten baitira. Hemendik ateratzen da ezen zenbat eta elkarri lotuago egon interes publiko eta pribatua, orduan eta aurreratuago egoten dela publikoa. Orain bada, monarkian interes pribatua publikoaren berdina da. Monarkaren aberastasun, botere eta ohorea bere menekoen aberastasun, indar eta itzaletik soilik sortzen dira. Zeren ez dago errege aberats, loriatsu eta segururik, haren menekoak pobreak, mesprezagarriak edo, dirurik ezagatik edo euren arteko banaketagatik, etsaien kontra gerra egiteko ahulegiak badira. Demokrazia edo aristokrazia batean, osterak, prosperotasun

publikoak ez dio ustela edo handinahia den gizakumeari sarritan ematen, aholku gaizto batek edo saldukeria batek edo gerra zibil batek ematen dion adina.

Bigarrenik, ohar gaitezke monarka batek berak nahi duenarengandik, nahi duenean, eta nahi duen tokian hartzen duela aholkua; eta, beraz, deliberatzen ari den gaitan edozein lerrune edo kategoriatako adituen iritzia jaso dezake, jarduteko ordua baino askoz lehenago eta nahi duen adinako sekretutasunaz. Baina biltzar subirano batek aholku beharra duenean, hasieratik aholkatzeko eskubidea dutenak izan ezean, beste inor ere ezin da kontseilartzat onartu, zeintzuk ezagutza baino aberastasuna eskuratzen adituagoak izaten diren gehienetan, eta gizakumeak ekintzarako bero ditzaketen eta gehienetan berotu ere berotzen dituzten baina ekintzan gobernatzen ez dituzten hitzaldi luzeetan aholkua ematen duten horietakoak. Zeren grinena garra argitu sekula ere ez du egiten adimena, itsuarazi baizik. Biltzar batean, gainera, ez dago ez lekuri ez tarterik kontseilua sekretutasunez jasotzeko, asko direlako.

Hirugarrenik, ohartzen gara monarka baten ebazpenak giza naturari dagozkion iraupegabetasunen pean baino ez daudela, baina biltzarretan, berezkoaz gain, kopurutik sortzen da iraupegabetasuna. Zeren ebazpena behin hartuz gero tinko mantenduko zuketena gutxi batzuen ausentziak (ausentzia hau segurtasunagatik, utzikeriagatik edo eragozpen pribatuengatik gerta daitekeelarik), edo kontrako iritziko gutxi batzuk arduraz biltzarretaz, atzo erabakitakoa gaur desegitea dakar.

Laugarrenik, ohartzen gara monarka bat ezin dela bere buruarekin desakort egon inbidia edo interesa bitarteko dela; baina biltzar batean gerta daiteke hau, gerra zibil bat sortzeraino gertatu ere.

Bosgarrenik, ohartzen gara monarkia batean honako eragozpen haxe dagoela: edozein menekori, kutun edo lausengatzaile bat aberastu nahi duen gizakume bakar baten botereak, daukan guztia ken diezaikeela, eta aitortu beharra dut hau eragozpen handi eta ekidinezina dela. Baina gauza bera gerta daiteke botere subiranoa biltzarrek daukanean ere, zeren haien boterea ere berdina baita, eta haiek ere aholku txarren eta hizlarien liluraren arriskupean daude erregea lausengatzaileen arriskupean dagoen bezalaxe; eta bata bestearen lausangatzaile bihurtzean, txandakatuz doaz elkarren diruzalekeria eta handinahia bultzatzeko lanean. Eta monarken kutunak gutxi diren bitartean eta beren familiaren aurreramendua lortzea beste ardurarik ez dutenak, biltzar baten kutunak asko dira eta euren familia ezein monarkarena baino ugariagoa. Honez gain, ez dago inongo monarkaren kutunik, lagunei lagundu eta era berean etsaiei kalte egin ezin diezaikeenik; baina hizlariak, hots, biltzar subiranoen kutunek, kalte egiteko botere handia daukaten arren, inolakorik ere ez daukate inor salbatzeko. Zeren akusatze desenkusatzeko baino bokantza handiagoa behar da (horrelakoxea baita giza natura), eta kondena absoluzioak baino justizi antz handiagoa dauka.

Seigarrenik, monarkiaren eragozpen bat da subiranotasuna haurtxo batengana edo ongia gaizkitik bereizi ezin duen batengana etor daitekeela; eta eragozpena honako honexetan datza: haren boterearen erabilerak haren eskubidez eta haren izenean, haren pertsona eta aginpidearen zaintzaile eta babesle gisa gobernatuko duen beste gizakume edo biltzar baten eskuetan izan behar duela. Baina botere subiranoaren erabilera gizon baten edo biltzar baten eskuetan jartzea eragozpena dela esatea, gobernu orok nahasmentuak eta gerra zibilak baino eragozpen gehiago dituela esatea da. Eta, beraz, alega daitekeen arrisku guztiak hain ohore eta onura handiko kargua nahi dutenengandik etorri behar du nahitaez, elkarren lehian jokatu beharra daukatelako. Eragozpen hau monarkia deitzen dugun gobernu-eratik ez datorrela argi uzteko, kontuan hartu behar dugu aurreko monarkak izendatua daukala bere oinorde izango den haurraren tutoretza nork izango duen, espresuki egindako testamentuaren bidez, edo tazituki, honetarako dagoen ohituraren aldaketarik ez eginez. Eta orduan eragozpen hori (gerta baledi) Monarkiari barik menekoen handigura eta injustiziari egotzi behar zaio, horrelako gauzak berdin gertatzen direlarik subiranotasunaren eskubideak eta menekoak harekiko dituzten eginbeharrak ongi irakatsi barik dituzten herrietako edozein gobernu-eratan. Eta aurreko monarkak tutoretza hori ezartzeko inolako neurririk hartu ez badu, orduan lege naturalak nahikoa den honako arau haxe damaigu: haurraren aginpideari eusteko interesik handiena duenak eta honen heriotzak edo gutxiespenak onurarik gutxien dakarkionak har dezala tutoretza. Zeren, ikusirik gizakume bakoitzak bere onura eta aurreramendua bilatzen duela berez, haurra haren suntsipen edo kaltetik abantaila pertsonalak atera ditzaketen eskuetan jartzea, tutoretza barik traizioa da. Horrela bada, haur baten pean dagoen gobernamenduari buruzko kereila justu ororen kontrako neurriak hartu direnean, bake publikoa nahas dezan istilurik sortzen bada, ezin zaio hau monarkiazko gobernu-erari egotzi, menekoen handigurari eta beren betebeharra zein den ez jakiteari baizik. Bestalde, subiranotasuna biltzarrean daukan Estatu handi batik ere ez dago, bake, gerra eta legeriari buruzko deliberamenduetarako gobernamendua haur baten pean balego bezalaxe aurkitzen ez denik. Zeren, nola haur bati irizmena falta zaion ematen zaion aholkuarekin desakort azaltzeko, eta, beraz, bere tutoretza daramanak, edo daramatenek, emandako kontseilua onartu beharra daukan, halaxe biltzarri ere gehiengoaren aholkuarekin, txarra zein ona dela berau, bat ez etortzeko askatasuna falta zaio. Eta haurrak bere pertsona eta aginpidea babesteko tutore edo babeslea behar duen bezala, halaxe, Estatu handietan, biltzar subiranoak, arrisku eta zailtasun handiko aldietan, custodes libertatis, hots, diktadoreak edo bere agintearen babesleak behar ditu, zeintzuk behinbehineko monarkak bezalakoak diren, aldi baterako

biltzarraren boterearen erabilera guztizkoa ematen zaielarik; eta aldi hau igaro ondoren, errege hurrei euren babesle, erretorde edo beste edozein tutorek boterea kentzen dien baino maizagotan izaten da biltzarra bere botereaz gabetua.

Subiranotasun motak, azaldu dudan bezala, hiru besterik ez badira ere, hau da, monarkia, subiranotasuna pertsona bakar batek daukanean; edo demokrazia, subiranotasuna menekoen biltzar orokorrak daukanean; edo aristokrazia, subiranotasuna besteak izendatu edo nolabait bereizitako zenbait pertsonak daukatenean, munduan zehar diren eta izan diren Estatu konkretu guztiak kontuan hartzen dituenak, ezingo ditu agian hiru motatara aise murriztu eta aiherriz izango da hirurok nahasiz sorturiko beste mota batzuk ere badaudela uste izatera. Horrela gertatzen da, adibidez, Hautapenezko Erresumetan, non erregeek aldi baterako duten beren eskuetan boterea, edo monarkak botere mugatua duen erresumetan, idazleek, hala ere, monarkiak deitzen dieten gobernuak direlarik. Antzera batean, Estatu herritar edo aristokratiko batek etsai baten herria menperatzen badu eta presidente, prokuradore edo beste magistratu baten bidez gobernatzen badu, lehen ikusian akaso gobernu demokratiko edo aristokratiko bat eman lezake. Baina ez da hori. Zeren hautapenezko erregeak ez dira subiranoak, subiranoaren ministroak baizik; errege mugatuak ere ez dira subiranoak, botere subiranoa daukatenean ministroak baizik, eta beste Estatu baten demokrazia edo aristokraziaren pean dauden probintziak ere ez dira demokratikoki edo aristokratikoki gobernatuak, monarkikoki baizik.

Eta lehenik, boterea bere bizitzak diraueno mugaturik duen hautapenezko erregeari dagokionez, gaur egun Kristandateko herrialde askotan gertatzen dena berau, edo zenbait urtetara mugaturik, Erromatarren artean diktadoreen boterea bezala, monarkak bere oinordea izendatzeko boterea badu, ez da hautapenezkoa izango, heredagarria baizik; baina bere oinordea aukeratzeko botereirik ez badu, beste gizakume edo biltzar jakin bat izango da subiranoa zendu eta gero subirano berria aukeratu ahal izango duena, edo bestela Estatua hil eta berarekin batera ezabatzen da, eta gerra-egoerara doa berriro. Subiranoa hil eta gero subiranotasuna emateko boterea nortzuek daukaten jakinez gero, badakigu aurretik ere subiranotasuna eurek zeukaten, zeren inork ez baitu edukitzeko eskubiderik ez duen zerbait emateko eta, egoki baderitzo, beretzat gordetzeko eskubiderik. Baina lehen hautaturikoa hiltzean subiranotasuna eman ahal duenik ez balego, orduan bera da ez bakarrik boterea daukana, baizik lege naturalak beharturik dagoena oinorde bat izendatuz boterea segurtatzera, gobernatzeko ardura eman ziotenak atzera berriro gerra zibileko egoera errukarrira itzul ez daitezten. Eta kasu honetan, beraz, hautatua izan zenean subirano absolutua zen.

Bigarrenik, boterea mugatua duen erregea ez da mugatzeko ahalmena izan zuen edo zutenak baino goragokoa; eta goragokoa ez dena ez da gorena, hau da, ez da subiranoa. Subiranotasuna, beraz, hura mugatzeko eskubidea izan zuen biltzarraren baitan izan zen beti; eta, ondorioz, gobernu monarkiko mugatua ez da monarkia, demokrazia edo aristokrazia baizik, antzina Espartan zeukatena bezalakoa, non erregeek armaden buruzagi izateko pribilegioa zeukaten, baina subiranotasuna Eforoengan zegoen.

Hirugarrenik, nahiz eta antzina Judeako lurraldea Erromatar herriak gobernatzen zuen, adibidez, presidente baten bitartez, ez zen Judea, hala ere, demokrazia, juduak ez zituelako eurentako edozeinek sartzeko eskubidea zeukan biltzarrak gobernatzen; aristokrazia ere ez zen, eurek aukeraturiko inor sar zitekeen biltzarrak gobernatzen ez zituelako. Gobernatzen zituena pertsona bat zen, zeina Erromatar herriarentzat herri-biltzarra edo demokrazia bazen ere, Judeako herriarentzat, zeinak gobernuan parte hartzeko inolako eskubiderik ez zeukan, monarka bat zen. Zeren, nahiz eta herria eurek euren artetik aukeraturiko biltzarrak gobernatua den tokian hango gobernuari demokrazia edo aristokrazia deritzon, berek hautatu ez duten biltzarrak gobernatzen ez baditu, hori monarkia da, ez gizakume batena beste gizakume batengan, baizik herri batena beste herri batengan.

Gobernu-era guztion gaia hilkorra denez, erregeak ez ezik biltzar osoak ere hiltzen baitira, beharrezko da bakeak iraun dezan, gizakume artifizial bat jartzea ebatzi zen moduan bizitzaren betierekotasun artifiziala ere ebatzea, hau barik biltzarrak gobernatutako gizakumeek aldian-aldian berriro gerra-egoerara bueltatuko lirakeelako, eta gizakume batek gobernatutakoak ere egoera berera itzuliko lirakeelako beren monarka hil bezain laster. Betierekotasun artifizial hau gizakumeek oinordetza- eskubidea deitzen diotena da.

Oinordetza ebatzea subirano denaren eskuetan ez dagoen tokian ez dago gobernu-era perfekturik. Zeren beste norbanako baten edo biltzar jakin baten eskuan badago, meneko den pertsona batengan baitago, eta Subiranoak nahi duenean beregana dezake; eta beraz eskubidea berak dauka. Eta norbanako batengan ez badago, aukeraketa berri baten menpe utzita dagoelako, orduan Estatua desegin egiten da eta eskubidea eskuratu ahal duenak dauka, hau Estatua aldi baterako barik betiko beren segurtasunerako eratu zutenen asmoen aurkakoa delarik.

Demokrazian, biltzar osoa ezin da desegin edo bukatu, gobernatua izan behar duen jendetza guztia ere desegin ezean. Eta horregatik oinordetza-eskubidea bezalakoa arazoek ez dute lekurik horrelako gobernu-eran.

Aristokrazian, biltzarreko kideren bat hiltzen denean, haren ordezkoa hautatzea biltzarrari dagokio, kontseilari eta funtzionari guztiak hautatzea dagokion subiranoa denez. Zeren ordezkariak aktore gisa dagiena, meneko guztiek dagite autore gisa. Eta, nahiz eta biltzar subiranoak eman diezaiekeen beste batzuei ahalmena gizakume berriak hauta ditzaten euren gortea hornitzeko, hautapen hau, hala ere, biltzarraren eskuespenez egiten da eta honek, beraz, herriaren onak eskatzen duenean, kontraerabaki dezake.

Oinordetza-eskubideari buruz dagoen zailtasunik handiena monarkian dago. Eta zailtasuna honako honetatik sortzen da, alegia, lehen ikusian ez dagoela argi nork izendatu behar duen oinordea, eta maiz nor izan den izendatua ere ez dagoela argi. Zeren kasu biotan gizakumeek ohi dutena baino arrazonomendu zehatzagoa erabili behar baita. Aginpide subiranoa duen monarkaren oinordea nork izendatu behar duen, hau da, heredatzeko eskubideari buruz nork erabaki behar duen zehazteko (zeren hautapenezko errege eta printzeek beren botere subiranoa ez baitute jabetzaz, erabileraz baizik), bitako bat pentsatu behar dugu, edo botere subiranoa daukanak duela oinordetza ebazteko eskubidea, edo eskubide hori berriro ere desegindako jendetzarengan dagoela. Zeren botere subiranoa jabetzaz daukanaren heriotzak inolako subiranorik gabe uzten baitu jendetza, hau da, jendetza horretako kideek batzeko eta ekintzak egin ahal izateko behar duten ordezkariarik gabe. Eta, beraz, monarka berria aukeratzeko ere ez dira gai, gizakume bakoitzak eskubide berdina daukalako ongien babestuko duela uste duenaren menpean jartzeko; edo, ahal badu, bere ezpataz babestuko du bere burua, hau nahasmendura eta gizakume bata bestearen kontrako gerra-egoerara itzultzea delarik, monarkia lehenengoz eratzean izandako xedearen aurkakoa dena berau. Horregatik, argi dago ezen, monarkiaren erakuntzaren indarrez, oinordetza ebaztea subiranotasunaren oraingo jabe denaren irizmen eta nahimenaren pean dagoela.

Eta batzuetan sor daitekeen zalantzari dagokionez, hots, monarkak bere boterearen oinorde eta jaraunsle izendatu duena nor den, hori monarkaren hitz espresu eta testamentuaz, edo indarrik aski duten beste zeinu tazitu batzuez zehazten da.

Hitz espresuz, edo testamentuz, oinordetza bere bizitzaldian edo viva voce, edo idatziz deklaritzen duenean zehazten da, Erromako enperadoreek beren jaraunsle nor izango zen deklaritzen zuten bezala. Zeren jaraunsle hitzak berez ez du esan nahi gizakume baten seme-alabak edo senide hurbilekoenak, baizik Estatuan bere oinorde izateko deklaritzen duen edonor. Horregatik, monarkak espresuki, hitzez edo idatziz, deklaritzen badu honako gizakume hau izango dela bere oinorde, orduan gizakume hori izango da, bere aurrekoa hil eta berehala, monarka izateko eskubideaz inbestituko dena.

Baina testamentu eta hitz espresuak falta direnean, nahiaren beste seinale batzuk hartu behar dira, eurotako bat ohitura delarik. Eta, beraz, seniderik hurbilena erabateko oinorde izateko ohitura dagoen tokian, seniderik hurbilenak izango du oinordetzarako eskubidea. Zeren subiranotasuna zeukanaren nahia bestelakoa izan balitz, erraz zukeen bizi zelarik deklaritzen. Era berean, senide gizonezko hurbilena oinorde izateko ohitura dagoen tokian, oinordetza-eskubidea senide gizonezko hurbilenak izango du, arrazoi beragatik. Eta gauza bera gertatuko da ohitura oinordea emakumezkoa izatea denean. Zeren, dena delakoa dela dagoen ohitura, gizakumeak hitzez aldatu ahal badu eta egiten ez badu, ohiturak zutik irautea nahi duen seinale da.

Baina ohiturarik, ez aurretik egindako testamenturik, ez dagoen tokian, ulertu behar da, lehenik, monarkaren nahia gobernuak monarkikoa izaten jarraitzea dela, zeren beregan baitzuen onetsia gobernu-era hori. Bigarrenik, ulertu behar da monarkak beste edonor baino bere seme edo alaba bat oinorde izatea nahiago duela, zeren suposatzen baita gizakumeak berez aiherrago direla beren seme-alaben alde jokatzera beste gizakumeen seme-alaben alde baino lehenago, eta beren seme-alabei dagokienez, gizonezkoa emakumea baino nahiago dutela, gizonezkoak berez direlako emakumeak baino gaiagoak nekea eta arriskua daukaten ekintzetarako. Hirugarrenik, monarkak ondorengorik ez duenean, ulertu behar da kanpotarra baino anaia nahiago duela, eta, arrazoi beragatik, odolez hurbilagokoa duena, urrunekoa duena baino; zeren beti suposatzen baita seniderik hurbilena maitasunez ere hurbilena dela; eta nabari dago gizakumeak, isladapenez, beti ere ohorerik handiena bere senide hurbilekoenaren handitasunetik hartzen duela.

Baina legezko bada ere monarka batek oinordetza ebaztea kontratu edo testamentu-hitzez, gizakumeek honi eragozpen handia jar diezaiokete: monarkak bere gobernu-eskubidea atzerritar bati sal edo eman diezaiokeela; eta hau, atzerritarrek (hots, gobernu berdintsuan bizitzen ohitu gabe daudenek eta bertako hizkuntza egiten ez dutenek) herri berrikoa gutxietsi egiten dutenez, bere meneko berrien zapaltzaile bihur daitekeela, eta hau eragozpen handia da izan. Baina ez dator ezinbestean atzerritar baten agintepean egotetik, horrela gobernatzen dutenen ezgaitasunetik eta politika-arauei buruz duten ezjakintasunetik baizik. Eta horregatik erromatarrek nazio asko menperatu zituztenean, eta beren gobernua onargarri bihurtzeko, laido hau kentzen saiatu ziren beharrezko iritzi zioten guztian, nazio osoei batzuetan eta konkistaturiko nazio bakoitzeko gizakume printzipalei beste batzuetan erromatarren pribilegioak ezezik izena ere emanez; eta beraietako asko senatura eta kargu handiko postuetara eraman zituzten, Erroma hirira bertara ere. Eta haxe izan zen Jakobo gure errege jakitunak egin nahi zuena bere erresuma biak,

Ingalaterra eta Eskoziakoa, batzen ahalegindu zenean. Honek, hori lortu izan balu, orain erresuma bioi sufriarazten dieten gerra zibilak ekidin zituzkeen seguraski. Ez da, beraz, herriarentzat laido monarka batek oinordetza nahi bezala ebaztea, nahiz eta hau, printze askoren errakuntza medio, eragozpen gertatu izan den sarri. Eta honen legezkotasunari dagokionez, honako hau ere argudio bat izan daiteke: atzerritar bati erresuma bat ematetik sor daitekeen erazgozpena, atzerritarrekin ezkontzetik ere berdin sor daitekeela, oinordetza-eskubidea egoki dakiekeelako, gizakume guztiek legezkotzat jotzen dutena delarik berau, hala ere.

## XX

Domeinu aitatiar eta despotikoaz

Eskurapenezko Estatua indarrez eskuraturiko botere subiranoa daukana da. Eta indarrez eskuratzen da, gizakumeek, edo banan-banan edo boz asko bat eginda, heriotza edo morrontzaren beldurrez, beren bizia eta askatasuna salbatzeko ahalmena duen gizakume edo biltzarraren ekintza guztiak eskuesten dituztenean.

Domeinu edo subiranotasun hau honako honexetan bakarrik bereizten da erakuntzazko subiranotasunetik: beren subiranoa hautatzen duten gizakumeek elkarren beldurrez hautatzen dutela, eta ez beraiek izendatutakoaren beldurrez. Baina kasu honetan, beldur dioten haren menpean jartzen dira. Kasu bietan beldurrak eraginda egiten dute, hau heriotza edo indarkeriaren beldurrez egindako hitzarmenak baliogabetzat dituztenek kontuan hartzeko dutelarik, zeren, diotena egia balitz, ezingo bailitzateke inor obedientziara behartu ezelako Estatutan. Egia da, Estatua eratu edo eskuratua denean, heriotza edo indarkeriaren beldurretik sorturiko promesak ez direla hitzarmenak ezta bete beharrekoak ere agindutakoa legeen kontrakoa denean. Baina arrazoia ez da beldurpean egin zela, agintzaria egin zuenak agindutakoarekiko eskubiderik ez zuela baizik. Halaber, gauza bat legez bete daitekeenean eta betetzen ez denean, betetzetik salbuesten duena ez da hitzarmenaren baliogabetasuna, subiranoaren epaia baizik. Bestalde, gizakumeak legez agintzen duen guztian, legez kontra hausten du agindutakoa. Baina subiranoak, zeina aktore den, betetzetik salbuesten duenean, agintzera behartu zuenak salbuesten du, barkamen horren autore bezala.

Baina subiranotasunaren eskubideak eta ondorioak bietan dira berdinak. Subiranoaren boterea ezin zaio, haren baimenik gabe, beste inori transferitu; ezin du galdu; ezein menekok ere ezin du zuzengabekeriaz akusatu; ezin dute zigortu; bera da bakerako zer behar den erabakitzeko epailea, eta doktrinen epailea ere bai; bera da legegile bakarra eta auzi guztien epaile gorena, eta berak erabakitzen du noiz eta zein egokieratan egin behar den gerra eta noiz bakea; berari dagokio magistratuak, kontseilariak, gudaburuak eta beste funtzionari guztiak aukeratzea; berak erabakitzen ditu sariak, zigorrak, ohoreak eta hierarkiak. Honen arrazoiak aurreko kapituluan erakuntzazko subiranotasunaren eskubide eta ondorio berauetarako agertutako berak dira.

Domeinua era bitara eskuratzen da: sorketaz eta konkistaz. Sorketazko domeinu-eskubidea aita bere seme-alabengan duena da eta AITATIARRA deritzo. Eta ez dator sorketatik aita semearengan domeinua berak sortu duelako daukan zentzuan, baizik semearen baiespenez, edo baiespen espresuaz edo argudio nahikoz adierazitakoaz. Zeren sorketari dagokionez, Jainkoak gizonarentzat laguntzaile bat pentsatu izan du, eta horregatik beti dira bi berdinki gurasoak direnak; haurraren domeinuak, beraz, biena behar luke berdinki, eta hark bien manupean berdinki egon behar luke, eta hau ezinezkoa da, inork ezin dielako ugazaba biri obeditu. Eta, nahiz eta batzuek domeinua gizonari bakarrik eratxiki dioten, sexu bikainenekoa dela eta, honetan erratu egin dira. Zeren ez baitago beti gizon eta emakumearen artean eskubidea nork daukan istilurik gabe erabaki ahal izateko moduko indar eta zuhurtziazko alderik. Estatuetan auzi hau lege zibilak erabakitzen du: eta gehienetan (baina ez beti) epaia aitaren aldekoa izaten da, Estatutik gehienak familiako aitek, ez amek, eraikiak direlako. Baina orain darabilgun arazoa gizakumearen natura hutsezko egoeran ikusi behar da, non ezkon-legerik ez seme-alaben hezkuntzarako legerik ez dagoela suposatuta behar den, lege naturala eta sexuen elkarrenganako eta beren umeenganako aiherkunde naturala baizik. Natura hutsezko egoera honetan gurasoek, edo bien artean kontratu bidez ebazten dute umearen domeinua, edo inola ere ez dute zehazten. Ebazten badute, eskubidea kontratuaren arabera hartzen da. Historian aurkitzen dugu Amazonek kontratuak egiten zituztela inguruko herrialdeetako gizonekin, ondorengoak izateko jotzen baitzuten beraiegana; eta kontratu horren arabera, semeak itzuli egiten zituzten baina alabak Amazonekin geratzen ziren, amak zeukalarik domeinua alabengan.

Kontraturik ez badago, domeinua amari dagokio. Zeren natura hutsezko egoeran, non ezkon-legerik ez dagoen, ezin da aita nor den jakin, amak deklaratu ezean; eta, beraz, umearengan domeinua izateko eskubidea haren nahiaren pean dago eta, ondorioz, umea berarena da. Kontura gaitezen hasieran jaioberria amaren pean dagoela eta hark edo elikatu edo abandonatu egin dezakeela; elikatzen badu, haurrak amari zor dio bizia eta, beraz, beharturik dago amari obeditzera beste inori baino lehenago, eta ondorioz harekiko domeinua amarena da. Baina umea abandonatzen badu eta beste batek aurkitu eta elikatzen badu, domeinua elikatzen duenarena da. Zeren umeak bizirauten lagundu dionari obeditu

beharko baitio, bizirautea izanik gizakumeak beste baten pean jartzean bilatzen duen xedea, gizaki orok obedientzia agintzen diola suposatzen delako bera salbatu edo suntsitzeko ahalmena daukanari.

Ama aitaren menpean badago, haurra aitaren boterearen pean dago; eta aita amaren menpean badago, erregina subirano bat bere meneko batekin ezkontzen denean bezala, haurra amaren menpean dago, aita ere haren meneko delako.

Erresuma bereizi bitako monarkak diren andre eta gizon batek haur bat badaukate eta berarengan domeinua nork izango duen kontratuz ebatzen badute, domeinu-eskubidea kontratuz pasatzen da. Kontraturik egiten ez badute, domeinua haurra bizi den lekuan domeinua daukanarena da. Zeren herri bakoitzeko subiranoak han bizi diren guztiengan du domeinua.

Semearengan domeinua duenak honen umeengan eta umeon umeengan ere badu. Zeren gizakume baten pertsonarengan domeinua duenak honena den ororengan du domeinua; bestela domeinua efektu gabeko titulu bat besterik ez litzateke.

Domeinu aitatiarrerako oinordetza-eskubideak monarkiarako oinordetza-eskubideak bezala jokatzeko du, honetaz aurreko kapituluan behar adina mintzatu naizelarik.

Konkistaz edo gerrako garaitzaz eskuraturiko domeinua autore batzuek DESPOTIKOA deitzen diotena da, Despovth", jaun edo ugazaba esan nahi duen hitzetik datorrena; eta ugazabak jopuaren gain duen domeinua da. Domeinu hau garaileak eskuratzen du, garaituak, gaine-

ra datorreko herio-kolpea ekiditeko, garailearekin hitzartzen duenean, behin hitzez behin bere nahiaren bestelako zeinu aski adierazgarri, ezen, bizia eta gorputz-askatasuna kentzen ez zaizkion bitartean, garaileak berarekin nahi duena egin ahal izango duela. Eta hitzarmen hau egin eta gero, eta ez lehenago, garaitua JOPU edo ZERBITZARI da, zeren hitz honek (edo servire, zerbitzatu, hitzetik edo servare, salbatutik, datorrela, gramatikariei eztabaidatzeko uzten dieran arazoa) ez baitu GATIBU esan nahi, zeina gartzelan edo kateaz loturik edukitzen dena baita, harrapatu zuen edo lehen berea zuen beste bati erosi zion jabeak berarekin zer egin erabaki arte. Zeren, gizakume horiek (komunzki esklabuak esaten zaienak) ez baitute justiziaz inolako obligaziorik, kateak apurtu edo presondegitik ihes egin eta beren ugazaba hil edo gatibu eraman baitezakete. Baina, preso hartu eta gero, ihes ez egiteko eta ugazabarekin indarkeriarik ez erabiltzeko promesapean gorputz-askatasuna ematen zaionak ugazabaren fidantza dauka.

Ez da, beraz, garaitza garaituarekiko domeinua ematen duena, egiten duen hitzarmena baizik. Ez dago behartuta beste batek konkistatu duelako, hots, azpiratu eta harrapatu edo ihes eragin diolako, baizik garaileari bere burua entregatu eta menpean jartzen zaiolako. Eta garailea ere, berak bizia zaintzeko promesarik egin gabe etsaia errendatu bazaio, ez dago behartuta hari barkatzera bere erabakiaren pean jarri zaiolako, garailea bere ikusiz egoki deritzona baino gehiago egitera beharturik ez dagoelako.

Eta gizakumeek kuartela (gaur esaten den moduan) eskatzen dutenean (greziarrek *ῥωγία*, bizirik harrapatzea esaten zutena), garailearen mementoko suminari ihes egitea dute xedetzat, haren menpeko egin eta bizia salbatzeko konponketa bat atonduz, erreskatea ordaindu edo zerbitzuren bat ematekotan. Horregatik kuartela eman zaionak ez du bizia aseguraturik, garaileak egingo duenaren erabakia geroago deliberatzeko geratzen delako. Zeren ez baita errendatu bizia barka diezaioten baldintzapean, hori garailearen erabakiaren pean utzita baizik. Eta haren bizia seguru eta zerbitzua ematera behartuta, garaileak berarengan konfidantza jarri eta gorputz-askatasuna eman dionean bakarrik dago. Zeren presondegitan eta kateaz loturik lan egiten duten esklabuek ez baitute hori egiten beren eginbeharra betetzeko, beren zaindarien krudeltasuna ekiditeko baizik.

Jopuaren ugazaba, hark daukan guztiaren ugazaba ere bada, eta guztiaren erabilera galda dezake, hau da, haren ondasunez, haren lanaz, haren morroiez, haren seme-alabez baliatzea, egoki deritzon guztian. Zeren obedientzi hitzarmenaren bidez, hau da, ugazabak egindakoa bere egin eta eskuestekotan lortu zuen bizia bere ugazabarengandik. Eta ugazabari dagokionez, jopuak esana egitea errefusatzeko hiltzen badu eta kateaz lotzen badu edo desobeditzeagatik beste edozein zigor ezartzen badio, jopua da guzti horren autorea eta ezin du ugazaba zuzengabekeriaz akusatu.

Laburbilduta, domeinu aitatiarraren eta despotikoaren eskubide eta ondorioak erakuntzazko subiranoak dituen berberak dira eta arrazoi berengatik, zeintzuk aurreko kapituluan azalduta geratu diren. Halako moldez non, nazio diferenteetako monarka den gizakume batek, subiranotasuna batean herri biltzarraren erakuntzaz eta bestean konkistaz, hau da, norbanako bakoitzak heriotza edo kateak ekiditeko eskaintako menpetasunez daukanak, nazio bati besteari baino gehiago exigitzea, Konkista tituluagatik edo Nazio konkistatua delako, subiranotasunaren legeak enoratzea da. Zeren subiranoa kasu bietan berdinki absolutua da edo bestela ez dago subiranotasunik, eta gizakume bakoitzak, ahal izanez gero, bere ezpataz babestu ahal izango luke lege bere burua, eta hau gerra-egoera da.

Hemendik nabari dago familia handi bat, Estaturen baten zati ez bada, subiranotasun-eskubideei dagokienez, monarkia txiki bat dela, familia hori gizon batek eta bere seme-alabek, edo gizon batek eta bere jopuek, edo gizon batek, bere seme-alabek eta jopuek osatua izan, aita edo ugazaba subirano delarik. Hala ere, familia bat ez da propioki Estatua, kide kopuruagatik edo beste inguruabarren batengatik berarekin gerran sartu ezean menperatua izateko adina botere daukana ez baldin bada bederen. Zeren

gizakume-kopurua elkartuta defendatzeko urriegia denean, bakoitzak bere arrazoimena erabili ahal izango du arriskualdian bizia salbatzeko ihes eginez edo etsaiari menpetasuna eskainiz, egokien ikusten duen bezala, soldadu konpainia oso txiki batek, etsaiak ezustean harrapatuta dagoenean, armak bota eta kuartela eska dezakeen moduan, edo ihesi alde egin, ezpataz hilak izan baino lehen. Eta nahikoa dela uste dut espekulazioz eta dedukzioz eskubide subiranoei buruz honaino esandakoa, gizakumeek Estatuak eraikitzean eta beraiek defendatzeko adina botere duten monarka eta biltzarren pean jartzean dituzten arrazoi, premia eta helburuetatik abiatuta.

Ikus dezagun orain puntu honi buruz Idazteunak zer dioen. Moisesi Israeldarrek haxe esan zioten: Zeuk egiguzu hitz eta ulertu ahal izango dizugu, ez biezagu Jaunak hitz egin, hilak gerta ez gaitezen. (Ir. 20, 19). Hau Moisesi erabateko obedientzia ematea da. Erregeen eskubideari dagokionez, Jainkoak berak dio Samuelen ahotik (1 Sm. 8, 11,12...): Hona hemen zuen gain aginduko duen erregearen eskubideak: semeak kenduko dizkizue, bere gurdizain eta zaldizko egiteko; erregearen gurdiauren aurretik ibili beharko dute lasterka. Batzuek erregearen alorrek goldatu beharko dituzte, beste batzuek uztak igitaitu; beste batzuek, berriez, armak eta gudugurdiak egin beharko dizkiote. Alabak ere kenduko dizkizue, bere lurringile, sukaldari eta okin bihurtzeko. Lursailik, mahastirik eta olibadirik ederrenak kenduko dizkizue, bere zerbitzariiei emateko. Uzta eta mahatsen hamarrenak hartuko dizkizue, bere funtzionari eta zerbitzariiei emateko. Zeuen morroi-neskameak, zeuen gazterik bikainenak eta astorik hoberenak eramango dizkizue, beraren sailetan lan egin dezaten. Artaldean hamarrenak hartuko dizkizue; zeuok ere bere morroi eginen zaituzte. Hau botere absolutua da eta azken hitzetan laburbilduta geratzen da: zeuok ere bere morroi eginen zaituzte. Eta herriak entzun zuenean nolako boterea izango zuen beren erregeak, baiezkoa eman zuen esanez (19. ber.): Geu ere gainerako herriak bezalakoak izan nahi dugu. Gida gaitzala erregeak, joan dadila gure aurretik gure alde borrokatzera. Hemen berretsita geratzen da erregeak bai militiaren gain bai epailetzaren gain duen eskubidea, gizakume batek beste bati transferitu ahal dion botererik handiena dagoelarik hemen. Halaber, Salomon erregeak Jainkoari egin zion otoitza haxe izan zen (1 Erg. 3, 9): Emadazu adimen argia zure herria epaitzeko, eta ona eta txarra bereizteko. Subiranoari, beraz, epaile izatea eta ona txarretik bereizteko arauak ematea dagokio, legeak direlarik arauok, eta, beraz, botere legegilea ere berea duelarik. Saulek bizia kendu nahi zion Dabidi; hala ere hark Saul hil ahal izan zuenean, haren zerbitzariak egin ahal izan zutelarik, Dabidek debekatu egin zien esanez (1 Sm. 24, 7): Ezta inola ere! Ezin diot halakorik egin ene jaunari, Jaunak gantzutu duenari. Morroien obedientziaz mintzo delarik San Paulok (Kol. 3, 20) dio (22. ber.): Morroiok, zuen ugazaba direnei esana egiezue edozertan; eta Semeok, esana egiezue edozertan zeuen gurasoei. Domeinu aitatiar edo despotikoaren pean daudenengan obedientzia hutsa dago. Halaber (Mt. 23, 2-3): Lege-maisuek eta fariseuek Moisesen irakatsiak adierazteko eginkizuna dute. Saia zaitetze, beraz, haiek esaten dizueten guztia betetzen. Ikusten dugu hemen ere obedientzia hutsa dagoela. Eta San Paulori irakurtzen diogu (Tt. 3, 1): Oroitarazi denei, gobernari eta agintarien menpeko izan behar dutela, hauen esanak egin eta egintza on guztirako prest egon. Hau ere obedientzia hutsa da. Azkenez, gure Salbatzaileak berak ere agertzen du erregeek ezarritako zergak ordaindu egin behar direla, dioenean: Eman Zesarrari Zesarrarena dena; eta berak ere ordaindu egin zituen zergak. Badio baita ere erregearen hitza nahikoa dela meneko bati edozer kentzeko, beharrezko denean; zeren Jesusek berak ere, Juduen errege zenez, astoama bat eta astakumea hartzeko agindu zien bera Jerusalemara eramateko, esanez (Mt. 21, 2: Zoazte aurreko herriska horretara; berehala asteme bat aurkituko duzue lotuta, eta astakume bat harekin; askatu eta ekarri niri. Eta inork ezer esaten badizue, Jaunak behar dituela esan eta berehala utziko dizkizute. Ez dute galdetuko ea haren premia behar adinako arrazoa den, ezta ea hura den premia horren epaile ere, baizik baiezkoa emango diote Jaunaren nahiari.

Pasarte hauei Hasierako beste hura gehi dakieke (Has. 3, 5): Jainkoa bezalako bihurtuko zarete, onaren eta txarraren jakitun. Eta 11. bertsetean: Eta nork jakinarazi dizu biluzik zaudela? Galarazi nizun arbolako fruitua jan al duzu? Zeren debekatuta edukirik onaren eta txarraren ezagutza edo epailetza, ezagutzaren zuhaitzeko fruituaren izenpean, Adanen obedientziaren froga gisa, deabruak, fruitu hori jada edertzat zeukan andrearen handinahia pizteko, fruitu hori dastatuz Jainkoa adina izango zirela esan zion, onaren eta txarraren jakitun. Eta biek jan zutenean, benetan berenganatu zuten Jainkoaren eginkizuna dena, hots, ona eta txarra denari buruz iriztea; baina ez zuten bata bestetik zuzen bereizteko ahalmen berririk berenganatu. Eta jan ondoren biluzik zeudela ikusi zutela esaten den arren, inork ez du pasarte hau lehen itsu zirela eta ez zutela beren larrua ikusten esanez interpretatu; pasartearen esanahia argi dago: beren biluztasunari, hots, Jainkoak kreatu nahi izan zituen egoerari, orduantxe lehenengo aldiz iritzi ziotela lizun; eta lotsa izanez tazituki Jainkoa bera gaitzesten ari ziren. Eta ondoren Jainkoak dio: Jan egin al duzu... e.a., esan gura balu bezala: obedientzia zor didazun horrek, nire agindua epaitzeko eskubidea zeureganatu al duzu? Honekin argi utziz (nahiz eta alegorikoki), agintzeko eskubidea duenaren aginduak ez direla ez gaitzetsi ez eztabaidatu behar.

Horrela argi agertzen da nire ikusirako arrazoimenaren eta Idazteunaren arabera botere subiranoa gizakume batek daukanean, monarkian jazotzen den moduan, edo biltzarrek Estatu herritar eta

aristokratikoetan bezala, iruditu ahalean irudi daitekeen bezain handia dela. Eta botere hain mugagabetik gizakumeek ondorio txar ugari etor daitekeela irudi dezaketen arren, hura ez izatearen ondorioak, auzoen arteko etengabeko gerra suposatzen baitute, askoz txarragoak dira. Gizakumearen egoera bizitza honetan ez da sekula eragozpenik gabekoa izango, baina ezein Estatutan ez dago eragozpen handiagorik menekoen desobedientziatik eta Estatua izateko egin behar diren hitzarmenak haustetik datorrena baino. Eta, botere subiranoa handiegia dela uste izanik murrizten ahalegintzen den orok hura mugatzeko ahalmena duen boterearen menpean jarri beharko du, hots, botere handiagoaren menpean.

Objekziorik handiena praktikaren eremukoa da eta gizakumeek horrelako boterea non eta noiz izan den onartua galdetzean sortzen da. Baina norberak ere galde diezaieke non eta noiz izan den sedizioetatik eta gerra zibiletik libre izan den erresumarik. Luzaro eta kanpotiko gerrek suntsitu gabe iraun duten gobernuak izan dituzten nazioetan, menekoek ez dute botere subiranoa sekula eztabaidan jarri. Baina Estatuen kausak eta izaera arrazoi zehatzez pisatu orduan sakonera iritsi ez diren eta kontu honetan ezjakinak izatearen ondorioak pairatzen ari diren gizakumeen praktikan oinarrituriko argudioa, dena delakoa dela, baliogabea da. Baina mundu guztian gizakumeek beren etxeen oinarriak haren gainean eraikiko balituzte ere, ez litzateke hemendik atera behar horixe dela egin behar dena. Estatuak eraiki eta iraunarazteko gaitasuna zenbait arautan datza, Aritmetikan eta Geometrian gertatzen den bezala; eta ez, tenisean bezala, praktikan soilik. Eta ez astirik ez duten gizakume pobreek, ez astia duten aberatsek, ez dute egundaino izan arauok aurkitzeko behar den jakinmina edo metodoa.

## XXI

Menekoen askatasunaz

ASKATASUNA, edo LIBERTATEA, aurkakotasunik eza esan nahi duen hitza da (aurkakotasunaz mugitzeko kanpoko eragozpenak esan nahi dut); eta hala kreatura irrazional eta bizigabeei nola razionalei aplika dakiekeena da. Zeren, kanpoko gorputzen batek mugaturik daukalako espazio jakin batetik kanpo mugitu ezinik loturik edo inguraturik dagoen edozerk harantzago joateko askatasunik ez duela esaten baitugu. Eta horrela izaki bizidun guztiez gartzelaturik edo horma eta kateez mugaturik daudenean, edo bestela espazio zabalagoetara barreiatuko litzatekeen uraz presa edo ontzietan eutsirik dagoenean, mugitzeko askatasunik ez dutela esan ohi dugu. Baina mugimendua galarazten duena gauzaren barne-egiturako zerbait denean, ez dugu esaten askatasuna falta zaiola, mugitzeko ahalmena baizik, hala nola, adibidez, harria geldirik dagoenean edo gizakumea gaixotasunak ohean lotuta daukanean.

Izenaren esanahi propio eta eskuarki onarturiko honen arabera, GIZAKUME LIBREA bere indar eta talentuaz egin ditzakeen gauzetan berak nahi duena burutzea galarazten ez zaiona da. Baina libre eta askatasuna hitzak gorputzak ez diren gauzei aplikatzen zaizkienean, beraiez abusatu egiten da. Zeren mugimendurik eduki ezin duenak eragozpenik ere ezin du eduki. Eta horregatik esaten denean, adibidez, bidea libre dago, ez dugu esan nahi bideak daukanik askatasuna, bertatik geratu beharrik gabe dabiltzanek baizik. Eta opari bat librea dela esaten dugunean, ez dugu esan nahi opariak inolako askatasunik daukanik, inongo lege edo hitzarmenek behartuta ez dagoen emaileak baizik. Horrela guk askatasunez hitz egiten dugunean, ez dago hor ahots edo ahoskeraren askatasunik, egin duen bezala barik, beste era batera hitz egitera ezein legek behartzen ez duen gizakumearena baizik. Azkenez, nahimen librea esamoldearen erabileratik ezin da nahimenaren, desiraren edo aiherkundearen askatasunik atera, egiteko nahia, desira edo aiherkundera daukan gizakumearen askatasuna baizik.

Beldurra eta askatasuna bateragarriak dira; horrela gizakume batek, untzia hondoratuko den beldur, bere merkantziak uretara botatzen dituenean, oso nahita botatzen ditu, eta, nahi badu, hori ez egitea erabaki dezake. Haren egintza, beraz, libre den gizakumearen egintza da; horrela batzuetan gizakume batek gartzelaren beldurrez ordaintzen ditu zorrak, baina, atxilotua izatea inork galarazi ez zionez, haren ekintza gizakume libre batena izan zen. Eta, jeneralean, gizakumeek Estatuetan legearen beldurrez egiten dituzten ekintza guztiak, egileek ez egiteko askatasuna zeukaten ekintzak dira.

Askatasuna eta beharra bateragarriak dira, uraren kasuan bezala, zeinak kanaletik jaisteko askatasuna ezezik, beharra ere baduen. Antzeko zerbait gertatzen da gizakumeek nahita egiten dituzten ekintzetan ere, nahimenetik datozenek, askatasunetik baitatoz; baina gizakumearen nahimenaren egintza oro eta desira eta aiherkunde oro kausaren batetik datozenek, eta hau beste kausa batetik lehen katemila kausa ororen lehenengoa den Jainkoaren eskuetan daukan etengabeko katea osotuz, beharretik datoz. Eta, hargatik, kausa horien arteko lotura ikusteko gai denari, gizakumeen nahitako egintza guztien beharra argi agertuko zaio. Eta, beraz, gauza guztiak ikusi eta ebazten dituen Jainkoak ikusten du baita ere gizakumeak nahi duena egitean duen askatasunak Jainkoak nahi duena, ez gehiago ez gutxiago, egiteko beharra daramala lagun. Zeren gizakumeek, Jainkoak agindu ez dien gauza asko egin ditzaketen arren, euren autore, beraz, hura ez delarik, ezin baitute eduki Jainkoaren nahia kausa ez duen grinarik ez gutiziarik. Eta haren nahiak gizakumearen nahiaren eta, ondorioz, giza nahiaren menpe dagoen guztiaren beharra segurtatu ezean, gizakumeen askatasuna kontraesan eta eragozpen litzateke Jainkoaren guztiahal eta askatasunerako. Eta aski bedi hau (eskuartearen darabilgun arazoari dagokionez) askatasun natural horri buruz, zeini bakarrik dei dakioken propioki askatasuna.



Baina nola gizakumeek, bakea eta biziraupena lortzeko, Estatua deitzen diogun gizakume artifiziala egin duten, halaxe egin dituzte lege zibilak deitzen diegun katea artifizialak, zeintzuen mutur bata, elkarrekin egindako hitzarmenen bidez, botere subiranoa eman dioten gizakumearen edo biltzarraren ezpainetan lotu duten eta bestea beren belarrietan. Lokarriok, berez ahulak diren arren, iraunkorrak izan daitezke, ez etengaitzak direlako, hori egitetik letorkeen arriskuarengatik baizik.

Lokarriokiko erlazioan hain zuzen ere, orain menekoen askatasunari buruz hitz egin behar dut. Zeren ikusirik munduan ez dagoela gizakumeen egintza eta hitz guztiak erregulatzeke behar den adina araurik jarri den Estatutik, hau ezinezkoa baita, hemendik ezinbestez dator lege erregulatu gabeko ekintza horietan guztietan gizakumeek beren onerako arrazoimenak iradokitzen dien guztia egiteko eskubidea leukaketela. Zeren askatasuna hitzak duen zentzurik propioenean hartzen badugu, hau da, gorputz-askatasunaren, gartzela eta kateetatik askatasunaren zentzuan, arras absurdua litzateke gizakumeek berentzat galdatzea, egiten duten bezala, begibistakoa denez gozatzen ari diren askatasuna. Eta askatasuna legeak betetzetik salbuespen gisa hartzen badugu, ez du absurdu txikiagoa gizakumeek beste guztiak beren egintzen jaun eta jabe egiten dituen askatasun hori galdatzea egiten duten bezala. Baina hain absurdua izanik ere, horixe da eskatzen dutena, konturatu barik ezen legeek ez dutela eurak babesteko indarrik, gizakume baten edo gehiagoren eskuan ezpata egon ezean, lege horiek betearazteko. Menekoaren askatasuna, beraz, subiranoak haien ekintzak erregulatzean arautu gabe utzitako gauza horietan bakarrik datza; esate baterako, erosteko eta saltzeko edo elkarrekin bestelako kontratuak egiteko askatasuna; bizitzeko lekua, janaria, lanbidea aukeratzekoa, eta seme-alabak egoki deritzen moduan heztekoa eta horrelakoak.

Ez dugu, hala ere, ulertu behar askatasun horrek bizia eta heriotzarekiko botere subiranoa abolitu edo mugatzen duenik. Zeren ikusi baitugu ordezkari subiranoak menekoari egin diezaiokeen ezertxori ere, dena delakoa dela, ezin dakioketela propioki injustizia edo zuzengabekeria esan, meneko bakoitza subiranoak egiten duen ekintza bakoitzaren autore delako, halako moldez non subiranoari ez zaion falta ezer egiteko eskubiderik, bera ere Jainkoaren meneko den heinean izan ezik, honek lege naturalak betetzera behartzen baitu. Gerta daiteke, beraz, eta gertatu ere sarri egiten da Estatuetan, botere subiranoaren aginduz norbait heriotza ematea, subiranoak norbait horrekin gaizki jokatu gabe, Jeftek bere alaba sakrifikarazi zuenean bezala. Kasu honetan, eta honen antzekoetan, horrela hildako pertsonak askatasuna zuen, hala ere, berari zuzengabekeriari gabe heriotza eman zion ekintza burutzeko. Eta gauza bera esan daiteke meneko errugabe bati heriotza ematen dion printze subiranoari buruz ere. Zeren ekintza hori lege naturalaren kontrakoa den arren, ekitatearen aurkakoa baita, Dabidek Uriak hilarazi zuenean bezala, ez zen Uriari egindako zuzengabekeria izan, Jainkoari egindakoa baizik. Uriari egindakoa ez, zeren nahi zuena egiteko eskubidea Uriak berak emana baitzion Dabidi. Baina Jainkoari egindakoa bai, Dabid Jainkoaren meneko zelako eta lege naturalez debekatua zuelako inikitaterik egitea. Bereizpen hau Dabidek berak nabariki berretsi zuen egindakoaren damuz esan zuenean: Zeure kontra bakarrik egin dut bekatu. Era berean, Atenasko hiritarrek, beren Estatuak indar moral handieneko gizona hamar urterako erbesteratu zutenean, injustiziarik ez zutela egiten uste izan zuten, eta hori nahiz eta ez zuten sekula galdetu ere egin zernolako delitua egin zuten, zernolako kaltea egingo zukeen baizik; eta okerrago dena, ezagutu ere ez zuten ezagutzen erbesteratu nahi zuten pertsona; eta hiritar bakoitzak, bere ostrazala azokara eramanez erbesteratua izan zedin nahi zutenaren izena bertan idatzita, berau ezagutu ere egin gabe, batzuetan Aristides bat erbesteratzen zuten, zuzen ospea zuelako, eta beste batzuetan Hiperbolo bezalako bufoi arrunt bat, hari irri eta barre egiteko. Eta, hala ere, inork ezin dezake esan Atenaseko herri subiranoak ez zuela haiek erbesteratzeko eskubiderik, edo Atenastar batek ez zuela inori barre egiteko edo zuzena izateko askatasunik.

Antzinako greziar eta erromatarren historietan eta filosofian eta politika eremuan ikasi zuten guztia eurengandik hartu zutenen idazki eta hitzaldietan hain aipamen ugari eta ohoragarri dituen askatasun hori ez da gizakume partikularren askatasuna, Estatuaren askatasuna baizik, zeina gizakume bakoitzak eduki behar zukeenaren berdina den, baldin lege zibilik ez Estatutik ez balego. Eta beronen efektuek ere berdinak izan behar lukete. Zeren, nola ugazabarik ez jaunik ez duten gizakumeen artean bakoitzaren eta auzoen arteko etengabeko gerra dagoen, herentziarik seme-alabei legatzerik ez aitarengandik itxaroterik ez dagoen, ondasun eta lurren jabetzarik ez dagoen, segurtasunik ere ez dagoen eta gizabanako bakoitzak erabateko askatasuna daukan, halaxe elkarrengandik menpegabe diren Estatu eta Errepubliketan ere, Estatu bakoitza da (ez gizakume bakoitza) euren onura hobekien ekarriko duela irizten diona (hau da, ordezkari duten gizakumeak edo biltzarrak irizten diona) egiteko askatasuna daukana. Baina hala ere gerra-egoera etengabe bizi dira, beti batailan hastear, mugaldeak ondo armaturik eta kainoiak auzo dituzten inguruko herrialdeetara begira jarrita. Atenastar eta erromatarrek libreak ziren, hau da, Estatu libreak; honekin esan nahi da, ez gizakume partikular bakoitzak euren ordezkariari aurre egiteko askatasunik zeukanik, baizik euren ordezkariak beste herri batzuei eutsi edo inbaditzeko askatasuna zeukala. Luca hiriko dorretxoetan gaur egun ere letra handiz idatzita dago LIBERTAS hitza, baina hemendik inork ezin du atera gizakume partikularrek han Konstantinoplan baino Estatuari zerbitzua eman

beharretik askatasun edo inmunitate gehiago duenik. Estatua monarkikoa zein herritarra izan, askatasuna bera da.

Baina gizakumeek askatasuna hitzaren itxura erakarkorraz erraz engainatzen dituzte beren buruak eta, bereizteko irizmenik ezagatik, beren herentzia pribatu eta sortzetiko eskubidetzat hartzen dute eskubide publikoa baino ez dena. Eta errakuntza hori gai honi buruz idatzitakoagatik itzala duten gizakumeen autoritateak berretsia denean, ez da harritzekoa honek sedizioak eta gobernu-aldaketak eragitea. Munduaren mendebaldeko lurraldeotan Estatuen erakuntza eta eskubideei buruz dauzkagun iritzia Aristoteles eta Zizeron eta beste gizakume greziar eta erromatarrengandik harrarazi dizkigute, zeintzuek Herri Errepubliketan bizi izanik, eskubideok naturaren printzipioetatik barik, beren Estatu herritarren praktikatik aterata transkribatu zituzten liburueta, gramatikariak hizkuntz arauak garaiko erabileran oinarrituta, edo poesiako arauak, Homero eta Virgilioren olerkietatik aterata transkribatzen zituzten bezalaxe. Eta atenastarrei, beren gobernua aldatzeko desiratik aldentzeko, eurak gizakume libreak zirela eta monarkiaren pean bizi ziren guztiak esklabuak zirela irakatsi zitzaenez, Aristotelesek Politikan (6. lib., 2. kap.) idatzi zuen: Demokrazian askatasuna suposatzen duen behar da, zeren komunzki onartua baita beste inolako gobernamendutan inor ere ez dela aske. Eta Aristotelesek bezala Zizeronek eta beste idazle batzuek ere beren doktrina zibila, euren subiranoa agintetik kendu eta Erromako subiranotasuna beren artean konpartitzen zutenek hasieran eta gero berauen ondorengoek monarkia gorrotatzen irakatsi zieten erromatarren iritzietan oinarritu dute. Eta autore latindar eta grekoak irakurrita, gizakumeek haurtzarotik, askatasunaren itxura faltsuaren pean, kalapitak aldezteko eta subiranoen, eta are berauen kontrolatzaile direnen ekintzak zabarki kontrolatzeko aztura hartu dute; eta hau odol isurketa hain handiak eraginez non, nire ustez, benetan esan daitekeen ezer ez dela sekula erosi izan Mendebaldeko lurraldeok greko eta latin ikastea erosi duten bezain garesti.

Goazen orain menekoaren benetako askatasunari berariaz dagozkionak aztertzea, hau da, subiranoak menekoari agindutakoak diren arren, menekoak, bidegabekeria erori gabe, egitea errefusa ditzakeen gauzak. Kontuan hartu behar dugu zein eskubideri egiten diegun uko Estatu bat ezartzen dugunean, edo gauza bera dena, zernolako askatasuna ukatzen diogun geure buruari geure subirano egiten dugun gizakumearen edo biltzarraren ekintza guztiak, salbuespenik gabe, geure egiten ditugunean. Zeren geure burua menpekotzean datzate gure obligazioa eta gure askatasuna, eta hau argudia daiteke esanez ez dagoela gizakumearen beronek nahitako ekintzaren batetik sortua ez den obligaziorik, gizakume guztiak berez berdinki libreak baitira. Eta argudiook, edo beren-beregizko hitzetatik erator daitezkeenez, Haren ekintza guztiak eskuesten ditut esaten dugunean bezala, edo subiranoaren botereari men egiten dionaren asmotik (men egiteaz erdietsi nahi dituen xedeen bidez ulertzea ematen den asmoa berau), menekoaren obligazioa eta askatasuna ere edo hitz horietatik (edo baliokideak diren beste batzuetatik) edo bestela Subiranotasunaren Erakuntzaren xedetik datoz, zehazki esanda, menekoen arteko bakea eta etsai komunaren kontra berauen defentsa erdiestea den xedetik.

Beraz, kontuan hartuz erakuntzazko subiranotasuna gizakume orok orori egindako hitzarmenez sortua dela, eta eskurapenezko subiranotasuna garailearen eta garaituaren, edo semearen eta aitaren arteko hitzarmenez, argi dago ezen, hitzarmenez transferiezinazko eskubidea den edozein gauzatan, meneko orok askatasuna duela. Azaldu dut dagoeneko 14. kapituluaren norberaren gorputza defendatzen ez duten hitzarmenak baliogabeak direla. Beraz, subiranoak norbaiti (nahiz eta justiziaz kondenaturik egon) bere burua hiltzea, zauritzea edo trenkatzea, edo eraso egiten diotenei ez jarkitzea, edo janariari, arnasteko aireari, sendagaiei edo bizitzeko nahitaezko duen beste edozer gauzari uko egitea agintzen badio, gizakume horrek desobeditzeko askatasuna izango du.

Eta subiranoak edo bere eskuespena duenak norbait beronen delituren bati buruz galdeka badeza, hau ez dago beharturik (barkamena bermatzen ez bazaio behintzat) delitu hura aitortzea; zeren, aipatu kapituluaren bertan azaldu dudanez, hitzarmenak ezin baitu inor behartu bere burua salatzea.

Esan bezala, menekoak botere subiranoari damaion bai espina hitz hauexetan datza: haren egintza guztiak eskuesten edo neure gain hartzen ditut. Eta honetan ez dago lehendik daukan askatasun naturalaren inolako murriztapenik; zeren subiranoari hil nazan baimena emateak ez nau behartzen neure burua hiltzea, hark horrela aginduta ere. Gauza bat da hil nazazu, edo hil ezazu nire laguna nahi baduzu esatea eta beste gauza bat neure burua edo nire laguna hilko dut esatea. Honen arabera, beraz:

Inor ere ez dago hitz horiengatik bere burua edo beste inor hiltzea beharturik; eta ondorioz, noizbait baten batek subiranoaren aginduz betebeharrak arriskutsu edo desohoragarri bat burutzeko izan dezakeen obligazioa ez datza gure men-hitzetan, menekotasun horren xedeak aditzera damaigun asmoan baizik. Hortaz, obeditzeari uko egitean Subiranotasuna eratzeak zuen xedea bera eragozten badugu, ez dugu izango horretara ukatzeko askatasunik; eta bestela bai.

Honen arabera, etsaiaren kontra borrokatzea soldadu joateko agindu zaionak, nahiz eta agindu horri uko egitearren subiranoak aski eskubide izan herio-zigorra ezartzeko, uko egin ahal izango dio hala ere kasu askotan bidegabekeriari gabe; bere ordezkotzat balio duen soldadu bat jartzen duenean esaterako: zeren kasu honetan ez baitu Estatuari zor dion zerbitzutik desertatzen.

Kontuan hartzekoa da, gainera, berez herabeti dena ere, ez bakarrik emakumeen kasuan (hauengandik ez baita espero horren egiteko arriskutsuari erantzuterik), baizik adore emea duten gizonezkoen kasuan ere. Armadak borrokan sartzean beti gertatuko da ihesa, alde batean edo alde bietan ere; baina iheslariak traizioz barik beldurrez ematen diotenean ihesari, ezin da ez-zuzentzat hartu, desohoragarritzat baizik. Arrazoi beragatik, guduari itzurtzeari ezin zaio bidegabekeria deitu, koldarkeria baizik. Baina borondatez izena eman duenak edo soldadu izatearren dirua jasotzen duenak ezingo du jarri aitzakiatzat herabetasuna, eta beharturik egongo da, ez bakarrik gudura joatera, baizik bertatik ihes ez egitera bere kapitainaren baimenik gabe. Eta Estatuaren defentsak armak har ditzakeen ororen laguntza behar badu noizbait, denak daude horretara beharturik; zeren bestela alferrikakoa bailitzateke inork defendatu nahi ez duen, edo defendatzeko adorerik ez duen, Estatu baten erakuntza.

Ezein gizakumek ere ez dauka askatasunik Estatuaren indarrari jarkitzeko beste gizakume baten defentsan, berdin dio errudun ala errugabe izan; zeren horrelako askatasunak kendu egiten baitizkio subiranoari gu geu babesteko dituen bitartekoak, gobernuaren funtsa bera suntsitzen duelarik, beraz. Baina gizatalde handi bat bada hor botere subiranoari bidegabekeriaz aurre egin diona, edo delitu handiren bat egin eta horregatik taldekide guztiek heriotza espero badute, ez al dute izango elkarrekin biltzeko eta elkar lagundu eta defendatzeko askatasunik? Bai dutela, noski: zeren beren biziak defendatu baino ez baitute egiten, honetarako eskubide bera duelarik errudunak nahiz errugabeak. Bidegabekeria izan zen, jakina, betebeharra lehenik haustea; baina honen ondoren armak hartzea, egindakoa eusteko izanik ere, ez da egintza zuzengabe berri bat. Eta euren burua defendatzeko besterik ez bada, ez da inola ere zuzengabea. Hala ere, barkamenaren eskaintza dutenak beren buru-defentsarako aitzakiarik gabe geratzen dira eta legezkontrako bihurtzen zaie gainerako laguntzan eta defentsan jardutea.

Beste askatasun batzuei dagokienez, legearen isiltasunaren menpe daude. Subiranoak inolako araurik ezarri ez duen kasuetan, menekoak bere irizpidearen arabera egiteko edo egin gabe uzteko askatasuna duke. Beraz, leku batzuetan zabalagoa eta beste batzuetan murriztagoa da askatasun hori, subiranotasuna dutenek egokien irizten dioten heinean. Garai batez Ingalaterran, adibidez, gizakume bat bereak zituen lurretara sar zitekeen eta lurrok ilegalki okupatzen zituztenei indarrez kendu. Baina geroztik indarrezko sarbide horretarako askatasuna debekaturik geratu zen erregeak parlamentuan ateratako estatutu baten bidez. Eta munduan zenbait tokitan gizonek emazte asko izateko askatasuna dute; beste leku batzuetan, aldiz, ez da onartzen askatasun hori.

Meneko batek bere subiranoarekin auziren bat baldin badu aurreko legeren batean oinarrituta, dela zorrei edo lurren eta ondasunen jabego-eskubideari buruz, dela eskatzen zaion zerbitzuren bati buruz, dela gorputz-kastigu edo isun bati buruz, beste meneko baten aurka lukeen askatasun bera izango du, subiranoak izendaturiko epaileen aurrean, bere eskubidearen alde auzitan jarduteko. Zeren subiranoak bere boterearen izenean barik aurreko lege baten indarrean oinarrituz exigitzen dionez, lege horrexen arabera zor zaiona besterik ez duela eskatzen deklaritzen baitu horrela menekoak. Auzia ez da orduan subiranoaren nahiaren kontrakoa; beraz, menekoak badu askatasuna bere auzia entzun diezaioten eta lege haren arabera epaia eman diezaioten eskatzeko. Baina subiranoak bere boterearen izenean eskatzen edo hartzen baldin badu zerbait, kasu horretan ez dago akzio legalik burutzerik: ezen subiranoak bere boterearen indarrez egiten duen zernahi meneko bakoitzaren eskuespenez eginga baita, eta beraz, bere subiranoaren aurka auzitan dabilena bere buruaren kontra ari da auzitan.

Monarkak edo biltzar subiranoak askatasun bat eman badie bere meneko guztiei, edo eurentariko baten bati, eta emakida hori indarrean dagoen bitartean menekoon segurtasuna ziurtatu ezinean aurkitzen bada, baliogabea da emakida; subiranotasunari uko egiten diola zuzenki edo beste bati transferitzen diola ez bada. Zeren emakida hori erabakitzean subiranoak bere subiranotasunaren errenuntzia edo transferentzia argi eta garbi egin zezakeenez (nahi izan balu), baina ez zuenez egin, hura ez zela haren nahia ulertu behar baita; aldiz, emakida luzatzea halako askatasunaren eta botere subiranoaren arteko bateraezintasunaz ez kargutzearren izan zela: beraz, subiranotasuna berea duela oraindik, baita, ondorioz, subiranotasun hori erabiltzeko beharrezko diren botere guztiak, hala nola, gerra eta bakea egiteko boterea, epailtzakoa, funtzionariak eta kontseilariak izendatzekoa, erreklutamendurako diruak biltzekoa eta 18. kapituluaren aipaturako gainerako guztiak.

Menekoek subiranoarekiko duten obligazioaren iraupenari dagokionez, subiranoa eurak babesteko gai egiten duen botereak diraueno, eta ez luzaroago, iraungo duela gainulertu behar da. Ezen gizakumek beste inoren babesik jasotzerik ez dutenean, beren burua babesteko naturalki daukaten eskubideari ezin baitiote ukorik egin ezein hitzarmenez ere. Subiranotasuna Estatuaren arima da: honek gorputzetik alde egin bezain laster, soinadarrek ez dute izango jada harengandik zetorkien mugimendua hartzerik. Obedientziaren xedea babes da, eta aski zaio gizakumeari babes hori nonbait begiztatzea, dela beraren dela besteren baten ezpatan, naturak hartaraxe zuzenaraz diezaion obedientzia eta babes hura mantentzeko ahalegina. Eta subiranotasuna hilezkorra bada ere eratzen dutenen asmotan, uztarturik dago hala ere, bere izatez, atzerriko gerretatik etor dakiokeen heriotza bortitzari, eta bere baitan darama gainera, erakuntzaren

unetik bertatik, gizakien ezjakintasun eta grinen erruz barne-diskordiak ereindako hilkortasun naturalaren hazi asko.

Meneko bat gerran preso hartua bada, edo bera eta bere bizibideak etsaiaren kontrolpera pasatu badira, garailearen meneko izateko baldintzapean eman zaiolarik bizia eta gorputz-askatasuna, baldintza hori onartzeko askatasuna dauka; eta behin onartuz gero, gaitibatu zuenaren meneko bihurtuko da, ez dauka-eta bere burua salbatzeko beste modurik. Eta kasu berdinean aurkituko da atzerrian atxilotu badute baldintza horietan. Baina norbait gartzelaratu edo kateatu badute, edo gorputz-askatasunik ez bazaio ematen, ezin gainuler daiteke menekotasunera hitzarmenez beharturik dagoenik; beraz, eskueran duen edozein medioz egin dezake ihes.

Monarkak bere subiranotasuna eta oinordekoena uzten duenean, menekoak askatasun natural osora itzuliko dira; zeren, nahiz eta naturak bai adierazi ahal duen nortzuk diren monarka haren semeak eta nortzuk senide hurbilenak, beraren borondatearen menpe dagoena baita hala ere, aurreko kapituluan esan bezala, oinordekoa nor izango den erabakitzea. Beraz, oinordekorik nahi ez badu, ez da subiranotasunik ez menekotasunik izango. Kasu berean aurkitzen gara hura senide ezagunik gabe eta oinordekoa nor izango duen deklaratu gabe hiltzen denean. Zeren orduan ez baitago oinordekoa ezagutzerik eta ezta ere, beraz, menekotasunik.

Subiranoak bere menekoa erbesteratu egin badu, desterruak dirauen bitartean ez zaio meneko izango. Baina mezulari gisa bidalia izan bada edo bidaiatzeko baimena baldin badu, meneko izaten jarraituko du; subiranoen arteko kontratuz izango da, hala ere, ez menekotasun-hitzarmenaren indarrez. Zeren beste baten manupeko lurraldean sartzen dena hango lege guztien meneko izango baita, subiranoen arteko adiskidetasunak edo baimen berezi batek damaion pribilegioa eduki ezean.

Gerran menperatutako monarka bere garailearen meneko bihurtzen baldin bada, haren menekoak aske geratuko dira lehengo obligaziotik eta garailearekiko beharturik aurkituko dira. Baina subiranoa preso hartu badute edo gorputz-askatasunik gabe geratu bada, ezingo da gainulertu subiranotasun-eskubideari uko egin dionik eta, beraz, menekoak ere lehendik izendaturiko magistratuei men egitera beharturik egongo dira, agintariok ez baitute gobernatzen beren izenean, subiranoarenean baizik. Zeren honen eskubideak dirauen bitartean, arazoa administrazioarena besterik ez baita, hots, magistratu eta funtzionariena; horiek izendatzeko modurik ez duenez, lehendik berak aukeratutakoak onartzen dituela suposatzen da.

## XXII

Menekoen sistema politiko eta pribatuei buruz

Estatuaren sorrera, forma eta ahalmenaz hitz egin ondoren, haren parte ezberdinei buruz mintzatzeko moduan nago jarraian. Eta, lehenengo eta behin, gorputz naturalaren kideko atal edo muskuluen antza dutenei buruz. Zera ulertzen dut SISTEMAZ: interes edo jarduera baten inguruan bilduriko edozein gizatalde. Sistemotatik, batzuk erregularrak dira eta beste batzuk irregularrak. Erregularrak, gizabanako bat edo gizakumeen biltzar bat eratzen denean talde osoaren ordezkariatzat. Eta irregularrak beste guztiak. Erregularretarik batzuk absolutu eta independenteak dira, beren ordezkariaren eta ez beste inoren meneko direnak: mota honetakoak Estatuak dira soil-soilik, aurreko 5 kapituluetan esana dudanez. Beste batzuk menpekoak dira, hau da, botere subiranoren bati subordinatuak, beronen meneko delarik kide bakoitza, ordezkaria bera ere barne.

Sistema subordinatuetarik, batzuk politikoak dira eta beste batzuk pribatuak. Politikoak (gorputz politiko edo pertsona legal ere deituak) Estatuaren botere subiranoaren eskuespenez eratutakoak dira. Pribatuak, ostera, menekoek euren artean edo atzeritar baten eskuespenez eratutakoak. Zeren atzerriko boteretik letorkeen ezein autoritate ere ezin baita izan publikoa, pribatua baizik, beste baten manupeko lurraldeetan. Sistema pribatuetarik, batzuk legezkoak dira eta beste batzuk legezkontrakoak. Legezkoak Estatuak baimendutakoak, eta legezkontrakoak gainerako guztiak. Sistema irregularrak ordezkariak ez dutenak eta jende-samaldaz osatutakoak dira besterik gabe, eta hau, Estatuak debekatu ezean edo asmo gaiztoz egin ezean (jendea azoketan, antzokian edo kaltegabeko beste edozertarako biltzean, esaterako), legezkoak dira. Baina asmo gaiztoz eginak direnean, edo asmo ezezagunez (aralde handia denean), ilegalak dira.

Gorputz politikoetan ordezkariaren boterea mugatua da betiere, eta subiranoaren boterea da mugok ezartzen dituen. Ezen mugapenik gabeko boterea subiranotasun absolutua baita, eta subiranoa baita Estatu bakoitzean meneko guztien ordezkari absolutua; beraz, inor ere ezin izan daiteke haietariko parte baten ordezkari, subiranoaren beraren baimenik ez badu. Baina menekoen gorputz politiko bati beronen eskabide eta xede guztietarako ordezkari absolutua edukitzeko baimena ematea, Estatuaren parte handi baten gobernamentua lagatzea eta jabaria zatitzea litzateke, menekoen bake eta defentsaren kontrakoa, beraz. Eta ezin da gainulertu subiranoak horrelakorik egitea ezein emakidaren bidez, menekoak menpetasunetik argi eta garbi eta zuzenki askatzen dituen emakida izan ezean bederen. Ezen, hitzen ondorioak ezin uler baitaitezke subiranoaren nahiaren zeinutzat, beste ondorio batzuk kontrakoaren zeinu direnean; baizik, gizaki ororengan hain ohikoa den errakuntza edo tronpaketaren seinaleztat.

Gorputz politiko baten ordezkariari ematen zaion botere horren mugapenak gauza bitan ageri zaizkigu: berauen dokumentu idatzian edo subiranoaren eskutitzetan, batetik, eta Estatuaren legean, bestetik.

Zeren, nahiz eta Estatu independente baten erakuntza edo lorpenerako dokumentu idatzirik ez den behar (ordezkariaren botereak ez baititu naturako lege ez-idatzia jarritako mugak besterik), hain askotariko mugapen-beharra baitago gorputz subordinatuetan berauen jarduera, denbora eta lekuei buruz, non gogoratu ere ezin diren egin eskutitzik gabe; ezta hauteman ere, eskutitzok agerikoak ez badira jendeak irakur ditzan, eta autoritate subiranoaren zigiluz edo beste zeinu iraunkor batzuek zigilatutik edo abalaturik ez badaude.

Eta mugapen horiek idatziz deskribatzea erraza ez denez beti, edo posible ere ez beharbada, meneko orori dagozkien lege arruntek ebatzi beharko dute ordezkariak legalki zer egin ahal duen eskutitzek eurek isiltzen dituzten kasuetan. Eta, beraz,

Gorputz politiko baten ordezkaria gizabanako bat denean, ez beronen eskutitzek ez legeak abalatzten ez duten gauzaren bat egin baleza gorputz horren pertsonan, egintza hori berea izango da eta ez gorputz politikoarena edo beronen beste ezein kiderena: zeren ordezkari horrek, dituen eskutitzek eta legeak jarritako mugaz landa, ez baitu bere burua besterik ordezkatzten. Ostera, horien arabera egiten duena denegintza izanen da, zeren den-denak baitira beren subiranoaren egintzen egile, berau denez gero, izan ere, haien ordezkaria mugarik gabe; eta subiranoak emandako eskutitzetatik apartatzen ez denaren egintza oro subiranoaren beraren egintza da, gorputz politikoaren kide guztiak direlarik, beraz, egintza horren egile.

Biltzarra denean ordezkari, ostera, biltzar horrek bere eskutitzek edo legeek abalatu gabeko zerbaite dekratatzen badu, biltzarraren edo gorputz politikoaren egintza izanen da, baita dekretua ateratzeko botoa eman zuten guztien egintza ere; baina ez, horregatik, bileran parte hartu eta kontrakoa bozkatu zutenena, ezta bileran parte hartu ez zutenena ere, delegazioz bozkatu ez bazuten bederen. Biltzarraren egintza da, hain zuzen, botoa gehiengoz eman zuelako; eta delitua izan bada, biltzar horri zigorra ezarri ahal zaio, zigorrik har dezakeen neurrian, dela biltzarra bera deseginez, dela haren eskutitzak erretiratu (hil ala bizikoa horrelako gorputz artifizial eta itxurazko batentzat), edota diru isunez -kide errugabeetariko batek ere jabegorik ez duen fondo komuna baldin badu biltzar horrek. Zeren naturak salbuetsi egin baititu gorputz politikoak gorputz- zigorretatik. Baina bozkatu ez zutenak errugabe dira, dena dela, zeren biltzarrak ezin baitu inor ordezkatu eskutitzek baimentzen ez dizkioten gauzetan; eta errugabeak ez daude, hortaz, gainerakoen botoetan nahasturik.

Gorputz politiko baten pertsona gizabanako batengan badago eta honek mailegu bat eskatzen badio arrotz bati, hots, gorputz bereko partaide ez den bati (izan ere, eskutitzek ez dute zertan mugarik ezarri mailegu-eskatzeari, gizakumeen joerek eurek mugatzen baitute dirua mailegutuan ematea), zorra ordezkariarena izango da. Zeren honek eskutitzetatiko aginpidea baldin balu maileguz eskatzen duena gorputz politikoko kideei ordainarazteko, haien gaineko subiranotasuna leukake; eta eman zaion emakida, beraz, edo nulua litzateke, giza izaeran maiz gertatu ohi den errakuntzatik sortua eta emakida egin duenaren borondatearen zeinu aski ez dena; edo honek emakida benetan egin baldin badio, ordezkaria subiranoa bera litzateke eta orain aztertzen gabiltzan arazotik, gorputz subordinatuei soilik dagokienetik, at geundeko orduan. Beraz, ezein kide ere ez dago beharturik horrela egindako zorrak ordaintzera, zorrok egin dituen ordezkaria bera izan ezik: zeren mailegua eman duenak, gorputz politikoaren eskutitzak eta eskuduntzak ezezagun zaizkiolarik, berarekin konprometatutik daudenak bakarrik hartzen ditu zorduntzat; eta ikusiz ordezkaria dela, ez beste inor, berarekin konprometatu dena, huraxe besterik ez dauka zorduntzat; fondo komunetik (fondorik baldin bada) edo bere poltsikotik (fondorik ezean) ordaindu beharko diolarik.

Zorra kontratuz edo isunez egin badu, kasu berdinean gaude.

Biltzarra denean ordezkari, ostera, eta hartzekoduna arrotza bada, mailegua eskatzeko edo zorraren kontratua egiteko edo isuna jaso duen egintza burutzeko botoa eman zuten guztiak dira, eta haiek soil-soilik, zorraren erantzule, zeren botoa eman dutenetariko bakoitza konprometatu baita zorra ordaintzera; izan ere, mailegua eskatzen duena beharturik dago ordaintzera, zor osoa ere, nahiz eta beste norbaitek ordainduz gero aske geratu.

Hartzekoduna biltzarkide bat denean, ostera, biltzarra izango da soil-soilik bere fondo komunetik (fondorik baldin bada) ordaintzera beharturik dagoena. Zeren boto-askatasuna eduki eta mailegua eskatzearen alde botoa eman baldin badu, zor hori ordaintzearen alde ere eman du botoa; eta maileguaren kontra botoa eman baldin badu edo ausente egon bada, bere boto horrekiko kontraesanean dihardu mailegu-ematean, maileguaren alde bozkatzeko alegia; horrela, azken boto honek behartu egiten du, mailegu-emaile eta hartzaile bihurtuz aldi berean; ezingo dio ordainketarik exigitu, beraz, ezein kide partikularri, baizik soilik altxor komunari. Eta honek huts egiten badio, ez du zereginik izango, ezta errekurtsorik egiterik ere bere buruaren kontra baino; izan ere, biltzarraren jardunaz eta ordaintzeko ahalmenaz jakinaren gainean egonez eta mailegu-ematera inork behartu gabe eman baitu mailegutuan dirua, bere ergelkeriaz.

Hortaz, botere subiranoaren subordinatu eta menpeko diren gorputz politikoetan, argi dago legezkoa ezezik bidezkoa ere badela batzuetan partikular batek bere protesta Biltzar Ordezkariaren dekretuen aurka zuzentzea eta bere desadostasuna erregistraraztea edo horren lekukotasuna jasotzea. Zeren, bestela, baliteke beste batzuek egindako zorrak ordaindu behar izatea edo haien delituen erantzule gertatzea. Baina Biltzar Subiranoaren kasuan ez da ematen askatasun hori, bi arrazoiengatik: hemen protestatzen duenak biltzarraren subiranotasuna ukatu egiten duelako, eta Botere Subiranoak agintzen duen edozer dagoelako justifikaturik menekoarentzat (Jainkoaren aurrean beti horrela ez izan arren) menekoaren beraren aginduz, meneko bakoitza baita, izan ere, agindu horren autore.

Gorputz politikoen aniztasuna ia infinitua da; ezen, ez baitira bereizten bakarrik batzuek eta besteek sorreratik dituzten helburuengatik, hauen aniztasuna ere itzela izanik, baizik baita denboraz, lekuz eta kopuruz muga askori loturik daudelako ere. Helburuei dagokienez, batzuk gobernuari dagozkienak dira; honela, lehenengo eta behin, probintzia baten gobernu gizakumeen biltzar baten esku utz daiteke, gehiengoaren botoen menpe geratuko direlarik haren erabaki guztiak: biltzar hori gorputz politiko bat da orduan, boterea manatuaren arabera mugaturik duena. "Probintzia" hitzak enkargua esan nahi du, edo arazoren baten kargu hartzea, arazo horren ardura duenak beste norbaiten esku uzten duenean beraren ordeztu eta beraren menpe administratzea; beraz, Estatu baten barruan herrialde diferenteak direnean, lege ezberdinak dituztenak edo bata bestetik oso urruti daudenak, eta berauen gobernuaren administrazioa zenbait pertsonaren esku eman behar denean, subiranoak bertan bizi gabe baina manuz gobernatzen dituen herri horiei probintziak deitzen zaie, hain zuzen. Halere, probintzian bertan dagoen biltzar batek gobernatutako probintzi gobernuen adibide gutxi izango da. Erromatarrek probintzia askoren subiranotasuna zeukaten, baina beti gobernatzen zituzten lehendakarien eta pretoreen bidez, eta ez, Erromako hirian eta aldameneko lurraldeetan bezala, biltzarren bidez. Era berean, Ingalaterrak Virginia eta Sommer Uharteak landatzeko koloniak egin zituen, nahiz eta haien gobernuaren haren, Londresen, biltzarraren esku eman, biltzar hauek ez zuten, hala ere, beren meneko gobernu hango beste biltzar batzuen esku eman inoiz, baizik gobernadore bat bidali zuten plantazio bakoitzera. Zeren, edozein gizakumeren guraria izanik naturaz presente egon ahal den lekuetako gobernuaren esku hartzea, bertaratzerik ez duten lekuan ere aihar baitira gizakumeak, naturaz, beren interes amankomunen gobernamendua gobernu-era popular baten esku baino gobernu monarkiko baten esku ematera. Eta nabaria da hori finka pribatu handien jabeen kasuan ere: euren negozioen administrazioaren nekerik hartu gura ez dutenean, nahiago izaten baitute beren lagunaren edo morroien biltzar baten esku baino morroi bakar baten esku uztea negoziook. Baina den moduan delarik ere, bai suposa dezakegula biltzar baten esku utzitako probintzia edo kolonia baten gobernu, eta, kasu horretan, hauxe da hemen esan behar dudana: biltzar horrek egindako edozein zor edo dekretaturiko edozein egintza ilegal beraien baiespena eman zutenena bakarrik izango dela, eta ez akort egon ez zirenean edo batzarrean egon ez zirenean, lehenago jarritako arrazoiengatik. Halaber, gobernatzen duen koloniaren mugetatik kanpo egoitza dukeen biltzar batek ezingo du botererik erabili koloniako ezein pertsonaren gainean edo inoren ondasunen gainean, koloniatik bertatik kanpo beste inon ere, zorrarengatik edo beste obligazioen bategatik pertsegitzeko; zeren, ez baitu eskumenik ez aginpiderik beste inon, lekuko legeak zilegi uzten dionera mugatzea besterik ez daukalarik. Eta biltzarrak baduen arren berak promulgatutako legeak hausten dituzten kideei isuna ezartzeko eskubidea, ez du izango, halere, eskubide bera koloniatik bertatik kanpo. Eta probintzia edo kolonia baten gobernuaren kasuan biltzarraren eskubideez hemen esandakoa aplikagarri izango zaio baita ere biltzarrari Hiri baten, Unibertsitate baten, Ikastetxe baten edo Eliza baten gobernamendurako, hala nola giza pertsonen gaineko beste edozein gobernu modurako.

Eta gorputz politiko guztietan, orokorrean, zuzengabekeria gorputz horrek berak egin diola baderitzo kide partikularren batek, subiranoari dagokio, edo subiranoak horrelako auzietarako edo auzi konkretu horretarako izendatu dituen epailei, kide horren auziaren audientzia; eta ez gorputz politikoari berari. Zeren, kasu honetan, gorputz osoa baita kereilatu denaren meneko-kide, biltzar subiranoan gertatzen ez dena: eta hemen subiranoa ez baldin bada epaile, nahiz eta bere auzi propioaren epaile gertatu, ez daiteke izan beste epailerik.

Kanpo-merkataritzaren martxa ona zaintzeko gorputz politiko baten kasuan, kide guztien biltzarra litzateke ordezkaritza egokiena: hau da, euren dirua arriskatzen duten guztiak egon daitezkeena, hala nahi badute, deliberazio eta erabaki korporatibo orotan. Esandakoa frogatzeko, pentsa dezagun zein helburu duten gizon hauek -bakoitzak bere merkantziak nahi erara saldu, erosi, inportatu zein esportatu ahal duten merkataria hauek-, korporazio bati borondatez lotu nahi izateko. Egiaz, merkataria gutxi-gutxi izango da bere herrialdean erositako merkantziekin unti bat pleita dezakeenik merkantziok esportatzeko; edota kanpoan erositakoarekin unti bat pleita dezakeenik, erositakoa etxera ekartzeko; sozietate batean elkartzeko beharrezana dute, beraz, irabazietan bakoitzak arriskatu duenaren arabera esku hartuz edo bakoitzak berea hartu eta esportatzen ala inportatzen duena egoki deritzon preziotan salduz. Baina hori ez da gorputz politikoa, ezen, kideek ez baitute gainerako meneko guztientzakoa den legeaz at beste ezein legera behartzen dituen ordezkari komunik. Merkataria korporazioan biltzearen helburua beraien

irabaziaz gehitzea da; eta bi erataraz egin daiteke hori: eskusibazko erosketaz eta eskusibazko salmentaz, bai norbere herrian baita atzerrian. Eta halatan, merkatal konpainia bati korporazio edo gorpuz politiko izateko emakida egitea, egiaz, monopolio bikoitza emakidatzea da: erosle bakarrak izatearena bata, eta saltzaile bakarrak izatearena bestea. Izan ere, korporaziozko konpainia bat dagoenean atzerriko herrialde jakin baterako, beraiek besterik ez dira herri horretan sal daitezkeen jeneroak esportatzen dituztenak, zera esan nahi duelarik horrek: erosketaren eskusiba etxean eta salmentaren eskusiba kanpoan. Zeren, erosle bakar bat baizik ez baita etxean, eta saltzaile bat besterik ez atzerrian: gauza biok direlarik irabazpide merkatarientzat, horrela merkeago erosten duelako etxean eta garestiago saldu atzerrian; atzerriko herrialdean, berriz, kanpotik datozen merkantzien erosle bakar bat eta etxean merkantziok saltzen dituen saltzaile bat besterik ez da: gauza biak irabazpide berriz ere espekulatzaileentzat.

Monopolio bikoitz honen alderdi bata bertoko jendearentzat da desabantailatsua, eta bestea kanpotarrentzat. Zeren bertan, esportazioaren eskusibarengatik, euren nahi duten prezioa jartzen diete herriko nekazal eta manufaktura-zko produktuei, eta, inportazioen monopolioari esker, euren nahi duten prezioa, baita ere, jendeak behar dituen kanpoko jenero guztiei: gauza txarra bata zein bestea herriarentzat. Alderantziz, bertoko ondasunak eskusibaz saltzearen atzerrian, eta atzerriko produktuak eskusibaz erostearren bertan, ondasun haien prezioak gora jaso eta hauenak behera jaitsiko dituzte, atzerriarraren desabantailarako. Zeren saltzaile bat besterik ez den lekuan, are garestiago izango da merkantzia; eta erosle bat besterik ez denean, are merkeago. Beraz, holako korporazioak monopolioak baino ez dira, nahiz eta oso onuragarriak izango liratekeen Estatuarentzat, baldin gorpuz bakar batean bilduko balira atzerriko merkaturak begira, eta aske jokatu balute norbere herrialdean, bakoitzak ahal lukeen prezioan eros eta sal zezan.

Hortaz, gorpuz osoaren irabazia barik, enpresari bakoitzaren irabazi partikularra delarik merkatal korporazio hauen helburua (ez daukate kasu honetan fondo komunik ere, enpresari partikularrengandik jasotakoa salbu utziak egiteko, erosteko, hornitzeko eta mantentzeko), arrazoizkoa da bakoitzak berak jakitea berarena nola dabilen, hau da, bakoitza izatea fondo horiek administratzeko ahalmena duen biltzarren kide, eta kontuen jakinaren gainean egotea. Horregatik, bada, horrelako korporazioen ordezkariak biltzarrean egon behar du, korporazioko edozein kide bertara daitekeelarik, nahi badu, deliberazioetarako.

Merkatarien gorpuz politiko batek, biltzar ordezkariaren egintza medio, kanpokoren bati zor egin badio, kide bakoitza izango da zor osoaren erantzulea. Zeren kanpokoak ez baitauka jakiterik korporazio barneko legeak zeintzuk diren, eta bakoitza zor osoa ordaintzera beharturik dauden banako partikularizat dauzka kide guztiak, baten batek ordaindu eta gainerakoak zorretik askatu arte. Baina konpainiako bati bazaio zor, hartzekodunak bere buruari izango dio zor eta ezingo du, beraz, zor zaiona erreklamatu fondo komunetik izan ezean, fondorik baldin bada.

Estatuak zerga ezarri badio korporazioari, kide guztiei ezarritakotzat hartu behar da, bakoitzak konpainian arriskatu duenaren proportzioan. Kasu honetan ez baitago beraien inbertsio partikularretatik ateratako fondo komuna besterik.

Legezkontrako egintzen bategatik isuna ezarri bazaio korporazioari, egintza hori erabakitzearen aldeko botoa eman zutenak, edo egintza hori burutzeko laguntza eman zutenak bakarrik izango dira isunaren erantzule; zeren, besteetarik inork ere ez baitu deliturik, korporaziokoa izatea ez bada; eta hori delitua baldin bada, ez da izango berea (Estatuaren eskusenez eratu baitzen korporazioa).

Korporaziokide bat zorduntzen bada korporazioarekin, honek auzia jar diezaioke, baina ezingo zaizkio ondasunak konfiskatu ezta gartzelaratu ere korporazioaren autoritatez, baizik Estatuaren autoritatez soil-soilik: zeren, hori korporazioak bere autoritatez egin ahal balu, zor diotela epaitu ahal izango luke bere autoritatez, eta hori norbere auzian epaile izatea bezala litzateke.

Gizakumeen edo merkataritzaren gobernamenturako eraturako gorpuz hauek, edo iraunkorrak izan daitezke, edo idatziz erabakitako epe baterako; baina badira arazoaren beraren izaerak eta ez bestek mugatzen dituen gorpuzak ere. Adibidez, monarkak edo biltzar subiranoak hirietatik edo lurraldeko beste zenbait eskualdetatik diputatuak ekarrarazteari egoki deritzon kasuan, dela menekoen egoeraz eta beharrezan ez informatzeko, dela lege onak atera ditzan aholku hartzeko, edota laterri osoa ordezkatu behar duen pertsona izateagatik sortutako beste edozein motiboz: diputatuok, biltzeko ordua eta lekua asignatu zaizkalarik, gorpuz politiko dira, izan, une horretan, bakoitzak bere barrutiko menekoak ordezkatzeko dituelarik; baina subiranoaren eskusenez ekarrarazi dituen gizabanakoak edo biltzarrek galde diezaizkien arazoetarako soil-soilik; eta ez dagoela beste ezer galdetzekorik edo eztabaidatzekorik erabakitzen den unean, gorpuz hura desegin egingo da. Zeren, bera baldin biltz herriaren ordezkari absolutua, biltzar subirano bihurtuko biltzateke; eta orduan bi biltzar subirano, edo bi subirano genituzke herri beraren gain, herriarren bakearekin bateragarri ez litzatekeena. Beraz, behin subiranotasun bat den lekuan, inork ere ezingo du herriaren inolako ordezkariarik izan, subiranotasun horren bidez izan ezik. Eta dagokion gorpuz politikoak zein puntutaraino ordezkari dezakeen herri osoa,

idatziz agertu beharko du diputatuok deitu zituen idazkian bertan. Izan ere, herriak ezin ditu bere diputatuak beste ezertarako hautatu, subiranoak idazki horren bidez adierazi zionerako izan ezik.

Gorputz pribatu erregular legezkoak, eskutizik edo beste eskuespen idatzirik gabe sortutakoak dira, gainerako meneko orori dagozkion legeak salbu. Eta korporaziook pertsona ordezkari batengan bildurik daudenez, erregularizat hartzen dira; halakoak dira gurasoak edo jaunak osoro kontrolatzen dituen familia guztiak, eta harengana obligaturik daude bere umeak eta morroiak, legeak baimentzen dueneino; baina ez harago, zeren, haietariko inor ere ez baitago esanera beharturik legeak debekatzen dituen egintzetan. Beste egintza guztietan, aldiz, etxeko agindupean dauden bitartean, beren gurasoen eta jaunen menpean daude, hurbileko subiranoak bailituzten. Izan ere, gurasoa eta jauna Estatuaren erakuntzaren aurretik direnez beren familien subirano absolutuak, ez dute ondoren beste aginpiderik galtzen, Estatuaren legeak kentzen diena baizik.

Gorputz pribatu erregularrak baina ilegalak, inolako autoritate publikorik gabeko ordezkari baten inguruan biltzen direnak ditugu; horrelakoak dira eskale, lapur eta ijitoen korporazioak, beren eskeko eta lapur-negozioa hobeki antolatzeko sortuak; ilegalak dira, baita ere, atzeritar baten eskuespenez besteren baten manupeko lurraldeetan biltzen direnen korporazioak, dela euren doktrinak errazago zabaltzearen, dela Estatuaren boterearen kontrako alderdi bat eraikitzearen.

Sistema irregularrak (berez ligak baizik ez direnak, edo xede jakin batekiko loturarik ez duten gizatalde soilak zenbaitetan, kideen elkarrenganako obligazioz barik beraien gurarien eta jauginen antzarenegatik sortuak) legezko edo legezkontrako bilaka daitezke, kide bakoitzaren xedeak legezkoak edo legezkontrakoak diren arabera. Eta xede horiek kasu bakoitzean aztertzeak izango dira.

Menekoen ligak (sarri askotan elkarren defentsarako ligak direlarik) gehienetan premiagabekoak dira Estatu baten barruan (zeina meneko guztiek elkarrekin duten liga baizik ez baita), eta xede ilegal kutsua daukate; horrexegatik dira ilegalak eta fakzioak edo konspirazioak deitu ohi zaie, deitu ere. Ezen, liga bat hitzarmenez elkartutako gizakumeen lotespena izanik, baldin kontrolatuko dituen gizabanako edo biltzar bati botererik ematen ez bazaio (natura hutseko egoeran gertatzen denez), ezer susmagarririk sortzen ez den bitartean baizik ez daiteke izan baliozkoa. Hortaz, ligak Estatuaren artekoak direnean, Estatuon gainean ez dagoenez, egon ere, beldurraren bidez denak kontrolatu ahal dituen giza botererik, ez bakarrik legezkoak, baizik onuragarriak ere badira ligok, iraun dirauten bitartean; baina Estatu baten beraren barneko menekoen arteko ligak, ostera, menekoetariko bakoitzak botere subiranoaren bitartez lortu ahal duenean bere eskubidea, premiagabekoak dira bakearen eta justiziaren iraupenerako, eta, haien xedeak Estatuarentzat arriskutsuak edo ezezagunak diren heinean, ilegalak. Ezen, gizabanakoen arteko indar-biltze oro, asmo txarrekoa baldin bada, zuzengabea baita; eta asmo ezezagunekoa baldin bada, arriskutsua Publikoarentzat eta zuzengabeki estalia.

Botere subiranoa biltzar zabal batean baldin badago eta biltzar horren zati bat osatzen duten batzuk aparte biltzen baldin badira, horretarako eskuespenik gabe, gainerako guztiak bideratzeko asmoz, legezkontrako fakzio edo konspirazio baten aurrean gaude, biltzarra iruzurrez erabili nahi dutelako beraien helburu partikularretarako. Baina ez du egingo bidegabekeriarik, ordea, bere interesak biltzarrean eztabaidatu eta epaituko zaizkion batek ahalik eta lagun gehien egiten badu; ez delako, kasu horretan, biltzarren partaide. Eta lagunak diruz erosten baditu ere, ez da izango bidegabekeria (horren kontrako lege espresurik ez dagoen bitartean). Zeren batzuetan -halakoxeak dira gizakien kontuak-, dirurik gabe ezin baita justiziarik lortu; eta edozeinek daukake bere auzia justutzat, entzun eta epaitua izan aurretik.

Edozein Estatutan ere, partikular batek bere etxaldearen gobernamenturako eta legezko erabilpenerako behar dituen baino zerbitzari gehiago edukitzeak fakzioa osatzen du, eta ilegala da. Izan ere, Estatuaren babesa daukanez, ez du indar pribatuen bidez defendatu beharrik. Eta osoz zibilizatu gabeko nazioetan hainbat familia bizi izan den arren etengabeko etsaigoan eta elkarren lurak inbadituz indar pribatuen bidez, nahikoa garbi dago, halere, ez dutela zuzen jokatu; edota ez dutela Estaturik izan.

Eta famili fakzioak bezalaxe, gauza bera Erljio-gobernuen aldeko fakzioak (papistak, protestanteak eta abar), baita Errepublikaren aldekoak ere, antzinako Erromako Patrizio eta Plebeioak kasu, eta antzinako Greziako Aristokrata eta Demokraten aldekoak: zuzengabeak ditugu, herriaren bake eta segurtasunaren aurkakoak direlako eta Subiranoari ezpata eskutik kentzea esan nahi duelako.

Jende-kontzentrazioa sistema irregularra da betiere, biltzen diren zioaren eta kopuruaren arabera dagoelarik legezkoa ala ilegala izatea. Zioa bera legezkoa eta ezaguna bada, kontzentrazioa ere legezkoa izango da; elizara edota ikuskizun publiko bat ikustera biltzen den jendea, esaterako, ohiko kopuruan doanean; zeren ohikoa baino jende-kopuru askoz handiagoa bada, zioa ez da jada argia izango; eta bildutakoen artean zergatik dagoen argi eta garbi justifikatu ezin duenari, beraz, xede ilegal eta liskartsuren baten asmoarekin dagoela egotzi beharko zaio. Guztiz legezko izan daiteke mila lagun biltzea epaile edo magistratu bati zuzendutako eskari bat izenpetzeko, baina mila lagun batera badatoz eskari hori aurkezteara, bilkura liskargilea dugu; eskaria aurkezteko nahikoa baita lagun bat edo birekin. Dena den, honelako kasuetan bilera ilegal bihurtzen duena ez da halako edo holako jende-kopuru jakin bat izatea, baizik eta han dauden polizi agenteek kontrolatu eta justiziperatu ezin duten kopurua izatea.



Ezohiko jende-aldra biltzen baldin bada berauek salatutako gizakume baten kontra, legezkontrako liskartzat jotzea dago biltzar hori; zeren, aski baitziren gutxi batzuk, edo bat bakarra, gizakume haren aurkako salaketa magistratuarengana aurkezteko. Hauxe izan zen San Paulori Efeson gertatu zitzaiona, Demetriok eta beste jende-aldra handi batek Pauloren bi adiskide magistratuaren aurrera eraman zituenean, Gora Efesoko Artemisa! esanez oihu batean. Era horrexetara eskatzen baitzuten justizia, beren erlijioaren eta negozioaren kontrako halako doktrinak herriari irakasten zebiltzanen aurka. Zioa bidezkoa zen, izan, herri haren legeak kontuan hartuz; baina bilera hura ilegaltzat jo zen, halere, eta magistratuak haserre egin zien hitz hauekin (Apostoluen Eginak 19, 38-40): "Demetriok eta bere artisauek inoren kontra ezer badute, hor dituzte herriko auzitegiak eta kontsulordeak; ager bitzate han elkarren aurkako salakuntzak. Eta beste gorabeherarik baldin baduzue, legezko batzarre batean erabakiko da. Izan ere, gaurko honengatik matxinadaz sala gaitzakete, ez baitezakegu arrazoirik eman iskanbila hau zuritzeko". Honela, motibo egokirik aurkitzen ez zaion bilerari sedizioa deitzen dio, egileek ezin justifika lezaketen sedizioa, alegia. Eta hauxe da esango dudana guztia sistemei eta jendeen bilerei buruz, zeinak, lehen esan bezala, giza gorputzaren kideko soinadarrekin aldera daitezkeen: hots, legezkoak direnak muskuluekin; eta legezkontrakoak, berriz, gorputzeko humore txarren naturkontrako bilketaz sortutako tumore, bilis eta zorneekin.

## XXIII

Botere subiranoaren ministro publikoez

Azken kapituluan Estatu baten kideko atalei buruz jardun izan dut; oraingo honetan, berriz, atal organikoez, hots, ministro publikoez hitz egingo dut.

MINISTRO PUBLIKOA subiranoak (dela monarkak, dela biltzarrak) arazoren baterako enplegatzen duena da, Estatuaren pertsonaren ordezkari izateko autoritatea duelarik enplegu horretan. Eta subiranotasuna duen edozein gizabanakok zein biltzarrek bi pertsona ordezkatzan dituen, edo, maizago esaten den bezala, bi gaitasun dituen, bata naturala eta bestea politikoa -zeren monarkak ez baitu berarengan Estatuaren pertsona soilik, baizik eta gizabanakoarena ere; eta biltzar subiranoak ere ez baitu Estatuaren pertsona soilik, baizik biltzarrarena ere-, gaitasun naturalari dagokionean zerbitzatzen dietenak ez dira, izatez, ministro publikoak; arazo publikoen administrazioan zerbitzatzen dutenak besterik ez dira izango ministro publikoak. Beraz, etxezainak, agoazilak, eta batzartuen erosotasuna beste helbururik ez duen zerbitzua eskaintzen duten gainerako funtzionariak ez dira ministro publikoak Aristokrazia edo Demokrazia batean; zerbitzariak, txanbelanak, diruzainak edo erregearen etxeko gainontzeko enpleguak ere ez direnez ministro publikoak monarkia batean.

Ministro publikoetarik, batzuk administrazio orokorraren kargu hartu dutenak dira, dela manupeko lurralde osoarena, dela zati batena. Lurralde osoarena, kasu, Errege Infante baten aurrekoak bere Erresumaren administrazio osoaren kargu ematen dienean tutore edo erregeorde bati, hurgurena adin txikiko den bitartean. Eta kasu honetan, ordezkari hari men egitea dagokio meneko orori, erregearen izenean ematen dituen aginduetan eta ateratzen dituen manuetan, erregearen beraren botere subiranoarekin bateraezinak ez badira. Lurralde-zati edo probintzia batena, berriz, monarkak edo biltzar subiranoak gobernadore, loktenente, prefektu edo bizerrege bati damaionean lurralde horren kargu orokorra; eta kasu honetan ere, probintzia horretako denak daude beharturik subiranoaren izenean agintzen zaie guztiari men egitera, subiranoaren beraren eskubidearekin bateraezinezkoa ez den bitartean. Ezen tutore, bizerrege eta gobernadore hauek ez baitaukate subiranoaren borondatek datorkien eskubidea besterik; eman diezaiekeen ezein egiteko ere ezin interpreta daitekeelarik subiranoak bere subiranotasuna transferitu nahiaren deklaraziotzat, asmo hori argiro eta beren-beregi adierazi ezean behintzat. Eta honelako ministro publikoak gorputz natural baten soinadarrak mugiarazten dituzten zainen eta zaintxurien antzekoak dira.

Beste ministro batzuek, ordea, administrazio berezien kargu dute, hau da, egiteko bereziren batena, dela herrian bertan, dela atzerrian. Mota honetakoak dira herrian bertan, lehenik, Estatuaren ekonomiaz arduratzen diren ministro publikoak, Altxorrari dagokion guztian dutelarik aginpidea, hala nola tributu, zerga, errenta, isun eta gainerako sarrera publikoei buruz, hauek bildu, jaso, fakturatzeko eta sarrerora kontua eramateko. Ministroak ditugu, ordezkaritza duen pertsonaren zerbitzutan daudelako, ezertxo ere ezin dutelarik egin haren aginduaren kontra eta haren eskuespenik gabe; eta publikoak ditugu, subiranoaren zerbitzutan daudelako gaitasun politikoari dagokionean.

Bigarrenik, Militari buruzko autoritatea dutenak daude: armak, gotorlekuak eta portuak zaintzeko, soldaduak altxatu, ordaindu eta agintzeko, edo itsaso zein lehorreko gerrarako beharrezko den guztia hornitzeko ardura duten ministro publikoak. Baina aginterik gabe aurkitzen den soldadu batek, nahiz eta Estatuaren alde borrokan ibili, ez du horregatik Estatuaren pertsona ordezkatzan, ez daukalako gainean inor ere haren ordezkaritzaekin. Agintea dutenek, izan ere, agintzen dituztenen aurrean baizik ez baitute ordezkatzan Estatu.

Ministro publikoak ditugu, baita ere, herriari subiranoarekiko betebeharrak irakasteko (edo irakasten beste batzuk trebatzeko) autoritatea dutenak, zuzena eta zuzengabea zer den ezagutzera emanez jendeari,

elkarrekin bakean eta zuzentasunean bizitzeko eta arerio publikoari aurre egiteko gai bihurtuz horrela. Ministroak ditugu, bai, egiteko hori beraien autoritatez barik bestenez egiten dutelako; eta publikoak ditugu, subiranoaren eskuespenez baizik ez dutelako egiten (edo ez luketelako egin behar) beren lan hori. Monarka eta biltzar subiranoa dira soil-soilik herriari irakatsi eta hezitzeko autoritatea dutenak zuzenki Jainkoarengandik; eta, subiranoaz gain, beste ezein gizakumek ere ez du hartzen ahalmen hori Dei gratiâ soilki, hau da, Jainkoaren eta ez beste inoren dohainez. Gainontzeko guztiek Jainkoaren eta beraien subiranoen dohainez eta probidentziaz hartzen baitute beren autoritatea: monarkia batean, kasu, Dei gratia & Regis, edota Dei providentiâ & voluntate Regis.

Jurisdikzioa eman zaienak ere ministro publikoak dira. Subiranoaren pertsona ordezkatzten dutelako haien justizi auzitegietan, eta haiek emandako epaia subiranoarena delako; izan ere, lehenago esan bezala, epailtza oro subiranoasunari datzeko esentzialki, eta, beraz, gainerako epaileak ez dira besterik botere subiranoa duenaren edo dutenen ministroak baino. Eta auziak bi motatakoak direnez, egitatezkoak eta zuzenbidezkoak alegia, judizioak ere batzuk egitatezkoak eta beste batzuk zuzenbidezkoak izanen dira; eta beraz, auzi berean bi epaile egon daitezke, egitatezkoa bata eta zuzenbidezkoa bestea.

Auzi mota biotan gerta daiteke, gainera, parte epaituaren eta epailearen arteko eztabaida, eta parte biok izanik subiranoaren meneko, bien baiespenez onartutako gizakumek epaitu beharko lituzkete, ekitatez; inor ere ezin baita izan epaile norbere auzian. Baina subiranoa jada bien onespenez jarri dutelarik epailtzat, auzia entzun eta erabaki ere egin dezake, beraz, berak berenez ala parte bien onespena dukeen epaileren bat izendatuz. Eta onespen horretara iristeko modu ezberdinak direla ulertu behar da: bata, asmo susmagarriak antzematen dizkien epaileak baztertzen uzten baldin bazaio demandatuari (auzi-jartzaileak jadanik berea hautatua duen bitartean), baztertu gabe utzi dituen epaileak onartu egiten dituela jo behar da. Bia, beste epaile batengana jotzen badu, ezingo du geroz apelatu, bere aukera izan baitzen harengana jotzea. Hirua, subiranoarengana berarengana jotzen badu eta honek berenez edo parte bien onespena duketen delegatuen bitartez epaia ematen baldin badu, epai hau azkena izango da: ezen beraren epaileak izango baitira demandatua epaituko dutenak, beste modu batera esanda, bera izango da bere burua epaitzen duena.

Epailtza zuzen eta razional baten nolakotasunak aztertu ondoren, ezin utzi aipatu gabe, bide batez, Ingalaterran, bai auzi komunetarako baita auzi publikoetarako, dauden justizi auzitegien eraketa bikaina. Auzi komunak deitzen diet, alegia, auzi-jartzailea eta demandatua, biak, menekoak direnean; eta publikoak (Koroaren Auziak ere deitzen zaienak), auzi-jartzailea subiranoa denean. Zeren bi gizaseme mota zirenean, batzuk Lordak eta besteak Komunak, Lordek beren pribilegioa zeukaten: herio-delitu guztietan, Lord zirenak bakarrik izatea epailtzat, eta horietarik presente zeudenak soilik. Horrela, faborezko pribilegiotzat orduan ezagutzen zitzairen horrek zera esan nahi zuen, beraiek gura zituzten epaileak bakarrik lortu ahal izatea. Auzi orotan, berriz, menekoek (baita Lordek ere auzi zibiletan) auzigaia gertatzen zen eskualdekoak zituzten epailtzat, eta hauetatik nahi zituztenak baztertzea zeukaten, azken hamabi epailera heldu arte, eta salbuespenik gabe onartu beharreko azken hamabiok izango zituzten epaile. Horrela, bakoitzak bere epaileak izanik, parte epaituak ezin alega zezakeen ezer ere epaia azkentzat ez hartzeko. Pertsona publiko hauek, herriari irakasteko nahiz jendea epaitzeko botere subiranoetik datorkien autoritate horrekin, Estatuaren atal ditugu eta gorputz naturalaren ahots-organoekin konpara daitezke egokiro.

Ministro publikoak dira, baita ere, emandako epaiak betearazteko autoritatea dutenak subiranoarengandik; hala nola subiranoaren aginduak argitaratu, kalapitak menperatu, gaizkileak atxilotu eta espetxeratu, eta bakea zaintzeko beste ekintza batzuk burutzeko aginpidea. Zeren autoritate horrekin burutzen duten guztia Estatuaren ekintza baita, eta egiten duten zerbitzua gorputz naturalean eskuek egiten dutena bezalakoa da. Ministro publikoak atzerrian, beren subiranoaren pertsona ordezkatzten dutenak dira atzerriko errepubliketan. Honetarikoak ditugu enbaxadoreak, mezulariak, agenteak eta heraldoak, autoritate publikoz eta arazo publikoetarako bidaliak.

Baina egoera gatazkatsuan aurkitzen den errepublika bateko alderdi partikularren baten eskuespenez besterik ez badira bidaliak, nahiz eta hartuak izan, ez dira haatik Estatuaren ministro publiko ez pribatu izango, horien egintza bat beraren egile ere ez baita Estatua. Orobat, pertsona pribatua dugu printze batek zorionak edo doluminak ematera edo ospakizun solemne batera bidalitako enbaxadorea, arazoa bera pribatua delako eta haren ahalmen naturalari dagokiona, nahiz eta autoritate publikoa eduki. Halaber, beste herrialderen batera bidalia, herri horretako iritzi-egoera eta indarra ezkutuki ikertzeraz, ministro pribatua baizik ez da izanen, zeren bai autoritatea eta bai arazoa publikoak diren arren, inork ere ez baitu hautematen harengana beste pertsonarik berarenaz gain; baina Estatuaren minis troa da, hala ere, eta gorputz natural baten begiekin konpara daiteke. Baita ministro publikoak dira, eta subiranoa ordezkatzten dute beraien eginkizun horretan, herriaren eskabideak edo beste edozein informazio jasotzeko izendatuak, belarri publikoak bailiren dihardutelarik.

Ez kontseilari bat, ez estatu-kontseilu bat (zera ulertuz estatu-kontseilutzat: epailtza edo aginte-autoritatea duena barik, Subiranoari aholku emateko dagoena soil-soilik, subiranoak berak eskatuta

ematen duelarik aholku ala eskatu gabe eskaintzen duelarik) ez dira, ez bata ez bestea, pertsona publikoak. Zeren aholkua subiranoari soilik zuzendurik baitoa, eta horren pertsona ezin ordezkatu baitezake, bera aurrean delarik, beste inork ere. Hala ere, aholkulari-talde batek beti izan ohi du beste aginpideren bat, dela epailetzakoa dela administrazio zuzeneko; monarkia batean, kasu, ministro publikoei aginduak komunikatzeko eginkizunean monarka ordezkatzeko duenean; edo, demokrazia baten kasuan, Kontseiluak edo Senatuak bere deliberazioen berri ematen dionean herriari, kontseilu gisa; baina kontseilari horiek epaileak izendatzen dituztenean, edo justizi auzitegi gisa eratzen direnean, edo enbaxadoreei audientzia ematen dietenean, herriaren ministro gisa dihardute. Eta Aristokraziaren kasuan, Estatu Kontseilua bera da biltzar subiranoa, bere buruari baizik ez diolarik ematen aholku.

## XXIV

Estatu baten elikapenaz eta ugalketaz

Bizitza ematen duten materialen ugaritasunean eta banaketan datza Estatu baten elikapena: material horiek laboratu edo prestatuz, eta, laboratuak izan ondoren, kanal egokietatik garraiatuz erabilpen publikoraino.

Materialen ugaritasunari dagokionez, Jainkoak normalean (nahiz dohainik nahiz lanaren truke) gizateriari lurretik eta itsasotik, gu denon amaren bi bularrotatik, eman ohi dizkion ondasun horietara mugatzen du naturak ugaritasun hori.

Elikagaia bera, animaliaz eta landarez eta mineralez osatua, Jainkoak doan jarri digu aurrean, lurrazalaren gainean edo bertatik hurbil; halakotz, industria eta lana eranstea baino ez dago elikagaiok hartu ahal izateko. Eta horien ugaritasuna, Jainkoak doan emandakoaren ondoren, gizakumeen lanaren eta industriaren heinean izango dugu soil-soilik.

Ekai hau, ondasunak deitzen dioguna, zati bat da bertakoa eta beste zati bat kanpoko. Bertakoa, Estatuaren lurralde barruan lor daitekeena; eta kanpoko, atzeritik inportatzen dena. Eta ez dagoenez Estatuaren manupeko lurralderik (oso handiren bat izan ezik) gorputz osoaren mantenu eta bizitzarako behar diren gauza guztiak ekoizten dituenik, eta lurralde gutxi direnez beharrezkoa baino zerbait gehiago ekoizten ez dutenak, Estatu barruan ekoiztutako ondasun soberakinok ez dira soberazkotzat hartzen, baizik etxean falta dena hornitzeko balio dute kanpoan izan daitezkeen ondasunak inportatuz, dela trukearen, dela gerraren, dela lanaren bidez. Zeren gizakume baten lana ere etekin baten ordainez truka daitezkeen ondasuna baita, beste edozer bezala. Eta izan dira, bai, Estatuak, bizitokitza zuten lurraldea besterik eduki ez arren, ez bakarrik mantendu, baizik hedatu ere egin dutenak beraien boterea, dela batetik besterako merkataritza-lanari esker, dela kanpotik ekarritako materialetatik manufaktura egin eta saltzeari esker.

Elikapen horretarako materialen banaketa da, hain zuzen, nirea, zurea eta berea egiten duena: hitz batez esateko, jabegoa: botere subiranoari dagokiona, edozein motatako Estatutan ere. Zeren Estaturik ez dagoen lekuan, lehen esan bezala, amaigabeko gerra egiten baitu bakoitzak bere auzoaren kontra eta, beraz, gauzak zeinek eskuratu eta indarrez harrapatu, harexenak izaten baitira. Eta hori ez dugu ez jabetza ez elkartea, segurtasun eza baizik. Hain da bistakoa hau, ezen Zizeronek berak ere, askatasunaren defendatzaile porrokatu hark, jabego oro Lege Zibilar dagokiola dio, bere diskurtso publiko batean: Lege Zibila bazterreraz utziz gero, edo laxotasunez bakarrik betez gero, edo ezabaturik bukatuz gero, ez da izango ezertxo ere gizakumeek segurantzaz beren aurrekoengandik jaso dezaketenik edo beren umeei laga diezaieketenik. Eta hau ere badio: Ezaba ezazue Lege Zibila eta inork ere ez du jakingo zer den berea eta zer besterena. Ikusirik, bada, Jabegoaren agerpena Estatuaren ondorioz datorrela, eta honek ezin duela ezer egin berau ordezkatzeko duten pertsonen bidez ez bada, botere subiranoren egintza da, ez beste inorena, jabego hori; eta legeetan datza, botere subiranorik gabe inork ere egin ez ditzakeen legeetan, alegia. Antzinakoek ondo zekiten hori, jakin ere, eta Novmo" deitu zioten (hau da, banaketa) guk Legea deitzen diogunari; eta horrela definitu zuten Justizia ere, bakoitzari berea banatzea alegia.

Lehen legea, banaketa honetan, lurraldearen beraren banaketari dagokiona da; zeinen arabera subiranoak bakoitzari zati bat esleitzen dion, subiranoren beraren iritziz (eta ez beste meneko baten edo meneko-talderen baten iritziz) ekitateari eta guztien onari dagokionaren arabera. Israelgo seme-alabak Estatu bat ziren basamortuaren erdian, baina Lurreko ondasunak falta zitzaizkien agindutako lurraldearen jabe bihurtu ziren arte, eta orduantxe egin zen lurralde haren banaketa beraien artean; ez zen egin, ordea, euren iritzia arabera, baizik Eleazar Apaizaren eta Josue Jeneralaren iritzia arabera, eta horra hor nola: hasiera batean hamabi tribu izan eta Joseren tribua azpibanatu ondoren hamahiru bihurtu zirelarik, lurraldearen hamabi zati baino ez zuten egin hala ere, eta ez zuten manatu lurralderik Leviren tribuarentzat, baizik fruitu guztien hamarrena esleitu. Nahierarako banaketa burutu zuten, beraz. Gainera, nahiz eta herri batek lurralde bat bereganatu gerraren bidez, ez ditu beti akabatzen aurreko bizilagunak, juduek egin zuten bezala, baizik euren etxaldeak uzten dizkie haietariko askori edo gehienei. Bistan da, hala ere, garailearen banaketatik jasotzen dituztela lurrok, Ingalaterrako herriak bereak Gilen Konkistatzailearen banaketatik jaso zituen bezala.

Aurreko guztitik ondoriozta dezakegunaz, beraz, meneko batek bere lurren gain duen jabetzak zera esan nahi du: lurron erabilpenetik gainerako meneko guztiak eskuditzeko eskubidea duela, baina ez subiranoa (dela biltzarra edo monarka) eskuditzekoa. Zeren kontuan hartuz subiranoak, hots, Estatuak (beronen pertsona ordezkatzeko baitu subiranoak) denon bakeari eta segurtasunari begira egiten duela dagien guztia, lurren banaketa ere horrexetarako egin duela ulertu behar baita. Ondorioz, helburu horren kaltetan doan beste edozein banaketa meneko guztien borondatearen kontrakoa da, hauek subiranoaren irizpide eta ebazmenaren esku utzi baitzuten berauen bakea eta segurtasuna; eta baliogabetzat jo beharrekoa, beraz, meneko guztion nahia izenean. Egia da, izan, monarka subirano batek edo biltzar subirano baten gehiengoak beraien grinei jarraituz agindu dezaketela gauza asko, kontzientziak diotsen kontrakoak; eta beraien jarritako konfidantza zapuztea eta lege naturala haustea dela hori. Baina ez da aski menekoek beren subiranoaren kontra gerra egiteko eskubidea izan dezaten, ezta injustizia egotz diezaioaten, ezta haren kontra gaizkiesaka jardun dezaten; zeren haren egintza guztiak eskuetsi baitituzte eta, botere subiranoz inestitu dutenean, egintzok bere egin ere. Dena den, beste leku batean tratatuko dugu, geroago, subiranoaren aginduak zein kasutan diren ekitatearen eta lege naturalaren kontrakoak.

Lurren banaketa horretan, pentsa daiteke Estatuak berak ere beretzako zati bat hartu, eduki eta bere ordezkariaren bidez hobe dezakeela; eta zati hori bake-denborako gastu guztiak estaltzeko eta defentsarako derrigorrez behar dena edukitzeko adina handia izatea. Oso egingarria litzateke, izan ere, giza grina eta gaitzetatik aske den ordezkariaren bat aurkitzerik balego. Baina gizakumeen natura den modukoa izanik, alferrikakoa da Estatuari lur publikoak edo beste ezein motatako diru-sarrerak esleitzea; gobernuaren desgitea lekarke, gainera, eta natura hutseko egoerara eta gerrara itzuliko gintuzke, diru-kontuan ezaxola den edo fondo publikoak gerra luze eta garestietan inbertitzera aiherrégi den monarka edo biltzar baten esku erori bezain laster botere subiranoa. Estatuak, bada, ezin jasan dezakete zuzkidurarik; ezen, beraien gutizia baino kanpoko zirkunstantziak eta auzokoen gutziak direlarik gastuen muga ezartzen dutenak, aberastasun publikoak ezin baitute izan beste mugarik, abagune berriek sortu ahala eskatzen dutena baizik. Eta Ingalaterran Konkistatzaileak bere erabiltzenerako zenbait terreno erreserbatu zuen arren (bere aisialdirako edo landaretza kontserbatzeko hartu

zituen baso eta ehiza-eremuez gain) eta bere menekoei emandako lurretatik zenbait zerbitzu erreserbatu zuen arren, badirudi pertsona publiko gisa behar zuen mantenurako barik, bere ahalbide naturalerako erreserbatu zituela. Zeren, bai berak baita bere ondorengoek ere, hori dena eduki arren, nahierarako tributuak ezarri zizkieten menekoen lurrei. Edota lur eta zerbitzu publikoak Estatuaren mantenu duinerako ordaindu zirela emanda ere, Estatu horrek erakuntzaz duen xedearen kontrako bihurtu ziren: ez zirelako aski gertatu, tributuak ezarri behar horrek adierazten duenez; eta inorentze eta murrizketa franko jasan zutelako, Koroak geroztik izan duen errenta eskasak adierazten digunez. Alferrikakoa da, beraz, Estatuari zati bat esleitzea, zeren saldu edo eman egin baitezake, eta horixe baita egiten duena, hain zuzen, haren ordezkari batek saldu edo opari egiten duenean.

Lurren banaketarekin etxean gertatzen den bezalaxe, subiranoaren esku dago, baita ere, menekoek atzerrian zein lekutan eta zeintzuk ondasun saleros dezaketen. Izan ere, pertsona pribatuaren esku balego beraien nahierara jokatzeko horretan, haietariko batzuk irabaziaren atzetik joango lirateke eta Estatuari kalte egiteko baliabideez arerioa hornitu ezezik, beraien buruen kaltetan ere eroriko lirateke, giza gutzien atsegingarri izan arren, haien zako hondagarri edo behintzat probetxagarri ez diren jeneroak inportatuz. Horregatik beraz, Estatuari dagokio, hau da, subiranoari eta ez beste inori, atzerriko merkataritzako bai lekuak eta bai gaiak onestea ala gaitzestea.

Eta aurrera jarraituz, ikusirik Estatuaren sostengurako ez dela nahikoa bakoitzak lur zati bat edo ondasun gutxi batzuk edukitzea, edo arte probetxugarriaren batean trebe izatea (eta ez da munduan arterik norbanako ia denen existentziarako edo ongizaterako probetxugarri ez denik), derrigorrezko gertatzen da gizakiek soberan dutena banatzea eta beraien jabetza ere transferitu ahal izatea elkarri, trukearen edo elkarren arteko kontratuen bidez. Eta Estatuari (hots, subiranoari) dagokio, beraz, menekoen arteko edozein motatako kontratuak (erosketa, salmenta, trukea, mailegua, akurapena) zein eratara egin behar diren, eta zein hitzen eta zeinuen bidez baliozkotzat ulertu behar diren erabakitzea. Eta aski bedi honekin (lan osoaren egitasmoa kontuan izanez) Estatuaren gorputzadar bakoitzaren elikapenerako ekai eta banaketari buruz.

Hara zer ulertzen dudan laborazioaz: orain kontsumitu beharrean etorkizunerako elikagaitzat gordetzen ditugun ondasun guztiak beste zerbaitezara aldatzea, zerbaite hori balio berekoa eta erraz eramateko modukoa delarik, hots, batetik bestera ibiltzeko trabarik egingo ez diona jendeari; noranahi joanda ere, leku bakoitzean bertako elikagaiak lor ditzan. Eta zerbaite hori ez da besterik urrea, zilarra eta dirua baizik. Ezen, urrea eta zilarra hain baliotsiak direlarik, diren bezala, munduko ia lurralde guztietan, gainerako gauza guztien balioaren neurri eroso bihurtu dira nazioartean; eta dirua ere neurri egokia gertatzen da gainontzeko gauza guztiak baloratzeko Estatu bateko menekoen artean, berdin diolarik Estatu horretako subiranoak zein materialez txanpondu duen diru hori. Neurri hori bitartekotzat erabiliz, edozein ondasun, higigarri nahiz higiezin, eraman dezake batek berarekin, doan lekura doalarik ere, bere ohiko bizilekuan

barne ala handik kanpo; eta bitarteko horixe da eskutik eskura pasatzen dena Estatu barnean, zirkulatuz doana eta, batetik bestera iragan ahala, alde bakoitza elikatuz. Halako moldez, non laborazio hori Estatuaren odol-garastapentzat jo dezakegun. Halaxe eratzen baita odol naturala ere lurreko fruituetatik eta, gorputzean zehar zirkulatu ahala, giza gorputzadar bakoitza elikatzen. Urreari eta zilarrari dagokienez, materialetik bertatik hartzen dutenez balioa, pribilegio horixe daukate lehenengo eta behin: beraien balio hori, lurralde guztietako ondasunei dagokien neurri komuna izaki, ezin alda dezakeela ez Estatu bakar baten ez Estatu-talde baten botereak; diru arruntak, ordea, gora zein behera egin dezake bere balioan. Haien beste pribilegio bat da, bigarrenik, Estatuaren besoak mugiarazi eta luzarazi ditzaketela, hala behar izanez gero, atzerriko herrietaraino; eta bidaian doazen meneko pribatuak ezezik, armada osoak ere horni ditzaketela; baina bere materialagatik barik leku jakin bateko zigiluagatik balioesten den moneta arruntak, aldiz, aire-aldaketarik jasan ezin duenez, etxean besterik ez du eraginik; eta bertan ere lege-aldaketen menpe egon ohi da, balioz gutxitzea gertatzen zaiolarik, maiz, diru hori dutenen kaltetan. Dirua erabilpen publikoraino daramaten bideak bi motatakoak dira: bata, altxortegi publikora daramana; eta bestea, hortik berriro ateratzen duena, ordainketa publikoak egiteko. Lehen motakoak ditugu zerga-biltzaileak, kobratzaileak eta diruzainak; bigarren motakoak, aldiz, diruzainak berriro ere, eta ministro publiko zein pribatu ezberdinei ordaintzeko izendatutako funtzionariak. Eta gizaki artifizialeak badu horretan ere gizaki naturalaren antza: honen zainek, izan ere, odola gorputzaren parte ezberdinetatik jasoz, bihotzeraino eramaten baitute, eta hemen bizikor bihurtu ondoren, bihotzak odol hori arterietan zehar bidaltzen baitu berriro ere, gorputzadar guztiei bizia eta mugitzeko indarra emateko.

Plantazioak edo koloniak deitzen diegunak dira Estatu baten ugaltzea edo umeak: aitzindari edo gobernadore baten agindupean Estatutik bidalitako taldeak, alegia, atzerriko lurralde bat, arestian bizilagunik gabekoa edo gerraren ondorioz despopulatua, popula dezaten. Eta kolonia eratzean, haiek beraiek osa dezakete Estatu bat, bidali zituen subiranoaren menpeko izan gabe (antzinarako Estatu askorekin egin zen bezala), eta orduan metropoli edo ama deitzen zaio haien jatorrizko Estatuari, beronenganako eskatzen zaien gauza bakarra etxeko menpetasunetik emanzipatu eta aske geratu diren umei gurasoek eskatzen dietena besterik ez delarik, hots, ondra eta adiskidetasuna; edota metropoliari loturik jarrai dezakete, Erromako koloniekin gertatu zen bezala, eta orduan ez dute osatuko Estatu bat aparte, baizik probintziak izanen dira, bidali zituen Estatuaren parte, beraz. Horrela, bada, kolonien eskubideak, koloniok metropoliari zor dioten ondra eta elkartasuna salbu, subiranoak kolonizatze baimenarekin eman zizkien estatutu edo eskutitzen menpe daude erabat.

## XXV

### Aholkuaz

Aholkua eta agindua nahasteak erakusten digu, beste ezerk baino argiago, zein puntutaraino den engainagarria hitzen erabilpen arrunt bezain aldakorrean oinarritzea gauzen izaeraz iritzia hartzeko; aholkurako eta agindurako, bietarako, eta beste gauza askotarako ere, agintera moduz hitz egitetik dator nahastea. Izan ere, Egizu hori hitzak ez dira bakarrik agintzen duenaren hitzak, baizik baita aholku ematen duenarenak ere, eta erregutzen duenarenak. Hala ere, jende gutxi izango da gauzok oso ezberdintzat hartuko ez dituenik; edo bata eta bestea bereizi ezinik geratuko denik, hitz egiten duena nor den, nori hitz egiten dion eta zer dela-eta hitz egiten dion hautematean. Baina berba horiek gizakumeen idazkietan aurkitzean eta zirkunstantziak kontuan hartzerik ez dagoenean, edo kontuan hartzerik nahi ez denean, aholkuzko mandatuak aginduzkotzat hartu ohi dira batzuetan, edo alderantziz ere bai beste batzuetan, inferitu nahi diren konklusioei edo onetsi nahi diren ekintzei ondoen datorkienaren arabera. Errankuntza horiek saihestearren eta hitz hauei, agindu, aholkatu eta erregutu hitzei alegia, dagokien esanahi propio eta berezia ematearren, era honetara definituko ditut:

AGINDUA, norbaitek Egizu hau edo Ez ezazu egin hori dioenean da, beronen nahiaz haragoko beste arrazoirik itxaroterik ez dagoelarik. Argi eta garbi ondorioztatuz, hortik, agindua ematen duen horrek beretzako onura bilatzen duela horrela, beraren nahia delako soil-soilik aginduaren arrazoi bakarra, eta nork beretzat onuraren bat bilatzea delako gizakume orearen nahiaren xede propioa.

AHOLKUA, berriz, norbaitek Egizu edo Ez ezazu egin dioenean, mandatu honen hartzaileari hortik datorkiokeen onura jarritz arrazoitzat. Begibistan geratzen delarik, horrexegatik, aholku ematen duenak aholku-hartzailearen onura bilatzen duela soil-soilik, dena delako asmoz jardun.

Beraz, haxe dugu aholkuaren eta aginduaren arteko alde nagusi bat: aginduak norberaren onura duela xedetzat, eta aholkuak, oster, beste baten onura. Eta hortik sortzen da beste ezberdintasun bat ere: agindua hartzen duena, obeditzera beharturik aurki daitekeela (obeditzeko hitz eman badu, kasu), baina aholkua hartzen duena ezin aurki daitekeela beharturik obeditzera, zeren berari baizik ez baitletorkio aholkuari ez jarraitzearen kaltea; edota aholkuari jarraitzeko hitz eman baldin badu, aholkuak orduan aginduaren izaera hartu duela. Eta bada horien arteko hirugarren alde bat ere: inork ere ezin beregana dezakeela beste baten aholkulari izateko eskubidea. Ezin delako ibili aholkulari bere buruarentzako onuraren bila, eta horixe esan nahi duelako beste baten aholkulari izateko eskubidea exigitzeak: bestearen

asmoen berri izateko gogoia, edo nork berarentzat beste onuraren bat lortzekoa. Horixe baita izan ere, lehen esan bezala, gizakume ororen nahiaren xede propioa.

Beste hau ere badagokio aholkuaren izaerari: aholku eskatu duenak ezin izango duela, ekitatez, ematen zaion aholkuarengatik salaketa edo zigorrrik ezarri, dena delakoa izan aholku hori. Beste bati aholku eskatzeak, izan ere, beroni onena deritzona eman ahal izatea esan nahi baitu; eta beraz, bere subiranoari (dela monarkari, dela biltzarrari) aholku emateko eskatu eta ematen dionari ezin zaio ekitatez zigorrrik ezarri, emandako aholku hori gehiengoaren iritzari dagokiona izan ala ez, eztabaidan dagoen proposamenari buruz. Izan ere, eztabaida bukatu aurretik aurrakusi ahal baldin bada biltzarraren bat-etortzea, ez litzateke galdetu behar, ez aholku gehiagoren bila jo behar; zeren biltzarraren adostasun hori baita eztabaidaren ebazpena eta deliberazio guztien azken bukaera. Gainera, aholku eskatzen duena bera izan ohi denez gehienetan aholku horren eragile, ezin izango du, hortaz, zigortu; eta subiranoak ezin duena, beste inork ere ezin izango du. Baina menekoren batek beste bati legeen aurkako zerbait egiteko aholkua eman balio, Estatuak bai zigortu ahal izango duela, berdin dio asmo gaiztoz ala soilik legearen ez-ezagutzaz izan den; zeren legearen ez-ezagutza ez baita aitzakia ona, denek jakin behar dutenean, obligazioz, zeintzuk legeren meneko diren.

ERREGUA, eta DISUASIOA ere, aholkua da, baina aholku-emaileak duen gogo bizia aditzera emanez, zeinuen bidez, bere aholku horri kasu egin diezaioten; edo laburrago esateko, biziki bultzatutako aholkua da. Izan ere, erregutzen duenak ez ditu neurtuko berak aholkatzen duenaren ondorioak, eta ez zaio lotuko benetako arrazonamenduari dagokion zehaztasunari, baizik bere aholkatua ekintzara bultzatzen saiatuko da, gibelarazlea adorea kentzen saiatzen den bezala. Hortaz, arrazoiak ematerakoan, jendearen irritsi eta iritzi arruntetara jotzen dute euren diskurtsoetan, alegiak, metaforak, adibideak eta hizlaritzaren beste baliabide batzuk erabiliz, beraien aholkuari jarraitzeak lekarkeen baliagarritasunaz, ohoreaz edo justiziaz konbentziarazteko entzuleak.

Hortik guztitik atera daitekeenez, lehenik, erregua eta disuasioa aholku ematen duenaren onuraren bila doaz, ez aholku eskatu duenaren mesedetan, eta hori aholkulariari dagokion betebeharraren kontra dago; zeren aholkulariak, definizioz, bere aholku-hartzailearen onari begira jokatu beharko bailuke eta ez bere buruaren onari begira. Eta aski garbi dago bere buruaren mesedetan diharduela aholku ematen, erreparatu bestela haren ekinaren ekinari edo gauzak artifiziaiki planteatzeko moduari. Izan ere, inork ere ez dionez eskatzen horrela jokatzeko, baizik oportunismoa duenez eragile, berarentzako onuraren bila dabil batez ere, eta zeharka baino ez, edo batere ez, aholku-hartzailearen onaren bila.

Bigarrenik, erregua eta disuasioa gizatalde bati zuzentzen zaizkionean baizik ez dira erabilgarri, zeren hitzaldia banako bati zuzentzen zaionean, honek bere solaskidearen hitza eten eta arrazoiak azter baititzake, gizatalde batek egin ditzakeen baino zehazkiago; gizataldean gehiagi baitira, izan ere, aldi eta era berean denei hitz egiten ari zaienarekin eztabaidan eta elkarrizketan hasteko.

Hirugarrenik, aholkatzeko eskatu eta aholku eman beharrean erreguari eta disuasioari ekiten diotenak aholkulari ustelak dira, beraien interesak erosita baleude bezala. Ezen, ematen duten aholkua berebizikoa izanik ere, aholkularia bera ez baita izango, kasu, azpisariaren truke epai zuzena eman duen epailea baino hobeia. Baina baten bati aginduak ematea legez dagokionean, familiburuari edo gudarosteburuari esaterako, hauen erreguak eta disuasioak ez bakarrik legezkoak, baizik beharrezkoak eta txalagarriak ere badira. Orduan, alabaina, ez dira jada aholkuak izango, baizik aginduak; zeren hauek eginbehar desatseginen bat agintzen dutenean, beharrezkoa baita batzuetan, eta gizalegezkoa beti ere, gozotasunez eta adore emanez aurkeztuak izatea, aholku-tonu eta moldez, aginduen hizkera latzez barik.

Hortxe ditugu, aginduaren eta aholkuaren arteko adibide, Idazteunak baterako eta besterako darabiltzan esaerak. Etzazu izan nitaz gain beste jainkorrik; ez ezazu idolorik egin; ez ezazu Jainkoaren izena alferrik erabil; santifika ezazu larunbata; ondra itzazu gurasoak; ez erahil; ez lapurtu, etab., aginduak dira. Zeren manatuok obeditu beharraren arrazoia Jainkoaren borondatetik datozkigula baita, obediencia zor diogun gure Erregearengandik, alegia. Baina beste esaera hauek, Saldu daukazu guztia, eman den-dena behartsuei eta jarrai iezadazu, aholkuak ditugu, zeren geure onura jartzen baitzaigu horiek betetzeko arrazoitzat, Zeruan altxor bat izan dezagun, hain zuzen. Hurrengo hitz hauek, Joan zaitezte hor aurreko baserrira eta asteme bat aurkituko duzue lotuta, ondoan astakume bat duena: aska eta ekar iezadazue, agindu bat osatzen dute, Maisuaren borondatea jartzen zaielako ekintza hori egiteko arrazoitzat; beste hitz hauek, oster, Damu izan ezazue eta bataia zaitezte Jesusen izenean, aholkua baino ez dira, zeren mandatu hori betetzeko jartzen zaigun arrazoia ez baitoa Jainko Guztiahaldunaren mesedetan (beronek Errege izaten jarraituko baitu, gu nolanahi bihurtzen gatazkiola ere), baizik gure geure mesedetan: ez dugulako beste modurik, izan ere, gure bekatuengatik zintzilik daukagun zigorrari itzuri gakizkion.

Aholkuaren izaeran oinarritu gara aholkuaren eta aginduaren arteko ezberdintasuna aztertzeko, honetan zetzalarik aholkua: proposatutako ekintzaren ondorioz aholku-hartzaileari nahitaez edo segurki gerta dakioken onura edo kaltea deduzitzean; orain, bada, aholkulari gai eta ezgaien arteko diferentziak ere azter ditzakegu, bide berari jarraituz. Zeren, arestian hauteman ditugun antzeko ekintzen ondorioen memoria baizik ez delarik esperientzia, eta esperientzian berri elkarri emateko erabiltzen dugun hizkera

izanik aholkua, aholku honen bertuteak eta akatsak adimen-bertute eta akatsak bezalakoxeak izanen baitira; eta aholkulariak dira Estatuaren pertsonaren memoria eta buru-diskurtsoaren eginkizuna betetzen dutenak. Halere, Estatuaren eta gizaki naturalaren arteko antzekotasun horrekin batera, bada ezberdintasun bat ere garrantzi handikoa, hots: gizaki naturalak zentzu-objektu naturaletatik jasotzen duela esperientzia, bere grina edo interes pertsonalen enbarazurik gabe ailegatzeko zaizkiolarik objektuok; oster, Estatu baten ordezkariari aholku ematen diotenek beren helburu partikularrak eta grinak izan ditzaketela, eta izaten dituztela sarritan, beraien aholkuak betiere susmagarri eta sarri askotan saldukeria bihurtuz. Beraz, hauxe har dezakegu aholkulari on baten baldintzatza, lehenengo eta behin: haren helburuak eta interesak ez daitezela bateraezinak izan bere aholkua hartzen duenaren helburu eta interesekin.

Bigarrenik, erabakitzeaz dagoen ekintza baten ondorioak garbiro azaltzea delarik aholkulari baten eginkizuna (aholku-hartzailea egiazki eta argi informatzeko moduan, alegia), egia ahalik eta garbien adierazteko moduko hizkera erabili beharko du bere aholkua aurkeztean; hau da, ebidentziak eskatzen duen neurriko arrazoiketa sendoz, hizkera egoki eta adierazgarri, eta laburtasunez. Beraz, ebidentziarik gabeko laster-inferentziak -adibideetatik eta liburuen autoritatetik soilik ateratzen dituztenak, esaterako, ona eta txarra erakusten duten argumentuak izan beharrean, egitateen edo iritzien aitormenak baizik ez direnak-, esamolde ilun, nahasi eta zalantzarriak, hala nola grinak zirikatza jotzen duten metaforazko hizketa-molde guztiak (zeren horrelako arrazonomendu eta esamoldeak aholku-hartzailea engainatzeko edo bereak ez dituen helburuetara bideratzeko baizik ez baitute balio), aholkulari baten eginkizunarekin bateraezinak dira zeharo.

Hirugarrenik, aholku emateko trebetasuna esperientziatik eta azterlan luzetik datorrenez, eta ezein gizakumerengandik ere ezin denez espero Estatu handi baten administraziorako ezagutu behar diren gauza guztien esperientzia izaterik, ezein gizakume ere ez da izanen aholkulari ona, oso aditua den arazoetan baizik, eta arazoi hausnarketa luzea eta arreta handia eskaini ezean. Ezen, ikusirik Estatu baten eginkizuna zein den, alegia, jendea oro bakean zaintzea herrian, eta atzerriko inbasioetatik defendaturik edukitzea, bistan da horretarako ezagutza handia behar dela gizateriaren antolamenduaz, gobernu-eskubideez, eta ekitatearen, legearen, justiziaren eta ohorearen izaeraz; azterlanik gabe lortu ezinezko ezagutza, hain zuzen. Eta ezagutza handia, gainera, bai norberaren herriaren eta bai auzokoen indarrari, baliabideei eta lekuei buruz; baita ere, nolabait mehatxugarri daitezkeen nazio guztien joera eta asmoiei buruz. Eta hori guztia ezin lortu daitekeela esperientzia handi-handia izan gabe. Arazo horietarako, eta ez bakarrik denetarako oro har, baizik horietariko bakoitzerako ere, adin nagusiko gizakume baten sasoia eta oharmena behar dira, eta azterlan arrunta baino zerbait gehiago. Aholku emateko behar den talentua, lehenago esan dudak bezala (8. kap.), irizmena da. Eta gizakumeen arteko aldeak, puntu honetan, hezkuntza ezberdinetik datoz, batzuek ikasketa eta jarduera mota jakin bati eta beste batzuek bestelako bati lotu izatek. Zerbait burutu ahal izateko hutsezinezko arauak daudenean, makinagintza eta eraikuntzarako geometri arauak bezala, inongo esperientziarik handiena ere ez da izango arau jakin hori ikasi edo aurkitu duenaren aholkuaren parekoa. Baina halako araurik ez dagoenean, arazo jakin bati buruz esperientzia handiena duena izango da horretaz irizmen onena duena, eta aholkulari onena.

Laugarrenik, Estatu bati aholku eman ahal izateko beste Estatu bati buruzko arazoetan, handik datozen informazioen eta gutunen berri izan behar da, baita Estatu bion arteko tratatu eta gainerako estatu-transakzioei buruzko erregistroen berri ere; eta inor ere ezin iritsi horretara, ordezkariak egoki deritzona izan ezik. Ikus dezakegunez, beraz, aholku ematera deituak ez direnentzat, ez da aholku ona kasu horietan muturra sartzea.

Bosgarrenik, maila bereko aholkulari-kopuru bat emanez, aholku hartzeko orduan hobe da bakoitzari aparte entzutea, biltzar batean baino; eta hau arrazoi askogatik. Lehenengo eta behin, haiei aparte entzunez, bakoitzaren aholkua izango duzu; biltzarrean, ordea, haietariko askok bai edo ez soil batez, edota eskuen edo oinen keinuz, adierazten dute euren aholkua, bakoitzari bere senak diotsonak baino beste norbaiten bokantzak eraginik, edo kontrako iritzia azaltzearen aurretik hitz egin duenari edo biltzar osoari haserrearaziko dion beldurrez; edota kontrako iritzia txalotu berri dutenak baino laburrago emango ote duen beldurrez. Bigarrenik, ekidin ezinezkoa gertatzen da, biltzarrean asko direnean, gehiengoaren kontrako interesak dituzten baten batzuk egotea bertan, eta hauek su eta gar defendatzea beren interesak, hitz-jario oparoz, euren iritzira erakarriz beste batzuk ere. Gizakumeen iritsek, izan ere, ilenti baten bero apalaren irudiko izan arren banan harturik, bata bestearen garra pizten duten ilenti pila ematen dute biltzarrean, mintzoz elkar berotzen dihardutenean batez ere, Estatu osoari su emateko kapaz direlarik, aholku ematera doazelakoan. Hirugarrenik, bakoitzari banan entzutean, haren arrazoiaren egitasuna edo probabilitatea azter dezakezu, hala behar izanez gero, baita hark ematen dizun aholkuaren zergatiak ere, nahi duzun guztian hitza eten eta objektzioak jarri; biltzar batean ezin dena, zerena, egin beharko litzatekeenari buruz informatu beharrean, harri eta zur utz baitzaitzake hango hitzaren hitzak, arazo korapilatsuren bat sortzen den bakoitzean. Gainera, nekez gertatuko da, aholku emateko bildutako jende askoren biltzar batean, euren burua eledertzat eta politikan aditutzat daukaten baten batzuk ez agertzea;

eta proposatutako arazoak aholkatzeak barik, beraien ateraldi nabarrentzako txaloa lortzeak arduratuko ditu, mila koloretako xingolaz eta autoreen txatalez hornituz berbaldia; adeigabekeria gutxienez, zeren kontsulta serio bati denbora lapurtu baino ez baitiote egiten; eta horrelakoak erraz ekidin daitezke banakako aholkugintzan. Laugarrenik, sekretua eskatzen duten erabakigaietan -eta askotan gertatu ohi da horrelakorik arazo publikoetan-, arriskutsua da jende askoren arteko aholkugintza, biltzarretakoa batez ere; hori dela eta, biltzar zabalek pertsona gutxi batzuen eskuetan utzi behar izaten dituzte horrelako arazoak, gaian adituagoak diren eta erabateko leialtasuna aitortzen zaien pertsonen eskuetan, hain zuzen.

Bukatzeo, ba al da inor, izan, aholkularien biltzar zabale-

tik aholku hartzearen hain aldeko denik eta sistema horren eragozpe-

nak jasateko hain prest dagoenik, bere seme-alaben ezkontzari buruzko arazoren bat, edota terrenoen etorkizuna, etxearen gobernua edo bere ondasun pribatuen administrazioa dagoenean tartean?, eta, batez ere, kontrakoren bat baldin badu biltzarkideen artean? Bere negozioak aholkulari asko eta zuhurren laguntzaz daramatzen, bakoitzari bere espezialitatean kontsultatuz aparte, horrexek jokatzeko du bikainen, tenis jokoa bere bikoteak erabiltzen dakienak bezalaxe, bakoitza bere lekuan kokatuz. Hurrengo jokalaririk onena bere irizmena soilik erabiltzen duena litzateke, tenisean bikoterik gabe jokatzeko duena bezalaxe. Baina denetarik okerrean dabilena, ziur, bere negozioetan hara eta hona daramatena da, iritzi anitz bateratze bezalaxe mugitzen ez den aholkuaren gurdian, aholku hori atzeratu eta trabatu egin ohi duelarik, gainera, ezakort dagoenak (inbidia edo interesengatik eskuarki); teniserik gurdian edo halako orgatila batean daramatenaren moduan, nahiz eta garraiatzaileak inongo jokalaririk onenak izan; eta pentsa, berez astuna den gurdia hori gehiago eragotzi baino ez badute egiten gidarien iritzi bateraezinek eta hika-mikak; zenbat eta esku gehiago tiran, orduan eta enbarazu gehiago; eta okerrean, haien arteko baten batek, edo batek baino gehiagok, gure tenislaria galtzen ikusi nahi duenean. Eta egia den arren begi askok begi bakar batek baino gehiago ikusten duela, begi askok ez du esan nahi aholkulari askok, azken erabakia pertsona bakar baten esku dagoenean salbu. Horrela ez denean, osterik, begi askok gauza bera ikuspuntu ezberdinetatik ikusten duenez gero, eta bakoitzak bere onura pertsonalari zeharretara begiratzeo joera duenez, norbere xedea bazterrerara uztera gertu ez dagoenak ez du ikusiko begi batekin baizik, nahiz eta begi biek biek begiratu. Hori guztia horrela izanik, Estatu popular handi bakar batek ere ezin iraun izan du, atzerriko etsairen batek batuta mantendu duelako izan ez bada, edo euren pertsona ospetsuen baten izen onari edo gutxi batzuen aholku sekretuari esker, edo indar berdintsuko barneko alderdiek elkarri izan dioten beldurrarengatik; baina ez, nolana ere, biltzarretako aholkugintza irekierik esker. Eta Estatu txiki dagokionez, popularrak nahiz monarkikoak izan, ez da giza jakinduriarik beraien auzoko indartsuekiko inbidia bezain iraunkorki eutsiko dienik.

## XXVI

Lege zibilez

LEGE ZIBILTZAT ulertzen dudana hau da: gizakumeek bete behar dutena, ez hemengo edo hango Estatu jakin baten kide izateagatik, baizik Estatu baten kide izateagatik besterik gabe. Lege partikularren ezagutza, izan ere, beraien herrietako legeak ikertzen dituztenei dagokie; baina lege zibila orokorrean ezagutzea denei dagokiena da. Erromatarren antzinako legeari beraien Lege Zibila deitu zioten, hitz horren jatorria civitas delarik, Estatu esan nahi duena; eta, Erromako Inperioaren azpian bizi eta lege haren arauera gobernatuak izateagatik lege horren zati bat (egokia deritzen zatia) oraindik kontserbatzen duten herriek Lege Zibila deitzen diote zati horri, beren gainontzeko lege zibiletatik bereizteko. Baina hori ez da orain tratatu nahi dudana, zeren ez baitut asmotan legea han edo hemen zer den adieraztea, baizik legea zer den, Platonik, Aristotelesek, Zizeronek eta beste batzuek tratatu zuten bezala, legearen azterketa lanbidetzat hartu gabe.

Eta argi dago, lehenbizi, lege orokorra ez dela aholkua, baizik agindua; eta ez edozeinek edozeini emandako agindua, baizik norbaitek bere aginduaren obediencia aurretiaz zor dion beste norbaiti emandako agindua soil-soilik. Eta lege zibilar dagokionez, agintzen duen pertsonaren izena gehitzea baino ez dago: persona civitatis, hau da, Estatuaren pertsona.

Gogarpen hau egin ondoren, honelaxe definituko dut lege zibila: LEGE ZIBILA Estatuak meneko bakoitzari agindu dizkion arauak dira, dela hitzez, dela idatziz, dela bere nahiaren beste edozein zeinu adierazgarriren bidez, arauok zuzena eta okerra zer den, hots, arauaren kontrako zer den eta zer ez den bereizteko erabil ditzan.

Definizio honetan ez da ezer ere lehenengo hotsean ebidentea ez denik. Zeren edozeinek baita lege batzuk meneko guztiei orokorrean zuzentzen zaizkiela, beste batzuk probintzia jakin batzuei, batzuk profesio jakin batzuei, eta beste batzuk gizakume partikularrei; lege dira, beraz, agindua zuzendu zaion bakoitzarentzat, eta ez beste inorentzat. Ebidentea da, halaber, legeak zuzenaren eta zuzengabearen arau ditugula, ezer ere ez delarik zuzengabetzat hartzen legeren baten aurka ez badoa. Eta bistan da Estatuak baizik ezin egin dezakeela legerik, Estatuari soilik zor baitiogu menekotasuna. Eta zeinu aski adierazgarri adierazi behar direla aginduok, batek ez lekike, bestela, nola obeditu. Beraz, goiko definizio



horretatik nahitaezko ondorio legez deduzi daitekeen guztia egiazkotzat hartu beharra dago. Eta ondoko hauxe deduzitzen dut nik:

1. Legegilea, edozein Estatutan ere, subiranoa da, dela gizabanako bat, monarkian gertatzen den bezala, dela gizabanakoen biltzar bat, demokrazian edo aristokrazian bezala. Legegilea, izan ere, legea egiten duena da, eta Estatua da soil-soilik legea deritzegun arau hauek betetzea manatu eta agintzen duena: legegilea, beraz, Estatua da. Baina Estatua ez da pertsona bat eta ez du ezer egiteko gaitasunik ordezkariaren bidez izan ezean, hots, subiranoaren bidez; horrexegatik dugu subiranoa legegile bakarra. Eta arrazoi beragatik, inork ere ezin du emanda dagoen lege bat deseman, subiranoak izan ezik; zeren lege bat ezin baitu derogatu hura indarrean jartzea debekatzen duen beste lege batek baizik.

2. Estatu bateko subiranoa, dela biltzarra edo gizabanakoa, ez dago Lege Zibilen menpean. Zeren, legeak egiteko eta desegiteko ahalmena duenez, berak nahi duenean aska daitekeelako legeon menpetasunetik, traba egiten dioten legeak kenduz eta berriak eginez; lehenago ere aske zen, beraz. Izan ere, nork berak nahi duenean aska daitekeena da, hain zuzen, aske; eta ezinezkoa da norbait bere buruaren menpeko izatea, lotzeko ahalmena duenak askatzekoa ere baduelako; bere buruari besterik loturik ez dagoena, beraz, ez dago loturik.

3. Denbora luzeko usadioren batek lege-autoritatea hartzen duenean, autoritate hori ez dio ematen denbora luzez irauteak, baizik isiltasunaren bidez aditzera emandako subiranoaren nahiak (isiltasuna batzuetan onarpenaren froga baita), eta subiranoa hartaz isilik dagoen bitartean baino ez da izan lege. Hortaz, subiranoak, bere momentu horretako borondatearen izenean barik arestian aldarrikatutako legeen izenean, eskubide-auziren bat jar baleza, denboraren luzerak ez lekarkioke eragozpenik bere eskubide horri, baizik auzia ekitatearen arabera epaituko litzateke. Zeren, egintza zuzengabe askok eta epai zuzengabe askok hortxe iraun izan baitute aztertu gabe, gogoratu ere egiten ez diren garaietatik. Gure legelariak, berriz, arrazoizkoak diren ohiturak baino ez dituzte hartzen legetzat, eta ohitura txarrak, aldiz, abolitu beharrekotzat. Baina legea egiten duenari dagokio, hots, biltzar subiranoari edo monarkari, zer den arrazoizkoa eta zer abolitu beharrekoa juzgatzea.

4. Lege naturala eta lege zibila bata bestearen barneko eta hedapen berekoak ditugu. Zeren naturako legeak, hala nola ekitatea, justizia, eskerrona eta horien menpeko bertute moralak, natura hutseko egoeran ez dira propioki legeak, 15. kapituluaren bukaeran esana dudanez, baizik gizakia bakera eta obedientziara bultzatzen duten koaliteteak. Estatua eratu ondoren agertzen dira legeak egitatez, eta ez lehenago; zeren orduantxe baitira Estatuaren aginduak eta, ondorioz, lege zibilak: botere subiranoa delako gizakiak behartzen dituen legeok obeditzera. Izan ere, gizabanakoen arteko auzietan ekitatea zer den, justizia zer den eta bertute moralak zer den argitzeko eta printzipio horiek obligaziozko bihurtzeko, botere subiranoaren arauak behar dira, eta arauok apurtzen dituztenentzako zigorrak; eta arau horiek osatzen dute, hain zuzen, lege zibilaren zati bat. Naturako legea, beraz, Lege zibilaren zati bat da munduko Estatu guztietan. Alderantziz ere, Lege zibila Naturako printzipioen zati bat dugu. Horrenbestez, bada, justizia, hots, hitzarmenen betetzea eta bakoitzari berea ematea, Naturako legearen printzipioa da. Baina Estatuaren meneko bakoitzak lege zibila obeditzeko hitzarmena egin duenez -dela elkarrekin, denen ordezkari bat izendatzeko biltzen direnean bezala, dela ordezkariarekin berarekin banan, ezpataz menperatuak izan ondoren bizia salbatu ahal izateko garaileari obedientzia agintzen diotenean-, lege zibilarekiko obedientzia hori Naturako legearen zati bat ere bada, beraz. Lege zibila eta lege naturala, lege mota ezberdinak ez baina legearen zati ezberdinak ditugu; idatzita dagoen zatiari lege zibila deritza, eta idatzita ez dagoenari naturala. Baina lege zibilak bai murriz eta muga dezakeela naturako legea, hau da, gizakumearen askatasun naturala; ahal baino gehiago, muga-ezartze horixe da, hain zuzen ere, legegintzaren helburua, zeren mugapen hori gabe ez baita posible bakerik. Eta horrexetarako baizik ez zen ekarri legea mundura, alegia, gizabanakoen askatasun naturala mugatzeko, halako moldez, non haiek elkarri kalte barik elkarri lagun ziezaioten eta denen etsaiaren aurka elkar zitezen.

5. Estatu bateko subiranoak beste lege idatzi batzuen pean bizi izan den herri bat menperatzen badu eta lege berorien bidez gobernatzen badu ondoren, lege horiek, garaitutako Estatuarenak barik, garailearen lege zibilak izanen dira aurrerantzean. Zeren legegilea ez baita legeok arestian bere autoritatez egin zituena, baizik legeoi lege izaten iraunarazteko autoritatea duena. Beraz, Estatu baten manupeko lurraldeetan probintzia ezberdinak eta probintziotan lege ezberdinak direnean, probintzia bakoitzaren ohiturak deitzen zaizenak eskuarki, ez dugu pentsatu behar ohitura horiei denbora luzez iraute soiletik datorkiela indarra, baizik antzina batean lege idatziak izatetik edo beste eraren batez aldarrikatuak izatetik bertako subiranoen konstituzio edo estatututzat; eta orain lege badira, ez da denborak berretsi dituelako, baizik gaur egun dituzten subiranoen konstituzioek berretsi dituztelako. Baina lege ez-idatzi bat eskuarki betetzen baldin bada manupeko lurralde bateko probintzia guztietan, eta usadio horretan txarrik ez bada hautematen, lege hori naturako legea besterik ezin da izan, gizadi osoa behartzen duena.

6. Lege guztiei, idatziei nahiz ez-idatziei, autoritatea eta indarra Estatuaren nahimenetik datorkiela ikusirik, hau da, ordezkariaren nahimenetik (monarkia batean monarka, eta gainerako estatuetan biltzar subiranoa delarik ordezkaria), nondik datoz orduan, galde dezake batek, Estatu batzuetako legelari

ospetsuen liburuetan agertzen diren iritzi horiek, pertsona pribatuen edo meneko epaileen menpe jartzen dutenak, zuzenki edo dedukzioz, legegintzako boterea? Adibidez, lege komuna Parlamentuak baino ezin kontrola dezakeela dioen iritzia: soil-soilik da egia, Parlamentuak botere subiranoa duen kasuan, eta bere erabaki propioz baizik ezin denean bildu ez desegin. Zeren besteren batek baldin balu hura desegiteko boterea, hura kontrolatzeko eskubidea ere izanen bailuke, baita ere, ondorioz, Parlamentuak kontrolatzen dituen gauzak kontrolatzekoa ere. Baina horrelako eskubiderik ez badago, ez da izango Parlamentua, baizik Erregea Parlamentuan, legeak kontrolatzen dituen. Eta Parlamentua subiranoa denean ere, sekula bildu ez den beste gizakume kopuru edo gizakume jakintsu bildu arren bertara menpeko herrietatik, inork ere ez du pentsatuko biltzar horrek botere legegilea bereganatu duela horregatik. Item, halaber, Estatuak bi beso dituela dioen iritzia, hots, Indarra eta Justizia; horietarik lehena Erregearengan dagoelarik, eta bestea Parlamentuaren eskuetan. Estatu batek horrela sostengatzerik bailuen, ez agintzeko ez gobernatzeko autoritaterik gabeko justizia dukeen esku baten indarrarekin.

7. Gure legelariak bat datoz honetan, legea ezin dela joan inoiz arrazoiaren kontra, eta legea ez datzala letran (hau da, haren egitura jakin batean), baizik legegilearen asmoarekin bat datorren hartan. Eta egia da; baina zeinen arrazoia da legetzat hartu behar duguna?, hortxe gakoa. Ezin da izan edozein arrazoi pribatu, zeren, horrela balitz, Eskolen artekoa bezalakoxea bailitzateke legeen arteko kontraesana.

Ezin da izan, ezta ere, Sir Edward Cokek nahi duen bezala, azterlan, behaketa eta esperientzia luze baten bidez lortutako arrazoiaren perfekzio artifizia, berea izan den modukoa. Zeren baliteke azterketa luzeek areagotu eta finkatu baizik ez egitea okerreko ebazpenak; eta zimendu ustelen gainean eraikitzen dutenek, zenbat eta gehiago eraiki, orduan eta hondamendi handiagoa izango dute. Halaber, denbora eta ahalegin berdinez azterketari eta behaketari ekiten dioten arrazoiak eta ebazpenak ere bateraezinak izan ohi dira eta bateraezinezko izaten jarraituko dute. Horregatik, legea lege egiten duena ez da meneko epaileen halako juris prudentia edo jakinduria, baizik gure gizaki artifizia honen, Estatuaren, arrazoia eta agindua. Eta Estatu pertsona bakar bat delarik ordezkariarengan, ez da sortuko hain erraz kontraesanik legetan; eta sor baledi ere, haren arrazoiak berak konpondu ahal izango du, interpretazioaren eta aldaketaren bidez. Justizi Auzitegi orotan subiranoa da, Estatuaren pertsona izaki, epaitzen duena; epaile subordinatuek, berriz, subiranoak halako lege bat egiteko izan duen arrazoia hartu behar dute gogoan, lege horren arabera eman dezaten beraien epaia; beren subiranoaren epaia izanen baita orduan; bestela, beraiena besterik ez da izanen, eta zuzengabea gainera.

8. Legea agindu bat denez, eta agindua, bere aldetik, agindu-emailearen borondatea hitzez, idatziz edo beste edozein zeinu aski adierazgarri azaltzean edo adieraztean datzanez, suposatzekoa da Estatuaren agindua ere beronen berri izateko modua dutenentzat baizik ez dela izanen lege. Ez dago berez ergelak direnei, umeei edo eroei agintzen dien legerik, abere irrazionalei agintzen dienik ere ez dagoen bezalaxe; eta ezin zaie egotzi zuzenak edo zuzengabeak izatea ere, inoiz ez baitute ahalmenik izan hitzarmenak egiteko edo horren ondorioak ulertzeko; eta beraz, ezin izan dute beraien gain hartu sekula ere ezin subiranoren egintzak eskuestea, beren Estatu eratan dutenek egin behar duten bezala. Eta naturaren edo istripuaren ondorioz ezin legeren berri izan ez dutenak bezala, halaxe dago desenkusaturik edozein gizakume ere, bere erruz gertatzen ez den zirkunstantziaren batengatik lege partikular bat ezagutzeko aukerarik izan ez eta lege hori bete gabe uzten baldin badu; hobeto esateko, lege hori ez da berarentzat legea. Horregatik, beharrezkoa da aztertzea, une honetan, zeintzuk argumentu eta zeinu jo behar diren nahikotzat legea zein den, hots, subiranoaren nahia zein den ezagutzeko, dela monarkietan, dela gainontzeko gobernu-eretan.

Lehenik, meneko guztiak salbuespenik gabe behartzen dituen lege baten kasuan, baldin idatzita ez badago eta menekoek haren berri izateko moduko lekuetan ezagutzera eman ez bada, naturako lege bat da. Zeren gizakumeek legetzat daukaten guztia, beste batzuen ahotik entzun ez baina bakoitzari bere arrazoiak horrela diotsolako, gizakume ororen arrazoiarekin bat etorriko baita; eta hori ezin da izan naturako legea besterik. Izan ere, naturako legeek ez daukate ez ezagutarazi ez aldarrikatu beharrik, ezen mundu guztiak onartzen duen ondoko esaera bakar honetan bildurik baitaude: Ez egin inori, zeuri inork egitea arrazoizkotzat ez daukazuna.

Bigarrenik, egoera jakin bateko gizakumeak edo gizakume jakin bat soilik behartzen duen lege bat baldin bada, ez idatzia ez berbaz publikatua, naturako legea dugu baita ere; eta ezagutu, egoera horretako menekoak gainerakoengandik bereizteko balio duten argumentu eta zeinu beraien bidez ezagutuko dena. Zeren haxe baita idatzita ez dagoen edo legegileak nola edo hala aldarrikatu ez duen lege bat ezagutzeko modu bakarra: lege hori obeditu behar duenaren zentzua; eta ez da izango, beraz, lege zibila soilik, baizik baita naturala ere. Esaterako, subiranoak ministro publiko bat izendatzen badu, egin behar duenaren idatzizko jarraipiderik eman gabe, ministro horrek bere zentzuaren aginduak hartu beharko ditu jarraipidetzat; eta epaile bat izendatzen baldin badu, epaile horrek gogoan izan beharko du bere epai horrek subiranoaren arrazoiarekin bat etorri beharra, betiere ekitatezkotzat hartzen den arrazoi horrexek behartzen duelarik lege naturalez; edota enbaxadore baten kasuan, idatzizko jarraipidez esaten ez zaizkionetan, bere arrazoiak subiranoaren intereserako egokientzat diotsona hartu beharko du

jarraipidetzat; eta horrela esan daiteke subiranotzaren gainerako ministro guztiez, publiko zein pribatuez. Arrazoi naturalaren jarraipide guzti-guztiok berba bakar baten azpian bil daitezke, leialtasuna; justizia naturalaren adar bat delarik berau.

Naturako legea salbu, beste lege guztien esentziari dagokio obeditzera beharturik daudenei ezagutzera emana izatea, dela hitzez edo idatziz, dela autoritate subiranoarengandik datorrela ezagun duen bestelako egintzaren baten bidez. Ezinezkoa baita beste baten nahia ulertzea, beraren hitzen edo egintzaren baten bidez ez bada, edo haren xede edo asmoen aieruz, zeinak Estatuaren pertsona batengan betiere ekitatearekin eta arrazoiarekin bat datozela suposatzen baita. Horrela, antzinatean, idazkien erabilpena hedatu gabe zegoen hartan, legeak sarri askotan bertsotan jartzen ziren, horiek kantatzea edo errezitatzea atsegin zuen jende xeheak errazago atxiki zitzan gogoan. Eta arrazoi beragatik aholkatzen du Salomonek ere (Esaera Zaharrak 7, 3), bakoitzak bere atzamarretan loturik edukitzea hamar Aginduak. Eta Moisesek Ituna berregitean Israelgo herriari eman zion Legeari dagokionez (Deut. 11, 19), beraien seme-alabei etxean, bidean, oherakoan eta jaikitzean hartaz hitz eginez erakusteko eskatzen die; eta lege hori etxeetako ateburu eta ateetan idazteko; eta (Deut. 31, 12) herri guztia biltzeko, gizon, emakume eta umeak, legea irakurtzen entzun dezaten.

Ez da aski, izan ere, legea idatzirik eta iragarririk egotea; lege hori subiranoaren nahimenetik datorrela argi eta garbi adierazten duten zeinuak ere behar dira. Zeren gizakume partikularrek aski indar dutenean, edo hala deritzenean behintzat, beren asmo zuzengabeak ziurtatu eta eragozpenik gabe gauzatu ahal izateko beraien helburuen zerbitzutan, nahi duten guztia iragar baitezakete legetzat, legegintzako autoritaterik gabe edo autoritate horren kontra. Beharrezkoa da, beraz, ez bakarrik legea aldarrikatzea, baizik berorren autorea eta autoritatea identifikatzeko zeinu aski adierazgarri izatea. Argi egon beharko du nor den Estatu bakoitzean autore edo legegile hori, zeren bera baita denen baiespenez jaikia izan den eta, beraz, bakoitzak aski ongi ezagutu behar duen subiranoa. Eta gizakien ezjakintasuna eta segurtasun-zentzua gehienetan halakoa izanik, non, beraien Estatuaren hasierako erakuntzaren oroipena ezabatu ondoren, ez baitute gogoan hartzen zein boterez baliatu ziren beren etsaien aurka defendatzeko, beren lana babesteko eta zuzengabekeria egin zitzaientean justizia lortzeko, halaz ere, pixka bat pentsatzen jartzen denak ezin duenez horretaz zalantzarik izan, ez dago subiranotasuna non dagoen ez-jakitearen aitzakiarik. Eta arrazoi naturalaren diktaturak da, eta naturako legearen begibistako ondorioa, beraz, inork ere ez lukeela ahuldu behar berak bere buruaren babeserako eskatu duen edo beste batzuegandik defendatzeko kontzienteki jaso duen botere hura. Beraz (eta gaiztoek iradokitzen dutena iradoki), inork ere ezin du zalantzan jarri, bere erruz izan ezean behintzat, subiranoa nor den. Beronengandik datorren autoritatea nabari jartzean datza zailtasuna, eta zailtasun hori argitzea Erregistro publikoak, aholku publikoak, ministro publikoak eta zigilu publikoak ezagutzearen menpe dago; horiexen bidez egiaztatzen baitira, aski, legeak oro; eta egiaztatu diot, ez eskuetsi. Zeren egiaztapena ez baita besterik legearen lekukotasuna eta konstantzia uztea baizik, eta ez legeari autoritatea ematea; zeina subiranoaren aginduan datzan soil-soilik.

Beraz, norbaitek naturako legearen, hots, ekitate komunaren arloko zuzengabekeriagatiko auziren bat baldin badu, naturako legearen egiaztapen nahikotzat hartuko da kasu partikular horri buruz epaileak emandako epaia, beronek baitu mandatuz kasu horien kargu hartzeko autoritatea. Izan ere, kereilak ekiditeko baliagarri den arren legegizon baten aholkua, horixe baino ez da izaneren, aholkua: hots, eztabaida entzun ondoren, legea zein den esatea jendeari.

Baina auziak lege idatziaren alorreko zuzengabekeria edo delitua ukitzen baldin badu, edonork jo dezake erregistroetara, berak zuzenean edo beste baten bidez, eta aski informazio lortu, nahi izanez gero, zuzengabekeria egin edo delitua burutu aurretik, ekintza hori egiaz zuzengabekeria den ala ez jakiteko. Are gehiago, hori egiteko obligazioa dauka. Izan ere, norbait zalantzatan baldin badago egitera doan hori justua ala injustua ote den, eta horretaz aurretiaz informa baldin badaiteke, ez du legez jokatu egin gabe uzten badu. Era berean, lege idatziak aurrikusitako kasu jakin batean bere burua zuzengabekeriak kaltetutzat duenak eta, berak zuzenki edo beste baten bidez lege hori ikus eta pentsa dezakeelarik, legea kontsultatu aurretik kereila aurkezten duenak ez du zuzen jokatzeko; eta bere eskubidea eskatzea baino beste batzuk iraintzea nahi duela erakusten du.

Funtzionari publiko bati zor zaion obediencia baldin bada auzitan dagoena, haren autoritatearen nahikoa egiaztapen litzateke beraren mandaturak zigilu publiko eta guzti ikustea eta irakurtzen entzutea, edota horretaz informazioa jasotzeko moduak edukitzea, nahi izan duenak. Gizaki ororen obligazioa baita, izan ere, nor beraren egintzekin zerikusia izan dezaketen lege idatzi guztiez informatzen ahalik eta gehien saiatzea.

Legegilea ezagutzeaz gain, eta legeak, dela dokumentu idatzien bidez edo naturaren argibidez, behar bezala iragarriak izateaz gain, bada oraindik beste baldintza guztiz garrantzitsu bat ere legeok derrigorrezko bihur daitezke. Zeren, legearen izaera ez datza letran, baizik bere asmoan eta esanahian, hau da, legearen benetako interpretazioan (legegileak eman dion zentzuan, alegia); edozein legeren interpretazioa, beraz, autoritate subiranoaren menpe egongo da, eta interpretatzaileak ere subiranoak

izendatu dituenak izango dira (subiranoari soilik zor diotenak obedientzia), eta ez beste inor. Zeren baliteke, bestela, interpretatzaile baten artez eta moldez, lege hori subiranoak eman dion zentzuaren kontrako bihurtzea, interpretatzailea bera izango genukeelarik horrela legebile.

Lege guztiek, idatziek zein ez-idatziek, behar dute interpretazioa. Naturako lege ez-idatzia dagokionez, nahiz eta erraza izan partzialkeriarik eta grinarik gabe beren zentzu naturalez baliatzen direnentzat (eta honek aitzakiarik gabe uzten ditu lege-hausleak), halaz ere, kontuan izanik gutxi baino ez direla, bat bera ere ez beharbada, beren buru-maitasunak edo beste grinaren batek itsutzen ez dituenak horrelako kasuetan, lege guztietarik ilunena bihurtu zaigu lege hura; eta interpretatzaileak trebeenak behar dituenak, beraz. Lege idatziak, laburrak baldin badira, erraz izan daitezke gaizki-interpretatuak, hitz baten edo biren esangura ezberdinengatik; aldiz, luzeak baldin badira, are ilunago bihurtu daitezke, hitz askoren esangura ezberdinak direla-eta. Hartaraino da horrela, ezen ez baita lege idatzirik, hitz gutxitan ala askotan aurkeztu, lege hori egiteko izan ziren azken zioak zehazki konprenitu gabe ongi uler daitekeenik; eta azken zio horien ezagutza legebilearen dago. Honentzat ez dago, izan ere, askaezinezko korapilorik legean; dela korapilo hori askatzeko hari-muturrak aurkitu ahal dituelako, dela berak nahi adina mutur egin ditzakeelako, Alexandrok bere ezpataz egin zuen bezala Gordiar korapiloarekin, botere legebilearen bidez; beste ezein interpretatzailek egin ezin duena.

Naturako legeen interpretazioa, Estatu batean, ez dago filosofia moraleko liburuaren menpe. Idazleen autoritateak, Estatuaren autoritateak gabe, ez ditu haien iritzia lege bihurtzen, diren egiazkoenak izanik ere. Nik tratatu honetan bertute moralen gainean, eta bakea bilatu eta mantentzeko haien behararen gainean idatzi dudana, nahiz eta begibistako egia izan, ez da lege berez, baizik lege zibilaren barne dagoelako munduko Estatu guztietan. Zeren, berez arrazoizkoa izan arren, botere subiranoari esker baizik ez baitugu lege. Osterantzean, errakuntza handia litzateke lege ez-idatzia deitzea naturako legeei; eta hortaz autore ezberdinen hainbat liburu ikus dezakegu argitaraturik, bata bestearekiko eta bakoitzaren barneko hamaikatzat kontraesan bezala.

Autoritate subiranoak lege horren inguruko eztabaidak entzun eta ebazteko eginkizuna eman dion epailearen epaian datza naturako legearen interpretazioa; eta dagokion kasuari legea aplikatzean datza, hain zuzen. Zeren epaileak bere epailetza egikaritzean, parteek aurkeztutako demandak arrazoi naturalarekin eta ekitatearekin bat al datozen ebatzi besterik ez baitu egiten, eta hark ematen duen epaia, horrela, naturako legearen interpretazioa da; zeina egiazkoa bada, ez da epaile horren epaia izateagatik, baizik subiranoaren autoritatez emana izateagatik, horrexek bihurtzen baitu, bihurtu ere, subiranoaren beraren epai: auzian diharduten parteentzat lege izango dena une hartantxe.

Baina ez dagoenez epaile subordinatu ez subiranoarekin ekitatezko epaian huts egitetik libra daitekeenik, baldin gerorantz, antzeko beste kasu batean, alderantzizko epaia ekitatearekin akortago litzatekeela aurkituko balu, horren arabera jokatu beharra dauka. Izan ere, behin egindako errakuntzak ez baitu zertan lege bihurtu inorentzat, ezta ere hartan irautera zertan derrigortu. Eta arrazoi beragatik, ez du zertan lege bihurtu beste epaile batzuentzat ere, hauek lehenari jarraitzeko zin egina badute ere. Zeren, nahiz eta subiranoak emandako epai oker bat, berak ezagutu eta baimenduz gero, lege berri bihurtzen den lege aldakorren kasuan (zertzelada txikitari bakoitzean batera datozen kasuetan), naturako legeak bezalako lege aldakaitzetan, ordea, ez baita horrela alda daitekeen legerik, ez epaile berarentzat ez beste epaile batzuentzat. Printzeak elkarren ondorengoak datoz, eta epaile bat joan eta beste bat etorri, eta zeru-lurak eurak ere iragan daitezke: baina naturako legearen letzarik ere ez da aldatuko, Jainkoaren lege eternala delako. Beraz, arestian izan diren epaile guztien epaiak, denak batera ere, ez dira gai izango ekitate naturalaren kontrako legerik sortzeko; ezta arestiko epaileen ezein adibide ere ezingo du bermatu arrazoiaren kontrako epairik, eta ez dio aurreztuko gaurko epaileari epaitzea tokatu zaion kasuan ekitatezkoa zer ote den aztertzeak dakarkion lana, bere arrazoi naturalaren printzipioetatik abiatuz egin beharko duena. Esaterako, naturako legearen kontra doa errugabea zigortzea, eta haxe da errugabea: judizialki salbuetsirik eta epaileak errugabetzat aitorturik geratzen dena. Eman dezagun orain herio-delituz akusatzen dutela norbait, eta, bere arioren baten indarra eta asmo gaiztoa, edota epaileengan maiz gertatu ohi den ustelkeria ikusirik, ihes egiten duela, gerta daitekeenaren beldur, baina ondoren atxilotu eta legezko epailetara dakartela, eta hemen aski argi erakutsi ondoren bera ez dela delitu haren errudun, akusazio hartaz askatu bai, baina bere ondasunak galtzera kondenatzen dutela hala eta guztiz: horra hor errugabe baten kondenaren kasu argi bat. Zera diot beraz, munduko ezein bazterretan ere, ezin har daitekeela hori naturako legearen interpretaziotzat, ezta ere, arestiko epaileek gauza bera egin dutela-eta, hortik lege bat atera. Zeren lehen aldiz horrela epaitu zuenak injustuki epaitu baitzuen, eta ezein injustizia ere ezin da epaiketa-eredu bihurtu ondorengo epaileentzat. Lege idatzi batek debeka diezake, bai, errugabea ihes egitea, eta ihes egiteagatik zigortuak izan daitezke; baina kaltearen beldurrez ihes egitea errudun-presuntziotzat hartzea, jadanik judizialki delitutik absolbitua izan den norbaiten kasuan, presuntzioaren izaeraren kontra doa, presuntzioak ez duelako lekurik berediktuaren ondoren. Halarik ere, Ingalaterrako lege komuneko legelari handi bat honen kontra agertzen da. Errugabe den norbait, dio, saldukeriaz akusatua baldin bada, eta akusazio horren beldurrez ihesi badoa; nahiz eta hark judizialki

frogatu izan saldukeriaz errugabe dela, baina halarik ere motibo horrexegatik egin duela ihes aurkitzen baldin bada, kendu egingo zaizkio, errugabea izan arren, bere ondasun guztiak, jauregiak, kredituak eta interesak. Zeren legeak ondasunok kentzea erabakitzen badu, haren ihesaren gainean oinarritutako lege-presuntzioaren aurkako frogarik onartzen ez duelako baita. Hona hemen, bada, judizialki kargu gabe geratu den errugabe bat, baina errugabetasun hori eta guzti ere (ezein lege idatzik ere ez diolarik debekatu ihes egitea), dauzkan ondasun guztiak galtzera kondenatua, kargu gabe geratu ondoren, lege-presuntzio batengatik.

Legeak haren ihesean egitatezko presuntzioa aurkituko balu, eta egitate hori herio-delitua balitz, epaiak ere herio-epaia izan beharko luke; baina presuntzioa egitatezkoa ez baldin bada, zer dela-eta galdu behar ditu hark bere ondasunak? Lege hori ez da, hain zuzen, Ingalaterrako legea; eta kondena hori ez dago lege-presuntzio batean oinarrituta, baizik epaileen presuntzioan. Legearen kontrakoa da, baita, lege-presuntzioaren kontrako frogarik ez dela onartuko esatea; zeren frogak entzutera ukatzen diren epaileak, subiranoak zein subordinatuak, justizia egiteari uko egiten ari baitira. Izan ere, aurkezten zaizkien frogak entzun gabe kondenatzen duten epaileak, epaia denik justuena gertatuz ere, epaile injustuak baino ez dira izango; eta horien presuntzioa ez da auririrtzia besterik, ezein gizakumek ere ez lukeena ekarri behar justizi auzitegi batera, dena delakoak izan aurreko judizioak edo jarraitu nahi dituen adibideak. Bada, bai, horrelako adibide gehiago ere giza judizioak desbideratzen direna, aurrekasuei orpoz orpo jarraitzearren, baina aski bedi esandakoa zera erakusteko: epaile baten epaia lege izan arren auzian parte direnentzat, ez dela lege inola ere ofizio horretan jarraituko dion beste ezein epailarentzat.

Era berean, arazoa lege idatzien esanahiaz denean, ez da interpretatzailea legeoi buruzko iruzkina idazten duena. Izan ere, normalean, objektzio gehiago sortuko baitzaie iruzkinei legearen testuari berari baino, eta beste iruzkin batzuen beharra izango da, beraz, akaburik gabeko iruzkinak etorriko direlarik. Hortaz, subiranoak eskuetsitako interpretatzailearen bat egon ezean (baldin balego, berari atxikiko litzazkioke epaile subordinatuak), ohiko epaileak, ez beste inor, izango dira interpretatzaileak, lege ez-idatziaren kasuetan gertatzen den bezalaxe. Eta haien epaiak legetzat hartuak izango dira auzilarien aldetik kasu partikular bakoitzean, baina ez dituzte lotuko gainerako epaileak antzeko kasuetan epai berdinak ematera. Zeren epaile batek huts egin baitezake, bai, lege idatzien euren interpretazioan ere, baina ezein epaile subordinaturen errakuntzak ere ezin alda lezake legea, subiranoaren epai orokorra denez gero.

Lege idatzien kasuan, legearen letraren eta zentzuaren arteko bereizketa egin ohi da; eta ondo bereiztuta dago, egon ere, baldin hitz soiletatik deduzi daitekeen guztia esan nahi bada letra esatean. Zeren hitz gehientsuen esanahiak, edo berez edo beren erabileraz, anbiguoak baitira, eta zentzu askotan erabil daitezke argumentatzean, legeak zentzu bat besterik ez duen arren. Baina letra esatean zentzu literala esan nahi baldin bada, orduan gauza bera da letra eta legearen zentzua edo asmoa. Zeren zentzu literala horixe izanen baita: legegileak legearen letrak adieraz zezan nahi zuena. Alabaina, legegilearen asmoa ekitatezkozat jo behar da betiere, eta laido larria litzateke bestelakorik uste izatea epaileak bere subiranoaz. Beraz, legearen hitzak ez baldin badu bide aski ematen arrazoizko epai baterako, naturako legearekin osatu beharko luke epaileak lege hori; edo, kasua zaila bada, eten egin beharko luke epaiketa, autoritate zabalagoa hartu arte. Adibidez, hona hemen zer agintzen duen lege idatzi batek: bere etxetik indarrez jaurtiki duten batek berriro etxeratzea izango duela indarra erabiliz; baina eman dezagun axolagabekeriak etxea utzi eta itzultzean kanpora jaurtikitzen dutenaren kasua, ezein legek ere aurrikusten ez duena bereziki. Kasu konkretu honek ere, garbi dago, lege orokor hartantxe izan behar du lekua, zeren bestela ez bailegoke inolako konponbiderik gizon horrentzat, eta hori legegilearen asmoaren kontrakoa litzateke. Beste adibide bat, legearen hitzak ebidentziaren arabera juzgatzea eskatzen diona epaileari: egintza bati buruz norbait gezurrez salatu dutela, baina epaileak berak ikusi izan duela egintza hori beste batek burutu duela, eta ez akusatuak. Kasu honetan epaileak ez dauka, ez legearen letrari jarraitzerik akusatua kondenatzeko, ez lekukoek aurkeztutako ebidentziaren aurka epaia ematerik (legearen letrak kontrakoa agintzen baitio); zera egin ahal du orduan, subiranoari beste epaile bat izenda dezan eskatu eta bera lekuko gisa aurkeztu. Horrela, lege idatziaren berba soilek dakarten oztopoa gainditu eta legearen asmora jo ahal izango du, lege horren interpretazio hobea emateko bide horretatik. Nahiz eta legearen ezein oztopok ere ezin duen justifikatu lege horren kontrako epaia ematerik; zeren zuzenari eta okerrari buruzko epaileak ez baitira nor Estatuari zer komeni zaion eta zer ez zaion komeni epaitzeko.

Legearen interpretatzaile on bati, hau da, epaile on bati eskatzen zaizkion gaitasunak ez dira abokatu bati eskatzen zaizkionak, legearen azterketari buruzkoak, alegia. Zeren epaileak, lekukoengandik datorkion informazioa besterik jaso behar ez duen bezalaxe egintza bati buruz, legearen berri ere subiranoaren estatutu eta konstituzioetatik jaso beharko baitu, auzi horretan alegatu edo botere subiranoaren autoritatea duen baten batek adierazi dizkionetatik, alegia, eta ez beste inondik. Ez du aurretiaz arduratu beharrik, beraz, zer egintza epaituko duen jakiten: lekukoek egintzari buruz diotenetik jasoko baitu horren berri; eta legeari buruz esan behar duena ere, auzian alegatzen dutenek azaldutakotik jakingo du, legea autoritatez interpretatuz kasu bakoitzean. Ingalaterrako Parlamentuko Lordak epaileak ziren, eta kasu zailenak entzun eta ebatzi izan dituzte; hala ere, haietariko gutxi batzuk baizik ez ziren legeen azterketan aditu-

adituak, eta are gutxiagok zuten hori lanbidetzat. Eta, nahiz eta bertan horretarako izendatuta zeuden legelariei kontsultatzen zieten, beraiek baizik ez zuten epaia emateko autoritatea. Era berean, ohiko epaiketetan, herriko Hamabi gizon dira epaile eta epai-emaile, egitateari ezezik, zuzenbideari dagokionean ere; eta demandariaren ala demandatuaren alde azaltzen dira soilki; hau da, epaile ditugula, beraz, ez bakarrik egitateari, baizik zuzenbideari dagokionean. Eta hilketa-kasu batean ere beraiek ebatziko dizute, ez bakarrik hilketarik egin den ala ez, baizik asasinatzea, homizidioa, saldukeria, asalto eta abar izan den, lege alorreko zertzeladak, alegia. Baina jakintzat ematen denez haiek ez dutela berenez legea ezagutzen, horrexetarako daukate epaitu behar duten kasu partikular bakoitzaren gainean legeak diotenaz informatzeko autoritatea duen bat. Eta honek diotsenaren arabera epaia eman ez arren, ez zaie egokituko horregatik inolako zigorrik, behintzat beraien kontzientzien kontra edo eskupekoz erosita egin dutela agertu ezik.

Hauexek dira epaile edo legeen interpretatzaile on bihurtzen duten gaitasunak: lehenbizi, ekitatea deritzon naturako lege funtsezkoaren ulerkuntza zuzena; eta hau, beste batzuen idazkiak irakurtzean barik, gizakumearen beraren arrazoimen naturalaren ontasunean eta gogartean datzalarik, asti gehien eman dioten eta gogoeta gehien eskaini diotenengan aurkituko dela batik bat suposatu behar da. Bigarrenik, premiagabeko aberastasun eta ohoreekiko ezaxola. Hirugarrenik, epaitzerakoan beldur, sumin, gorroto, erruki eta maitakeria orori itzurtzeko gai izatea. Laugarrenik eta azkenez, entzuteko pazientzia, entzutean arreata gogatsua eta entzundakoa gogoratu, hausnartu eta aplikatzeko oroimena.

Legeen banaketa eta sailkapena era eta modu ezberdinez egin izan da, gai honetaz idatzi dutenek erabilitako metodo diferenteen arabera. Hori ez da, izan ere, naturaren menpe dagoen gauza bat, idazle bakoitzaren planaren menpe baizik; eta norberaren metodo bereziaren pean egon ohi da. Justinianoren Institutzioetan, zazpi lege zibil mota aurkitzen ditugu:

1. Printzearen ediktu, konstituzio eta epistolak, hots, enperadorearenak, zeren beronengan baitzegoen herriaren botere guztia. Mota horretakoak ditugu Ingalaterrako erregeen aldarrikapenak.

2. Erromako herri osoaren dekretuak, Senatua barne, Senatuak auzitan jartzen zituenean. Dekretu hauek lege izan ziren hasiera batean, herriarengan zetzan botere subiranoaren indarrez; eta enperadoreek derogatu ez zituzten batzuek lege izaten jarraitu zuten autoritate inperialaren indarrez. Zeren behartzen duten lege guztiak, egiaz, beroriek baliogabe uzteko ahalmena duen autoritatearen lege direla suposatzen baita. Lege horien antzerakoak dira nolabait Ingalaterrako Parlamentu Egintzak.

3. Herri lauaren dekretuak, Senatua aparte, herriko tribunuak auzitan jartzen zituenean. Zeren enperadoreak derogatu ez zituenek lege izaten jarraitu baitzuten autoritate inperialaren indarrez. Horien antzekoak ziren Ingalaterrako Komunuen Ganbararen aginduak.

4. Senatûs consulta, Senatuaren Aginduak. Izan ere, Erroma hiri handi bihurtu zenean hain zaila zenez denak biltzea, hiritarrek, herriari eskatu beharrean, Senatuari aholku eskatzea izango zela egokiena iruditu zitzaion enperadoreari. Eta Senatuaren Agindu horiek badute, izan, Kontseilu Egintzen antzen bat.

5. Pretoreen ediktuak, eta kasu batzuetan edilenak: Ingalaterrako Gorteetan Justiziburuak bezalakoxeak azken hauek.

6. Responsa prudentum delakoak: legeak interpretatzeko eta lege kontuan aholku eskatzen zienteeni erantzuteko, enperadoreak emandako aginpidea zuten legelarien epaiak eta iritzia ditugu. Responsa horiei kasu egin beharra zeukaten epaileek, enperadorearen konstituzioen aginduz, epaia ematerakoan. Eta jadanik epaitutako kasuen aktekin aldera daitezke, beraiek betetzera beharturik baleude, Ingalaterrako legearen indarrez, gainerako epaileak. Izan ere, Ingalaterrako lege komuneko epaileak ez dira propioki epaile, baizik juris consulti, benetako epaileek -hots, Lordek eta Herriko Hamabiek- lege kontuan beraiei eska diezaieten aholku.

7. Baita, azkenez, ohitura ez-idatziak ere (berezko izaeraz legearen antza dutenak) benetako lege izango dira, enperadorearen baiespen tazituz, baldin naturako legearen kontrakoak ez badira.

Legeak, beste sailkapen baten arabera, naturalak ala positiboak izan daitezke. Naturalak, betidanik lege izan ditugunak; lege naturalak ezezik, lege moralak ere deitzen diegunak; zeren bertute moralak baitira, hala nola zuzentasuna, ekitatea, eta bakera bideratzen gaituzten adimendu-aztura guztiak, eta karitatea; hamalagarren eta hamabosgarren kapituluetan aipatu ditudanak, hain zuzen.

Lege positiboak, aldiz, betidanik existitu ez, baina besteren gaineko botere subiranoa izan dutenen nahimenez sortuak izan dira. Eta idatziak ditugu, edo legegilearen nahia adierazten duen beste nolabaiteko medioz ezagutzera emanak.

Lege positiboetan, berriz, batzuk giza legeak eta beste batzuk jainko-legeak ditugu; eta giza lege positiboetarik batzuk banakuntza-legeak, eta beste zenbait lege penalak. Banakuntza-legeak meneko eskubideak ebazten dituztenak dira, lurren eta ondasunen jabegoa eskuratzea eta mantentzea, eta egintza-eskubidea edo askatasuna, bakoitzari nondik datorkion deklaritzen dutenak: eta meneko orori zuzendurik daude. Penalak, aldiz, lege-hausleei zer zigor ezarri behar zaien deklaritzen dutenak dira, eta zigorrok beterazteko eginkizuna duten ministro eta funtzionarioei zuzendurik daude. Zeren, nahiz eta den-denek jakin beharko luketen aurretiaz zeintzuk zigor dagozkien beren lege-hausteei, legeon mandatu ez

baitzaio zuzentzen, halere, delitugileari (honek beronen buruari ezingo liokeela oneski zigorra ezarri suposatzen baita), baizik zigor hori exekutarazteko izendaturik dauden ministro publikoei. Lege penalok idatzia izan ohi dira, gehienetan, banakuntza-legeekin batera; eta batzuetan judizioak deitzen zaie. Legeak denak baitira, izan ere, judizio orokorrak edo legegelearen epaiak; judizio partikular bakoitza ere lege den bezala, alegia, bere kasua epaitzen zaionarentzat.

Jainkoaren lege positiboak (zeren lege naturalak, betierekoak eta unibertsalak izanik, denak baitira Jainkoarenak) hauexek dira: gizaki orori betidanik eta unibertsalki zuzendutakoak izan beharrean, herri jakin bati edo pertsona batzuei zuzendutako Jainkoaren aginduak izanik, Jainkoak berak horretarako autoritatea eman dienek deklaratzeko dituztenak legetzat. Baina nola ezagutu ote daiteke Jainkoaren lege positiboak zeintzuk diren deklaratzeko giza autoritate hori? Jainkoak bai agindu diezaiokeela gizakume bati, bide supernaturalez, beste gizakume batzuei legeak ematea. Baina legearen esentziari dagokionez, berau betetzera beharturik dagoen edonor lege hori deklaratzeko duenaren autoritateaz ziur egotea, eta ez daukagunez bide naturalez jakiterik Jainkoarengandik datorkion, nola ziurta daiteke norbait -errebeldio supernaturalik gabe- lege-deklaratzailerik errebeldiorik izan duenentz? Eta nola egon daiteke beharturik legeok obeditzera?

Lehen galderari dagokionez, hots, nola egon daitekeen norbait ziur, berak partikularrik errebeldiorik jaso gabe, beste norbaiten errebeldioaz: ezinezkoa da argi eta garbi. Zeren, nahiz eta norbait errebeldio horretan sinestera makur daitekeen, dela pertsona haren mirakuluak ikusten dituelako, dela haren bizitzaren aparteko santutasuna dakusalako, dela haren aparteko jakinduria edo beraren egintzen aparteko zoria dakusalako, eta Jainkoaren aparteko faborearen seinale diren arren guztiok, halarik ere, ez baitira errebeldio berezi baten ebidentzia ziurrak. Gauza miragarriak dira mirakuluak, baina batereantzat miragarri dena bestearentzat ez da hain miragarri agian. Santutasuna itxura hutsa ere gerta liteke; eta mundu honetan ikus daitezkeen zoriei dagokienez, Jainkoak kausa natural eta ohikoen bidez egin ohi dituen gauzak izan ohi dira gehienetan. Beraz, inork ere ez dauka modu hutsezinez jakiterik, arrazoi naturalaren bidez, besteren batek Jainkoaren nahiaren errebeldio supernaturala izan duen; sinetsi besterik ez du egingo; sineste sendagoa ala ahulagoa, errebeldio horren ezaugarriak handiagoak ala makalagoak izan.

Baina bigarren arazoari dagokionez, hots, hura nola egon daitekeen legeok obeditzera beharturik, ez da hain zaila. Zeren deklaratuako lege hori naturako legearen kontrakoa ez baldin bada (lege naturala Jainkoaren legea baita ezbairik gabe), eta hura obeditzeko konpromezua hartu baldin badu, bere egintza horrexek bahartzen baitu. Hura obeditzera beharturik esan dut, baina ez hartan sinestera beharturik; izan ere, gizakumeen sineste eta barne gogapenak ez daude aginduen pean, baizik Jainkoaren eragiketa ohiko edo ez-ohikoaren pean soilik. Lege supernaturalekiko fedea ez datza hura gogarako izatean, baizik hari atxikitzean soil-soilik; eta ez da guk Jainkoari eskaintzen diogun betebeharrak, baizik Jainkoak berak nahi duenari libreki damaion dohaina. Sinesgabatasuna ere ez denez, bestalde, haren lege bat ere haustea, baizik haren lege denek ezetz esatea, lege naturalei salbu. Baina diodan hau argiago geratuko da, oraindik, puntu honi buruz Idazteunak dakartzan adibide eta lekukotasunen bidez. Jainkoak Abrahamekin, modu supernaturalez, egindako ituna hauxe izan zen (Has. 17, 10): Hau da zuk eta zure ondorengoek nirekiko duzuen konpromezua. Abrahamen ondorengoek ez zuten jaso errebeldio hau, existitu ere ez baitziren existitzen oraindik. Hala ere, Itunaren parteetariko bat dira, eta Abrahamek Jainkoaren legetzat deklaratu ziena obeditzera beharturik daude; eta ez zitezkeen egoera horretan aurkituko, beren gurasoei zor zieten obedientziarengatik izan ez balitz; gurasoak direlako botere subiranoa dutenak beren umeen eta morroien gain, hauek (Abrahamen kasuan bezala) beste ezein botere lurtarraren meneko ez direnean. Orobat Jainkoak Abrahami esan zionean Zeugan izango dira bedeinkatuak lurreko herri guztiak: badakidalako, jakin, Jainkoaren bidetik ibiltzeko eta zuzentasunez eta zentzuz jokatzeko aginduko diezula zeure umei eta zure ondorengo etxekoei, garbi dago ezen haren etxekoen obedientzia, errebeldiorik izan ez zutenena, beraien subiranoari obeditzeko alde aurretik zuten obligazioan oinarriturik zegoela. Sinai mendian, Moises besterik ez zen igo Jainkoarengana, herriari debekatu egin zitzaizlarik hurbiltzea, herio-zigorpean. Hala eta guztiz, Moisesek Jainkoaren legetzat deklaratu zien guztia obeditzera beharturik egon ziren. Zein beste arrazoitan oinarri zitezkeen, beren buruen menekotasun honetan baizik, zera esateko: Hitz egiguzu zeuk eta entzungo dizugu, baina ez biezagu hitz egin Jainkoak, hil egingo gara eta? Bi pasarte horiek aski argi adierazten digutena: Estatu batean, meneko batek ez duenean berari bereziki egindako errebeldio ziur eta segururik Jainkoaren nahiari buruz, Estatuaren agindua hartu behar duela hartakotzat; zer bakoitzak bere ametsak eta begitazioak, edo beste edozein banako partikularren amets eta begitazioak, Jainkoaren agindutzat hartzeko askatasuna baldin balu, ozta-ozta legokeen pare bat Jainkoaren agindua zertan datzan ados jar litekeenik; eta horri buruz ere, gizabanakoek Estatuaren aginduei erdinu baizik ez liekete egingo. Zera konkluditzen dut, beraz: lege moralaren (hots, naturako legearen) aurkako ez diren gauza guztietan, meneko orok behar duela jainko-legetzat obeditu Estatuaren legeek horretakotzat deklaratzeko dutena. Edozein gizakumeren adimenak ere argi eta garbi hauteman dezakeena: zer naturalaren kontrakoa ez den edozer bihur baitaiteke lege, alegia, botere subiranoa beren esku dutenen

izenean; eta ez dago inolako arrazoirik lege horrek gizakumeei gutxiago beharraz diezaiei, Jainkoak proposatukoa balitz baino.

Gainera, munduko ezein lekutan ere ez zaie gizakumeei zilegi uzten Estatuaren legetzat deklaraturik dauden legeez bestelako jainko-agindurik plazaratzea. Estatu kristauak zigortu egiten dituzte kristau-erlijioari jarkitzen zaizkionak, eta gainerako Estatuak ere berdin, beraiek debekaturik duten erlijioen bat dakartenak. Zeren Estatuak arauturik ez dauden alor orotan, ekitatezkoa baita (horixe delarik naturako legea eta betiereko Jainko-legea, beraz) bakoitzak bere askatasunaz berdinki gozatzea.

Bada legeen beste sailkapen bat ere, oinarritzkoak eta ez-oinarritzkoak, alegia; baina inoiz ere ezin aurkitu izan dut ezein autorerengan zer esan gura duen lege oinarritzkoak. Dena dela, oso arrazoizkoa dateke legeak horrela bereiztea.

Izan ere, haxe da lege oinarritzkoa edozein Estatutan: hura kentzeak Estatuaren erabateko hondamena eta desegintza dakarrenean, eraikuntza baten oinarriak suntsitzean bezala. Subiranoari, dela monarka edo biltzar subiranoari, eman zaion dena delako boterea sostengatzera menekoak behartzen dituen legea dugu, beraz, lege oinarritzkoa, hori gabe ezin iraun dezakeelarik Estatuak. Horrelakoa da gerra eta bakea ebazteko ahalmena, eta epailetza, eta funtzionarien hautaketa, eta subiranoari denon onerako beharrezkoa irizten zaion edozer gauza egiteko ahalmena. Ez-oinarritzkoa, ordea, derogatuarren ere, Estatuaren desegintzarik eragiten ez duen legea da; horrelakoak dira, esaterako, menekoen arteko eztabaidei buruzko legeak. Eta honaino legeen sailkapenaz.

Zera dakusat, *lex civilis* eta *jus civile*, hau da, lege eta zuzenbide zibila, nahasirik erabili ohi direla, autore aditueneren artean ere, gauza bera esateko; eta ez luke beharko horrela. Zeren zuzenbidea, izan ere, askatasuna baita: lege zibilak uzten digun askatasuna, alegia; eta lege zibila, aitzitik, obligazioa: naturako legeak eman zigun askatasuna kentzen diguna. Naturak eman dio, hain zuzen, gizakume bakoitzari bere indarrez baliatuz defendatzeko eskubidea, eta auzo susmagarria inbaditzeko eskubidea, prebentziozko neurri moduan; baina lege zibilak kendu egiten digu askatasun hori, legearen babesak era seguruan zain gaitzakeen kasu guztietan. Horrela beraz, obligazioa eta askatasuna ezberdin diren bezalaxe dira ezberdinak legea eta zuzenbidea.

Antzera gertatzen da legeak eta eskutitzak berbeekin, gauza beratzat hartzen direla nahasiki. Halarik ere, eskutitzak subiranoaren dohaintzak ditugu: ez legeak, baizik legeekiko exentzioak. Legean erabili ohi diren berbak jubeo, injungo dira, manatzen eta agintzen dut, alegia; aldiz, eskutitzeko berbak dedi, concessi dira, hots, eman dut, kontzeditu dut. Baina norbaiti ematen edo emakidatzen zaiona ez zaio legearen indarrez ezartzen. Legea Estatuko meneko guztiak beharrazteko egin daiteke; askatasun eta eskutitz bat, ordea, gizabanako bati bakarrik, edo herriaren parte bati, zuzendurik dago. Zeren kasu jakin batean Estatuko herri osoak duela askatasuna esatea, kasu horretarako legerik ez dagoela edo arestian zegoena derogatu egin dela esatea bezala baita.

## XXVII

Delitu, desenkusa eta aringarriez

Bekatua ez da soilik legea haustea, baizik legegileari erdeinu egitea ere. Zeren honelako erdeinuak haren lege guztiak batera urratzea esan nahi baitu. Ez datza bakarrik, beraz, egintza bat egitean, edo legeak debekatzen dituen berbak esatean, edo legeak agintzen duena ez-egitean, baizik baita legea hausteko asmo edo intentzioan ere. Ezen legea hausteko asmoa, izan ere, halako erdeinu bat baita lege hori betearazteko ardura duenarekiko. Besteren baten ondasunak, zerbitzariak edo emaztea norbereganatzeko irudipen hutsak eman dezakeen atseginak, hari indarrez edo iruzurrez kentzeko asmorik gabe baldin bada, ez du hausten Ez duzu inorenik gutiziatuko dioen legea; ez du bekatu egiten, ezta ere, norbaiten heriotza iruditzea edo amestea atsegin duenak gizakume hura bizi den bitartean kaltea eta atsekabea besterik ez duelako espero; baina bai legikeela bekatu, ordea, pentsamendu horiek gauzatzeko egintzaren bat burutzea erabakiko balu. Izan ere, balizko zerbaitek damaigukeen atseginaren fikzioaz gozatzea hain dago itsatsirik, bai gizakiaren bai gainontzeko izaki bizidunen naturan, non, bekatu balitz, gizakume izatea bera ere bekatu litzatekeen. Aurreko hori kontuan hartuz, zorrotzegi deritzet nik, bai beraien buruarekin baita besteeekin ere, adimenduko lehen joerak (Jainkoaren beldurrez kontrolatuak izan arren) bekatutzat hartzen dituztenei. Hobeto dela aitortzen dut, halere, mutur horretan laprast egitea bestean baino.

Legeak debekatu duen zerbaite egitean (hitzez edo egitez), edo agindu duen zerbaite ez-egitean datzan bekatua da DELITUA. Horrela beraz, delitu oro bekatu da; baina ez, aitzitik, bekatu oro delitu. Lapurreta edo hilketa asmoa bekatu da, nahiz eta inoiz ere burutu ez, ez hitzez ez egitez: zeren gizakumearen pentsamenduak dakuskien Jainkoak kontuan karga baitiezaguke asmoa ere; baina asmo hori agertzen duen eta giza epaileari argudioa eman diezaiokeen egintza edo erranen bat ez bada bitartean, ezin zaio deitu delitua. Eta bereizketa hori bai jaso zutela greziarrek, ἀμάρτημα eta εγκλημα edo αἵμα hitzen bidez; horietariko lehenak, bekatu hitzez itzulitakoak, legearekiko edozein hutsegite esan nahi du, baina azken biek (delitu hitzez itzulitakoek) bekatu jakin bat adierazten dute soil-soilik, gizakume batak besteari akusa diezaiokeena, alegia. Baina intentzioengatik, ageriko egintzaz azaldu gabeko asmoengatik, ez dauka inork inor akusatzerik. Halaxe latindarrek ere, bekatu adiera duen peccatum hitzaren bidez,



legearekiko edozein desbideraketa adierazten dute; baina krimen esatean (hauteman esan nahi duen cerno hitzetik dator hitz hori), epaile baten aurrean aurkez daitezkeen bekatuez ari dira soil-soilik, eta ez, beraz, intentzio hutsean bukatzen direnez.

Bekatuak legearekiko eta delituak lege zibilarekiko duen erlazio horretatik ondoko hau inferi daiteke: lehenengo eta behin, legerik ez dagoenean, bekaturik ere ez dagoela. Baina naturako legea betierekoa denez, hitzarmenak hausteak, eskergaiztoak, andurreriak eta bertute moralen baten aurkako zeinahi egitatek ezin diola utzi inoiz bekatu izateari. Bigarrenik, lege zibilik ez dagoenean, deliturik ere ez dagoela; zeren lege naturala beste legerik geratzen ez denez, ez baitago akusaziorako tarterik; gizakume bakoitza baita orduan bere buruaren epaile, bere kontzientziak soil-soilik akusatu eta bere asmoaren zuzentasunak zuritu ahal duelarik. Asmo zuzena duenean, beraz, haren egintza ez da izanen bekatu; osterantzean, egintza hura bai izanen dela bekatu, baina ez delitu. Hirugarrenik, botere subiranorik ez dagoen lekuan ez dela izanen deliturik ere, zeren halako botererik ez den lekuan ez baitago legearen babesik itxaroterik eta gizakume bakoitzari egokituko zaio, beraz, bere burua defendatzea bere kabuzko botere; ezin baita suposatu botere subiranoa eratzean inork bere burua babesteko eskubideari uko egin dionik, babes horrexetarako eraturia izan da-eta subiranotasun oro. Baina burubabeserako eskubide hori botere babestailea eraisten lagundu ez zutenentzat gainulertu behar da soil-soilik, zeren besteak delituan sarturik baitzeuden hasieratik bertatik.

Delitu ororen sorburuan ulerkuntzaren akatsen bat, arrazonamendu alorreko errakuntzaren bat edota grinen bulkadaren bat dago. Ulerkuntzako akatsa jakineza da; arrazonamendukoa, berriz, iritzi okerra. Jakineza, bere aldetik, hiru motatakoa da: legearen, subiranoaren eta zigorraren jakineza. Naturako legearen jakinezak ez du desenkusutzen inor, zeren ezaguerara iritsi den edozein gizakumek dakiela suposatzen baita inori ere ez liokeela egin behar berari egitea nahi ez lukeena. Beraz, norbaitek, doan lekura doala, legearen aurkako zerbait egiten badu, delitu egiten du. Norbait Indietatik badator hona eta erlijio berri bat hartzera jendea limurtu nahian badabil edo herrialde honetako legeen desobedientziara bultzatzen duen zerbait erakusten, delitu egiten dihardu (nahiz eta erakusten duenaren egiaz zeharo konbentziturik egon), eta justiziaz zigortua izan daiteke horregatik; ez bakarrik beraren doktrina hori faltsua delako, baizik baita berak ere beste bati onartuko ez liokeena -hots, hemendik hara joan eta bertako erlijioa aldatzen saiatzea- egiten ari delako. Baina lege zibilaren jakinezak bai desenkusutzen duela atzerrian aurkitzen den edonor, lege hori iragartzen zaion arte; ordura arte ezin lege zibil ere ez baita lotesle.

Era berean, norberaren herriko lege zibila ezagutu nahi duenari ezagutarazteko neurrian ez baldin bada iragarri, eta egindakoa naturako legearen aurka ez baldin badao, desenkusa ona dugu jakineza; beste kasu batzuetan, ordea, lege zibilaren jakinezak ez du desenkusutzen.

Bere ohiko bizilekuko botere subiranoa ez ezagutzeak ez du inor desenkusutzen; bertan babesa eman dion botereari buruzko informazioa jaso behar zukeelako.

Legea ezagutzera eman den lekuan zigorra ez ezagutzeak ez du inor desenkusutzen. Zeren legea haustean -eta legea ez litzateke lege, berba hutsa baizik, hausteari dagokion zigorraren beldurrik gabe-, gizakumea zigorrera arriskatzen baita, nahiz eta zein zigor den jakin ez. Izan ere, egintzaren bat bere borondatez egiten duenak egintza horren ondorio jakin guztiak onartzen ditu; eta lege-hausteraren ondorio jakina da zigorra edozein Estatutan. Zigor hori dagoeneko erabakirik badauka legeak berak, harexen menpe geratuko da lege-hauslea; erabaki gabe baldin badago, nahierara zigortua izanen da. Arrazoizkoa delako, izan ere, zuzengabekeria egitean bere gurariaren muga besterik ez daukanak zigorra ere halaxe jasotzea, legea hautsi dienen guraria beste mugapenik gabe.

Legean bertan delituari erantsia edo antzeko kasuetan eskuarki ezarria izan den zigor jakin bat baldin bada, delitugilea askaturik geratuko da zigor handiagorik jasotzetik. Izan ere, aurretiaz ezagututako zigor hura aski handia ez baldin bada jendea egintzatik apartatzeko, egintza horretarako inbitaziotzat har daiteke: zeren gizakumeek zuzengabekeriatik datorkien onura eta zigorretik datorkien kaltea alderatzen dituztenean, beraientzat onena deritzotena hautatzen baitute naturako halabeharrez; eta, beraz, legeak aurretiaz erabakirik zuena baino zigor handiagoa edo delitu beragatik beste batzuei ezarritakoa baino handiagoa ezartzen bazaie, legeak berak zirikatzen ditu lehenengo eta engainatzen gero.

Egintza bat burutu ondoren erabakitako ezein legek ere ezin du egintza hura delitu bihurtu: zeren egintza lege naturalaren kontrakoa baldin bada, egintzaren aurretik bazegoen jada legea; eta lege positiboari dagokionez, ezin dugu izan beraren berri, ezta beraren obligaziorik ere beraz, lege hori atera aurretik. Baina egintzaren bat debekatzen duen legea egintza hori burutu aurretik atera baldin bada, egilea bai badagoela gerora erabakitako zigorraren menpe -lehenxeago esandako arrazoiarengatik-, baldin lehenago zigor txikiagorik ezagutzera eman ez bada, ez idatziz ez egitez.

Arrazonamenduko akatsez -hau da, errorez-, gizakumeek hiru modutara jotzen dute legeak haustera. Lehenik, printzipio faltsuak egiazkotzat hartzearen: esaterako, egintza zuzengabeak leku orotan eta garai orotan indarrez zilegituak izan direla hautematean, eta egintzon egileak garaile atera direla; eta handikiek herrialdeko lege-sistemaren gainetik pasatzen diren bitartean, ahulenak eta beraien ekinbidean porrot egin

dutenak hartu izan direla delitugile bakartzat hautematean, honako printzipio hauek hartzeko joera dago, ondorioz, arrazonamendu-printzipio baliozkotzat: Justizia berba hutsala besterik ez dela; bakoitzak bere abileziak eta aukeraz baliatuz dagiena, huraxe daukala; nazio orotan praktikatzen dena ezin dela zuzengabea izan; lehengo garaietako ereduak argumentu ona direla berriz ere gauza bera egiteko; eta horien antzeko beste printzipio asko. Eta printzipiook baliozkotzat hartuz gero, ezein egintza ere ezin daiteke delitu izan berez, baizik eta egileen arrakastaren arabera bihurtuko da delitu, ez legearen arabera; eta egintza berbera jatorra ala makurra izango da bere arrakastaren arabera. Horrela, Mariok eginda delitu dena, Silak eginda meritagarri bihurtuko da, eta Zesarrek eginda berriro ere delitu, lege beraiek indarrean dirautela. Estatuaren bakerako asaldura amaigabea.

Bigarrenik, sasimaisuen erruz: dela naturako legea gaizki interpretatzen dutelako, lege zibilarekiko bateraezin bihurtuz; dela beraien doktrinak baizik ez direnak edo menekoaren obligazioekin zerikusirik ez duten antzinako tradizioak irakasten dituztelako legetzat.

Hirugarrenik, printzipio egiazkoetatik ateratako inferentzia okerrengatik. Horixe da sarri askotan gertatzen zaiena konklusioak ateratzeko eta zer egin behar den ebazteko presaka eta arin-arinka dabiltzanei, eta halakoxe jendea da beren adimenaren buruiritzi direnak eta horrelako arazoek ez dutela denbora eta azterketarik eskatzen uste dutenak, baizik esperientzia arrunta eta talentu ona besterik ez; eta horretaz ez du inortxok ere bere burua mantxutzat. Baina inork ere ez du xedetzat hartuko aurreko hori baino errazagoa ez dena eta ikerketa sakon eta luzerik gabe lortzerik ez dagoena, hots, zuzenaren eta okerraren ezagutza. Eta arrazonamenduko akats horietatik ez dago bat ere delituaren desenkusagarri izan dakiokeenik (batzuk aringarri izan dakizkiokeen arren) bere arazo pribatuaren kudeaketan diharduenari; eta are gutxiago izanen zaizkie desenkusagarri kargu publikoan dihardutenei, zeren arrazoiak dutela uste izan eta arrazoi faltan oinarrituko bailukete beren desenkusa.

Delituen kausa sarri-sarritan izan ohi diren grinotariko bat harropuzkeria da, norberaren burua burugabeki gainbalioztatzea. Pertsonen arteko balioen aldea norberaren talentu, aberastasun, odol nobleziaren edo autoritate subiranoa dutenen nahiaren menpe ez legokeen beste koalitate naturalen batean bailegoen. Hortixe dator beraien uste hura: legeek agindutako zigorrak, meneko orori ezartzekoak, ez litzaizkiekeela beraiei ezarri beharko jende txiro, xehe eta xumeari -arrunta izenaren azpian sailkatuari- ezartzen zaizkion zorrotasun berarekin.

Sarritan gertatzen da, beraz, beraien aberastasunen aberastasunaz hain harro direnek delitu egitera ausartzea, justizi ordezkariak erosiz edo barkamena diruaren edo beste sariren baten truke lortuz, zigorrari ihes egingo diotelakoan.

Era berean, ahaide handiki ugari dutenek eta jendearen artean entzute handia lortu dutenek ere legeak hausteko ausardia izaten dute, legeok betearaztea dagokion botere publikoa presionatuko duten esperantzaz. Beren jakinduriari buruzko iritzi goregia eta faltsua dutenek gobernariaren ekintzak kritikatzeko eta berauen autoritatea ezbaian jartzea hartzen dute eginkizuntzat; eta legearen zimenduak higitzeari ekiten diote horrela beren diskurtso publikoaren bidez, ezer ere delitu ez balitz bezala, beraien interesen kontra doana salbu. Gertatu ohi da, gainera, indibiduo horiek beren hurkoei iruzur egiteko amarruak eta horrelako delituak egitera aiherriz izaten direla; beren maltzurkeriok zorrotzegitza baitituzte jendeak antzeman diezaien. Horiexei deritzet nik norberaren jakinduriaren uste hutsaletik ondorioztatzen diren erruak. Estatuaren asaldura (gera zibilik gabe inoiz gertatzen ez dena) bultzatzen duten aitzindarietarik oso gutxi baizik ez du irauten bizirik bere xede berriak finkaturik ikus ditzan; ondorengoentzat izanen da, beraz, haien delituen emaitza, eta ez da sekula ere izanen beraiek espero bezalakoa. Beraiek uste zuten bezain jakintsu ez ziren seinale. Eta inor konturatuko ez delakoan iruzur egiten dihardutenek beren buruari egiten diote iruzur eskuarki, zeren ilunpean ostendurik daudelakoan, beraien itsukeria baizik ez baitaude ostenduta: eta ez dira, izan ere, beren begiak tapatzeak ezkutatu egiten dituela uste duten umeak baino jakintsuagoak.

Harropuzkeriak jota dauden gizakumeak oro suminaren meneko izan ohi dira gehienetan, herabeak ere ez badira; beste batzuek baino joera handiagoa baitute solas askatasun arrunta erdeinutzat hartzeko. Eta gutxi izango dira suminak eragin ez ditzakeen delituak.

Gorroto, haragikeria, handinahia eta diruzalekeriaren grinek zer-nolako delituak eragin ditzaketen hain da nabaria esperientzia eta zentzua duen edonorentzat, ez baitago haietaz ezer esan beharrik ere; hori bai, gizakiaren eta gainontzeko izaki bizidun ororen naturari horren atxikirik dautzan gaixotasunak direla, non berauen ondorioak zeharo kontrolagaitzak diren, arrazoimenaren aparteko erabilera edo zigorrean zorrotasun iraunkorra ezarri ezik. Izan ere, gizakumeek gorroto dituzten gauzok halako neke iraunkor eta ekidingaitza jasanarazten die, ez dagoela beste erremediorik pazientzia agortzeraino eustea ala gogaikarri zaien hura suntsituz asaskatzea baino. Lehen irtenbidea zaila da, eta bigarrena ezinezko gertatzen da sarritan legea nolabait hautsi gabe. Handinahia eta diruzaletasuna ere gizakumea jarraikorki meneratzen eta presiopean jartzen duten grinak dira, arrazoiak ez baldin bada hor aurre egiteko beti erne. Horrela da ezen, zigorgabe ateratzeko beta agertzen deneko, hantxe azaleratuko direla haien ondorioak. Eta

haragikeriari dagokionez, grina horrek jarraikortasunean ez duena oldartasunean du sobera, eta aski da hori zigor leun eta ez-ziur ororen beldurra baino pisu gehiago har dezan.

Grina orotatik beldurra da gizakumeak gutxien bultzatzen dituen legeak haustera. Eta gehiago esan daiteke: lege-haustetik onura edo atseginen bat etor daitekeela dirudienean, beldurra da gizakumeei (izaeraz bihotz-zabal diren batzuk aparte utziz) legea betearazten dien gauza bakarra. Hala ere, kasu askotan beldurrak ere bultzatzen du delitu egitera.

Beldurrak eragindako egintza ez baita justifikatzen zeinahi beldurrengatik, baizik beldur fisikoa deitzen diogun norberaren gorputzari gerta dakiokeen kaltearen beldurrengatik soil-soilik, eta batek ez dakienean zer egin dezakeen horri itzurtzeko, egintza bidez ihardestea baino. Erasoa jasan eta hil egingo duten beldur denak ez dakusa ihes egiteko beste modurik erasotzailea kolpatzea baino; heriotza eragiten badio, kasu honetan ez du deliturik eginen, zeren ez baita suposatzen Estatua eratzerakoan inork ere bere bizitzaren edo soinaren defentsari uko egin dionik, legea sasoiz ezin bazaio etorri laguntzera. Baina susmoengatik norbait hiltzea, haren egintzak eta mehatxuak direla-eta berak ahal duenean hil egingo nauela argudiatuz, eta botere subiranoarengandiko babesa eskatzeko denbora eta bitartekoak ditudalarik, hori delitua da. Era berean, norbaitek hitz iraingarriak edo bestelako irain txikerren bat jasotzearen -legegileek zigorrak ere ez dietelarik izendatu horrelakoei, ezta pentsatu ere ezein pertsona zentzudunek aintzakotzat har ditzakeenik-, eta irainon mendeku hartu ezean prestigioa galduko duela eta aurrerantzean beste batzuek antzekoak jasateko beldurrengatik legea hausten duenak, etorkizunean bere mendeku horrek lekarkionetik babestu nahian, legea hausten dihardu. Zeren ekidin nahi duen kaltea ez baita fisikoa, ustezkoa baizik, eta, munduko bazter honetan duela urte gutxi batzuetatik honazko ohiturak delitu hori arrazoizko bihurtu duen arren jende gazte eta ergelaren artean, hain da arina berez, non gizakume kementsuak eta bere balentriaz seguru sentitzen denak aintzakotzat hartzeko ere ez den. Halaber, izpirituen beldur denik ere izan daiteke, dela beraren sineskeriarengatik, dela amets eta ikuskari arraroak kontatzen dizkionei kasu gehiegi egitearren, kalteren bat gertatuko zaiola uste izanik zerbait egitearren edo egin gabe uztearren, nahiz eta egiteko edo egin gabe uzteko hori legeen kontrakoa izan. Baina beldur horrek ez du desenkusatzeko, baizik delitua da horrela egindakoa edo egin gabe utzitakoa. Zeren, gorago azaldu dudanez bigarren kapituluari, ametsak ez baitira besterik, jakina, lotan gaudela dauzkagun begitazioak baino, itzarrik geundenean zentzuen bidez jasotako inpresioen ondorio; baina pertsona batzuek, akatsen bategatik, lotan egon diren zalantza dutenean, egiazko ikuskariak izan dituztela uste dute. Beraz, beraren edo besteren baten amets edo delako ikuskari batean oinarrituz, edo Estatuak baimentzen ez duen Izpiritu ikustezinen baten boterearen fantasian oinarrituz, legea haustera ausartzen dena: naturako legetik aldentzen da, ofentsa garbia berez, eta beraren edo beste partikularren baten burutazioei jarraitzen die, esangurarik duten ala ez inoiz jakiterik ez daukalarik, ezta ere bere ametsak kontatzen dizkionak egia ala gezurra diotson; horrela, zeinahi banako partikularrek hala jokatzeko askatasuna baldin balu (eta behin batek izanez gero, denei legokiena da lege naturala), ez legoke legerik tinko mantentzerik eta Estatu osoa geratuko litzateke deseginda.

Delitu-sorburu desberdinok kontuan hartuz gero, garbi ageri da dagoeneko delitu guztiek ez dutela larritasun bera, antzinako estoikoek hala uste bazuten ere. Badu bere lekua DESENKUSAK, delitua zirudiena ez dela arean ere delitua dioskuna, eta badu bere lekua ARINGARRIAK ere, delitu astuna zirudiena delitu arin bihurtzen duena. Eta delitu guztiei dagokien arren berdinki bidegabekeria hitza, marra artezetik aldentzen den guztia berdinki makurdura den bezalaxe -estoikoek zuzenki hauteman zuten-; horrek ez du esan nahi delitu guztiak berdinki zuzengabeak direnik, marra makur guztiak berdinki makurrak ez diren bezalaxe -eta hori ez zuten hauteman estoikoek, haien zat, legearen kontrakoa izanez gero, nork beraren aita hiltzea bezain delitu astuna baitzen oilo bat hiltzea.

Egintza jakin bat erabat desenkusatzeko duena eta delitu izatetik askatzen duena ezin da besterik izan legea bera betetzeko obligaziotik aldi berean askatzen gaituena baino. Ezen, burututako egintza legearen kontrakoa baldin bazen eta egilea legea betetzera beharturik bazegoen, egintza hura delitua besterik ezin da izan.

Legea ezagutzeko bitartekorik ezak erabat desenkusatzeko du. Ezagutzeko modurik ez dugun legeak ezin gaituelako behartu. Baina legeak agintzen duenaz informatzeko ardura falta ezin da bitarteko faltatzat hartu. Orobat, nork beraren arazoak kudeatzeko zentzu aski duela uste duen inori ere ezingo zaio naturako legeak ezagutzeko bitarteko faltarik egotzi, berak omen duen zentzu horrexen bitartez ezagutzen direlako legeok. Umeak eta eroak daude soil-soilik lege naturalaren kontrako ofentsez desenkusaturik.

Gizakumeren bat gatibu edo etsaiaren menpe dagoenean -bere pertsona edo bizibideak etsaiaren menpe daudenean aurkitzen da horrela-, eta bere erruz ez bada, bertan behera geratzen da legearekiko duen obligazioa; ez baitauka beste erremediorik etsaiari obeditu ala hil baino; eta halako obedientzia ez da izanen, beraz, delitu. Inor ere ez dagoelako beharturik, legearen babesak huts egitean, bere burua ahalik mediorik hoberenen bidez babesten saiatzeari uztera.

Berehalako heriotzaren beldurrak legearen aurkako egintzaren bat burutzera daraman gizakumea guztiz desenkusaturik dago, ezein lege ere ezin behar dezakeelako inor bere burua zaintzeari uztera. Eta lege

hura derrigorrezkoa dela suposatuz ere, hara zer arrazonamendu egin lezakeen batek: Egiten ez badut, oraintxe bertan hilko naiz; egiten badut, geroago hilko naiz; beraz, egintza hori burutzeak bizi-denbora luzatzea esan nahi du. Hortaz, naturak berak bultzatzen du egintza burutzera.

Janaririk gabe edo bizitzeko nahitaezko duen beste zeozer gabe geratzen baldin bada norbait, eta legearen kontra zerbait eginez baizik ezin iraun baldin badeza -esaterako, gosete handi batean janaria indarrez eskuratzen badu, edo, ez diruz ez karitatez lortzerik ez daukana ebatsi egiten badu, edo bere bizitzaren defentsan beste norbaiti ezpata kentzen badio-, erabat dago desenkusatuta, lehentxeago esandako arrazoiengatik.

Halaber, legezkontra besteren baten autoritatez burututako egintzei dagokienez, autoritate horrexek berak desenkusutzen ditu autorearekiko -inork ere ez liokeelako egotzi behar bere egintza propio bat bere bitartekoa besterik izan ez den bati-, baina bitarteko hau ez dago desenkusatuta, ostera, zuzengabekeria egin zaion hirugarren pertsonarekiko; legearen bortxaketan, biak, autorearen eta egilearen, direlako delitugile. Honako hau jarraitzen da, hortaz: botere subiranoa duen gizabanakoak edo biltzarrak norbaiti arestiko lege baten kontrako zerbait egitea agintzen badio, egintza hori erabat dagoela desenkusaturik: subiranoak ezingo lukeelako kondenatu, bera baita autorearen; eta subiranoak justiziaz kondenatu ezin duena beste inork ere ezin lezakeelako justiziaz zigortu. Gainera, subiranoak bere arestiko legeren baten kontra zerbait egitea agintzen duenean, agindu horrek legea derogatzea esan nahi du (aipatu egintza konkretuari dagokionean behintzat).

Botere subiranodun gizabanakoak edo biltzarrak subiranotasunari funtsezko zaion eskubideren bat lagatu egingen balu, eta menekoak, ondorioz, botere subiranoarekin (hots, Estatuaren izaerarekin berarekin) kontraesanean dagoen askatasunen bat lortuko balu: hala eta guztiz ere, lortu berri duen askatasun horren kontra doan zerbaiti buruzko agindua obeditzeari uko egiten badio, bekatu egiten du eta meneko gisa duen betebeharraren kontra jokatzeko du. Ondo jakin beharko lukeelako beraren baiespenez eta beraren defentsarako eraikia izan den subiranotasunarekin bateraezina zer den; eta bere askatasun hori ere bateraezina denez, ekarriko zituen ondorio txarrak ez ezagutzeagatik eman zitzaiola. Baina desobeditzeaz gain, egintza hura betearazteko dagoen ministro publikoari jarki bazaio, orduan delitu egiten ari da; bazeukalako arazoa konpontzerik, bakea hautsi beharrik gabe, kereila aurkeztu izan balu.

Delitu graduak maila ezberdinen arabera sailka eta neur daitezke. Lehenik, sorburu edo kausaren maleziaren arabera; bigarrenik, zeinbestearaino gerta daitekeen eredu kutsagarri; hirugarrenik, zeinbestearaino den ondorio kaltegarri; eta laugarrenik, noiz eta non eta nortzuen eskuhartzez burutua izan den.

Legearen kontrako egintza berbera delitu astunagoa izango da norberaren indar, aberastasun edo lagunen presuntzioan oinarrituz burutzen bada -legea betearazteko arduradunei aurre egiteko ustetan-, antzemango ez dioten edo ihes egingo duen esperantzan burutzen bada baino. Zeren norberaren indarrean oinarritutako zigorgabetasun-presuntzio horixe baita garai orotan eta tentaldi mota orotan zeinahi legereko mesprezua sorrarazi duena; bigarren kasuan, ordea, delitugileari ihes eragiten dion arriskuaren beldur horrek esanekoago bihurtuko du etorkizunean. Delitu berbera astunagoa izanen da delitu dela jakinaren gainean burutzen badugu, legezkoa dela okerki uste izanik burutzen badugu baino; zeren bere kontzientziaren kontra delitu egiten duenak bere indarrean edo beste botereren batean jartzen baitu ustea, hurrengoan ere gauza bera egitera bultzatuko duena. Delitua errakuntzaz burutu duena, ordea, erru horretaz ohartarazten zaionean, prest dagoke legearen arabera jokatzeko.

Errorea maisu batengandik edo publikoki eskuetsitako lege-interpretatzaile batengandik datorkionak erru gutxiago du beraren printzipio eta arrazonamendu propioei behin eta berriro jarraitzearen gertatzen zaionak baino; izan ere, autoritate publikoak irakasten duen batek irakasten duena Estatuak berak irakasten du eta lege itxura dauka, autoritate hark zuzen dezan arte; eta botere subiranoaren ukapena barne ez daramaten eta ageriko legeren baten aurka ez doazen delitu orotan, erabateko desenkusa dago; baina egintzak bere irizmen pribatuan oinarritzen dituenak, aldiz, bere zuzentasunaren ala errearen arabera mantendu ala erori beharko du.

Egintza bera burutzea delitu astunagoa izango da baldin iraunkorki zigortua izan bada beste delitugile batzuen kasuan, zigorgabetasun-adibide asko arestian izan bada baino. Aurreko adibideok, izan ere, zigorgabetasunaren beste hainbeste itxarobide baitira, subiranoak berak emanak; eta horrelako itxarobide eta barkamen presuntzioak norbaiti ematen dizkionak, ofentsa burutzeko adorea ematen dion heinean, berak ere baduenez bere partearen ofentsa hartan, ezingo dio erru guztia leporatu arrazoiz ofentsagileari.

Bat-bateko grinatik sortzen den delitua ez da aldeztu aurretik luzaro pentsatuz egindakoa bezain astuna; lehenengo kasuan badagoelako aringarriak aurkitzerik, giza naturaren ahultasun komunean; baina premeditazioz egin duenak asko begiratuta egin du, legea, zigorra eta bere egintza horrek gizartearen lezakeen ondorioa begien aurrean izanez; hori guztia gutxietsi eta bere gutiziaren pean jarri duelarik delitu egitean. Ez da, hala ere, erabateko desenkusa izaterainoko bat-bateko grinarik, zeren legearen lehen ezagutzatik egintza burutu artein dagoen denbora tarte hori guztia deliberamendu tartetzat jo behar baita; eta legeaz gogoetak egitean, bazukeen bere grinaren irregulartasuna zuzentzeko betarik.

Delitu astunagoa da legea ofizialki eta maiz jendaurrean irakurtzen eta interpretatzen den lekuan lege horren aurka egindakoa, jendeak irakaspen hura hartzerik ez duen lekuetan egindakoa baino, argiketa zail eta zalantza beteak, galderei erantzun etenak eta jende partikularrengandiko informazioa besterik ez den lekuetan baino, alegia; zeren kasu honetan, ahultasun komunari egotzi behar baitzaio erruaren zati bat; baina lehenengo kasuan, ostera, axolagabekeria ageri da, botere subiranoarekiko halako mesprezu bat ere falta ez delarik.

Legeak beren-beregi gaitzesten dituen, baina legegileak bere borondatearen beste ezaugarri garbi batzuen bidez tazituki onesten dituen egintza horiek delitu arinagoak dira, izatez, egintzok legeak eta legegileak, biek, gaitzetsiak direnean eginak balira baino. Izan ere, legegilearen borondatea lege dela gogoan hartuz, bi lege kontrajarri agertzen dira kasu honetan; eta hori zeharo desenkusagarri litzateke, jendeak, subiranoaren onespena ezagutu ahal izateko, beronen aginduaz gairik beste argudio batzuetara jo behar izango balu. Baina hortxe direnez zigorrak ere, lege-hausteari ezezik legea betetzeari darraizkionak, subiranoa bera ere bada hein batean lege-haustearen kausa, eta ezingo dio arrazoiz egotzi, beraz, erru osoa delitugileari. Esate baterako, legeak dueluak kondenatu egiten ditu eta heriotza ezartzen du zigortzat; baina bestalde, dueluari ezez esaten diona mesprezagarri eta irragarri bihurtuko da erremediorik gabe, eta batzuetan, gainera, subiranoak berak ere ez du joko gaitzat gerran eginkizun edo karguren bat eman diezaion. Horregatik, duelua onartzen badu, kontuan hartuz gizakume guztiak saiatzen direla, legalki, botere subiranoa dutenek euren buruz iritzi ona izan dezaten, ez litzateke arrazoizkoa zorrozki zigortzea; gogoan hartuz haren erruaren zati bat zigor-ekarleak berak duela. Eta hau ez diot mendeku pribatuetarako ez beste ezein desobedientziatarako askatasuna nahi dudalako, baizik gobernua dutenek zuzenki debekatu dutena zeharka ez onesteko kontu izan dezaten. Printzeek berauen jokabidea dakusatei damaizkieten ereduak, izan ere, legeak euren baino indar gehiago dute, eta beti izan dute horrela, menekoen ekintzak gidatzeko orduan. Eta gure betebeharrak haiek dagiena barik haiek diotena egitea bada ere, betebeharrak hori ez da sekula burutuko, Jainkoak gizakiei aparteko eta naturaz-gairik dohainen bat ematen ez badie manu hura bete dezaten.

Delituak berauen efektuen maleziaren arabera alderatzen baditugu: lehenik, egintza bera delitu handiagoa izanen da askoren kaltetan baldin bada, gutxiren kaltetan bada baino. Beraz, egintzaren batek egungo garaian ezezik etorkizunean ere kalte badagi, eredu izateagatik, delitu astunagoa izanen da egungo garaian soilik kalte egiten duena baino: izan ere, lehena delitu emankorra da, askoren kaltetan ugaltzen dena; bigarrena, ostera, antzua. Estatuak erabakitako erlijioaren kontrako doktrinei eustea erru handiagoa izanen da predikari eskumendun batengan pertsona pribatu batengan baino; gauza bera gertatzen da modu profanoz edo lizunkoiz bizitzeari buruz edo erlijioaren aurkako edozein egintzari buruz. Eta antzera legearen irakarle baten kasuan ere, beste batzuek baino delitu handiagoa egiten du botere subiranoa ahultzera doan doktrinaren bati eutsi edo egintzaren bat burutzen baldin badu. Halaber, jakintsu fama izateagatik bere aholkuetan nahiz egintzetan jarraitzaile asko duen gizakumeak delitu astunagoa egiten du beste batek gauza bera eginda baino; zeren gizakume horiek, delitu egin ezezik, delitu hori legetzat erakusten baitiete beste guztiei. Eta orokorki delitu guztiak bihurtzen dira larriago, eskandaluzko izatearren; hau da, beraien bidetari baino beraien aurrean doazen zuziari gehiago begiratzen dioten gizakumeentzat behaztopo izatearren.

Era berean, pertsona pribatuen aurka burutzen diren egintzak eurak are larriagoak dira Estatuaren egungo eraketaren aurkako etsaigoz burutzen direnean; kaltea den-denengana hedatzen dutelako. Horretarako delituak dira armadaren kontrako traizioa edo etsaiari Estatu-sekretuak ezagutzera ematea; halaber, Estatu-ordezkararen aurkako edozein atentatu ere, ordezkarik hori monarka ala biltzarra izan; baita beronen autoritatea, hitzez nahiz egitez, egungo garaian nahiz ondorengotzan gutxietsi nahi lukeen edozein saio ere: delituen krimina laesae majestatis deitzen zieten latindarrek, oinarritzko legeren baten aurkako egitasmoak edo egintzak burutzean datzalarik.

Halaber, pertsona bakar baten edo gutxi batzuen kontra burututakoak baino delitu astunagoak dira epailetza indargabe uzten dutenak. Horrela, epai edo testigantza faltsua ematearren dirua azpitik hartzea delitu astunagoa da, adibidez, diru kopuru berdineagatik edo handiagoagatik baten bat bestela engainatzea baino; zeren halako epaien azpian erori denari iruzur egiteaz gain, epailetza oro bihurtzen da baliogabeko, indarrari eta mendeku pribatuei bide ematen zaizalarik.

Halaber, pertsona pribaturen bati lapurtzea edo iruzur egitea baino delitu astunagoa da altxor publikoari edo beronen sarrerei lapurreta edo iruzur egitea; zeren ondasun publikoa lapurtzea askori batera lapurtzea baita.

Era berean, pertsona pribatua edo beronen zigilua usurpatzea baino delitu astunagoa da ministeritza publikoa maulaz usurpatzea eta zigilu publikoak edo moneta publikoa falsifikatzea; azken iruzur hau pertsona askoren kaltetan delako.

Gizabanako pribatuei legekontra egiten zaizkien egintzetarik, gizakien iritzi komunaren arabera kalte handiena egin dakiokiena da deliturik astunena. Legekontra norbait hiltzea izanen da, beraz, bizia kentzen ez duen beste ezein delitu baino handiagoa.

Eta hiltze soila baino astunagoa izanen da norbait tormentuz hilaraztea.

Eta gizakumeari ondasunak kentzea baino astunagoa hari gorputzadarren bat mutilatzea.

Eta astunagoa ondasunak herio-mehatxuz edo zaurituz lapurtzea, ezkutuki ebastea baino.

Eta astunagoa ezkutuki ebastea, iruzurrez lortutako baiespenez baino.

Kastitatea indarrez bortxatzea delitu astunagoa da limurketaz egindakoa baino.

Eta astunagoa emakume ezkondu batena, ezkongee batena baino.

Izan ere, horrelaxe sailkaturik daude eskuarki delitu guztiok, nahiz eta gizakume batzuek sentiberatasun gehiago eta beste batzuek gutxiago izan ofentsa berarekiko. Baina legeak ez ditu kontenplatu jaugin partikularrak, baizik gizateriaren jaugin orokorrak.

Eta beraz, gizakumeei laidotik jaso dezaketen ofentsa, dela hitzen edo zeinuen bidez -jasaten duenaren momentuko sumindura beste kalterik eragiten ez duen bitartean-, aintzat hartu ere ez dute egin greziarren eta erromatarren legeek, ezta lehenagoko nahiz oraintsuko Estatuetakoei ere; uste izanik, alegia, sumindura horren benetako kausa ez datzala laidoan (zeina ez baita gertatzen beren buruen balioaz jabeturik dauden pertsonengan), baizik horregatik min hartzen duenaren txepelkerian.

Gizabanako pribatu baten kontra burututako delitua askoz astunago bihurtzen da pertsonaren, denboraren eta lekuren arabera. Izan ere, askoz delitu astunagoa da norbere gurasoa hiltzea besteren bat hiltzea baino: guraso batek subiranoari berari dagokion ohorea jaso beharko lukeelako, zeren, bere boterea lege zibilaren menpe jarria badu ere, botere hori naturaz zeukalako hasiera batean. Eta gizakume txiro bati lapurtzea aberatsari lapurtzea baino delitu astunagoa da, zeren txiroak gehiago nozituko baitu kaltea.

Eta, esaterako, itzulketarako seinalatutako unean edo lekuan burututako delitua astunagoa izanen da beste une edo leku batean burututakoaren aldean: legearen mesprezu handiagoa esan nahi duelako.

Beste kasu astunagorri eta aringarri asko ere erants daitezke, baina aurkeztu ditudan hauek aski garbi erakutsiko diote nornahiri beste edozein delitu ere dagokion lekuan kokatzen.

Azkenez, ia delitu guztietan gertatzen denez gizabanako pribatuei ezezik Estatuari ere egindako erasoa, delitu berberari delitu publikoa deitzen zaio, akusazioa Estatuaren izenean aurkeztu baldin bada; eta delitu pribatua, akusazioa gizabanako pribatu batena baldin bada. Eta horiei dagozkien auziei publikoak deituko zaie, judizia publica, Koroaren Auziak; ala Auzi Pribatuak. Hilketa akusazioan gertatzen dena: banako pribatua baldin bada akusatzailea, auzi hori auzi pribatua da; eta subiranoa baldin bada akusatzailea, auzi publikoa.

## XXVIII

Zigor eta sariez

ZIGORRA autoritate publikoak norbaiti ezartzen dion gaitza da autoritate horrek lege-haustetza duen zerbait egitearren edo egin gabe uztearren, horrela gizakumeari borondatea gertuago bihur dadin obeditzera.

Definizio honetatik ezer inferitzen hasi aurretik, garrantzi handiko galdera bati erantzun beharra dago, hots, zein atetatik sartu ote den edozein kasutan zigortzeko eskubide edo autoritate hori. Zeren, lehenago esan bezala, inor ere ez dagoke ezein hitzarmenez beharturik indarrez datorkionari ez jarkitzera; eta ezin da suposatu, beraz, ezein gizakumek ere besteren bati lagatzerik eskua gainean indarrez jar diezaien eskubidea. Estatuak eratzean, bakoitzak bai lagatzen duela besteak defendatzeko eskubidea, baina ez, hargatik, bere burua defendatzeko. Bere gain hartzen du, baita, subiranotasuna duenari laguntzeko konpromezua, honek besteren bat zigortzerakoan. Baina subiranoari beste bat zigortzen laguntzera hitzarmenak ez du esan nahi zigortzeko eskubidea ematen dionik -horrela hitzarmendutakoak berak eskubide hori berez izan ezean behintzat. Garbi dago, beraz, Estatuak (hau da, berori ordezkatzeko duten pertsonak edo pertsonak) duen zigortzeko eskubidea ez dagoela menekoen ezein emakida edo dohaintzatan oinarriturik. Baina azaldu dut lehenago Estatuaren erakuntzaren aurretik gizakume bakoitzak edozertarako eskubidea zeukala, eta bere burua babesteko beharrezko zeritzon edozer egiteko eskubidea: edonor menperatu, zauritu edo hiltzeko eskubidea, beraz, xede hura lortzearen. Eta hauxe du oinarritzat Estatu orotan erabiltzen den zigortzeko eskubide hark. Ez ziren izan menekoak eskubide hori subiranoari eman ziotenak, baizik beraiek zituzten eskubide guztiak lagatzean, subiranoa indartu egin zuten beronen eskubidea ondoen zeritzon moduan erabil zezan meneko guztien babeserako. Horrela beraz, eskubide hori ez zitzaion eman, ez, subiranoari, baizik utzi egin zitzaion, berak, eta soil-soilik berak, erabil zezan; eta (lege naturalak ezarriak zetozkion mugak salbu), natura hutseko egoeran eta bata besteari kontrako gerra-egoeran bezain osoro erabil zezan.

Zigorren definizioetik ondoko hauek inferitzen ditut: Lehenik, ez mendeku pribatuak ezta banako pribatuengandiko zuzengabekeriak ere ezin dei daitezkeela propioki zigorrak: ez datozelako autoritate publikoarengandik.

Bigarrenik, fabore publikoaren aldetik baztertuta eta ez-hobetsia izatea ez da zigorra, zeren horregatik ez baitzaio inori gaitz berririk egiten; lehen zegoen egoera berean uzten da soil-soilik.

Hirugarrenik, autoritate publikoak aurretiko kondena publikorik gabe ezarritako gaitzari ezin zaio deitu propioki zigorra, etsaigozko egintza baizik; zeren zigorra ezartzen zaion gizakume baten egintzak autoritate publikoaren epaia behar baitu lehenengo, lege-hauste izan dadin.

Laugarrenik, botere usurpatuak nahiz subiranoarengandiko autoritaterik gabeko epaileek ezarritako gaitza ez da zigorra, baizik

etsaigozko egintza; botere usurpatuaren egintzek pertsona kondenatua dutelako autoretzat, eta ez direlako, beraz, autoritate publikoaren egintza.

Bosgarrenik, delitugilea, edo beronen ereduz beste gizakume batzuk, legeak obeditzera bultzatzeko asmorik edo baliabiderik gabe ezartzen den gaitza ez da zigorra, etsaigozko egintza baizik: ezin zaiolako zigorra deitu xede hura ez duen ezein kastiguri.

Seigarrenik, egintza jakin batzuei halako ondorio kaltegarriak jarraitzen zaizkien arren modu naturalez - besteren bat asaltatzean, asaltatzailea bera hilik edo zauriturik gertatzea adibidez, edo legekontrako zerbaitearren gaixotzea-, eta Jainkoak ezarriak direla esan daitekeen arren, bera baita naturaren autorea, eta jainkoagandiko zigor direla beraz, ezin dira sailkatu, hala ere, gizakiagandiko zigortzat, ez dira-eta giza autoritatez ezarriak.

Zazpigarrenik, ezarritako galera delitu egitetik naturalki ateratako onura baino txikiagoa baldin bada, galera hori ez da sartzen zigorraren definizioaren barruan; delituaren zigorra baino gehiago haren ordaina edo luditzea baita. Zeren zigorraren izaerari berari baitagokio gizakumeak legeak obeditzera bultzatzeko xedea, eta xede hori ez da lortzen -aitzitik, alderantzizko efektua gertatzen da-, kastigua onura baino txikiagoa denean.

Zortzigarrenik, zigorra legean bertan zehazten eta agintzen bada, eta delitua burutu ondoren zigor handiago bat ezartzen bada, gaintetiko hori ezin da jo zigortzat, baizik etsaigozko egintzat. Izan ere, gogoan hartuz zigorraren xedea ez dela mendekua, baizik izua eragitea, eta zigor handi ezezagunaren izua desagertu egiten den arren zigor txikiago bat ezartzean, zigorraren ustekabeko gehikuntza hura ezin da jo zigorraren barnekoztat. Baina legeak ez duenean zigor jakinik zehaztu, ezartzen den edozeinek izango du zigor izaera. Zeren kastigu jakinik izendatuta ez duen lege bat bortxatzera ausartzen denak zigor zehaztugabea, hau da, arbitrarioa, itxarotea baitauka.

Bederatzigarrenik, egintza jakin hori debekatzen duen legerik izan aurretik burututako egintzagatik ezarritako gaitza ez da zigorra, etsaigozko egintza baizik. Legea erabaki aurretik ez baitago lege-hausterik; eta zigorrak esan nahi du legea hautsi duen egintza epaitzen dela; beraz, legea egin aurretik ezarritako gaitza ez da zigorra, etsaigozko egintza baizik.

Hamargarrenik, Estatuaren ordezkariari ezarritako gaitza ez da zigorra, etsaigozko egintza baizik; zeren zigorraren izaerari dagokiona da autoritate publikoak ezarria izatea, eta autoritate hau ordezkariaren beraren autoritatea besterik ez da.

Azkenik, etsai deklaratu bati ezarritako gaitzari ezin zaio deitu zigorra; izan ere, kontuan hartuz etsaiak ez direla izan inoiz legearen meneko, ezin dute lege-hausterik ere burutu. Edo lehenago legearen meneko izan badira ere, dagoeneko ez direla meneko aitortzen dutenei -eta, beraz, legea hausteko posibilitatea bera ukatzen dutenei- ezartzen zaizkien gaitzak etsaigozko egintzat jo behar dira. Baina etsaigo deklaratuaren kasuan, gaitz-ezarpen oro legekoa da. Hortaz, menekoren batek hitzez edo egitez ukatu egiten baldin badu konszienteki eta nahita Estatuaren ordezkariaren autoritatea, honek beronek nahi duena ezar diezaioke lege (traizioagatik aldeztu aurretik agindurik daudenetarik edozein kastigu). Zeren norbaitek legearen meneko dela ukatzean, lege horren arabera zigorra ere ukatu egiten du, eta, ondorioz, Estatuaren etsai gisa dagokiona jasan beharko du; hau da, ordezkariaren nahiaren menpe dago. Izan ere, legean erabakirik dauden zigorrak menekoei dagozkie, baina ez etsaiei; eta halakoak dira beraien borondatez meneko izan ondoren deliberatuki matxinatuz, botere subiranoa ukatzen dutenak.

Zigorren sailkapen lehenbiziko eta orokorrena jainkoagandiko eta gizakiagandiko zigorrak bereiztean datza. Lehenengoz hitz egiteko aukera geroxeago izango dut, leku aproposagoan.

Gizakiagandiko zigorrak gizakume baten aginduz ezartzen direnak ditugu; gorputz-zigorra, diru-zigorra, laidozkoa, gartzelatzea, erbesteratzea, edo horien nahasiak izan daitezke.

Gorputz-zigorra gorputzean zuzenki ezartzen dena da, eta ezartzen duenaren asmoaren arabera: azoteak, zauriak, edo arestian lege eta bidez gozatzen ziren atsegin fisikoak gabe uztea.

Eta gorputz-zigorretariko batzuk herio-zigor dira eta beste batzuk herio-zigorra baino arinagoak. Herio-zigorra heriotza ezartzea da, dela soilki, dela tormentu bidez. Heriotza baino zigor arinagoak dira azoteak, zauriak, kateak, edo berez hilgarri ez den beste edozein min fisiko. Zeren, zigor jakin bat ezartzen duenaren asmoa ez baldin bada heriotza eragitea, ezin baita herio-zigortzat hartu, nahiz eta gero min hura hilgarri suertatu aurrikusigabeko istripuren batengatik; baina kasu honetan heriotza ez da ezarria, ustekabez gertatua baizik.

Diru-zigorra ez datza soilik diru kopuru bat kentzean, baizik baita lurra edo eskuarki diru truke salerosten den beste edozein ondasun kentzean. Eta horrelako zigorra agintzen duen legea lege-hauslearengandik dirua ateratzeko asmoz eginga baldin bada, ez da propioki zigorra, baizik pribilegioaren eta legetik libre geratzearen ordaina, eta ez du debekatzen egintza absolutuki, baizik diru hori ordaindu

ezin dutenei soili-soilik. Legea naturala denean edo erlijioaren barne dagoenean salbu; zeren kasu honetan ez baita izanen legearekiko exentzioa, lege horren hauspena baizik. Horrela, adibidez, legeak Jainkoaren izena alferrik erabiltzearen diru-zigorra ezartzen duenean, zehapena ordaintzeak ez du esan nahi Jainkoaren izenean zin egiteko lekapena, baizik inortxo ere leka ez dezakeen lege bat haustearren ezarritako zigorra. Era berean, zuzengabekeria egin zaionari diru kopuru bat ordaintzea agintzen badu legeak, kaltetu horri egindako kalte-ordaina baino ez da; eta kaltetuak jarritako salaketa deseuztu egingo du, baina ez, halaz, ere ofentsa egin duenaren delitua.

Laidoa (ignominia), desohoragarritzat dagoen gaitzen bat ezartzea da, edo Estatuak ohoragarritzat daukan ondasunen batez gabetzea. Badira, izan ere, naturaz ohoragarri diren zenbait gauza: balentria, gogohanditasuna, indarra, jakinduria, eta hala gorputzaren nola adimenduaren beste gaitasun batzuen ondorioak, kasu; eta Estatuak berak ohoragarri egiten dituen beste zenbait gauza: kondekorazioak, tituluak, karguak, eta subiranoaren faborearen beste edozein zeinu adierazgarri. Lehenak, naturaz edo istripuz faltatzea gerta badaiteke ere, ezin ditu kendu legeak; beraz, haien galera ezin da zigortzat hartu. Azkenak, ordea, bai ken ditzakeela ohoragarritzat jarri zituen autoritate publikoak berak, eta zigorrak dira propioki. Mota horretako zigorrak dira kondenatuei euren ohorezko domina, titulu eta karguak kentzea; edo horrelakorik etorkizunean jasotzeko ezgai deklaratzeko.

Gartzelatzea, autoritate publikoak norbait askatasunik gabe uztea da, eta bi erataria izan daiteke: bata, akusatu baten zaintza segurua; bestea, gizakume kondenatu bati pena ezartzea. Lehenaz ez da zigorra, inor ere ez dela zigortzen suposatzen baita audientzia publikoan entzun eta errudun deklaratu arte. Beraz, bere auzia entzun aurretik katean edo gartzelan dagoen gizakumeari jasanarazten zaion edozein gaitz, haren zaintza segurtatzeko beharrezkoa denaz gaindi, naturako legearen kontra doa. Baina bigarrena bai dela zigorra, autoritate publikoak ezarritako gaitza delako, beronek lege-haustetzat juzgatu duen zer edo zerengatik. Gartzelatze terminoaren barne sartzen dut kanpoko edozein oztoporen bitartez eragindako mugimendu-mugapena, dela etxe baten barruan sartuz (presondegia hitz orokorrean deitzen zaiona), dela uharte batean egonaraziz edo konfinatuz, dela lan eragiteko lekuren batera eramanez, antzinatean harrobietan lan eragitera eta gaur egun galeretara kondenatzen diren gizonak, kasu, edo dela katea baten edo beste edozein oztoporen bidez.

Erbesteratzea (desterrua), norbait Estatuako domeinuetatik edo hauetariko batzuetatik irtetzerako kondenatzea da, denboraldi batez edo inoiz ere ez itzultzeko aginduz. Berez ez dirudi honek zigorra, tartean beste zirkunstantziarik izan ezean behintzat, baizik gehiago ihesa, edo zigorra ihesaren bidez ekiditeko agindu publikoa. Zizeronek dioenez, inoiz ere ez omen zen horrelako zigorrak ezarri Erromako hirian, eta arriskuan dauden gizakumeen babeslekua deitzen dio berak. Zeren erbesteratu bati bere ondasunak eta bere lurrik ematen dizkioten errentez gozatzen uzten bazaio, aire-aldaketa soil hori ezin da zigortzat hartu, eta ez du jotzen, ezta ere, zigor ororen ezarpenak xedetzat duen Estatuaren onura lortzera, hau da, gizakien borondatea legea betetzera mentzea; aitzitik, sarritan Estatuaren kaltetan izaten da. Zeren erbesteratua, Estatuaren kide ere ez delarik dagoeneko, erbesterarazi duen Estatu horren etsai legala baita. Baina desterruarekin batera lurrak edo ondasunak kentzen bazaizkio, zigorra ez datza orduan erbesteratzean, baizik diru-zigorren barne sailkatu behar da.

Meneko errugabeei ezarritako zigor oro, dela handia nahiz txikia, naturako legearen aurkakoa da: zigorra lege-hausteagatik besterik ez delako, eta ez dagoelako, beraz, errugabea zigortzerik. Hortaz, hori egitea: lehenik, gizakumeei beraien mendekuetan geroko ona beste xederik ez bilatzea agintzen dien naturako legea bortxatzea da, Estatuak ez baitezake ezer onik atera errugabe bat zigortzetik. Bigarrenik, eskertxarra debekatzen duen lege hori bortxatzea da, zeren, gogoan izanez botere subiranoa jatorriz meneko bakoitzaren baiespenez sortua dela (men egiten dioten bitartean babesa eman diezaien), errugabea zigorra ezartzea onaren ordainetan txarra ematea bailitzateke. Eta hirugarrenik, ekitatea -hots, justiziaren banakuntza ekitatezkoa- agintzen duen legea bortxatzea da, errugabea zigortzean horrelakorik aintzat hartzen ez delako.

Baina meneko ez den gizakume errugabe bati egindako edozein gaitz -Estatuaren onerako baldin bada eta aurretiko hitzarmenen bat hautsi gabe-, ez da naturako legea bortxatzea. Izan ere, meneko ez direnak, bietarik bat: edo etsaiak dira, edo meneko izateari utzi egin diote aurreko hitzarmenen baten bidez. Baina naturako eskubide jatorrizkoaren arabera, legezkia da etsaien aurka gerra egitea, etsaioi kaltea eragiteko ahalmena duela uste duen Estatuaren aldetik; eta antzina bezalaxe, gerran ezpatak ez du bereizten, ezta garaileak ere, errudunen eta errugabeen artean; eta ez du errespetatzen karitatea ere, bere herriaren onerako den heinean baino. Eta printzipio beronetan oinarrituz, eraturik dagoen Estatuaren autoritatea deliberatuki ukatzen duten menekoen kasuan ere legezkia da mendekua ezartzea, ez gurasoei soilik, baizik baita beraien ondorengoen hirugarren eta laugarren belaunaldiari ere, nahiz eta oraindik jaiogabe egon eta nozitu beharko duten egintzaren errudun ez izan, beraz. Zeren ofentsa horren izaera menekotasunari uko egitean baitatza, hots, komunzki errebelamendua deitzen zaion gerra-egoerara itzultzean; eta horrelako ofentsa bat egiten dutenek ez dute meneko gisa pairatzen, baizik etsai gisa. Hauxe baita errebelamendua, izan ere: gerra-egoerara bueltatzea.



SARIA, edo oparia edo kontratuz ematen den zerbait izan daiteke. Kontratuz denean, alokairua eta lansaria deitzen zaio, emandako edo agindutako zerbitzuengatik jasotzen den hobaria, alegia. Oparia denean, emaileen eskuerakutsiz jasotzen den hobaria da, jendea beraiei zerbitzatzera anima dadin edo horretan iraun dezan. Beraz, Estatu bateko subiranoak kargudun publikoren bati alokairua ordaintzen dionean, jasotzailea justiziaz derrigorturik dago bere kargu horri erantzutera; bestela, ohorearen izenean baizik ez da egongo beharturik kargu hura onartzera eta saria jasotzen saiatzera. Izan ere, gizakumeek errekurso legalik ez duten arren beren negozio pribatuak utzi eta ez saririk ez alokairurik gabe kargu publiko baten zerbitzutan jartzeko agintzen zaienean, ez daude ez lege naturalez ez Estatuaren instituzioz horretara beharturik, salbu eta zerbitzu hori beste era batera burutzerik egon ez; zeren suposatzen baita subiranoa bere bitarteko guztiez baliatu dela, eta soldadu arruntenak ere bere gerra-lanarengatik lansaria eska dezakeela zor gisa.

Subiranoak meneko bati beronek Estatuari kalte egiteko izan lezakeen botere edo ahalmenen baten beldurrez ematen dizkion hobariak ez dira propioki sariak; ez direlako ez alokairuak -ezen kasu honetan, gizakume oro dagoenez jada beharturik Estatuari kalterik ez egitera, ez baitago inolako kontraturik-, ezta dohainak ere -ezen beldurra medio emanaraziak izan baitira, botere subiranoari sekula ere eragin beharko ez liokeen beldurra dela medio, alegia. Hobariok, beraz, subiranoak (Estatuaren pertsona gisa barik, pertsona natural gisa) bera baino indartsuagotzat duenaren haserre baretzearen egindako sakrifizioztat jo behar dira gehiago; eta ez dute, ez, bultzatzen obedientziara, aitzitik, estortsio hori iraunkor eta tinkoago bilakatzera.

Alokairu batzuk finkoak eta altxor publikotik datozenak diren bitartean, beste batzuk ez-finkoak eta baldintzatuak dira, alokairuz ordaintzen den kargua betetzekotan ematen direnak; azken hauek kaltegarri gertatzen zaizkio zenbait kasutan Estatuari, epailetzaren kasuan esaterako. Izan ere, epaileen eta auzitegiko ministrarien hobaria berauei aurkeztutako auzi-kopuruaren menpe dagoenean, bi eragozpen ondorioztatzen da nahitaez: bata, auziak ugaritzera jotzea, ezen zenbat eta auzi gehiago, orduan eta hobari gizenagoa; eta bestea, eskumenari buruzko eztabaidatik datorrena, epaitegi bakoitzak ahalik eta auzi gehien eskuratu nahirik. Ostera, kargu exekutiboetan ez da gertatzen halako eragozpenik, zeren hartan dihardutenek ezin gehi baitezakete enplegua beraien aldetik beste zeozertan saiatuz. Eta aski bedi zigor eta sarien izaerari buruz esandakoa; horiek Estatuaren gorputzadar eta artikulazioak mugiarazten dituzten zainak eta zaintxuriak bailiren funtzionatzen dute.

Orain arte giza natura azaldu dut -gizakiaren harrokeria eta beste grina batzuk izan direlarik beraren burua gobernuaren menpe jartzera bultzatu dutenak-, eta horrekin batera, Leviathanekin konparatu dudana Gobernari horren botere haundia; Job liburuaren berrogeita batgarren kapituluko azken bi bertsoetatik atera dut Leviathanen konparazioa, Jainkoak, Leviathanen botere haundia nabarmendu ondoren, Harroen Errege deitzen dionean: Lurrean ez dago haren antzekorik, dio. Ezeren beldur ez izateko egina da hura. Bere azpian dakusa izaki gailen oro, eta harro-kume guztien errege da. Baina bera ere hilkorra eta hebainkorra denez, Lurrean bizi den gainontzeko izaki oro bezala, eta lurrean barik zeruan daudenez beldurra izan behar dien gauzak eta obeditu behar dituen legeak, ondoko kapituluetan haren eritasunez eta hilkortasunaren zioez hitz egingo dut, baita obeditu beharra daukan naturako legeez.

## XXIX

Estatua ahultzera edo desegitera daramaten gauzez

Nahiz eta hilkorrek egiten duten ezer ere ezin den izan hilezkorra, hala ere, gizakiek beren ustez duten zentzua erabiliko balute, salbu izango lituzkete beraien Estatuak barne-eritasunen erruz iraungitzetik bederen. Beraien erakuntzaren izaeraz daudelako xedaturik, hain zuzen, gizateriak diraueino -edota bizia damaieten lege naturalek edo justiziak berak dirauteino-, bizirik irautera. Beraz, kanpoko bortxaz barik barne-desordenuz abailduak gertatzen direnean, errua ez datza gizakiengan Estatuaren materia diren aldetik, baizik egile eta antolatzaile diren aldetik. Zeren gizakumeek, elkarri bultza eta zauri egiteaz nekatzen direnean azkenean, eraikin irmo eta iraunkor baten babesean elkarbizitzen hastea desio dute bihotz-bihotzez. Baina trebetasuna falta zaielarik beraien ekintzak gidatzeko moduko lege egokiak egiteko, eta eroapen eta apaltasun nahikorik ere ez dutelarik beraien handigo horretatik puntu latz eta gogorrenak bazterrera uzteko, ez dira gai eraikitzeko, arkitekto oso aditu baten laguntzarik gabe, eraikin akastun bat baizik; zutik ozta-ozta iraun badeza ere beraiek bizi diren bitartean, haien ondorengoei buru gainera eroriko zaiena erremediorik gabe.

Estatu baten eritasunetarik, bada, erakuntza akastunetik datozkionak ekarriko ditut gogora lehenbizi, gorputz naturalak sortzapean akastun batetik dituen gaixotasunen antzekoak.

Hauxe da gaixootariko bat: gizakumea batzuetan, erresuma lortzearen, bakerako eta Estatuaren defentsarako nahitaez behar den boterea baino gutxiagorekin konformatzen dela. Eta hona hemen zer gertatzen den ondorioz: albo batera utzitako botere horren egikaritza berreskuratu egiten denean segurtasun publikoaren izenean, egintza zuzengabearen itxura hartzen duela; eta horrek gizakume asko errebelamendura bultzatzen duela, aukera aurkeztu bezain laster. Guraso eriek sortutako umeen gorputzek heriotza goiztiarra jasatea ala sortze gaizto horretatik datozkien gaitzak bilis eta zarakarren bidez

garbitzea duten bezalaxe. Eta erregeek beharrezko botereren bat beren gain hartu gabe uzten dutenean, beti ez dute egiten beren eginkizunerako beharrezkoa dela ez jakitearren (zenbaitetan horrela bada ere), baizik botere hori nahi dutenean berreskuratuko dutelakoan. Baina horretan ez dabilta zuzen; zeren behinola egindako promesei eutsi nahi dietenak Estatu atzerritarren laguntzarekin altxatuko baitzaizkie; Estatuok, hauek ere beren menekoen onari begira, ez baitute galduko aukera txikienik beren auzoen egoera ahularazteko. Halaxe jaso zuen Thomas Becket Canterburyko apezpikuak Aita Santuaren laguntza Enrike II.aren aurka; izan ere, elizgizonak Estatuaren menekotasunetik lekaturik baitzeuden Gilen Konkistatzailearen aginduz, honek boterea hartzean elizaren askatasunari ez ukitzea zin egin zuenetik. Eta gauza bera gertatu zen baroiekin, zeintzuen boterea William Rufusak gehitu baitzuen botere subiranoarekin bateraezin bihurtzeraino, ondorengotza anaia nagusiarengandik berarengana iragan zedin haien laguntza lortzearen; eta frantziarrek lagundu zien Joan erregearen aurka matxinatu zirenean.

Baina horrelakoak ez dira gertatzen monarkietan soilik. Izan ere, antzinako Estatu Erromatarrek bere buruari Erromako Senatu eta Herria deitzen zion arren, ez Senatuak ez Herriak uste zuten berentzat botere osoa; horrexegatik sortu ziren, lehenengo eta behin, Tiberio Grako, Kaio Grako, Luzio Saturnino eta beste batzuen albaramenduak; eta geroago Senatuaren eta Herriaren arteko gerrak, Mario eta Kaioren denboran lehenbizi eta Ponpeio eta Zesarrenean berriro, demokraziaren iraungipena eta monarkiaren ezarpena arte.

Atenaseko herria den-denetan obeditzeko prest geratu zen, gauza bakar batean izan ezik: inork ere ez zuela proposatuko, herio-zigor pean, Salamis irlarengatik gerra berriztatzerik; eta Solonek zoroarena egin ez balu, eta, zoroaren keinuz eta jantziz, eta bertsoz, zorotzat hartu eta ingurura hurbildu zitzaion jendetzari proposatu ez balio, hantxe izango zuketena etsai bat etengabe zelatan, hiriko atean bertan. Nahiz eta mugapen txikia izan, beraien boterea mugatu duten Estatu guztiei gertatzen zaizkie horrelako kalteak eta mehatxuak.

Bigarrenik, Estatuari doktrina sediziosoen pozoinetik datozkion eritasunez arituko naiz, eta hona hemen bat: banako partikular bakoitza dela egintza on eta txarren epaile. Hau egia da natura hutseko egoeran, lege zibilik ez dagoenean; baita gobernu zibil baten pean, legeak aurikusi gabeko kasuetan. Baina bi salbuespenotatik aparte, garbi dago egintza onen eta gaiztoen neurria lege zibila dela, eta betiere Estatuaren ordezkari den epailea dela legegile. Arazo honi buruzko doktrina faltsuan oinarrituz, gizakumeak gai lirateke Estatuaren aginduak euren kontura eztabaidatzeko eta auzitan jartzeko, eta ondoren aginduak obeditu ala ez obeditzeko, beraien irizpen pribatuaren arabera. Halaxe gertatzen da Estatuaren desoreka eta ahuldura.

Gizarte zibilarekin zeharo bateraezina da ondoko doktrina hau ere: norbaitek bere kontzientziaren kontra egin dezan oro bekatu dela, alegia; eta honako uste hauxe du oinarritzat, hots, norbera dela onaren eta txarraren epaile. Izan ere, gizakumearen kontzientzia eta irizmena gauza bera dira, eta, irizmena bezala, kontzientzia ere okerra izan daiteke. Beraz, ezein lege zibilen menpe ez dagoenak bekatu egiten badu ere bere kontzientziaren kontra egin dezan guztian -bere arrazoia beste araurik ez duelako jarraibidetzat-, ez da horrela gertatzen Estatu barruan bizi denaren kasuan; zeren orduan legea baita jadanik gidatatzat harturik daukan kontzientzia publikoa. Horrela ezean, Estatu nahitaez barreiatuko da iritzi pribatuak baino ez diren kontzientzia pribatuaren aniztasunean, eta inortxok ere ez dio obedituko botere subiranoari, bakoitzak bere aburuz ontzat duenaz aparte.

Hau ere uste izan da arruntki: fedea eta santutasuna ez direla lortzen ikasketaren eta zentzuaren bitartez, naturaz-gaundiko inspirazioz edo infusioz baizik. Hori horrela onartuz gero, ez dakit zer dela-eta eman beharko lukeen bakoitzak bere fedearen arrazoia, edo giristino bakoitza zergatik ez litzatekeen profeta, edo batek zergatik hartu beharko lukeen bere herrialdeko legea, eta ez bere inspirazio hura, egintza-arautzat. Eta halaxe erortzen gara berriro ere lehengo errakuntzan: geure gain hartzea, alegia, ona eta txarra zer den epaitzea, edo ustez inspirazio supernaturala duten gizabanako pribatuak hartzea horren epailetzat, gobernu zibil ororen akabu eta desagintzarako. Fedea entzutetik dator, eta entzuteak, bere aldetik, hitz egiten digunaren presentziara garamatzaten akzidenteetan du sorburua. Akzidenteok, berriz, Jainko Guztiahaldunaren asmoz gertatzen badira ere, ez dira hargatik naturaz-gaundikoak, baizik efektu bakoitzaren aurrera datorkeen gehiengoarentzat hautemangaitzak soil-soilki. Fedea eta santutasuna ez dira, izan, oso ohikoak; baina ez dira, hargatik, mirakuluak, baizik heziketaz, diziplinaz, zuzenketaz, eta Jainkoak bere hautatuarengan, eta egoki deritzon garaian, sustatu ohi dituen beste medio natural batzuen bidez gertatzen diren koallitateak. Bakeari eta gobernuari hain kaltegarri zaizkion hiru iritzi horiek, munduaren alde honetan behintzat, teologo ezikasien mihi eta idazlumetan dute jatorria batik bat, zeinek Liburu Santuetako hitzak arrazoiari onargarri ez zaizkion erara nahasiz, ahaleginak eta bi egiten duten santutasuna eta arrazoi naturala elkarrekin ezin joan daitezkeela sinestarazteko jendea.

Hona hemen laugarren iritzi bat, Estatuaren izaerari zeharo kontrajarria: botere subiranoa duenak lege zibilen menpe egon behar duela. Egia da subirano guztiak daudela naturako legeen menpe, hauek Jainkoaren lege direlako, ezein gizakumek ez Estatuk abroga ditzakeenak. Baina subiranoa ez dago, oster, subiranoak berak, hau da, Estatuak egiten dituen legeen menpe; zeren legeen menpe egoteak

Estatuaren menpe, hots, ordezkari subiranoaren menpe, hots, bere buruaren menpe egotea esan nahi baitu; legeen menpe barik, legeetatik aske egotea litzatekeena. Errore honek, legeak subiranoaren gainetik kokatzeak, alegia, beronen gainetik epaile bat eta zigorra ezar diezaiokeen botere bat jartzea esan nahi du; eta hori subirano berri bat sortzea litzateke, eta, berriro ere arrazoi beragatik, bigarren hori zigortzeko beste hirugarren bat, eta horrela jarraian amaigabe, Estatuaren nahasmendu eta desegintzaraino.

Estatuaren desegintzara daraman beste doktrina bat, bosgarrena: gizabanako partikular bakoitzak bere ondasunen jabetza osoa duela, subiranoaren eskubideak eskuditzen dituen. Gizakume bakoitzak du, egia, beste edozein menekoren eskubidea eskuditzen duen jabego bat, eta hori horrela bada, botere subiranoari esker da soil-soilik: botere honen babesik gabe, beste edozeinek ere eskubide berdina zukeelako gauza bera edukitzeko. Baina subiranoaren eskubidea bera ere eskuditzen badu, hark ezin du burutu orduan bere esku utzi duten eginkizuna, hau da, menekoak atzerriko arerioengandik zein elkarrengandiko zuzengabekerietatik defendatzea; eta akabo orduan Estatua.

Eta menekoen jabegoak ez badu eskuditzen ordezkari subiranoak haien ondasunen gain duen eskubidea, askoz gutxiago eskudituko du haien epailetzako edo egikaritzako karguen gain duena, karguotan subiranoaren beraren ordezkari baitira.

Bada seigarren doktrina bat Estatuaren esentziaren kontra doana argi eta zuzenki: subiranoaren boterea zatigarria dela. Ezen, zer besterik izan daiteke Estatuaren boterea banatzea Estatu hori desegitea baino? Banaturik dauden botereek, izan ere, elkar suntsitu besterik ez baitute egiten. Horrela, legeen aitortpena egin arren berek ikasitakoaren menpe -eta ez botere legegilearen menpe- legeok jarri nahi dituztenen alde ageri da jendea, aipatu doktrina horien eraginez.

Horrelako doktrina faltsuek, eta gobernu modu desberdina duten auzoko nazioek sarritan ematen duten ereduak, jada finkaturik dagoen gobernamendua aldatu nahira eraman ohi dute herria. Halaxe zirikatu zuten judu herria ere Jainkoari uko egitera eta gainontzeko nazioek zuten bezalako errege bat Samuel profetari eskatzera; eta halaxe gertatu zitzairen Greziako hiri txikiagoei, alderdi aristokratikoaren eta demokratikoaren sedizioek etengabe asaldatu zituztenean: ia Estatu bakoitzeko zati batak lakoniarrei eta beste zatiak atenastarrei imitatu nahian. Eta ez dut zalantzan jartzen askok atseginez ikusiko zituela Ingalaterran azkenotan gertatu diren iskanbilak, Herbehereak imitatu nahian, alegia; uste izanez aberats bihurtzeko ez zela besterik behar gobernamendua aldatzea baino, haiek bezala. Giza naturaren aiurria, izan ere, gauza berrien atzetik joatea da berez; eta bide horretatik aberastu diren auzokoak direnean horretara zirikatzen dutenak, ia ezinezko gertatzen da aldaketara bultzatzen duten horiekin bat ez etortzea; eta a zer gozamenaren duten hasiera batean, nahiz eta desordenuaren jarraipenak kezkatu: sarna harrapatu eta atzazalez hazka eta hazka diharduten suminkorrek bezala, mina zeharo jasangaitz bihurtzen zaien arte.

Eta monarkiaren aurkako errebelamenduari dagokionez bereziki, greziar eta erromatarren antzinateko historiari eta politikari buruzko liburuak irakurtzean datza haren kausa ohikoenetariko bat; izan ere, jende gazteak eta zentzu sendoaren antidotoa ez dutenek, greziar nahiz erromatar gudalburu haiek lortutako gerra garaipenak eragiten dieten zirrara atsegina medio, herriok egindako gainerako guztiaren ideia baikorra eta atsegina izan ohi dute; eta uste dute haien oparotasun handia gobernamendu demokratikoari esker gertatu zela, eta ez gizakume jakin batzuei jarraitzearren; kontuan hartu gabe, gainera, haien politika akastunaren erruz sortutako hainbat eta hainbat albaramendu eta gerra zibil. Liburu horien irakurketak bultzatu ditu gizakumeak, diot nik, beraien erregeak hiltzera ere, zeren idazle greziar nahiz erromatarrek beren liburuetan eta politika mintzoan legezkotzat eta laudagarritzat jotzen baitute hori edozein gizakumek egitea, baldin aurretiaz bere erregeari tirano izena egotzi badio. Ez baitiote erregehilketa, erregea hiltzea, alegia, legezkoa denik, baizik tiranohilketa, hau da, tiranoa hiltzea. Monarka baten agindupean bizi direnek liburu horietatik ondorioztatuko dizute Estatu popular barneko menekoek askatasuna dutela, monarkia barnean bizi direnak oro esklabu diren bitartean. Diodana da monarkian bizi direnek ateratzen dutela ondorio hori, ez gobernu popular batean bizi direnek; azken hauek ez baitute irakurketa bera egiten. Hitz batez, ez zait iruditzen beste ezer kaltegarriagorik monarkia batentzat liburu horiek publikoki irakur daitezen baimentzea baino, daukaten pozoina garbitzeko maisu zuhurren alde zureko zuzenketarik gabe; eta ez dut zalantzarik, ez, pozoia hori txakur amorratuaren haginkadarekin alderatzeko, zeinek hidrofobia edo uraren beldurra medikuek deritzoten gaixotasuna eragiten baitu. Ezen, horrelako haginkada jasan duenari, egarriak itota sentitu arren iraunkorki, urak nazka ematen dionez eta pozoia eraginez txakur bihurtzeko zorian bailegoen aurkitzen denez, halaxe gertatzen da monarkia bati bere haragian kosk egin diotenean inguruan sistemaren kontra etengabe zaunka dabilzkion idazle demokrata horiek: monarkia horrek behar duen gauza bakarra monarka sendo bat dela, baina horrelakorik dutenean, halako tiranofobia bategatik edo esku gogorrez gobernatuak izateari dioten beldurarenengatik, gaitzetsi egiten dutela.

Gizakume berean hiru arima direla defendatu duten teologoen antzera, bada uste duenik Estatu berberean arima bat baino gehiago, hots, subirano bat baino gehiago dagoela; horrela, nagusigoren bat jarriko dizute subiranotasunaren aurrez aurre, kanonen batzuk legeen aurrez aurre eta autoritate izpiritualen bat autoritate zibilaren buruz buru. Eta halaxe dabilta jendea burua berotzen, berez ezelako esangurarik

gabeko hitzak eta bereizketak medio, hauxe aditzera eman nahirik, halako iluntasun zisku baten bidez: badela hor iluntasunean batetik bestera dabilen erresumaren bat (zenbaiten ustez ikustezina), mamuen erresuma bailitzen. Eta ageri-agerikoa zaienez botere zibila eta Estatuaren boterea gauza bera dela, baita nagusigoa eta kanonak jartzeko ahalmena ere gauza bera dela, eta eskuespenak emateak Estatu baten existentzia esan nahi duela, zera ondorioztatzen dute: subirano bat dagokeen lekuan, hantxe dela beste nagusigoren bat ere; batak legeak egin baditzake, besteak kanonak jar ditzakeela; eta ondorioz, bi Estatu izan behar dutela meneko berberaizentzat; bere baitan zatitua den eta iraun ezin duen erresuma, alegia. Eta mundutarra eta izpirituala bereizteak ezer gutxi adierazten duen arren, bi erresuma direla esango dizute, eta meneko bakoitza bi jaun ezberdinen meneko dela. Zera gertatzen da orduan: botere izpiritualak bere esku hartzen duenez bekatu zer den ebatzeko eskubidea, lege zer den ebatzekoa ere hartzen duela ondorioz (bekatua lege-haustea besterik ez baita); eta lege zibilak, bere aldetik, lege zer den esatea bere eskubidetzat duenez, meneko bakoitza bi jauni obeditzera eta bion aginduek legetzat hartzera beharturik aurkitzen da, gauza ezinezkoa alegia. Ala erresuma bat besterik ez bada, edo botere zibila (Estatuaren boterea, alegia) izanen da izpiritualaren menpeko -eta orduan ez da izanen izpirituala beste subiranotasunik-, edo botere izpiritual hori izanen da mundutarraren menpeko, eta orduan ez da beste nagusigorik mundutarra baino. Beraz, botere bi horiek elkarri kontrajartzen zaizkionean, ekidinezina da Estatua gerra zibilaren eta desegintzaren arrisku bizian aurkitzea. Izan ere, autoritate zibilak, ikusgaiago izatean eta arrazoi naturalaren eremu argiagotan egotean, beti erakarriko du nahitaez jende kopuru hazi bat; eta izpiritualak ere, bereizketa eskolastikoen eta berba ulergaitzen iluntasunean egon arren, ifernuaren eta izpirituen beldurra beste ezein beldur baino handiagoa denez, ez du izango, ez, jarraitzaile faltarik Estatua asaldatzeko eta suntsitzeko ere. Eta ez litzateke zentzugabekeria gaixotasun hori epilepsiarekin alderatzea, hau da, gorputz naturalean gertatzen den eta juduek deabruduntze modutzat zuten dardara-gaixotasuna. Zeren gaixotasun honetan izpiritu ez-natural bat edo buruko nerbio-erroak suntsitzen dituen putzaldi bat gertatzen den bezala, bortizki astintzen eta arimaren ahalmenak burmuinean naturalki agindu beharko zukeen mugimendua eragozten duena, eta horrela konbultsioak deitzen zaien mugimendu bortitz eta irregularrak eragiten dituen gorputzadarretan -halako punturaino, non eritasun horrek jota dagoena zenbaitetan uretara eta zenbaitetan sutara erortzen den, bere zentzuak galdurik bailituen-, halaxe gertatzen baita gorputz politikoa ere, botere izpiritualak Estatu baten gorputzadarrak zigorraren izuz eta sarien itxaropenez mugiarazten dituenean (gorputz horren zainen bidez, alegia), eta ez botere zibilak (Estatuaren arimak) mugiaraziko lituzkeen moduan; eta berba arraro eta zailen bidez adimena ito ohi duelarik, nahitaez nahastu behar du herria, dela Estatua jausialdi larrian hondoratzeraino, dela gerra zibilaren sutara bultzatzeraino.

Batzuetan, gobernu zibil berean ere, arima bat baino gehiago izan ohi da: esaterako, diru-bilketaren ardura duen boterea, elikatzeko ahalmena litzatekeena, biltzar nagusi baten menpe dagoenean; gidatzeko eta agintzeko boterea, ahalmen higiarazlea, gizabanako baten menpe dagoenean; eta legeak egiteko boterea, ahalmen razionala, ez bakarrik aurreko bion, baizik beste hirugarren baten uanean uneko adostasunaren menpe dagoenean. Horrek, noski, Estatua arriskutan jartzen du, lege onak egiteko adostasun ezagatik zenbaitetan bai, baina sarriagotan bizitza eta mugimenerako ezinbesteko dugun elikadura faltagatik. Ezen, gutxiak hautematen duen arren halako gobernu ez dela gobernu, baizik Estatua hiru alderditan banatzea, eta monarkia mistoa deitzen badiote ere, egiatan ez da Estatu independente bat, hiru alderdi independente baizik; ez dago pertsona ordezkari bat, hiru baizik. Jainkoaren erreinuan bai izan daitekeela hiru pertsona independente, erreinatzen duen Jainkoaren batasuna hautsi gabe horregatik, baina aburu desberdinen menpe dagoen giza erreinuan ezinezko da horrelakorik. Beraz, baldin erregeak herriaren pertsona ordezkatzeko badu, eta biltzar nagusiak herriaren pertsona ordezkatzeko badu baita ere, eta beste biltzar batek herri zati baten pertsona ordezkatzeko badu, ez dira izanen pertsona bakar bat, ezta ere subirano bakar bat, baizik hiru pertsona eta hiru subirano.

Ez dakit giza gorputzaren zein eritasunez konpara daitekeen zehazki Estatuaren irregulartasun hori. Baina ikusia dut gizakume bat bere albo batetik beste gizaki bat sortzen zitzaiona, buru, beso, bular, sabel eta gutzi; beste albotik ere bigarren gizaki bat sortu balitzaio, konparazio doi-doi zitekeen.

Orain arte Estatu baten gaixotasun larrienak eta arrisku hurbilena sortzen dutenak izendatu ditut. Badira, hain handiak izan ez arren, aipatzea gaizki ez legokeen beste batzuk ere. Aipa dezagun, hasteko, Estatuaren premietarako, eta bereziki gerra arriskua dagoenean, dirua biltzeko zailtasuna. Zailtasun horren iturburua hauxe izan ohi da: meneko bakoitzak duela uste izatea bere lurren eta ondasunen jabetza, ondasunok erabiltzeko subiranoaren eskubidea aintzat hartu gabe. Uste horren ondorioz jazo ohi da, hain zuzen, Estatuaren premiak eta arriskuak aurrikusten dituen botere subiranoak, ikusirik herriaren tema hargatik diruak ez duela irispidetik altxor publikora eta arriskuei aurre egiteko eta hasiera-hasieratik erantzuna emateko ahalegin guztia egin beharrean aurkitzen dela, gastuak ahal duen neurriraino murriztera jotzen duela; eta gehiago murriztu ezin dituenean, herriarekin teman ekiten diola, legetrikimailuz baliatuz, diru apurrak lortu nahian; baina horiek ere aski ez direnean, ez zaiola geratzen besterik hornibideak bortizki irekitzea ala hondamendia baizik. Eta horrelako aukeraren aurrean sarritan

gertatuz gero, azkenean herria dagokion lekuan jarriaraziko du, Estatua hondamendian suntsitzea ez badu nahi behintzat. Zentzu honetan, eritasun hori malariarekin aldera dezakegu egokiro: gorputzaren parte haragitsuak gai pozointsuen eraginez eragotzirik edo hormaturik geratzen direnean, zainek, bihotzeraino iristeko egiten duten bide natural horretan, ez dute hartzen jada behar bezala arterietako odola; horrek hasieran uzkurdura hotz bat eta gorputzadarren dardara eragiten du, eta ondoren bihotzaren espasmo bero eta bortitz bat, odolarentzako iraganbide bat ireki nahian indarrez; baina bihotzak hori lortu aurretik, izotza eta behin-behineko aringarri zaizkion horrelako erremedioak jaso beharko ditu; eta azkenean, natura aski sendoa bada, parte eragotzien gotortasuna apurtzea eta pozoina izerditan urtzea lortzen du; ala, natura ahulegia baldin bada, gaixoa hil egiten da.

Baita gertatzen zaio zenbaitetan Estatuari pleuresia antzeko gaixotasun bat, eta hara zertan datzan: Estatuaren altxorra, behar den bidetik aldenduz, gizakume bakar baten edo banako pribatu gutxi batzuen eskuetan pilatzen dela, dela monopolioak, dela zerga publikoen portzentaia baten atxikipena medio; pleuresiaren kasuan odola bularreko mintzaren barnean pilatzen den antzera, inflamazio larria eraginez sukarrarekin eta ziztada mingarriekin batera.

Eritasun arriskutsua dugu, halaber, eragin handiko meneko jakin baten herri-oihartzuna, beronen leialtasunaren kontu handia ez baldin badu behintzat Estatuak. Izan ere, herriak, subiranoaren autoritatearengandik hartu baharko lukeen arren bere ekimena, legeei zor dien obedientziatik alde egitea gerta daitekeelako gizakume handigura baten ospearengatik, eta gizakume horri jarraitzea, beronen bertuteen eta asmoen berri izan gabe. Arriskutsuago gertatzen da hori, gehienetan, gobernu popularretan monarkian baino; zeren hain indar handia du eta hain jendetsua da armada, barau dela herria pentsatzea gerta daitekeela erraz eta berez. Horrexegatik gertatu zen Julio Zesarrena ere: herriak senatuaren aurka hautatu eta gero, beraren armadaren faborea lortu zuela eta hala senatuaren nola herriaren jaun proklamatu zela. Horrelako herrigizon handizaleen jokabidea, bada, errebelamendua da argi eta garbi, sorginkeriaaren ondorioekin aldera daitekeena.

Hiri baten neurrigabeko handitasuna -armada handi baten pertsonala eta gastuak hiri mugetatik kanpo horni ditzakeena-, horra hor Estatuaren beste gaixotasun bat. Arriskua da, baita, korporazioen kopuru handiegia, Estatu txiki ugari bailiren Estatu handiagoaren hesteetan, gizaki natural baten erraietako hestezizareen antzera. Eta aurreko horri gehitzekoa da, baita ere, botere absolutuaren aurka eztabaidatzeko askatasuna, zuhurtzia politikoaren jabe uste direnen aldetik, zeinek, gehientsuak herri kondarretan jaioak badira ere, hortxe baitabilza etengabe, doktrina faltsuen liluraz gainezka, oinarritzko legeak direla-eta bazterrak nahastatzen Estatua gogaitarazteraino; medikuek ascarides deitzen dieten zizare txikiak bezalakoak ditugularik.

Eta ondoko hauek ere erants ditzakegu: domeinuak hedatzeko gose aseezina edo bulimia, eta hori dela-eta etsaiengandik sarritan jaso behar diren zauri sendagaitzak; eta sarri askotan zama besterik ez diren konkista barreiatuen tumoreak, mantentzeak baino bertan behera uzteak arrisku gutxiago dakarkeelarik; baita erosotasunaren letargia, eta matxinaden eta alferreko gastuen ahidura.

Azkenez, atzeriko edo barneko gerran etsaiek azken garaitza lortzen dutenean, eta beraz, Estatuko indarrek lurraldea defendatzeko modurik ez dutenez jadanik, leial irauten duten menekoak babesik gabe geratzen direnean, Estatua DESEGINIK geratzen da eta bakoitzak bere burua defendatzeko askatasuna du, zuhurtasunak iradoki diezaizkion bitartekoez baliatuz. Izan ere, subiranoa baita Estatuari bizia eta higidura damaion arima publikoa, eta honek azken arnasa eman ondoren ez ditu jada bere menbroak gobernatzen, arimak (nahiz eta berau hilezkorra izan) utzi berri duen gorpua gobernatzen ez duen bezalaxe. Zeren, nahiz eta inoren egintzak ere ezin deusezta dezakeen monarka subirano baten eskubidea, menekoen obligazioa bai deusezta daitekeela. Izan ere, babesik gabe geratzen denak ahal duen lekuan bilatu beharra dauka babes hori, eta behin aurkituz gero, bere babeslea ahal duen neurrian babestu beharra -beldurra dela-eta iruzurrez men egiten diola pentsatzerik ez dagoelarik. Baina biltzarraren boterea ezereztzen denean, honen eskubidea erabat deuseztaturik geratzen da, zeren biltzarra bera deusezten baita, eta ez du beraz ahalbiderik subiranotasuna berreskura dezan.

### XXX

Ordezkarri subiranoaren zereginaz

Subiranoaren ZEREGINAK, dela monarka dela biltzarra, botere subiranoarekin batera berretsi zitzaion helburua bera du xedetzat, hots, herriaren segurtasuna; naturako lege dagoelarik hartara beharturik eta haren kontuak ematera Lege horren Autore den Jainkoari, eta beroni bakarrik. Baina segurtasunak ez du esan nahi hemen gaitzetik jagote soil, baizik baita gizakume bakoitzak bere legeko lanaren bidez, Estatua arriskatu ez kaltetu gabe, beretzat lor ditzakeen gainontzeko bizi-atsegin guztiak ere.

Eta zeregin hori burutzeko moduari dagokionez, ez du zertan izan behar banakoei aplikatua (berauei kereilei erantzunez) erasoetatik babesa emateaz haragoko eginkizuna bere gain hartuz, baizik doktrinaren nahiz ereduaren heziketa publikoaren barne gauzatzen den probidentzia orokor baten bidez, eta gizabanakoek berauei dagozkien kasuetan aplikatzeko moduko lege egokiak eginez eta betearaziz.

Eta subiranotasunaren eskubide funtsezkoak (18. kapituluaren zehaztutakoak) albora uzten badira, Estatuaren deseginik geratzen denez eta gizakumeak bata besteari kontrako gerraren zorigaitzoko egoerara bihurtzen direnez, bizitza honetan gerta litekeen gaitzik handienara alegia, subiranoaren eginkizuna da eskubideok beren osotasunean mantentzea; beraren betebeharraren kontra doa, beraz, lehenik, eskubide horiek inorenganatzeko edo bertan behera lagatzeko. Bitartekoak lagatzen dituenak helburuak ere laga egiten dituelako; eta bitartekoak lagatzeko da subiranoa izanik bere burua lege zibilen menpekotzat aitortzea, epailetza gorenaren botereari uko egitea, edo bere autoritatez gerra eta bakea egiteko botereari, edota Estatuaren premiak zeintzuk diren juzgatzekoari, edo dirua eta soldaduak biltzekoari berak beharrezko deritzon eta egoki deritzon neurrian, edo gerra nahiz bake-denborarako funtzionarioak nahiz ministroak izendatzekoari, edo maisuak izendatzekoari eta zeintzuk diren herriaren defentsa, bake eta ongizatearen aldeko doktrinak eta zeintzuk kontrakoak aztertzeko eskubideari uko egitea.

Subiranoaren eginkizunaren kontra doa, bigarrenik, beraren funtsezko eskubide horien oinarriei eta arrazoiei herria ezjakitun edo gaizki informaturik uztea, zeren ezjakintasun horrexegatik gertatzen baita jendea erraz-erraz limurtua eta bultzatua izatea subiranoren kontra jarkitzera, Estatuak eskubideok erabiltzea eta egikaritzea behar duen unean.

Arduraz eta egia osoz irakatsi beharra dago, bada, eskubide horien oinarriak; ezinezko delako beroriei eustea ezein lege zibilen indarrez edo lege-zigorren izuz. Izan ere, errebelamendua debekatzen duen lege zibil batek (eta subiranotasunaren funtsezko eskubideen kontrako edozein jarkiera mota dugu errebelamendua) ez du inolako obligaziorik sortzen lege zibila den aldetik, baizik fedea bortxatzea debekatzen duen lege naturala den aldetik soil-soilik; eta gizakumeek obligazio natural horren berririk ez badute, ezinezko zaie subiranoak egin dezakeen ezein legeren eskubideaz jakitun egotea. Eta zigorrari dagokionez, etsaigo-egintzat hartuko dute besterik gabe eta etsaigo-egintzen bidez ekiditen saiatuko dira, horretarako indar aski dutela uste dutenean.

Baten bati entzun diodan moduan zera esaten, hots, justizia hitz hutsa besterik ez dela eta norbaitek indarrez eskura dezakeen edozer berea duela, gerra egoeran ezezik Estatu barnean ere -faltsua dela demostratu dudana dagoeneko-, bada defendatzen duenik ere ez dagoela oinarririk ez arrazoiaren printzipiorik subiranotasun absolutua osatzen duten funtsezko eskubide horiek sustrai ditzakeenik. Zeren, baldin baleude, lekuren batean aurkitu beharko lirakeelako, baina, ikus dezakegunez, gaurdaino ez delako izan Estatu bat bera ere eskubideok ezagutu edo eztabaidatu zaizkionik. Baina argudio makurra dugu hori, makurra litzatekeen bezala Ameriketako basa-herriek etxe tinko bat (berau osatzen duten materialak bezain iraunkorra) eraikitzeko oinarriak edo arrazoi-printzipioak ukatzea, zer-eta ez dutelako inoiz ere ikusi horren ongi eraikitako etxerik. Denborak eta lanak ezagutza berriak dakartzkigu egunetik egunera. Eta ongi eraikitzeko artea gizakume saiatuek materialen izaera eta figuraren eta proportzioaren efektu ezberdinak luze ikertu ondoren hautemandako arrazoi-legeetatik datorrenez -gizateria eraikitzen hasi (nahiz eta moldagaizki) eta askoz geroago-, halaxe gerta daiteke Estatuaren kasuan ere: balitekeela, gizakumeak Estatu akastunak eta desordenura berriro erortzeko jaugindunak eratzen hasi eta askoz geroago, arrazoiaren zenbait printzipio aurkitzea, gogoeta neketsuen bidez, zeinen arabera Estatuaren erakuntza betirako litzatekeen (kanpoko bortxaren kasuan salbu). Eta halakoxe printzipioak dira diskurtso honetan aurkeztu ditudanak. Printzipiooz baliatzeko boterea dutenek aintzakotzat hartuko ala gutxietsiko dituzten ez dit askorik axola une honetan. Baina, nire horiek ez direla arrazoiaren printzipioak emanda ere, ziur nago bai direla Liburu Santuen autoritatetik jasotako printzipioak; eta horixe da geroxeago erakutsiko dudana, Jainkoak hitzarmenez hautaturiko herri horren gain Moisesek administratutako Jainkoaren erresumaz mintzatzean.

Baina zera ihardets diezadakezue, printzipio horiek zuzenak izanik ere, herri xumeak ez duela gaitasun nahikorik printzipiook ulertzera iristeko. Poztuko nintzateke, egia esan, erresuma bateko meneko aberats eta handikiek, edo eta ikasiagotzat daudenek, herritar haiek baino ezgaitasun gutxiago balute. Baina denek dakite, jakin, doktrina mota honen eragozpenak ez datozela hainbeste gaiaren zailtasunetik, baizik gai hori ikasi behar dutenen interesetik. Esku handiko gizakumeek nekez irentsiko dizute beren gurariei galga jarriko dien boterearen bat ezarriko dien ezer; eta gizakume ikasiek ere nekez beren errakuntzak agerian jarriko dituen eta hortik beren autoritatea ilunduko duen ezer. Herri xehearen buruak, oster, handikien menpetasunez pozoindurik edo beraien doktoreen iritziez nahasturik ez badaude behintzat, autoritate publikoak haiengan inprima dezakeen edozer gauza jasotzeko prest dagoen paper zuria bezalakoa dira. Ez al dira erakartzen nazio osoak Kristau Erlijioaren arrazoiak-gaizkio misterio handiei baiespena ematera, eta ez al zaio sinestarazten milioika gizakumeri gorputz berbera hainbat lekutan egon daitekeela aldi berean, arrazoiaren kontrakoa izan arren? Eta ez al dira jasotzeko gai izango horregatik, irakaskuntzaren eta predikatuaren bidez eta legearen babesez, arrazoiarekin hain bat datorrena eta auriritzi gabeko edozein gizakumek entzutea besterik ez duena behar ikasteko? Hauxe da, beraz, nire konklusioa: herriari subiranotasunaren funtsezko eskubideak (lege natural eta oinarrikoak direnak) irakasteko ez dagoela beste eragozpenik (ez behintzat Subiranoak bere botere osoa duen bitartean), subiranoren beraren erruz edo beronek Estatuaren administrazioa manatu dienen erruz datozenak baino. Subiranoren

betebeharra da, beraz, herriari dagokion moduan irakasten zaion begiratzea, eta ez soilik betebeharra, baizik baita beraren onura eta segurantzia ziurtatzeko modua ere, errebelamendutik bere pertsona naturalari datorkiokkeen arriskuaren aurrean.

Eta herriari irakatsi behar zaizkion gauza zehatzetara jaitsiz, zera irakatsi behar zaio lehenik, auzoko nazioetan dakusan ezein gobernamenduk ere ez dezan bereak baino gehiago lilura, eta bere hau aldatzeko irrikarik ez dezan izan, dena delako gaingiroa hautematen duelarik ere berearen aldean beste modu bateko gobernua duten nazioetan. Zeren biltzar aristokratiko nahiz demokratikoz gobernatutako herriaren gaingiroa ez baitator ez aristokraziatik ez demokratizatik, baizik menekoen obedientzia eta elkartasunetik; eta monarkiapeko herriak gaingora badoaz, ez da gizakume bakar batek gobernatzen dituelako, menekoek obeditzen diotelako baizik. Edozein Estatu motatan ere obedientzia eta, beraz, herriaren elkartasuna bazterrera uzten baduzu, gaingora joateari utzi ezezik, laster izango dituzu Estatuok deseginda. Eta desobedientziaren eskutik dabiltzanek, Estatua erreformatzea baino ez dutela nahi-eta, era horretara suntsitu besterik ez dutela egin aurkituko dute; fabulako Peleoren alaba ergelak bezala, zeinek, beren aita zaharkinarene gaztetasuna berreskuratu nahian eta Medeaaren aholkuari jarraituz, zati-zati egin eta pil-pilean jarri zuten belar arraroekin irakiten, baina ez zuten lortu hargatik gizon berririk ateratzea. Aldaketa desira hori Jainkoaren Aginduetarik lehena haustea bezala da; ezen Jainkoak dio Non habebis Deos alienos, hots, Ez duzu atzerrietako Jainkorik izanen; eta beste pasarte batean, Erregeei buruz Jainkoak direla dio.

Bigarrenik, haxe ere irakatsi behar zaie: ez lioketela ezein meneko-kideri ere jarraitu behar beronen bertutearen mirespenez, gailurrenean aurkitzen bada ere, eta Estatuaren barnean denik ospe distiratsuna badu ere; ezta ezein biltzarri ere (biltzar subiranoaz aparte), biltzarrok berauen eginkizun konkretuetan ordezkatzan duten subiranoari berari soilik dagokion obedientzia eta ohorea emateraino; ezta haien eraginpera makurtu ere, autoritate subiranoaren partez ebazten dutenean izan ezik. Zeren ezinezko baita iruditzea subiranoak bere herria behar bezala maite lezakeenik, herriaz artatsu izan beharrean hura jasan beharra baino ez duenean, herri hori lausenguz limurtu eta leialtasuna lapurtzen dioten gizon herrikoien erruz; sarri askotan ez bakarrik ezkutuan, baizik publikoki ere gertatu denez, predikariek herri gizonen eta herriaren arteko ezkontza in facies Ecclesiae aldarrikatzeraino eta ezkontza hori kalerik kale iragartzeraino. Hamar Aginduetarik bigarrena haustearan egintzaz aldera daitekeelarik bete-betean.

Hirugarrenik, eta aurrekoaren ondorioz, herria jabearazi beharra dago zein erru handia den ordezkari subiranoaz (dela gizabanako bakarra, dela gizakumeen biltzarra) gaizkiesaka jardutea; edo haren boterea ezbaian eta auzitan jartzea; edo haren izena begirunerik gabe erabiltzea, menekoen aldetik gutxiespena eta Estatuaren segurtasuna esan nahi duen obedientzia ahultzea lekarkeena. Hirugarren Aginduaren antza duen doktrina delarik berau.

Laugarrenik, kontuan hartuz herriari ezingo zaiola hau guztia irakatsi, eta irakasten bazaio ere ezingo duela gogoratu, eta, irakasteko izendatuei entzuteko eguneroko lanorduetatik zati bat ez badu hartzen bederen, belaunaldi bat iragan ondoren ez duela jakingo botere subiranoa norengan datzan ere, beharrezko gertatzen da heziketarako une jakin batzuk izendatzea, zeinetan denek elkarrekin bildu eta Jainkoari (subiranoen Subiranoari) otoi egin ondoren, guztiei dagozkien betebeharrez eta lege positiboez mintzatuko zaizkienei entzungo dieten, hauek zehazki irakurri eta azaldu ahala, legeok egin dituen autoritatea nor den gogoraraziz. Helburu honexekin zeukaten juduek zazpi egunetik behineko Sabbath delakoa, legea irakur eta azal ziezaieten; eta egun horretako ospakizun handiaren barruan gogorarazten zitzairen Jainkoa zela beraien errege, mundua sei egunetan sortu ondoren zazpigarrenean atsedean hartu zuela; eta beraiek ere lanetik atsedean hartzean egun hartan, Jainkoa zutela errege gogora ekartzen zuten, Egiptoko morroi-lan neketsutik berrerosi zituela, eta une bat eman ziela, eurek ere, Jainkoaz gozatu ondoren, zilegizko atsedendaldi batez goza zezaten. Eta halaxe ematen zaio amaiera Aginduen Taulari, Jainkoaren botere absolutuaren bilduma eginez, ez soilik Jainko den aldetik, baizik Errege ere, herri juduarekin bereziki egindako itunez. Eta hortik har dezakete argitasuna, beraz, gizakumeen baiespenez botere subiranoa jaso dutenek, berauen menekoei zer-nolako doktrina irakatsi behar lieketen jakiteko.

Eta umeen lehenbiziko irakaspena beraien gurasoen kargu dagoenez, beharrezko da esaneko izan dakizkien haien babespean dauden bitartean; eta ez hori bakarrik, baizik, eskerronak agintzen duenez, haien heziketatik jaso duten mesedea eskertzea dagokie, ohore-zeinu agerikoen bidez. Helburu horrekin zera irakatsi behar zaie, gizakume bakoitzaren aita hasiera batean jaun subirano ere bazutela, euren biziaren eta heriotzaren gaineko botere eta guzti; eta familiako gurasoek Estatua eratu zutenean, botere absolutu horri uko egin ziotela; baina horrekin ez zela gura izan sekula ere gurasoek beren ohorea, seme-alabei emandako heziketa horregatik zor zaien ohorea, gal zezaten. Izan ere, eskubide hori lagatzea ez zen inondik inora ere beharrezko botere subiranoaren erakuntzarako, eta bestalde ez legoke arrazoirik, gainera, gizakumeek seme-alabak ukan, elikatu eta hezi nahi izateko, beste edozeinengandik jaso dezaketen onura besterik lortuko ez balute gero haiengandik. Eta hori bosgarren Aginduekin bat dator. Era berean, subirano orok bermatu beharko luke justizia -hots, inori ere berarenik ez kentzea- irakas dadin. Zera esan nahi du horrek, subirano guztiek ahalbideratu beharko luketela gizakume orori ondoko

hau irakats dakion: autoritate subiranoz berea duen ezertxo ere ez zaiola lapurtu behar hurkoari, ez indarrez ez iruzurrez. Bereak dituen gauzetatik gizakumeak gehien maite dituenak bere bizia eta soina dira; hurren, gizakume gehienek bederen, ezkont-afektuari dagozkionak; eta ondoren, aberastasunak eta bizi-baliabideak. Beraz, haxe irakatsi behar zaio herriari: inori ere erasorik ez egiten bortxaz mendeku pribatuengatik, inoren ezkont-ohorerik ez bortxatzen, eta inoren ondasunak ez lapurtzen, dela indarrez harrapatuz edo iruzurrez ebatsiz. Honekin loturik legoke judizio faltsuen ondorio gaiztoez jabeaz beharra, dela epaileak dela lekukoak erosiz gauza daitekeena, jabetzaren bereizketa ezabatzen delarik horrela eta justizia efekturik gabe geratzen. Hauek guztiak sei, zazpi, zortzi eta bederatzigarren Aginduetan aztertzen dira.

Azkenez, beste hau ere irakatsi behar zaio herriari, egintza zuzengabeak ezezik, berauek egiteko asmoak eta intentzioak ere (nahiz eta gero egintzarik ez burutzea suertatu) bidegabekeria direla; nahiaren gaiztakerian eta egintzaren irregulatasunean gauzatzen den bidegabekeria, alegia. Eta haxe da, hain zuzen, hamargarren Aginduaren xedea eta bigarren Taularen laburbilduma, elkarrekiko karitatearen manamendu bakar honetara mugatzen dena: Zeure burua maite duzun maite izango duzu hurkoa, lehenengo Taularen edukia beste honetan laburbiltzen denez: Jainkoa maitatzea, juduek Erregetzat hartu berri zuten Jainkoa, alegia.

Herriak heziketa hori jaso dezakeen medioei eta bitartekoei buruz, aztertu beharrekoa da zein medioen bidez errotu ahal izan diren horren sakonki jendearengan, printzipio hain ahul eta faltsuetan oinarrituz, gizateriaren bakearen aurkako hainbeste iritzi. Aurreko kapituluan aipatutakoez ari natzaizue: gizakumeek legearen arabera barik beraien kontzientziaren arabera, hots, beraien irizpide pribatuen arabera, juzgatu behar dutela zer den legezko eta legezkontrako; menekoek bekatu egiten dutela Estatuaren aginduak obeditzean, aurretik beraiek legezkontrat juzgaten ez badituzte; beraien aberastasunen jabetzari dagokionez, Estatuak ondasunon gain duen domeinua eskuditzen duen jabetza dela; menekoentzat legezkoa dela tirano delakoak hiltzea; botere subiranoa banandu egin daitekeela; eta herriari era horretara buruan sartu zaizkion antzeko iritziak. Premiak edo gutiziak euren negozioei eta ogibideari denen gainetik begiratzera bultzatzen dituenak, batetik, eta oparotasunak edo nagikeriak erosotasun sentsualetara makurtzen dituenak, bestetik -hauexek dira gizateriaren zatirik handiena osatzen duten gizaki mota biak-, egiaren ikasketarako (justizia naturalaren alorrean ezezik beste edozein zientzi gaietan ere) behar-beharrezko den gogoeta sakonari itzuriz, batik bat elizgizonek pulpitutik diotsenetik jaso ohi dituzte beraien betebeharrei buruzko nozioak, baita, zenbaitetan, erraz eta egokiro arrazonatzeko gaitasunagatik lege eta kontzientzia kasuetan beraiek baino jakitunago edo ikasiago diruditen auzokoek edo senideek diotsenetik. Bestalde, elizgizonek eta jakituntzat agertzen direnek Unibertsitateetatik eta Zuzenbide Eskoletatik, edo Eskola nahiz Unibertsitateotako gizon entzutetsuek argitaratutako liburuetatik, hartzen dute beren ezagutza. Bistakoa da, beraz, unibertsitateetan gazteriak jasotzen duen irakaskuntza zuzenaren menpe dagoela erabat herriaren heziketa. Ez ote daude, bada, Ingalaterrako unibertsitateak horretarako nahikoa prestatu?, galde dezake baten batek. Ala unibertsitateei irakasten hasi nahi ote duzu? Galdera latzak. Hala ere, zalantzarik gabe erantzunen diot lehen galderari: Enrike VIII.aren azken garaietara arte hor nonbait, unibertsitateak izan zirela batez ere Aita Santuaren boterea defendatu zutenak beti Estatuaren boterearen aurka, eta Erregearen botere subiranoaren kontrako horrelako doktrinak hainbat predikarik, legelarik eta unibertsitateotan hezkuntza jaso zuen beste hainbatek irakatsi izana nahikoa argumentu dugula pentsarazteko, doktrina faltsuon sortzaile eurak ez izan arren, unibertsitateak ez zuela jakin egia finkatzen. Zeren oso argi baitago iritzi kontrajarri haien zurrunbiloan ez zutela aski prestakuntzarik izan, eta ez da batere harritzekoa autoritate zibilaren kontra behinola mikaztu zituen edari sotil haren edan-kutsuren bat geratzea oraindik. Baina bigarren galderari dagokionez, ez deritzot egoki ez beharrezko bai ala ez batekin erantzutea; nik zertan dihardudan hauteman dezan edonork atzeman baitezake erraz zer pentsatzen dudana.

Herriaren segurtasunak beste gauza bat ere eskatzen die botere subiranoa dutenei: justizia neurri berean administratzea herriko sektore guztiei; hau da, pertsona txiro eta apalei ere aberats eta ahaldunei egiten zaien neurri bereko justizia egitea jasandako zuzengabekeriengatik; halako moldez, non ahaltsuek klase apalagoko bati bortxa, desohore edo zuzengabekeriaren bat egitean ez dezatela zigorgabetasun-esperantza handiagorik izan, azken hauetariko batek haiei gauza bera egitean duena baino. Honexetan baitatza ekitatea, zeinek, naturako legearen agindua delarik, bere menpe hartzen dituen hala subiranoa, nola beronen menpeko herritar apalena. Lege-hauste oro da Estatuaren aurkako ofentsa, baina badira lege-hauste batzuk pertsona pribatuen aurkakoak direnak, gainera. Estatuari soilik ukitzen dioteneak jaso dezakete bai, ekitatea hautsi gabe, barkamena; edozeinek barka dezakeelako, bere irizpidearen arabera, beraren aurka egindakoa. Partikular baten kontrako ofentsa, ostera, ez dago ekitatearen arabera barkatzerik, zuzengabekeria egin zaionaren baiespenez edo arrazoizko ordainez izan ezik.

Menekoen desberdintasuna botere subiranoaren egintzetatik dator; ez dauka, beraz, irauterik subiranoaren presentzian, hau da, justizi auzitegiaren aurrean, erregeen eta berauen menekoen arteko desberdintasunik ere ez denez erregeen Erregearen aurrean. Handikien ohorea maila apalagoko gizakumei egindakoa



onaren eta emandako laguntzen arabera balioetsiko da, ala ez da inola ere balioetsiko. Eta haien bortizkeria, zapalkuntza eta zuzengabekeriak ez ditu, ez, arintzen, baizik eta larriagotzen, beraien pertsonaren handitasunak. Handiaren aldeko partzialkeriaren ondorioak hurrenez hurren datoz: zigorgabetasunak ozartasuna dakar, ozartasunak gorrotoa sortzen du, eta gorrotoak handitasun zapaltzaile eta laidogarri oro eraisteko saioa dakar, Estatuaren hondamendiarekin batera bada ere.

Justizia berdinkideari zergen ezarpen berdinkidea dagokio. Zerga-ezarpenaren berdintasun hori ez datza aberastasun-berdintasunaren menpe, baizik gizakume bakoitzak Estatuari, beronek damaion babesaren truke, zorduru dion zor-berdintasunaren menpe. Ez zaio aski gizakumeari bizimodua ateratzeko lan egitea; borroka egin beharra ere badu, beharrezko denean, lan hori segurtatzeko. Horrela, ala juduek gatibualditik itzuli ondoren egin zutena egitea daukate, esku bat azken Tenplua birreraikitzen eta bestean ezpata, ala beraien orde zorrokatuko dutenak kontratatzea. Zeren botere subiranoak herriari ezartzen dizkion zergak haxe besterik ez baitira: euren ogibide eta lanetan diharduten gizakumeak defendatzeko ezpata publikoa hartu dutenei zor zaizkien alokairuak. Eta hortik bakoitzari datorkion onura bizitza bera denez, txiroek nahiz aberatsek berdinki maite dutena, zor berdina izango da, beraz, gizakume txiro batek bizia defendatzen diotenei zor diena eta gizakume aberats batek berearen defentsarengatik ordaindu behar duena; bere zerbitzutan txiroak dituen aberatsaren kasuan ezik, zeren hau bere pertsonaren defentsagatik ezezik beste askorenagatik ere zorduru izan baitaiteke. Hori guztiori kontuan hartuz, zerga berdinkidetasuna gehiago datza kontsumitzen denaren berdintasunean, kontsumo hori egiten duten pertsonen aberastasunean baino. Izan ere, zer arrazoi dateke lan asko egin eta bere lan horren fruituak aurreztearren gutxiago kontsumitzen duen bati, lan gutxi egin, gutxi atera eta ateratzen duen guztia gastatzen duenari baino zerga gehiago ezar dakion, kontuan hartuz bata ez duela besteak baino babes gehiago jasotzen Estatuarengandik? Baina zergak kontsumitutakoaren arabera ordaindu behar direnean, bakoitzak berdinki ordaintzea dauka berak erabilitakoaren truke, eta partikularrek ez diote Estatuari iruzurrik egiten luxuzko gastuengatik.

Eta gizakume askok ezin duenez, halabeharrezko istripuen erruz, bere lanaren bidez mantendu, ez dira bertan behera utzi behar partikularren karitatearen menpe, baizik Estatuaren legeen bidez hornitu beraien premia naturaletarako behar dutenaz. Zeren karitatearik eza denez edozein gizakumeren aldetik behartsuari kasurik ez egitea, halaxe baita Estatuaren aldetik ere behartsuok halako karitatearen benturan uztea.

Baina bestelakoa da gorputz sendoa dutenen kasua: hauei lan eragin behar zaie; eta enplegurik aurkitu ezinaren aitzakiarik ez dezaten, askotariko lanbideak -nabigazioa, nekazaritza, arrantzua eta lana eskatzen duen beste zeinahi eskulan- sustatzeko legeak beharko lirateke. Lan egiteko sasoiaren dagoen txiro jendea gehituz joango balitz, populazio urriko eskualdeetara lekualdatu beharko lirateke; suntsitu gabe, baina, bertako jendea; aitzitik, elkarrekin bizitzera moldaraziz, ez alegia lurzoru zabalak okupatu eta bertan aurkitzen dutenaz jabetuz, baizik bakoitzak bere lursailtxoan ekinez lanari trebeki, dagokion sasoiaren bizigarria jaso dezaten. Eta mundu osoa bizilagunez gainez gerta dadinean, azkenburuko irtenbidea gerra izan da, bakoitzari bere erremedioa emango diona garaipenaren ala heriotzaren bidez.

Subiranoaren ardurapean dago lege onak egitea. Baina zer da lege ona? Lege ona diodanean ez dut esan nahi lege zuzena, zeren ezein lege ere ezin baita zuzengabea izan. Legea botere subiranoak egiten du, eta subirano honek egin dezan oro, herritar bakoitzak berretsi eta bere egiten du; eta gizakume bakoitzak horrela bere egiten duena ezin du inork ere zuzengabetzat hartu. Joko-arauekin gertatu ohi dena gertatzen da Estatuaren legeekin ere: jokalaria guztiek beren artean erabaki dutena ez dela injustizia haietarik inorentzat ere. Horra hor zer den lege ona: herriaren onerako beharrezko dena eta, gainera, argi eta garbia. Izan ere, arau eskuetsiak besterik ez diren legeon egitekoa ez baita jendea nahitako egintza oro galaraztea, baizik haiek zuzentzea eta kontrolpean mantentzea, beraien irrika, zentzugabekeria edo arinkeria eraginez elkarri kalterik egin ez diezaioaten; bide bazterreko hesiak ere ez direnez jartzen bidaztiak geldiarazteko, baizik bidean barne eramateko. Beraz, beharrezko gertatzen ez den legea, legeari dagokion benetako xederik gabekoa, ez da lege ona. Lege bat ontzat jo daiteke, herriarentzat beharrezko ez izan arren, subiranoaren onerako denean; baina egiaz ez da horrelakorik. Subiranoaren ona eta herriarena, izan ere, banaezinak baitira. Subirano ahula da meneko ahulak dituen; eta herri ahula, aldiz, nahierara gobernatzeko botere nahikorik ez duen subiranoa duena. Beharrezko ez diren legeak ez dira lege onak, dirua ateratzeko amarruak baizik: premiagabeko amarruak, alegia, botere subiranoaren eskubidea ezagutzen den lekuan; eta herria defendatzeko nahikoezak, berriz, eskubide hura ezagutzen ez den lekuan.

Argitasuna ez datza horrenbeste legearen beraren hitzetan, baizik lege horrek xedetzat dituen kausa eta zioen azalpenean. Haxe da, hain zuzen, legegilearen asmoa erakusten diguna; eta legegilearen asmo hori ezagutuz gero, ulergarriagoa izango da hitz gutxiko legea hitz ugariak baino. Hitz guztiek dute, izan ere, halako anbiguotasun puntu bat; beraz, lege gorputzean hitzak biderkatzeak anbiguotasuna biderkatzea besterik ez dakar. Badirudi, gainera, hitz jario larregiak zera ematen duela: hitzei ihes egin diezaiokeena lege-eremutik kanpo geratzen dela. Eta haxe izan ohi da alferreko auzi asko eta askoren zergatia. Izan ere, pentsatzen jartzen naizenean antzinako legeak zein laburrak ziren eta nola joan ziren gero eta luzeago

bihurtuz, aurkakotasun moduko bat sumatzen dudala deritzot idazlariaren eta azaltzailearen artean; lehenengoak bigarrena lege-eremura ekarri nahi balu bezala eta azken hau eremuotatik ihes egin nahian, ostera, bigarren hau ateratzen delarik garaile. Beraz, legegilearen eginkizuna da -bera denez gero, gizabanakoa nahiz biltzarra izan, edozein Estatuko ordezkari gorena-, legea egitearen arrazoiak garbiro azaltzea eta lege-gorputza bera ahalik eta berba labur, argi eta adierazgarrien bidez idaztea.

Subiranoaren eginkizuna da, baita, zigorrak eta sariak zuzentasunez ezartzea. Eta gogoan izanez zigorraren helburua ez dela ez mendeku egitea, ez sumindura kanporatzea, baizik ofentsagilea, eta beronen eredu bestek ere, zuzentzea, zigor zorrotzenak publikoari arrisku handiena dakarkioten delituei ezarri behar zaizkie: agintean dagoen gobernuaren aurka asmo txarrez egindakoei, justiziaren mesprezuz sortutakoei, populazioaren haserre bizia eragiten dutenei, eta, zigorgabe geratuz gero, baimenduak direla diruditenei; azken hauetarikoak dira, esaterako, aginpidea duten gizakumeen kontra berauen semeek, morroiek edo kuttunek burututako delituak. Haserreak, izan ere, injustizia-egileen eta eragileen aurka ezezik, hauei babesa ematen diela dirudien edozein botereren aurka ere bultzatzen du jendea. Tarkinoren kasuan bezala, beraren semeetarik baten egintza ozar bategatik iraitzi baitzuten Erromatik kanpora, eta monarkia bera ere desegin. Baina gogo ahuldurak eragindako delituak, probokazio handiren batek, beldur handiren batek, premia handiren batek edo egintza hura delitu handia den ala ez ez-jakiteak eragindakoak adibidez, biguntasunez epaituak izan daitezke kasu askotan, Estatuaren kalterik gabe; eta biguntasuna, horretarako arrazoirik dagoenean, naturako legeak eskatzen duena da. Matxinada batean aitzindariei eta irakasleei, ez ordea hartara limurtu duten herri txiroari, ezartzen zaizkien zigorrak bai izan daitezkeela onuragarri Estatuarentzat, eredugarri direlako. Herriarekin zorrotza izatea, ostera, jakineza zigortzea da; hein handi batean subiranoaren beraren errua izan daitekeen jakineza, gainera, zeren beronen hutsa baita jende hura hobeto irakatsia ez izatea.

Era berean, subiranoaren zeregina eta betebeharra da banatzen dituen sariak ere Estatuarentzat onuragarri izateko moduan banatzea: honexetan datza, izan ere, sarien baliagarritasuna eta helburua. Eta helburu horixe lortzen da Estatua ondo zerbitzatu dutenak egokiro sarituak direnean -betiere ahalik eta gasturik txikienaz altxor publikoarentzat-, beste batzuk ere anima daitezen horrela, bai Estatua ahalik eta leialkien zerbitzatzeko, baita zerbitzu hori hobeto burutu ahal izateko trebetasunak eskuratzen. Meneko herrikoi eta handigura baten isiltasuna diruz eta prebendaz erosteak, hura bakean egon dadin eta jendearen buruak ideia gaiztoz berotzekari utz diezaion, ez dauka zerikusirik sariaren izaerarekin; hau ez baita ematen zerbitzu-ezaren ordainetan, egindako zerbitzuen ordainetan baizik. Eta ez da eskerronaren erakutsia, beldurrarena baizik, publikoaren onerako barik kalterako gertatzen delarik. Handigurarekin dema egitea da, Herkulesek Hydra munstroarekin bezalaxe; buru asko zituenek, bat moztean beste hiru sortzen baitzitzizkion. Bada, horixe bera gertatzen da herrigizon baten zitalkeria sarien bidez moztu nahi denean, horren eredu txarrez beste asko sortzen direla kalte bera eginez eta sari berdina jasotzeko esperantzaz; eta ekoizkin mota guztiekin gertatzen den bezala, gaiztakeria ere gehitu egiten da salgarri bihurtu ahala. Eta zenbaitetan gerra zibila atzeratzea lor daitekeen arren horrelako metodoez, gerraren mamua haziz joango da eta hondamendi publikoa are ziurrago bihurtuko. Segurtasun publikoaren kargu eman zaion subiranoaren betebeharraren aurka dago, beraz, euren herrialdeko bakea zapuztuz handi nahian dabilzkanak saritzea, halakoei hasiera batetik aurre egin beharrean; eta arrisku gutxiagoz hasieran, denborarekin handiago bihurtuko den arriskuaren aldean.

Subiranoaren beste zeregin bat kontseilari onak aukeratzean datza, eta kontseilari onak esatean, Estatuaren gobernamenturako aholku edo kontseilu hartzeko modukoak esan nahi dut. Izan ere, kontseilua berba honek, consilium, considium hitzetik eratorria, esangura zabala du, elkarrekin biltzen diren gizakumeen biltzar orori dagokiona, ez soilik aurrerantzean egin behar dena erabakitzeko, baizik baita arestiko egintzak epaitzeko eta egungo legeak ebazteko ere. Hitza bere lehen adieran soilik hartzen dut hemen; eta zentzu horren arabera ez dago kontseilari hautapenik ez demokrazian ez aristokrazian, pertsona kontseilu-emaileek pertsona kontseilu-hartzailearen kide direlako dagoeneko. Kontseilarien hautapena, beraz, monarkiari dagokiona da; eta bertako eginkizun bakoitzerako proposenak aukeratzeko ahalegina egiten ez duen subiranoak ez du betetzen behar bezala bere zeregina. Kontseilari proposenak aholku txarren bidez onurarik ateratzeko asmorik ez dutenak eta Estatuaren bakerako eta defentsarako baliabideak ondoen ezagutzen dituztenak dira. Zaila da aurretiaz jakitea nork espero duen istilu publikoetatik probetxua ateratzea, baina arrazoizko susmora daramaten seinaleak izan ohi dira: beraien asmo desarrazoizko eta bideraezinekoetarantz herria bultzatzea eta beraien ohiko gastuetarako adina ondasunik ez edukitzea; erraz atzemateko moduko seinaleak, alegia, berauen peskizan dabilen edozeinentzat. Baina are zailagoa da arazo publikoen ezagutza ona zeinek duen jakitea, zeren hori dakiena bera baita, hain zuzen ere, aholkulari premiarik gutxien duena. Baliabide gehientsuen arauak zeinek ezaguten dituen jakiteak, nonbait, baliabideon ezagutza maila handia suposatzen baitu; inortxok ere ez dezakeelako ziurtasunik beste batzuen arauetik, lehenago berari ez bazaio irakatsi arauok ulertzen. Nolanahi ere, hauek dira dena delako baliabideen ezagutzaren seinalerik onenak: baliabideoi buruzko solas naharoa eta ondorioztatzen diren emaitza positibo iraunkorrak. Aholku ona ez da sortzen ez

halabeharrez ez herentziaz; beraz, aberatsak edo nobleak Estatuko arazoei buruz eman dezaketen aholkuak ez du zertan izan berez gaztelu baten diseinurako eman dezaketen aholkua baino hobea, zera uste ezik: politika-gaitan aditua izateko ez dela ezelako metodorik behar (geometriaren ikasketarako behar den bezala), baizik hautemaile onak izatea nahikoa dela; egia ez dena, bestalde. Zeren politika baita, izan ere, ikasketa biotarik zailena. Europako alde hauetan pertsona jakin batzuen eskubidetzat hartu izan da Estatu Kontseilu gorenean postu bat mantentzea herentziaz; antzinako germaniarren konkistetatik datorren ohitura dugu hau: jaun absolutu asko batzen zirenez nazioen konkistarako, ez zuten federakuntzan sartzerik halako zenbait pribilegio eduki ezean, beraien ondorengotzaren eta menekoen ondorengotzaren artean etorkizunean zitezkeen bereiztasun ezaugarriak, kasu; eta pribilegio horiek botere subiranoarekin bateraezinak zirenez, subiranoaren faborez baino ez zitezkeen itxuraz mantendu. Baina jaun haiek pribilegiook beren eskubidetzat exigitzerakoan, poliki-poliki utziz joan beharra gertatu zitzairen, beraien gaitasun naturalei zegokien ohorea besterik ez zitzaielarik geratu azkenean.

Dena delakoa izanik ere kontseilarien gaitasuna gai jakin bati buruz, beraien kontseilutik datorkeen emaitza hobea izanen da, egiaz, bakoitzak bere aholkua eta aholku horren arrazoiak bakarrean ematen dituenean, biltzarrean eta hitzaldien bidez ematen dituenean baino; eta are emaitza hobea aurrez pentsatuta hitz egiten duenean, hitzetik hortzera mintzatzen denean baino: batetik, egintzen ondorioak aztertzeke denbora gehiago duelako eta, bestetik, iritzien desberdintasunak sortu ohi dituen inbidia, lehiak edo gainerako grinek eragindako kontraesanetatik askeago aurkitzen delako.

Beste nazio batzuei dagozkienetan barik, beren herriko barne-legeen bidez menekoek goza dezaketen ongizateari eta onurari soil-soilik dagozkion arazoetan, kontseilu onena informazio orokorretik eta eskualde bakoitzeko bizilagunek dituzten kexuetatik jaso behar da, berauek baitira beren premien berri ondoen dakitenak, eta arretaz aintzat hartu beharrekoak, beraz, baldin eskatzen dutenak subiranotasunaren eskubide funtsezkorik deroga ez baleza. Zeren, behin baino gehiagotan esan dudanez, funtsezko eskubideok gabe Estatuak ez baitauka inola ere irauterik.

Armadako buruzagiak herri-osperik ez badu, armada horrek ez dio behar bezalako estimurik ez begirunerik izango; eta ondorioz, ezingo du zeregin hori arrakastaz bete. Horregatik, fina, adoretua, atsegina, eskuzabala eta zoritsua izan beharko du, baliokotzat eta bere soldaduekiko artatsutzat har dezaten. Hauxe da herri-ospea, soldaduengan desira eta adorea, biak, pizten dituen haren ardurapean jartzeko, eta jeneralaren zorrotzasuna babesten duena soldadu matxinatuak edo axolagabeak zigortu behar dituenean. Baina soldaduen maitasun hori, buruzagiaren leialtasunaren bermerik gabe, arriskutsua gertatzen da botere subiranoarentzat, berau biltzar popularraren esku ez dagoenean batez ere. Herriaren segurtasunari dagokiona da, beraz, subiranoak bere armaden kargu ematen dien armadaburuok buruzagi onak izatea, batetik, eta meneko leialak, bestetik.

Dena den, subiranoak berak duenean herri-ospea, hau da, bere herriarengandiko begirunea eta maitasuna, ez dago ezelako arriskurik meneko baten herri-ospearen aldetik. Zeren soldaduak ez baitira normalean horren injustuak beren kapitainaren alde lerroka daitezen (hura maite izan arren) subiranoaren aurka, beronen pertsona ezezik, beronen kausa ere maite dutenean. Hortaz, beren legeko subiranoaren boterea bortxaz eraitsi dutenek, haren lekuan jarri aurretik, beraien tituluak asmatzeko lanari ekin behar izan diote betiere, herriak lotsarik gabe onar ditzan. Botere subiranorako eskubide ezagutua edukitzea hain da koallitate popularra, non hori duenak ez duen beste ezer gehiago behar menekoen bihotza bereganatzeko, bere familia gobernatzeko erabat gai izatea besterik; eta etsaiei dagokienean, berauen armadak ihesean jarriaraztea besterik ez. Zeren, gaurdaino bederen, gizateriaren parterik gehiengo eta eragileena ez baitu inoiz asebate garaian garaikoak.

Subiranoek elkarrekiko dituzten zereginiei dagokienez, nazioen legea deitu ohi zaion legearen barne sartuak, ez daukat ezer esatekorik hemen, nazioen legea eta naturako legea gauza berbera direlako. Eta subirano bakoitzak bere herriaren segurtasuna bilatzeko eskubidea du, gizabanako partikular bakoitzak bere gorputzarena bilatzekoa duen bezalaxe. Eta gobernu zibilik gabeko gizakumeei hurkoekiko harremanetan zer egin eta zer ekidin behar duten iradokitzen dien legeak berak iradokitzen die gauza bera Estatuari ere, hots, printze subiranoari eta biltzar subiranoari. Ez da beste Justizi Auzitegi naturalik, izan ere, kontzientzia duguna baino, zeinen gainean ez duen erreinatzen ezein gizakumek, Jainkoak Berak baino, eta zeinen legeak (gizateria oro obligatzen dutenak) naturalak diren Jainkoarekiko, Berau naturaren autore denez, eta legeak Jainko Berarekiko, erregeen Errege denez. Baina diskurtso honen gainerakoan hitz eginen dut Jainkoaren erresumaz, Jainkoa erregeen Errege denez eta herri berezi baten Errege denez.

## XXXI

Jainkoaren erresumaz naturaren arabera

Natura hutseko egoera, hau da, ez subiranorik ez menekorik gabeko askatasun osokoa, anarkia eta gerra-egoera dela; egoera horri itzuri ahal izateko gizakiek gidatzat dituzten aginduak naturako legeak direla; botere subiranorik gabeko Estatua hitz hutsala besterik ez dela, inola ere ezin iraun dezakeena; menekoek subiranoari obedientzia soilak zor diotela, obedientzia hori Jainkoaren legeen kontrako gertatzen ez den gauza guztietan: aski frogaturik utzi dut hori guztiori orain arte idatzitakoan. Falta den gauza bakarra,

betebehar zibilaren ezagutza osora iristeko, Jainkoaren lege horiek zeintzuk diren ezagutzea da. Zeren hori barik gizakiak ez baitaki, botere zibilaren aldetik zerbait agintzen zaionean, agindu hori Jainkoaren legearen kontrakoa den ala ez; eta zera gerta dakioke orduan: edo obedientzia zibil gehiegirengatik Jainko Ahaltuari ofentsa egitea, edo Jainkoari ofentsa egiteko beldurrez Estatuaren manamenduak haustea. Bi arriskuok ekidin ahal izateko, Jainkoaren legeak zeintzuk diren jakin beharra dago. Eta edozein legeren ezagutza botere subiranoaren ezagutzaren menpe dagoela gogoan hartuz, JAINKOAREN ERRESUMAZ esango dut zerbait jarraian.

Errege da Jauna, poz bedi lurra! dio salmogileak (Sal. 96,1), eta beste leku batean (Sal. 98,1): Errege da Jauna: dardara bitez herriak! Kerubinen artean du tronua: ikara bedi lurra! Gizakiek, hala nahi ala ez, Jainkoaren Boterearen meneko beti izatea besterik ez dute. Jainkoaren existentzia edo probidentzia ukatuz, baliteke agian aske sentitzea, baina ez uztarria lepotik astintzea. Hala ere, gizakiengana soilik ezezik, animalia, landare eta izaki bizigabeetaraino ere hedatzen den Jainko-botere honi erresuma hitzarekin deitzea, hitz horren zentzu metaforikoz besterik ez liteke. Zeren erreinatu, hertsiki hitz eginez, bere menekoak hitzaren bidez gobernatzen dituenak baino ez baitu erreinatzen, obeditzen diotenei sariak aginduz eta obeditzen ez diotenei zigorren mehatxu eginez. Beraz, ez dira Jainkoaren erresuman meneko, ez gorputz bizigabeak, ez izaki irrazionalak, horiek ez baitute berez agindurik ulertzen; ezta ateok ere, ez eta Jainkoak gizateriaren egintzen ardura duenik sinesten ez dutenak: hauek ez dutelako ezein barbarik ezagutzen Jainkoaren berbatzat, eta ez dutelako haren sarien itxaropenik, ez haren mehatxuen beldurrik. Beraz, hauexek besterik ez dira Jainkoaren menekoak: mundua gobernatzen duen eta gizateriari manamenduak eman dizkion eta sariak nahiz zigorrak agindu dizkion Jainkoa badela sinesten dutenak; gainerako guztiak haren etsaitzat hartu beharrekoak dira.

Hitzen bidez gobernatzeak hitzok argiro ezagutzera ematea eskatzen du, zeren bestela ez liratekeen legeak. Legeen izaerari dagokiona delako promulgazio nahikoa eta garbia izatea, jakinezaren aitzakiari lekuri ez uzteko modukoa. Giza legeei dagokienez, promulgazio hori egiteko modu bat besterik ez da: aldarrikapena edo gizakiaren berbaz egindako promulgazioa. Baina Jainkoak hiru erataria adierazten ditu bere legeak: arrazoi naturalaren diktatuaren bidez, errebelazioz, eta Jainkoak berak mirakuluez baliatuz besteen aurrean kreditatu duen gizakumeren baten berbaren bidez. Hortik Jainkoaren hitz hirukoitza gertatzea: razionala, sentigarria eta profetikoa; entzuteko hiru era dagozkiona: arrazoimen zuzena, zentzu supernaturala eta fedea. Zentzu supernaturalari dagokionez, errebelazioan edo inspirazioan datzana, ez da izan horrela emandako lege unibertsalik, Jainkoak pertsona partikularrei besterik ez dielako hitz egiten modu horretara, gizakume ezberdinei gauza ezberdinak ezagutzera emanez.

Jainko hitzaren beste mota bien arteko ezberdintasunetik abiatuz, razionala eta profetikoa, bi erresuma mota aitor diezaiokegu Jainkoari: naturala eta profetikoa. Erresuma naturala, non Jainkoak bere probidentzia ezagutzen duten guztiak arrazoiaren diktatuaren bidez gobernatzen dituen; eta erresuma profetikoa, non, herri berezi bat (judu herria) bere menekotzat hautatuz, eurok -baina berauok bakarrik- arrazoi naturalaren bidez ezezik, bere profeta santuen ahotik eman zizkien lege positiboaren bidez gobernatu zituen. Kapitulu honetan Jainkoaren erresuma naturalari buruz mintzatu nahi dut.

Jainkoak gizakumeengan erreinatzeak eta bere legeak hausten dituztenei zigorra ezartzeko daukan naturako eskubide hori ez datorkio, hain zuzen, kreatu izanagatik obedientzia eta egindako onengatik eskerrona eskatzen dielako, baizik bere botere jarkiezinetik. Azaldu dut gorago eskubide subiranoa itun batetik sortua dela. Eskubide hori naturatik sor daitekeela frogatzeko ez da besterik behar zein kasutan den kenezina erakustea baino. Kontuan hartuz gizakume orok zuela naturaz gauza guztietarako eskubidea, bakoitzak gainerakoengan erreinatzeak eskubidea ere bazukeen. Baina indarrez lortzeko eskubidea ez zatekeenez, komenigarri zen denen segurantzarako bakoitzak bere eskubide hori lagatzea eta, guztien baiespenez, autoritate subiranodun zenbait gizakumeri ematea beraiek goberna eta defenda zitzaten. Hala ere, botere jarkiezinezko gizakumeren bat izan balitz, ez zatekeen arrazoirik gizakume horrek bere burua - eta gainontzekoena ere bere irizpidearen arabera- goberna eta defenda ez zezan. Beraz, halako botere jarkiezina dutenei, botere horren gorentasunaren, gizaki ororen gaineko domeinua dagokie naturaz; eta botere horren izenean dagokio, beraz, Jainko Guztiahaldunari, naturaz, gizaki ororen gaineko erreinua eta gizakioi nolanahiko pena ezartzeko eskubidea; ez, hain zuzen, Kreatzaile eta Ongile den aldetik, Guztiahaldun den aldetik baizik. Eta zigorra bekatuarengatik soilik bada ere -zeren berba horrek bekatuagatik pena esan nahi baitu-, pena ezartzeko eskubidea ez dator beti giza bekatutik, baizik Jainkoaren boteretik.

Arazo hau, zer dela-eta gaiztoak sarritan gora joatea eta gizakume zintzoak nahigabea pairatzea, oso eztabaidatua izan zen antzinatean, eta galdera bera egiten dugu geuk ere: zer eskubidez luzatzen ditu Jainkoak bizitza honetako zorionak eta ezbeharrak? Eta korapilo horixe izan da Jainkoaren Probidentziari buruzko askoren fedea, jende arruntarena ezezik, filosofoena eta santuena ere, zalantzan jarri duena. Bai ona dela Jainkoa, Israel, bihotz-garbientzat! -dio Dabidek (Sal. 72, 1.2.3)- Baina ozta-ozta ez dut nik estropezu egin, ia-ia erori nintzen. Izan ere gaiztoen arrakasta ikusirik, harroputz horien inbidiaz nengoen. Eta Job zein zorrotz kexatzen den Jainkoaren aurrean, bere zuzentasuna gorabehera jasan behar dituen

nahigabe anitzengatik! Joben kasuan Jainkoak berak erabakitzen du arazoa, ez Joben bekatuan, baizik Jainkoaren beraren boterean oinarritutako argudioen bidez. Izan ere, nahiz eta Joben lagunek beronen bekatuari egozten zizkieten nahigabeak eta Jobek bere errugabetasunean oinarrituz defendatzen zuen bere burua, Jainkoak berak esku hartu zuen arazoan, eta, bere boterean oinarritutako argumentuen bidez justifikatzean nahigabeok, adibidez Nik lurrari oinarria ezartzean, non zeunden zu? eta antzekoak diotsozenean, Joben errugabetasuna onartzen du eta, aldi berean, haren lagunen doktrina okerra gaitzetsi. Irakatsi-ildo beretik dator gure Salbatzailearen sententzia hura ere, jaiotzaz itsua zen gizakumeari buruz zera esan zuenean: Ez gizakume honek ez beronen gurasoek egin dute bekatu; baizik Jainkoaren eginak ager daitezen beronengan. Eta heriotza bekatuaren atetik sartu zela munduan esaten den arren -beraz, Adanek bekatuak egin ez balu, ez zatekeela inoiz hilen, hau da, ez zukeela inoiz arima gorputzetik banantzerik jasanen-, hortik ez du jarraitzen Jainkoak ezingo zionik zuzentasunez penarik ezarri, nahiz eta bekatu egin ez, bekatuak egin ez duten beste izaki bizidun batzuei ezarri dien modu berean.

Naturan soilik oinarritutako Jainkoaren subiranotasun-eskubideez hitz egin ondoren, Jainkoaren legeak edo arrazoi naturalaren diktatuak zeintzuk diren azaltzea dagokigu jarraian. Lege horiek, edo gizakiek elkarrekiko dituzten betebeharrak naturalei edo gure Jainko Subiranoari naturaz zor diogun ohoreari dagozkienak dira. Lehenengoak lege naturalak eurak dira, tratatu honen 14. eta 15. kapituluak azalduak jadanik, hau da, ekitatea, justizia, errukia, apaltasuna eta gainerako bertute moralak. Orain azaltzeko geratzen zaiguna hau da, beraz: zeintzuk diren gizakumeei beren arrazoimen natural hutsak, Jainkoaren bestelako hitzik gabe, ematen dizkien aginduak gure Jainko Ahaltsuarenganako ohoreari eta jaurespenari buruz.

Honexetan datza ohorea: norbaiten boterean eta ontasunean barne-barneko ustea eta iritzia izatean. Beraz, Jainkoa ohoratzea beronen botere eta ontasunaren estimu goren-gorena izatean datza. Gizakumeen hitzetan eta egintzetan kanporatzen den uste horren ageriko zeinuei jaurespena deitzen zaie, zeina latindarrek cultus hitzaren barne hartutakoaren zati bat den. Cultus hitzak horixe esan nahi baitu propioki eta salbuespenik gabe: gizakumeak zeozertan ematen duen lana, hortik onuraren bat ateratzekotan. Orain, onura ateratzen diegun gauza horiek, biotarik bat: edo geure menpean daude, eskaini diogun lanarengatik ematen diguten onura, orduan, ondorio naturala besterik ez delarik; edo ez daude geure menpean, baizik beraien borondatearen arabera erantzuten diote gure lanari. Lehen zentzuan, lurra lantzera dedikatutako lanari latinez cultura deitzen zaio, eta haurren hezkuntzari ere berauen adimenen lanketa edo cultura da. Bigarren zentzuan, berriz, gizakumeen nahiak gure helburuetara indarrez barik borondatez erakarri beharra dagoenean, cultus hitz hark gorteatzea esan gura du hurrean, hau da, norbaiten faborea medio aiprosen bidez irabazten saiatzea, laudorioen bidez esaterako, edo haren boterea aitortuz, edota hobaria atera nahi diogun horri laketa dakiokkeen edozein medioz; eta zentzu honexetan, Publicola hitzak herriaren jauresle esan gura du; eta cultus Dei esakuneak Jainkoaren gurtza edo jaurespena.

Boterearen eta ontasunaren ustea izatean datzan barne-ohore hartatik hiru grina sortzen dira: ontasunari buruzko maitasuna, eta botereari buruzko itxaropena eta beldurra. Eta hiru grina mota horiei hiru ageriko jaurespen dagozkienak: laudorioa, gorespina eta alabanta. Ontasuna delarik laudorioaren xedea, boterea den bitartean gorespinen eta alabantaren, eta dohatasuna guztion ondorioa. Laudorioa eta gorespina hitzen eta egintzen bidez adierazten dira: hitzen bidez, norbait ona edo haundia dela aitortzen dugunean; egintzen bidez, beraren mesedeengatik eskerrak ematean eta haren botereari men egitean. Beste baten dohatasunari buruzko ustea, berriz, hitzez baino ezin adieraz daiteke.

Badira ohore-zeinuak, atributuetan nahiz egintzetan, naturaz ohorezkoak direnak: atributuen artean, on, zuzen, eskuzabal eta horrelakoak; eta egintzen artean, erregu-otoitzak, eskerronezko-otoitzak eta obediencia. Badira beste zenbait zeinu, aldiz, instituzioz edo ohituraz gordeak; zenbait leku eta unetan ohorezkoak izan daitezke, beste zenbaitetan desohorezkoak, eta beste batzuetan berdina direnak. Halakoak dira agur-zeinuak, erreguzkoak eta eskerronezkoak, leku eta une ezberdinetan desberdinki erabili ohi direnak. Lehenengo hura jaurespen naturala da; bigarrena, aldiz, jaurespen arbitrarioa.

Jaurespen arbitrarioari dagokionez, bi eratakoa izan daiteke: batzuetan ezinbestekoa eta beste batzuetan borondatezkoa izan ohi da. Ezinbestekoa, gurtza jasotzen duenari hala dagokionean; eta askea, jaureslearen nahierara egina denean. Ezinbestekoa denean, jaurespena ez datza hitzetan ez zeinuetan, baizik obediencia bertan. Askea denean, ordea, jaurespena hartzailearen iritzian datza: izan ere, beroni ohore eman nahian zuzentzen dizkiogun hitzei edo egintzei berak barregarri eta laidogarri samar baderitze, ez dira jada jaurespen izanen, ez direlako ezelako ohore-zeinu; eta ez dira ohore-zeinu, zeren zeinu jakin bat ez baita zeinu zein-egilearentzat, baizik zeinu hori zuzentzen zaionarentzat, hots, jasotzailearentzat.

Bada, halaber, jaurespen publikoa eta jaurespen pribatua. Publikoa, Estatuak pertsona bakar gisa burutzen duen jaurespena. Pribatua, pertsona pribatu batek egiten duena. Publikoa, Estatuari bere osotasunean dagokionez, askea da; baina ez horrela banako partikularrei dagokienez. Pribatua, bakarrean egina denean, askea da; baina jendaurrean egina denean, ez du falta izaten inoiz kontrolen bat, dela legeen aldetik, dela jendearen iritzia aldetik; askatasunaren izaeraren kontra dagoena.

Jaurespenaren xedea, gizakumeen artean, boterea da. Zeren gizakume batek hirugarren bati gur egiten zaiola dakusanean, ahaltsua irizten dio eta hari men egiteko gertuago izan ohi da; eta horrela hazi egiten da jauretsiaren boterea. Jainkoak, ordea, ez du ezelako xederik; eta beroni dagiogun gurtzak geure betebharrean du oinarria, bakoitzak geure gaitasunaren arabera burutzen dugularik, gure arrazoiaren argitan gizakume ahul batek -etekin baten esperantzan, kalteren baten beldurretan edo jasotako mesedeen eskerronez- beste gizakume boteretsuago batekiko bete behar dituen ohore arauari jarraiki.

Arrazoi naturalak zer-nolako Jainko-jaurespena irakasten digun jakin dezagun, Jainkoaren beraren atributuez hasiko naiz. Bistako da, lehenik, existentzia aitortu behar dioguna. Ezinezko baita norbaitek ezelako izaterik aitortzen ez dion zerbait ohoratu nahi izatea.

Bigarrenik, Jainkoa mundua bera edo munduaren arima dela esan zuten filosofo horiek zitalki mintzatu zirela hartaz eta existentzia ukatu ziotela. Zeren Jainkoa esatean, munduaren kausa esan nahi baita; eta mundua bera dela Jainkoa esateak mundu horrek ez duela kausarik, hots, ez dela Jainkorik, esatea baita.

Hirugarrenik, mundua ez dela sortarazia esatea, baizik eternala, Jainkorik ez dela esatea da, zeren betierekoak ez baitauka kausarik.

Laugarrenik, Jainkoaren ustezko arduragabetasuna defendatzen dutenek, berriz, hari gizateriak ez diola axolarik esaten baitute eta zor zaion ohorea ukatzen, beraz: zeren gizakumeek zor dioten maitasuna eta beldurra, ohore haren sustraiak, desagertu egiten baitira.

Bosgarrenik, handitasun eta botere kontuan finitua dela esatea ez da hura ohoratzea: ez delako sartzen Jainkoa ohoratu nahiaren zeinuetan, sartu ere, hari geure ahalean dagoena baino gutxiago aitortzea; eta finitua edo mugatua geuk ahal duguna baino gutxiago da, zeren erraza baita mugatuari zerbait gehitzea.

Beraz, Jainkoari figura esleitzea ez da hura ohoratzea, zeren figura oro finitua baita.

Ezta ere gure adimenean haren ideia modukoren bat irudi edo burura dezakegula esatea, zeren guk burura dezakegun guztia finitua baita.

Ezta hari parteak edo osotasuna esleitzea, gauza finituen atributuak izanik soil-soilik.

Ezta hura leku honetan edo hartan dagoela esatea, zeren lekuren batean dagoena mugatua eta finitua baita.

Ezta ere higitu egiten dela edo gelditu dagoela esatea, atributu biok leku jakin batera mugatzen baitute.

Ezta Jainko bat baino gehiago dagoela esatea ere, zeren, bat besterik ezin denez infinitua izan, denak finituak direla esatea bailitzateke.

Ezta ere goibeltasunarekin zerikusirik duten grinak esleitzea, damua, haserrea, errukia eta abar -metaforikoki ez bada, hots, grina bera barik, grinaren efektua adierazteko-; ezta beharizanarekin zerikusirik dutenak, gutizia, esperantza, desira eta halakoak; ezta ere beste ezein ahalmen pasibori dagozkionak: zeren grina, betiere, beste zerbaitek mugatutako ahalmena baita.

Beraz, Jainkoari nahimena esleitzen diogunean, ez da ulertu behar gizakiari dagokion gutizia razionala, baizik Jainkoak gauza oro eragiteko darabilen ahalmena.

Gauza bera Jainkoari ikustea edo bestelako zentzu-egintzaren bat aitortzen diogunean; edota ezagutza eta adimena aitortzen dizkiogunean: horiek guregan ez baitira besterik, izan ere, giza gorputzaren parte organikoetan eragina duten kanpoko objektuek adimenean sortarazten duten zurrunbiloa baizik; Jainkoarengan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Eta kausa naturalen pean daudenez guztiok, ezin zaizkio hari eratziki.

Arrazoi naturalak berma dezakeena soilik esleitu nahi direnak Jainkoari, edo atributu negatiboez baliatu behar du, infinitu, eternal, adiezin eta horrelako hitzen bidez, edo superlatiboez, goren-gorena, haundiena eta antzekoen bidez, edo on, zuzen, santu, kreatzaile eta horrelako indefinituez, eta hau ere Jainkoa zer den definitzea xedetzat hartu gabe (hura gure irudimenaren esparrura mugatzea bailitzateke), baizik zein asko miresten dugun eta zein prest gauden hari obeditzeko adieraztearren; apaltasunaren zeinua, eta Jainkoa gure ahalaren neurrian ohoratzeko borondatearen zeinua, alegia. Zeren izen bat besterik ez baitago Haren naturaz dugun kontzeptzioa adierazteko, eta izen hori NI NAIZ da; eta izen bakar bat Hark gurekiko duen erlazioa adierazteko, eta izen hori Jainkoa da, zeinetan Aita, Erregea eta Jauna barnesartzen diren.

Jainkoarenganako jaurespen-egintzei dagokionez, arrazoiaren agindu orokorra da Jainkoa ohoratzea xedetzat duten zeinuak izatea. Halakoak dira, lehenik eta behin, otoitzak. Inork ere ez baitu pentsatzen artisau imagina-egileak direnik imaginak Jainko bihurtzen dituztenak, baizik berauei otoitz egiten dien herria.

Bigarrenik, eskerronezko otoitza, honexetan bereizten delarik Jainkoa jaurestean egiten den erregu-otoitzetik: erregu-otoitz hau hobaria jaso aurretik egiten dela, eta eskerrak ematea, aldiz, hobaria jaso ondoren. Baina xede bera dute batak nahiz besteak: Jainkoa aitortzea hobari oren, izandako nahiz izatekoen, autoretzat.

Hirugarrenik, opariak, hau da, sakrifizioak eta eskaintzariak, zeinek, onenetik hartuak baldin badira, ohore-zeinu diren: eskerronezko otoitzak baitira.

Laugarrenik, Jainkoaren eta ez beste inoren izenean zin egitea, jakina, ohore-zeinua da: bihotzaren barrena Jainkoak bakarrik ezagutzen duela aitortzea baita, eta ez dela giza talentu ez indarrik zinauslea Jainkoaren mendekutik babes dezakeenik.

Bosgarrenik, jaurespen razionalaren barne dago Jainkoari buruz begirunez mintzatzea, beraren beldur garelako esan nahi duelako eta beldurra Haren boterea aitortzea delako. Hortik dator Jainkoaren izena ez dela txitean-pitean eta zertarakorik gabe erabili behar, hau da, ez dela alferrik erabili behar. Eta zertarakorik gabe erabiltzea da, zin egiteko ez bada edo Estatuaren aginduz, epaiak ziurta daitezen edo Estatuaren arteko gerra ekidin dadin. Haren ohorearen kontra doa, halaber, Jainkoaren naturari buruz eztabaidatzea, zera suposatzea baita: Jainkoaren erresuma natural honetan ez dagoela ezer ezagutzerik arrazoi naturalaren bidez, hots, zientzia naturalaren printzipioetan oinarrituz izan ezik; zeinek, geure naturaz edo kultura bizidun apalenaren naturaz ezer irakasteko ezgai zaizkigun hein berean baititugu ezgai eta urruti, Jainkoaren naturaz zerbait irakats diezaguten. Beraz, gizakumeek arrazoi naturalaren printzipioetan oinarrituz Jainkoaren atributuen gainean eztabaidatzeari ekiten diotenean, hura desohoratu besterik ez dute egiten; zeren Jainkoari esleitzen dizkiogun atributu horietan ez baititugu egia filosofikozko esangurarik bilatu behar, baizik berari ahal bezain ohorerik handiena emateko dugun onginahizko asmoaren esangura. Horixe gogoan ez hartzearen sortu da Jainkoaren naturari buruzko eztabaidaz betetako hainbat liburu, haren ohorearen bila barik geure talentu eta jakinduriaren ohoretan idatzia, haren Izen Sakratuaren kontrako abusu hutsal eta begirunerik gabekoak besterik ez direnak.

Seigarrenik, arrazoi naturalaren diktatua dugu errege-otoitz, eskerronezko otoitz, eskaintza eta sakrifizioetan bakoitza bere sailean bikainena eta ohorea hobekien adierazten duena izatea. Esaterako, erregeak eta eskerronezko otoitzak hitz eta esaldi egokiekin eginak izatea, ez zirri-parra, arin batean eta baldarki, baizik edertasunez eta biribilki osatuak. Bestela ez diogu ematen Jainkoari ahal bezainbeste ohore. Hortaz, ateok zeharo argelki jardun zuten imajinak Jainkoak bailiren gurtuz, baina arrazoiz jokatu zuten bertsoz, kantuz eta musika tresnez baliatzean. Orobat, haiek sakrifizioetan eskaintzen zituzten animaliak, baita haiek eskainitako opariak eta jaurespen-egintzak ere, menekotasun osoz eta jasotako hobarien oroimenez egitea arrazoiaren arabera jokatzeko zen, beraiei Jainkoa ohoratzeako asmoak bultzatzen baitzituen.

Zazpigarrenik, arrazoiak ez digu agintzen soilik Jainkoa ezkutuan jaurestea, baizik batez ere publikoan eta jendaurrean. Zeren, horrela ezean, ohorean atsegingarrien dena galtzen baita: beste enparauek ere ohora dezatela, alegia.

Azkenez, beraren legeekiko obediencia da -kasu honetan, naturako legeekikoa, alegia- denetarik jaurespen handiena Jainkoarentzat. Izan ere, obediencia oparia baino onargarriagoa zaionez, halaxe zaio laidoetatik larriena beraren legeak bazterrerara uztea. Eta hauexek dira, hain zuzen, arrazoi naturalak gizabanako pribatuei diktatzen dizkien Jainkoaren gurtza horren legeak.

Baina gogoan izanez Estatu pertsona bakar bat baino ez dela, jaurespen-kultu bakar bat baino ez dio eskaini beharko Jainkoari, eta haxe da Estatu horrek egiten duena gizabanako pribatuek publikoki ospatzea eskatzen duenean. Eta haxe da kultu publikoa, zeinen nolakotasuna uniformea izatean datzan. Izan ere, gizabanako ezberdinek burutzen dituzten egintza desberdinei ezin zaie jaurespen publikoa deitu. Beraz, gizabanako pribatuen erlijio ezberdinetan jatorria duten jaurespen-kultu modu ezberdinak baimentzen direnean, ezin da esan ezelako jaurespen publikorik dagoenik, ezta ere Estatuak erlijio jakin bat duenik.

Eta hitzei, baita beraz Jainkoaren atributuei ere, gizakien adostasunetik datorkienez esanahia eta erakuntza, gizakumeek azaldu nahi duten ohorearen adierazgarri izan behar dute atributuok; eta gizabanako partikularren gurariz egin daitekeen oro, arrazoiak beste legerik ez dagoenetan, Estatuaren gurariz ere egin ahal da lege zibilen bidez. Eta Estatuak ez duenez beste guraririk eta ez duenez beste legerik egiten botere subiranoa duenak edo dutenak egin ditzatenak baizik, ondorioz, beraz, subiranoak Jainkoaren jaurespen-kultuan ohore-zeinutzat erabiltzeko agintzen dituen atributu horietatik hartu eta erabili behar dituzte gizabanako pribatuek beren jaurespen publikoan.

Baina egintza denek ez dutenez hartzen beren zeinutasuna erakuntzaz, baizik batzuk naturaz ditugunez ohore-zeinu eta beste batzuk laido-zeinu, azken hauek (gur egiten zaionaren aurrean burutzeak gizakumeei lotsa ematen dietenak, hain zuzen) ezin ditu ezein giza boterek Jainko-jaurespenaren osagaitzat agindu; lehenengoak ere ezin utzi daitezkeenez inoiz (portaera erabidetsu, apal eta umila, alegia) kultu horretatik at. Eta berez indiferente diren egintza nahiz zeinu ugari eta kontaezin ditugunez, Estatuak ohore-zeinutzat eta Jainkoaren jaurespen-kultuaren osaigaitzat publikoki eta unibertsalki erabiltzeko agintzen dituenak izanen dira menekoek onartu eta halakotzat erabili beharko dituztenak. Eta idazteunean esaten dena, Hobe da Jainkoari men egitea gizakiei baino, Jainkoaren itunezko erresumari dagokiona da, eta ez, aldiz, naturazkoari.

Jainkoaren erresuma naturalaz eta beronen legeez laburki mintzatu ondoren, haren zigor naturalei buruzko azalpen laburño bat besterik ez dut erantsiko kapitulu honetan. Ez da giza egintzarik bizitza honetan ondorio-katea luzeen hasiera ez denik, horren luzeak, non ezein giza aurrikuspen ere ez den aski zolia

gizakumeak azken katebegia hauteman dezan. Eta katea horretan gertakari atseginak nahiz desatseginak lotu ohi zaizkio elkarri, halako moldez non, bere atsegina xedetzat hartuz zerbait egin dezanak, atsegin horri eratzikirik datozkion nahigabe guztiak nozitzea besterik ez daukan; eta nahigabe horiexek dira, hain zuzen, on baino kalte gehiagoren hastapen diren egintza horien zigor naturalak. Horrexegatik gertatzen da neurrigabekeria gaixotasunez zigortua izatea naturalki, arrapaladak porrota eramatea zigortzat, injustiziak etsaien bortxa, harrokeriak hondamendia, koldarkeriak zapalkuntza, printzeen gobernu-utzikeriak errebelamendua, eta errebelamenduak sarraskia. Zeren kontuan hartuz zigorrak lege-haustearen ondorio direla, zigor naturalak naturako lege-haustearen ondorio naturalak izango baitira; eta, beraz, hausketo i efektu natural gisa, ez efektu arbitrario gisa, jarraitzen diete.

Eta honaino subiranoen erakuntza, natura eta eskubideei buruzkoa, baita menekoen betebeharrari buruzkoa, arrazoi naturalaren printzipioetatik ondorioztatzen denez. Eta orain, kontuan hartuz doktrina hau zein desberdina den munduko alde gehienetan praktikatzen denaren aldean, eta batez ere beraien ikasbide morala Erroma eta Atenasetik hartua duten mendealdekoetan, eta kontuan hartuz, halaber, zein filosofia moral sakona beharko luketen botere subiranoaren administrazioa dutenek, sinestear nago nire lan hau Platonen Errepublika bezain ezgauza izanen dela. Zeren haren iritziz ere ezinezko baita Estatuaren desordenuari eta gerra zibil bidezko gobernu aldaketei inoiz amaiera ematea, subiranoak eurak filosofo bihurtzen ez badira. Hala eta guztiz ere, gogoan hartzen dudanean justizia naturalaren zientzia dela subiranoek eta berauen ministrari nagusiek behar duten gauza bakarra -eta ez zaiela ezarri behar, beraz, matematika zientzien zamarik (Platonek ezarri nahi dien bezala), baizik nahikoa dela lege onak atera ditzaten zientzion ikasketara jendea bultzatzeko-, eta kontuan hartuz ez Platonek ez beste ezein filosofok ere ez duela orain arte ordenan jarri, ezta modu aski eta egiantzekoz frogatu ere, gizakumeek gobernatzen eta obeditzen ikasteko behar dituzten doktrina moraleko teorema guztiak, badatorkit berriro ere esperantzaren bat nire idazki hau noizbait subiranoren baten eskuetara irits dadin eta berak bere kabuz, beste pertsona interesaturen baten edo interpretari jeloskorren baten laguntza beharrik gabe, aintzat har dezan (zeren laburra baita eta, uste dudanez, argia); eta subiranotasun osoaren egikaritzaren bidez doktrina honen irakaskuntza publikoari babesa emanez, espekulazio mailako egia hau utilitate praktikodun bihur dadin.





# HIRUGARREN PARTEA

## Estatu kristauaz

### XXXII

Politika kristauaren printzipioez

Orain arte, naturako printzipioetatik baizik ez ditut deduzitu subiranoaren eskubideak eta menekoen betebeharrak: esperientziak egiazkotzat erakutsi dizkigun edo hitzen erabilerari buruzko adostasunak halakotzat finkatu dituen printzipioetatik, alegia. Hau da, esperientziak ezagutzera damaigun giza naturatik eta politika-arrazonamendu orotan funtsezko diren hitzen definizio unibertsalki onartuetatik. Baina jarraian aztergai dudan honetan, hots, ESTATU KRISTAU baten natura eta eskubideak -Jainkoaren nahiari buruzko errebelazio supernaturalen menpe dagoena hein handi batean-, Jainkoaren hitz naturalean ezezik, haren hitz profetikoan ere oinarritu beharra daukat nire diskurtsoa.

Nolanahi ere, ez ditugu bazterrerara utzi behar gure zentzuak eta gure esperientzia, ezta ere Jainkoaren hitz segurua den gure arrazoi naturala. Hauexek direlako, izan ere, Hark gure eskuetan jarri dituen talentuak, gure Salbatzaile bedekatuaren bigarren etorrerara arte negoziatzen ditzagun; eta ez ditugu estali behar, beraz, fede inplizitu baten estalkiz, baizik justizia, bakea eta egiazko erlijioa eskuratzeko erabili. Izan ere, Jainkoaren Hitzean gauza asko diren arren arrazoiz gaindikoak, hau da, arrazoi naturalaren bidez ezin direnak demostratu ez errefutatu, bat bera ere ez da arrazoiaren aurka dagoenik; eta horrela dela ematen duenean, geure interpretazio traketsean edo arrazoiaketa okerrean datza errua.

Beraz, Idazteunean idatzirik dagoen zerbait ulertzen zail egiten zaigunean, gure adimena hitzetara meneratzea besterik ez daukagu, eta ez ekin logikaren bidez egia filosofikoren bat bilatu nahian, ulergaitzak zaizkigun eta zientzia naturalaren ezein araren pean ez dauden misterioen aurrez aurre aurkitzean. Zeren gure erlijioko misterioekin ere gaixoei pastilekin gertatzen zaiena baitago: osorik irensten direnean sendagarri direla, baina mastekatzuz gero, gehienetan oka eragin eta indarge bihurtzen direla.

Baina gure adimena meneratzeak ez du esan nahi adimendu-ahalmen hori beste gizakumeren baten iritziaren menpe jartzea, baizik obeditzeko borondatea izatea obedientzia behar denean. Ez dago gure ahalean, izan ere, zentzumena, oroimena, adimena, arrazoimena eta irizmena aldaraztea; aitzitik, ikusten, entzuten eta oldozten ditugun gauzek iradokitzen digutenaren arabera aldatzen dira beti eta nahitaez. Ez ditugu, beraz, nahimenaren efektuak, baizik nahimena dugu haien efektua. Horrela, kontraesanen bat ekidin nahi dugunean, gure adimena eta arrazoimena meneratu egiten ditugu; legezko autoritateak agintzen digun bezala mintzatzen garenean; eta agindutakoaren arabera bizi garenean: hau guztia, azken batean, hitz egiten digunarengan konfidantza eta fedea jartzea da, gure adimena gai izan ez arren hark esaten dizkigun hitzen noziorik arean ere jasotzeko.

Jainkoa gizakiari mintzo zaionean, edo zuzenki hitz eginez, edo aurretiaz zuzenki hitz egin dion gizakumeren baten bitartez izan behar du. Jainkoa gizakumeari zuzenki nola mintzo zaion aski ondo uler dezakete, noski, Hark era horretara hitz egin dienek, baina zail du ulertzen, ezinezko ez esatearren, beste edonork. Zeren baten bat badatorkit Jainkoak era supernaturalez eta zuzenean hitz egin diola esanez, eta nik zalantzan jartzen badut, ez zait erraz bururatzen hark zer argudio erabil dezakeen berak diostana sinets diezaiodan. Egia da, izan, gizakume hori subiranoa badut, men egitera behar nazakeela, eta berarengan sinesten ez dudarik ez adieraztera, ez hitzez ez egitez. Baina nire gain horrelako autoritatetik ez duen norbaitek gauza bera eskatuko balit, ezin exigi liezadake berari sinesterik ez obeditzerik.

Zeren Jainkoak Idazteunean hitz egin diola esateak ez baitu esan nahi zuzenki hitz egin dionik, baizik profeten, edo apostoluen, edota Elizaren bitartez, gainerako kristau guztiei bezalaxe. Jainkoak ametsetan hitz egin diola esatea, berriz, Hark hitz egiten ziolako ametsa izan duela esatea besterik ez da, eta horrek ez dauka nahikoa indar, jakina, amets gehienak fenomeno naturalak direla eta arestiko pentsamentuetatik etor daitezkeela dakien baten sinespidea irabazteko; eta horrelako ametsak, gainera, gizakume batek bere santutasunaz -edo halako errebelazio apartekoa ustez merezi izateko duin egin bide duen beste bertuteren batez- duen buruiritziaren, harrokeria tentelaren eta bere buruarekiko uste okerraren ondorio besterik ez dira. Ikuskari bat izan duela edo ahots bat entzun duela esatea, berriz, amets eta esna bitarteko egoera batean amets egin duela esatea da: horrelaxe gertatu ohi delako sarritan norbaitek bere ametsak ikuskaritzat hartzea erraz eta berez, erdi-lotan egon dela ez kargutzearren. Inspirazio supernaturalez ari zaigula berbetan esatea, aldiz, hitz egiteko gogo bizi batek bultzatzen duela esatea da, edo bere buruaz iritzi sendoren bat duela, horren arrazoi aski eta naturalik ematerik ez daukalarik. Honenbestez, nahiz eta Jainko Guztiahaldunak bai hitz egin diezaiokeela gizakumeren bati amets, ikuskari, ahots eta inspirazioen bidez, horrek ez du esan nahi Jainkoak hitz egin diola dioskunari sinespidea eman behar diogunik nahitaez; oker egon daitekeelako (gizakia denez), edo, are gehiago, gezurretan ibil daitekeelako.

Zelan jakin dezake, bada, Jainkoak bere nahia inoiz zuzenki errebelatu ez dion batek (arrazoi naturalaren bidez izan ezik), profetatzat aurkeztzen zaion norbaiten bitartez datorke hitza noiz obeditu behar duen eta noiz ez? Israelgo erregeak Galadeko Ramot-en aurkako gerrari buruz aholku eskatu zien lauhun profetarik, Mikeas besterik ez zen egiazkoa (1 Erg. 22). Jeroboamek eraikitako aldarearen kontra profetatzerako bidalitako profeta hura ere (1 Erg. 13), egiazko profeta zen arren, eta erregearen aurrean egindako mirakuluak medio Jainkoak bidalitako profeta zirudien arren, beste profeta zahar batek engainatu zuen, zeinek, Jainkoaren ahotik hitz egiten ziolakoan, berarekin jatera eta edatera limurtu baitzuen. Profeta batek beste profeta bat engaina badezake, zer ziurtasun izan daiteke Jainkoaren nahia ezagutzeko arrazoiaren bidez izan ezean? Galdera horri Idazteunari jarraiki erantzungo diot, bi ezaugarri direla egiazko profeta bat ezagutu ahal izateko, baldin biak batera, ez banan, ematen badira. Bata mirakuluak egitean datza; bestea, berriz, indarrean dagoen erlijioaren kontrako ezer ez irakastea. Banan, diot, bietarik bata ere ez da aski. Gerta daiteke profeta edo ikusketariaren bat zuen artean agertzea, eta, mirari edo egintza harrigarriaren bat iragarritz, ezezagunak dituzuen jainko arrotzen atzetik joan eta gurtzeko eskatzea; iragarritakoa egiaz gertatuko balitz ere, ez egin kasurik profetaren esanei, etab. Delako profeta edo ikusketaria, berriz, hil egin behar da, zuen Jainko Jaunaren aurka errebelatzea predikatu duelako (Deut. 13, 1-5). Hitz horietan bi gauza ditugu aintzat hartzekoak: profeta baten deia onartzeko, Jainkoak ez dituela nahikotzat jotzen mirakuluak soilik, baizik, hirugarren bertsetean esaten denez, Berarenganako atxikimendu iraunkorra agertzea. Hortxe dira, izan ere, egiptiar aztien eginak, Moisesenak bezain handiak ez izan arren, mirakuluak hala ere. Bigarrenik, den mirakulurik handiena bada ere, erregearen aurkako edo errege-autoritatez gobernatzen duenaren aurkako errebelatzea piztera badoa, horrelako mirakuluengandik erregearen eta herriaren arteko ituna neurtzera datorren bidalitzat besterik ez da hartu behar. Zeren hitz hauek, zuen Jainko Jaunaren aurka jaiki, beste hauen kideko baitira hemen: zuen erregearen aurka jaiki. Izan ere, juduek beren Jainkoa erregetzat jarria zuten, Ituna medio, Sinai mendi barrenean; eta Jainkoak Moisesen bitartez gobernatu zituen soil-soilik, berak bakarrik hitz egiten zuen Jainkoarekin, beronen manamenduak noizean behin herriari ezagutzera emanez. Era berean, Kristo gure Salbatzailea bere dizipuluei Mesiasatzat ezagutzera eman ondoren -hau da, judutar nazioak bere erregetzat egunez egun itxarondako Jainkoaren gantzututzat (nahiz eta etorri zitzaizkion uko egin)-, ez zitzaion ahaztu, ez, mirakuluengandik arriskuaz haiei ohartaraztea. Izan ere, gezurrezko mesiasak eta sasiprofetak agertuko dira eta aukeratuak berak ere, ahal balitz, engainatzeko moduko mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte (Mt. 24, 24). Zera esan nahi baitu, profeta faltsuek mirakuluak egiteko ahalmena izan dezaketela, baina, hala ere, ez dugula hartu behar haien doktrina Jainkoaren berbatzat. San Paulok haxe diotse, gainera, Galaziarrei: norbaitek, ni neu nahiz zeruko aingeruren bat izanik ere, hots egin nizuena ez beste berrion bat hotsegiten badizue, izan bedi madarikatua (Ga. 1, 8). Ebanjelio hark Kristo Erregea zela zioen; honenbestez, San Paulok anatematizat jotzen du, bere hitz horien ondorioz, erregetzat hartutakoaren boterearen aurkako edozein prediku. Zeren San Pauloren hitz horiek, hain zuzen, beraren predikatuaren bidez Jesus dagoeneko Kristotzat, hau da, Juduen Erregetzat, onartua zutenei zuzendurik baitaude.

Eta mirakuluekin gertatzen dena Jainkoak agindutako doktrinaren predikatuarekin bat ez datozenean, beste horrenbeste gertatzen da egiazko doktrina mirakulurik gabe predikatzen denean: ez dela, alegia, zuzeneko errebelazioaren aski argumentu. Zeren doktrina faltsurik irakasten ez duen norbaitek profeta izan gura balu mirakulurik aurkeztu gabe, bere guraria gorabehera, ez da sekula ere aintzakotzat hartu behar, Deuteronomioak argi eta garbi dioenez (Dt. 18, 21-22): Beharbada, galdegingo duzue: "Nola jakin profetak adierazitako mezua Jaunaren hitza den ala ez?" Hona: profetak Jaunaren izenean adierazia betetzen ez bada eta iragarri duena gertatzen ez, seinalea Jaunaren hitza ez dela; harrokeriak eraginda hitz egin du profeta delako horrek. Ez izan, beraz, beraren beldur. Baina baten batek galde dezake berriro: profetak zerbait iragarri duenean, zelan izango dugu, baina, jakiterik hura gertatuko den ala ez? Zeren baliteke iragartzea gertakari hura denboraldi luze baten ondoren gertatuko dela, giza bizitzak hartzen duen denboraz harandi; edo denbora mugarik gabe gerta daitekeela, edozein unetan, eta kasu horretan alferrekoa izanen da profetaren ezaugarri hau; beraz, profeta bati sinespidea ematera behartzen gaituzten mirakuluak berehalako edo epe labur bateko gertakari baten berrespena behar dute. Garbi dago, honenbestez, Jainkoak agindutako erlijioa irakastea eta unean bertan egindako mirakulua zirela, gauza biok batera, Idazteunak norbait profetatzen hartzeko, hots, zuzeneko errebelazioa ezagutu ahal izateko ezaugarri bakarrak. Baina ez bata ez bestea direla nahikoa, banan harturik, hark dioena aintzakotzat hartzera inor behar dezaten.

Ikusirik, beraz, gaur egun ez dela mirakulurik, ez daukagu zeinu bat ere ezein gizakume pribaturen balizko errebelazioak edo inspirazioak ezagut ditzagun; ezta ere Idazteunen araberakoa ez den ezein doktrinari jaramonik egiteko beharkizunik, zeren Idazteunok baitira gainontzeko profetia guztien ordezkariak eta profetia guztien hutsunea sobera betetzen dutenak gure Salbatzailearen garaiaz geroztik; eta Idazteunotatik deduzi daitezke erraz, interpretazio zehur eta adituaren bidez eta arrazoiketa artatsua medio, Jainkoarenganako nahiz gizakiarenganako ditugun betebeharrak ezagutzeko beharrezko arau eta manamendu guztiak, ikuskari misteriotsuen edo inspirazio supernaturalen beharrik gabe. Eta Idazteun

horrexetatik hartuko ditut nik ere neure diskurtsoaren printzipioak, Estatu Kristauen gobernari gorenak mundu honetan dituzten eskubideak eta meneko kristauak beren subiranoenganako dituzten betebeharrak azaltzean. Helburu horrekin, Bibliaren liburuez, idazleez, xedeaz eta autoritateaz mintzatuko natzaizue hurrengo kapitulu honetan.

## XXXIII

Idazteuneko liburuen kopuruaz, antzinatasunaz, xedeaz, autoritateaz eta interpretatzaileez

IDAZTEUNEKO Liburuak esatean, kristau bizitzaren canon edo arautzat hartu behar direnak esan nahi da. Eta gizakumeak kontzientziaz betetzera beharturik dauden bizi-arauak oro legeak direnez, honexetan datza Idazteunaren gakoa: Kristandade osoaren barna legea, naturala nahiz zibila, zertan den. Zeren Idazteunean ez den arren zehazten zeintzuk lege ezarri behar dituen monarka kristau bakoitzak bere manupeko lurraldeetan, bai zehazten dela zeintzuk ez dituen ezarri behar. Kontuan hartuz, beraz, lehenago frogatu dudanez, subiranoak direla legegile bakarrak beraien lurraldeen barruan, autoritate subiranoak halakotzat jarritako liburuak besterik ez dira izanen kanonikoak, hots, legeak nazio bakoitzean. Egia da Jainkoa dugula subiranoen Subirano, eta men egin behar zaiola, beraz, menekoren bati mintzo zaionean, nahiz eta mundu honetako edozein agintedunek bestelakorik agindu. Baina hemengo arazoa ez datza Jainkoari obeditzean, baizik noiz eta zer esan ote duen: erbelazio supernaturalik hartu ez duten menekoek ezagutzerik ez dutena, hain zuzen, arrazoi naturalaren bidez ez bada -bakea eta justizia lor dadin, beraien Estatuetakako autoritateari, hots, legezko subiranoei, obeditzera bideratzen dituen arrazoi natural horren bidez, alegia. Obligazio horren arabera, berriz, ez daukat Idazteuntzat onartzerik Itun Zaharreko beste libururik, Ingalaterrako Elizaren autoritatez halakotzat onartzea agindu zaizkigunak baino. Aski ezaguna da liburuok zeintzuk diren, leku honetan zerrenda eman beharrik gabe; San Jeronimok onartu zituen berberak dira, gainerako hauek, ordea, Apokrifotzat jotzen dituelarik: Salomonen Jakinduria, Judit, Tobias, Makabearren lehen eta bigarrena (nahiz eta lehen hebraieraz ikusi zuen), eta Esdrasen hirugarrena eta laugarrena. Kanonikoei dagokienez, Domiziano enperadorearen garaian idatzi zuen judutar eruditut batek, Josefok, hogeita bi zerrendatu zituen, hebraitar alfabetoaren arabera zerbakiak osatuz. San Jeronimok ere gauza bera egiten du, batak eta besteak modu ezberdinez kalkulatzeko dituzten arren. Izan ere, Josefok Moisesen bost Liburu zerrendatzen ditu, euren garaiko historia idatzi zuten Profetenak hamahiru (ikusiko dugu geroago hori zein neurritan datorren bat Biblian datozen profeten idazkiekin), eta lau gorasarre eta Agindu moral. Baina hara zelan kalkulatzeko dituen San Jeronimok: Moisesen bost liburu, Profetenak zortzi, eta beste bederatzi Liburu Santu, berak hagiografo deitzen dienak. Lege judua hebraieratik grekora itzultzeko Tolomeo Egiptoko erregeak bidali zituen Hirurogeita Hamarrak deitutako hirurogeita hamar judutar jakintsu haiek ez ziguten besterik utzi Idazteuntzat grekoz, Ingalaterrako Elizak halakotzat onartu duena baino.

Itun Berriko Liburuei dagokienez, kristau eliza guztiek eta liburu kanonikorik onartzen duten kristau sekta guztiek ezagutzen dituzte era berean canon gisa.

Idazteuneko Liburu ezberdinen idazle jatorrizkoak nortzuk izan ziren, ez du aski argi erakutsi Idazteunaz kanpoko beste ezein testigantza historikok (hauxe bailitzateke egitate-argibide bakarra); eta ezin daiteke frogatu ezta ere arrazoi natural mailako argibidez, zeren arrazoiak dedukzio-egiez (eta ez egitate-egiez) konbentziazteko baino ez baitu balio. Arazo honetan gidatzat hartu behar dugun argia, beraz, liburutatik eurretatik datorkiguna da; eta argi horrek ez digun arren erakusten nor izan zen liburu bakoitzaren idazlea, bai baduela bere balioa, halere, liburuok zein garaitan idatziak izan ziren jakitera emateko.

Honenbestez, eta Pentateukoari dagokionez lehenik, Moisesen Bost Liburuak deitzea ez da aski argumentu Moisesek idatzi zituela frogatzeko, Josueren Liburua, Epailen Liburua, Ruten Liburua eta Erregeen Liburua izenburuak ere aski argumentu ez direnez liburuok Josuek, Epaleek, Rutek eta Erregeek idatzi zituztela frogatzeko. Izan ere, liburuen izenburuek gaia adierazi ohi dute, idazlea bezain sarritan. Livoren Historiak idazlea adierazten du, eta Alexandroren Historiak, berriz, gaia. Zera irakurtzen dugu Deuteronomioaren azken kapituluak, 6. berts., Moisesen hilobiari buruz: eta inork ere ez du gaur arte haren hilobi-tokia ezagutu, hau da, hitz horiek idatziak izan ziren arte. Bistakoa da, beraz, hitzok haren ehorzketaren ondoren idatziak izan zirela. Interpretazio bitxia bailitzateke, izan ere, Moises, oraindik bizirik zegoenean, bere hilobiaz berbetan aritzea (nahiz eta profezia erara), hilobi hori ez zela egun hartara arte ezagutuko esanez. Baina argudia daiteke agian azken kapitulu hori soilik, ez baina gainontzeko Pentateuko osoa, idatzi zuela besteren batek. Har dezagun gogoan, hortaz, Hasiera liburuan aurkitzen dugun hau (Has. 12, 6): Abrahamek lurraldea igaro zuen Sikem deritzan lekuraino, Moreko artadairaino. Kanaandarrak ziren garai hartan bertako bizilagun. Hitzok, ordea, Kanaandarrak lurralde hartan bizi ez ziren garaian idatzi zuen baten batenak izan behar dute, eta ez Kanaanera iritsi baino lehenago bizi izan zen Moisesenak, beraz. Era berean, Zenbakiak 21, 14.ean idazleak antzinagoko liburu bat aipatzen du, Jaunaren Guduen Liburua, zeinetan Moisesek Itsaso Gorrian eta Arnon errekan

egindakoak jasotzen diren. Aski garbi dago, beraz, Moisesen bost Liburuak haren ondorengo garaian idatziak izan zirela, nahiz eta hain argi egon ez zenbat denbora geroago.

Baina Liburuok Moisesek berak bildu ez arren osoro eta gaur egun ditugun erara, bai idatzi zuela, hala ere, liburuotan berak idatzikotzat aipatzen den guztia: Legearen Liburua esaterako, Deuteronomio 11tik hasi eta 27. kapitulura arte bildurik dagoena, antza denez, eta harlosan idaztea agindu zitzaiona Kanaango lurraldean sartzean. Hori, bada, Moisesek berak idatzi zuen (Dt. 31, 9-10) eta Israelgo apaiz eta zaharrei eman zien zazpi urterik behin Israel osoaren aurrean irakur zezaten, Etxola Jaira biltzerakoan. Eta Lege horixe da, hain zuzen ere, Jainkoak errege israeldarrei (gobernabide hori ezarri ondoren) apaiz eta lebitarrendik kopia bat eskura zezaten agindu ziena; eta Lege horixe da Moisesek Kutxaren aldamenean ipintzeko agindu ziena apaiz eta lebitarrei; eta Lege horixe, galduta egon ondoren, Hilkiassek askoz geroago aurkitu zuena eta Josias erregeari bidali ziona (2 Erg. 22, 8), zeinek herriari irakur zekion agindu zuen (2 Erg. 23, 1-3), Jainkoaren eta haien arteko ituna berriztatuz horrela.

Josueren Liburua ere Josue bera baino askoz geroago idatzi zela, Liburu horren pasarte askotatik deduzi daiteke. Josuek hamabi harri ipini zituen Jordan ibaiaren erdian, herria handik iragan zeneko oroigarritzat. Eta haxe dio idazleak harri haiez: Eta oraindino ere hantxe daude gaur arte (Jos. 4, 9); zeren gaur arte esateak iragandako denbora adierazten baitu, gizakien oroimenaz haraindikoa. Halaber, Jainkoak herria Egiptoko gerenetik askatu zuela esan ondoren, haxe dio idazleak: Toki hari, gaur arte, izena Gilgal jarri zioten (Jos. 7, 9); eta hori Josueren garaiaz esatea desegokia zitekeen. Orobat, Akor Haranaren izenaz ere, Akanek kanpamenduan sortu zuen asalduatik datorkion izena, idazleak dio gaur arte iraun duela (Jos. 7, 26); Josueren garaia baino askoz geroago idatzia izan behar duena, beraz. Ildo bereko beste argumentu asko dira, adibidez Jos. 8, 29; 13, 13; 14, 14; 15, 63.

Gauza bera ageri da, antzeko argumentuengatik, Epaileen Liburuaren 1.21 eta 26an, 6.24an, 10.4an, 15.19an, 17.6an eta Rut 1, 1ean, baina bereziki Epaileak 18, 30ean, non haxe esaten baita: Jonatan lehenbizi eta beronen semeak gero, Danen leinuko apaiz izan ziren, erbestaldira arte.

Antzeko argumentuak dira Samuelen Liburuak ere haren garai ostean idatzi zirela frogatzen dutenak, 1 Sm. 5.5, 7.13, 15, 27.6... eta 30.25, zeinetan idazleak haxe dioen, Dabidek harrapakinaren zati berdina banatu zienean munizioa gorde zutenei eta borrokan esku hartu zutenei: Eta Israelen arau eta lege bezala bete ohi da jokabide hori gaurdaino. Eta beste behin, Dabid haserre zegoelarik Jaunak Uzzah hil egin zuelako Kutxari eusteko eskua luzatzearen, eta toki hari izena Perez-Uzzah ezarri zionean, idazleak dio oraintxe ere izen hori daukala. Beraz, gertakarion garaia baino askoz geroago idatzi zen liburu hori, hau da, Dabiden garaia baino askoz geroago.

Erregeen Liburu biei eta Kroniken biei dagokienez, idazlearen esanetan gaurdaino kontserbatzen diren monumentuak aipatzen dituzten pasarteek gain -hona hemen pasarteok: 1 Erg. 9.13, 9.21, 10.12, 12.19, 2 Erg. 2.22, 8.22, 10.27, 14.7, 16.6, 17.23, 17.34, 17.41, 1 Kro. 4.41, 5.26-, aski frogatzen da liburuok Babiloniako gatibaldiaren ondoren idatzi zirena, kontatzen duten historia garai horretara arte hedatzea. Zeren jasotzen diren datuak beti baitira jasotzailearen garaia baino lehenagokoak, eta historialariak izendatzen eta aipatzen dituen liburuak baino askoz lehenagokoak; eta halako aipamen asko ageri da liburu horietako pasarte ezberdinetan; hortxe ditu irakurleak Judako Erregeen Kronikak, Israelgo Erregeen Kronikak, Samuel profetaren Liburuak, Natan profetarenak, Ahijah profetarenak, Jehdoren ikuskaria, Servias profetaren liburuak eta Addo profetarenak.

Esdras eta Nehemiasen liburuak, dudarik gabe, gatibalditik itzuli ondoren idatziak dira; liburuotan, izan ere, itzulerako kontuak, hala nola Jerusalemgo murruek eta etxeen berreraiketa, Itunaren berriztapena, eta politika antolamendua kontatzen baitira.

Ester Erreginaren historia gatibaldi garaikoa da, eta egileak, beraz, garai horretakoa edo geroagokoa izan behar du.

Joben liburuan ez da aurkitzen idatzi zen garaiko ezaugarri bat ere; eta aski argi ageri den arren (Ezekiel 14, 14 eta Santiago 5, 11) ez zela izan fikziozko pertsonaia, liburuan kontatzen denak ez dirudi historia jakin bat, baizik antzinatean oso eztabaidatua zen arazo bati buruzko tratatu bat, alegia, zer dela-eta gaizkileek gora egitea sarritan mundu honetan, eta gizakume zintzoek tamala jasan beharra. Eta diogun hori are daitekeenago bihurtzen da ondoko honegatik: hasieratik hirugarren kapituluko hirugarren bertsetera arte, Joben erostak hasten diren arte, hebraierazko testua prosaz idatzita dagoela, San Jeronimoren lekukotzaz dakigunez; eta hortik hasi eta azken kapituluaren seigarren bertsetera arte, berriz, bertso hexametrotan; eta kapituluaren gainerakoa berriz ere prosaz. Hortaz, eztabaida-testu guztia bertsoz dator, eta prosa hitzaurrean eta azken hitzatzean besterik ez da erabiltzen. Baina bertsoa ez da, hain zuzen ere, Job bezalako atsekabe handia dutenen kasuan edo kontsolatzera datozkion lagunaren kasuan erabili ohi den espresamoldea; baina bai dela ohikoa antzinatean bertsoa, ordea, filosofia arloan, filosofia moralean bereziki.

Salmo gehientsuak koruan abesteko egin zituen Dabidek. Hauei Moisesen eta beste gizon santu batzuen zenbait kantu eransten zaizkie, eta horietariko batzuk gatibalditik itzuli ostekoak dira, 137 eta 126

adibidez, argi dagoelarik, honenbestez, Salmotegia juduak Babiloniatik itzuli ondoren bildumatu zela, eta orduantxe jarri zela gaur egun dagoen erara.

Esaera Zaharrok, batzuk Salomonen, beste batzuk Agur, Jakeh-en semearen, eta beste batzuk Lemuel erregearen amaren esaera zuhur bezain santuen bilduma direnez, ezin pentsa liteke probabilitatez ez Salomonek berak, ez Agurrek, ez Lemuelen amak bildu zituenik. Eta, esaerak euronak badira ere, liburu honetan biltzea eta bildumatzea, berriz, denon ondoren bizitzea tokatu zitzaion beste gizakume jainkozalaren baten lana izan zen.

Kohelet eta Kantarik Ederrena liburuetakoa den-dena da Salomonena, izenburuak edo inskripzioak izan ezik. Ezen badirudi, Dabiden seme eta Jerusalemgo errege Koheleten esanak eta Salomonen Kantarik Ederrena izenburuak Liburu Santuak Lege-gorputz bakar batean bildurik zeudenean jarriak direla, doktrina bakarrik barik, egileak ere hantxe ager zitezen.

Profetetarik zaharrenak Sofonias, Jonas, Amos, Oseas, Isaias eta Mikeas dira, zeinek Amazia eta Azaria (beste izen batez Osias) Judako erregeen garaian bizi baitziren. Baina Jonasen liburua ez da propioki haren profezien bilduma -haren profezia hitz gutxi hauetan biltzen baita, Berrogei egun, eta Ninive suntsitua izan da-, baizik herri horren gaiztakeria eta Jainkoaren manamenduekiko tema azaltzen duen historia edo kontaketa. Egiantz gutxi du, beraz, Jonas bera izatea egile, berari buruz diharduen liburua dela kontuan izanez. Amosen Liburua, ordea, beronen profezia da.

Jeremiasek, Abdiasek, Nahumek eta Habakukek Josiasen garaian eman zituzten beren profeziak.

Ezekielek, Ageok eta Zakariak, berriz, gatibaldian.

Ezin da atera beren idazkietatik Joelek eta Malakiasek noiz profetizatu zuten. Hala ere, beraien liburuen inskripzioak edo izenburuak kontuan hartuz, garbi ageri da Itun Zaharreko Eskritura osoa, gaur egun ezagutzen dugun erara, juduek Babiloniako gatibalditik itzuli ondoren eratu zela, Tolomeo Filadelforen garai aurretik, berau izan baitzen grekora aldatzea agindu zuena, horretarako Judeatik bidali zitzaizkion hirurogeita hamar itzultzaileen bidez. Eta puntu honetan liburu Apokrifoei sinespidea ematen bazaie -zeinek kanonikoak ez izan arren, Elizak berak gomendatzen baitzikigu irakatsia jaso dezagun liburu onuragarritzat-, Idazteuna, gaur ezagutzen dugun erara, Esdrasek eratu zuen; beronek bigarren liburuan (14. kapituluko 21, 22 eta ondoko bertsetetan) dioskunetik atera daitekeenez, non, Jainkoaz hitz egitean, honela dioen: Zure legea erre egin da; inork ere ez ditu ezagutzen, beraz, Zuk egin dituzun gauzak edo hasi beharreko lanak. Baina Zure ederra lortu baldin badut, bidali iezadazu Izpiritu Santua eta munduaren hasieratik egin den guztia, legean idatzita zegoena, jarriko dut idatziz, gizakumeek Zure bidea aurki dezaten, eta azken egunean bizi direnek bizirik iraun dezaten. Eta 45. bertsetean: Eta hauxe gertatu zen berrogei egunen buruan, Ahaltsuak hitz egin zuela, esanez: Argitara ezazu lehenengo idatzi duzuna, duinak nahiz ezduinak irakur dezaten, baina gorde itzazu hirurogeita hamar azkenak, herrikoen artean jakintsu direnei soil-soilik eman diezaizkiezun. Eta honenbestez amaitzen da Itun Zaharreko liburuak idatzi ziren garaia buruzkoa.

Itun Berriaren idazleak belaunaldi bat baino aldi laburragoaren barruan bizi izan ziren denak ere Kristoren Igokundearen ostean, eta denek ikusi zuten gure Salbatzailea edota haren dizipuluak izan ziren, San Paulo eta San Lukas izan ezik. Beraz, beraiek idatzi zuten guztiak Apostoluen garaiko antzinatasuna du. Baina ez da horren antzinakoa, ostera, Itun Berriko liburuok haien idaztitzat Elizak onartu eta ezagutu zituen garaia. Izan ere, Itun Zaharreko liburuak Esdrasen garaia baino goragotik ez datozkigunez -bera izan baitzen bildu zituen, Jainkoaren Izpirituak gidaturik, liburuok galduta zeudenean-, Itun Berrikoak (zeinen kopia askorik ez zegoen eta erraza ere ez zen guztiak partikular baten eskuetara biltzea) ezin iritsi, ordea, eliz agintariek liburuok bildu, onartu eta izenpetzen dituzten Apostolu eta dizipulu horien idaztitzat gomendatu zizkiguten garaia baino lehen. Liburu guztien zerrenda, Itun Zahar nahiz Berrikoena, Apostoluen Kanonetan ageri da, San Pedroren ostean Erromako lehen apezpiku izan zen Klementek bilduak, uste denez. Baina hori uste bat besterik ez denez, eta askok ezbaian jarria, Laodizeako Kontzilioa da orduko kristau elizei Biblia gomendatu zien lehena, guk dakigunez, Profeten eta Apostoluen idaztitzat. Eta Kontzilio hori Kristoren osteko 364. urtean egin zen. Eta garai horretan, egia den arren handinahia nagusi zebilela Elizako Doktore handien artean -enperadoreak, nahiz eta kristauak izan, herriaren artzaintzat barik arditzat hartzeraino, eta kristau ez zirenak otsotzat-; eta egia den arren beraien doktrina legetzat hartzea nahi zutela, gobernari absolutuei dagokienez, eta ez aholku eta informazio soiltzat, predikariei dagokienez; eta iruzur horiek kristau doktrinaren menekoenak elizkoi bihurtzera zihoazen arren, konbentziturik nago, hala ere, haiek ez zutela Eskrituren faltsifikaziorik egin, nahiz eta Itun Berriko liburuen kopiak elizgizonen eskuetan zeuden eta ez beste inorenean. Zeren faltsifikazio asmorik izan balute, diren baino aldekoago bihurtuko baitzituzten, ziur aski, kristau printze eta subiranotasun zibilaren gain zuten boterearekiko. Ez dakusat arrazoirik, beraz, Itun Zahar eta Berriak, gaur egun ditugun bezala, Profetek eta Apostoluek behinola egindako eta esandako gauzak fideltasunez jasotzen dituztela zalantzan jartzeko. Eta beste horrenbeste agian apokrifoei deitzen zaion liburuetariko batzuez ere, kanonetik at geratu direnak, ez berauen doktrina gainerakoenarekin bat ez datorrelako, baizik hebraieraz idatzita ez daudelako. Izan ere, Alexandro Handiak Asia konkistatu ondoren, judutar ikasi gutxi ziren grekoa menperatzen ez zutenak. Zeren Biblia grekora itzuli zuten hirurogeita hamar interpretatzaileak hebraitarrek baitziren denak; eta hortxe kontserbatzen ditugu Filon eta Joseforen lanak, biok juduak

izanik ere, grekoz dotore idatziak. Baina ez da autorea, baizik Elizaren autoritatea, liburu bat kanoniko bihurtzen duena. Eta Liburuok egile ezberdinek idatzita dauden arren, nabari da autore guztiak izpiritu bakar berean murgildurik zeudela, xede berberaren bila zihoazelako: hots, Jainko Aita, Semea eta Izpiritu Santuaren Erreinuaren eskubideak nabarmentzera. Izan ere, Hasierak Jainkoaren herriaren genealogia dakar munduaren sorreratik hasi eta Egiptoko ihesera arte; Moisesen gainerako lau liburuek, aldiz, Jainkoa juduen erregetzat hautatzea eta Hark bere gobernamenturako agindu zituen legeak; Josue, Epaileak, Rut eta Samuelen liburuek Jainkoaren herriak eginak deskribatzen dituzte Saulen garaira arte, Jaunaren uztarria astindu eta auzoko nazioen moduko errege bat eskatu zuten arte. Itun Zaharreko gainontzeko historiak Dabiden leinuaren ondorengotzaren berri ematen du gatibaldira arte, eta leinu horretatik sortuko zen gero Jainkoaren erresumaren berriztatzailea, Jainkoaren Semea, gure Salbatzaile bedekinatua, zeinen etorrera Profeten liburuetan iragarri baitzen, eta Haren bizitzaz, baita lurrean bizi zen bitartean burutu zituen egintzez eta galdatu zuen erresumaz ere, ebanjelariak idatzi baitzuten. Eta, azkenez, Apostoluen Eginak eta Epistolak, Jainko Izpiritu Santuaren etorrera iragartzen dutenak eta Honek apostoluoi eta berauen ondorengoei utzi zien autoritatea juduak gidatzeko eta jentilak onbidertzeko. Azken batez, bai Itun Zaharreko historia eta profeziek, baita Itun Berriko Ebanjelio eta Epistolek, xede bakar berbera izan dute, hots, gizakumeak Jainkoaren esanera bihurtzea: 1., Moises eta Apaizengan; 2., Kristo gizasemearengan; eta 3., Apostoluen eta botere apostolikoaren ondorengoengan. Hiru horietatik baitira garai ezberdinetan Jainkoaren pertsona ordezkatu zutenak: Moises eta beronen ondorengo diren Apaiz Nagusiak eta Judako Erregeak Itun Zaharrean; Kristo bera, mundu honetan bizi zen bitartean; eta Apostoluak eta euren ondorengoak Mendekoste egunetik hasi, Izpiritu Santua haiengana jaitsi zenetik, eta gaurdaino.

Arazo oso eztabaidatua dugu kristau erlijioaren sekta ezberdinen artean, Liburu Santuei nondik ote datorkien beraien autoritatea, beste era batera ere planteatu ohi dena batzuetan, alegia, zelan dakigun Liburu Santuak Jainkoaren hitza direla, edo zergatik uste dugun horrela direla. Eta arazo honi irtenbidea emateko zailtasuna, batik bat, arazoa bera adierazteko erabiltzen diren hitzen desegokitasunean datza. Zeren denen ustetan baita Idazteunon lehen eta jatorrizko autorea Jainkoa bera dela; eta beraz, ez datza horretan eztabaidagaia. Halaber, nabari da inork ere ezin duela jakin Jainkoaren Hitza direnik (egiazko kristau guztiek horrela sinestu arren), Jainkoak berak era supernaturalez errebelatu dienek izan ezik. Beraz, haietaz dugun ezagutzari buruzko arazoa ez dago zuzen planteatuta. Azkenez, arazoa gure sinesteari buruz denean, batzuk arrazoi bategatik eta besteak bestelako bategatik sinestera bultzatuak direnez, ezin da aurkitu denen gustuko erantzun orokorrik. Hortaz, hona hemen Liburu Santuei buruzko arazoa formulatzeko era egokia: Zein autoritatearen indarrez bihurtzen dira Lege?

Naturako legeetatik bereizten ez diren neurrian, Jainkoaren Lege dira, zalantzarik gabe, eta haien autoritate bera daukate; arrazoimen naturala duen gizaki orok hauteman dezakeen autoritatea, alegia. Baina autoritate hori ez da besterik arrazoiarekin bat datorren doktrina moral orok daukana baino, zeinen aginduak ez diren sortaraziak, baizik betidanikoak.

Lege horiek Jainkoak berak egin baditu lege, lege idatziari dagokion autoritatea dute, eta soil-soilik izanen dira lege, beraz, Jainkoak aski argitasunez iragarri dizkienentzat, inork ere aitzakiarik ez izateko moduan Jainkoaren lege zirenik ez zekiela-eta.

Beraz, Jainkoak era supernaturalez errebelatu ez dienak legeok Bereak direla eta lege horiek publikatu dituztenak ere Berak bidaliak izan direla, ez daude legeok obeditzera beharturik ezin autoritatez, jadanik lege-indardun aginduak ematen dituenaren autoritateaz izan ezik; hots, ez daude beharturik beste ezin autoritatez, Estatuaren autoritatez salbu, zeina subiranoarengan -botere legegilea duen bakarrarengan- datzan. Baina Estatuaren autoritate legegilea ez baldin bada lege-indarra ematen diena, Jainkoagandiko beste autoritatearen batek, pribatuak edo publikoak, eman beharko die indar hori. Pribatua baldin bada, Jainkoak errebelatu nahi izan dion gizabanako jakin hori besterik ez du behartzen. Zeren gizakume guztiak baldin baleude beharturik gizabanako batzuek (inspirazio edo errebelazio partikular baten izenean) inposatu nahi dietena legetzat hartzera -eta bada indibiduo horien artean, harrokeria edo jakinezagatik, bere ametsak, fantasia nabarmenak eta burugabekeriak Jainkoaren izpirituaren adierazpidetzat hartzen dituenik; edota, handigurak zirikatutik, Jainkoagandiko adierazpideak jasotakoaren itxura egiten duenik ere, bere kontzientziak diotsonaren aurka-, ezinezkoa bailitzateke Jainkoagandiko lege bakar bati ere ezagutza eskaintzea. Publikoa baldin bada, Estatuaren autoritatea izango da, edo Elizarena. Baina Elizak pertsona bat osatzen badu, kristauen Estatua esatea bezala da -horrexegatik deitzen zaiona Estatua, hain zuzen, subiranotzat duten pertsona batengan biltzen diren gizakumez osatua izatearren. Baina Elizak pertsona bat ez badu osatzen, ez du inolako autoriterik; ezingo du agindurik eman, ez egintzarik burutu, ez ezelako botererik ez ezertarako eskubiderik eskuratzeko gai izan; ez du izanen ezta ere nahimenik, arrazoirik ez ahotsik, nolakotasun horiek guztiok pertsonalak dira-eta. Orduan, kristauen kopuru osoa ez baldin badago Estatu bakar batean barnesarturik, ez dute osatuko pertsona bat; eta ez da izanen Eliza Unibertsalik ere haien gainean autoriterik duenik. Ezta ere, beraz, Liburu Santuak lege bihurtzen dituen Eliza Unibertsal bat. Ostera, Elizak Estatua osatzen

badu, monarkak eta nazio kristau guztiak pertsona pribatuak dira, Kristandade osoko subirano unibertsal batek epaitu, kargutik kendu eta zigortu ahal izango dituenak. Eta honenbestez, bada, Liburu Santuen autoritateari buruzko arazoa galdera honexetera mugatzen da: ea errege kristauak eta Estatu kristauetako biltzar subiranoak beren lurraldeetan absolutuak diren, Jainkoaren pean tartekorik gabe, ala Eliza unibertsalean jarritako Kristoren ordeko baten meneko diren, ordeko horrek epaitu, kargutik kendu eta heriotza ezar diezaiekeelarik, berak denen onerako egoki edo beharrezko deritzon.

Eta galdera honi ezin erantzun diezaioke Jainkoaren Erresumari buruzko gogoeta zehatzagorik gabe; eta orduan juzgatu ahal izango dugu, baita, Idazteuna interpretatzeko autoritateari buruz. Zeren idazki bat lege bihurtzeko boterea duena izanen baita lege horren interpretazioa onesteko edo gaitzesteko boterea ere duena.

## XXXIV

Zer esangura duten izpirituak, aingeruak eta inspirazioak

Idazteuneko liburuetan

Egiazko arrazoiketa ororen oinarria hitzen esangura iraunkorrean datzala kontuan hartuz -zeinek ondoko doktrina honen kasuan ez baitaude idazlearen nahiaren menpe, zientzia naturalean gertatzen denez, ezta ere, solas arruntean gertatzen den moduan, ohiko erabileraren menpe, baizik Idazteunean duten zentzuaren menpe-, nahitaezko dut, aurrera jarraitu baino lehen, euren anbiguotasunagatik nire dedukzioak ilun edo eztabaidagarri bihur ditzaketen hitzen esangura zehaztea, Biblian oinarrituz. GORPUTZA eta IZPIRITUA hitzekin hasiko naiz, hizkera eskolastikoan substantzia gorpuzdun eta gorpuzgabeak deituak.

Gorputza hitzak, beronen adiera zabalenean, toki jakin bat edo irudizko leku bat hartzen duen zerbait esan gura du; baina irudimenaren menpe dagoena barik, unibertsoa deitzen diogun horren egiazko osagaia dena. Izan ere, unibertsoa gorputz guztien multzoa delarik, ez da berorren egiazko zatirik gorputza ez denik; ezta ere propioki gorputza den gauzarik, gorputz guztion multzo horren, unibertsoaren, zati ez denik. Era berean, gorputzak aldakorrek direnez (hau da, izaki bizidunen zentzuen aurrean itxura-aldaketara emanak), gorputzari substantzia ere deitzen zaio, hots, zenbait akzidenteren azpian dagoen subjektua; hala nola batzuetan higiarazia izatea eta beste batzuetan geldi egotea, gure zentzuei batzuetan beroa eta beste batzuetan hotza iruditzea, behin kolore, usain, zapora edo soinu batekoa eta behin bestekoa. Eta itxura-ezberdintasun hori, gorputzek gure zentzu-organoetan sustatutako eragiketa ezberdinei esker sortarazia, guregan eragina duten gorputz horien aldaketei eratxikitzen diegu; eta aldaketei gorputzen akzidenteak deitzen diegu. Eta hitzaren adiera honen arabera, substantzia eta gorputza hitzek gauza bera esan nahi dute; beraz, substantzia gorpuzgabea esapidea bi hitzen batura da, batzean elkar suntsitzen duten hitzak, gorpuzgabeko gorputza esango bagenu bezala.

Baina jende gehienak ulertzen duen zentzuan, gorputza ez zaio deitzen unibertso osoari, baizik gizakumeok bereiz ditzaketen parteei soilik, dela zentzumenen bidez somatuz (indarra ezartzean erresistentzia erantzuten duena), dela begien ikusmenez hautemanez haragoko araketarako biderik ematen ez duena. Beraz, jendearen hizkera arruntaren arabera, airea eta aire-substantziak ez dira gorpuztat hartzen, baizik (haien efektuak gizakiontzat hautemangarri diren heinean) haizea edo hatsa deitzen diote, edo (fenomeno horiei latinez spiritus deitzen zaenez) izpirituak. Horrela gertatzen da kreatura bizidun orori bizia eta mugimena damaion aire-substantzia horri bizi-izpiritua edo animali izpiritua deitzen diotenean. Baina burmuineko iduri edo "idolo" horiek, ezer ez dagoen lekuan gorputzak ispiluan bezala irudikatzen dizkigutenak edo burmuin gaixoari itzarrik dagoela ere agertzen zaizkionak, Apostoluak idoloiei buruz orokorki dioen bezala, ez dira ezer. Ez dago ezertxo ere, diot, badagoela ematen duen lekuan; eta burmuinean bertan ere ez dago besterik objektuen eraginetik edo geure zentzu-organoen anabasatik sortzen den zurrunbiloa baizik. Eta gauza horien kausen bila ekiteko betarik aurkitzen ez duten gizakumeek ez dakitenez, euren, fenomenooi zelari deitu ere, beraiek hain jakituntzat dauzkaten pertsonen erraz iradoki diezaiekete horietariko batzuei gorputzak deitzea, eta zera pentsatzea: gorpuzdunak begitانتzen zaizkienez, naturaz-gaundiko botereren baten eraginez trinkotutako airez eginak direla; eta zenbait izpirituak deituko die, ukimenak ez baitu nabaritzen, haiek agertzen diren lekuan, hatzen ukituari jarki zaion ezer. Hauxe da, hortaz, izpiritua hitzak hizkera arruntean duen esangura propioa: dela gorputz mehats, isurkor eta ikustezin bat, dela fantasma bat, dela irudimenak sorturiko beste idolo edo irudikariren bat. Baina esangura metaforazkoak asko ditu: horrela, batzuetan, gogoaren joera edo aiherra adierazteko erabili ohi da; adibidez, beste batzuek diotenari ihardesteko joerari ihardespen-izpiritua deitzen diogunean; edo lizunkeriarako joerari, izpiritu lizuna; gaitzakeriarako jiteari, izpiritu gaiztoa; aldarte txarrerako joerari izpiritu zaputza; eta santutasunerako ganuari edo jainkozaletasunari, Jainko-izpiritua. Zenbaitetan, koalitate bikain bat, edo grina nabarmen bat, edo buruko gaitz bat adierazteko ere izpiritua hitza erabili ohi da, jakinduria handiari jakinduri izpiritua deitzen zaionean, kasu; eta eroen kasuan ere izpiritu eroak hartuak direla.

Izpirituaren bestelako esangurarik ez dut aurkitzen inon. Eta goiko horietariko batek ere ez dionean erantzuten Idazteunean hitz horrek duen zentzuari, pasarteak ihes egiten dio giza ulerkuntzari; eta gure



fedea, orduan, ez datza iritzia izatean, baizik menpeko izatean. Halaxe gertatzen da Jainkoa Izpiritu bat dela dioten pasarte guztiekin; edo Jainkoaren Izpiritua esatean Jainkoa bera esan nahi denean. Izan ere, Jainkoaren natura ulertezina zaigu, hau da, ezin dugu ulertu Hura zer den, baizik soil-soilik Hura badela; Beraz, aitortzen dizkiogun atributuek ez digute balio Hura zer den elkarri adieraz diezaiogun, ezta ere Haren naturari buruz dugun iritzia adierazteko, baizik Hura ohoratzeke dugun gogoia adierazteko soil-soilik, gure artean ohoragarrientzat ditugun izenak erabiliz.

Has. 1, 2.: Jainkoaren Izpiritua uren gainean zebilen. Hemen Jainkoaren Izpiritua esatean Jainkoa bera esan nahi bada, Jainkoari higidura aitortzen zaio eta, beraz, leku bat ere bai; baina higidura eta lekua gorputzei dagokienez soilik dira ulergarri, ezen ez substantzia gorpuzgabei dagokienez. Pasarte hori, bada, gure ulerkuntzaz haraindi dago, zeren honi ezinezko baitzaio bururatzeko higitzen den zerbaitek dimentsiorik ez izatea edo lekuz ez aldatzea; eta dimentsioa duen guztia gorputza da. Baina hitz horien esangura ulergarriago bihurtzen da beste antzeko pasarte bat (Has. 8, 1) gogoan badugu. Hemen, lurra urez estalirik zegoenean hasierako garaietan bezala, urok beheratzea eta berriro ere lur lehorra agerraratzea erabakitzen du Jainkoak eta honela mintzo da: Nire izpiritua bidaliko dut lur gainera eta urak beheratzen hasiko dira. Pasarte honetan, izpirituak haizea esan nahi du, hau da, aire edo izpiritu mugikor bat, zeini Jainkoaren Izpiritua dei diezaiokeen, lehengo pasartean bezala, Jainkoak eragindakoa izan zelako.

Has. 41, 38.: Joseren jakinduriari Jainkoaren Izpiritua deitzen dio Faraonek. Ezen Josek gizon jakintsu eta zuhur bat bilatzea eta Egiptoko lurraldean burutzat jartzea aholkatu ziolarik, hauxe dio: Aurki ote genezake Jainkoaren izpiritua honek bezala izango duen gizonik? Eta Ir. 28, 3.ean: Eman argibideak jakinduri izpirituz hornitu ditudan artisauei, Aaronen jantziak egin ditzaten nik apaiz sagaratzeko. Hemen aparteko adimena, jantzigintzan soilik bada ere, Jainkoaren dohaintzat hartzen da, eta horrexegatik deitzen zaio Jainkoaren Izpiritua. Gauza bera aurkitzen dugu berriz ere Ir. 31. 3,4,5,6. eta 35, 31.eanean. Eta Isaias 11. 2-3.ean profetak Mesiasi buruz mintzatzean hauxe dio: Beraren gainean kokatuko da Jaunaren Izpiritua: jakinduri eta adimen-izpiritua, zuhurtasun eta kemen-izpiritua, Jainkoa ezagutzen eta haren esaneko izaten irakatsiko dion izpiritua. Nabari delarik hemen izpiritutzat ez dela fantasma multzo bat ulertzen, baizik Jainkoak eman nahi izan dizkion dohainen zerrenda.

Epaileen Liburuan, Jainkoaren herriaren defentsan erakutsitako gar eta kemenari Jainkoaren Izpiritua deitzen zaio; Otoniel, Gedeon, Jefte eta Sanson bultzatu zituen garrari, adibidez, herria morrontzatik askatzeko, Epaileak 3.10, 6.34, 11.29, 13.25, 14.6,19. Eta hauxe esaten da Sauli buruz, amonitarren Jabeth Gileadekiko ozartasunaren berri eman ziotenean (1 Sm. 11, 6): Hitz haiek aditzen ari zela, Jaunaren izpirituak hartu zuen Saul eta amorru bizitan jarri zen (latinez furia hitza erabiltzen da). Ez da probable hemen fantasmaren bat adierazi nahi izatea, baizik amonitarren krudeltasuna zigortzeko itzelezko garra. Era berean, Saul hartu zuen Jainkoaren Izpirituaz ere, Jainkoa abestiz eta musikaz gorensten zuten profeten artean zelarik (1 Sm. 19, 20), ez da fantasma bat ulertu behar, baizik bat-batean eta ustekabeen artean zitzaion garra haien debozioan parte hartzeko.

Sedekias profeta faltsuak hauxe diotso Mikeasi (1 Erregeak 22, 24): Nondik atera zait niri Jaunaren Izpiritua, zuri mintzatzeko? Eta hori ezin da ulertu fantasmatzat, zeren Mikeasek batailaren gertakari hori ikuskari baten bidez, eta ez izpiritu baten bitarteko berbaz, adierazitakotzat iragarri baitzien Israelgo eta Judako erregeei.

Beste horrenbeste ageri da Profeten liburuetan ere, zeinek Jainkoaren izpirituaren eraginez hitz egiten zuten arren, hots, igarmen-dohain berezi bati esker, etorkizunaz zuten ezagutza hura ez baitzetorkien beraien barneko fantasmaren batetik, naturaz-gaundiko amets edo ikuskariren batetik baizik.

Hauxe dio Has. 2, 7.ak: Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudurzuloetan bizi-arnasa (spiraculum vitae) putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen. Hemen, Jainko Jaunarengandiko bizi-arnasa horrek ez du besterik esan nahi Jainkoak bizia eman ziola baino; eta Job 27. 3.ean: Arnasa izango dudana bitartean, Jainkoaren hatsa nire sudurretan esatea ni bizi naizen artean esatea bezala da. Halaber, Ezekiel 1, 20.ean: gurpiletan bizi-izpiritua zeramala esatea gurpilek bizirik zeudela esatea bezala da. Eta (Ez. 2, 2) Izpiritua sartu zen niregan eta zutitu egin ninduen esatea nire bizi-indarra berreskuratu nuen esatea bezalaxe da, eta ez fantasmaren bat edo gorpuzgabeko substantziaren bat sartu eta haren gorputzaren jabe egin zela.

Zenbakiak 11, 17. bertsetean honela dio Jainkoak: Eta, zuk duzun izpiritutik harturik, haiengan isuriko dut, herria gidatzen lagun diezazuten; hirurogeita hamar zaharrei buruz ari da; eta geroxeago esaten da hirurogeita hamarretarik bik kanpamenduan profetizatu egin zutela eta batzuk horretaz kexu zirenez, Moisesek debeka ziezaien nahi zuela Josuek, baina Moisesek ez ziela debekurik jarri. Hortik ateratzen da Josuek ez zekiela profetok horrela jokatzeko eskuespena hartua zutenik, eta Moisesekin ados profetizatzen zutenik, hau da, haren menpeko izpirituaren edo autoritatearen arabera.

Ildo beretik doa Deut. 34, 9.eanean irakurtzen duguna, hots, Josue jakinduri izpirituz beterik zegoen, eskuak ezarri baitzizkion Moisesek buruan: hau da, Moisesgandik agindua hartu baitzuen hark berak hasitako lanari -heriotza zetorkiolako bukatu gabe utzi behar zuen lana, hots, Jainkoaren herria agindutako lurraldera eramatea- jarraipidea eman ziezaion.

Zentzu berean esaten da (Erm. 8, 9): Norbaitek Kristoren Izpiritua ez badu, hori ez da Kristorena, eta horrekin ez da esan nahi Kristoren fantasma, baizik haren doktrinarekiko menpetasuna. Eta berdin 1 Joan 4,2.ean: Honela jakingo duzue norbaitek Jainkoaren Izpiritua duen ala ez: Jesukristo egiazko gizon egin dela aitortzen duenak Jainkoaren Izpiritua du; eta horrekin benetako Kristautasunaren izpiritua esan nahi da, hau da, Jesus Kristoa dela -fantasmatzat hartzerik ez dagoena, beraz- dioen kristau fedearen artikulua nagusi horrekiko menpetasuna.

Orobat, ondoko hitz hauek ere (Lukas 4, 1): Jesus, Izpiritu Santuz (Holy Ghost) beterik -hau da, Mt. 4,1 eta Mk. 1, 12.ak adierazten dutenez, Izpiritu Santuz (Holy Spirit)-, Kristok duen garra eman dezakete aditzera, Jainko Aitak betetzeko agindu zion lana (horrexetarako bidali baitzuen) burutzeko ardura, alegia; oster, hitz hori izpiritutzat interpretatzea zera esatea litzateke: Jainkoa bera (gure Salbatzailea horixe zen-eta) Jainkoz beterik zegoela; desegokia eta zentzugabea litzatekeena. Ez naiz hasiko aztertzen orain zer dela-eta itzuli ote dugun izpiritua hitza fantasma (Ghost) hitzez, honek, giza burmuineko irudizko biztanlea besterik ez denez, ez baitu zeruko ez lurreko ezer ere adierazten; baina bai diot izpiritua hitzak ez duela esan nahi halakorik, baizik honako biotarik bat: zentzu hertsian hartuz gero, egiazko substantzia; eta zentzu metaforikoan hartuz gero, adimenaren edo gorputzaren aparteko gaitasun edo sentimenduren bat.

Kristoren dizipuluek, ur gainean ibiltzen ikusi zutenean (Mt. 14, 26. eta Mk. 6, 49), izpiritu bat zela uste izan zuten, airetiko gorputzen bat zela, eta ez fantasma bat, adierazi nahian hitz horrekin. Zeren testuak baitio guztiek ikusi zutela, ezinezko zitekeena gorputzak ez baina burmuineko irudikapenak izan balira, zeinak ez baitzaizkie askori batera agertzen, gorputz ikuskorak bezala, baizik fantasien arteko ezberdintasunek bakan bihurtzen dituzte. Beste horrenbeste gertatu zen Apostoluek eurek Jesus izpiritutzat hartu zutenean (Lk. 24. 3,7); baita

San Pedro gartzelatik ateratakoan inork ere sinestu ez zionean, eta nekameak atean zegoela iragartzean, haren aingerua izango zela esan zutenean (Ap. Eginak 12. 15); horrekin substantzia gorpuzduna esan nahi zuten, edo, aitortu beharra dago, bai juduen eta bai jentilen uste arrunt bati jarraitu zioten, hots, horrelako agerkundeak ez zirela irudizkoak, baizik errealak; giza fantasiatik at existi zitezkeenak, alegia. Agerkunde

horiei izpiritua eta aingeruak, onak edo gaiztoak, deitzen zieten juduek; greziarrek, berriz, demonioak deitzen zieten. Horrelako agerkunde batzuk errealak eta substantzialak izan daitezke, hau da, Jainkoak era ditzakeen gorputz mehatsak, gainontzeko gauza guztiak eratu dituen botere beraren indarrez; eta haietaz balia daiteke, gainera, bere ministrari eta mezularitzat (hots, aingerutzat) erabiliz, Bere Nahia aldarrika eta (Berari hala deritzon) betearaz dezaten modu ezohiko eta supernaturalez. Baina horrela eratuak direnean, substantzia dimentsiodunak dira, leku bat hartzen dutenak eta batetik bestera higi daitezkeenak, edozein gorputzi dagokionez; ez dira, beraz, fantasma gorpuzgabeak, hau da, ezin lekutan ere ez daudenak, hots, non egonik ez dutenak; edo berdin dena, zerbait direla eman arren, ezer ere ez direnak. Baina gorpuztuntasuna bere adiera arruntenean ulertuz gero -kanpoko zentzuez hautemangarri zaizkigun substantziak, alegia-, orduan substantzia gorpuzgabea ez litzateke irudizko gauza bat, baizik erreala; hau da, substantzia mehats ikustezin bat, baina gorputz trinkoagoei dagozkien dimentsio berberak dituenak.

AINGERUA izenaren bidez mezularia esan nahi da jeneralean, eta Jainkoaren mezularia gehienetan. Eta Jainkoaren mezularia esatean, Haren aparteko presentzia, hots, Haren boterearen aparteko agerpena -bereziki amets edo ikuskariren baten bidez- ezagutzera damaigun zerbait adierazi nahi da.

Aingeruen sorrerari buruz ez zaigu ezer esaten Idazteunean. Izpiritua direna bai errepikatzen zaigula sarritan, baina izpiritua hitzak, bai Idazteunean nahiz erabilera arruntan, bai juduen nahiz jentilen artean, gorputz mehatsak esan nahi du batzuetan: airea, haizea eta izaki bizidunen animalia edo bizi-izpiritua bezalakoak; eta beste batzuetan, amets eta ikuskarietan fantasian sortzen diren irudiak, egiazko substantziak ez direnak eta ez dirautenak, iraun ere, ametsa edo ikuskaria bera baino gehiago. Agerkunde hauei, berriz -egiazko substantziak barik burmuineko akzidenteak izan arren-, Jainkoak era supernaturalez sortarazten dituen bere nahia adierazteko, ez dago gaizki Jainkoaren mezulariak, hots, Haren aingeruak deitzea.

Jentilek, beren aldetik, burmuineko irudikapen horiek guztiak fantasiaren menpekotzat ez baina irudikapenetik at benetan subsistitzen ziren gauzatatzat zituztenez arruntki -eta hortik ateratzen zituzten demonio on eta txarren ideiak, zeinei, benetan subsistitzen zirela ematen zuenez, substantziak deitzen baitzieten, eta, euren eskuekin uki ez zitzaizketenez, gorpuzgabeak-, halaxe juduek ere, arrazoi beragatik, eta Itun Zaharrean ezer ere ez izan arren horrela pentsaraztekorik, haxe uste zuten (Saduzearren sektak ezik): Jainkoak batzuetan gizakumeen fantasian sortaraztea atsegin zuen agerkunde horiek -Hark bere zerbitzurako erabiliak eta horrexegatik bere aingeruak deitzen zienak- substantziak zirela uste zuten, ez fantasiaren menpe zeudenak, baizik Jainkoaren kreatura iraunkorak; eta berauetarik ontzat zituztenei Jainkoaren aingeruak deitzen zieten, eta kaltegarriak zeritzetenei, ordea, aingeru gaiztoak edo izpiritu gaiztoak. Halakoxea zen Pitonen izpiritua, baita gizaki eroen, ilargijoen edo epileptikoen izpiritua ere: gaixotasunok pairatzen zituztenak, izan ere, deabruduntzat baitzituzten juduek.

Baina aingeruak aipatzen dituzten Itun Zaharreko pasarteei erreparatzen badiegu, hauxe aurkituko dugu: aingerua hitzaz ez dagoela besterik ulertzerik, pasarte gehienetan, fantasian era supernaturalez sortarazitako irudiren bat baino, naturaz-gaindiko egintzaren baten burutzapenean Jainkoaren presentzia adierazten duena; eta, beraz, aingeruon natura zehazten ez duten gainerako pasarteetan ere modu horrexetara uler daitekeela.

Izan ere, Has. 16.ean irakur dezakegunez, aingerua ezezik Jainkoa ere deitzen zaio agerkunde berberari; 7. bertsetean Jaunaren aingerua deitzen zaionak zera diotso Agarrri hamargarren bertsetean: Zenbatu ezin ahalean ugarituko ditut zure ondorengoak; hau da, Jainkoaren pertsonan mintzatzen ari zaio. Eta agerkunde hau ez zen izan, gainera, figura eta guztiko begitazioa, baizik ahots soil. Hemen garbi dago, beraz, aingeruak ez duela esan nahi besterik Jainkoa bera baino, zeinek Agarrri era supernaturalez zerutiko ahots bat entzunarazten dion; edo ahots supernatural bat, hobeto esanda, Jainkoak toki hartan zuen presentzia bereziaren lekuko. Eta aingeru hori irudipenezko ahostzat ulertzen den bezalaxe, zergatik ez daitezke har fantasian era supernaturalez eratutako giza iruditatz Loti agertu zitzaizkion aingeru haiek ere, Has. 19, 13.ak gizakiak deitzen dienak, eta bi izan arren bat bakarra bailiren, eta bakar horri Jainkoa bailitzen - hauek baitira hitzak: Ez, arren, ene Jauna (18. berts.), ihardukitzen dienak Lotek? Aingeruak zerutik Abrahami deitu zionean mutilari eskurik ez ezartzeko (Has. 22, 11) eta Isaak oparitan ez eskaintzeko, ez zen izan agerkunderik, ahots bat baizik; hala ere, Jainkoaren mezularia edo aingerua deitu zitzaion egokiro, Jainkoaren nahia iragarri zuelako era supernaturalez, ezelako fantasma iraunkorrik suposatu beharrik gabe. Jakobek Zeruko mailadian ikusi zituen aingeruak (Has. 28, 12) hura lotan zegoeneko ikuskari bat izan zen; fantasia eta ametsa besterik ez ziren, beraz; baina naturaz-gaindikoak eta Jainkoaren presentzia bereziaren zeinuak izanez, agerkundei ez zaie desegokiro deitzen aingeruak. Zentzu berean ulertzekoa da Has. 31, 11 ere, Jaungoikoaren Aingeruak deitu zidan ametsetan, dioenean Jakobek. Izan ere, lotan dagoen bitartean norbaiti gertatzen zaion agerkundeari ametsa deitzen diote denek, amets naturala nahiz supernaturala izan; eta kasu honetan Jakobek aingerua deitutakoa Jainkoa bera izan zen; hauxe baitio aingeru horrek 13. bertsetean: Betelgo Jainkoa naiz Ni.

Halaber, Israelgo gudarosteen aitzinean Itsaso Gorriara joan eta gero erretagoardiara itzuli zen aingeru hura (Ir. 14, 9) Jauna bera izan zen (19. berts.); eta gizon lerden itxuraz barik, egunez laino-adar irudiz eta gauzez su-adar irudiz ageri izan zitzairen (Ir. 13, 21); eta adar horixe besterik ez zen izan Moisesi agindu zitzaion agerkunde eta aingerua (Ir. 33, 2), haren gudarosteen aitzindaritzat. Izan ere, laino-adar hura jaitzi egin zela esaten da (Ir. 33, 9) eta Etxolako atean geratu zela, bertan Moisesekin hitz egin arte.

Horra hor, bada, higimena eta hizkuntza, normalean aingeruei aitortu ohi zaizkienak, laino bati eratxikitzen zaizkiola honako honetan; lainoa erabili baitzen Jainkoaren presentziaren zeinutzat, eta ez zen izan gutxiago aingeru, alegia, gizon edo ume eder aparten itxura hartu balu baino, hego eta guzti, zeren halaxe pintatzen baitira eskuarki aingeruak jende arruntaren irakatsi okerrerako. Ez delako itxura hain zuzen ere, baizik erabilbidea, aingeru egiten dituen. Eta honexetan datza haien erabilbidea: Jainkoaren bertakotasunaren adierazgarri izatean eragiketa supernaturaletan; Moisesek Jainkoa kanpamendura etor zekien desio zuenean bezala (Ir. 33, 14), urrezko zekorra eraiki aurretik beti etorri ohi zitzairen moduan, eta Jainkoak ez zion erantzun Joango natzaizue edo Bidaliko dizuet aingeru bat nire partez, baizik hauxe: Ni neu joango naiz zurekin.

Luzeegia izango litzateke aingerua izena ageri den Itun Zaharreko pasarte guztiak aipatzea. Beraz, denak batean laburbilduz, hauxe diot: ez dela testu bat ere Ingalaterrako Elizak kanonikotzat duen Itun Zaharraren zati horretan, izpiritua edo aingerua izentzat duen izaki iraunkorren bat existitzen dela edo sortua izan dela konkluditzeko oina ematen digunik kantitategabea eta adimenak zatiezina litekeena -hau da, zatika ezin kontsidera daitekeena, halako moldez, non zati bata leku batean eta ondokoa aurrekoarenetik leku hurbilenean dagoen-, hitz batez, gorpuzduna ez litekeena (zerbait dena eta nonbait dagoena ulertuz gero gorpuztatzat); aitzitik, zentzuak pasarte guzti-guztietan justifikatzen duela aingerua mezularitzat interpretatzea. Joan Bataiatzaileari aingerua deitzen zaionez, kasu, eta Kristori ere Itunaren Aingerua; eta, analogia berari jarraiki, usoari eta suzko mihiei ere -Jainkoaren presentzia bereziaren zeinu zirenez- aingeruak dei dakiekeenez. Nahiz eta Danielen liburuan aingeru izen bi aurkitzen ditugun, Gabriel eta Mikael, testuak berak uzten digu argi (Dn. 12, 1) Mikaelek Kristo adierazi nahi duela, aingeru gisa barik printze gisa, eta Gabriel ez dela, beste gizon santu batzuei ametsetan sortu zitzaizkien antzeko beste zenbait agerkunde ere ez diren bezala, Danielek bere ametsean izan zuen ikuskari supernaturala besterik, zeinetan santu bi elkarrekin solasean ikustean, zera iruditu baitzitzaion, bata besteari hauxe ziotsola: Gabriel, ulertaraz diezaigun gizon honi beronen ikuskaria; izan ere, Jainkoak ez dauka bere zerbitzari zerutarrak izenen bidez bereizi beharrik, izenak hilkorren memoria ahulari laguntzeko besterik ez dira-eta. Itun Berrian ere ez da pasarterik aingeruak gauza iraunkorrak eta aldi berean gorpuzgabeak direla frogatzeko bidea ematen duenik, Jainkoak bere hitzen edo egintzen ministrari eta mezularitzat gizakumeak darabiltzanean salbu. Aingeruak gauza iraunkorrak direna Salbatzailearen beraren hitz hauetatik atera liteke (Mt. 25, 41), gaiztoei azken egunean esanen zaiena ezagutzera ematen digunean: Alde niregandik urruti, madarikatuok, deabruarentzat eta haren aingeruentzat prestatua dagoen betiko

sutara; pasarte honetan, izan ere, aingeru gaiztoen iraunkortasuna ageri zaigu (izen horiek, Deabrua eta aingeruak, Elizaren eta bere ministrarien etsaien sinonimotzat uler daitezkeela pentsatzen ez badugu behintzat); baina iraunkortasun hori, orduan, beraien inmateralitasunarekin bateraezina da, zeren betiko sua ez baita substantzia minduezei dagokien zigorra, eta minduezinak dira gauza gorpuzgabeak oro. Horretan oinarrituta ezin da frogatu, beraz, aingeruak gorpuzgabeak direnik. Eta antzera gertatzen da San Paulok dioenean (1 Ko. 6, 3): Ez al dakizue aingeru gaiztoak ere epaituko dituguna? Eta San Pedrok (2 P. 2, 4): Jainkoak ez zien barkatu bekatu egin zuten aingeruei, eta, ifernuko barrunbe ilunetara jaurtiki zituen. Eta Judasek (Ju. 1, 6): Aingeruak ere, beren maila gorde nahi ez eta zegokien tokitik aldegin zutenak, Jainkoak ilunbetan gorderik dauzka. Testu horiek aingeru-izaeraren iraunkortasuna frogatzen duten arren, beraien materialtasuna ere baieztatzen dute. Eta Mateok (Mt. 22, 30): Izan ere, biztutakoan ez da inor ezkonduko: zeruko aingeruak bezalakoak izango dira denak; baina biztueran, gizakiak errealitate iraunkorrak izanen dira, ezen ez gorpuzgabeak; eta halaxe dira aingeruak ere, beraz.

Gauza bera ondoriozta daiteke beste zenbait pasartetik ere. Berba hauen esanahian, substantzia eta gorpuzgabea, alegia, gorpuzgabea hitza gorputz mehatsa barik gorputz gabeziatzat hartuz ulertzen dutenentzat, kontraesana dago: halako moldez non, aingerua edo izpiritua zentzu horretan gorpuzgabea dela esatea, ez dagoela aingerurik ez izpiriturik esatea bezala den. Hortaz, aingerua hitzak Itun Zaharrean duen esanahia kontuan hartuz eta gizakumeek modu naturalez izan ohi dituzten ametsak eta ikuskariak gogoan hartuz, iritzi honetara makurturik nengoen: fantasian gertatutako agerkunde supernaturalak besterik ez zirela aingeruak, Jainkoak eskuhartze berezi eta ezohikoz eragindakoak, bere presentzia eta manamenduen berri emateko gizateriari eta, bereziki, bere herriari. Baina Itun Berriko pasarte ugariei, hala nola iruzur sundarik gabeko Idazteuneko testuetan ageri diren gure Salbatzailearen hitzei, erreparatzeak nire arrazoimen ahula garaitzea lortu du, aingeru substantzialak eta iraunkorrak ere badirela aitortzera eta sinestera eraman naularik. Hala ere, aingeruok ezein lekutan ere ez daudela, hots, inon ere ez direla uste izatea ezer ere ez direla esatea bezala da, gorpuzgabetzat dituztenek dioten moduan, zeharka bada ere; eta hori ez dago Idazteunaren izenean frogatzerik.

Izpiritua hitzaren esanguraren menpe dago INSPIRAZIOA hitzarena, zeina, edo zentzu hertsian hartu beharra dago -eta orduan ez da izango besterik norbaiti haize edo aire fin edo mehatsen bat putz egitea baino, guk geuk puxikari putz eginez haizea ematean diogun antzera-, edo, izpirituak gorpuzdunak ez baldin badira eta irudimenean soilik existitzen badira, irudikari bat putzez hartzea besterik ez dateke; erran desegokia, bestalde, eta ezinezkoa; zeren irudikariak ez baitira ezer, zer edo zer delakoaren itxura hutsa baizik. Beraz, inspirazioa hitz hori adiera metaforikoz besterik ez da erabiltzen Idazteunean, Has. 2, 7.ean adibidez, non Jainkoak gizonari bizi-arnasa isuri ziola esaten den, hauxe esan nahian eta ez besterik: Jainkoak bizi-mugimena eman ziola. Ezin dugu pentsatu-eta Jainkoak bizi-arnasa bat sortu zuela lehenbizi eta gero Adani putz egin ziola, egiazkoa nahiz irudizkoa izan arnasa hori; pentsa dezakegun bakarra hauxe da (Ap. Eg. 17, 25), Berak denei bizia eta arnasa ematen dizkiela, hau da, kreatura bizidun bihurtzen dituela. Eta zera esaten denean (2 Tim. 3, 16), Eskritura oro Jainkoaren inspirazioz ematen zaigula, Itun Zaharreko Eskrituraz hitz egiten delarik hemen, metafora xume bat besterik ez da hauxe esan nahian: Jainkoak idazle haien izpiritua edo adimena bideratu egin zuela gauza baliagarriak idatz zituzten, gizakumeei irakasteko, gaitzesteko, zuzentzeko eta zuzenki bizi daitezen argibideak emateko baliagarriak. Baina San Pedrok dionean (2 P. 1, 21) profezia ez zela sortu antzinatean giza nahimenetik, baizik Izpiritu Santuak eraginda egin zuten berba Jaungoikoaren gizonek, Izpiritu Santua esatean, amets edo ikuskari supernatural batean gertatutako Jainkoaren ahotsa esan nahi da, zeina ez baita inspirazioa. Eta gure Salbatzaileak bere dizipuluei arnasa isurtzean Har ezazue Izpiritu Santua esan zienean ere, ez da esan nahi arnasa hura Izpiritua zenik, hartzeaz ziren dohain izpiritualen zeinu bat baizik. Eta askok esan duten arren, gure Salbatzaileak berak ere bai, Bera Izpiritu Santuz beterik zegoela, betetasun horrekin ez da ulertu behar Jainkoaren substantziaren isurpena, baizik Haren dohainen metaketa, hala nola bizitza-santutasunaren dohaina, hizkuntzen dohaina eta gainontzekoena, dela era supernaturalez, dela ikasketa eta lanaren bidez lortuak; kasu batean zein bestean Jainkoaren dohainak baitira. Era berean, Jainkoak dioenean (Joel 2, 28): Ondoren, neure izpiritua isuriko diet gizaki guztiei; zuen seme-alabek profetizatu egingo dute, zuen zaharrek ametsak egingo dituzte, zuen gazteek ikuskariak izango, ez dugu ulertu behar zentzu hertsian, haren Izpiritua uraren antzekoa bailitzen, isurpen edo infusiogai; baizik Jainkoak ametsak eta ikuskari profetikoak agindu dizkien adierazpenez. Izan ere, isuri hitzaren adiera hertsia gehiegizkoa gertatzen da Jainkoaren dohainei ezartzean, zeren dohain horiek bertuteak baitira, ez batetik bestera eraman daitezkeen gorputzak eta gizakumearen barnera, upela bailitzen, isur daitezkeenak.

Era berean, inspirazioa hitza adiera hertsian hartzea, edo gizakumeen barnera izpiritu onak sartu zirela esatea (profetiza zezaten), edota izpiritu gaiztoak sartu zitzaizkiela eta horrela bihurtu zirela apoderatu, ilargijo edo epileptiko, ez da hitz hori Idazteunak darabilen zentzuan ulertzea; zeren honek Jainkoaren boterea adierazten baitu Izpiritua hitzarekin, ezezagun zaizkigun kausen bitartez eragiten duen boterea. Halaber, Mendekoste egunean Apostoluek bildurik zeuden etxea bete zuen haize hura (Ap. Eg. 2, 2) ez da ulertu behar Izpiritu Santua zenik, hots, Jainkoa bera; baizik Jainkoak -apostolutza burutzeko beharrezko

izanen zituztelakoan- apostoluen bihotzetan barne-dohain eta bertute santuak eragiteko modu berezi hura adierazten zuen azaleko zeinu bat.

## XXXV

Jainkoaren Erresuma, santua, sakratua eta sakramentua:  
zer esangura duten idazteunean

Teologoen idatzietan eta, bereziki, deboziozko tratatu eta predikuetan, Jainkoaren Erresumak, eskuarki, bizitza honen ondorengo zeru gorenari dagokion betiereko zoriontasuna esan nahi du, dohatasun-erreinua ere deitzen diotena; eta zenbaitetan, dohatasun horretan baliotsuena dena, santutasuna, adierazten du, haiek graziazko erreinua deitzen diotena. Baina esapide hori ez da erabiltzen sekula ere monarkia adierazteko, hau da, Jainkoak meneko ororen gainean, eta menekoon baiespenez, duen botere subiranoa; erresuma hitzari dagokion adiera, alegia.

Nik neuk, aitzitik, zera aurkitzen dut, JAINKOAREN ERRESUMAK, Idazteuneko pasarterik gehienetan, erresumak bere-bere duen esangura daukala, hots, Israelgo herriak era berezian bere botoz eratutako erresuma, non Jainkoa beraien Erregetzat hautatu zuten Harekin egindako Itunaren izenean, Kanaango lurraldearen jabetza agindu zienean. Inoiz gutxitan erabiltzen da esapide hori zentzu metaforikoz, eta erabiltzen denean ere (Itun Berrian soil-soilik), bekatuaren gaineko nagusitasuna esan nahi du; horrelako nagusitasuna meneko bakoitzak izan baitezake Jainkoaren Erresuman, subiranoaren kalterik gabe.

Kreazio unetik bertatik, Jainkoak gizaki ororen gainean erreinatu zuen, baina ez era naturalez soilik, bere boterearen izenean, baizik bere meneko bereziak ere izan zituelarik eta hauei manamenduak ahotik ahora eman zizkielarik, gizakume bata besteari mintzo zaionean bezala. Horrelaxe erreinatu zuen Jainkoak Adanengan, eta ongia eta gaizkiaren ezagutzaren arbolatik ez zezala jan agindu zion; eta honek, obeditu beharrean, arbola hartatik dastatu eta Jainkoa bezala izatea otu zitzaionean, Jainkoaren aginduen arabera barik bere irizmenaren arabera juzgatuz ongiari eta gaizkiari buruz, zigorra ere halakoxea jaso zuen: Jainkoak hasieran, kreatzerakoan, eman zion betiereko bizi-egoera hura kentzea, alegia; eta ondorengoei ere gero zigorra ezarri zien Jainkoak euren bizioengatik, zortzi pertsonari ezik, uholde unibertsal baten bidez; eta zortzi pertsona horietan zetzan orduko Jainkoaren erresuma.

Horren ondoren, Abrahami hitz egitea eta beronekin itun bat egitea laket izan zitzaion Jainkoari, berba hauen bidez (Has. 17, 7-8): Belaunaldiz belaunaldi eutsiko diot zurekin eta zure ondorengoei egin dudun itunari, betirako balio izango du; zeure eta zure ondorengoen Jainkoa izango naiz. Zuri eta zure ondorengoei betiereko jabegotzat emango dizuet Kanaan lurraldea, orain erbeste duzun lurraldea; zure ondorengoen Jainkoa izango naiz. Eta itun honen oroigarri eta zeinutzat zirkuntzizioaren sakramentua agindu zuen (Has. 17, 11). Horixe da, bada, Itun edo Testamentu Zaharra deitzen zaiona, Jainkoaren eta Abrahamen arteko hitzarmena, zeinen izenean Abrahamek bere burua eta ondorengoak behartzen dituen Jainkoaren lege positiboaren meneko izatera modu berezi batez; ezen lege moralera lehenago ere beharturik baitzegoen, Itun-zin baten bidez. Eta oraindik Jainkoari Errege izena ematen ez zaion arren, ezta erresuma izena ere Abrahami eta ondorengoei, gauza bera da, izan: Jainkoaren subiranotasun bereziaren erakuntza, itunaren bidez, Abrahamen eta beronen ondorengotzaren gainean; zeini, itun hori Sinai Mendian Moisesek berriztatzean, juduen gaineko Jainkoaren erresuma berezia deitzen zaion beren-beregi; eta ez da Moisesi buruz, Abrahami buruz baizik, San Paulok fededunen aita dela dioena (Erm. 4, 11), hau da, leial direnen eta Jainkoari zin egindako Ituna -garai hartan zirkuntzizioaren bidez eta geroago Itun Berrian bataioaren bidez adierazia- hausten ez dutenen aita.

Itun hori Moisesek berriztatu zuen gero Sinai Mendi barrenean (Ir. 19, 5), herriari era honetara hitz egiteko agindu zionean Jaunak: Beraz, nire esana betetzen baduzue eta nire ituna gordetzen, zuek izango zaituztet herri guztien artean neure jabego berezia, nirea baita lur osoa; apaiz-erresuma eta herri santu izango zaituztet. Herri bereziaz latin arruntak *peculium de cunctis populis* dio; ingelesezko itzulpenak, Jakobo erregearen erreinu-hasieran eginak, honela jaso du: *a peculiar treasure unto me above all nations* (niretzat altxor berezia herri guztien artean), eta Geneban egindako frantses itzulpenak: *bitxirik ederrena herri guztien artean*. Baina lehena da itzulpen fidagarriena, ezen San Paulok berak baieztatzen baitu (Tito 2, 14) pasarte hari buruz zera dioenean, gure Salbatzaileak bere burua guregatik eman zuela, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, beraren herri berezia (hau da, aparta) izan gaitezen; izan ere, hitz hori grekoz *πᾶσι τοῖς* da, *ἐπινοσῶ* hitzaren aurkari izan ohi dena; eta azken honek arrunta, egunerokoa, edo, Jaunaren Otoitzean esaten denez, egunean egunerokoa adierazten duen bitartean, besteak, aldiz, oparoa, metatua eta bereziki gozatua esan nahi du, latindarrek *peculium* deitu ziotena. Eta pasartearen esangura hori berrestera dator Jainkoak hartaz jarraian ematen duen arrazoia, Lur osoa nirea da-eta dioenean, Lurreko nazio guztiak nireak dira-eta esango balu bezala; baina ez da horrela neureak zaretena, baizik era berezi batez; zeren herri guztiak baitira, izan, neureak nire boterearengatik, baina zuok zeuon baiespenez eta itunez izango zarete nireak. Nazio ororekiko duen titulu arruntari eransten zaion titulu berria, alegia.

Gauza bera berresten da berriro ere beren-beregi testu berberean: Niretzat apaiz-erresuma eta herri santu izango zarete. Latin arruntak *regnum sacerdotale* dio, eta esapide hori bat dator ondoko pasartearen

itzulpenarekin (1 Pe. 2, 9): Sacerdotium regale, Errege-apaizgoa; Sanctum Sanctorum barnera inori sartzea debekatzen zion instituzioa bera bezala, hau da, inork ere ezin zuela Jainkoaren nahia Jainkoari berari zuzenean galdatu, Apaiz Nagusiak ezik. Lehenago aipatutako ingeles itzulpenak, Genebakoari jarraituz honetan, apaizen erresuma dio; eta honekin Apaiz Nagusien hurrenez hurrenko ondorengotza esan nahi da, edo bestela ez datorke bat ez San Pedrokekin ez apaizgo nagusiaren egikaritzarekin. Zeren ez baitzen izan sekula inor, Apaiz Nagusia soilik baizik, herriari Jainkoaren nahia komunikatzeko baimena zuenik; ezein apaiz-biltzarri ere ez zitzaion utzi inoiz Sanctum Sanctorum barnera sartzen.

Halaber, herri santua titulua ere gauza bera berrestera dator: santuak, izan ere, eskubide bereziz, ez eskubide orokorrez, esan nahi baitu dela Jainkoarena. Lur osoa da Jainkoarena, testuan esaten denez; baina ez zaio santu deitzen lur osoari, baizik, Juduen Herriaren kasua zenez, Jainkoari zerbitzu berezi bat emateko aukeratuari soil-soilik. Beraz, garbi asko erakusten du pasarte horrek berak bakarrik ere, haxe esan nahi dela propioki Jainkoaren erresumaz: Estatu bat, bertan meneko izango zirenen baiespenez eratua, haien gobernamentu zibilerako eta jokabidea arautzeko, ez soilik Erregetzat zuten Jainkoarekiko, baizik baita elkarrekiko ere, justiziari zegokionean, eta gainontzeko nazio guztiekiko, gerratean nahiz bake denboran. Eta hori, propioki hitz eginez, erresuma zen: Jainkoa Erregetzat zuen erresuma, eta, Moisesen heriotzaren ondoren, Apaiz Nagusia izango zuena erregeorde edo loktenente bakartzat.

Baina bada beste pasarte asko ere gauza bera frogatzen duena argiro. Hasteko, 1 Sm. 8, 7, non Israelgo Zaharrek, Samuelen semeen ustelkeriaz gogaiturik, errege bat eskatu zuten eta Samuelek, minduta, otoitzak zuzendu zizkion Jaunari; eta haxe erantzun zion Jaunak: Onartzazu herriak eskatzen dizun guztia. Ez zaituzte zu gutxien; ni naute gutxien, ez bainaute errege nahi beren gain. Garbi dago, hortaz, Jainkoa zela orduan haien Errege; eta Samuelek ez zuela herria gobernatzen, baizik Jainkoak noizbehinka agintzen ziona haiei komunikatu besterik ez.

Beste horrenbeste (1 Sm. 12, 12), Samuelek herriari diotsonean: Baina amondarren errege Nahax zeuen aurka zetorrela ikusi orduko, "Utikan! Erregea nahi dugu agintari!" esan zenidaten, Jauna, zeuen Jainkoa, errege zenutelarik. Garbi dago, beraz, Jainkoa zutela Errege eta Berak gobernatzen zuela haien Estatuaren ordenu zibila.

Eta israeldarrek Jainkoa ezetsi ondoren, profetek haren berreraikuntza iragarri zuten. Horrela, adibidez (Is. 24, 23): Jaun Ahalguztiduna Sion mendian, Jerusalemen, errege izango denean, ilargia eta eguzkia ezkutatu egingo dira lotsaz; pasarte honetan beren-beregi aipatzen delarik Sion eta Jerusalem gainean, hots, lurraren gainean, duen erreinua. Eta (Mikeas 4, 7): Eta ni, Jauna errege izango naute Sion Mendian orain eta betierean. Sion Mendi hori Jerusalemen dago, lur honetan. Halaber (Ez. 20, 33): Neure izenagatik! -dio Jaunak-: ahalmen handiz, esku indartsuz eta neure sumina isuriz izango nauzue errege; eta (37. berts.): Neure artzain-makilapera ekarriko zaituztet eta itun-uztarrian sarraraziko; hau da, zuen gain erreinatuko dut eta Moisesen bitartez egin zenidaten ituna, gero Samuelen egunetan beste errege bat hautatu eta nire aurka jaiki zinetenean hautsi zenutena, betearaziko dizuet.

Eta Itun Berrian haxe dio Gabriel aingeruak gure Salbatzaileaz (Lk. 1, 32-33): Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Dabiden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango. Lurraren gaineko erreinua da hori ere; eta horrela galdatzearen, gainera, heriotzara zigortu zuten, Zesarren etsaitzat, gurutzean Jesus Nazaretekoa, Juduen Errege jarri ziotelarik izenburutzat, eta irri egin zioten arantza-koroaz koroatuz. Eta erresuma hori aldarrikatzearen haxe esaten da dizipuluez (Ap. Eg. 17, 7): Hauek guztiok enperadorearen aginduen aurka ari dira, badela beste errege bat esanez, Jesus alegia. Jainkoaren erresuma, beraz, benetakoa da eta ez metaforazkoa, eta halaxe ulertu behar da Itun Zaharrean ezezik Berrian ere; zeren Zeurea delako erresuma, boterea eta aintza diogunean, geure itunaren kariaz eratutako Jainkoaren erresuma ulertu behar baita, ezen ez Jainko boterearen eskubideen kariaz eratutakoa; azken hau, izan ere, beti baitauka Jainkoak, eta alferrekoa litzateke gure otoitzean dioguna, Betorkigu zure erreinua, Kristoren bidez berreratutako Jainkoaren erreinuaz ez bagenbiltza, hots, israelarren errebeldiarengatik Saul hautatzean etenda geratu zen erresumaz. Ez zitekeen egokia, ezta ere, Hurbil dago Jainkoaren erreinua esatea, edo Betorkigu zure erreinua otoitz egitea, erreinu horrek bere hartan jarraitu izan balu.

Hain da ugaria goiko interpretazio hori baieztatzen duen pasarte mordoa, non harritzekoa den horren berri gehiago ez eskaintzea, errege kristauei eliz gobernuarekiko eskubideez argi gehiegi ematearen beldurragatik ez bada. Eta jabetu dira horretaz, nonbait, apaiz-erresuma itzuli beharrean apaizen erresuma itzuli dutenak; zeren berdin-berdin itzul baitzezaketan San Pedoren Epistolako errege-apaizgoa ere erregeen apaizgoa esapidetz. Eta herri berezia esapidea bitxi ederra edo altxorra esapidera aldatzen badute, arrazoi bera legoke jeneral baten erregimendu edo konpainia bereziari ere jeneralaren bitxi ederra edo altxorra deitzeko.

Laburbilduz, Jainkoaren erreinua erresuma zibil bat dela; eta hasiera batean honexetan zetzan: Israel herriaren obligazioan, alegia, Moisesek Sinai Menditik ekarri zizkien -eta ondoren garaian garaiko Apaiz Nagusiak kerubinen artean sanctum sanctorumean ematen zizkien- lege haiekiko; erresuma hori, Saul hautatzeagatik ukatua izan ondoren, Kristok berreratuko zuela iragarri zuten profetek, eta berreraikuntza

horren alde erregutzen dugu egunero, Jaunaren otoitzean Betorkigu zure erreinua diogunean; eta erresuma horren eskubidea ezagutzen dugu zera eranstea: Zeurea delako erresuma, boterea eta aintza sekulorum sekulotan, amen; eta erresuma horren aldarrikapena izan genuen, hain zuzen, Apostoluen predikua, Ebanjelioaren irakasleen egitekoa delarik gizakiak hartarako prestatzea. Ebanjelio hori besarkatzea, hau da, Jainkoaren gobernuari menekotasuna agintzea da graziazko erresuman egotea, Jainkoak horiei gratis eman baitie meneko (hots, Jainkoaren seme) etorkizunean izateko ahalbidea, Kristo maiestatzetik etor dadinean mundua epaitzera eta berea duen herria egitatez gobernatzera, gloriatzeko erresuma deitzen zaiolarik horri. Baldin Jainkoaren erresuma hau -zeruetako erresuma ere deitzen zaiona, tronu horren gorentasun aintzatsu eta miresgarriagatik- Jainkoak bere loktenente edo ordekoen bitartez herriari manamenduak helaraziz mundu honetan bertan burutzen duen erresuma ez balitz, ez zen horrenbeste eztabaida eta matraka sortuko, nonbait, Jainkoak zeinen bitartez hitz egiten ote digun ebazteko, eta apaizek ez zuten hainbeste arazorik izango eskumen izpirituala dela-eta, ezta ezein erregek ere ez zien eskumen hori ukatuko.

Jainkoaren erresuma hitzaren interpretazio literal horretatik datorkigu SANTUA hitzaren egiazko interpretazioa ere. Zeren gizakumeek beren erresumetan publikoa edo erregearena deitzen diotenari erantzuten baitio hitz horrek Jainkoaren erresuman.

Zeinahi herrialdetan, erregea da bere meneko guztien pertsona publikoa edo ordekoa. Eta Jainkoa, Israelgo erregea, izan zen Israelgo Santu bakarra. Mundu honetako subirano baten menpe dagoen herria subirano horren herria da, hots, pertsona publikoarena. Eta horrela, Jainkoaren herri ziren juduei herri santu deitu zieten (Ir. 19, 6). Horixe ulertzen baita betiere santutzat: Jainkoa bera edo Jainkoaren jabegokoa; eta publikotzat beti ulertzen da biotarik bat: edo Estatuaren pertsona bera, edo ezein pertsona pribatuk beretzat inondik ere galda ez dezakeen Estatuaren jabegoa dena.

Horrenbestez, larunbata, Jainkoaren eguna, egun santua da; Tenplua, Jainkoaren etxea, etxe santua; opariak, hamarrenak eta eskaintzak, Jainkoaren tributuak, betebeharrak santuak; apaizak, profetak eta Kristoren izenean gantzututako erregeak, Jainkoaren ministrariak, gizon santuak dira; zerutar izpiritu ministrariak, Jainkoaren mezulariak, aingeru santuak; eta abar. Eta santua hitza bere zentzu hertsian erabiltzen den bakoitzean, baiespenez lortutako jabegoa adierazten duen zerbait dago. Santu izan bedi zure izena diogunean, Jainkoaren lehen manamendua, Bera besterik Jainkotzat ez hartzea agintzen diguna, bete ahal izateko grazia erregutu besterik ez diogu egiten Jainkoari. Gizateria Jainkoak jabegoan duen herria da, baina juduak bakarrik ziren herri santu. Zer beste arrazoirik zitekeen horretarako, itun bidezko jabego bihurtu zitzaizkiola ez bada?

Profano hitzari dagokionez, arruntaren sinonimotzat erabili ohi du Idazteunak; hortik hitz horien aurkako santu eta berezia sinonimoak izatea Jainkoaren erresumari dagokionean. Baina santuak deitzen zaie baita ere, zentzu figuratiboan, bizitza jainkozkoa eraman duten gizakumeei, xede mundutar oro baztertu eta Jainkoari guztiz eskaini zaizkion gizakumeei, alegia. Zentzu propioz, Jainkoak beretzat hartuz edo bere erabilpenerako bereiziz santu bihurtu denari buruz esan ohi da Jainkoak santifikatu egin duela, adibidez laugarren manamenduko zazpigarren egunari buruz; edota Itun Berriak dioenean hautatuak santifikatuak izan zirela, jainkozko izpirituz beteak gertatzean. Eta gizakumeen eskaintzaz santu bihurtu eta Jainkoari eman zaionari, halako moldez, non Haren zerbitzu publikorako besterik ezin den erabili, SAKRATUA ere deitzen zaio eta sagaratua izan dela esan ohi da. Halaxe gertatzen da tenpluekin eta otoitz publikorako beste etxe batzuekin, baita bertako tresna, apaiz eta ministrari, biktima, opari eta sakramentuen azaleko gaiekin.

Badira santutasun graduak; izan ere, Jainkoaren zerbitzurako bereizten diren gauzen artean, batzuk oraindik gehiago ere bereiz daitezke zerbitzu barneko eta bereziago baterako. Israeldarren nazio osoa zen herri santu Jainkoarentzat, baina Lebiren leinua leinu santu zen israeldarren euren artean ere, eta lebitarren artean ere santuagoak oraindino apaizak. Era berean, Judeako lurraldea Lurralde Santua zen, baina ere santuagoa Jainkoa gurtu behar zen hiri santua, eta hiria bera baino santuagoa Tenplua, eta gainontzeko Tenplua baino santuagoa oraindik Sanctum Sanctorum.

SAKRAMENTUA gauza ikusgaiaren bat erabilpen arruntetik bereiztea da, eta gauza hori Jainkoaren zerbitzurako sagaratzea, dela Jainkoaren erresumaren barruan Haren herri bereziaren kide izateko onartu gaituzten zeinutzat, dela gertakari horren oroitarretzat. Itun Zaharrean, onarpen-zeinua zirkuntzisia zen; Itun Berrian, bataioa. Itun Zaharrean, gertakari horren oroitarrea Bazko Bildotsa jatean zetzan, urtemuga-data jakin batean, judu herria Egiptoko joputzatik askatua izan zen gau hura gogoraraziz; Itun Berrian, aldiz, Jaunaren Afariaren oroitarrea daukagu, gure Salbatzaile Bedeinkatuaren gurutzeko heriotzak bekatuaren joputzatik askatu gaituela gogorarazten diguna. Onarpen Sakramentuak behin bakarrik erabiltzen dira, aski baita behin soilik onartua izatea; baina bekatutik askatuak izana eta gure Ituna sarritan gogoratu beharra daukagunez, Oroitarre Sakramentuak behin eta berriro egitekoak dira. Eta horiexek ditugu sakramentu nagusiak, gure Itunarengatik egiten ditugun zin-eskaintza handiak. Badira beste sagarapen batzuk ere, Jainkoaren zerbitzurako sagaratzeak diren aldetik soilik dei dakiekeenak

sakramentuak; baina Jainkoarekin Itun-zina edo promesa barne daramatenak zirkuntzisia eta Bazkoa besterik ez dira Itun Zaharrean, eta bataioa eta Jaunaren Afaria besterik ez Itun Berrian.

## XXXVI

Jainkoaren eta profeten hitzari buruz

Jainkoaren hitza, edo giza hitza, aipatzen denean, ez da esan nahi gramatikariak izena edo aditza deitzen diotena -edo esangura eman diezaion aldameneko hitzekiko testuingururik gabeko beste ezein hots bakun-; baizik mintzaldi edo diskurtso oso bat, zeinen bidez hitzunik baiezta, ezeztu, manatu, agindu, mehatxatu, eskatu edo galdekatu egin dezakeen. Eta zentzu honetan, hitzak ez du esan nahi vocabulum, baizik sermo (grekeraz λογος), hau da, perpausa, mintzaldia edo errana.

Halaber, Jainkoaren edo gizakiaren hitza diogunean, hitzunaren beraren hitza esan nahi da batzuetan, Jainkoak esandakoa edo gizakume jakin batek esandakoa, alegia; zentzu honetan, San Mateoren Ebanjelioa diogunean, San Mateo bera izan zela idazlea esan nahi dugu. Beste batzuetan, berriz, gaia esan nahi da; zentzu honetan, Biblian Israelgo edo Judako erregeen egunetako hitzak irakurtzen dugunean, hitzok garai hartan burututako ekintzak hartzen dituztela gaitzat esan nahi da. Eta grekoz, Idazteunean hebraismo asko atxikitzen baitu grekoak, Jainkoaren hitzaz ez da esan nahi, sarritan, Jainkoak berak esan duena, baizik Jainkoari eta beronen gobernuari dagokiona, hau da, erlijioko doktrina; halako punturaino, ezen gauza bera den lovgo" qeou' eta Theologia (Divinity edo teologia-ikasketa deitu ohi dioguna) esatea, ondoko pasarte hauetan ageri denez (Ap. Eg. 13, 46): Orduan, Paulok eta Bernabek ausarki esan zuten: Zeuei adierazi behar genizuen lehenengo Jainkoaren hitza! Baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizirako gai ikusten ez dituzuenez gero, jentilengana joko dugu. Hemen Jainkoaren hitza deitzen zaiona kristau erlijioaren doktrina zen, aurrerago esandakotik garbi ageri denez. Eta (Ap. Eg. 5, 20) aingeruak Apostoluei zera diotsenean: Zoazte Tenplura, eta azaldu herriari biziera honi dagozkion hitz guztiak; biziera honi dagozkion hitzak esatean Ebanjelioaren doktrina esan nahi da, apostoluek Tenpluan egin zutenak, kapitulu bereko azken bertsetean, argi uzten duenez: Eta, Tenpluan nahiz etxez etxe, etengabe irakasten eta hots egiten zuten Jesus Mesias delako berriona; pasarte honetan bistako delarik Jesukristo zela bizitzaren hitz honen gaia, edo, berdin dena, gure Salbatzaileak eskaintzen zizkien betiko bizitza honen hitzek gaitzat zutena. Orobat (Ap. Eg. 15, 7), Jainkoaren hitzari Berri Ona edo Ebanjelioaren hitza deitzen zaio, Kristoren erresumari buruzko doktrina dakarrelako; eta hitz berari (Erm. 10, 8-9) fedearen hitza deitzen zaio, hau da, hortxe bertan azaltzen denez, Kristo mundura etorri eta hilen artetik bizitu zela dioen doktrina. Halaber (Mt. 13, 19), Erregetzaren hitza entzuten duenari esaten da; Kristok irakatsitako erresumaren doktrina entzuten duenari, alegia. Eta hitz horretaz hauxe esaten da berriz ere (Ap. Eg. 12, 24), Jainkoaren hitza zabalduz eta ugalduz zihoan, ulergarri zaiguna Ebanjelioaren doktrinaz ari bada, baina zail eta arraroa Jainkoaren ahotsaz edo hizkuntzaz badihardu. Zentzu berean (1 Tim. 4, 1), deabruaren irakatsiak ez du esan nahi ezein deabruen hitzak, baizik ateoek deabruen buruz eta jainkotzat gurtzen zituzten irudikari horiei buruz zituzten doktrinak.

JAINKOAREN HITZAK Idazteunean dituen bi adierok kontuan hartuz, garbi dago azken adiera horretan, hots, kristau erlijioko doktrinaren adieran, Idazteun osoa dela Jainkoaren hitza; baina lehen adieran ez da gauza bera gertatzen. Esaterako, Ni Jauna nauzu, zure Jaungoikoa, etab., Hamar Aginduen azkenerantz, Jainkoak Moisesi esan zizkion arren, kapitulu horren hitzaurrea, Orduan Jaunak hurrengo hitz guztiok esan zituen, historia santua idatzi zuenaren berbatzat hartu behar dira. Jainkoaren hitza, Berak esan duena adierazteko erabilia denean, batzuetan hertsiki eta beste batzuetan metaforikoki ulertzen da. Hertsiki, Hark bere profetei esandako hitzak direla adierazteko; metaforikoki, mundua sortzerakoan erakutsi zuen jakinduria, boterea eta betidaniko egitasmoa adierazteko; zentzu honetan, fiat (egin bedi) horiek, Egin bedi argia, Egin bedi ortzia, Egin dezagun gizona, etab. (Has. 1) Jainkoaren hitzak dira. Eta zentzu bera dute ondoko esanok ere: Hitzaren bidez egin ziren gauza guztiak, eta egindakotik ezer ez da berau gabe egin (Jn. 1, 3); Berak eusten die gauza guztiei bere hitz ahaltsuaz (Heb. 1, 3), hau da, bere hitzaren indarrez, hots, bere boterez; Bere hitzaz eratu zuen Jainkoak mundua (Heb. 11, 3); eta zentzu berbera duten beste pasarte asko. Latindarren artean ere fatum izena, ahoz esandako hitza esan nahi duena propioki, zentzu berean hartzen delarik.

Bigarrenik, Jainkoaren hitzaren ondorioa esan nahi du, hau da, Haren hitzak baiezten, manatzen, mehatxatzen edo agintzen duen edukia bera. Halaxe esaten da (Sal. 105, 19) Jose espetxean sartuta eduki zutela haren hitza heldu zen arte, hau da, hark Faraonen etxezainari iragarritakoa (kargua berremango ziotela) bete zen arte (Has. 40, 13); pasarte honetan, bada, haren hitza heldu zen arte esateak gertatzekoa zen gauza edo gertaera esan nahi du. Horrelaxe diotso Eliasek Jainkoari: Hauek guztiak zeure hitz egin ditut (1 Err. 18, 36), Hauek guztiak zeure hitzarengatik edo manuarengatik egin ditut esan beharrean. Eta halaxe ondoko pasartean (Jer. 17, 15) ere: Non dago Jaunaren hitza? esaten da, Non dago Hark mehatxatu zizun kaltea? esan beharrean. Eta (Ez. 12, 28): Ez dira gehiago nire hitzak luzatuko esatean, hitzak Jainkoak herriari agindu zizkion gauzak dira. Eta Itun Berrian (Mt. 24, 35): Zeru-lurrak igaroko dira, baina nire hitzak ez dira bete gabe igaroko, hots, Nik agindu edo iragarri dizuedan ezertxo ere ez da geratuko gauzatu gabe. Eta zentzu honexetan dio San Joan Ebanjelariak, eta San Joan bakarrik dela uste



dut gure Salbatzaileari berari Jainkoaren hitz haragitua deitzen diona, pasarte honetan (Jn. 1, 14): Eta Hitza haragi egin zen, hau da, Kristo mundura etorriko zen hitza edo agindua; eta hasieran Hitza Jaungoikoarekin zegoen, hau da, Jainko Aitaren asmotan zegoela Jainko Semea mundura bidaltzea, gizakiak betiko bizitzaren bidean jartzeko, baina asmo hura ez zela ordurarte gauzatu edo benetan haragi egin. Honenbestez, hemen gure Salbatzaileari hitza deitzen bazaio, ez da Hura promes hutsa zelako, promesean emandako edukia bera zelako baizik. Beraz, pasarte horretan oinarrituz Jainkoaren Verbum deitzen diotenek Hari, testua ilunagotzea besterik ez dute lortzen. Zeren berdin-berdin dei baitziezaioketen Jainkoaren Izena ere; hala izena nola verbum terminoez haxe besterik ez dutelako ulertzen gizakumeek: perpausaren zati bat edo hots bat, ez duena ez baieztan, ez ezeztan, ez manatzen, ez agintzen, eta ez dena substantzia gorpuzdun ez izpirituala; eta ezin eslei dakioketena, beraz, Jainkoa ez gizona izatea; gure Salbatzaileari, ordea, Jainko nahiz gizon izatea dagokion bitartean. Eta San Joanek bere Ebanjelioan Jainkoarekin zegoela dioen Hitz horri bizitzaren Hitza deitzen dio bere 1 Epistolako 1. bertsetean; eta 2. bertsetean, Aitarengan zegoen betiko bizitza. Horrela, beraz, zentzu bakar batean besterik ezin dei dakioketela Hari hitza: betiko bizitza deitzen diogun zentzuari; hau da, gizakundeari esker betiko bizitza jadetsi diguna. Era berean (Apokalipsia 19, 13), Apostoluak Kristo odolatan bustitako soinekoz jantzita aurkezten digunean, Haren izena Jainkoaren Hitza dela diosku, eta honela ulertu behar da, Haren izena honako haxe dela esan balu bezala: Jainkoaren hasieratik asmoen arabera, eta Haren hitzaren eta profetek iragarritako aginduen arabera, etorri zitzaiguna. Hemen ez da ezer, beraz, hitz baten haragitzeaz, baizik Jainko Semearen gizakundeaz; eta Hitza deitzen zaio, gizakunde hori agintzari baten burutzapena izan zelako; Izpiritu Santuari ere agintzaria deitzen zaion bezalaxe (Ap. Eg. 1, 4; Lk. 24, 49). Bada beste zenbait pasarte Idazteunean, non Jainkoaren hitzaz zentzuaren eta ekitatearen araberrako hitzak esan nahi den, nahiz eta zenbaitetan hitzegilea bera ez izan ez profeta ez gizakume santua. Horrela adibidez, Nekao Faraona bera idolatra zen, baina Josias errege jatorrari esan zizkion hitzak -Karkemiren kontra zihola eta bidera ez irteko aholkatu zionean mezularien bidez- Jainkoaren ahotik zetozela esan zen, eta hitzok ez entzutearren hil zela Josias guduari, 2 Kro. 35, 21-23 bertsetetan irakur dezakegunez. Egia da historia berori Esdrasen lehen liburuak kontatzen duenez ez zela izan Faraona, Jeremias baizik, Jaunaren ahotik hitz horiek esan zizkiona Josias. Baina Eskritura kanonikoari eman behar diogu sinespidea, Apokrifoetan idatzita dagoena dagoelarik.

Jainkoaren hitzat hartzen dira baita ere arrazoizko eta ekitatezko diktatuak, Idazteunean esaten den gauza bera gizakumeen bihotzean idatzita dagoenean; halaxe gertatzen da Sal. 36.31n, Jr. 31.33an, Dt. 30.11,14an, eta beste pasarte askotan.

PROFETA hitzak Idazteunean prolocutor esan nahi du batzuetan, hau da, Jainkoagandik gizakiari edo gizakiagandik Jainkoari hitz egiten diona; beste batzuetan, praedictor esan nahi du, etorkizun direnak iragartzen dituen, alegia; eta beste batzuetan, berriz, nahas-mahas hitz egiten duena, sena galdurik dabiltzanaren moduan. Jainkoagandik herriari hitz egiten dionari ezarri ohi zaio hitz hori maizen. Horrela adibidez, Moises, Samuel, Elias, Isaias, Jeremias eta beste batzuk profetak izan ziren. Eta, zentzu honetan, Apaiz Nagusia profeta zen, bera zelako sanctum sanctorum Jainkoari galdetzeraz sartzen zen bakarra eta berak komunikatzen zizkiolako herriari Haren erantzunak. Beraz, egoki zela herriagatik gizon bat hiltzea Kaifasek esaterakoan, haxe dio San Joanek (Jn. 11, 51): Kaifasek ez zuen hori bere kabuz esan, baizik eta, urte hartan Apaiz Nagusia zenez, Jainkoaren izenean hitz egin zuen, Jesus herriaren alde hilko zela adieraztean. Kristau batzarretan herriari irakasten ziotenek ere profetizatu egiten zutela esaten da (1 Ko. 14, 3). Eta zentzu honexetan diotso Jainkoak Moisesi (Ir. 4, 16): Berak egingo dio hitz herriari zure izenean; bera izango da zure ahoa, eta zu haren Jainkoa izango zara; hemen, hitz egingo duena esateak profeta esan nahi du (Ir. 7, 1); Hara -dio Jainkoak-, neure ordezkari jartzen zaitut faraoiaren aurrean, eta zeure anaia Aaron izango duzu profeta. Gizakiagandik Jainkoari hitz egiteari dagokionez, Abrahami profeta deitzen zaio (Has. 20, 7), Jainkoak amets batean honela hitz egiten dionean Abimeleki: Orain, ordea, itzul iezaiozu gizon horri bere emaztea; profeta denez, zure alde erregutuko du eta ez duzu galduko bizia; eta hortik atera daiteke profeta izena eman dakiekeela orobat, eta ez inpropioki, kristau elizetan oititz publikoak egiteko eginkizuna dutenei batzartuen izenean. Zentzu berean, salmodi, pandero, xirula eta harpa batekin leku garaitik edo Jainkoaren menditik jaisten ziren profetek (1 Sm. 10, 5-6), eta euren artean Saulek (10. berts.), era horrexetara Jainkoa publikoki laudatzen zutelako esaten da profetizatu egiten zutela. Eta zentzu horrexetan deitzen zaio Miriam emakumeari ere profeta (Ir. 15, 20). Halaxe ulertu behar da San Paulok hurrengo hau dioen pasarte (1 Ko. 11, 4-5): Burua estalirik duela oititz egiten edo profeta bezala hitz egiten duen gizonak desohoratu egiten du bere den Kristo. Eta burutsik oititz egiten edo profeta bezala hitz egiten duen emakumeak desohoratu egiten du...; izan ere, pasarte honetan, profetizatzeak ez baitu besterik esan nahi Jainkoa salmoz eta abesti santuz laudatzea baino; emakumeek ere elizan egin zezaketena, batzarrean hitz egitea zilegizko ez zitzaien arren. Eta zentzu horrexetan deitzen zitzaien vates (profeta) beraien jainkoen ohoretan ereserkiak edo bestelako poemak konposatzen zituzten poeta jentilei ere, jentilen liburuetan adituak direnentzat aski ezaguna denez, eta argi ageri denez, baita, San Paulok kretarrei buruz zera dioenean (Tito 1, 12), beraien profeta

batek gezurtitzat jotzen zituela. Horrek ez du esan nahi San Paulok poetok profetatzen zituenik, baizik bazekiela profeta hitza Jainkoa bertsoz laudatzen zutenei deitzeko erabili ohi zena.

Etorkizuneko gertakariak auresateari edo iragartzeari deitzen bazaio profetia, Jainkoak beraiei iragarritakoa gainontzekoei aldarrikatu zieten Jainkoaren bozeramaleak ezezik, gezur-iragarle guztiak ere profeta ziratekeen, hau da, famili izpirituen laguntzaren bidez edo arestiko gertaera eta dedukzio faltsuetan oinarritutako azti-igarpenen bidez, etorkizunerako ere antzeko gertaerak iragarri nahi dituzten guztiak ziratekeen profeta. Profeta faltsuon artean, diskurtso honen 12. kapituluaren esan dudanez, mota askotakoak dira, sarri-sarritan izan ohi dituzten porrotengatik galtzen dutena baino profeta-ospe handiagoa lortzen dutenak, herri xehearen aurrean, halabeharrezko gertaeraren bat beren xedeetarako nahierara erabiliz. Profetia ez da arte bat, ezta ere (iragarpen zentzuan hartuz) bokazio iraunkor bat, baizik Jainkoagandiko eginkizun ezohiko eta behin-behinekoa, gizakume zintzoei dagokiena gehienetan, baina baita batzuetan maltzurri ere. Endorren emaztea, beraz, famili izpirituen bat omen zuena eta horren bidez Samueli irudikari bat sortarazi ziona eta Sauli ere heriotza iragarri, ez zen profeta; ez zuelako zientziarik halako irudikari bat sortarazteko, eta ez dirudielako Jainkoak horrelakorik sortaraztea agindu zionik ere, baizik Jainkoa iruzur hartaz baliatu egin zela Saulengan izua eta etsipena, eta ondorioz errege horren hondamenerako porrota, eragiteko. Baina hizkera nahaspilatsu hargatik, iragarpena profetia modukotzat hartua izan zen jentilen artean, zeren profetak beren orakuluetan benetan erotzen baitziren aldi batez eta ero bezala hitz egiten baitzuten, Delfosko Pitias orakuluaren kobatik irteten zen izpiritu edo lurrin batek toxikatuta; eta horien hitz nahasietatik beti atera zitekeen gertakariari zegokion zentzuren bat, gorputz guztiak halako lehengai batez eginak direla esaten denean bezala. Idazteunean horrelako zerbait aurkitzen dut (1 Sm. 18, 10) hitz hauetan: Jainkoak bidalitako izpiritu gaiztoak jo zuen Saul, eta han zebilen eroa bezala bere etxe osoan barrena.

Baina idazteunean profeta hitzaren hainbeste esangura diren arren, hauxe da, hala ere, ohikoena: Jainkoak zuzenki hitz egiten diona, Bere mezu hori beste gizakumeren bati edo herriari eman diezaion. Eta hortik sor daiteke galdera, Jainkoak profeta horri zelan hitz egiten ote dion. Esan al daiteke zentzu hertsian - galde dezake norbaitek- Jainkoak ahotsa eta hizkera dituela, ezin denean propioki esan, ordea, Hark mihia edo organorik duenik gizakien antzera? Dabid profetak honela ihardesten du (Sal. 94, 9): Belarria ezarri zuenak ez al du, bada, entzungo? Begia eratu zuenak ez al du, bada, ikusiko? Baina horrela hitz egin daiteke, ez (eskuarki egin ohi den bezala) Jainkoaren natura adierazteko, baizik Hura ohoratzeko asmoa ager dezagun. Entzutea eta ikustea, izan ere, atributu ohoragarriak dira, eta Jainkoari esleia dakizkiokeenak, nonbait, Haren botere ahalguztiduna (berau bururatzeko gai garen heinean) aldarrikatzearren. Baina esakera horiek beren zentzu hertsia eta propioan hartuz gero, zera iharduki dezake baten batek: giza gorputzaren gainontzeko parte guztiak ere Jainkoak berak egin dituenek, Honek guztiok erabil ditzakeela, gizakion antzera; eta hain parte lotsagarri asko esleitu beharko genioke Jainkoari, ezen munduko laidorik handiena litzatekeen. Jainkoak gizakiei zuzenki hitz egite hori, beraz, Hark bere nahia ulertarazteko darabilen dena delako komunikazio modutzat interpretatu behar dugu. Era asko dira, izan, Jainkoak horretarako darabiltzanak, eta Liburu Santuetan bilatu behar ditugu soil-soilik; zeren hor sarritan esaten zaigun arren Jainkoak urliari edo sandiari hitz egin ziola baina nola hitz egin zion esan gabe, bada beste pasarte asko, hala ere, Jainkoaren manamenduak eta presentzia ezagutzeko gidatzat erabili zituzten zeinuak zeintzuk ziren esaten zaiguna; eta zeinu horiei erreparatuz uler dezakegu Jainkoak zein eratara hitz egin zion beste askori ere.

Ez zaigu esaten Jainkoak zein eratara hitz egin zion Adan, Eba, Kain eta Noeri; ezta ere zelan hitz egin zion Abrahami, hau beronen herritik Kanaan lurraldeko Sikemerantz irten arte; eta orduantxe esaten da (Has. 12, 7) Jaungoikoa agertu egin zitzaiola. Horra hor, bada, Jainkoak bere presentzia adierazteko modu bat: agerkunde edo ikuskari baten bidez. Eta berriro ere esaten da (Has. 15, 1) Jainkoaren hitza Abrahami ikuskari baten bidez iritsi zitzaiola, hau da, zerbait agertu zitzaiola Jainkoaren presentziaren zeinutzat, Haren mezulari gisa hitz egiteko. Eta beste behin (Has. 18, 1), hiru aingeruren agerkunde baten bidez agertu zitzaion Jauna Abrahami; eta amets batean Abimeleki (Has. 20, 3); Loti, berriz, aingeru biren agerkundez (Has. 19, 1); eta Agarri aingeru baten agerkundearen bidez (Has. 21, 17); eta berriro Abrahami (Has. 22, 11) zerutiko ahots baten agerkundez; eta Isaaki (Has. 28, 12) gauez, hots, lotan zegoela edo amets baten bidez; eta Jakobi ere amets batean, hau da, testua hitzez hitz aipatuz (Has. 28, 12), Jakobek mailadi bat ikusten zuela amets egin zuen...; baita (Has. 32, 1) aingeruen ikuskari baten bidez; Moisesi, aldiz, sasitza bateko sugar baten agerkundea medio. Eta Moisesen garaiaz geroztik, Jainkoak gizakumeari zuzenki zelan hitz egiten zion aipatzen denean Itun Zaharrean, beti hitz egin izan dio ikuskari edo amets baten bidez. Horrela gertatu zen Gedeon, Samuel, Elias, Ezekiel eta gainerako profetekin; eta berdin gertatu zen Itun Berrian ere, Jose, San Pedro, San Paulo, eta Apokalipsian San Joan Ebanjelariari hitz egin zienean.

Moisesi soilik hitz egin zion Jainkoak modu ezohikoagoz Sinai mendian eta Etxolan; eta Apaiz Nagusiari Tenpluko Tabernakuluan eta sanctum sanctorumean. Baina Moises eta honen ondorengo Apaiz Nagusiak Jainkoaren ederrean goragoko lekuan eta mailan zeuden profetak ziren; eta Jainkoak berak dio beren-

beregi gainerako profetei ametsen eta ikuskarien bidez hitz egin ziela, baina Moises bere morroiari, ordea, gizona bere adiskideari mintzo ohi zaion modura. Hona hemen pasarte horretako hitzak (Zen. 12, 6-7-8): Zuen artean profetarik baldin bada, ikuskaritan ematen natzaio ezagutzera eta ametsetan mintzatzen. Ez, ordea, neure zerbitzari Moisesi: konfidantza osoko gizona dut neure etxean; ahotik ahora hitz egiten diot, aurrez aurre eta ez hitzerdika. Hark nire irudia ikusten du, Jaun honena. Eta Ir. 33, 11.ean: Jaunak aurrez aurre egiten zuen hitz Moisesekin, lagunak lagunarekin hitz egiten duen bezala. Hala eta guztiz, Jainkoak Moisesi hitz egite hura aingeru baten edo aingeruen bidez izan zen, Ap. Eg. 7, 35 eta 53.ean, eta Gal. 3, 19.ean esaten denez beren-beregi; beraz, harena ere ikuskari bat izan zen, gainontzeko profetei emandakoa baino argiagoa izan arren. Horrenbestez, Jainkoak (Dt. 13, 1): Zuen artean profeta edo ametsen ameslariren bat jaiki badadi... dioenean, bigarren izen hori lehenaren interpretazioa besterik ez da. Eta (Joel 2, 28): Zuen seme-alabek profetizatu egingo dute, zuen zaharrek ametsak egingo dituzte, zuen gazteek ikuskariak ikusiko dituzte; pasarte honetan ere profezia hitza amets eta ikuskaritzat interpretatzen da. Eta era berean hitz egin zion Jainkoak Salomoni, jakinduria, aberastasuna eta ohoreak agintzean; haxe baitio testuak (1 Erg. 3, 15): Esnatzean, Salomon ohartu zen Jauna ametsetan agertu zitzaiola. Horrela beraz, Itun Zaharreko profeta apartak, eskuarki, ametsen edo ikuskarien bidez jabetu ziren, eta ez bestela, Jainkoaren hitzaz; hau da, lotan edo estasi-egoera batean zeuden bitartean izandako irudipenen bidez. Profeta jatorren kasuan, irudipen horiek naturaz-gaindikoak izan ziren; profeta faltsuen kasuan, ordea, edo naturalak edo itxura hutsak.

Profeta apart haietaz, alabaina, izpirituaren indarrez hitz egiten zutela esaten da; Za. 7, 12.eanean adibidez, profetak haxe dioenean juduez: Gogortu egin zuten beren bihotza, Jaun ahalguztidunak, bere izpirituaz, antzinako profeten bidez ematen zizkien irakaspen eta hitzak ez entzuteko. Non bistakoa gertatzen den izpiritu edo inspirazio bidez hitz egitea ez zela Jainkoak hitz egiteko modu bereziren bat, ikuskaritik desberdina, baizik izpirituaren indarrez mintzo bide ziren haiek hain profeta ezohikoak zirela, non mezu berri bakoitzerako egikera berezi bat behar zuten, edo, berdin dena, amets edo ikuskari berri bat.

Itun Zaharrean bokazio iraunkorrez profeta zirenen artean, batzuk gorenak izan ziren, eta beste batzuk subordinatuak. Profeta gorena Moises izan zen, lehenengo eta behin; eta honen ondoren Apaiz Nagusiak, bakoitzaren izendapenak iraun zuen bitartean eta apaizgo hori errege-apaizgoa izan zen bitartean; eta judu herriak Jainkoa ezetsi zuenean erregetzat, Jainkoaren gobernura meneratu ziren erregeak ere profeta gorenak izan ziren, eta Apaiz Nagusiaren kargua ministru-kargu bihurtu zen. Eta Jainkoari aholku eskatzera zihoazenean, soineko santuak janzten zituzten eta erregearen aginduen arabera zuzentzen zizkioten galderak Jaunari; eta kargua kendu egiten zitzairen, erregeak egoki zeritzenean. Horrela, Saul erregeak (1 Sm. 13, 9) erreoparia eman ziezaioten agindu zuen, eta Kutxa hurbil ziezaioten agindu zien Apaiz Nagusiei (1 Sm. 14, 18); eta berriro bakarrik utz zezaten (9. berts.), etsaiekiko abantaila ikusi zuela-eta. Eta kapitulu berean (37. berts.) Saulek berak eskatzen dio aholku Jainkoari. Era berean, Dabid erregeak ere gantzutua izan ondoren, nahiz eta erresumaren jabetza hartu aurretik Jaunari kontsulta egin ziola esaten den (1 Sm. 23, 2) Keilan filisteoen aurka borrokatu behar ote zuen; eta Dabidek apaizari agindu ziola (9. berts.) efoda ekar ziezaioten, Keilan geratu behar ote zuen ala ez galdetzeko Jainkoari. Eta Salomon erregeak Abiatarren apaizgoa jaso zuen (1 Erg. 2, 27) eta Zadoki eman zion (35. berts.). Beraz, bai Moises eta Apaiz Nagusiak, baita errege jainkozaleak ere, Jainkoari une berezi orotan zelan jokatu behar ote zuten edo zer gertatuko ote zitzairen galdetzen ziotenak, profeta subiranoak ziren denok. Baina Jainkoak zelan hitz egin zien ez dago batere argi. Moises Jainkoarengana igo zenean Sinai Mendira, hura gainontzeko profeten tankerako amets edo ikuskari bat izan zela esatea, Moises eta gainerako profeten artean Jainkoak berak egindako bereizketaren kontra lihoake (Zen. 12, 6-8). Jainkoa bere naturaren arabera agertu zitzaiola esatea, aldiz, Haren mugagabetasun, ikustezintasun eta atzemanetzintasuna ukatzea litzateke. Izpiritu Santuaren inspirazioz edo infusioz hitz egin ziola esatea, Izpiritu Santua Jainko izatea denez, Moises Kristoren parekotzat jotzea litzateke, zeinetan Jainkotasuna (San Paulok Kolosarrei 2, 9.ean dioen bezala) gorputz bihurtu zen. Eta, azkenez, Izpiritu Santuaren bidez hitz egin ziola esatea, Izpiritu Santuaren dohain eta grazien bidez alegia, ezer supernaturalik ez esleitzea litzateke. Izan ere, Jainkoak deboziora, zuzentasunera, errukira, egiara, federa eta edozein motatako bertute moral nahiz adimen-bertuteetara zuzentzen baititu gizakumeak doktrinaren eta ereduaren bitartez, aukera natural eta ohikoez baliatuz.

Eta komunikazio bide horiek ezin eslei dakizkiokeenez Jainkoari Sinai Mendian Moisesekin hitz egiterakoan, ezin zaizkio esleitu, ezta ere, Apaiz Nagusiei erruki-aulkitik hitz egiterakoan. Guretzat ulertezina da, beraz, Jainkoak Itun Zaharreko profeta subirano haiei, Hari aholku eskatzea eginkizuntzat zutenei, zein erataria hitz egin ote zien; ez delako ezer esaten ahotsarenaz aparte, eta hau ere ulertezina dugulako. Itun Berriaren garaian, berriz, ez zen beste profeta subiranorik izan gure Salbatzailea baino, eta Bera izan genuen, aldi berean, hitz egiten zuen Jainkoa eta Jainkoak hitz egiten zion profeta.

Bokazio iraunkorreko profeta subordinatuei dagokienez, ez dut aurkitzen pasarterik Jainkoak era supernaturalez hitz egin ziela frogatzen duenik; aitzitik, era naturalez hitz egin zien, Jainkoak deboziora, federa, zuzentasunera eta edozein kristauri dagozkion gainontzeko bertuteetara gizakumeak jaugarazten dituen erara. Eta komunikazio era hau, nahiz eta arauak ezartzera, irakastera, hezitzaera eta gizakiak kristau bertuteak lor ditzaten

beta eta aukerak ematera mugatzen den, bai eslei dakiokela egiaz Jainkoaren Izpirituari edo Izpiritu Santuari (gure hizkuntzan Holy Ghost deitzen diogunari); ez baita, izan ere, jaugin onik Jainkoaren eragiketaz egiten ez denik. Baina eragiketa horiek ez dira beti naturaz-gaundikoak. Beraz, profetaren batek Jainkoaren izpirituz edo izpirituaren indarrez hitz egin zuela esaten denean, profeta gorenak ezagutzera emandako Jainkoaren nahiaren arabera hitz egin zuela besterik ez da ulertu behar. Zeren izpiritua hitzaren adiera arruntenak giza asmoa, adimena edo jarrera esan nahi baitu.

Moisesen garaian, beraz gain beste hirurogeita hamar gizonek profetizatu zuen israeldarren kanpamenduan; Zen. 11, 25. bertsetak dio zein erataria hitz egin zien Jainkoak: Orduan, Jauna jaitsi zen lainoan eta Moisesekin mintzatu zen; gero Moisesek zuen izpiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Izpiritua haiengan kokatu orduko, profeta gisa hasi ziren mintzatzen, eta etengabe ziharduten. Garbi ageri da hortaz, lehenik, haiek herriari profetizatzea Moisesen profetizatzearen ondorio zela eta haren menpe zegoela; zeren Jainkoak Moisesen izpiritutik hartu baitzuen haiengan ezartzeko eta Moisesek berak nahi zuen modura profetizarazteko. Bestela ez ziren gai izango inola ere profetizatzeke. Hain zuzen ere, haien kontrako kexa bat iritsi zitzaion Moisesi (27. berts.), eta haien profeziok debekatzea eskatu zion Josuek, baina Moisesek hitz hauekin ihardetsi zion: Niregatik jeloskor? Nahiago nuke herri osoa profeta bihurtuko balitz. Bistako da, bigarrenik, pasarte horretan Jainkoaren izpirituak haxe besterik ez duela esan gura: gobernu-administrazioan Moisesi obeditzeko eta laguntzeko asmoa eta jarrera. Zeren Jainkoaren izpiritu substantziala, hots, Jainko natura zutela barnean esan gura balu, ez baitzuketen orduan Kristok berak baino gradu eskasagoan izango, baina Jainkoaren izpiritua Kristorengan besterik ez zen haragi egin. Hor esan nahi dena, beraz, Jainkoaren dohaina eta grazia da, beren izpirituaren sorburu zuten Moisesen lankide izatera bultzatzen zituenak. Eta ikusten da (Zen. 11, 16) Moisesek berak aukeratu zituela herri-arduradun eta idazlaritzat, ondoko hitz hauek diotenez: Bildu hirurogeita hamar herri-arduradun israeldar, zure iritziz herrian agintea eta gidaritza dutenak, eta ekar itzazu; non, zure iritziz agintea dutenak esatean, zeuk hauta ditzazunak edo zeuk hautatu dituzunak esan nahi baita. Lehenago ere esan zaigu, hain zuzen (Ir. 18, 24), Moisesek, Jetro aitaginarrebaren aholkuari jarraituz, Jainkoaren beldur ziren epaileak eta idazlariak izendatu zituela herriaren gidaritza; eta horiexetarik atera ziren Hirurogeita Hamar haiek, Jainkoak, Moisesen izpiritua ezarritik, erresumaren administrazioan beroni laguntzera bultzatu zituenak. Eta zentzu honetan esaten da (1 Sm. 16, 13-14) Jainkoaren izpiritua, Dabid gantzutua izan ondoren, beronen gainera jaitsi zela eta Saul utzi egin zuela, zeren Jainkoak dohainak eman, bere herria gobernatzeko Berak aukeratu zituenak ematen baitzizkien, eta kendu ere, Berak gobernu horretatik kanpo

utzitakoei kentzen. Horrenbestez, beraz, izpiritua esatean, Jainkoaren zerbitzurako jaugina esan nahi da, eta ez errebelazio supernaturalen bat.

Sarri askotan zozketaren emaitzez ere baliatu zen Jainkoa, Honek beronen herriaren gaineko aginpidean jarritakoek agindu zituztelarik zozketok. Haxe irakur dezakegu horretaz (1 Sm. 14, 43), Jainkoak, Saulek agindutako zozketaz baliatuz, Jonatanek egindako errua erakutsi zuela, abaraskako ezitia jan zuenean herriari hartutako zinaren kontra. Eta Jainkoak Kanaango lurraldea israeldarren artean banatzeko (Josue 18, 10), Josuek zotz egin zuen Xilon, Jaunaren aurrean. Eta badirudi era horrexetara agertarazi zuela Jainkoak (Jos. 7, 16, etab.) Akanen krimena. Eta horiexek ditugu Jainkoak bere borondatea ezagutzera emateko erabili zituen erak Itun Zaharrean.

Era guzti horietaz baliatu zen, baita, Itun Berrian ere: Ama Birjinari aingeru baten ikuskariz agertu zitzaion, San Joseri amets baten bidez, San Paulori Damaskora bidean gure Salbatzailearen ikuskari baten bidez, eta San Pedrori animalia garbi eta ez garbien okelaz beterik eta zerutik esekirik zegoen izara baten ikuskariz, eta aingeru baten ikuskariz gartzelan zegoenean, eta Itun Berriaren egile eta Apostolu guztiei izpirituaren grazia edo dohainen bidez, eta Apostoluei berriro ere zozketaren bidez, Matias hautatu zutenean Judas Iskarioteraren ordean.

Ikusirik, beraz, profezia orok suposatzen duela ikuskari edo ametsen bat (naturalak direnean, gauza bera izanez biak) edota Jainkoaren dohain bereziren bat -gizaterian hain gutxitan hauteman ohi dena, ezen hautematen denean harrigarritzat hartzen baita-, eta ikusirik, halaber, amets eta ikuskari apartenak ere eragiketa supernatural eta zuzenez ezezik eragiketa naturalez eta albo-kausen bidez etor daitezkeela Jainkoagandik, behar-beharrezko dugu arrazoimen eta irizmenaren laguntza, dohain naturalen eta supernaturalen artean eta ikuskari nahiz amets naturalen eta supernaturalen artean bereizi ahal izateko. Eta ondorioz, oso zuhur eta sotilak izan behar dugu, egiaz, bere burua profetatza aurkeztu eta Jainkoari era jakin batez (berak Jainkoaren izenean zoriontasun-bidetza aurkezten digun erara) obeditzea eskatzen digun gizakume baten ahotsaren esanetara jartzeko. Zeren horren zoriontasun handiaren bidea gizakiei irakastea nahi duenak, gizakiok gobernatzea, hau da, gidatzea eta erreinatzea ere nahi baitu -gizakume orok desio duena berez-, handigura eta iruzurraren susmagarri bihurtzen delarik, beraz. Ondorioz, gizakume guztiei dagokie halakoa frogatzea, beraren esanetara makurtu aurretik; jadanik meneko zaizkiola ez bada, Estatuaren erakuntzaren izenean; eta horixe gertatzen da, hain zuzen, profeta delako hori subirano zibila ere denean, edo subirano zibilaren eskuespena duenean, aldi berean.

Profeta eta izpirituen azterketa hori ez balitzaio herritar bakoitzari zilegi, ez zukeen arean ere zentzurik zeinuak jartzeak, nori jarraitu behar dion eta nori ez bereiz dezan gizakume bakoitzak. Eta zeinuok jarriak izan direnez, (Dt. 13. 1, etab.) profeta nor den bereizteko, eta (1 Joan 4. 1, etab.) izpirituaren aurrean noiz aurkitzen garen bereizteko, eta gogoan izanez, gainera, zenbat profezia dagoen Itun Zaharrean eta zenbat prediku Itun Berrian profeten kontra hain zuzen, eta egiazkoen aldean profeta faltsu askoz gehiago izan dela, bakoitzak berak dauka kontu izatea, bere buruaren arriskutan baitabil, haien esanetara makurtzea erabakitzean. Egiazko profeta baino faltsu askoz gehiago izan zirela, argi ageri da, lehenik (1 Erg. 12) Ahabek lauhun profetari aholku eskatu zienean eta denak iruzurti gertatu zirenean, bat ezik, Mikeas. Eta gaitibaldi aurrexeko garaian, profetak gezurti hutsak ziren gehienetan. Nire izenean gezurra ari dira esaten profetak -diosku Jaunak, Jeremiasen bitartez 14, 14.ean- Ez dira nik bidaliak; ez diet ezer agindu, ez hitz egin ere. Gezurrezko ikuskari, iragarpen zoro, beraien burutazio huts dira profeta horiek iragartzen dituztenak. Horren punturaino, non haiei ez obeditzeko agindu zion Jainkoak herriari Jeremias profetaren ahotik (Jer. 23, 16): Hauxe dio Jaun ahalguztidunak: Israeldarrok, ez egin jaramonik profeta horien hitzari, amets hutsalez betetzen baitizuite burua. Beraien kasketako irudipenak azaltzen dizkizuite eta ez nik agindutakoak.

Gogoan izanez, halaber, Itun Zaharraren garaian gertatu ziren liskarrak profeta ameslarien artean, eta elkarrekin izan zituzten auziak, Nondik atera zait niri Jaunaren Izpiritua, zuri mintzatzeko? eta horrelakoak esanez bata besteari, Mikeasen eta gainerako lauhunen artean gertatu bezala, eta gogoan izanez, baita, gezurtizat salatzen zutela elkar (Jeremias 14, 14.ean, kasu) eta gaur egun ere hortxe dirautela eztabaidok Itun Berriari buruz profeta izpiritualen artean, gizakume bakoitzak behar zuen orduan, eta behar du egun ere, bere arrazoimen naturalaz baliatu, egiazkoaren eta faltsuaren artean bereizteko Jainkoak berak eman dizkigun arauak ezarritik profezia orori. Eta hauxe zen Itun Zaharrean arauetariko bata: Moisesek, profeta subiranoak, irakatsitakoarekin bat etortzea; eta bestea, berriz, Jainkoak etorkizunean egingo zuena iragartzeko botere mirakulutsua, Dt. 13, 1, eta abarretan oinarrituz erakutsi dudanez. Eta Itun Berrian, aldiz, seinale bat besterik ez zen: Jesus Kristoa zela, hau da, Itun Zaharrean agindutako Juduen Errege zela predikatzea. Fede-artikulu hori ezetsi zuena, mirakulu asko egin arren, profeta faltsua izan zen; eta artikulu hori baietsi zuen oro, aldiz, egiazko profeta. Zeren San Joanek (1 Epist.4, 2, etab.), izpirituak Jainkoarenak diren ala ez bereizteko zelan aztertu behar diren azaltzean berariaz, eta profeta faltsuak sortuko zirela ohartarazi ondoren, hauxe baitiosku: Honela jakingo duzue norbaitek Jainkoaren Izpiritua duen ala ez: Jesukristo egiazko gizon egin dela aitortzen duenak Jainkoaren Izpiritua du, hots, Jainkoaren profetatzat onartua eta baimendua da; horrekin ez da esan nahi Jesus Kristoa dena aitortzeagatik, sinesteagatik eta predikatzeagatik gizakume jainkozale edo hautatuatariko bat denik, baizik hori aitortzeagatik profeta legezkoa dela. Jainkoak, izan ere, pertsona onargarritzat ez dituen profeten bitartez hitz egiten du batzuetan. Halaxe egin zuen Balaamen bidez eta halaxe iragarri zion Sauli heriotza Endorren Sorginaz baliatuz. Hauxe dio, berriz, hurrengo bertsetean: Baina Jesusen izaera hori ukatzen duenak, ordea, ez du Jainkoaren Izpiritua, antikristoarena baizik. Arau perfektua dugu, beraz, alde bietatik: Mesias Jesusen pertsonan etorri dela predikatzen duena dugu egiazko profeta, eta profeta faltsua, ordea, Mesias etorri dena ukatzen duena eta ohore hori iruzurrez bereganatu nahian etorriko den iruzurtiren batengan, Apostoluak propioki Antikristoa deitua, igurikitzen duena Mesias hori. Beraz, gizakume orori dagokio gogotan hartzea profeta subiranoa nor den -hau da, nor den mundu honetan Jainkoaren ordekoa, gizakume kristauak gobernatzeko autoritatea duena Jainkoaren beraren hurrengo-, eta hark Jainkoaren izenean irakastea agindu duen doktrina arautzat hartzea. Eta gizakume orori dagokio, ondorioz, profeta delakook, mirakulu eta guzti edo mirakulurik gabe, edozein unetan proposa diezaizkieten doktrina horien egia aztertzea eta neurtzea; eta aipatu arau horren kontrakoa dela aurkituz gero, Moisesengana jo zutenek egin zuten gauza bera egitea -norbaizuk kanpamentuan profetizatzen zebiltzala eta horretarako autoritaterik ote zuten zalantzan jartzen zutela esanez kexatzera joan zitzaizkionean-; eta haiek auzia Moisesen esku utzi zuten bezala, subiranoaren esku utzi behar dute berari egokien deritzona erabaki dezan: profetizatzen utzi behar zaien ala debekatu egin behar zaien, alegia. Subiranoak debekatu egiten badie, ez legoke aurrerantzean haien esanik egin beharrik; eta onartzen badie, oster, haiei obeditzea dago, Jainkoak beraien subiranoaren izpiritutik hartuta eman dien gizakumeei obeditzea tokatzen denez. Zeren gizakume kristauak beren subiranoa Jainkoaren profetatzat hartzen ez dutenean, bietarik bat: edo euren ametsak hartu beharko dituzte profezia gidaritzat eta euren bihotzetako tokorra Jainkoaren Izpiritutzat, edo printze atzeritar baten gidaritza pairatu beharko dute; edo euren herrikideren batena agian, zeinek jendea sorgintzea eta, gobernu gezurrez oldartuz, matxinaztea ere lor baitezake akaso, noizbait arrakasta apartekoren bat lortzea eta, hori bai, inpunitatea dituelarik bere profeta-bokazioa frogatzeko mirakulu bakarrak; eta hara zer lortuko duen horrela: lege guztiak, Jainkoagandikoak nahiz giza legeak, suntsitu eta ordenu, gobernu eta gizarte oro hasierako bortizkeria-anabasa eta gerra zibileramatea.

## XXXVII

Mirakuluez eta euren baliagarritasunaz

Mirakuluek Jainkoaren egintza miresgarriak esan nahi dute, eta horrexegatik deitzen zaie batzuetan mirariak. Eta gehienetan Jainkoaren aginduak adieraztera emateko direnez -mirakulurik ezean gizakumeek, beren arrazonamendu pribatuei jarraiki, Jainkoak zerbait agindu duen ala ez zalantzan jarriko luketen kasuetarako-, Liburu Santuetan zeinuak deitzen zaie, latindarrek ostenta eta portenta deitzen zieten zentzu berean: Guztiahaldunak etorkizunean gertaraziko duena auresateko eta erakustera emateko zeinuak, alegia.

Beraz, mirakulua zer den ulertzeko, zera atzeman behar dugu lehenik: zeintzuk ote diren gizakumea mirerizten duten egintzak, horrexegatik miragarriak deituak. Gauza bi dira gertakari batean gizakumeengan mirespena sortzen dutenak: bata, gertakari hori bitxia izatea, hau da, halakorik inoiz ere ez, edo inoiz gutxitan, gertatu izatea; eta bestea, gertakari hori gertatzean ezin iruditu ahal izatea modu naturalez egina izan denik, baizik Jainkoaren zuzeneko eraginez. Aitzitik, gertakari horren kausa naturalen bat atzematen dugunean, denik arraroena izanik ere; edo halako gertakariak sarritan gertatu izan badira, nahiz eta zeharo ezinezkoa izan guretzat haien kausa naturalak iruditzea, ez gaituzte harrituko eta ez ditugu mirakulutzat hartuko.

Hortaz, zaldiak edo behiak hitz egingo balu, mirakulua litzateke, arrazoi biengatik: gauza bitxia delako eta horren kausa naturalik iruditzea zaila delako. Gauza bera gertatuko litzateke naturaren saihespen bakanen bat atzemango bagenu, izaki bizidun forma berriren bat sortarazi duena. Baina gizakiak edo beste animalia baten batek bere antzekoak sortarazten dituenean, nahiz eta aurreko kasuan bezain ezezagun zaigun zelan gertatzen den, ez dago mirakulurik: gertaera hori ohikoa delako. Era berean, gizaki bat harri edo zutabe bihurtuko balitz, mirakulua litzateke, noski, gertaera arraroa litzatekeelako; baina zur zati bat harri bihurtzea, horren sarritan ikusten dugunez gertatzen, ez da mirakulua. Ez dakigun arren, ez kasu batean ez bestean, zein eragiketaren bidez gertarazi dituen Jainkoak.

Munduan ikusi zuten lehen ostadarra mirakulua izan zen, lehenengoa izateagatik eta, beraz, bakana; eta Jainkoaren zeinutzat balio izan zuen, hantxe ortzean jarria, urak eragindako beste hondamen unibertsalik ez zela munduan izanen ziurtatzeko herriari. Baina egun, ostadarra hain fenomeno ohikoa delarik, ez dute mirakulutzat hartzen, ez haren kausa naturalak ezagutzen dituztenek, ez ezagutzen ez dituztenek. Halaber, obra bitxi asko dira gizakiaren abileziaz eginak, baina gizakiak eginak direla eta zein medioz eginak izan diren jakitean, ez ditugu mirakulutzat hartzen, ez dira-eta Jainkoaren eskuhartze zuzenez eraginak, giza industriaren bidez baizik.

Gainera, kontuan hartuz gizakumeek, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago, duten ezagutza eta esperientziaren arabera dagoela mirespena eta harridura, daitekeena da, ondorioz, gauza bera batentzat mirakulu izatea eta beste batentzat ez. Hortik dator gizakume ezjakin eta sineskorrei txundidura itzela eragitea, benetan, beste batzuei arean ere mirespenik sortzen ez dieten gauzek, azken hauek bai baitakite gauzok naturan dutela jatorria eta Jainkoak zuzenki eginak ez baina ohiko eskuhartzez eraginak direla. Zenbait jendeak eguzki eta ilargi-eklipseak mirari supernaturaltzat hartu izan dituen bitartean, beste batzuek, oster, gertakariaren kausa naturalak ezagutzearren, zein ordutan gertatuko ziren ere auresan ahal izan digute; edo norbaitek gizakume ezjakin eta inozo baten ekintzak besteren batzuekin elkar hartuta zelatatu eta iraganean zer egin duen esaten dionean bezala: ezjakin horrek mirakulutzat hartuko du, baina gizon ernai eta zuhurren artean ez da gertatuko erraz halako mirakulurik.

Mirakuluaren izaerari dagokiona da, halaber, Jainkoaren mezulari, ministrari eta profetak kreditatzearren burutuak izatea; jendeak jakin dezan, horrela, Jainkoak deituak, bidaliak eta erabiliak izan direla, eta haiei obeditzera aiherrago daitezen, ondorioz. Beraz, munduaren sorrera, eta ondoren uholde unibertsalean izaki bizidun guztiak hondatzea, gertakari miragarriak izan baziren ere, ezein profeta edo Jainkoaren gainerako ezein ministrari kreditatzeko egin ez zirenez, ez zaie deitzen mirakulua. Izan ere, denik miresgarriena delarik ere egintza jakin bat, miresgarritasuna ez datza gauza hori egin ahal izatean -gizakiak ongi sinesten baitu, sinetsi, Guztiahalduna edozer egiteko gai dena-, baizik Honek gizakumeen erreguei eta hitzei erantzunez egitea. Jainkoak Egipton Moisesen bidez egin zituen mirariak bai izan zirela propioki mirakulua, Israelgo herriari zera sinestaztea baitzuten helburu: Moises Jainkoaren bidalitza zetorkiela, eta ez bere interes pertsonalen izenean. Hortaz, israeldarrak Egiptoko gatibalditik askatzeko agindua eman zionean Jainkoak Moisesi eta honek (Ir. 4, 1): Baina ez didate sinetsiko, ez jaramonik egingo; Jauna ez zaidala agertu esango didate esan zuenean, eskuan zeukan makila suge bihurtzeko eta sugea berriro makila bihurtzeko boterea eman zion Jainkoak; baita eskua golkoan sartu eta gizona legenardun bihurtu, eta eskua golkotik ateraz berriro garbi bihurtzekoa, Israelgo semeak sinetsi zezaten (5. bertsetean esaten denez) haien gurasoen Jainko Jauna agertu zitzaioela. Eta hori nahikoa ez balitz, haien urak odol bihurtzeko boterea ere eman zion. Eta Moisesek mirakulu guztiok herriaren aurrean egin ondoren, sinetsi egin zitela dio 41. bertsetak. Hala eta guztiz, Faraonen beldur zirenez, ez ziren ausartu oraindik Moisesi obeditzera. Beraz, egindako gainontzeko mirari guztiak, Faraoni eta egiptoarrei izurriteak ezarri, israeldarrek Moisesengan sinetsi zezaten burutu ziren eta benetako mirakulua izan ziren. Era berean, Moisesen eta gainerako profeten eskutik burututako mirakulu guztiek gatibaldira arte, baita gure Salbatzaileak eta bere Apostoluek geroago burututakoek ere, xede berbera izan zutela

aurkituko dugu beti: haiek mundura etorri baziren, beren kabuz barik, Jainkoak bidalita izan zela sinetsi araztea edo sinesmen hori berrestea. Eta ondoko hau ere hautemango dugu Idazteunean: mirakuluen xedea ez zela izan gizakume guztiei, hautatu zein gaitzetsiei, sinesmen hura sortaraztea edo berrestea, baizik gizakume hautatuei soilik, hau da, Jainkoak bere meneko izango zirela erabakitakoei. Izan ere, Egiptoko izurrite miragarri haien xedea ez zen izan Faraonen onbideratzea, honen bihotza gogorrazazi egingo zuela esan baitzion lehenxeago Jainkoak Moisesi, herria aske utz ez zezan; eta azkenean joaten utzi zienean, ez zen izan mirakuluek konbentzitu zutelako, izurriteek horretara behartu zutelako baino. Eta halaxe dago idatzita gure Salbatzaileaz (Mt. 13, 58), ez zuela bere lurraldean mirakulu askorik egin, sinesmenik ez zeukatelako; eta Markos 6, 5.enean, askorik ez zuela egin esan beharrean, mirari bat ere ezin egin izan zuela esaten da. Ez zen, noski, horretarako boteretik ez zuelako -Jainkoaren kontrako biraoa bailitzateke hori esatea-, ezta ere mirakuluen helburua sinesgabeak Kristoren federa ekartzea ez zelako -zeren bai Moisesen eta profeten, baita gure Salbatzailearen eta Apostoluen mirakulu guztien xedea jendea Elizara erakartzea baitzen-, baizik beste honegatik: haien mirakuluen helburua ez zelako, hain zuzen, gizakume guzti-guztiak Elizaratzea, baizik salbatu behar zirenak, hau da, Jainkoak hautatutakoak, soil-soilik. Kontuan izanez, beraz, Aitak bidalia izan zela gure Salbatzailea, honek ezin erabil zezakeen boterea Aitak gaitzetsitakoak onbideratzen. San Markosen pasarte hori iruzkintzean ezin egin esapidea ez zuen nahiren parekotzat interpretatzen dutenek greko hizkuntzako adibide bakar bat ere ezin dute ekarri bere interpretazioaren alde. Greko hizkuntzan, ez zuen nahi esapidea bai erabiltzen dela batzuetan ezin egingen ordez nahimenik ez duten izaki bizigabeen kasuan, baina inoiz ere ez alderantziz, ezin egin esapidea ez zuen nahiren ordez; fede ahuleko kristaudentzat oztopo dena, alegia; Kristok sinesberen artean besterik ezin egin izan bailuen mirakulurik.

Mirakuluaren izaeraz eta baliagarritasunaz honarte azaldutakoaren arabera, honelaxe defini dezakegu: MIRAKULUA Jainkoaren egintza da (Kreazioan modu naturalez eragin ohi dituen eragiketetatik bereizia), Beraren hautatuen salbaziorako bidalitako Ministrari ezohiko baten misioa haiei ezagutzera eman ahal izateko.

Eta hona hemen definizio horretatik inferi dezakeguna: lehenik, egintza hori ez datzala, ezein mirakulutan ere, profetarengan datekeen bertuteren batean, baizik Jainkoaren eskuharmen zuzenez eragindako efektua dela; hau da, Jainkoak berak eginga dela, profeta hori kausa subordinatutzat erabili gabe.

Bigarrenik, ezein demoniok, aingeruk edo kreatutako beste ezein izpirituk ere ezin egin dezakeela mirakulurik. Horien egintza hori, aitzitik, edo zientzia naturalen bati esker litzateke, edo enkantamenduari esker, hots, hitzen eraginez; zeren enkantatzaileek beren ahalmen independenteari esker egingo balute, Jainkoagandiko botereren bat bailukete, denek ukatzen dutena; baina emandako ahalmenez egiten badute, ordea, egintza hura ez da Jainkoaren eskuhartze zuzenaren emaitza, efektu naturala baizik; eta ez da, beraz, mirakulua.

Badira Idazteunean zenbait testu, Jainkoak berak zuzenki egindako zenbait mirakuluren antzeko mirariak egiteko ahalmena aitortzen diena, antza denez, magia eta azti-baliabide batzuei. Esaterako, Moisesen makila lurrera jaurtiki eta suge bihurtu ondoren, ondoko hau irakur dezakegu (Ir. 7, 11): Egiptoko aztiak, beren azti-baliabidez, beste horrenbeste egin zuten; eta Moisesek Egiptoko erreka, ibai, putzu eta urmaheletako ura odol bihurtu ondoren, hauxe berriro (Ir. 7, 22): Egiptoko aztiak ere beste horrenbeste egin zuten beren azti-baliabidez; eta Moisesek Jainkoaren boterez igelen izurritea erorrarazi zuenean Egiptoko lurraldera (Ir. 8, 3), Aztiak ere beste horrenbeste egin zuten beren azti-baliabidez, Egipto lurralde gainera igelak igoaraziz. Ez al dago, horren arabera, mirakuluak enkantamenduei egotzerik, hau da, hots jakin batzuen eraginkortasunari, eta goiko pasarte eta beste antzeko batzuk horren froga oso ona direla pentsatzerik? Ez da, haatik, pasarte bakar bat ere Idazteunean enkantamendua zer den dioskunik. Beraz, enkantamendua ez baldin bada, askok uste duenaren kontra, efektu arraroak hitzen eta formulen bidez eragitea, baizik ohiko bitartekoez burututako iruzurra eta engainua -eta supernaturaletik hain urruti dagoena, non iruzurtiek ez duten kausa naturaletan asko sakondu beharrik, aski zaielako gizateriaren ezjakinaz, ergelkeriaz eta superstizioez baliatzea-, magia, aztikeria eta enkantamenduaren ahalmena itxuraz berresten duten testuok lehen begiratu batean ematen dutenaz beste zentzu bat behar dute eduki.

Argi eta garbi baitago hitzek ez dutela efekturik, ulertzen dituztenengan baino; eta orduan ere ez dutela beste efekturik hizlariaren asmoak edo grinak adieraztea baizik; hortik iguripena, beldurra edo beste grina edo ideia batzuk sortaraztekoa entzulearengan. Beraz, makila batek suge dirudienean edo urek odol diruditeanean edo beste edozein mirakuluk enkantamenduaren bidez eginga dirudienean, baldin Jainkoaren herriaren eredurako ez badira, ez makila, ez ura, ez beste ezer ere ez da enkantatua, hots, hitzen bidez eragina, eta ikuslea bera da enkantatu bakarra. Horrenbestez, bada, delako mirakulu hori enkantatzaile batek norbaiti engainua sartzean datzake; arean ere mirakulu ez dena, baizik oso erraz egin daitekeena.

Izan ere, hain da ezjakina eta tronpakorra jende gehientsua, batez ere kausa naturalen eta giza interesen nondik norakoaren ezagutza askorik ez dutenak, non oso erraza den haiei ziria sartzea hainbat amarruren bidez. Zein ospe handia lor zezakeen bere ahalmen mirakulutsuaz, esaterako, izarren ibilerari buruzko zientziarik ezagutu aurretik, eguzkia halako egunetan eta halako ordutan ilundu egingo zela iragarri izan

balio norbaitek herriari! Eta malabar-jolasak ohikoak ez balira, pentsatzekoa litzateke nonbait malabaristak deabruaren beraren laguntza duela bere txolet, birla eta gainontzekoekin egiten dituen mirariak egiteko. Barrurantz arnasa hartuz hitz egiten ikasi duen batek (antzina ventriloqui deitzen zitzaienak esan nahi dut), bere ahotsaren ahuldadeak mintza-organoen eragin ahuletik barik urrutiko lekuren batetik datorrela dirudielarik, ahots hori Zerutik datorrela sinestaraz diezaioke jende askori, dena delako hitzak esan. Eta gizakume abil batentzat ez da izango batere zaila, ziur, adiskideek elkarri kontatu ohi dizkioten sekretuen eta iraganeko abentura-aitorpen ezkutuen berri lortzea eta gauzok interesatuari berari gerorantz berresatea; asko dira, hala ere, trikimailu horietaz baliatuz igarle ospea lortzen dutenak. Kontu luzeegia litzateke greziarrek thaumaturgi deitzen zieten gizon mota horiek guztiak aipatzea hemen, hau da, gauza miragarrien egileak, nahiz eta egiten zuten guztia euren abileziei esker besterik ez izan. Baina, gainera, elkar hartuta egin ohi diren iruzurrei erreparatzen badiegu, ez da ezertxo ere, denik zailena izan arren, sinets ez daitekeenik. Esaterako, bi gizakume ados jarritz gero, batak herrenarena egiteko eta besteak berehalaxe magiaz sendatzekoarena, jende asko engaina dezakete; baina asko baldin badira elkar hartuta jokatzin dutenak, bata herrenarena egiten, bestea sendatzailearena eta gainontzekoak gertatutakoaren lekuko gisa, askoz errazago sartuko dute ziria.

Gizateriak mirakulu-izunei arinegi fede emateko jaugin horren aurrean, ez da neurri hoberik, eta ez dela uste dut gainera besterik, Jainkoak berak Moisesen ahotik agindu ziguna baino (aurreko kapituluaren esan dudanez), Deuteronomioko 13. kapituluaren hasierako bertsetetan eta 18.eko azkenetan: Ez dezagula profetatzen har Jainkoaren loktenenteak erabakitakoak beste erlijio ezberdinen bat irakasten duenik - Moises zen orduan Jainkoaren loktenentea-, ezta ere, erlijio bera irakatsi arren, betetzen ez diren iragarpenak egiten dizkigunik. Beraz, Moises bere garaian, Aaron eta ondorengoak eurenengan, eta Jainkoaren herriaren gobernari subiranoa, Jainkoak bere menean hurbilen duena, hau da, garaian garaiko Elizaren burua: horiexek dira kontsultatu beharrekoak Jainkoak erabakitako doktrinari buruz, mirakulu edo profetaizunei fede eman aurretik. Eta hori egin ondoren, mirakulutzat aurkezten ditugun hura ikusi beharra daukagu, eskueran ditugun medio guztiak jarritz ea benetan gertatu den aztertzeko; eta ez bakarrik hori, baizik ezein gizakumek ere bere ahalmen naturalez egin ez dezakeen egintza dela ziurtatu behar dugu, Jainkoaren eskuharmen zuzena eskatzen duelako. Eta honetan ere Jainkoaren loktenentearengana jotzea daukagu, zeini geure irizmen partikularra menera behar diogun zalantzazko kasu guztietan. Esaterako, baten batek zera badio: ogi zati baten gainean esandako hitz batzuei esker, Jainkoak ogi hori ogi ez baina jainko, gizaki edo biak batera bihurtu duela, baina hala ere lehen bezain ogi izaten jarraitzen badu, ez dago arrazoirik horrela gertatu dela sinetsi behar izateko inork, ezta horrela egin duela dioenaren beldur izateko ere, beraz, Jainkoagandik berarengandik jakin dezan arte -Haren loktenente edo ordekoaren bidez- gauza hori gertatu den ala ez. Erantzuna ezezkoa baldin bada, Moisesek dioena dago (Deut. 18, 22): harrokeriak eraginda hitz egin du profeta delako horrek; ez izan, beraz, beraren beldur. Baina erantzuna baiezkoa baldin bada, ez dio kontraesan behar. Era berean, mirakulua geure begiekin ez badugu ikusten, legezko Elizari kontsultatu behar diogu, hau da, Eliza horren legezko buruari, mirakulu hori kontatu digutenei zenbateraino sinetsi behar ote diegun. Hauxe da, batik bat, gaur egun subirano kristau baten menean bizi direnen kasua. Izan ere, nik ez dazagut gaurko garaietan inortxo ere halako miraririk -magiaz, edo hitzen nahiz otoitzen bat esateagatik gertatutakorik- beraren begiez inoiz ikusi duenik; puntu baterainoko zentzua duen edonork supernaturaltzat joko lukeen miraririk, alegia. Arazoa ez datza, honez gero, gauzatzen dakusagun zerbait mirakulua ote den jakitean, edota entzun dugun edo irakurri dugun mirakulu jakin bat benetan gertatu ote den ala mihiaren edo idazlumaren asmakizuna izan ote den jakitean, baizik -hitz lauez esanda- kontatzen digutena egia ala gezurra ote den jakitean. Eta horrelako arazo baten aurrean, ezin juzga dezakegu guretariko bakoitzari bere arrazoiak edo kontzientzia pribatuak diotsonaren arabera, baizik arrazoi publikoaren, hots, Jainkoaren ordeko gorenaren arrazoiak diotsonaren arabera. Izan ere, jarria dugu berau honez gero epailetzat, gure bake eta defentsarako behar den guztia egin dezan botere subiranoa eman diogunean. Gizabanako partikularrari beti geratuko zaio askatasuna, pentsamendua askea baita, mirakulutzat aurkeztu zaizkion gauzei fede emateko ala ez emateko barne-barnean; botere mirakulutsua dutela diotenei edo berauen alderdikoei giza sinespide horrek damaien onura neurtuko du, eta hortixe antzeman ahal izango du mirakuluak diren ala ez. Baina fede-aitormena egiteko unea iristean, gizabanako pribatuak pertsona publikoaren menpean, hau da, Jainkoaren ordekoaren menpean, jarri beharra dauka. Jainkoaren loktenente eta Elizaren buru hori zein ote den geroxeago ikusiko dugu, gai horri dagokion lekuan.

## XXXVIII

Betiko bizitzak, ifernuak, salbazioak, geroko munduak eta berrerospenak zer esangura duten Idazteunean

Gizartearen iraupena justiziaren menpe dagoenez, eta justizia, bere aldetik, Estatuaren subiranotasuna dutenek administratzen duten bizi- eta heriotza-boterearen nahiz beste sari eta zigor txikiago batzuen menpe, ezinezko gertatzen da Estatu batek zutik irautea subiranoa ez den besteren batek baldin badu bizia bera baino sari handiagoak emateko edo heriotza baino zigor astunagoak ezartzeko boterea. Horrenbestez,



kontuan izanik betiko bizitza sari handiagoa dela hemengo bizitza hau baino, eta betiko tormentua zigor handiagoa heriotza naturala baino, merezi du, bai, autoritateari obedituz nahasmendu eta gerra zibilaren hondamendiei ihes egin nahi dien orok arretaz azter dezan zer esan gura den Idazteunean betiko bizitza eta betiko tormentua esatean; eta zein ofentsengatik eta zeinen kontra egiteagatik ezarriko zaien gizakumeei betiko zigortuak izatea, eta zeintzu egintzengatik jasoko duten, ordea, betiko bizitza.

Hauxe aurkitzen dugu lehenik: halako bizi-egoeratan kreatua izan zela Adan, non, Jainkoaren manamendua hautsi ez balu, bizi horretaz gozatuko zukeen, betiko, Edengo paradisuan. Hantxe zegoen bizi-arbola, zeinetatik jatea zilegi zuten, ongiaren eta gaizkiaren jakinduri arbolatik salbu; zeren azken honetatik jatea debekaturik baitzuten. Beraz, horretatik jan bezain laster, Jainkoak paradisutik at jaurtiki zuen (Has. 3, 22), ez dezala orain bizi-arbolako fruiturik hartu eta, hura janez, betiko bizi. Eta horrekin zera esan nahi dela uste dut (bai honetan, bai Liburu Santuen arabera ebaztekoak diren gainerako edozein ara-

zotan ere, meneko natzaion Estatuak baimendutako Bibliaren interpretazioaren menpean jartzen naizelarik, hala ere), Adanek bekatu egin ez balu, mundu honetan bertan izango zukeela betiko bizitza, eta beraren lehen bekatu hargatik etorri zitzaiola hilkortasuna, berari nahiz bere ondorengotzari. Ez dut esan nahi Adan une hartan bertan hil zenik, horrela izan balitz ez zukeen-eta seme-alabarik ekarriko eta ez zatekeen biziko, bizi izan zen moduan, denbora luzez eta ondorengotza ugaria ikusiz hil aurretik. Alabaina (Has. 2, 17), Hartatik jaten baduzu, ziur hilko zara-eta esaten denean, haren hilkortasuna eta hilko zen ziurtasuna esan gura duela nahitaez. Kontuan izanik, beraz, Adanek betiko bizitza hori bekatu egitean galdu zuela bere laxokeriagatik, bekatu hura garbi zezanak berreskuratu egingen zuen ostera ere bizitza hura. Hortaz, Jesukristo izan da beragan sinesten duten guztien bekatuak garbitu dituen, eta Adanen bekatuarengatik galdutako BETIKO BIZITZA hura berreskuratu duena, beraz, sinestun guztiontzat. Eta zentzu honexetan gertatzen da egokia San Pauloren alderaketa (Erm. 5, 18-19): Beraz, baten bekatuak gizon-emakume guztiei gaitzespena ekarri zien bezala, baten leialtasunak gizon-emakume guztiei salbazioa eta bizia ekartzen dizkie; hitz adierazgarriagoz errepikatzen duelarik ostera ere (1 Ko. 15, 21-22): Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri zen hildakoen bizituera ere. Eta Adanekin duten batasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten batasunagatik guztiak itzuliko dira bizira.

Kristok berreskuratu dien betiko bizitza horretaz gizakiek gozatuko duten lekuari buruz, badirudi lehenxeago aipatu testuok mundu honetan kokatzen dutela. Izan ere, Adanengan denak hiltzen direnez, hots, paradisua eta lurraren gaineko betiko bizitza denek galdu dutenez, Kristorengan denak itzuliko dira bizira; eta orduan gizaki guztiak itzuliko dira bizira lurraren gainean; zere bestela alderaketa ez bailitzateke egokia. Horrekin bat datorrela dirudi salmogilearen hura

(Sal. 133, 3): Sionen ematen du Jaunak bedeinkazioa: bizia betiko!; Sion, izan ere, Jerusalemen dago, lur honen gainean. Bat dator, baita ere, San Joanen honekin (Apokalipsia 2, 7): Garaileari, Jainkoaren paradisuan dagoen bizi-arbolako fruituetatik emango diot jaten. Hauxe zen Adanen betiko bizitzaren arbola, baina haren bizitza hura lurraren gainekoa zatekeen. Eta gauza bera berresten duela dirudi berriro ere San Joanek (Apokalipsia 21, 2): Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik, Jainkoarengandik, jaisten, emaztegaia bere senararentzat bezala apaindua; eta gauza bera dio berriz ere 10. bertsetean, Jerusalem berria, Jainkoaren paradisua, Kristoren bigarren etorreran Jainko-herriarengana zerutik jaitsiko dela esan gura balu bezala, eta ez, aitzitik, herria lurretik hara gora. Eta horretan ez du batere alderik zuriz jantzitako gizakume biek, aingeru biek, Apostoluei esan zietenarekin Kristoren zeruratzeari begira zeudenean (Ap. Eg. 1, 11): Zuen ondotik zerura jaso izan den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro. Zera esan gura izan zietela ematen duelarik: Jesus bere Aitaren pean betierean hemen gobernatzaia jaitsiko zaiela, alegia, eta ez, ordea, zerura eramango dituela han goberna ditzan; eta hau guztiz bat dator Moisesen pean eratutako Jainkoaren erresumaren berreraikuntzarekin, juduen gobernu politikoa lur honetan izan zena. Eta horrezaz gain, gure Salbatzaileak esan zuena (Mt. 22,30): Izan ere, biztuerakoan ez da inor ezkonduko: zeruko aingeruak bezalakoak izango dira denak, Adanengan galdutako betiko bizitzaren antzeko zerbaiten deskribapena da, ezkontzari dagokionean behintzat. Izan ere, Adan eta Ebak bekatu egin ez balute eta pertsona banako gisa mundu honetan betierean bizi izan balira, garbi dago ez zuketela beren espeziea etengabe ugalduko; zeren hilezkor bi haiek gaur egun gizateria ugaltzen den moduan ugaltzeak izan balira, lurrean ez zegokeen lekurik, hasi eta epe laburrera, haien ondorengotza guztia hartzeko. Anaia bat baino gehiagorekin ezkonduko emaztea, bizterakoan, zeinen emazte izango ote zen galdetu ziotenean juduek gure Salbatzaileari, ez zituzten ezagutzen betiko bizitzaren ondorioak, eta hilezkontasunaren ondorio horien berri eman behar izan zien gure Salbatzaileak: ez zela izango ugalketarik, ezta, beraz, ezkontzarik ere; aingeruen artean ere ez denez ez ugalketarik ez ezkontzarik. Adanek galdu zuen betiko bizitzaren eta gure Salbatzaileak heriotza gaitziz berreskuratu zuenaren arteko alderaketa hori baliokoa da, baita, ondoko honi dagokionez ere: Adanek bere bekatuaren erruz betiko bizitza galdu zuenez, baina, hala ere, bizirik jarraitu denbora batez, halaxe kristau fededunak ere, Kristoren Pasioari esker betiko bizitza berreskuratu arren, heriotza naturalez

hiltzea izango duela eta hilda irautea oraindik denbora batez, hots, berbizkundera arte. Zeren heriotza Adan gaitzetsia izan zen unean bertan erabaki zenez eta ez haren heriotza burutu zen unean, halaxe gertatu baita bizitzarekin ere: barkamenaren unean bertan erabaki dela, alegia, eta ez Kristorengan hautatuak direnen azken buruko berbizkunderan.

Idazteunetik ezin da erraz atera, ez behintzat nik aurkitu ahal ditudan testuetatik, gizakiak berbiztu ondoren betierean biziko diren lekua zeruetan izango denik -eta zeruak esatean, lur honetatik urruti diren munduko aldeak esan nahi dut, izarrak dauden lekua, kasu, edo izarretatik haraindi coelum empyreum deitzen zaion zeru garaiago bat, zeina Idazteunak aipatu ere ez duen egiten eta inolako funts razionalik ez duen. Zeruetako Erreinuaz zera esan nahi da, zeruetan dagoen Erregearen erresuma, eta Israelgo herria izan zen erresuma hori, Jainkoak bere profeten eta loktenenteen bitartez gobernatu zuena; Moisesen bidez lehenengo, eta Eleazar eta apaiz subiranoen bidez ondoren, Samuel erregearen garaian Israeldarrak jarki zitzaizkion arte, gizakume hilkor bat hartu nahian erregetzat gainerako nazioen antzera. Eta Kristo gure Salbatzaileak bere ministrarien predikua bidez juduak itzulbidera erakarri eta jentilak bere menara ekar ditzanean, Zeruetako Erreinu berri bat izanen da; tronua zeruetan duen Jainkoa bera izanen dugu orduan errege, eta Idazteunean ez da ageri gizakumeak, bere zoriona erdiesteko, Jainkoak oinazpikotzat duen lur hau baino gorago igo beharrik duenik. Aitzitik, haxe daukagu idatzita (Jn. 3,13): Ez da inor zerura igo, zerutik jaitsi zena baizik, zeruetan dagoen Gizonaren Semea. Eta zera ohartarazi bide batez, hitz horiek (eta horien aurrekoak) ez direla, hain zuzen, gure Salbatzaileenak, San Joanenak berarenak baizik; zeren Kristo ez baitzen orduan zeruetan, lurtean baino. Gauza bera esaten da Dabidez (Ap. Eg. 2, 34), San Pedrok Kristoren igokundea frogatzearen salmogilearen hitzak ekarriz, Ez bainauzu Herio Leizera botako, zure fededuna ez duzu hilobian galtzen utziko (Sal. 16, 10) idaztean, hitz horiek Dabidek barik, Kristok esan zituela dioskunean; ondoko arrazoi haxe eransten duelarik esana frogatzeko: Dabid ez zen zerura igo-eta. Hala ere, erraza da horri baten batek ihardestea, zera esanez: haien gorputzak Judizio unibertsalaren egunera arte igoko ez baziren ere, arimak bai bazeudela zeruan, beren gorputzak utzi bezain laster; hori ere gure Salbatzaileen hitzez frogatzen bide delarik (Lk. 20,37-38), Moisesen hitzetan oinarrituz berbizkundera frogatzean, haxe dioenean: Gainera, hildakoak bizten direla Moisesek berak adierazi zuen, sutan zegoen sasiaren pasarte, Jaunari "Abrahamen, Isaaken eta Jakobena Jainko" deitzen dioenean. Ez da hilen Jainkoa, biziena baizik, denak bizirik baitaude harentzat. Baina hitzak arimaren hilezkortasunaz besterik ezin badira ulertu, ez dute arean ere frogatzen gure Salbatzaileak frogatu nahi zuena, hau da, gorputzaren berbizkundera, hots, gizakumearen hilezkortasuna. Beraz, gure Salbatzaileak esan nahi zuena haxe da: patriarka haiek hilezkorak baziren, ez zela giza naturari datxekon propietateren baten ondorioz, baizik Jainkoaren borondatez, fededunei betiko bizitza dohaintza hutsez ematea laketa izan zitzaien Jainkoaren borondatez. Izan ere, patriarkak eta beste fededun asko ere ordurako hilda zeuden arren, testuak, hala ere, Jainkoarentzat bizirik zeudela dio, hau da, Bizitzaren Liburuko zerrendan zeudela, bekatuak barkatu ondoren berbizkunde egunean betiko bizitzarako bidea hartu zutenen aldamenean. Giza arima bere natura propioz betierekoa denik, izaki bizidun independentea gorputzarekiko, edo gizakume arrunta hilezkorra denik -azken eguneko berbizkundera esker izan ezean- ez da ageri argi doktrina gisa Idazteunean (Enoken eta Eliasen kasuan salbu). Joben 14. kapitulu osoa, Joben lagunena barik, Joben beraren solasa dena, hilezkortasun natural hori dela-eta erostaz zuzentzen duen kexu bizia dugu, nahiz eta berbizkunde ondoren gertatuko den hilezkortasuna ukatzen ez: Zuhaitzak ere badu itxaropenik; moztu arren, suspertu egiten da eta kimu berriak ematen; sustraiak zahartu eta motzondoa lurpean ihartu arren, ura sumatu orduko hezetu egiten da eta landare gazteak bezalako hostaia botatzen. Baina gizakia hil eta horretan amaitzen da; hil eta gero zer gertatzen da hartaz? Eta 12. bertsetean: Gizakia etzan eta ez da berriro jaikiko, ortzea desagertzen deneino ez da itzartuko. Baina noiz desagertuko ote da ortzea? San Pedrok dioskunez, denon biztueran. Haxe baitio bere bigarren Epistolaren 3. kapituluko 7. bertsetean: Oraingo zeru-lurrei dagokienez, Jainkoaren hitz berberak eusten die, eta epai- eta gaiztoen hondamen-egunerako gordeak daude. Eta 12. bertsetean: Bizi, bada, Jainkoa etorriko den egunaren zain eta lan egin lehenbailehen irits dadin. Egun hartan, sutan desegingo dira zeruak, eta munduaren osagaiak kiskalita ezereztuko dira. Gu, ordea, agindutako zeru-lur berrien zain gaude; han dena Jainkoaren nahiaren arabera izango da.

Beraz, ortzea desagertu arte gizakia ez dela jaikiko dioenean Jobek, gizakiarengan bizitza hilezkorra (bizikiak eta arimak gauza bera esan nahi baitu Idazteunean) berbizkunde eta judizio egunera arte ez dela hasiko esango balu bezala da; eta egitate horren arrazoia ez datza gizakiaren halako natura eta jatorri jakin batean, Aginduan baizik. San Pedrok ez baitio zeru-lur berrien zain geure naturaren izenean gaudenik, aginduaren izenean baizik. Azkenez, kontuan hartuz, liburu honen 35. kapituluan Idazteuneko pasarte ezberdin eta argien bidez frogatua geratu denez, Jainkoaren erresuma Estatu zibil bat dela eta beronen subiranoa Jainkoa bera (lehenbizi itun zaharraren eta gero itun berriaren izenean), eta Estatu horretan Jainkoak bere ordeko edo loktenentearen bidez gobernatzen duela, aipatu pasarteok ondoko hau ere frogatzen dute, beraz: gure Salbatzailea bigarren aldiz maiestatez eta aintzaz etor dadinean Hark berak pertsonalki eta betiko gobernatzera, Jainkoaren erresuma hori lurtean izango dela. Baina doktrina honi

berria iritz diezaiokeenez askok, nahiz eta sendo oinarriturik egon Idazteuneko pasarteetan (zeinak ez diren ez gutxi ez ilunak), aurkeztu besterik ez dut egingo, erlijioiko paradoxa honen ez beste ezeinen alde makurtu gabe, aitzitik, ezpatazko eztabaida honi behingoz bukaera emateko asmo soilak bultzatuta; hauxe baita nire aberkideen artean oraindik ebatzi gabe dagoen auzia, alegia, zein autoritateri ote dagokion edozein doktrina mota onartzea ala ezestea, zeren autoritate horren manatuei, ahozko nahiz idatzizkoei, obeditu beharra baitute gizakume guztiek, pertsona pribatu gisa izan ditzaketen iritzia iritzi, haren legeen babesik nahi badute behintzat. Izan ere, Jainkoaren erresumari buruzko doktrina-puntuek hain dute eragin handia giza erresumarekiko, non Jainkoaren pean botere subiranoa dutenek soilik ebaztekoak diren.

Jainkoaren erresuma eta betiko bizitza bezala, Jainkoaren etsaiek judizioaren ondoren pairatu beharko dituzten oinazeak ere lur honetan izango direla ageri zaigu Idazteunean. Gizaki guztiak berbizkunde egunera arte bildurik egongo diren lekuari, dela ehortzirik edo lurrak irentsirik, lurpean esan gura duten hitzekin deitzen zaio eskuarki Idazteunean, latindarrek *infernus* eta *inferi*, eta greziarrek *ᾗδης* zituzten dutena; hau da, jendeak ikusi ezin duen leku bat, hilobia edo beste leku sakonen bat adierazi nahian. Baina gaitzetsiek biztueraren ondoren izango duten lekuaz, ez zaigu ematen, ez Itun Zaharrean ez Berrian, leku zehatzaren beste oharrik, gaitzeskideen aiputik atera daitekeena baizik; horren arabera, Jainkoak antzina modu ezohiko eta miragarritz lurraren azaletik erauzi zituen gaizkileak aipatzen dira: eta horiek in Inferno, Tartaroan, edo hondorik gabeko Leizezuloan daudela esaten da; zeren Korah, Datan eta Abiram lurpera bizirik irentsiak izan baitziren. Horrek ez du esan nahi Lur globoan -finitua izateaz gain, hedadura murrizta duena izarren garaieraz konparatuz gero- hondorik gabeko leizeren bat, hau da, sakonera infinituko zuloren bat izan daitekeela sinestarazi nahi digutenik Liburu Santuen egileek; halakoari deitzen baitzioten greziarrek euren demonologian (hau da, demonioei buruzko doktrinan), eta geroago erromatarrek, Tartarus, zeinetaz hauxe baitio Virgiliok (Eneida VI, 578-579):

Bis patet in praeceps, tantum tenditque sub umbras,

Quantus ad aetherium coeli suspectus Olympum;

horrelakorik ezin duelarik jasan lurrak ortzearekiko duen proportzioak. Sinestarazi nahi digutena, ordea, hauxe da: gaitzetsiak hantxe direla denbora-mugarik gabe, Jainkoak zigor eredugarri hura ezarri zien gaizkileak dauden leku hartantxe.

Horra hor gaitzetsien lekua adierazteko beste modu bat: uholdearen aurreko Noeren garaian bizi ziren munduko gizaki indartsu haiek (greziarrek heroiak eta Bibliak erraldoiak deitutakoak eta Jainko-seeen eta gizasemeen arteko estalduraz sortuak izan omen zirenak) euren bizitza makurragatik uholde unibertsalak suntsitu zituenez, hildako erraldoi horien lagunartea eta lekua ere eratxikitzen zaie gaitzetsiei. Horrela, Esaera Zaharrak 21, 16: Zentzuzko jokabidetik okertzen denak erraldioen artean amaituko du. Eta Job 26, 5: Begira han behean erraldoiei eta haiekin bizi direnei, itsasoaren azpian hasperenez. Gaitzetsien lekua, bada, urpean datza oraingo honetan. Eta Isaias 14, 19 ere badaukagu: Dardar dago ifernua han behean, zuri harrera egiteko zain (hau da, Babiloniako erregeari harrera egiteko). Zu zarela-eta lekualdarazi egingo ditu erraldoiak. Hemen ere, zentzu literalari atxiki behar bazaio, urpean datza gaitzetsien lekua.

Hirugarrenik, Sodoma eta Gomorra suz eta sufrez suntsitu zituenez Jainkoaren haserre biziak, haien gaiztakeriagatik, eta inguruko lurraldea bitumina-laku kiratsu bihurtu zenez, gaitzetsien lekua ere sua eta sugarrezko lakua irudiz adierazi ohi da batzuetan, Apokalipsia 21, 8.ean adibidez: Koldarrek, ordea, sinesgabeek, gaiztoek, hiltzaileek, lizunek, aztieki, sasijainkozaleek eta gezurti guztiek, suz eta sufrez garretan dagoen lakua, hau da, bigarren heriotza, izango dute ondare. Garbi dago, horrenbestez, ifernuko suak, hemen Sodomako sugar egiazkoaz metaforan adieraziak, ez duela esan nahi oinaze mota edo leku jakin bat, baizik era zehazgabea ulertu beharrekota dela, hondamen mota bat legez. Horrela, Apokalipsia 20, 14.ean, Herio eta Hilen Egoitza suzko lakura bota zituzten esaten denean, abolituak eta ezabatuak izan zirela esan nahi du; Judizio egunaren ondoren ez dela izanen ez heriotza ez ifernura joaterik, hots, Hadesera joaterik -hitz honetatik dator beharbada gure Hell (ifernua)-, hau da, harrezkero ez dela izanen heriotzarik.

Laugarrenik, egiptoarrei ezarritako ilunbearen izurritea daukagu Irteera liburuan (Ir. 10, 23): Ezen hiru egunez ezin izan baitzuten elkar ikusi, ezta nork bere tokitik mugitu ere. Israeldarrek, ordea, argia zuten beren bizilekuetan; gaizkileek judizio ostean izango duten leku horri, beraz, erabateko ilunbea deitzen zaio hemen, edo, orijinalean esaten denez, kanpoko ilunbea. Horrelaxe adierazirik dator (Mt. 22, 13) erregeak mahai-zerbitzariei diotsenean: Lot ezazue hanka eta esku, eta bota kanpora, *εἰς τὸ σκοτὸς τὸ ἐξωτὸν*, ilunbetara, edo kanpoko ilunbetara; eta horrek, erabateko ilunbea esapidetz alda badaiteke ere, ez du adierazi nahi zeinbesteko ilunbea, baizik ilunbe hori non den, alegia, Jainkoak hautatutakoen bizilekutik at.

Azkenez, Jerusalem inguruan Hinnonen Semeen Harana deitutakoa zegoenez, eta horko leku batean, Tophet izenekoan, juduek sekulako idolatria-egintza larrienak egin zituztenez, beren seme-alabak Molok sasijainkoari eskainiz, eta leku berebanean Jainkoak bere etsaiei sekulako zigorrak ezarri eta Josiasek Moloken apaizak euron aldareetan bertan erre zituztenez (Erregeen Bigarren Liburuan, 23. kapitulan, luze

azaltzen den moduan), leku hori, gero, hiritik ateratzen zen zarama eta zaborra botatzeko erabili zen; eta noizean behin sua ematen zitzaion airea garbitzearen eta zaborraren kiratsik ez izateko. Leku nardagarri honexetatik atera zuten juduek, bada, geroztik gaitzetsien lekuari deitzeko erabili zuten izena, Gehenna edo Hinnonen Harana, alegia. Eta Gehenna hauxe da, hain zuzen, egun IFERNUA hitzaren bidez itzuli ohi dena; eta han noizbehinka irazekitzen ziren suteetatik atera dugu betiko su iraungiezinaren nozioa.

Kontuan hartuz orain ez duela inork ere interpretatzen Idazteuna judizio egunaren ondoren gaizkileak Hinnoneko Haranean betiereko zigortuak izango bailiren, edo sekulorun sekulotan lurpean edo urpean egoteko berbiztuko bailiren, edo biztuera ostean elkar ikusterik edo leku batetik bestera mugitzerik ez bailuten, zera ateratzen da hortik nahitaez, nire iritziz behintzat: betiko suaz horrela hitz egitean, metaforaz egiten dela, eta, beraz, zentzu hertsiren bat izan behar duela, ikertu egin beharko litzatekeena - metafora orok duelako hizkera ez-metaforikoz adieraz daitekeen oinarri errealean bat-, ifernuko lekuari eta ifernuko oinazeen eta oinazeazaleen izaerari buruz.

Lehenik, oinazeazaleei dagokienez, hauen izaera eta nolakotasunak argi eta garbi adierazirik daude honako izenon bidez: Etsaia edo Satan, Salatzalea edo Diabolus, Suntsitzailea edo Abbadon; adiera propioaren izen hauek -Satan, Deabrua eta Abbadon- ez dizkigute pertsona indibidualak adierazten, izen propioek egin ohi duten bezala, baizik funtzioak edo nolakotasunak soilik. Izan deitzaileak ditugu, beraz, Biblia latinezkoak eta modernoek ez zituzketenak utzi behar itzuli gabe, zeren, horrela utziz, demonioen izen propioak ematen baitute, eta errazago baita jendea demonioen doktrinan sinestera limurtzea; garai hartan jentilek erlijioztat zuten doktrina, hain zuzen ere, Moises eta Kristoren irakatsien aurkakoa.

Eta Etsaia, Salatzalea eta Suntsitzailea esanez Jainkoaren erreinuan izango direnen arerioa esan nahi denez, baldin berbizkunde ondoko Jainkoaren erresuma hori mundu honetakoa bada (aurreko kapituluaren azaldukoaren arabera Idazteunetik ateratzen dela dirudien moduan), Etsaiak eta bere erreinuak ere mundu honetakoak izan beharko dute. Zeren halaxe izan baitzen, hain zuzen, juduek Jainkoa baztertu zutenean ere; izan ere, Jainkoaren erresuma Palestinan zegoen, eta inguruko nazioak ziren Etsaiaren erresumak. Ondorioz, Satan izenak Elizaren edozein etsai esan gura du.

Ifernuko oinazeak negarra eta hortz-karraska esakunez adierazi ohi dira zenbaitetan, Mateo 8, 12.ean kasu. Beste zenbaitetan (Is. 66, 24. eta Mk. 9, 44-46-48.ean adibidez), kontzientzia karraskatzen duen harra esapidetz; batzuetan, azken pasarte horretan bezala, sua hitzaren bidez, barruko harra ez hiltzen, ez eta sua itzaltzen den tokia, eta beste pasarte askotan; beste batzuetan, Daniel 12, 2.ean kasu, lotsa eta mesprezua esapidetz: Iratzarri egingo dira hilobietan dauden asko: batzuk betiko bizitzarako, besteak betiko lotsa eta mesprezurako. Hona hemen zer adierazten duten pasarte guztiok metaforaz: arimaren goibela eta nahigabea beste batzuen betiko zoriontasuna ikustean, gaitzetsiek beren sinesgogortasun eta desobedientziaren erruz galdu duten zoriona, alegia. Eta besteen zoriontasun hori, nabarmen, eurek noizten duten zorigaitzarekin alderatuz baizik ez zaienez nabarmen, hortik ateratzen da gorputz-oinaze eta sufrimenduok pairatu behar dituztenak ez direla soilik gobernari gaizkile eta ankerren pean bizi direnak, baizik Jainko Guztiyahalduna, santuen erregea eternala, etsaitzat dutenak. Eta oinaze fisiko horien artean, gaizkile bakoitzaren bigarren heriotzarena dago. Zeren, Idazteunean garbi dagoen arren denon biztuerarena, han ez baitugu irakurtzen betiko bizitza ezin gaitzetsiri agindu zaionik, eta San Paulok (1 Ko. 15, 42-43), zeintzuk giza gorputz berbiztuko diren planteatzean, Hildakoen biztuerarekin ere gauza bera gertatuko da: ereiten dena ustelkorra da, bizten dena ustelezina; ereiten dena mesprezagarria, bizten dena ospetsua; ereiten dena ahula, bizten dena indartsua esaten badu ere, gaizkileen gorputzei ezin zaie behintzat eratziki ospea eta indarra. Ezin eratziki dakieke bigarren heriotza izena, ezta ere, behin baino hil ezin direnei, eta, nahiz eta betiko bizitza dohakabe bati betiko heriotza deitu ahal, hori ezin da ulertu propioki bigarren heriotzat. Gaitzetsiei ezarriko zaien sua betiko sua da, hau da, haietariko inor ere gorputz-adimeneko torturarik gabe ezin gera daitekeen egoera, eta betiko nozitu beharko dutena, gainera, biztueraren ondoren; zentzu horrexetan da sua iraungieztina eta oinazeak betierekoak. Baina hortik ezin da ondorioztatu su hartara jaurtikiak edo oinaze haiek paira ditzenak betierean iraun eta jasan dezakeenik horrela, sugarretan eta oinazetan, suntsipena eta heriotza inoiz iristen ez zaizkiola. Eta pasarte asko diren arren betiko su eta oinazeak aipatzen dituztenak -gizakiak bertara bata bestearen ondoren jaurtikiak izan daitezkeelarik munduak dirauen bitartean-, ez dut aurkitzen pasarte bat ere gizabanakoren batek ifernu horretan betiko bizitza izango duela baieztatu duenik; bai, aitzitik, betiko heriotza, bigarren heriotza dena (Apokalipsia 20, 13-14): Itsasoak bere baitan zeuzkan hilak itzuli zituen, eta, orobat, Herioak eta Hilien Egoitzak, eta nor bere egintzen arabera epaitua izan zen. Herio eta Hilien Egoitza suzko lakura bota zituzten; suzko lakua bigarren heriotza da. Garbi dagoelarik, hortaz, bigarren heriotza bat izan behar duela judizio egunean gaitzetsiak izango direnetariko bakoitzarentzat, eta horren ondoren ez direla berrituko. Betiko bizitzako gozamenak oro, SALBAZIOA edo salbatua izatea esapidetaren pean barnesartzen dira Idazteunean. Salbaturik egotea babesturik egotea da, dela erlatiboki zenbait gaitz berezirekiko, dela absolutuki gaitz guztiekiko, txirotasuna, gaixotasuna eta heriotza bera barne. Eta gizakumea egoera hilezkorrean sortua izan zenez -ez ustelkortasunik ez bere naturaren desegitea ondorioz lekarkiokeen ezer ez zegokiolarik-, eta zoriontasun horretatik Adanen bekatuagatik erori zenez, zera ondorioztatzen da:

bekatutik salbatuak izatea bekatu horrek ekarri dizkigun gaitz eta zorigaizto guztietatik aske ateratzea dela. Idazteunean gauza bera dira, beraz, bekatuaren barkamena eta heriotza nahiz sufrimendutik salbatzea, gure Salbatzailearen hitzetan ageri denez (Mt. 9, 2), elbarri bat osatzerakoan zera dioenean: Izan bihotz, seme! Barkatuak dituzu bekatuak. Eta jakinik eskribariek biraotzat zutela gizakume batek bekatuak barkatu ahal zituela esatea, hauxe galdetu zien (5. berts.): Zer da errazago: "Barkatuak dituzu bekatuak" esatea ala "Jaiki eta zabiltza" esatea?; adieraziz, horrela, gaixo bat salbatzean gauza bera zela "Barkatuak dituzu bekatuak" edo "Jaiki eta zabiltza" esatea, eta lehen esapidea erabiltzea bekatuak barkatzeko ahalmena zuela erakustearren besterik ez zela. Eta logikoa da, gainera, heriotza eta zorigaitza bekatuari dagozkion zigorrak direnez gero, bekatutik askatzerakoan heriotza eta zorigaitzetik ere aske izatea; hauxe delarik judizio-egunaren ondoren fededunek gozatuko duten erabateko salbamena, hain zuzen horrexegatik gure SALBATZAILEA deitzen diogun Jesukristoren botereari eta graziari esker.

Salbamen partikularrei dagokienez, honako testuotan adieraziak, 1 Sm. 14, 39: Ala Jauna, Israelen Salbatzailea!, Israel mundu honetako etsaiengandik salbatu zuela alegia; 2 Sm. 22, 4: Zu nauzu salbatzailea, Zuk nauzu indarkerizaleengandik salbatzen; eta 2 Erg. 13, 5: Siriarren uztarpetik salbatzailea bidali zion orduan Jaunak Israeli, eta antzeko beste pasarte batzuetan, ez daukat ezer esan beharrik; ez zailtasunik ez interesik baitago mota horretako testuen interpretazioa okerrarazteko.

Baina salbazio orokorrari dagokionez, zeruetako erresuman gertatu behar duenez, oso zaila da zein lekutan izango den esatea. Alde batetik, erresuma denez gero, hots, arerioen eta gabeziaren aurka betiko segurtasuna lortzearren gizakiek antolatutako bizi-egoera, badirudi salbamen horrek mundu honetan behar lukeela. Izan ere, salbazio horren bidez, gure Erregearen erresuma lorios hura konkistaz erdiesten zaigu, eta ez da, hortaz, ihes eginez lortutako salbamendua. Beraz, gure salbazio horren atzetik gabiltzanean, garaile ateratzeko ahaleginetan jardun beharra daukagu; eta garaile atera gaitezen, garaitia lortu beharra dago, eta ez da egoki horrelakorik zeruan gerta daitekeenik pentsatzea. Hala eta guztiz, arrazoiok denik baliozkoenak izanik ere, ez diet fede emango besterik gabe, Liburu Santuetako pasarte argi eta garbietan oinarritu gabe. Salbazio-egoera hori luze azaldurik dator Isaias 33, 20-25 bertsetetan:

Begira Sioni, geure jaiak ospatzen dituguneko hiriari. Ikus Jerusalem, bizitoki lasaia, egoitza finkoa, inork ziririk aterako ez dion eta sokarik etengo ez dion oihal-etxolaren pareko.

Hor agertuko digu Jaunak bere ospe handia. Ibai eta ubide zabaleko lurraldea izango da; baina etsaien arraun-txaluparik ez da handik igaroko, ez untzi handirik bertan ibiliko.

Untziak sokak nasaituak daude, ezin diote mastari eutsi, eta belarik zabaldu ezin. Orduan, harrapakinak banatuko ditugu; hain ugari banatu ere, ezen herrenak ere izango baitu parte. Izan ere, Jauna dugu epaile eta legegile. Jauna dugu errege: berak salbatuko gaitu.

Jerusalemen bizi den inork ez du esango: "Gaixo nago". Jainkoak barkatu egingo dizkio bekatuak bertako jendeari.

Hitz horietan ageri zaigu salbamena zein lekutatik etorriko den: Jerusalem, bizitoki lasaia; salbazio horren betikotasuna: egoitza finkoa, etab.; Salbatzailea: Jauna dugu epaile, legegile eta errege, berak salbatuko gaitu; salbamena: Jauna izango zaie ibai eta ubide zabaleko lurralde, etab.; etsaien egoera: haien sokak nasaituak daude, ezin diote mastari eutsi, herrenak ere izango du parte harrapakinetan; salbatuen egoera: inork ez du esango "gaixo nago"; eta azkenez, hori guztia bekatuaren barkamenaren barne dago: Jainkoak barkatu egingo dizkio bekatuak bertako jendeari. Hemen argi ageri da, beraz, salbazioa lur honetan izango dela, Jainkoa Jerusalemen errege izan dadinean Kristoren bigarren etorreraren ostean. Eta Jerusalemdik etorriko da Jainkoaren erresuman onartuak izango diren jentilen salbazioa, profetak berak beren-beregi dioenez (Is. 66, 20-21): Atzerriko nazio guztietatik ekarriko dituzte zuen herritarrek zaldi, gurdi eta ohatiletan, mando nahiz gamelu gainean; niretzat, Jaun honentzat, opari gisa ekarriko dituzte Jerusalemgo nire mendi santuraino, israeldarrek beren opariak ontzi garbietan Jaunaren etxera eraman ohi dituzten bezalaxe. Hala diot nik, Jaunak. Eta beraietako batzuk ere aukeratuko ditut apaiz eta lebitar. Hala diot nik, Jaunak. Garbi dago hor Jainkoaren erresumaren egoitza nagusia, jentilak izan ginenon salbazioaren jatorrizko lekua, Jerusalem izango dela. Eta hauxe bera baieztatza dator gure Salbatzaileak Samariako emakumeari eman zion azalpena Jainkoaren adorazio-tokiari buruz, zera esan baitzion (Joan 4, 22), samaritarrek ezagutzen ez zutena gurtzen zutela, baina juduek, aldiz, bazekitela zein gurtzen zuten, salbamena juduengandik baitator (ex Judaeis, hots, juduengan duela hasiera), zera esango balu bezala: zuek bai gurtzen duzuela Jainkoa, baina ez dakizue noren bidez salbatuko zaituzten, eta guk ezagutzen dugu, ordea, gure Salbatzailea: Judako leinukoa izango da, judua, ezen ez samaritar bat. Eta horregatik emakumeak, ez batere oker, honela erantzun zion: Badakigu Mesias, Kristo alegia, etortzekoa dela. Horrenbestez, gure Salbatzaileak esan zuena, salbazioa juduengandik etorriko dela, San Paulok dioen gauza bera da (Erm. 1, 16-17): Ebanjelioa Jainkoaren indarra delako fededun guztiak salbatzeko, juduak lehenengo, baina baita judu ez direnak ere. Izan ere, Ebanjelio horretan ageri baita Jainkoaren justizia, fede batetik bestera iraganez; juduaren fedetik jentilaren federa, alegia.

Zentzu berean hitz egiten du Joel profetak ere, judizio-eguna deskribatzerakoan (Jl. 2, 30-31): Gauza harrigarriak egingo ditut zeru-lurretan: odola eta sua eta ke-lainoak. Eguzkia ilunbe bihurtuko da, ilargiak

odol-itxura hartuko du, Jaunaren eguna, egun handi eta ikaragarria, iritsi baino lehen. Eta ondoko hau eransten du (32. berts.): Orduan, Jaunari dei egin diezaiona salbatuko da. Jerusalemen, Sion mendian, izango da salbaturik, Jaunak esan bezala. Jaunak deituak geldituko dira bizirik. Eta gauza bera dio Abdias 17. bertsetak: Baina Sion mendian izango dira bizirik geldituak, eta toki santu izango da hura berriro. Jakoben ondorengoek berriro eskuratuko dute beren lurraren jabegoa, hau da paganoen lurren jabegoa, zeina hurrengo bertset hauetan azaltzen baita berariaz: Esauren lurraldea, filisteoen lurraldea, Efrainen lautadak, Samariakoak, Galaad eta hegoaldeko hiriak, eta hitz hauekin bukatzen du: Eta Jauna izango da errege! Pasarte guztion arabera, salbazioa eta judizio ondoko Jainkoaren erresuma lur honetan dira, beraz. Bestalde, ez dut aurkitu testu bat ere santuen zeruetara igokundea frogatzeko erabil daitekeenik probabilitatez, hau da coelum empyreum edo ortzeko lekuren batera joango direla dioenik, Zeruetako erreinua deitutakora salbu; baina izen hori ondoko honegatik etor dakioko: Jainkoak, juduen errege zenak, bere manamenduen bidez gobernatu zuelako, Moisesi zeruko aingeruen bitartez igorritako manamenduen bidez, eta erreboltaren ondoren bere Semea bidali zuelako zerutik, obedientziara menera zitzan. Eta berriro ere halaxe bidaliko du, gainera, bai juduak eta gainerako fededun guztiak ere goberna ditzan judizio egune-tik aurrera, sekula guztian. Hortik gure errege handi horren tronua zeruan egotea, lurra oinazpikotzat duen bitartean. Baina ez dirudi errege horren duintasunari dagokionik, eta ezin dut aurkitu horren aldeko testu argirik Idazteunean, Jainkoaren meneko direnak Haren tronua bezain leku garaian eta oinazpikoa baino garaiagoan egoteak.

Jainkoaren erresumaz eta salbazioaz esandako honetatik ez dago zail interpretatzen GEROKO MUNDUAK zer esan gura duen. Hiru mundu aipatzen dira Idazteunean: antzinako mundua, gaurko mundua eta geroko mundua. Lehenaz San Pedro mintzo zaigu (2 P. 2, 5): Antzinako munduari ere ez zion barkatu, baizik eta uholdea bidali eta jende gaizto hura suntsitu egin zuen, nahiz eta Noe -bere bizitzan zintzotasuna erakutsi zuena- hondamenditik libratu beste zazpi lagunekin, etab. Lehen mundua, honenbestez, Adanengandik uholde unibertsalera arte hedatzen da. Gaurko munduaz gure Salbatzailea mintzo zaigu (Joan 18, 36): Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Bera salbaziorako bidea gizakiei erakustera baino ez zelako etorri, eta Aitaren erreinua berriztatzen bere doktrinaren bidez. Geroko munduaz, berriz, hauxe dio San Pedrok (2 P. 3, 13): Gu, ordea, agindutako zeru-lur berrien zain gaude; han dena Jainkoaren nahiaren arabera izango da. Hauxe da Kristo lainoartean zerutik jaitsiko den MUNDUA, eta, aingeruak botere eta aintza handiz bidaliz, bere hautatuak lau haizetatik eta munduko bazter urrutienetatik bilduko dituen; berauen gain erreinatuko duelarik aurrerantzean, sekula guztian, bere Aitaren pean.

Bekatariaren salbazioak alde zuzeneko BERREROSKETA suposatzen du; zeren bekatuaren errudun izanez gero, horren zigorra betetzea baitagokio, beraren gain boterea ukan eta iraindua izan denak eskatzen dion jarein-saria ordaindu beharko duelarik (berak edo besteren batek bere ordeztu). Eta iraindutako pertsona Jainko Guztiahalduna denez gero, gauza ororen gain boterea duena, jarein-sari hori salbazioa lortu ahal izateko aurrebaldintza gisa, eta Jainkoari laketa zaion moduan, ordaindu beharko da. Jarein-sari horren xedea ez da izan, ez, ofentsaren pareko ordaina ematea; ezin bekatarik ere, ez bere kabuz ez beste gizakume zuzenen baten bidez, lortzerik ez duena. Izan ere, gizakume batak besteari egin diezaiokeen kaltea bai emenda daitekeela berriztulpenez edo indemnitazioz, baina bekak ez dago ezin indemnitazioen bidez ezabatzerik, zeren, horrela balitz, bekatu-askatasuna erogarri bihurtuko litzatekeen. Baina bekatuaren damu denari bai barka dakiokela, ordea, nahiz dohainik, nahiz Jainkoari onartzea laketa zaion zigor baten bidez. Jainkoak Itun Zaharrean zenbait sakrifizio edo opari onartu ohi zuen. Bekak barkatzea ez da inolako injustizia, nahiz eta zigorraren mehatxua izan tartean. Gizakien euren artean ere, egintza onaren promesak promes egileak behartzen duen arren, mehatxuek, ordea, hots, egintza txarren promesek, ez dute behartzen promes egileak; eta askoz gutxiago behartuko dute, jakina, Jainkoa, gizakumeak baino infinituki errukiorrago dena. Beraz, Kristo gure Salbatzaileak berrerosi gintuenean, ez zuen ordaindu, zentzu horretan, gizakien bekatuengatik, bere heriotzak edo bertuteak zuzengabe bihurtuko bailuen Jainkoak bekatariei betiko heriotza ezartzea zigortzat. Kristok lehen etorreran bere buruaren opari eta eskaintzaria egin bazuen, Jainkoak hala izatea nahi zuelako gertatu zen, bigarren etorrera aurreko bitarte horretan damutu eta Berarengan sinetsi zezatenak salba zitezkeen. Eta gure berrerospenaren egintza hori Idazteunean beti ez zaion arren deitzen sakrifizioa eta eskaintzaria, baizik zenbaitetan ordainsaria, ez dugu ulertu behar, hala ere, ordainsaria, berorren balioagatik Kristok bere Aita irainduarengandik bekatariontzat barkamena eskatzeko eskubidea zukeen ordaintzat, baizik Jainko Aitari bere errukiagatik eskatzea laketa izan zitzaien ordainsaritzat.

## XXXIX

Eliza hitzaren esangura Idazteunean

Eliza (Ecclesia) hitzak zentzu ezberdinak ditu Liburu Santuetan. Batzuetan, nahiz eta ez hain sarritan, Jainkoaren etxea adierazteko erabiltzen da, hau da, kristauak biltzen ziren lekua beren obligazio santuak publikoki betetzeko. Horrela, 1 Ko. 14, 34: Emakumeek ez zaie zilegi Elizetan hitz egitea; baina eliza hitzak metaforazko adiera du hemen, batzarretan adierazteko; harrezkero, berriz, eraikina bera adierazteko erabili izan da, baita kristauen eta idolatren arteko tenpluak alderatzeko ere. Jerusalemgoko Tenplua Jainkoaren jauretxea eta otoitzerako etxea da; eta berdin, kristauak Kristo gurtzeko erabilitako edozein eraikin ere Kristoren etxea

da: horrexegatik deitzen zioten Jaunaren etxeari Kuriakhÿ, eta hortik gure hizkuntzaz kyrke eta church (eliza) deitzea.

Etxearen zentzuan erabiltzen ez denean, greziar Estatuan ecclesia hitzak zuen adiera bera du: hau da, magistratuei hitz egiten entzutera joandako hiritarren batzarre edo bilkura; eta Erromako Estatuan concio deitzen zitzaion, hitz egileari ecclesiastes eta concionator deitzen baitzioten. Eta legezko autoritatearen izenean biltzen zirenean (Ap. Eg. 19, 39), Ecclesia legitima edo legezko Eliza, ejnomo" Ekklesia, osatzen zuten. Baina iskanbila zalapartatsu eta matxinzaleak zirikatuta bilduz gero, berriz, eliza nahasia, Ekklesia sugkecumevuh ziren.

Zenbait aldiz, elkarte-barnekoa izateko eskubidea dutenen multzoa adierazteko ere erabiltzen da, nahiz eta une horretan batzartuta ez egon; hau da, kristauen talde osoari deitzeko, nahiz eta oso barreiatuta egon. Zentzu honexetan esaten da (Ap. Eg. 8, 3) Saulo triskantza ikaragarria egiten ari zela eliz elkarte; eta zentzu berearean esan ohi da Kristo Elizaren burua dela. Batzuetan, berriz, kristauen zati jakin bati deitzeko ere erabiltzen da eliza hitza, zera esatean adibidez (Kolosarrei 4, 15): Agur ezazue haren etxean biltzen den eliz elkarte. Beste batzuetan, hautatuak soil-soilik izendatzeko, Efesoarrei 5, 27. bertsetean kasu: Eliza distiratsua, zikinik eta zimurrik edo antzeko deusik gabea, santu eta kutsagabea; hori guztia eliza garaileari edo etorkizuneko elizari eransten zaiolarik. Beste zenbait kasutan, batzarrean bildutako Kristandadeko aitorleei deitzeko erabiltzen da, aitorpen zuzena nahiz okerra izan, eta zentzu horrexetan ulertu behar da Mateo 18, 17.ak dioena: Esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko.

Eta azken zentzu horretan bakarrik har daiteke Eliza pertsonatzat, hau da, nahimena, ebazmena, agintzeko eta obeditua izateko, legeak egiteko eta beste edozein egintza gauzatzeko ahalmena duena. Izan ere, legezko elkarte baten autoritaterik gabe, batzarrean egindako zeinahi egintza batzar horretan presente egon den eta egintza hori gauzatzen lagundu duen bakoitzaren egintza partikularra besterik ez da izanen, eta ez, ordea, haiek denek batera, gorputz bakar bat bailiren, egindako egintza; askoz gutxiago izanen da, jakina, batzarrean ez zeudenena, edo, bertan egon arren, egintza hura burutzerik nahi ez zutenena. Zentzu honen arabera, bada, honelaxe definituko dut ELIZA: kristau erlijioa aitortzen duten gizakumeen elkarte bat, subirano baten pertsonagan bildua; subirano horren agindura batzartu behar dutelarik, eta haren autoritaterik gabe, ostera, ez dutelarik batzartu behar. Eta edozein Estatutan ere subirano zibilaren eskuespenik gabe biltzen diren batzarrak legezkontrakoak direnez, legezkontrako batzarra da, halaber, Estatuak biltzea debekatu dion Eliza.

Hortixe ondorioztatzen da, orobat, ez dela mundu honetan, izan ere, kristau guztiek obediencia zor dioten eliza unibertsal bakar bat; ez dagoelako mundu honetan Estatu guztiak meneko dituen botere bakarrik. Badira, izan, kristauak printze eta Estatu ezberdinen menpean; baina kristau bakoitza bere Estatuaren meneko da, eta ezin da egon, ondorioz, beste ezein pertsonaren aginduen menpe. Beraz, agindu, epaitu, barkatu, gaitzetsi edo beste zeinahi egintza burutzeko gai den Eliza hori eta kristauek osatutako Estatu zibila gauza bera dira; eta Estatu zibila deitzen zaio, menekoak gizakumeak direlako; eta Eliza, menekoak kristauak direlako. Gobernu mundutarra eta izpirituala hitz pare hau jendeak bikoitz ikus dezan eta legezko subiranoari buruz nahas dadin asmatua izan da nonbait. Egia da fededunen gorputzak, berbiztu ondoren, izpiritualak ezezik betierekoak ere izanen direla, baina bizitza honetan, ordea, sendar eta ustelkorrak dira. Beraz, bizitza honetan ez da beste gobernurik, ez beste Estatu ez erlijiorik ere, mundutarrak baino. Eta ez dago menekoei ezein legezko doktrina irakasterik ere, gobernariak -bitzuen gobernariak, Estatuarenak nahiz erlijioarenak- irakastea debekatu duenik. Eta gobernari bat baino ez da behar, elkarren aurkako alderdiak sortuko direlako bestela, eta ondorioz gerra zibila Estatuaren barruan Elizaren eta Estatuaren artean, izpiritualisten eta tenporalisten artean, justizi ezpataren eta fedezkutuen artean; eta, are gehiago, kristaubanako bakoitzaren barnean ere, kristauaren eta gizakumearen artean. Eliz irakasleei artzainak deitzen zaie, eta halaxe dira subirano zibilak ere. Baina artzainak bata besteraren menpean ez badaude, artzain nagusi bakarra buru dutelarik, elkarren aurkako doktrinak irakatsiko zaizkie gizakumeei, doktrina biak faltsuak izan daitezkeelarik, edo bietariko bat behintzat faltsua nahitaez. Artzain nagusi hori zein den, naturako legearen arabera, azaldua dut honez gero: subirano zibila, alegia. Eta Idazteunak kargu hori zeini esleitu dion, hurrengo kapituluetan ikusiko dugu.

## XL

Jainkoaren erresumaren eskubideak, Abraham, Moises,

Apaiz Nagusiak eta Judako erregeengan

Fededunen Aita, eta itunaren bidez Jainkoaren erresuman lehena, Abraham izan zen. Zeren ituna berarekin egin baitzen lehenbizi, eta itun horrexen izenean behartu zuen Abrahamek bere burua, baita bere ondorengotza ere, Jainkoaren aginduak ezagutzera eta obeditzera; ez soilik naturako argiz ezagutu ahal zituenak (lege moralak, kasu), baizik baita Jainkoak modu bereziz, ametsen eta ikuskarien bidez, ezagutzera eman zizkionak ere. Zeren lege moralari zegokionez beharturik baitzeuden lehendik ere Kanaango lurraldearen promesaren izenean, eta ez zeukaten horretarako kontraturik egin beharrik. Ez zen egin, ezta ere, haiek edo gainontzeko gizakumeek Jainko Guztiahaldunarekiko zuten obediencia beharkizuna gehitzeko edo indartzeko kontraturik. Hara zertarako zen, beraz, Abrahamek Jainkoarekin

egin zuen ituna: Jainkoaren izenean amets edo ikuskarien bidez mana zekiokkeen Haren manamendutzat har zezan, eta manatu hori bere etxekoei ezagutzera eman eta betearaz ziezaien.

Jainkoak Abrahamekin egindako kontratu honetan hiru puntu hauteman ditzakegu, Jainkoaren herriaren gobernamenturako garrantzi handikoak. Lehenik, ituna egiterakoan Jainkoak Abrahamekin bakarrik egin zuela hitz, eta ez zuela egin ezelako kontraturik, beraz, haren etxeko ez ondorengoei -hauen nahimena (itun ororen esentzia osatzen duena) ituna egin aurretik Abrahamen nahimenaren barne zegoen heinean izan ezik-; Abrahamek, hortaz, legezko botereren bat behar zuen, berak besteen izenean itundutako hura guztia betearazteko ondorengoei. Horrexegatik esan zion Jainkoak (Has. 18, 18-19): Berau izango da herri guztientzat bedeinkazio-iturri. Berau hautatu dut bere seme-alaba eta etxekoei Jaunaren arabera bizitzen ikasteko. Eta hortik ondoriozta daiteke lehen puntu hau: Jainkoak zuzenean hitz egin ez dienek beraiei subiranoaren bitartez jaso behar dituztela Jainkoaren manamenduak, Abrahamen etxekoek eta ondorengoei ere aita, jaun eta subirano zuten Abrahamengandik berarengandik jaso zituzten bezalaxe. Horrenbestez, edozein Estatutan, bestelakorik agintzen ez dien errebelazio supernaturalen bat ez dutenek beren subiranoaren legeak obeditu beharra daukate agiriko kultuan eta erlijioaren aitortzan. Gizakumearen barne pentsamendu eta sineskeriei dagokienez, aldiz, ezein giza gobernarik ezagut ez ditzakeenak (Jainkoak soilik ezagutzen ditu-eta bihotzak) ez dira borondatezkoak ez legeen ondoriozkoak, baizik Jainkoaren borondatezkoak eta botereak eraginak; eta ez daude, ondorioz, obligaziopean.

Eta hortik beste puntu bat ondoriozta daiteke: Abrahamen menekoren batek ikuskari edo inspirazio pribaturen bat edota Jainkoagandiko bestelako errebelazioaren bat zeukala zioenean hark debekatutako doktrinaren alde, edo horrelako errebelazioaren bat zeukala zioenari jarraitzen ziotenean menekoren batzuek, horiek zigortzea zilegi zitzaiola Abrahami; eta egun ere zilegi zaiola subiranoari, ondorioz, euren inspirazio pribatua legeri kontrajartzen dietenei zigorra ezartzea; zeren Abrahamek bere etxekoen artean zuen leku berbera baitu subiranoak bere Estatuan.

Eta esandakotik hirugarren puntu bat ere ateratzen da: Abraham besterik ez zenez izan bere senitartean, subiranoa besterik ez dela, Estatu kristau batean, Jainkoaren hitza zein den eta zein ez den esan dezakeena. Izan ere, Jainkoak Abrahami solik hitz egin zion, ez beste inori, eta bera bakarrik zen gai Jainkoak esan zuena ezagutzeko eta bere etxekoei interpretatzeko. Hortik, ondorioz, Estatu batean Abrahamen lekua dutenak dira Jainkoak esandakoaren interpretatzaile bakarrak.

Itun huraxe izan zen Jainkoak Isaakekin, eta ondoren Jakobekin, berregin zuena. Baina harrezkero ez zen berregin, harik eta israeldarrak egiptoarregandik askatu eta Sinai mendira iritsi arte; eta orduantxe berregin zuen Moisesek (lehenago esan dudanez 35. kapituluan), halako moldez, non israeldarrak Jainkoaren herri hautatu bihurtu ziren orduz geroztik, Moises loktenente zutelarik bere garaian, eta gero Aaron eta beronen ondorengoei egokitu zitzaielarik kargu hura, Jainkoarekiko apaiz-erresuma osatuz betiko.

Erakuntza honen bidez, erresuma bat egokitu zitzaion Jainkoari. Baina Moisesek ez zuenez israeldarrak gobernatzeko autoritaterik Abrahamen eskubidearen oinordeko gisa, herentziaren izenean ezin galdazakeen-eta halakorik, badirudi herria ez zegoela hura loktenentetzat hartzera beharturik, Jainkoak hitz egin ziola sinesten zuten bitartean baizik. Moisesen autoritate hori, beraz, israeldarrek Jainkoarekin egindako ituna gorabehera, israeldarrok haren santutasunaz zuten ustearen menpe zegoen soil-soilik, benetan ere Jainkoarekin komunikatzen zela eta haren mirakuluak egiazkoak zirela sinestearen menpe, alegia; baina uste hori aldatuz gero, ez zeudekeen beharturik Moisesek Jainkoaren izenean proposatzen ziena jainko-legetzat hartzera. Zer beste oinarri ote zen pentsatu behar dugu, hortaz, israeldarrek Moisesi obeditu behar izateko. Zeren obeditzera behartzen zituena ezin baitzen izan Jainkoaren manamendua, Jainkoak ez zuelako haiei hitz egin zuzenean, baizik Moisesen beraren bitartez; eta gure Salbatzaileak bere buruaz (Jn. 5, 31) Nik neure buruaren aldeko testigantza egingo banu, nire testigantza ez litzateke baliozkoa badio, askoz gutxiago litzateke baliozkoa Moisesek bere buruaren alde egindakoa, batez ere Jainkoaren herriaren gaineko egiazko botere bat galdatzean. Bere autoritate hori, beraz, gainerako printze guztiena bezalaxe, herriaren baiespenean eta obeditzeko promesan oinarriturik egon behar zuen. Eta halaxe izan zen, ezen (Ir. 20, 18) Herri osoak sumatzen zituen trumoi eta tximistak, turutotsak eta mendia ketan, eta, beldurrez dardar, urrutian zeuden gelditi. Esan zioten, bada, Moisesi: Hitz egiguzu zuk eta adituko dizugu; baina ez diezagula Jainkoak hitz egin, hil ez gaitezen. Hauxe izan zen haien obedientzi promesa, eta horrexegatik behartu zuten beren burua, Moisesek Jainkoaren manamendutzat eman ziezaien edozeri men egitera.

Eta itunak apaiz-erresuma bat eratu zuen arren, hau da, herentziaz Aaroni zegokion erresuma, ondoretasun hori Moises hil ondoren gertatuko zela ulertu behar da. Zeren, dela monarkia, aristokrazia edo demokrazia, Estatu baten lehen sortzaile gisa arau politiko bat ebaz eta agin dezakeen edonork izan behar baitu derrigorrez herriaren gaineko botere subiranoa, bere eginkizun hori bete dezan bitartean. Eta garbi asko esaten da Idazteunean Moisesek bazuela botere hori, bera bizi izan zen bitartean. Garbi ageri da, lehenbizi, lehenxeago aipatu dugun azken testuan, non herriak ez baitio obedientzia Aaroni agintzen,



Moisesi baizik. Bigarrenik, (Ir. 24, 1-2): Jaunak esan zion Moisesi: "Igo niregana Aaron eta biok, Nadad, Abihu eta Israelgo arduradunetako hirurogeita hamarrekin batera, eta, urruti samar geldituz, jar zaitezte ahozpe. Zu bakarrik hurbilduko zara niregana; gainerakoak, ez; herria, berriz, ez da igoko zurekin. Argi dager, bada, Moises izan zela Jainkoarengana hurbiltzera deitu zitzaion bakarra (zeren ez baitzitzaion deitu Aaroni, ez beste apaizei, ez hirurogeita hamar zaharrei, ez herriari, zeini debekatu egin zitzaion igotzea), Jainkoaren pertsona israeldarren aurrean ordezkatzan zuen bakarra, hau da, Jainkoaren menpean subirano bakarra. Eta geroago zera esaten den arren (9-10. berts.): Moises mendira igo zen, Aaron, Nadab, Abihu eta Israelgo arduradunetako hirurogeita hamarrekin. Han Israelen Jainkoa ikusi zuten: oinazpian zafirozko solairua bezalakoa zuen, etab., hori ez zen gertatu Moises Jainkoarekin egon eta Beronen hitzak herriari komunikatu ondoren baino. Bera izan zen herriaren arazoez mintzatzen igo zen bakarra; besteak, bere jarraigoko nobleak esaterako, ohorezko erara besterik ez ziren izan onartuak grazia berezi hartan parte hartzen -herriari esku hartzen ere utzi ez zitzaiona-, hurrengo bertsetak dioenez, Jainkoa ikusi ahal eta bizi izatean zetzana: Kalterik jasan gabe ikusi ahal izan zuten Jainkoa; gero, otordua egin zuten haren aurrean, hau da, bizi izan ziren-; baina ez zioten ekarri herriari Jainkoagandiko manamendurik. Halaber, nonahi esaten da Jaunak Moisesi hitz egin ziola, hala gobernamenduari buruzko arazoez nola erlijioizunaren antolaketaz, Irteeraren 25, 26, 27, 28, 29 eta 30. kapituluetan eta Lebitarrenaren zehar azaltzen denez; baina inoiz gutxitan hitz egin zion Aaroni. Aaronek eraikitako zekorra Moisesek sutara jaurtiki zuen. Azkenek, Aaronen autoritateari buruzko eztabaidan, bera eta Miriam Moisesen aurka matxinatu zirenean, azken honen alde ebatzi zuen Jainkoak berak (Zen. 12). Beste horrenbeste gertatu zen Moisesen eta herriaren arteko auzian -herria gobernatzeko eskubidea zeini ote zegokion, alegia-, Kore, Dan eta Abiram eta batzarreko berrehun eta berrogeita hamar printze etorri zitzaizkienean, (Zen. 16, 3) Moisesen eta Aaronen aurka elkar harturik, esan zieten: "Aski da! Elkarteko bide guztiak daude Jaunari sagaratuak eta guztien artean dago bera. Zein eskubidez jarri nahi duzue zeuen burua Jaunaren batzarrearen gainetik?". Kore, Dan eta Abiram, beren emazte eta seme-alabekin, lurrak bizirik irenstea eragin zuen Jainkoak, eta sua lehertarazi zuen berrehun eta berrogeita hamar printze haiek bertan erre zitezen. Beraz, ez Aaronek, ez herriak, ez herriko printzeek osatutako ezein aristokraziak ere ez zuen izan subiranotasunik israeldarren gain, baizik Moisesek bakarrik Jainkoaren pean. Eta ez soilik politika zibilarik zegozkion arazoetan, baizik baita erlijioari zegozkionetan ere. Zeren Moisesek eta ez beste inork hitz egin zuenez Jainkoarekin, berak bakarrik esan ziezaiokeen herriari Jainkoak haiengandik zer nahi zuen. Inortxo ere ez zitekeen izan horren ausarta, herio-zigorpean, Jainkoak Moisesekin hitz egiten zuen mendira hurbiltzeko. Jaunak dio (Ir. 19, 12): Ezarri mugak mendi inguruan eta esaiozu herriari ez igotzeko mendira, ezta hurbildu ere maldara: mendira hurbiltzen denak herio-zigorra izango du. Eta berriro 21. bertsetean: Jaitsi eta ohartarazi herriari, ez dadila ni ikusten ahalegindu. Hauxe ondoriozta dezakegularik, hortaz: Estatu kristau batean Moisesen lekua daukana dela Jainkoaren mezulari eta manamenduen interpretatzaile bakarra. Eta horren arabera, Idazteuna interpretatzean inortxok ere ez lituzkeela gaingitu behar bakoitzari bere subiranoak ezarri dizkion mugak. Zeren Idazteuna, Jainkoak bertan hitz egiten duenez, Sinai mendia baita; eta mugak, berriz, mundu honetan Jainkoaren pertsona ordezkatzan dutenek jarritako legeak. Zilegi zaigu, bai, Liburu Santuei so egitea eta Jainkoaren egintza miragarriak bertan mirestea, Haren beldur izaten ikas dezagun; baina haiek interpretatzea, hau da, Jainkoak bere menpean gobernatzeko izendatu zuenari zer esan ote zion barrendatu nahi izatea, eta gobernatzen duenak Jainkoak agindu dion arabera egiten duen ala ez juzgatzeko norberaren burua epailatzat hartzea, Jainkoak ezarri dizkigun mugak haustea da eta Jainkoa lotsagabeki aztertu nahi izatea. Moisesen garaian ez zen beste profetarik ez Jainkoaren izpiritua ukan-asmorik zuenik, Moisesek berak onespena eta eskuespena eman zienak baino. Bere garai hartan, izan ere, hirurogeita hamar gizon besterik ez baitziren Jainkoaren izpiritua bidez profetizatzen omen zutenak, eta Moisesek hautatutakoak ziren guztiak; eta horietaz zera esan zion Jainkoak Moisesi (Zen. 11, 16): Bildu hirurogeita hamar herri-arduradun israeldar, zure iritziz herrian agintea eta gidaritza dutenak. Hauexei eman zien Jainkoak bere izpiritua, baina izpiritu hori ez zen Moisesenetik ezberdina, zera esaten baita 25. bertsetean: Orduan, Jauna jaitsi zen lainoan eta Moisesek zuen izpiritutik hartu eta hirurogeita hamar herri-arduradunei isuri zien. Baina lehenago azaldu dudanez, izpiritua esatean adimendua ulertu behar da, aipatu pasarte horren zentzua ondoko hauxe besterik ez delarik: Moisesenarekin bat zetorren eta haren menpean zegoen adimendua eman ziola Jainkoak, profetizatze modua izan zezaten, hots, herriari Jainkoaren izenean hitz egiteko modua, halako moldez non, Moisesen ministrari gisa eta haren eskuespenez, Moisesen beraren doktrinarekin bat zetorrena azal zezaten. Haren ministrariak besterik ez baitziren; eta haietariko bik kanpamenduan profetizatu zutenean, legezkantoko gauza berritza hartu zen, eta, kapitulu beraren 27 eta 28. bertsetetan esaten denez, hartaz akusatutak izan ziren, eta debeka ziezaiela eskatu zion Josuek Moisesi, honen izpiritua bitartez profetizatzen ari zirela jakin gabe. Argi ateratzen delarik, horrenbestez, ezein menekori ere ez dagokiola profezi ahalmena edo izpiritua ukan nahi izatea, baldin Jainkoak Moisesen lekuan jarri duen hark ezarritako doktrinaren aurka bada.

Aaron hil eta gero, eta Moises ere haren ondoren, erresuma, apaiz-erresuma zenez gero, Aaronen semeari, Eleazar Apaiz Nagusiari, egokitu zitzaion itunaren arabera. Eta Jainkoak subirano izendatu zuen (bere menpean), Josue izendatu zuen, berriz, bere gudarosteen jeneral. Horrexegatik dio Jainkoak berariaz (Zen. 27, 21) Josueri buruz: Eleazar apaizari eta elkarte osoari aurkeztu eta kargua emango diozu guztien aurrean. Zeure aginpidearen partaide egingo duzu, israeldar elkarte osoa esaneko izan dezan. Apaizengan zegoen, hortaz, gerra eta bakea egiteko botere gorena. Epailletza-botere gorena ere Apaiz Nagusiari zegokion, beronen esku baitzegoen legearen liburuak gordetzea, apaiz eta lebitarrak auzi zibiletan besterik ez zirelarik epaileen menpeko, Dt. 17, 8-10.ean ageri denez. Jainkoaren jaurespen-kultuaren erari dagokionez, berriz, inoiz ere ez zen zalantzan jarri, Saulen garaira arte, autoritate gorena Apaiz Nagusiari zegokionik, horretan ere. Beraz, botere zibila eta eliz boterea baturik aurkitzen ziren pertsona bakar berberagan: Apaiz Nagusiarengan; eta halaxe behar du, gainera, jainkoazko zuzenbidez, hau da, Jainkoaren autoritate zuzenez, gobernatzen duenaren kasuan.

Josueren heriotzatik Saulen garaira arteko tarte hori maiz deskribatzen du Epailen Liburuak Israel erregerik gabe egon zen denbora lege, zera erantsiz zenbaitetan, bakoitzak bere irizpidearen arabera zuzen zeritzona egiten zuela. Hortaz, erregerik ez zela esaten denean, Israelen botere subiranorik ez zela ulertu behar da. Eta halaxe zen, izan ere, botere horren egite eta egikaritzari dagokionez. Hain zuzen, Josue eta Eleazarren heriotzaz geroztik (Epailak 2, 10-11), Ondoren etorritako belaunaldiak ez zuen ezagutu Jauna, ezta Jaunak Israelen alde egina ere. Jaunari atsegin ez zaiona egin zuten israeldarrek, Baal sasijainkoaren idoloak gurtuz. Juduek, izan ere, San Paulok aipatzen duen ezaugarri hura zeukaten, zeinuren bat eskatzeko ohitura, alegia, eta hori Moisesen gobernuari men egin aurretik ezezik, haren menpe jartzea erabaki eta gero ere. Horrela, zeinuen eta mirakuluen helburua fedea lortzea zen, eta ez, beraz, behin lortutako fedea ez haustea; zeren azken honetara beharturik baitzeuden lehendik ere naturako legearen izenean. Baina gobernuaren egikaritzari barik, gobernu horren eskubideari bagagozkio, botere subiranoa Apaiz Nagusiarengan zetzan oraindino. Horregatik, epailei eskainitako dena-delako obediencia (Jainkoak era ezohiko hautatuak ziren epaileok, bere meneko matxinatuak etsaiaren eskuetatik askatzeko), obediencia hori, diot, ez zitekeen aitzakiatzat erabili Apaiz Nagusiari, hala arazo politikoetan nola erlijio-gaieetan, zegokion botere subiranoren eskubidearen aurka. Izan ere, ez epaileek ez Samuelek berak ere ez zuten Jainkoaren dei ohikorik izan, ezohikoa baizik, herria goberna zezaten; eta israeldarrak esaneko izan bazitzaizkien, ez zen horretara beharturik zeudelako, baizik epaileok Jainkoagandik zituzten dohainengatik, beraien jakindurian, adorean edo arrakastan ageri zirenak. Hauxe ateratzen da, beraz, guzti horretatik: hala politika arautzeko eskubidea, nola erlijioa arautzekoa, eskubide banaezinak zirela.

Epailen atzetik erregeak etorri ziren, eta arestian autoritate osoa, hala erlijioan nola politikan, Apaiz Nagusiarengan zetzanez, orain, aldiz, erregearengan datza dena. Zeren arestian -ez soilik Jainkoaren botereagatik, baizik israeldarrekin egindako itun berezi baten izenean- Jainkoarengan eta honek lurrian gerenteordetzat zuen bere menpeko Apaiz Nagusiarengan zetzan herriaren gaineko subiranotasun hura, orain herriak ezetsi egingo baitu, Jainkoaren beraren baiespenez. Ezen israeldarrek Samueli ondoko hau esatean (1 Sm. 8, 5): Izenda iezaguzu, bada, errege bat, gida gaitzan; horixe egin dute herrialde guztietan, zera adierazi nahi zuten: aurrerantzean ez zutela nahi Jainkoaren izenean apaizek ezar diezazizkien manamenduen bidez gobernatuak izan, baizik gainerako nazio guztien gobernu-moduaren arabera gobernatuko zituen norbaiten bidez. Eta, ondorioz, Apaiz Nagusiaren errege-boterea baztertzean, ordura arteko Jainkoaren gobernamendu berezi hura baztertu zuten. Eta, hala ere, Jainkoak amore eman zuen horretan, hauxe esanez Samueli (1 Sm. 8, 7): Onartzazu herriak eskatzen dizun guztia. Ez zaituzte zu gutxiesten; ni naute gutxiesten, ez bainaute errege nahi beren gain. Jainkoa ezetsi zutelarik, bada, eta Haren eskubidean oinarrituz gobernatzen zutelarik apaizek, hauei ez zitzaien geratu beste autoritatetik erregeek eman nahi zieten baizik; erregeak onak ala gaitztoak izan, autoritate gehiago ala gutxiago, alegia. Eta arazo zibilen gobernuari dagokionez, garbi dago erregeen esku geratu zela dena. Halaxe esaten baita aipatu kapitulu bereko 20. bertsetean: beste herri guztiak bezalakoak izan nahi dugu; gida gaitzala erregeak, joan dadila gure aurretik gure alde borrokatzera; hau da, erregeak izanen du aginpide osoa, nola bake-denboran hala gerratean. Erlijioaren arauketa ere barne delarik, zeren garai hartan ez baitzen erlijioa arautzeko Jainkoaren beste hitzik, Moisesen legea baino, lege zibiltzat ere horixe zutelarik. Gainera, Erregeen liburuan irakurtzen dugunez (1 Erg. 2, 27) Salomonek kendu egin zion Abiatarri Jaunaren apaiz izatea; Salomonek bazuen autoritatea, beraz, Apaiz Nagusiaren gain, beste edozein menekoren gain bezala; erlijio-arloan zeukan nagusigoaren seinale garbia. Irakurri ahal dugu, halaber (1 Erg. 2, 27), bera izan zela Tenplua dedikatu zuena eta herria bedekatu ohi zuena; eta bera izan zela, hain zuzen ere, eliza eta otoitz-etxe ororen sagarapenean erabiltzen den otoitz bikain horren egilea; erlijio-arloan zeukan nagusigoaren beste seinale garrantzitsu bat. Eta osteria ere irakurri ahal dugu (2 Erg. 22) ezen, Tenpluan zegoen Legearen Liburuari buruzko eztabaida sortu zenean, ez zuela Apaiz Nagusiak ebatzi, baizik Josiasek bidali zituela hura eta beste batzuk Hulda profetisarengana arazoaz galdetzeraz; erlijio-arloko nagusigoaren beste seinale bat. Eta azkenez irakurtzen dugu (1 Kro. 26, 30) Jainkoak Josabia eta beronen

anai-arreba hebrondarrak Israelgo funtzionari izendatu zituela Jordanez handiko aldeko israeldarren artean, mendebaldeko lurraldean, Jainkoaren zerbitzuari dagokionean nahiz erregearen zerbitzuari dagokionean goberna zitzaten. Ez al da hori botere absolutua, mundutarra nahiz izpirituala, bereizketa hau egiten dutenen hitzak erabiliz? Konkluditzeko: Jainkoaren erresumaren lehen erakuntzatik gatibaldira arte, erlijioari buruzko nagusigoa subiranotasun zibila zeukanaren esku berean egon zen; eta apaiz-kargua, Saulen hautapenaren ondoren, ez zen izan epailetza-kargua, ministraritza-kargua baizik.

Baina gobernu biak, bai politika eta bai erlijio-arlokoa, eskubideari dagokionean baturik egon ziren arren, Apaiz Nagusiengan lehenbizi eta erregeengan ondoren, badirudi, Liburu Santuetan eurretan ageri denez, herriak ez zuela horrela ulertu. Izan ere, herriaren zati handi batek, beharbada gehiengoak, mirakulu handiak -edo, mirakuluen parekoa dena, gobernarien aparteko trebetasunak eta arrakastak kanpainetan-zekuskien heinean baizik ez zioten ematen sinespiderik Moisesen ospeari edota Jainkoaren eta apaizen arteko solasaldiei. Baina euren gobernariok gustuko ez zituztenean, ez zuten galtzen aukerarik, ez, batzuetan haien politika eta beste batzuetan erlijioa kritikatzeko, gobernua aldarazteko edo obedientziari nahierara uko egiteko. Horrexegatik sortzen ziren noizbehinka errebolta zibilak, zatiketak eta nazioaren hondamenak. Halaxe gertatu zen, adibidez, Eleazar eta Josue hil ondoren, Jainkoaren mirariak ezagutzen ez zituen belaualdi berriarekin: euron arrazoimen ahularen pentzutan geratu zirela eta, errege-erresuma baten itunez beharturik zeudela jakin gabe, ez zutela aintzat hartu ez apaizaren manamendurik ez Moisesen legerik; eta bakoitzak bere irizpidearen arabera egoki zeritzona egiten zuen, eta arazo publikoei zegoekenez, auzoko nazio zanpatzaileengandik askatzeko gaitzat noizean behin zeukatenari obeditzen zioten. Eta ez zioten aholku eskatzen (egin behar zuketenez) Jainkoari, baizik etorkizuneko gertakariak iragartzeko profetatzat jotzen zituzten gizonezko nahiz emakumezkoek; eta nahiz eta beraien kaperan idolo bat eduki, baldin lebitar bat bazuten kaperautzat, Israelgo Jainkoa gurtzen zeudelakoan ziren.

Gero, berriz, gainerako nazioak bezalako errege bat eskatu zutenean, ez zuten egin euren Jainko Erregearen gurtza uzteko asmoz, baizik, Samuelen semeen justiziaz etsita, auzi zibiletan epai zitzan errege bat nahi zutelako; baina ez Moisesek gomendatutzat zeukaten erlijioa aldatzen uzteko asmoz, ordean. Eta, horrela, garaile ateratzeko iguripena zutenean, beti izan ohi zuten aitzakiaren bat, dela justiziaren dela erlijioaren izenean, haien obedientziatik askatzeko. Samuel haserretu egin zitzaion herriari errege bat nahi zutelako -Jainkoa baitzuten Errege eta Samuelek Haren menpeko aginpidea besterik ez zuen-; Baina Samuelek berak, hala eta guztiz, beraren gomendioari kasurik egin gabe Saulek Agag suntsitu gabe utzi zuenean Jainkoaren aginduen kontra, beste errege bat gantzutu zuen, Dabid, oinordekoei ondorengotza kenduz. Roboam ez zen idolatra; baina herriak zanpatzailatzat jo zuenean, eskakizun zibil horrek hamar leinu ekarri zituen harengandik Jeroboam idolatrarengana. Eta orokorki, bai Judako eta bai Israelgo erregeen historia osoan zehar, erregeek beti izan zuten profeten kontrola erlijioa hausteagatik, baita, zenbait kasutan, Estatu-arloko okerrengatik ere. Horrela, Jehu profetak (2 Kr. 19, 2) Josafateri lotsak eman zizkion Israelgo erregeari siriarren aurka laguntzeagatik; eta Isaiasek Ezekias (39, 3-7), Babiloniako enbaxadoreei bere altxorak erakustearren. Horrek guztiak haxe erakusten du: botere biak, zibila nahiz erlijiozkoa, erregeengan zeuden arren, ezein errege ere ez zeukala botereok kontrolik gabe erabiltzerik, beren trebetasun natural edo arrakastengatik lortzen zutenek salbu. Beraz, garai haietako praktikatik ezin atera daiteke argumentu bat ere erlijio-arloko nagusigoaren eskubidea erregeengan ez zegoenik konkluditzeko, ez bada eskubide hori profetengan jartzen dugula eta zera konkluditu: Jaunari kerubinen aurrean otoitz egitearren Ezekias leku eta une hartan ez zitzaiolako ezer esan, baizik geroago Isaias profetak, profeta haxe zela Elizaren buru nagusia; edo Josiasen Legearen Liburuari buruz Hulda profetisari kontsultatu ziolako, emakume honexegan zegoela, eta ez Josiasengan edo Apaiz Nagusiarengan, erlijio-arazoei buruzko autoritate gorena; baina ez dut uste doktore bat ere iritzi horretakoa denik.

Gatibaldian zehar, juduek ez zuten inolako Estaturik; eta handik itzultzean, Jainkoarekin ituna berriztatu bazuten ere, ez zen izan ez Esdras ez beste inorekiko obedientzi promesarik; eta geroxeago greziarren meneko bihurtu ziren (eta hortik greziarren ohiturek, demonologiak eta kabala-zaleen doktrinak haien erlijioa hainbeste kutsatzea). Gauzak horrela, beraz, nola erlijio-arloan hala Estatu-arloan zuten nahasmendu horregatik, ez dago ezer garbi ateratzerik arlo bata nahiz besteko nagusigoari dagokionez. Horrenbestez, Itun Zaharrari dagokionean bederen, zera konkludi dezakegu: juduen artean Estatuaren subiranotasuna zutenak, horiexek beraiek zirela Jainkoaren ageriko kultu alorrean ere autoritate gorena zutenak; eta Jainkoaren pertsona ordezkatzeko zutela, hots, Jainko Aitaren pertsona, nahiz eta ez zitzaion Aita deitu mundu honetara Jesukristo bere Semea bidali zuen arte, gizateria bekatuetatik askatzeko eta bere Betiereko Erresumara eramateko, bertan betiko salba dadin. Baina honetaz guztiaz ondoko kapituluan hitz egingo dugu.

## **XLI**

Gure salbatzaile bedekatuaren misioaz

Mesiasen misioaren hiru alde aurkitzen dugu Idazteunean: lehena, Berrerosle edo Salbatzaile-misioa; bigarrena, Artzain, Kontseilari edo Irakaslearena, hau da, Jainkoak bidalitako profeta, Berak salbaziorako

hautatuak onbidera ditzan; eta hirugarrena, errege-misioa, betiereko Errege, baina bere Aitaren menpe, Moises eta Apaiz Nagusiak euren garaietan bezala. Eta hiru alde horiek hiru aldi ezberdinei dagozkie. Izan ere, Hark bere lehenengo etorreran ekarri zigun berrerospena, gure bekatuetatik askatzeko bere burua gurutzean eskaini zuelarik; gure onbideratzeari dagokionez, aldeztu zuen orduan bere pertsonarengan, eta aldeztu ari da lortzen orain bere ministrarien bidez, horrela jarraituko duelarik bigarren etorrerara arte; eta berriro etor dadinean, bere hautatuen gain betierean iraungo duen erresuma gloriatzeko emango zaio hasiera.

Berrerosle-misio horri, hau da, gizakumeak bekatutik askatzeko jarein-saria (eta jarein-saritzat bere heriotza) ordaintzeari, dagokio Mesias sakrifikatua izana; halaxe zizkigun erauzi gure gaiztakeria guztiak, eta bere gain hartu, Jainkoak eskatu zion moduan. Horrek ez du esan nahi gizakume baten heriotzak, bekatutik aske izan arren, gizakume guztien ofentsak ordain ditzakeenik justizia hertsia erabera. Jainkoaren errukiarengatik izan zen horrela, Hark bere erruki horren arabera onartzea laket izan zitzaiona agindu baitzuen bekatuaren ordaintzat. Itun Zaharrean (Lebitarren 16. kapituluaren irakur dezakegunez), Israel osoaren bekatuen ordain-oparia egitea eskatzen zuen Jainkoak urtero, hala apaizen nola gainontzekoen bekatuengatik. Agindu hura betetzeko, Aaroni bakarrik zegokion, bere bekatuengatik nahiz apaizenengatik, bildots bat sakrifikatzea; gainontzeko herriaren bekatuengatik, ordea, aker gazte bi ekartzen zizkieten eta horietariko bata sakrifikatu egin behar zuen; bigarrenari zegokionez, ihes-akerra deitzen zitzaiona, haren buruaren gainean ezarri behar zituen eskuak, eta, herriaren gaiztakeria guztien aitorpena eginez, buru horren gainera bota bekatuok; eta gero aker hori basamortura eramaten zuen (baten baten laguntzaz baliatuz) eta han ihes egiten utzi, herriaren gaiztakeria guztiak berarekin eraman zitzaion. Eta nola aker baten sakrifizioa ordainsari nahikoa izan zen (Jainkoak horrela onartzearen) Israel osoaren jarein-sari gisa, halaxe Mesiasen heriotza ere ordainsari nahikoa izan zen, Jainkoak gehiago ez baitzuen eskatu, gizateria osoaren bekatuen ordainerako. Kristo gure Salbatzailearen sufrimenduek Isaakaren oparian edo Itun Zaharreko beste edozein opari motatan bezain argi aintzinarudikaturik dirudite hemen: bata eta bestea zen, sakrifikatutako akerra eta ihes-akerra (Is. 53, 7): Gaizki tratatu zuten, eta bera apaldu egin zen, ahaztu zabaldu gabe; hiltzera daramaten arkumeak bezala, moztailen aurrean isilik dagoen ardiak bezala: hemen oparitan sakrifikatutako akerra da. Aldiz (4. berts.), Baina gure gaitzak hartu zituen bere gain, gure oinazeen zama jasan; eta berriro (6. berts.), Jaunak bere gain hartu zuen gu guztion errua: hemen, oster, ihes-akerra dugu. Bizidunen lurretik kanpora atera zuten, nire herriaren errebelatzeak jota (8. berts.): hemen berriro ere opari-akerra. Aldiz (11. berts.), Haien erruak bere gain hartu baitzituen: hemen ihes-akerra dugu. Horrela, beraz, Jainkoaren Bildotsa aker bion baliokide da: hil egin zenez, sakrifikatutako akerra; eta bizitu egin zenez, Aitak bere sasoian biztuaraztean eta gizakien bizilekutik igoaraztean, ihes-akerra ere bai.

Hortaz, berrerosleak berrerositako gauzarako titulurik ez duenez, berrerospena burutu eta jarein-saria ordaindu aurretik (eta jarein-sari hori Berreroslearen heriotza izan zen), garbi dago ezen gure Salbatzailea (gizakume lege) ez zela izan, ez, berrerosi zituen haien errege, heriotza pairatu zuen arte; hau da, gorputzez lur honetan bizi izan zen bitartean, ez zela izan errege. Ez zela presentziaz errege, diot, fededunek berarekin bataioan egindako itunaren izenean. Baina fededunok, euren Jainkoarekiko ituna bataioan berriztatzean, Kristo erregetzat (bere Aitaren pean) obeditzera behartu zuten beren burua, erresuma beraren esku har zezan nahi zukeenerako. Esandako honekin bat dator Gure Salbatzaileak berariaz dioena (Jn. 18, 36): Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Honenbestez, kontuan hartuz Idazteunak bi mundu besterik ez duela aipatzen -bata orain existitzen den hau eta judizio egunera arte iraungo duena (hortik egun hori azken eguna deitzea), eta bestea, berriz, judizio egunaren ondoren izango dena, zeru-lur berriak sortzean-, Kristoren erresuma ez da hasiko, beraz, denek bizitua gertatu arte. Eta horixe dio gure Salbatzaileak (Mt. 16, 27): Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin; eta, orduan, bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Bakoitzari bere jokabidearen arabera ordaintzea errege-misioa burutzea da; eta hori ez da gertatuko Kristo bere Aitaren aintzaz beterik etorri arte aingeruekin. Gure Salbatzaileak ondoko hau esatean (Mt. 23, 2-3), Lege-maisuek eta fariseuek Moisesen irakatsiak adierazteko eginkizuna dute; saia zaitezte, beraz, haiek esaten dizueten guztia betetzen, argi eta garbi ari da esaten errege-boterea bere buruari barik fariseu haiei zegokiela bitarte hartan. Eta gauza bera ondoko hau dioenean (Lk. 12, 14): Nork egin nau ni zuen artean epaile edo ondasun-banatzaille? Eta (Jn. 12, 47): Ez bainaz mundua gaitzestera etorri, mundua salbatzera baizik. Hala ere, gure Salbatzailea mundu honetara etorri bazen, gero munduan errege eta epaile izan zedin etorri zen; Bera baitzen Mesias, hau da, Kristoa, hots, apaiz gantzutua eta Jainko subiranoaren profeta; hau da, Moises profetarengan, beronen ondorengo Apaiz Nagusiengan eta hauen ondorengo erregeengan zegoen botere dena zegokiona. Eta San Joanek beren-beregi diosku (Jn. 5, 22): Aitak ez du inor ere epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du. Eta hori ez zaio kontrajartzen ez naiz mundua gaitzestera etorri baiezpenari, zeren baiezpen hau oraingo mundu honetaz esaten baita, eta beste hura, aldiz, gero munduaz; ondoko hau esaten denean ere (Mt. 19, 28), Kristoren bigarren etorreran Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan eseriko denean, zuek ere, nire jarraitzaileok,

hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko, garbi dago hitz egiten zegoen une hartan oraindik hasiera eman gabe zegoela bere erreinu hura.

Orduan, Kristok, lurrean bizi zen bitartean, erresumarik ez bazuen izan mundu honetan, zein helburu zuen bere lehen etorrerak? Itun berri baten bitartez Jainkoaren pean erresuma berrizatzera etorri zen, hain zuzen, itun zaharraren bidez Jainkoarena izanik, israeldarrek Saul hautatzean burututako errebeldiagatik etenda geratu zen erresuma, alegia. Eta helburu hori lortzeko, Bera Mesias zela predikatu behar zion herriari, hau da, profetek agindutako erregea zela; eta bere burua oparitan eskaintzera zetorrela, hori horrela fedearen bidez onartzeko prest zeudenen bekaturen ordainez; eta herri osoak ezetsiko balu, Beragan sinets zezaten jentiletarikoak bere esanera deitzera. Hortaz, bi parte zituen gure Salbatzailearen misioak mundu honetan bizi zen bitartean: bata, bere burua Kristotzat aldarrikatzea; eta bestea, berriz, irakatsien eta mirakuluen bidez jendea konbentzitzea, eta Bera aintzaz beterik Aitaren erresumaz jabetzera etortzerakoan sinestunek gozatuko zuten hilezkortasuna merezi izateko modura bizi zitezen prestatzea. Eta horrexegatik da, hain zuzen, Kristok berak ere bere prediku-aldi horri berrizte-aldia deitzea sarritan, zeina ez baita propioki erresuma bat, ezta ere, beraz, orduko agintariei obediencia ukatzeko baimena; Kristok, izan ere, Moisesen katedran garai hartan eserita zeudenei obeditzeko agindu zuen, baita Zesarri zerga ordaintzeko ere. Ez da propioki erresuma bat, beraz, baizik Jainkoak bere dizipulu izatearen eta Beragan sinestearen grazia eman zienentzat iristeko zen Jainkoaren Erresumaren hasikina besterik ez. Horrexegatik esaten da zintzoak graziazko erresuman bizi direla dagoeneko, zeruko erresuma hartan bertakotuak baileuden.

Orain arte, beraz, Kristok ez du ezertxo ere egin ez erakutsi, juduen edo Zesarren eskubide zibilak gutxiestera doanik. Zeren orduan juduen artean zegoen Estatuari dagokionez, bai euren arteko arauak ezartzen zituztenek baita gobernatuek, guztiek iguriki baitzuten Mesiasen eta Jainkoaren erresumaren etorrera; eta hori ez zen horrela izango, baldin legeek Mesiasatzat bere burua aurkeztea eta aldarrikatzea debekatu izan baliote Mesias etorri berriari. Hortaz, kontuan hartuz Hark bere predikaren eta mirakuluen bidez ez zuela besterik egin Mesias zela frogatu baino, ez zuen haien legeen kontrako ezer egin. Berak aldarrikatzen zuen erresuma hura beste mundukoa izango zen; eta bitartean Moisesen katedran jartzatzen zirenei obeditzeko agindu zien denei, Zesarri zegokion zerga ordaintzea baimendu zien eta ez zuen bere gain hartu epaile izaterik. Horrela, bada, nolatan zitezkeen albarakorak Haren hitzak edota egintzak, edo nola joan zitezkeen juduen orduko gobernu zibila eraistera? Baina Jainkoak erabakita zeukanez Kristoren sakrifizioa, arestian itundutako obediencia bere hautatuak berrekar zitzaizkion, haien gaiztakeriaz eta eskertzarraz baliatu zen bere helburu hori burutzeko. Eta hori ere ez zegoen Zesarren legeen aurka. Izan ere, nahiz eta Pilatok berak, juduen ederra lortzearen, jarri zuen Mesias haien eskuetan gurutziltza zezaten, hori egin aurretik argi eta garbi adierazi zuen berak ez zuela harengana errurik aurkitzen. Eta kondenaren arrazoitzat ez zuen jarri juduek nahi zutena, alegia, juduen erregea dela dioena, baizik Hau juduen erregea da; eta horren kexaz etorri zitzaizkionei haxe esan zien: Idatzitakoa idatzia bego.

Haren misioaren hirugarren aldeari dagokionez, errege izatearena alegia, azaldua dut honezkero haren erresuma hori ez zela hasiko berbizkundearen ondoren baino. Orduantxe hasiko da errege izaten, baina ez soilik Jainkoa errege den zentzuan (zentzu horretan dagoeneko ere errege baita, eta gerorantz ere halaxe izanen da bere guztiahalari esker), baizik erregetza berezi batez bere hautatuen gain, hauek Berarekin egindako itunaren izenean, bataioan. Horrexegatik esan zuen gure Salbatzaileak (Mt. 19, 28) bere apostoluak hamabi tronutan eseriko zirela, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko, Gizonaren Semea bere aintzazko tronuan eseriko denean; orduan bere giza izatasunean erreinatuko duela esan gura duelarik; halaber (Mt. 16, 27): Gizonaren Semea bere Aitaren aintzaz beterik etorriko da aingeruekin; eta, orduan, bakoitzari bere jokabidearen arabera ordainduko dio. Gauza bera irakur dezakegu Markos 13, 26. eta 14, 62.ean, eta berezikiago oraindik, aldiari dagokionez, Lk. 22, 29-30.ean: Eta nik erregetza ematen dizuet, Aitak neuri eman zidan bezala: ni errege izango naizenean, nire mahaian jan eta edango duzue, eta tronuetan eseriko zarete, Israel herriko hamabi leinuak epaitzeko. Garbi ateratzen delarik hortik Kristoren erresuma hori, bere Aitak eskuetan jarri diona, ez dela gertatuko harik eta Gizonaren Semea aintzaz beterik etorri eta apostoluak jarri ditzan arte Israelgo hamabi leinuen epaile. Baina hemen baten batek galde dezake agian, nola litekeen zeruetako erreinuan, ezkontzarik-eta ez dagoela kontuan hartuz, gizakumeek jan-edanean jardutea; zer esan nahi ote duen, beraz, jateak pasarte honetan. Gure Salbatzaileak berak azaltzen digu hori, Joan 6, 27.ean dioenean: Ahalegin zaitezte, ez galtzen den janariagatik, baizik eta irauten eta betiko bizia ematen duen janariagatik; hori Gizonaren Semeak emango dizue. Horrela, bada, haxe esan nahi du Kristoren mahaian jateak: bizi-arbolatik jatea, hau da, Gizonaren Semearen erresuman hilezkortasunaz gozatzea. Pasarte hauetatik eta beste askotatik ondoko haxe ateratzen delarik argi eta garbi: gure Salbatzailearen erresuma, Hark bere giza izatasunean egikaritutako duela.

Eta orduan errege, berriro ere diot, Jainko Aitaren menpeko edo gerenteorde gisa besterik ez da izango, Moises basamortuan bezala, edo Apaiz Nagusiak Saulen erregetzaren aurretik eta erregeak horren ondoren bezala. Haxe delako, izan ere, Kristori buruzko profeziatariko bat: bere misio horretan Moises

bezalakoa izango dela: Zu bezalako profeta sortaraziko dut -dio Jaunak (Dt. 18, 18)- herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan. Eta Moisesekiko antzekotasun hori nabaria da, orobat, gure Salbatzailearen beraren eginetan ere mundu honetan ibili zen bitartean. Izan ere, Moisesek leinueta hamabi printze aukeratu zituen bere agindupean goberna zezaten, halaxe hautatu zituen gure Salbatzaileak ere hamabi apostolu, hamabi tronuetan eseri eta Israelgo hamabi leinuak epai zitzen. Eta Moisesek hirurogeita hamar herri-arduradun eskuetsi zituen Jainkoaren Izpiritua har zezaten eta herriari profetizatu, hau da (lehenago esan dudanez), herriari Jainkoaren izenean hitz egin diezaioten, halaxe gure Salbatzaileak ere hirurogeita hamar dizipulu ordenatu zituen bere erreinua eta nazio guztien salbamena predika zezaten. Eta norbaitzuk Moisesi kexu izan zitzaizkionez hirurogeita hamarretariko batzuk kanpamenduan profetizatzen ari zirelako eta Moisesek zuritu egin zituen gobernuaren zerbitzutan zihardutela-eta, halaxe Berari ere San Joan kexu agertu zitzaionean gizakume bat Beraren izenean deabruak uxatzen zebilela-eta, haxe esanez zuritu zuen (Lk. 9, 50): Ez eragotzi, zeren zuen kontra ez dagoena zuen alde baitago.

Halaber, sakramentuen erakuntzan ere Moisesen antzeko azaldu zen gure Salbatzailea, nola Jainkoaren erreinurako onarpen-sakramentuetan, hala Beraren hautatuak zorigaitzoko egoetatik askatzeari dagozkion oroitzarre-sakramentuetan. Israelgo gizasemeek Moisesen aurreko garaian zirkuntzizioaren erritua zuten Jainkoaren erreinuan sartzeko onarpen-sakramentutzat (erritu hori basamortualdian baztertua izan arren, berriro jarri baitzen indarrean, agindutako lurraldera iritsi bezain laster), era berean juduek ere, gure Salbatzailea etorri aurretik, bataioaren erritua zuten, hau da, jentilak izan eta Israelgo Jainkoa besarkatzen zuten guztiak uretan garbitzea. Haxe da San Joan Bataiatzaileak zerabilen erritua, hain zuzen, Kristo dagoeneko mundura etorria zela predikatzen entzun eta beraien izena Kristo horri ematen zioten guztiak onartzeko; eta gure Salbatzaileak erritu haxe jarri zuen Beragan sinesten zuten guztiek jaso beharreko sakramentutzat. Idazteunean ez da ageri beren-beregi bataio-erritu horren jatorria, baina seguraski legenarrari buruzko Moisesen legearen imitazioa dela ematen du, legenarra zuenari epe batez Israel herriaren kanpamendutik at geratzea agintzen zion legea; epe hura iragan ondoren, apaizak legenarduna garbitzat jotzen bazuen, kanpamenduan berrartua izaten zen ospakizuneko garbikunde baten ondoren. Eta horrexen imitazioa izan daiteke, beraz, bataioko garbikuntza; ezen bataioan gizakumeak bekatuaren legenarretik garbitzen baitira fedearen bidez eta Elizan onartuak baitira bataioaren ospakizuna tarteko. Bada, izan, halako zantzurik jentilen zeremonietan ere, inoiz gutxitan gertatzen den kasu jakin batean, alegia: baten bat hildakotzat hartzen zenean baina gero bere onera etorri, gainerakoek beren kezka zituzten gizakume harekin mintzatzeko, mamuren batekin ari bailiren, harik eta berriro lagunartean onartua izan arte garbikunde baten bidez, haur jaioberriak jaioguneko lohitasunez garbitzen diren moduan, eta hura berriro jaiotzea bezala izaten zen. Baliteke greziarren zeremonia hau, Judeako herria Alexandro eta bere ondorengo greziarren menpean izan zen garaietakoa, juduen erlijioan sartzeari. Baina baiezkaitez izanik gure Salbatzaileak erritu pagano bat aldeztua, daitekeenagoa da legenarraren osteko garbikundearen legeko zeremonia hartatik etortzea. Aldiz, beste sakramentuari dagokionez, bazko-bildotsa jateari, bistan da Jaunaren Afariaren sakramentuak imitatzen diola, zeinetan ogia zatitzeak eta ardoa isurtzeak bekatuen zorigaitzotik Kristoren nekaldiari esker askatuak izatea gogorarazten digun, juduei ere bazko-bildotsa jateak Egiptoko morrontzatik askatuak izatea gogorarazten zien bezalaxe. Ikusirik, beraz, Moisesen autoritatea menpekoei ez zela eta bera Jainkoaren loktenentea besterik ez, zera ondorioztatzen da: Kristo ere, Moisesen pareko autoritatea zuena gizakume gisa, Aitaren autoritatearen menpekoei ez zela. Horixe bera adierazten zaigu berariazago Kristok berak irakatsi zigun otoitzean: Aita gurea, etor bekigu zure erreinua, eta Zeurea baita erresuma, boterea eta aintza, baita Hura bere Aitaren aintzaz beterik etorriko dela esaten denean, eta San Paulok diotenean (1 Ko. 15, 24), Orduantxe izango da azkena, Jainko Aitari erreinua emango diotenean, eta gauza bera garbikiago adierazten duten beste pasarte askotan.

Gure Salbatzaileak, beraz, hala bere irakaspenean nola erregetzan, Jainkoaren pertsona ordezkatzeko du, lehenago Moisesek bezala; eta Jainko horri orduz geroztik, ezen ez lehenago, Aita deitzen zaio; eta substantzia bakarra izan arren, pertsona bat da Moisesek ordezkatzeko duena eta beste bat Kristo Jainko Semeak ordezkatzeko duena. Zeren pertsona, hain zuzen ere, ordezkariarekiko zerbait denez, hortixe baitator ordezkari anitzi pertsona anitzek erantzutea, substantzia bakar bera izan arren.

## XLII

Eliz botereaz

ELIZ BOTEREA zer den eta norengan datzan ulertzeko, gure Salbatzailearen Igokunde ondoko aldia bi partetan banandu behar dugu: bata, erregeen eta botere zibil subiranodun gizakumeen konbertsioa baino lehenagokoa; eta bestea, haien konbertsioaren ondokoa. Iragan ere, denbora luzea iragan baitzen Igokunde ondoren, errege edo subirano zibilen batek kristau fedea atxiki eta hura irakasten publikoki utzi aurretik.

Bitarte honetan, argi dago eliz boterea apostoluengan zetzala, eta haien ondoren beraiek ordenatuengan, Ebanjelioa predikatzeko, gizakumeak kristautasunera konbertitzeko, eta kristautuak Salbazio bidetik

gidatzeko. Eta, hauen ondoren, berauek ordenaturikoei eman zitzairen berriro boterea, horretarako apaizgaiei eskuak ezarri, era horretan adierazi nahi zelarik Izpiritu Santua, edo Jainkoaren Izpiritua, ematen zitzaizela Jainkoaren ministro ordenaturikoei, haren erreinua aurrera eramateko. Era horretan, bada, esku-ezarpen hura Kristo predikatzeko eta haren doktrina irakasteko eginkizunaren zigilu besterik ez zen; eta esku-ezarpenaren bidez Izpiritu Santua ematea Moisesek egindakoaren imitazioa zen. Moisesek ere zeremonia bera erabili baitzuen Josue bere ministroarekin, Deuteronomio 34, 9.ean irakurtzen dugun moduan: Nunen seme Josue zuhurtziaz jantzia zegoen, eskuak ezarri baitzizkion Moisesek buruan. Gure Salbatzaileak, hortaz, bere Berbizkunde eta Igokunde bitartean bere Izpiritua eman zien apostoluei, lehenik, haien gainera arnasa bota eta esanez (Jn. 20, 22): Hartazue Izpiritu Santua; eta, Igokunde ostean (Eg. 2. 2,3) haien gainera haize-bolada indartsua eta suzko mihi bananduak bidaliz, eta ez esku-ezarpen bidez, Moisesi ere Jainkoak eskuak ezarri ez zitzaizkion moduan. Eta haren apostoluek gero esku-ezarpenez helarazi zieten izpiritu berori beste batzuei, Moisesek Josueri bezala. Argi dago, beraz, norengan izan zen etenik gabe eliz boterea kristau Estaturik izan ez zen lehen garai haietan: hurrenez hurreneko esku-ezarpenez apostoluengandik hartu zutenengan.

Hemen Jainkoaren Pertsona dugu, orain hirugarren aldiz jaioa. Izan ere, Itun Zaharrean Jainkoaren ordezkari Moises eta Apaiz Nagusiak izan ziren moduan -eta gure Salbatzailea bera ere, gizon zenez, izan zen moduan, mundu honetan ibili zenean-, ordudanik Izpiritu Santua izan da, hau da, Izpiritu Santua hartu zuten apostoluak eta haien ondorengoak, Jainkoaren ordezkari, predikatu eta irakasteko eginkizuneari. Baina pertsona, 13. kapituluaren ikusi dugun moduan, ordezkaria den hura da, ordezkaria den guztian; eta, beraz hiru eratara ordezkaria (hau da, pertsonifikatua) izan den Jainkoa, zinez esan daiteke hiru pertsona dela, nahiz eta Biblian ez zaion ez Pertsona hitza ez Hirutasun hitza eratzikitzen. San Joanek dio (1 Jn. 5, 7): Hiru dira, bada, zeruan testigantza egiten dutenak: Aita, hitza eta Izpiritu Santua, eta hirurok bat dira. Baina hau ez dago desadostasunean, adostasun osoan baizik, hiru pertsonaren ideiarekin, pertsona hitzaren adiera propioan, pertsona beste norbaitek ordezkatzeko duena baita. Horrela, Aita Jainkoa, Moisesek ordezkaria denez, pertsona bat da eta, bere Semeak ordezkaria denez, beste pertsona bat, eta apostoluek eta haiengandik eratorririko agintez irakasten duten doktoreek ordezkaria denez, beste pertsona bat, hirugarrena. Eta, hala eta guztiz ere, pertsona hauetakoa bakoitza Jainko bakar bera da. Baina hemen norbaitek galde dezake zer den hiru pertsonok testigatzen dutena. Horregatik San Joanek dio (11. bertseta) hauen testigantza dela Jainkoak betiko bizia eman digula, eta bere Semearen bidez eman ere. Hemen berriro galdetuko bagenu non ageri den testigantza hau, erantzuna erraza litzateke: zeren Jainkoak gauza beraren testigantza eman baitu egin zituen mirakuluetan, lehenengo Moisesen bitartez, gero bere Semearen bitartez eta, azkenez, Izpiritu Santua hartu zuten apostoluen bitartez. Guztiok, nork bere garaian, Jainkoaren pertsona ordezkatu zuten, edo Jesukristo profetizatu edo predikatu zuten. Eta apostoluei dagokienez, lehen hamabi apostolu handiek haren Biztueraren testigantza ematea izan zuten apostolutasunaren ezaugarri, Eg. 1, 21-22an argi geratzen den moduan, non San Pedrok, Judas Iskarioterren lekuan jartzeko apostolu bat aukeratu behar izan zenean, honako hitz hauek darabiltzan: Beharrezkoa da, beraz, norbait gure taldeari elkartzeko, Jesus Jauna gure artean bizi izan den denbora guztian -Joanek bataiatu zuenetik zerura jasoa izan den arte, alegia- gurekin ibili direnetakoa izan behar du, gurekin batera haren biztueraren lekuko izan dadin. Eta hitz horiek San Joanek aipatzen duen lekukotza egitea interpretatzeko balio digute. Pasarte berean mundu honetan lekukoen beste Hirutasun bat aipatzen du, haxe baitio (8. bertseta): Hiru dira lurrean testigantza egiten dutenak: Izpiritua, ura eta odola, eta hirurok bat datoz, hau da, Izpiritu Santuaren graziak eta Bataioko eta Jaunaren Afariko sakramentuek, hirurok testigantza bakar bera egiten dutelarik, fededunei betiko bizitzaren kontzientzia segurtatzeko. Eta lekukotza honi buruz dio (10. bertseta): Gizonaren semearengan sinesten duenak bere baitan du testigantza hori. Mundu honetako hirutasun horretan, batasuna ez da gauzarena, izpiritua, ura eta odola ez baitira substantzia bera, lekukotza bera egiten badute ere. Baina zeruko Hirutasunean, pertsonak Jainko bakar beraren pertsonak dira, nahiz eta hiru garai eta abagunetan ordezkatuak. Bukatzeko, Hirutasunaren doktrina, Idazteunetik zuzenean atera daitekeenez, funtsean haxe da: beti bat eta bera den Jainkoa dela Moisesek ordezkaturiko pertsona, haragia hartu zuen bere Semeak ordezkaturiko pertsona eta apostoluek ordezkaturiko pertsona. Apostoluek ordezkaturiko moduan, Izpiritu Santua, zeinaren bidez haiek mintzo ziren, da Jainkoa; bere Semeak, Jainko eta gizon izan zenak, ordezkaturiko moduan, Semea da Jainko hori; Moisesek, eta Apaiz Nagusiek ordezkaturiko moduan, Aita, hau da, Jesukristo gure Jaunaren Aita, da Jainko hori. Hortik atera genezake zergatik ez ziren inoiz erabili Itun Zaharrean izen horiek, Aita, Semea eta Izpiritu Santua, Jainkoa adierazteko; izan ere, pertsonak baitira, hau da, izenok ordezkapenez hartzen dituztenak, hau ezin gerta zitekeelarik harik eta gizakume ezberdinek, Jainkoaren menpean gobernatzean edo zuzentzean, Jainkoaren pertsona ordezkatu zuten arte.

Hortaz, ikusten dugu gure Salbatzaileak apostoluen eskuetan utzi zuela eliz boterea, eta, botere hori hobeto erabili ahal izateko, Izpiritu Santua eman ziela, horregatik honi Itun Berrian zenbaitetan Parakletus deitzen zaiolarik, hau da, Laguntzailea, laguntza eske joan gakisziokkeen pertsona, eskuarki kontsolatzaile hitzaz itzultzen bada ere. Azter dezagun orain boterea bera: zer zen botere hori eta norengan zetzan.

Bellarmino kardinaletan, bere hirugarren eztabaida orokorrean, Erromako Aita Santuaren eliz botereari buruzko galdekizun asko erabili ditu. Eta honako honekin hasten da, alegia, haren boterea monarkikoa, aristokratikoa, ala demokratikoa izan behar ote lukeen, subiranoak eta hertsakorrek direlarik botere mota guztiok. Baldin orain aterako balitz gure Salbatzaileak ez ziola inolako botere hertsakorrik eman, Kristoren erreinua aldakarrikatzeko eta gizakumeak haren menpean jartzera limurtzeko boterea besterik eman ez ziolako, eta, honekin batera, agindu eta aholku onen bidez, Jainkoaren erreinua heltzean, haren menpera etorriei bertan sartzeko zer egin behar duten irakasteko; eta gertatuko balitz apostoluak gure eskolamaisiak direla, eta ez gure agintariak, eta haien aginduak legeak barik, aholku orokorrak besterik ez direla, orduan eztabaida hau guztia alferrekoa litzateke.

Esan dut aurreko kapituluaren Kristoren erreinua ez dela mundu honetakoa. Horregatik, Kristoren ministroek, errege ez badira behintzat, ezingo dute haren izenean obedientziarik galdatu. Izan ere, Errege Gorenak ez badu mundu honetako botererik, zein aginpideren izenean galda daiteke haren funtzionarioekiko obedientzia? Aitak igorri ninduen moduan, zioen gure Salbatzaileak, halaxe igortzen zaituztet. Baina gure Salbatzailea juduak bere Aitaren erreinura limurtzera eta fedegabeak hara gonbidatzera etorri zen, eta ez maiestatez errege izatera, ezta Aitaren ordezkari gisa ere, Judizio egunera arte.

Igokunde eta Berbizkunde orokorraren arteko tarteari ez deritzo erreinatze aldia, birsortzeko aldia, birsortzeko aldia, hau da, gizakumeak Kristoren bigarren etorrerarako, Judizio egunean, prestatzeko aldia. Horrelaxe ageri da gure Salbatzailearen hitzetan, Mt. 19, 28: Benetan diotsuet: Jainkoak mundu hau berregitean, Gizonaren Semea bere aintzako tronuan eseriko denean, zuek ere, nire jarraitzaileok, hamabi tronutan eseriko zarete, Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Eta San Paulorenetan ere (Ef. 6, 15): eta oinetakotzat bakearen berri zabalatzeko ardura.

Eta gure Salbatzaileak arrantzarekin konparatzen du, hau da, gizakumeak obedientziarako hertsapen eta zigorrez barik konbentzimenduz irabaztearekin. Eta horregatik ez zien esan apostoluei Nimroda, hau da, gizonen ehiztari egingo zituenik, gizonen arrantzale baizik. Legamiarekin ere konparatzen du, ziape ale bat erein eta ugaltzearekin, derrigortzea kanpo gelditzen delarik guztiotan, eta, beraz, garai horretan ezin daiteke benetako erreinatzerik izan. Kristoren ministroen eginkizuna ebanjelizatzea eta haren bigarren etorrerako prestatzea da, Joan Bataiatzailearen ebanjelizazioa haren lehenengo etorrerako prestatzea izan zen moduan.

Halaber, Kristoren ministroen eginkizuna, mundu honetan, gizakumeak Kristorengan sinestera eta fedea izatera eramatea da. Baina fedea ez du inolako zerikusirik derrigortzearekin edo aginduekin, eta ez dago hauen menpean, arrazoimenaren edo gizakumeek jada sinesten duten zerbaiten argudioen ziurtasun edo gertagarritasunaren pean soilik baitago. Horregatik mundu honetan Kristoren ministro direnek ez dute, titulu honetan oinarriturik, gizakumerik zigortzeko botererik, Jainkoarengan ez sinestearren edo berek esandakoaren kontra agertzearen. Diodana da Kristoren ministroak izateak damaieten tituluan oinarrituz ez dutela botererik; baina erakuntza politikoz botere zibil subiranorik badute, orduan badute beren legeekiko kontraktasun oro zigortzeko ahalak. Eta San Paulok bere buruaz eta beste Ebanjelio-predikatzaile batzuek hitz argiz dio (2 Ko. 1, 24): Ez dut zuen sinestena neure menpe eduki nahi, zuen poza areagotu baizik.

Kristoren ministroek mundu honetan agintzeko eskubiderik ez dutela erakusten duen beste froga bat, Kristok printze guztiei, hala kristauei nola fedegabeei, eman dien legeko aginpidetik etor daiteke. San Paulok dio (Kol. 3, 20): Seme-alabok, izan beti gurasoen esaneko. Eta 22. bertsetean: Esklabuok, izan beti mundu honetan nagusi dituzuenen esaneko; ez jagolearen begiradapean edo gizakiei atsegin izateko bakarrik, bihotz-bihotzez baizik, Jaunarengana begiruneagatik; hau ugazaba fedegabeak zituztenei diotse; eta hala ere orotan esana egiteko eskatzen zaie. Eta beste behin, printzei zor zaien obedientziaz, (Erm. 13, lehen sei bertsetak) erromatarrei agintarien menpeko izateko erregutuz ziotsen ez dagoela Jainkoarengandik ez den aginterik, eta haien menpeko izan behar dugula haien haserrearen beldurrez ezezik, kontzientziaz ere. Eta San Pedrok dio (1 P. 2, 13-14-15): Jaunarengatik, izan zaitezte giza agintari guztien menpeko, bai denen agintea duen erregearen menpeko, baita gobernarien menpeko ere, hark ezarriak baitira, gaizkileak zigortzeko eta on egiten dutenak saritzeko; izan ere, horixe baita Jainkoaren nahia. Eta San Paulok berriz (Tt. 3, 1): Oroitarazi denei, gobernari eta agintarien menpeko izan behar dutela. San Pedrok eta San Paulok hemen aipatzen dituzten printze eta agintari guztiak fedegabeak ziren; askoz arrazoi handiagoz obeditu behar diegu Jainkoak guregan aginpidea izateko agindu dien agintari kristauei. Nola, orduan, egon gintezke beharturik Kristoren ezein ministrori obeditzera, baldin ministro horrek erregearen edo norberaren Estatuaren ordezkariaren baten aginduen kontrako zerbait egitea aginduko baligu, Estatu horren kide izanik berorren babesa bilatzen dugunoi? Argi dago, beraz, Kristok ez diela utzi mundu honetan ministro ditueni, aginpide zibilaren jabe izan ezean bederen, beste gizakumei agintzeko inolako aginterik.

Baina zer egin behar da, kontraka lezake norbaitek, erregeak, edo Senatuak, edo beste pertsona subirano batek Kristorengan sinestea debekatzen badigu? Honi erantzunez esan behar dut debeku horrek ez duela inolako ondoriorik, sinesteak eta ez-sinesteak ez dutelako gizakumeen agindurik segitzen. Fedea



Jainkoaren dohaina da, gizakumeak eman ez kendu ez dezakeena, ez sari-aginduz ez tortura-mehatzuz. Eta urrunago jorik, zer egin behar da, baldin gure legezko printzeak ez dugula sinesten mihiaz esateko agintzen badigu? Bete egin behar al dugu agindu hori? Mihiaz profesatzea azaleko zerbait besterik ez da, eta geure obediencia adierazteko egiten dugun beste edozein keinu baino gehiagorik ez da; eta edozein kristauk, Kristorenganako fedea bere bihotzean tinko atxikiz gero, Eliseo profetak Naaman siriarrari utzi zion askatasun bera du. Naaman Israelen Jainkoagana konbertiturik zegoen bere bihotzean, zera baitio (2 Erg. 5, 17-18): Aurrerantzean ez diot erre-oparirik, ez sakrifiziorik inolako jainkori eskainiko, Jaunari baizik. Baina barkatuko al dit Jaunak haxe: nire nagusia, niri besotik heldurik, Rimon jainkoa bere jauretxean gurtzera sartzean, nik ere harekin batera ahozpeztu beharra izatea. Barkatuko al dit Jaunak ekintza hori! Eta profetak onetsi egin zuen hau eta zoaz bakean esan zion. Kasu honetan Naamanek bere bihotzean sinesten zuen; baina Rimmon idoloaren aurrean makurtzearen, uko egin zion egiazko Jainkoari, baina ezpainez egin balio bezalaxe. Baina orduan, zer erantzungo diogu gure Salbatzaileak dioenari -Mt 10, 33-: Jendearen aurrean ukatzen nauena, ukatu egingo dut nik ere Aitarean aurrean. Haxe esan genezake: meneko batek, Naaman zen bezalakoak, bere Subiranoari obedituz zerbait egin beharra badu eta egin egiten badu, ez bere gogoaren arabera, bere herriko legeak betetzeko baizik, egintza hori ez dela harena, haren Subiranoarena baizik; eta kasu honetan Kristori gizakumeen aurrean uko egiten diona ere ez da hura, haren agintaria eta haren herriko legea baizik. Norbaitek doktrina hau egiazko kristautasun jatorraren kontraktzat salatuko balu, nik zera galdetuko nioke, alegia, ia mahometar batek, baldin kristau Estaturen batean bere bihotzean mahometar erlijioa balitz eta haren subiranoak kristau elizako elizkizunean egoteko herio-zigorpean aginduko balio, ea pentsatu beharra izango lukeen mahometartasunak bere subiranoak agintzen diona bete baino lehen heriotza jasatera behartzen duela. Heriotza jasan beharko lukeela badio, orduan gizabanako orori bere erlijioa atxikitzeo eskubidea ematen ari zaio, erlijio hori egiazkoa nahiz faltsua izan; obeditu egin beharko lukeela badio, orduan bere buruari beste bati ukatzen dion askatasuna demaio, gure Salbatzaileak dioenaren kontra -Lukas 6,31: Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei; eta Jainkoaren dudarik gabeko eta betiko legea den naturako legearen kontra: Ez egin inori, inork zeuri egitea nahi ez zenukeenik.

Baina zer zer esan behar dugu, orduan, Elizaren historian irakurtzen dugun martirien jokabideari buruz? Beren biziak premiarik gabe sakrifikatu zituztela esan behar ote dugu? Honi erantzuteko, bizia kendu zieten pertsonen artean bereizpenak egin beharra dago; haietako batzuek Kristoren erreinuaren predikatzeko eta jendaurrean aldarrikatzeko deia hartu zuten; beste batzuek ez dute dei hori izan, eta ez zaie fedea besterik eskatu. Lehen taldekoak, Kristo hilen artetik biztu zen testigantza emateagatik eramanez bazituzten heriotzara, benetako martiriak izan ziren; zeren martiria (hitz horri bere egiazko esangura emateko) Jesus Mesiasen berbikundearen lekuko da, eta lekuko, mundu honetan harekin harremanetan izan eta biztu ondoren ikusi zutenak bakarrik izan daitezke. Zeren lekukoak ikusi egin behar izan baitu testigatzen duena, edo, bestela, haren lekukotza ez da ona. Eta horixe da beste inori ezin dakiokela zehaztasunez martiri dei, argi dago San Pedroren hitzetan (Eg. 1, 21-22): Beharrezkoa da, beraz, norbait gure taldeari elkartzea. Jesus Jauna gure artean bizi izan den denbora guztian -Joanek bataiatu zuenetik zerura jasoa izan den arte, alegia- gurekin ibili direnetakoa izan behar du, gurekin batera haren biztueraren martiri (hau da, lekuko) izan dadin. Pasarte honetan ikus dezakegu Kristoren biztueraren lekuko izango zenak, hau da, Jesus Kristo zela dioen kristau erlijioa funtsezko artikulua honen egiarenak, harekin harremanak izana eta hura berbiztu aurretik eta ondoren ikusirikoa izan behar zuela, eta beraz jatorrizko ikasleetako bat izan behar zuela. Ez zirenek beren aurrekoak esan zutela beste testigantzarik ezin dute eman, beste batzuen testigantzen lekuko besterik ez baitira, eta bigarren mailako martiri edo Kristoren lekukoak martiri besterik ez dira.

Gure Salbatzailearen bizitzaren historiari edo Apostoluen Egintza edo Epistoletatik berak bere kabuz ateratako doktrinei, edo gizabanakoren baten autoritatean oinarrituz sinesten dituen doktrinei eustearren, Estatu zibilararen lege eta agintariak kontra egiten diena Kristoren martiri edo haren martirien martiri izatetik oso urrun dago. Fede artikulua bakar bat dago, beragatik hiltzeak titulu ohoragarri hori merezi duena; eta artikulua hori da Jesus Kristo dela, hots, berrerosi gaituena eta berriro etorriko dena guri salbazioa eta betiko bizitza ematera bere erreinu gloriatzekoan. Kleroaren handinahi edo probetxurako den beste edozein doktrina-punturengatik hiltzea ez da beharrezko; eta ez da lekukoaren heriotza norbait martiri egiten duena, egiten den lekukotza baizik. Izan ere, hitz honek norbait lekukoa dela besterik ez du esan gura, bere lekukotzagatik heriotzara eramaten den ala ez alde batera utzirik.

Orobat, funtsezko artikulua hau predikatzera bidalia izan ez, eta bere kabuz eginkizun hori bereganatzen duenak, izatez, lekuko eta, beraz, Kristoren edo lehen mailako martiri edo haren apostolu, ikasle edo ondorengoen edo bigarren mailako martiri bada ere, ez dago beharturik horregatik heriotza jasatera, hortarako deirik ez ukanik, ez baitu beharrezko hori egitea; eta ez luke kexatu behar, egiteko hori betetzera inoiz bidali ez dutenen saria galduko balu. Beraz, inor ezin da ez lehenengo ez bigarren mailako martiri izan, haragi egindako Kristoren etorrera predikatzeko eginkizuna eman ez bazaio, hau da, inor ere ez, fedegabeak konbertitzera bidalitakoak salbu. Izan ere, inor ez da lekuko jada sinesten duenarentzat,

eta, beraz, lekukorik behar ez duenarentzat. Zerbait ukatzen, dudatzen edo entzun ez duenarentzat bakarrik izan daiteke lekuko. Kristok bere apostoluak eta hirurogeita hamar ikasleak bidali zituen predikatzeako aginduz; ez zituen sinesten zuten guztiak bidali. Eta sinesten ez zutenei predikatzaera bidali zituen -Mt. 10, 16-: Hara -ziotsen-, ardiak otso artera bezala bidaltzen zaituztet.

Azkenez, haien eginkizunaren puntuetan, Ebanjelioan beren-beregi aipatzen diren moduan, ez dago, bat berean ere, inolako aginpiderik eliz batzarrarengan.

Lehenengo eta behin, esaten zaigu (Mt. 10, 6-7) hamabi apostoluak Israelgo ardi galduengana bidali zituela Salbatzaileak, eta Jainkoaren erreinua hurbil zela predikatzaera. Orain bada, predikatzea, jatorrizko adieran, pregonariak, heraldoak edo beste edozein funtzionariok erregearen aldarrikapenean egiten zuen lana da. Baina pregonariak ez du inori agintzeko eskubiderik. Eta (Lk. 10, 2) hirurogeita hamar ikasleak langile moduan, ez uztaren ugazaba moduan, bidali zituen eta hauxe esateko agindu zien (9. bertseta): Hurbil duzue Jainkoaren erreinua; eta erreinuaz hemen graziaren erreinua barik aintzaren erreinua esan nahi da, zeren ondoko hauxe agintzen baitzaie: hartzen ez dituzten hiriei ohartarazteko, mehatxu moduan (11. bertseta), egun horretan Sodomak baino tratatu gogorragoa izango duela hiri horrek. Eta (Mt. 20, 28) gure Salbatzaileak lehenengo lekuen bila ari ziren bere ikasleei esan zien beren eginkizuna zerbitzatzea zela, Gizonaren Semea zerbitzatua izatera barik zerbitzari izatera etorri den moduan. Predikariek, beraz, ez dute maisu-ahalmenik, ministrari-ahalmena baizik: Eta ez utzi maisu deitzen ere, bat bakarra baita zuen maisua, Kristo, dio gure Salbatzaileak, (Mt. 23, 10).

Haien ardurapean jarriko beste eginkizun bat nazio guztiei irakastea da. Horrelaxe adierazten da Mt. 28, 19 eta Mk. 16, 15ean: Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berriona izaki guztiei. Irakastea eta predikatzea, beraz, gauza bera dira. Izan ere errege baten etorrera aldarrikatzen dutenek errege hori zein eskubiderekin datorren ere ezagutarazi behar dute, gizakumeek hari men egitea nahi badute. Horrelaxe egin zuen San Paulok Tesalonikako juduekin -Eg. 17, 2-3-: Paulok, ohi zuenez, haiengana joan eta hiru larunbatez jardun zuen beraiekin eztabaidan. Liburu Santuak oinarri harturik, Kristok sufritu eta hilen artetik biztu egin behar zuela azaltzen eta frogatzen zien. Eta esaten zien: Nik hotsegiten dizuedan Jesus hauxe da Kristo. Baina Itun Zaharretik Jesus Kristo, hau da, errege zela irakasteak ez du esan nahi horrela sinetsi ondoren gizakumeek hori esan diotenei obeditzaera beharturik daudenik beren subiranoen lege eta aginduen kontra; esan nahi duen bakarra da Kristoren hurrengo etorreraren zain egon behar dutela zuhurtziaz, pazientzia eta fedez beterik, bitartean beren egungo agintariei obedituz.

Haien ardurapeko beste eginkizun bat, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean bataiatzea da. Zer da bataioa? Uretan murgiltzea. Baina zer da gizakume bat uretan murgiltzea norbaiten izenean? Bataioko hitz horien esangura hauxe da: Bataiatzen dena, uretan murgildu edo garbitzen da, gizakume berri eta Jainkoaren meneko leial bilakatzen da, hain zuzen ere, antzina, Hura juduen errege izan zenean, Moisesek eta Apaiz Nagusiek ordezkatu zuten pertsonaren meneko; eta gu berrerosi gaituen eta Berbizkunde ondoko betiko erresuman gizon denez Aitaren pertsona ordezkatu duen Seme Jesukristo Jainko eta gizonaren meneko; eta, era berean, bataioaren esangura zera aitortzea da, alegia, Aitaren eta Semearen Izpirituak lagundurik, gu erresuma horretara eramateko gidari utzi zituen apostoluen doktrina dela Harengana eramango gaituen bide seguru bakarra. Horixe da, izan ere, Bataioan egiten dugun agintzaria; eta agintzari honetan ez da arbuiaitzen subiranoek mundu honetan duten aginpidea. Izan ere, horixe dio berariaz San Paulok (1 Ko. 15, 22-23-24): Eta Adanekin duten batasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten batasunagatik, guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen fruitu bezala; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. Gero, azkena izango da, Kristok, Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren, Jainko Aitari erreinua emango dionean. Argi dago, hortaz, Bataioan ez dugula beste autoritaterik eratzen, gure bizitzako egintzak haren menpean moldatzekoa baizik, zeren, betiko bizitzarako bidean gidarizat apostoluen doktrina onartuko dugula agindu besterik ez baitugu egiten.

Bekatuak barkatu eta atxikitzeko boterea, lotu eta askatzeko boterea eta batzuetan zeruetako erreinuko giltzak ere baderitzona, bataiatzeko edo bataioa ukatzeko ahalmenaren ondorio da. Izan ere, bataioa Jainkoaren erresuman -hots, betiko bizitzan-, onartuak izango direnen itunezko sakramentua da. Beste hitz batzuetan, bekatuak barkatzekoa. Izan ere, betiko bizitza bekatu egiteagatik galdu zen bezala, bekatuak barkatzeagatik berreskuratzen da. Bataioaren xedea bekatuak barkatzea da; eta horregatik San Pedrok, Mendekoste egunean bere hitzaldiaz konbertitu zituenak zer egin behar zuten galdetu ziotenean, aholkatu zien -Eg. 2, 38-: bihozberritu eta bataiatzeko Jesusen izenean, bekatuak barka zekizkien. Beraz, ikusirik bataiatzea gizakumeak Jainkoaren erresuman hartuak direla deklaratzeko dela, eta bataioa ukatzea handik kanpo uzten direla deklaratzeko dela, hemendik artez dator erresumatik egozteko edo bertan atxikitzeko boterea apostoluei eta haien ordezeko eta ondorengoei eman zitzaizela. Eta, horregatik, gure Salbatzaileak haien gainera arnasa bota zuenean esanez (Jn. 20, 22): Hartazue Izpiritu Santua, hurrengo bertsetean eransten du: Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenek barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenek, ukatu egingo die. Hitzon bidez, bekatuak barkatu edo atxikitzeko autoritatea ez da besterik gabe eta absolutuki ematen, gizakumeen bihotzean ikusi eta haien damu eta onbideratzearen berri

duen Jainkoak barkatu edo atxikitzen dituen moduan, baizik penitentearen jarrerari baldintzaturik. Eta barkamen edo absoluzio hau, barkatuak damu duen itxura egiten duenean, baliogabeturik geratzen da, barkatzailearen beste egintza edo esaldirik gabe ere, eta ez du inolako ondoriorik Salbaziorako, alderantziz baizik, haren bekatua astunagotu egiten baitu. Horregatik apostoluek eta haien ondorengoek azaleko damu-seinalez jokatu beharra izan zuten eta dute; eta seinale horiek ageri direnean, ez dute barkamena ukatzeko aginpiderik, eta ageri ez direnean, ez dute barkatzeko aginpiderik. Gauza bera gertatzen da bataioari dagokionez ere; izan ere, apostoluek ez zuten aginpiderik izan judu kristautuei eta jentilei bataioa ukatzeko edo damugabeei emateko aginpiderik. Baina kontuan harturik ezein gizakume ere ez dela gauza beste gizakume bat benetan damuturik dagoen egiaztatzeke, eta itxurakeriak jota egon daitezkeen haren hitz eta egintzetatik ateratako azaleko seinalez gidatu beste erremediorik ez duela, hemendik beste galdera bat ernetzen da: Nork du seinaleok juzgatzeko ahalmena? Eta auzi hau Salbatzaileak berak erabakitzen du (Mt. 18, 15-16-17): Zure senide batek zure kontra bekatu egiten badu, zoaz berarengana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriaz, hartu zeurekin lagun bat edo bi. Haiei ere jaramonik egiten ez badie, esaiozu elkarteari, eta elkarteari ere jaramonik egin nahi ez badio, izan bedi zuretzat jentil edo zergalari baten pareko. Hemendik argi geratzen da damuaren egiazkotasunari buruzko judizioa ez dagokiola gizakume bakarrari, Elizari baizik, hau da, fededunen batzarrari edo haien ordezkari izateko eskuespena dutenei. Baina judizioaz gain, epaia ere eman beharra dago. Eta eginkizun hau apostoluari edo eliz artzainen bati zegokion beti, prokultore moduan. Eta horri buruz mintzo da gure Salbatzailea 18. bertsetean: Zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua geldituko da. Eta horrekin bat jokatu zuen San Paulok (1 Ko. 5,

3-4-5), hauxe dioenean: Bada, nik, gorputzez urruti baina izpirituz hor bertan nagoen honek, erabakia dut dagoeneko hori egin duenarentzat epaia, bertan banengo bezalaxe: Jesus gure Jaunaren izenean bilduko zarete -eta han izango naiz ni ere izpirituz- eta, Jesus gure Jaunaren ahalmenez, Satanasen esku utziko duzue hori, ea horrela, beraren bekatuzko izaera suntsiturik, Jaunaren egunean salbatzen den; hau da, Elizatik kanpora egozten da, bekatuak barkatu ez zaizkion gizon moduan. San Paulok hemen epaia ematen du; baina batzarra izan zen lehenik auzia entzun zuena, San Paulo ez baitzen han, eta, beraz, lehenbizi kondenatu zuena. Baina kapitulu berean (11-12 bertsetetan) judizioa horrelako kasuetan Batzarrari eratzikitzen zaio espreskiago: Baina orain idazten dizuet: kristau direla esan eta lizun, diruzale, sasijainkoak, izen onaren kentzaile, mozkor edo lapur direnekin ez elkartzeko. Horrelakoekin, ezta otordu bat egin ere! Ez dagokit niri kanpokoak epaitzea. Zuek elkartekideak epaitu behar dituzue. Beraz, baten bat Elizatik egozteko epaia apostoluak edo artzainak ematen zuen; baina auziari buruzko judizioa Elizari zegokion; hau da, erregeen eta Estatuaren agente subiranoa zutenen aurreko garaian judizioa hiri berean bizi ziren kristauen batzarrari zegokion, Korinton, adibidez, Korintoko kristau-batzarrari.

Jainkoaren erreinutik jaurtikitzeko erabili zen giltzen boterearen alde hau eskomikua deritzona da; eta eskomikatzea jatorriz aiposunavgwgon poiei'n zen, sinagogatik kanpora egozte, hau da, Jainko-zerbitzurako lekutik kanpora; hitz hau juduek zuten ohitura batetik ateratakoa da, hau da, beraien portaera edo doktrinarengatik kutsakortzat jotzen zituztenak -Moisesen legearen arabera legenardunak, apaizak garbi deklaritzen zituen arte, Israelen batzarretik botatzen zituzten bezala-, sinagogatik kanpora egozteko zuten ohituratik.

Eskomikuaren erabilera eta ondorioa, botere zibilak indartu zuen arte, eskomikatu gabarik zeudenean eskomikatuen lagunartea ekidite hutsean zetzan. Ez zuen indarrik eskomikatua sekula kristau izan gabeko jentiltzat jotzeko; izan ere, jentilekin jan eta edan zezakeen, baina ez eskomikatuarekin, San Pauloren hitzetan (1 Ko. 5, 9-10 eta abar) argi ageri denez, Korintoarrei ziotsenean debekatua ziela lizunekin elkartzea; baina, mundutik kanpora irten gabe hau egiterik ez zegoenez gero, anai artean zituzten lizunetara eta bestelako pertsona biziotsuetara mugatu zien debekua; horrelako batekin ez zutela lagun ibili behar ziotsen, ezta jan ere. Eta hau ez da gure Salbatzaileak zioena baino gehiago (Mt. 18, 17): Izan bedi zuretzat jentil eta zergalari baten pareko. Izan ere, publikau (Estatuaren zergariei) hain gorroto eta gaitzerizko handia izan zieten zergak ordaindu behar zituzten juduek, non publikau eta bekataria gauza bera zen haientzat. Hainbestearino, non gure Salbatzaileak Zakeo publikauaren gonbidapena onartu zuenean, nahiz eta hura konbertitzeko izan, delitutzat hartu zioten. Eta horregatik gure Salbatzaileak jentil hitzari publikaua gehitu zionean, eskomikatu batekin jatea debekatzen ari zitzairen.

Beraien sinagoga edo batzartokietatik kanpo edukitzeari dagokionez, ez zuten hori egiteko botererik, botere hori leku horren jabeak, kristaua edo jentila izan, erabili ezean behintzat. Eta leku horiek guztiak zuzenbidez Estatuaren menpean zeudenez, hala eskomikaturik zegoena nola inoiz bataiatu gabekoa sar zitezkeen lekuotara magistratu zibilaren aginduz. Horrelaxe sartu ahal izan zen Paulo konbertitu aurretik Damaskoko sinagogetan gizon eta emakume kristauak atxilotu eta Jerusalemera loturik eramateko Apaiz Nagusiaren manuz.

Hemendik argi ageri da, botere zibilak Eliza jazartu edo ez lagundu egiten duen tokian kristau bat apostata bihurtuz gero, harengan eskomikuaren ondorioa hutsa litzatekeela, hala mundu honetan izango

lituzkeen kalteei nola eragingo liokeen beldurrari dagokionez. Ez lioke beldurrik eragingo, sinesten ez duelako. Ez luke kalterik izango, eskomikatuak munduaren ederra berreskuratuko lukeelako. Eta gero munduan ez litzateke inoiz sinetsi ez dutenak baino egoera txarragoan izango. Kaltea, gehiago ere, Elizari etorriko litzaioke, eskomikuak kanpora jaurtikiengan berauen malizia librekiago gauzatzeko joera eragingo lukeelako.

Eskomikuak, beraz, fededunengan bakarrik izan zuen ondorioa, hau da, benetan sinesten zutenengan Jesukristo berriro etorriko zela gloriatsu biziak eta hilak epaitzera eta Elizak bekatuak atxikirik utzitakoei, hau da, hark eskomikatuak, bere erresumara sartzea debekatuko ziela. Horregatik San Paulok zioen eskomikatzeko, pertsona eskomikatuak Satani entregatzea dela. Izan ere, Judizioaren ondoren, Kristoren erresumatik kanpoko guztiak Satanen erresumaren barruan egongo dira. Horixe da kristaua, eskomikaturik dagoen artean, hau da, bekatuak barkatu gabe dituen artean, beldurtzen duena. Horregatik ulertu ahal dugu eskomikua, kristau erlijioak botere zibilaren baimenik ez zuen garaian, ohiturak, eta ez iritzi okerrak, zuzentzeko erabili izana. Izan ere, sinesten dutenek eta gure Salbatzailea mundua epaitzera etorriko den esperantzan bizi direnek izan ezik, beste inork sentitu ezin duen zigorra da; eta hau sinesten dutenek ez dute beste doktrinarik behar salbatzeko, zuzentasunez bizitzea baizik.

Eskomikua bidegabekeriagatik gertatzen da, Mateo 18an irakurtzen dugun moduan: Zure anaiak iraintzen bazaitu, esaiozu bakarrean; gero lekukoekin; azkenez esan Elizari; eta orduan ere zentzatzeko ez bada, izan bedi zuretzat jentil eta zergalari baten pareko. Eta bizimodu eskandalagarriagatik ere gertatzen da, 1 Ko. 5, 11.ean ageri denez: Kristau direla esan eta lizun, diruzale, sasijainkozale, izen onaren kentzaile, mozkor edo lapur direnekin, otordurik ere ez duzue egin behar. Baina Jesus Kristo zelako oinarriari eusten dion norbait, beste puntu batzuetan iritzi-aldeak dituelako (baina aipatu oinarria deuseztu gabe), eskomikatzeko eskuespenik ez da ageri ez idazteunean ez apostoluen jokabidean. Izan ere, San Paulok badu testu bat (Tt. 3, 10) horren kontrakoa dirudiena. Testuak hauxe dio: Gizon heretikoa, behin eta berriz zentzarazi ondoren, arbuia ezazu. Heresea, izan ere, elizkidea izanik, Elizak debekaturiko iritziren bat irakasten duena da; eta horrelakoxe bat izan zen San Paulok behin eta bigarrenez ohartarazi ondoren arbuia zezala Titori aholkatu ziona. Baina arbuiatzea leku honetan ez da gizona eskomikatzeko, baizik gehiagotan ez ohartaraztea, bakarrik uztea, bere buruarekin eztabaida dezan uztea, bere kabuz bestez konbentzi ez daitekeen pertsonatzat hartuz. Apostolu berak dio (2 Tm. 2, 23): Aldegizu eztabaida zoro eta zentzugabeetatik. Aldegizu hitza pasarte honetan eta arbuia aurrekoan, originalean hitz bera da, paraitous; baina tontakerietatik eskomikurik gabe alde egin daiteke: Eta Tt. 3, 9.ean ere irakurtzen dugu: Utzi alde batera eztabaida zoroak, non originaleko peritastao (alde egin) aurreko arbuiatu hitzaren berdinkidea den. Ez dago beste pasarte argi samarrik, funtsean fededunak diren gizakumeak -agian kontzientzia on eta jainkotiarraren eraginez euren abururen bat dutelako besterik gabe-elizatik kanpora botatzea justifikatzeko ekar daitekeenik. Aitzitik, horrelako eztabaidak ekiditeko aholkatzen duten pasarte guztiak artzainei (Timoteo eta Tito artzainak baitziren) zuzenduriko ikasgai gisa idatziak dira, artzainok, eztabaida txikiei erantzuteko, ez zezaten fede artiku-

lu berririk sor, hau gizakumeen kontzientzian beharrezko ez den zama jartzea litzatekeelako, edo haiek elizarekiko lotura haustera bultzatzea. Eta ikasgai hau apostoluek eurek ongi bete zuten. San Pedrok eta San Paulok, beren artean eztabaida handiak izan zituzten arren Gal.2, 11.ean irakurtzen dugun moduan, ez zuten Elizatik elkar bota. Hala ere, apostoluen garaian, bazen hau bete ez zuen artzainik ere. Esate baterako, Diometresek (3 Jn. 9 e.a.), harrokeriaz burua agertu nahirik, bota egin zituen elizatik San Joanek berak ere Elizan hartzeko egokitzen zituenak. Hain goiz ere, harropuzkeriak eta handinahiak eginga zuten sarbidea Kristoren Elizara.

Norbaitek eskomikua merezi dezan baldintza asko behar dira; lehenengo eta behin, elkarteren bateko, legezko batzarren bateko, hau da, eskomikua ekar diezaiokeen auzia juzgatzeko ahalmena duen Kristau Elizaren bateko kide izan behar du. Izan ere, komunitaterik ez den tokian, eskomikurik ere ezin da izan; eta juzgatzeko ahalmenik ez dagoen tokian, epaia emateko botererik ere ezin da izan.

Hemendik dator Eliza batek ezin duela beste bat eskomikatu; izan ere, edo denek dute elkar eskomikatzeko botere bera -eta kasu honetan eskomikua, disziplina edo agintaritzako egingintza ez, baina zisma da eta maitasuna ezabatzea-, edo Elizotako bata bestearen menpe-menpeko da biek ahots bat eta bera izateraino, eta orduan Eliza bakar bat osatuko dute; eta eskomikaturiko zatia ez da Eliza izango, banakoen talde deslotu bat baizik.

Eta eskomiku-epaiak eskomikatuak izan denarekin harreman guztiak, harekin jan ere ez egiteraino, mozteko gomendioa inplikatzeko duenez gero, printze edo batzar subiranoa eskomikatzen bada, epaiak ez du ondorioz izango. Izan ere, menekoak beharturik daude lege naturalez beren subiranoaren aurrean eta harekin batera egotera hark aginduz gero; eta menekoek ezin dute hura beraren meneko den ezin lekutatik egotzi lege, ez leku profano ez santutik; menekoek ezta ezin dute haren manupeko lurrak beraren baimenik gabe utzi eta alde egin ere; eta askoz gutxiago subiranoaren gonbidapenari uko egin, berarekin jateko ohorea egin nahi badie. Eta beste printze eta Estatu batzuei dagokienez, elkarre beraren zati ez direnez, Estatu eskomikatuaren konpainiatik bereizirik edukiko dituen eskomikuen premiarik ez

dute; zeren Estatuaren erakuntzak berak, gizakume asko komunitate berean biltzen dituen moduan, aldi berean komunitate bat bestetik banantzen du, eta, horregatik, ez da behar eskomikurik erregeak eta Estatuak bata bestearengandik banandurik edukitzeko, eta ez du izaera politikotik bertatik datorrena baino ondorio handiagorik, printzei elkarren kontrako gerretara eragitea ez bada behintzat.

Eta bere subiranoaren legeak, dela kristaua dela jentila subiranoa, obeditzen dituen meneko kristauaren eskomikuak ere ez du inolako ondoriorik. Izan ere, Jesus Kristo dela sinesten badu, jainkoaren izpiritua du (1 Jn. 4, 1), eta Jainkoa harengan dago eta hura Jainkoarengan (1 Jn. 4, 15). Baina Jainkoaren Izpiritua duenak eta Jainkoaren baitan bizi denak eta Jainkoa berarengan, ezin du inolako kalterik jaso gizonen eskomikutik. Beraz, Jesus Kristo dela sinesten duena eskomikatuak mehatxatzen dituzten arrisku guztietatik libre dago. Hori sinesten ez duena ez da kristaua. Beraz, benetako kristau zintzoak ezin du eskomikurik jaso; ezta kristautasuna aitortzen duenak ere, harik eta hipokresia portaeran agertu arte, hau da, harik eta beraren portaera haren subiranoaren legearen kontrakoa izan arte, lege horixe baitugu Kristok eta haren apostoluek men egin diezaiozun agindu diguten portaera-araua. Izan ere, Elizak ezin du gure portaera juzgatu, ageriko ekintzen bitartez izan ezik, eta hauek sekula ez dira legez kanpokoak, Estatuaren legearen kontra doazenean izan ezik.

Norbaiten aita, ama edo ugazaba eskomikatzen badituzte, seme-alabei ez zaie debekatzen haien konpainian egoterik ez haiekin jaterik, zeren hori, neurri handi batean, ezer ere ez jatera behartzea izango bailitzateke, jana eskuratzeko modurik ezagatik, eta guraso eta ugazabei esana ez egiteko baimena ematea apostoluen aginduaren kontrakoa izango bailitzateke.

Laurbildurik, eskomikatzeko boterea ezin da gure Salbatzaileak apostolu eta Elizako artzainei jarririko eginkizunetik harago hedatu; eta eginkizun hori ez datza agindu eta hertsapenaren bidez gobernatzean, baizik irakaspenaz eta gizakumeak geroko bizitzan salbaziora eramango dituen bidean zehar gidatuz. Eta nola edozein zientziatako maisuak bertan behera utz dezakeen irakasten zaizkion arauak ez betetzen temati saiatzaren den ikaslea, baina ezin duen bidegabekeriaz akusatu, hari esanak egiteko obligaziorik ez zuelako inoiz izan, halaxe kristau doktrinako maisuak ere bertan behera utz ditzake bizimodu ez-kristauan segitzen temati saiatzaren diren ikasleak, baina ezin du esan ikasleok gaizki portatu zaizkionik, ez baitaude hari obeditzera beharturik. Izan ere, horrela kezaz dabilen maisuari Jainkoak Samueli antzerako egokieran emandako erantzuna aplikatu dakioke (1 Sm. 8, 7): Ez zaituzte zu gutxiesten, neu gutxiesten naute. Horregatik eskomikuari agintaritzaz zibilaren berrespena falta zaionean, Estatu edo printze kristau bat agintari kanpotar batek eskomikatzen duenean gertatzen den moduan, ondorio gabekoa da eta, hortaz, ez luke beldurrik eragin behar. Fulmen excommunicationis (hots, Eskomikuaren tximista) deritzona, lehenik erabili zuen Erromako Aita Santuak zera iruditzen izanetik dator, bera erregeen errege zela, jentilek Jupiter jainkoen errege egin zuten moduan, beren poema eta pinturretan tximista bat eratzikiz, bere boterea ukatzen ausartzen zitzaizkion diganteak azpira eta zigor zitzan. Irudipen honek bi errakuntza zituen oinarrian: bata, Kristoren erreinua mundu honetakoa dela, gure Salbatzaileak bere hitzez esandakoaren kontra: Nire erreinua ez da mundu honetakoa; bestea, Aita Santua Kristoren ordekoa dela bere menekoei dagokienez ezezik, munduko kristau guztiei dagokienez ere, Idazteunean oinarriarik ez duen baiezpena berau, eta leku egokian errefusatuko duguna, kontrakoa frogatuz.

San Paulo Tesalonikara, juduen sinagoga bat zegoen hirira, etorri zelarik, (Eg. 17, 2-3) ohi zuenez, haiengana joan eta eta hiru larunbatez jardun zuen beraiekin eztabaidan. Liburu Santuak oinarri harturik, Mesiasak sufritu eta hilen artetik bizitu egin behar zuela azaltzen eta frogatzen zien. Eta esaten zien: Nik hots egiten dizuedan Jesus haxe da Mesias. Hemen aipaturiko Liburu Santuak juduen Liburu Santuak ziren, hau da, Testamentu Zaharra. San Paulo Jesus Kristo zela eta hilen artetik berbiztu zela frogatzera zihoakien gizonak juduak ziren eta sinesten zuten jada hitzok Jainkoarenak zirela. Baina, hala ere, batzuek (4. bertsetean irakurtzen den moduan) sinetsi egin zuten eta beste batzuek (5. bertsetean irakurtzen den moduan) ez zuten sinetsi. Zein izan zen, bada, arrazoa, denek Liburu Santuetan sinesten zutelarik, denek gauza bera ez sinesteko, San Paulok aipatu testuei eginiko interpretazioa batzuek onetsi eta besteak gaitzetsiz eta nork bere erara interpretatuz? Arrazoa haxe zen: San Paulo legezko ordezkari zarik gabe etorri zitzairen eta aginduak ematera barik konbenzitza datorrenaren moduan hitz egin zien. Eta hau, edo mirakuluen bidez egin behar zuen, Moisesek israeldarrei Egipton egin zien moduan, Jainko-egintzetan ikus zezaten bazuela autoritatea, edo jada onarturik zituzten Liburu Santuetatik arrazonatuz, Jainkoaren hitzari buruz zuen doktrinaren egia ikusteko modua izan zezaten. Baina printzipio idatzietan oinarriturik besteak zerbaitetara limurtzen ari den orok, printzipioon eta berauotatik eratorririko arrazonamenduen epaile egiten ditu entzuleak. Tesalonikako aipatu juduak ez baziren izan, nor izan zitekeen San Paulok Liburu Santuetatik ateratakotzat aurkeztu zuenaren epaile? San Paulo bera izan bazen, zertarako aipatu behar zuen inolako pasarterik bere doktrina frogatzeko? Nahikoa zatekeen esatea "horrelaxe aurkitzen dut Eskrituran", hau da, zuen Legeetan, neu naizelarik, Kristok bidalia naizenez, haien interpretatzaile. Beraz, ez zegoen han, Tesalonikako juduek onartzera behartzeko moduko interpretaziorik egiteko gauza zen Idazteunaren interpretatzailearik; bakoitzak sinetsi edo ez sinetsi egin zezakeen, aurkeztu zitzaizkion argudioei aipaturiko pasartearen esangurarekin norberak

ikusten zion adostasun edo desadostasunaren arabera. Eta eskuarki, munduko kasu guztietan, zerbait frogatu nahi duenak, bere argudioak aurkezten dizkion huraxe egiten du bere frogaren epaile. Eta juduen kasu partikularrari dagokionez, beharturik zeuden, hitz zehatzez egon ere (Dt. 17), arazo zail guztietan unean uneko Israelgo apaiz eta epaileen erabakia onartzera. Baina diodan hau oraindik konbertitu gabe zeuden juduez ulertu behar da.

Jentilen konbertsioari dagokionez, ez zegoen haiek sinesten ez zuten Liburu Santuetara jo beharrik. Apostoluak, beraz, arrazoimenaren bidez saiatu ziren haien idolatria errefusatzen; eta behin hau lortuz gero, Kristoren federa ekartzen saiatu ziren, haren bizitza eta berbizkundearen testigantza emanaz. Ezin zen izan haiekin, beraz, Idazteuna interpretatzeko autoritateari buruzko eztabaidarik, kontuan hartuz inor ez zegoela beharturik sinesgabe zen artean hitz idatzien inoren interpretazioa onartzera, norberaren Subiranoak bere herriko legeez eginiko interpretazioa izan ezik.

Azter dezagun orain konbertsioa bera, eta ikus dezagun zer zuen konbertsioak obligazio hori sortu ahal izateko. Gizakumeak ez ziren apostoluek predikatzen zutenara beste ezertara konbertitu; eta apostoluek Jesus Kristo zela besterik ez zuten predikatu, hau da, Jesus zela salbatuko zituen eta betierean Errege izango zutena; eta, ondorioz, ez zegoela hilda, baizik hilen artetik biztu eta zerura igoa zela, eta handik mundua juzgatzea etorriko zela berriro (hura ere berbiztu egingo zelarik juzgatua izateko), eta bakoitzari beren egintzengatik merezia ematera. Inork ez zuen predikatu bera edo beste edozein apostolu Idazteunaren interpretatzaile zenik, halatan non kristauturiko orok haren interpretazioa legetzat hartu beharra zuen. Izan ere, legeak interpretatzea norbaitek eduki daukan erresuma baten administrazioaren zati da, eta apostoluek ez zeukaten inolako erresumarik. Errezatzen zutenean, haiek eta ondoren etorri ziren beste artzain guztiek betorkigu zure erreinua esaten zuten; eta kristaututakoei beren printze etnikoei obeditzeko esaten zieten. Itun Berria ez zen oraindik batera argitaratua. Ebanjelari bakoitza zen bere Ebanjelioaren interpretatzaile, eta apostolu bakoitza bere epistolaren interpretatzaile. Eta Itun Zaharrari buruz gure Sabatzaileak ziotsen juduei (Jn. 5, 39): Liburu Santuak arretaz aztertzen dituzue, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan; horra, bada, Liburu Santuek ere nire alde egiten dute testigantza. Beraiek interpretatu behar zituztela esan nahi izan ez balie, ez ziekeen eskatu Bera Kristo zela egiaztatzeko frogatzen Liburuotatik ateratzeko, baizik edo hark berak interpretatu zituzkeen, edo apaizen interpretaziora jotzeko esan ziekeen.

Zailtasunik sortuz gero, apostoluak eta Elizako zaharrek bildu eta erabakitzen zuten zer predikatu eta irakatsi behar zen eta nola interpretatu behar zioten herriari Idazteuna; baina ez zioten kendu herriari bere kabuz irakurri eta interpretatzeko askatasuna. Apostoluek gutunak, baita haien irakaspenarako bestelako idazkiak ere, bidali zizkieten Elizei, alferreko zatekeelarik hori, Elizei interpretatzen, hau da, idazki horien esangura aztertzen, utzi ez baliete. Eta apostoluen garaian gertatu zen gauza bera gertatu behar izan zuen geroagoko garaian ere, harik eta interpretatzailearen bati denak onartu beharreko interpretazioa egiteko eskuespena eman ahal izan zioten artzainak etorri arte; baina horrelakorik ez zitekeen jazo erregeak artzain edo artzainak errege izan ziren arte.

Adiera bitan esan daiteke idazki bat kanonikoa dela; kanonak, izan ere, arau esan gura du, eta araua agindu da, gizakumea zeinahi ekintzatan gidatu eta zuzentzen duena. Aginduok, maisuak bere ikasleari, edo aholkatzaileak bere lagunari, eta beraz betetzera behartzeko ahalmenik gabe, emanak izanik ere, kanonak dira, arauak direlako. Baina aginduok, hartzaileak obeditu beharra dionak ematen dituenean, aipatu kanonak arauak ezezik, legeak ere badira. Horregatik, hemen planteatzen den auzia Idazteuna (kristau fedeko araua dena) lege bihurtzeko boterearena da.

Lehenbizi lege bihurturiko Idazteunaren zatia hamar aginduak izan ziren, bi harlauzatan idatziak eta Jainkoak berak Moisesi entregatuak eta Moisesek herriari ezagutzera emanikoak. Garai horren aurretik ez zen Jainkoaren lege idatzirik, Honek, bere erresuma berezitzat herririk aukeratzeke zuenez gero, ez baitzien oraindik gizakumeei eman naturaren legea -hau da, gizakumearen bihotzean idatzirik- arrazoimen naturalaren aginduak- beste legerik. Harlauza hauetarik lehenak subiranotasun legea zekarren: 1. Ez zutela obeditu ez ohoratu behar beste nazioetako jainkorik, honako hitz hauetan: Non habebis deos alienos coram me, hau da, Ez duzu Jainkotzat hartuko beste nazioek jauresten duten jainkorik, neu bakarrik baizik; era horretan, errege eta gobernatzailetzat Moisesen bitartez, eta geroago Apaiz Nagusiaren bitartez, hitz egin zien Jainkoaz landa beste ezein jainko obeditu eta ohoratzea debekatu zien. 2. Ez zutela egin behar bera irudikatzen inolako irudirik; hau da, ez zutela aukeratu behar, ez zeruan ez lurrian, beren irudimenaz egindako inolako ordezkariarik, Moises eta Aaroni, berak egiteko hori betetzeko jarritakoei, obeditu baizik. 3. Ez zutela Jainkoaren izena ahotan alferrik hartu behar; hau da, beren erregeaz ez zirela arinkeriaz mintzatu behar, ezta haren eskubidea ez Moises eta Aaron bere loktenteen eginkizuna eztabaidatu ere. Zortzian behin utzi egin behar ziotela ohiko lanari, eta egun hori berari ohore publikoa emateko erabili behar zutela. Bigarren harlauzak gizakumeen elkarrekiko betebeharrak zekartzan, hala nola: gurasoak ohoratzea, inor ez hiltzea, adulteriorik ez egitea, ez ebastea, lekukotza faltsuz judizioa ez usteltzea, eta azkenez, bihotzean inori kalterik ez opa izatea. Galdera orain da, nork eman zien harlauza idatzioi legeen indar behartzailea. Ez dago dudarik Jainkoak berak egin zituela lege;

baina legeak behartzen ez duenez eta lege ere inorentzat ez denez gero, beren subiranoaren ekintzat hartzen dutenentzat izan ezik, nola egon zitekeen behaturik Israel herria, Jainkoak Moisesi esandakoa entzutera mendira hurbiltzea debekaturik zuena, Moisesek proposatu zizkien lege haiek guztiak betetzera? Legeotako batzuk, noski, naturako legeak ziren, hala nola bigarren harlauzako guztiak; eta horregatik Jainkoaren legetzat hartu beharrekoak ziren, Israeldarrentzat soilik ezezik, mundu guztiarentzat. Baina galderak zutik dirau bereziki israeldarrei zuzendurik lehenengo harlauzan zeuden legeei dagokienez, honako hau gertatu izana salbu, alegia, israeldarrek, legeok proposatu zitzaizkienean, beren buruak behartu zituztela Moisesi obeditzera, hitz hauexek esatean (Ir. 20, 19): Hitz egizu zuk eta adituko dizugu; baina ez diezagula Jainkoak hitz egin, hil ez gaitezen. Beraz, Moises bakarrik izan zen orduan, eta haren ondoren Apaiz Nagusia, Jainkoak (Moisesen bidez) bere erreinu bereziaren administratzaile deklaratu, lurrean boterea izan zutenak Dekalogoaren idazki hura lege bihurtzeko Israel Estatuan. Baina Moises, Aaron eta hurrengo Apaiz Nagusiak subirano zibilak izan ziren. Horregatik, Idazteunaren kanonizazioa, edo Idazteuna lege bihurtzea, subirano zibilari zegokion.

Lege judiziala, hots, Jainkoak Israelgo magistratuei agindu zizkien legeak, beren justizi administrazioa eta gizakumeen arteko auzietan egin beharreko judizio eta eman beharreko epaiak arautzeko, eta lege lebitikoa, hau da, apaiz eta lebiten errito eta zeremonien inguruan Jainkoak agindu zuen araua, denak Moisesek, ez bestek, eman zizkien; eta horregatik hauek ere lege bihurtu ziren, Moisesi obeditzeko agintzari beraren indarrez. Lege hauek orduan idatzi ziren ala idatzi ez, baina Moisesek herriari ahoz diktatu zizkion (berrogei egunez Jainkoarekin mendian egon ondoren), ez da testuan adierazten; baina lege positiboak izan ziren denak, Idazteunaren balio bera zutenak, eta Moisesek, subirano zibilak, kanoniko eginak.

Israeldarrak Moabeko lautadetara heldu ondoren, agindutako lurraldera sartzeko prest Jerikoren kontra jo zutenean, Moisesek lehenengo lege haiei beste batzuk gehitu zizkien, horregatik deritzelarik Deuteronomio, hau da, bigarren legeak. Eta (Dt. 29, 1ean idatzirik dagoenez) Jainkoak Moisesi, Israeldarrekin Horeb mendian egin zuen itunaz gainera, egiteko agindu zion beste itunaren hitzak dira. Izan ere, Deuteronomio liburuaren hasieran lehenengo lege haiek azaldu ondoren, beste batzuk gehitu zituen, liburu beraren 12. kapituluari hasi eta 16. kapituluaren amaieraraino segitzen dutenak. Lege hau (Dt. 27, 3) kareztaturiko harri handietan idazteko agindu zien Moisesek, Jordan zeharkatu zutenean; eta lege berau liburu batean idatzi zuen Moisesek berak eta Israelgo apaiz eta zaharrei (Dt. 31, 9) eskuetara eman, kutxaren ondoan jartzeko aginduz (26. ber.), kutxan bertan hamar aginduak besterik ez baitzegoen. Hauxe zen Moisesek (Dt. 17, 18) Israelgo erregeei kopia bat egiteko agindu zion legea; eta hauxe da, luzaro galdurik egon ondoren, Josiasen garaian berriro tenpluan aurkitu zuten eta, haren autoritatez, Jainkoaren legetzat hartu zuten legea. Hortik ateratzen da Idazteuna kanoniko egiteko boterea subirano zibilarengan zetzala.

Legearen Liburu honez gain, ez zen izan, Moisesen garaitik gaitibaldi osteraino, Jainkoaren legetzat harturiko beste libururik. Izan ere, profetak, gutxi batzuk ezik, gaitibaldian bizi izan ziren, eta besteak apurtxo bat lehenago. Eta beren profeziak unibertsalki onartuak izatea lortzetik urrun, jazartuak izan ziren, jazartzaile, aldez profeta faltsuak eta aldez hauek hartaturiko erregeak izan zituztelarik. Eta Josiasek Jainkoaren legetzat berretsi zuen liburu hau, eta beronekin batera Jainkoaren ekintzen historia guztia, gaitibaldian eta Jerusalemen zakurapenean galdu zen, 2 Esd. 14, 21ean irakurtzen dugunez: Zure legea erre egin dute; horregatik inork ez du zuk eginiko ekintzen berririk, ezta hasiko direnenik ere. Eta gaitibaldi aurretik, honako bi garai hauen artean, hots, Legea galdu zen garaia (hau ez da Idazteunean aipatzen, baina pentsa daiteke ziurrenik Rehoboamen garaia izan zela, Xixak Egiptoko erregeak -1 Erg. 14, 26- tenpluko hondakinak eraman zituztenean) eta Josiasen garaian berriro aurkitu zuten aldiaren bitartean, ez zuten Jainkoaren hitz idatzirik ukan, beren irizpideen arabera edo bakoitzak profetatzen zituzten zuzendaritzapean gobernatu beharra izan zutelarik.

Hemendik inferi dezakegu egun ditugun Itun Zaharreko Liburu Santuak ez zirela juduentzat kanonikoak izan, ezta legeak ere, harik eta gaitibalditik etortzean Jainkoarekin ituna berriztatu zuten arte, eta Esdrasen pean beren Estatua berrerratu zuten arte. Baina ordudanik aurrera juduen legetzat hartu zituzten, eta hartakotzat itzuli zituzten grekora Judeako hirurogeita hamar zaharrek, eta Ptolomeoren bibliotekan jarri zituzten, Alexandrian, eta Jainkoaren hiztat onetsi. Orain, ikusirik Esdras Apaiz Nagusia zela, eta Apaiz Nagusia haien subiranoa zela, argi dago Liburu Santuak lege, botere zibil subiranoak bestek ez zituela egin.

Konstantino Enperadoreak kristau erlijioa onartu eta baimendu aurretik bizi izan ziren Gurasoen idazkietatik jakin dezakegu gaur ditugun Itun Berriko liburuak garai hartako kristauak (gutxi batzuek ezik, hain gutxi, non gainerakoek Eliza Katolikoa izena hartu baitzuten, besteei hereseak deituz) Izpiritu Santuak diktatutzat hartu zituztela eta, beraz, fedearen kanon edo arautzat, oso handia baitzen beren maisuekiko zuten begirune eta iritzia, normalean ere gertatu ohi den moduan; izan ere, ez da izaten makala eskuarki ikasleek edozertariko doktrinatan beren lehenengo maisuei izaten dieten errespetua. Ez dago, beraz, dudarik, San Paulok berak federaturiko elizei idatzi zienean, edo Kristoren edozein apostolu

edo ikaslek Kristo besarkaberriei idazten zienean, haiek idazki horiek egiazko kristau doktrinatzat hartzen zituztela. Baina garai haietan idazkiok maisuaren botere eta autoritatearen eraginez barik, entzulearen fedearen eraginez onartzen zirenez gero, apostoluek berek ez baina, kristau-federatu bakoitzak egin zituen beretzat kanoniko haien idazkiak.

Baina aztergai darabilgun auzia ez da kristau bakoitzak zer egin zuen beretzat lege edo kanon (zeren, hura onartzeko izan zuen eskubide berberaz arbuiatu ere egin zezakeen eta), baizik zer bihurtu zen kristauentzat kanon, bidegabekeria erori gabe haren kontrako ezer egiterik ez izateraino. Itun Berria zentzu horretan kanonikoa izatea, hau da, Estatuko legeak kanoniko bihurtu gabeko nonbaiten lege izatea, legearen izaeraren kontrakoa da. Izan ere, legea (azaldu dugun moduan), geuk autoritate subiranoa eman diogun gizakume edo batzarraren agindua da, hain zuzen arau horiek egiteko eta gure egintzak egokiak deritzon moduan zuzentzeko eta arauen kontrako zerbaite egiten dugunean zigortzeko autoritatea. Horregatik, norbaitek subiranoak agindurikoak ez diren beste arauen batzuk proposatzen dizkigunean, gomendio edo aholku hustzat hartu behar dira. Onak zein txarrak izan, aholkuak jasotzen dituenak, bidegabekeriari gabe, ez betetzeko eskubidea du; eta ezarritako legeen aurkakoak direnean, ez du, bidegabekeriari gabe, betetzerik izango, onenak iritzirik ere. Zera diot, bada: kasu honetan ez duela arau horiek erabiltzerik ez bere ekintzetan, ezta beste gizakumeekin dituen solasaldietan ere, nahiz eta baduen maisu pribatuengan errurik gabe sinesterik, baita haien aholkuak praktikan jartzeko askatasuna izatea eta hauek publikoki legetzat onartuak izatea desiratzetik ere. Barne-fedea, izan ere, ikustezina da berez eta, beraz, giza eskumen orotik salbuetsirik dagoena; baina hartatik datozen hitz eta egintzak, zor dugun obediencia zibilaren kontrako hutsegiteak direnean, bidegabekeriak dira Jainkoaren eta gizonen aurrean. Kontuan harturik gure Salbatzaileak ukatu egin zuela bere erreinua mundu honetakoa dela, kontuan harturik bera mundu hau juzgatzen barik salbatzen etorri zela esan zuela, ez gaitu Estatuaren legeetatik kanpoko beste ezein legeren menpean jarri. Juduak Moisesen legearen menpean jarri zituen (lege horretaz esan zuenari -Mt. 5- ez zela hura suntsitzera etorri, betetzera baizik) eta beste nazioak zein bere Subiranoaren legeen menpean, eta gizaki guztiak natur legeen menpean. Eta bai berak baita bere apostoluek beren irakaspenetan lege horiek betetzea gomendatu ziguten, azken egunean betiko babesa eta bizia izango dugun bere erresuman sartzeko behar-beharrezko baldintzat. Ikusirik, bada, gure Salbatzaileak eta haren apostoluek gu mundu honetan behartzeko legeak barik, geroko bizitzarako prestatzeko doktrina berria utzi zigutela, doktrina hau dakarten Itun Berriko liburuak, hariak eta Jainkoak mundu honetan legeak izateko boterea emanikoek liburuoi men egiteko agindu ziguten arte, ez ziren betebeharreko kanonak, hau da, legeak, kontseilu seguru bat baizik, bekatoriak salbazio bidean gidatzeko, gizakume bakoitzak eskubidea duelarik bidegabekeria gabe aholku hau onartzeko zein errefusatzeko nork bere arriskura.

Berriro esanik, Kristo gure Salbatzaileak bere apostoluei eman zien eginkizuna hauxe izan zen: bere hemengo erresuma barik, geroko erresuma aldarrikatzeko eta nazio guztiei irakasteko, sinesten zutenak bataiatuz; eta hartu nahi zituzten etxeetara sartzeko; eta, hartu nahi ez zituzten lekuetan beren oinetakoetako hautsa astintzeko haien kontra; baina ez eskatzeko zerutik sua jaitsi zedin haiek suntsitzeko, ezta ezpataz obeditzen behartu ere. Esandako guztietan ez dago, boteretik ezer, pertsuasiotik baizik. Ardiak otso artera bezala bidali zituen, ez erregeak menekoengana bezala. Ez zien ezarri legeak egiteko ardura, egindako legeei men egin eta men egiten irakastekoa baizik; eta, beraz, ez zuten ahalmenik beren idazkiak, botere zibil subiranoaren euskarriari gabe, betebeharreko kanon egiteko. Eta horregatik Itun Berriko Liburu Santuak legeko botere zibilak betebeharreko egin dituen tokian bakarrik dira lege. Eta hau gertatzen denean, erregeak edo subiranoak beretzat ere lege egiten ditu, hori eginez ez delarik bera kristautu zuten doktore edo apostoluaren menpe jartzen, Jainkoaren beraren eta haren Seme den Jesukristoren menpe baizik, apostoluak eurak jarri ziren bezain zuzenki, jarri ere.

Itun Berriari, jazarpenaldi eta lekuetan, Kristoren doktrina onartu dutenentzat lege indarra zerak damaiola dirudi, beren artean Sinodoetan egin zituzten dekretuek. Izan ere, Apostoluen, Zaharren eta Eliza osoaren Kontzilioen tankera honelaxe adierazirik irakurtzen dugu (Eg. 15, 28): Hau da Izpiritu Santuak eta guk erabaki duguna: zuei zamarik ez ezartzea, beharrezko diren hauek izan ezik:..., modu honek, beren doktrina onarturikoei zama ezartzeko tankera adierazten duelarik. Orain bada, badirudi beste bati zama ezartzea eta behartzea gauza bera direla; eta horregatik Kontzilio honetako erabakiak legeak ziren orduan kristau zirenentzat. Hala ere, izatez, ez ziren beste honako agindu hauek baino legeagoak: damu zaitezte, har ezazu bataioa, bete aginduak, sinets Ebanjelioa, zatozkit, sal ezazu daukazun guztia, eman behartsuei eta jarrai iezadazu. Baina hauek ez dira manamenduak, gonbidapen eta deiak baizik, gizakumeak Kristautasunean sar daitezen, Isaias 55, 1.eko dei hura bezalakoak: Egarri zareten guztiok, etorri uretara; etorri eta erosi ardoa eta esnea hutsean, dirurik gabe. Izan ere, lehenik, apostoluen ahalmena ez zen gure Salbatzailearena berarena besterik izan, hau da, gizakumeak Jainkoaren erresuma onartzera gonbidatzekoa, eta hau, eurek ere aitortu zuten moduan, ez da oraingoa, etorkizunetako baizik; eta erreinurik ez zutenek ezin izan zuten legerik egin. Eta, bigarrenik, haien Kontzilioetako erabakiak legeak baziren, ezin zitezkeen bete gabe utzi bekaturik egin gabe. Baina inon ere ez dugu irakurtzen Kristoren



doktrina onartu ez zutenek hargatik bekaturik egin zutenik, beren bekatuetan hil zirela baizik; hau da, obeditu beharreko legeen kontrako bekatuak ez zitzaizkiela barkatu. Eta legeok natur legeak eta Estatuko lege zibilak ziren, kristau bakoitzak itun bidez menekotasuna agindua zieten legeak. Horregatik, ez da ulertu behar apostoluek berek kristauturikoei ezarritako zamak legeak zirenik, salbazio bila ari zirenei proposaturiko baldintzak baizik. Eta baldintzok nor bere arriskura onartu edo arbuiaitu zitzaizketen, beste bekatu bat egin gabe, nahiz eta ez lehenagoko beren bekatuengatik kondenatuak eta Jainkoaren erresumatik kanpo utziak izateko arriskurik gabe. Horregatik, sinesgabeez ari zela, San Joanek ez dio Jainkoaren zigorra haien gainera eroriko dela, baizik (Jn. 3, 36) Jainkoaren zigorra du bere gainean; ezta ere ez dio kondenatuak izango direla, baizik (Jn. 3, 18): kondenatuak daude jadanik. Eta fedearen onura bekatuen barkamena dela uste izaterik ere ez dago, sinesgabetasunaren kaltea bekatu horiek atxikitzea dela uste ez badugu behintzat.

Baina baten batek galde dezake: zertarako biltzen ziren apostoluak eta Elizaren beste artzain batzuk, hala fede nola ohitura kontuetan zein doktrina irakatsi behar zen ados jartzeko, inor ez bazegoen haien dekretuak betetzera beharturik? Honi erantzun dakioke Kontzilioan bilduriko apostoluak eta zaharrak beharturik zeudela, hara sartze hutsez, han erabaki eta dekretaturikoa irakastera, obeditu beharreko aurreko legeren batek kontrakoa agindu ezean beti ere; baina gainerako kristauak ez zeudela beharturik irakasten zitzaiena betetzera. Izan ere, batzarkideek delibera zezaketen arren bakoitzak zer irakatsi behar zuen, ez zuten deliberatzerik zer egin behar zuten besteek, beraien Batzarrak legeak egiteko ahalmenik izan gabe, eta ahalmen hau subirano zibilak bakarrik du. Izan ere, Jainkoa munduko subiranoa den arren, ez gaude beharturik proposatzen zaigun edozer legetzat hartzera, ezta lege zibilaren kontrako den ezer ere, Jainkoak beren-beregi emana baitigu lege hau betetzeko agindua.

Ikusirik, bada, apostoluen Kontzilioan harturiko erabakiak ez zirela lege, aholku baizik, askoz gutxiago izango dira lege beste doktore edo geroagoko Kontzilioek harturiko erabakiak, subirano zibilaren baimenik gabe bilduz gero. Eta, honen ondorioz, Itun Berriko liburuak kristau doktrinako araurik hobezenak diren arren, ezin zituen lege egin errege edo batzar subiranoarena ez zen beste ezain autoritatek.

Orain ditugun Liburu Santuak kanoniko egin zituen lehen Kontzilioa ezin da aintzat hartu, zeren San Pedoren hurrengo Erromako Apezpikuari, Klementeri, eratzikiriko kanon bilduma hura eztabaidagarria da. Izan ere, liburu kanonikoak hantxe bilduak badira ere, hitz haiek: *Sint vobis omnibus clericis et laicis libri venerandi...*, kleriko eta laikoen artean bereizten dute, horrelako bereizpenik ez zelarik erabiltzen San Pedoren garaitik hain hurbileko aldian. Idazteuna finkatzeko bilduriko lehen Kontzilioa Laodizeakoa da (59. Kan.), liburu horiez kanpokorik elizetan irakurtzea debekatzen duena. Agindu hau ez da kristautentzat, elizan publikoki zer bait irakurtzeko eskuespena zutenentzat baizik, hau da, elizgizonentzat. Eliz funtzionarioen artean, apostoluen garaian, batzuk irakaskuntzakoak ziren eta beste batzuk ministeritzakoak. Irakaspeneko lanbideak hauek ziren: sinesgabeei Jainkoaren erresumako Berri Ona predikatzekoa, sakramentuak eta jainkoko betekizuna administratzekoa, eta kristautuei fede eta ohituretako arauak irakastekoa. Ministeritzakoa diakonoen lanbidea zen, hau da, elizaren premia sekularrak administratzeko izendaturikoa, eliza fededunen ekarpenez sortutako diru-fondo komunetik bizi zenean.

Irakaspeneko funtzionarioen artean, lehenengo eta printzipalak apostoluak ziren, hasieran hamabi baino ez zirelarik; eta hauek gure Salbatzaileak berak aukeratu eta eratuak ziren. Eta beraien eginkizuna predikatu, irakatsi eta bataiatzeaz gain, martiri izatea, hau da, gure Salbatzailearen biztueraren lekuko izatea ere bazen. Lekukotza hauxe izan zen apostolutza beste edozein eliz magisteritzatik bereizi zuen ezaugarri berariazko eta funtsezkoa; izan ere, norbait apostolu izateko, beharrezko zuen gure Salbatzailea biztu ondoren ikusitakoa edo aurretik harekin hitz egindakoa izatea, eta hark egindakoa eta haren jainkotasunaren beste frogak batzuk ikusitakoa izatea, horrela sinesgarritasun askiko lekukotzat hartua izan ahal izateko. Eta horregatik, Judas Iskarioteraren lekuan jartzeko apostolu bat aukeratzeko ordua heldu zenean, San Pedrok esan zuen (Eg. 1, 21-22): Beharrezkoa da, beraz, norbait gure taldeari elkartzea. Jesus Jauna gure artean bizi izan den denbora guztian -Joanek bataiatu zuenetik zerura jaso izan den arte, alegia- gurekin ibili direnetakoa izan behar du, gurekin batera haren biztueraren lekuko izan dadin. Testu honetan beharrezkoa hitzak apostolu izateko beharrezko den tasun bat inplikatzeko du, hau da, lehenengo eta jatorrizko apostoluekin ibilia izatea gure Salbatzailea haragi eginik agertu zen garaian.

Kristo munduan bizi zela hark apostolu egin gabeko lehenengoa Matias izan zen, era honetan aukeratu zutelarik: Jerusalemen 120 bat kristau bildu ziren (Eg. 1, 15). Hauek bi izendatu zituzten, Zuzena zeritzon Jose eta Matias (23. berts.) eta zotz egin zuten; eta (26. berts.) zotz eginik, zotza Matiasi egokitu zitzaion eta apostoluei elkartu zitzaion. Era honetan hemen ikusten dugu apostolugintza hau Batzarraren egintza izan zela, eta ez San Pedoren ez hamaikena, batzarkide zirenez izan ezean.

Matiasen ostean, ez zen Paulo eta Bernabe beste apostolurik ordenatu, hau, Eg. 13, 1-3.ean irakurtzen dugun moduan, honelaxe egin zelarik: Antiokiako eliz elkartearen baziren zenbait profeta eta irakasle: Bernabe, Simeon -izengoitiz Beltza- Luzio Zirenearra, Manaen -umetan Herodes tetrarkarekin hazia-, eta Saulo. Behin, barau-egunez, Jaunaren kultu-ospakizun batean zeudela, Izpiritu Santuak honela esan zien:

Bereizi niretzat Bernabe eta Saulo, nik dei egin diedan egitekorako. Orduan, barau eta otoitz egin ondoren, haiei eskuak buruan ezarri eta bidali egin zituzten.

Hemendik argi ageri da, Izpiritu Santuak deituak ziren arren, Antiokiako Eliza partikularra izan zela aipatu deia deklaratu eta beraien egitekoa betetzeko baimena eman ziena. Eta dei hau apostolutzarako deia izan zela, garbi uzten du bioi (Eg. 14, 14) Apostolu deitu izanak; eta hau horrela Antiokiako Elizaren ekintzaren indarrez izan zela argi agertzen du San Paulok (Erm. 1, 1), Izpiritu Santuak bere deian erabiliriko hitzak erabiliz; izan ere, bere burua Jainkoaren Ebanjelioa predikatzeko bereiziriko apostolu moduan deskribatzen du, Izpiritu Santuaren hitzak aipatuz: "Bereiz ieazakidazue Bernabe eta Saulo...". Baina apostoluaren eginkizuna Kristoren biztueraren lekuko izatea zela kontuan hartuz, norbaitek hemen galde lezake: Nola jakin zezakeen San Paulok, ez zuen-eta Kristorekin haren Nekaldi aurretik hitz egin, Kristo berbiztu egin zela? Honi erraz erantzun dakioke esanez Igokunde ostean zerutik jaitsi eta Salbatzailea bera agertu zitzaiola Damaskoko bidean; eta bere sujet aukeratu zuen, jentil, errege eta Israelgo seme-alabengana bere izena eramateko. Eta, beraz, Jauna haren Nekaldi ostean ikusi zuenez gero, haren biztueraren lekuko gai izan zen. Eta Bernaberi dagokionez, Nekaldi aurretik ikasle izanikoa zen. Bistakoa da, beraz, Paulo eta Bernabe apostolu zirela, eta, hala ere, lehen apostoluak bakarrik barik, Antiokiako Elizak ere aukeratuak zirela, Matias Jerusalemgo Elizak aukeratua zen bezalaxe.

Apezpiku hitzak, grekozko episkopo hitzetik harturikoak, edozein negoziotako gainbegirale edo superintendentea, eta bereziki artzaina esan nahi du; eta hortik, metaforaz, artzainak ziren juduen artean ezezik, jentilen artean ere, erregearen edo herriaren beste edozein gobernari edo gidariren ofizioa adierazteko hartu zen, nahiz legez nahiz doktrinaz gobernatutako herrian. Horrela, apostoluak izan ziren Kristok berak eraturiko lehen apezpiku kristauak; adiera honetan, Judasen apostolutzari (Eg. 1, 20) apezpikutza deritzo. Eta geroago, Kristau Elizetan zaharrak izendatu zirenean beren doktrina eta aholkuaz Kristoren artalde gidatzeko, zahar hauei ere artzainak zeritzen. Timoteo zaharra izan zen (Itun Berrian, adina adierazteaz gain, kargu baten izena ere adierazten duen hitza berau); eta apezpikua ere izan zen. Eta apezpikuak orduan zahar tituluaz oso pozik egoten ziren. San Joanek berak ere, Jaunak maite zuen apostoluak, hitz hauexez hasten du bere bigarren epistola: Zaharrak, andre aukeratuari. Hemendik, argi geratzen da apezpiku, artzain, zahar, doktore, hau da, irakasle, ez zirela kargu berbera izendatzeko izen ezberdinak besterik apostoluen garaian; izan ere, orduan ez zegoen hertsapenezko gobernamenturik, irakasbide eta persuasio hutsez gauzaturikoa baizik. Jainkoaren erresuma etorkizun zen, mundu berrian; ez zitekeen, beraz, behartzeko aginpiderik izan ezein Elizatan, harik eta Estatuak kristau fedea hartu arte. Eta, ondorioz, ez zen autoritate maila ezberdinik, kargu ezberdinak izan arren.

Irakas-kargu hauez gain, hau da, Kristo juduen eta sinesgabeen artean aldarrikatzea eta kristautzen zirenak gidatu eta irakastea eginkizun zuten apostolu, apezpiku, zahar, artzain eta doktoreez gain, Itun Berrian ez dugu aurkitzen besterik zegoenik. Izan ere, ebanjelari eta profeta izenez ez da kargurik adierazi nahi, gizakume batzuek zituzten zenbait dohain baizik, Elizarentzat onurakor zirenak. Ebanjelariak gure Salbatzailearen eginak eta bizitza idatziz ekarri zioten onura Elizari; eta ebanjelari San Mateo eta San Joan apostoluak, eta San Markos eta San Lukas ikasleak izan ziren, baita horri buruz idatzi zuten guztiak ere (Santo Tomas eta San Bernabek egin omen zuten moduan, haien izena daramaten liburuak Elizak onartu ez baditu ere). Eta Elizak profetengandik ere hartu zuen onura, Itun Zaharra interpretatzeko zuten dohaina bide, eta batzuetan beren errebelazio bereziak Elizari agertzen zizkielako. Baina dohain hauetako batek ere, ez hizkuntz dohainak, ez deabruak jaurtikitzeko dohainak, ez bestelako gaixotasunak osatzekoak, ezta beste ezeinek ere, ez zuten kargudunik egin Elizan; irakasteko kargurako beharrezko deiak eta aukeraketak izan ezean.

Matias, Paulo eta Bernabe apostolu gure Salbatzaileak egin ez zituen moduan, Elizak, hau da, kristauen batzarrak aukeratu baitzituen, zehazki, Matias Jerusalemgo Elizak eta Paulo eta Bernabe Antiokiako Elizak, halaxe beste hiri batzuetako presbitero eta artzainak ere hiri horietako Elizek aukeratu zituzten. Hau frogatzeko, kontuan har ditzagun, lehenik, nola jokatu zuen San Paulok berak kristautu zituen hirietako kristau batzuen presbiterogintzan, Bernabek eta berak apostolugintza hartu eta berehala. Ap.Eg. 14,23an irakurtzen dugu Eliz elkarte bakoitzean zaharrak ordenatu zituztela biok, eta hau, lehen ikusian, haiek berek aukeratu eta eskuespena eman zieten frogatzat har daiteke. Baina testu originala hartzen badugu, argi ikusiko dugu hiri bakoitzeko kristau batzarrak eman ziela eskuespena eta aukeratu zituela. Izan ere, testuko hitzak dira χειροτονησάντες αυτοις πρεσβυτερον ζ κατ εκκλησιαν, hau da, Eliza bakoitzean bertako jendeak eskuak jasoz prebitero ordenatu zituztenean. Orain bada, oso gauza jakina da hiri haietan guztietan magistratu eta kargudunak aukeratzeko era, boto-aniztasunaren bidez zela; eta, baieztako eta ezezko botoak bereizteko prozedura arrunta eskua altxatuz baitzen, hiri haietan guztietan karguduna ordenatzea ez zen herria bildu eta honek boto-aniztasunez hura aukeratzeko besterik, edo eskuak altxaturikoen aniztasunez, edo ahots-aniztasunez, edo pilotatxo, indaba edo harkoxkor-aniztasunez, batzarkideek azken hauetako bana botatzen zutelarik baieztako botoetarako markaturiko ontzi batean edo ezeztoketarako markaturiko beste batean, hiriek nork bere ohitura baitzuten horretarako. Batzarra zen, beraz, bere zaharrak aukeratzen zituena; apostoluak batzarraren presidentek besterik ez

ziren, aukeraketarako bilerara dei egin, nor zen aukeratua aldarrikatu eta bedeinkapena, orain sagarapena esaten zaiona, emateko. Eta horregatik, batzarraren presidente zirenei, eta apostolurik ezean zaharrak ziren, προεστωτες eta latinez Antistites zeritzen, batzarreko pertsona printzipala esan nahi duten hitzak berauek, haien egitekoa botoak kontatu eta aukeratua nor zen deklaratzeko zelarik; eta boto berdinketa gertatzen zenean, berena gehituz auzia garbitzea ere bai, hau guztia Batzarraren presidentearen egitekoa zelarik. Eta, Eliza guztiek beren presbiteroak era berean ordenatzen zituztenez gero, eratu hitza agertzen den nonahi, Tt. 1, Sean agertzen den moduan: ινα καταστηση κατα πολιν πρεσβυτερον Honexegatik utzi zintudan Kretan, hiri bakoitzean zaharrak era zenitzan, gauza bera ulertu behar dugu, hau da, fededunak biltzera deitu behar zituela eta boto-aniztasunez presbiteroak ordenatu. Gauza arraroa zatekeen, batzarrak aukeraturik izan ezik, beste inola magistraturik aukeratzen ikusi gabeko hiri bateko gizona kristau bihurtzean, San Paulok (Eg. 14, 23) χειροτονησαντες hitzaz ezagutzera emaniko boto-aniztasuna ez zen beste bideren bat bururatu izana beren maisu eta gidariak -hau da, beren presbiteroak (beste era batera apezpikuak zeritzenak)- aukeratzeko. Apezpikuak aukeratzeko ere hiri bakoitzeko kristau batzarra beste biderik ez zen izan, hari eta enperadoreek haien arteko bakea segurtatzeko aukeraketok erregulatzeko beharrezko ikusi zuten arte.

Erromako apezpikuen aukeraketan etengabeki izan den eta gaur egun den praktikak ere gauza bera berresten du. Izan ere, nonbaiteko apezpikuak, bera beste leku batera han pastoraltza finkatzera joanik, edozein hiriko pastoraltza bere ondorengo izateko beste bat aukeratzeko eskubidea balu, arrazoi handiagoz zukeen eskubidea azken aldian bizi eta hil zen hirian bere ondorengo izendatzeko. Alabaina, inon ere ez dugu aurkitzen Erromako apezpikuren batek bere ondorengo izendatu duen kasurik. Izan ere, luzaro batean, aipatu apezpikuak herriak aukeratzen zituen Damaso eta Ursizinoren arteko aukeraketa zela eta izan zen sedizioan ikus genezakeenez; Amiano Martzelinok dioenez, hain handia izan zen sedizio hori, non Jubentio prefektuak, haien artean bakerik egin ezin eta, hiria utzi beharra izan baitzuen, nahaste hura zela eta ehun gizonetik gora aurkitu zituztelarik hilda elizan bertan. Eta haien aukeraketa, lehenik Erromako klero guztiak eta gero kardinaleez egiten bazuten ere, inoiz ez zuen Erromako apezpikurik haren aurrekoak izendatu. Beraz, apezpikuek beren ondorengoak izendatzeko eskubiderik izateko pretentsiorik ukan ez bazuten, uste dut arrazoiz ondoriozta dezakegula ez zutela beste apezpikuen ondorengorik izendatzeko eskubiderik ere, botere berriren bat hartu ezean behintzat, inork ere ezin izan zuelarik lortu Elizatik botere hori hartzea, irakasteko ezezik, Elizarengan agintzeko ere ahalmena zuenak izan ezik. Eta hau subirano zibilak bestek ez zezakeen egin.

Ministro hitzak, Διакονοζ originalean, beste norbaiten lana borondatez egiten duena esan nahi du; eta morroiarengandik duen alde bakarra, morroiak, morroi izatearren, agintzen zaiena egitera beharturik daudela da, ministrariak beren buruei ezarritako egitekoak bestek behartzen ez dituen artean, berek egitea erabaki dutena egitera bestetara ez daudelarik beharturik. Era honetan, hala Jainkoaren hitza irakasten dutenak nola Elizaren alderdi sekularrak administratzen dituztenak ministrariak dira, baina pertsona diferenteenak. Izan ere, Elizaren artzainak, hitzaren ministrariak deritzenak (Eg. 6, 4), Kristoren ministroak dira, honen hitza baitarabilte; baina diakonoaren ministeritza, mahaietan zerbitzatzea deritzona (kapitulu bereko 2. bertseta), Elizari edo batzarrari eginiko zerbitzua da; halatan, non inork ere, ezta Eliza osoak ere, ezin esan zezakeen beren artzaina ministraria zenik. Diakonoari buruz, ostera, nahiz mahaietan zerbitzatzen ari nahiz kristauei mantenua banantzen, kristauak hiri bakoitzean fondo komunetik edo diru-bilketetatik bizi zirenean, lehen aldietan bezala, nahiz otoitzetxearen, Elizaren errenten edo beste edozein zeregin sekularren ardura izan, kristau-batza osoak esan zezakeen diakonoa beren ministraria zela.

Izan ere, diakonoen lana batzarra zerbitzatzea zen, nahiz eta, hala egokituz gero, ez ziren Ebanjelioa predikatu eta Kristoren doktrina finkatu gabe gelditzen, nork bere ahalmenen arabera, San Estebanek egin zuen moduan, eta predikatu eta bataiatu ere egiten zuten, Felipek egin zuen moduan. Izan ere, Samarian predikatu (Eg. 8, 5) eta irena bataiatu zuen Felipe hura (38. bertseta), Felipe diakonoa zen, ez Felipe apostolua. Zeren bistakoa baita Felipek Samarian predikatu zuenean, apostoluak Jerusalemen zeudela, eta (14. bertseta) entzun zutenean Samariak hartu zuela Jainkoaren hitza, Pedro eta Joan bidali zizkieten, eta bataioa harturikoei (15. bertseta) eskuak gainean ezarri zizkieten eta Izpiritu Santua hartu zuten, Felipek emaniko bataioaz hartu ez zutena. Izan ere, Izpiritu Santua hartzeko, beharrezko zen hitzaren ministrari batek, ez Elizaren ministrariak, bataioa ematea edo berrestea. Eta, beraz, aurretik Felipe diakonoak bataiaturikoen bataioa berresteko, apostoluek beretako bi, Pedro eta Joan, bidali zituzten Jerusalemeko Samariara, eta hauek Izpiritu Santuaren seinale ziren dohainak, garai hartan fededun zintzo guztiek berekin izaten zituztenak, helarazi zizkieten. Dohainok zer ziren San Markosek dioenaren bidez uler daiteke (Mk. 16, 17): Sinestunek seinale hauek izango dituzte berekin: nire izenean deabruak botako dituzte, hizkuntza berriz mintzatuko dira, sugeak eskuetan hartuko dituzte eta, edari hilgarriren bat edanik ere, ez die gaitzik egingo; gaixoei eskuak ezarriko dizkiete eta osatu egingo dira. Hauxe da Felipek eman ezin zuena, baina apostoluek ahal zuten, eta pasarte honetan ageri denez, eman ere egin zieten benetan sinetsi eta Kristoren beraren ministro batek bataiaturikoei. Oraingo ministroek ematerik ez duten ahalmena da hau, dela benetako fededunak gutxi direlako, dela Kristok ministro oso gutxi dituelako.

Lehen diakonoak apostoluek barik ikasleen batzarrak, hau da, era guztietako kristauz osatutako batzar batek aukeratu zituela argi agertzen da Ap.Eg. 6.ean, non irakurtzen dugun hamabiek, ikasleak ugaltu zirenean, biltzera deitu zituztela eta, azaldurik ez zela egoki apostoluek Jainkoaren hitza utzi eta mahaiak zerbitzatzea, esan ziela (3. bertseta): Beraz, senideok, aukera itzazue zeuen artean izen oneko zazpi gizon, Izpiritu Santuaz eta jakinduriaraz beteak, eta haiei emango diegu egiteko hori. Hemen argi ageri da ezen, Apostoluak aukeratu deklaratu zituzten arren, batzarrak aukeratu zituela; eta hau are espreskiago esaten da zera dioskuten hitzetan (5. bertseta): Batzar osoak ontzat eman zuen proposamena, eta zazpi aukeratu zituzten...

Itun Zaharrean, Lebiren tribua soilik zen apaizgorako eta Elizaren beheragoko karguetarako gai. Herria Lebirena izan ezik beste tribu guztien artean banandu zen, eta Joserren tribua Efrain eta Manasesen tribuetan azpizatu zenez gero, gero ere hamabi ziren. Lebiren tribuari zenbait hiri esleitu zitzaizkion eurak bizitzeko, eta hiri-inguruak ganaduarentzat. Baina anaien lurrek emandakoaren hamarrena hartzea zegokion. Apaizek ere, beren mantenurako, hamarren haren hamarrena hartzen zuten, eta eskaintza eta oparien zati bat. Izan ere, Jainkoak Aaroni esana baitzion (Zen.18, 20): Ez duzu lur sailik izango zeure ondaretzat israeldarrei emango diedan lurraldean. Neu izango nauzu ondare eta mantenu beste israeldarren artean. Era horretan, Jainkoak, orduan errege zelarik, eta Lebiren tribua bere ministro publikoak izateko eratu zuelarik, beren mantenurako sarrera publikoak, hau da, Jainkoak beretzat gordea zuen parte, hamarren eta opariek osatua, jasotzen utzi zien; eta horixe da esan gura dena Jainkoak dionean: Neu naiz zuen ondarea. Horregatik, ez litzateke desgoki lebitarrei klero, grekozko Κληροζ atal edo herentzi ondarea esan nahi duen izena ematea; ez besteak baino Jainkoaren erresumaren oinordekoagoak zirelako, haien mantenua Jainkoaren onordetzatik zetorrelako baizik. Orain bada, ikusirik garai hartan Jainkoa bera zela haien errege, eta Moises, Aaron eta haien ondorengo Apaiz Nagusiak Jainkoaren ordezkari, argi gelditzen da hamarren eta oparietarako eskubidea botere zibilak eratu zuela. Erregea eskatuz Jainkoa arbuia ondoren, sarrera berak jasotzen segitu zuten, hala ere, baina haiek jasotzeko eskubidea erregeak inoiz kendu ez izanetik zetorkien, sarrera publikoak pertsona publikoaren esku baitzeuden, eta hau, gatibaldiraino, erregea zen. Eta, gatibaldi ostean, aurretik bezala ordaindu zizkieten hamarrenak apaizari. Hemendik, beraz, subirano zibilak erabakitzen zuen Elizaren bizipidea.

Zertatik bizi ziren gure Salbatzailea eta apostoluak jakiteko diru-zorro bat zutela besterik ez dakigu, Judasek eramaten zuena; eta apostoluek, arrantzaleak izaki, zenbaitetan beren lanbideari ekiten ziotela bizipidea izateko; eta, gure Salbatzaileak hamabi apostoluak predikatzerantz bidali zituenean debekatu egin ziela (Mt. 10, 9) beren zakutoetan urrerik ez zilarrik ez kobrerik eramatea, zor zaiola eta langileari behar duen janaria. Hemendik atera dezakegu ziur aski haien mantenua ez zegoela desados beraien lanbidearekin, izan ere, haien lana (8.ber.) doan ematea baitzen, doan hartua zutelako; eta haien mantenua Mesias Salbatzailearen etorreraz zekarten berri ona sinesten zutenen doako oparia zen. Eta honi gehi diezaiokegu gure Salbatzaileak gaixotasunetik osaturikoek eskerronez ematen zieten laguntza, badugularik honen aipamenik ere (Lk. 8, 2-3): Baita izpiritu gaiztoetatik sendatuak zituen zenbait emakume ere: Magdalako Maria -honengandik zazpi deabru bota zituen-, Joana -Herodesen etxezain Kusaren emaztea-, Susana eta beste asko. Guztiok beren ondasunez laguntzen zieten Jesusi eta honen ikasleei.

Gure Salbatzailearen Igokunde ostean, kristauak baltzuan bizi ziren (Eg. 4, 34) beren lur eta edukien salmentaz aterariko diruaz, hau guztia apostoluen oinetan jarri zutelarik borondatez, ez obligazioz; zeren, San Pedrok Ananiasi esan zionez (Eg. 5, 4), Lurra saldu aurretik zeurea zenuen, eta saldu ondoren ez ote zinen hartutakoaren jabe? Honek erakusten du ez zuela ez bere lurra ez bere dirua gezurra esanik gorde beharrik, ez baitzegoen beharturik ezer ekartzera berak nahi izan ezean. Eta apostoluen garaian bezala, geroago ere, Konstantino Handiaren ondoreneraino, aurkituko dugu Kristau Elizaren apezpiku eta artzainen mantenua, beren doktrina onarturikoen borondatezko laguntza besterik ez zela izan. Oraindik ez zen hamarrenik aipatzen; baina, Konstantino eta haren semeen garaian, hain izan zen handia kristauek beren artzainei zien onerizkoa (Amiano Martzelinok Damaso eta Ursizinoren sedizioa deskribatzean kontatzen digun moduan), non merezi zuen kargu horiek hartzea, izan ere garai horietan, beren artaldearen eta batez ere matronen eskuzabaltasuna bide, apezpikuak ezin hobeto bizi ziren, guri dotoreetan eramaten zituzten eta luxu handiz jan eta janzen ziren.

Baina baten batek hemen galde dezake artzainak orduan borondatezko emaitzetatik, limosnetatik bizitzera beharturik ote zeuden, Izan ere, dio San Paulok (1 Ko. 9, 7), nor ibili da inoiz gerran beretik ordainduta? Nork bazkatzen du artaldea eta ardien esnetik edaten ez? Eta berriro -13. ber.-: Ez al dakizue, eginkizun sakratuetan jarduten dutenek tenplua izaten dutela mantenua, eta aldarean zerbitzatzen dutenek aldarean eskaintzen diren oparietatik hartzen dutela beren parte, hau da, aldarean eskaintzen denaren partaide direla beren mantenurako? Eta bukatzen du esanez -14. ber.-: Era berean, Jaunak ere, berriona hotsegiten dutenei, berrionaren zerbitzuan egiten duten lanetik bizitzeko eskubidea dutela adierazi zien. Pasarte honetatik benetan atera daiteke Elizaren artzainak beren artaldeek mantendu behar zituztela, baina ez artzainek berek erabaki behar zutela berei eman beharrekoaren ez kantitatea ez kalitatea, era honetan,

no labait, beren aberastasunaren lantzaile bihurtuz. Haien sarrerak, beraz, edo gizabanako bakoitzaren eskerron eta eskuzabaltasunak, edo batzar osoak erabaki behar zituen. Batzar osoak ez zuen hau egiterik, haren egintzak ez baitziren orduan lege; horregatik artzainen mantenua, enperadore eta subirano zibilek hau finkatzeko legeak ezarri aurretik, onguraren menpe zegoen zeharo. Aldarea zerbitzatzen zutenak han egiten ziren oparietatik bizi ziren. Era horretan, artzainek beren artaldeak eskaintzen diena har dezakete, baina ez dute eskaintzen ez zaiena exigitzerik. Zein auzitegira jo zezaketen hau lortzeko, ez baitzegoen auzitegirik? Eta beren artean epaileak izan balituzte ere, nork betearazi ahal izango zituen haien epaiak, beren funtzionariak armatzeko botererik ez zuten eta? Beraz, ondorioztatu beharra dago Elizaren Artzainen mantenurako esleipen seguru bakarra batzar osoak jarri ziena izan zela, eta hori haren dekretuak kanon-indarra ezezik lege-indarra ere izan zutenean gertatu zen. Baina legeok enperadore, errege eta beste subirano zibilez bestek ezin izan zituen egin. Moisesen legeko hamarrenetarako eskubidea ezin izan zitzaizen aplikatu orduko Ebanjelioaren ministrariei; izan ere, Moises eta Apaiz Nagusiak herriaren subiranoak ziren Jainkoaren menpean, Jainkoaren erresuma juduen artean ordukoxea zelarik, baina Kristoren bidezko Jainkoaren erresuma, ostera, oraindik etortzeke dago.

Honaino agertu dugu: Elizaren Artzainak zer diren; zeintzuk diren haien eginkizunak (hau da, predikatu, irakatsi, bataiatu, nor bere batzarretan presidente izan); eliz zentsura edo eskomikua zer den, hau da, lege zibilek Kristautasuna debekatzen zuten lekuetan eskomikatuak konpainiatik urruntzea, eta Kristautasuna lege zibilez ezarritik zegoen lekuetan eskomikatuak batzarretatik egozte; Elizaren artzain eta ministrariek nork aukeratzen zituen (batzarrek); nork sagaratu eta benedikatzeko zituen (artzainak); zeintzuk ziren zor zitzaizkien sarrerak (haien edukiak eta haien lana eta kristau elizkoi eta eskerronekoen borondatezko laguntzak besterik ez). Orain zera aztertu behar dugu, zein lanbide duten Elizan subirano zibilak izanik kristau-fedea onartu duten pertsonak.

Lehenengo eta behin gogoratu behar dugu bakerako egokiak eta menekoei irakatsi beharrekoak zeintzuk diren epaitzeko eskubidea askaezinki loturik doala Estatu guztietan, 18. kapituluaren frogatu dugun moduan, botere zibilari, zein gizakume bakar batek, zein batzarrek izan botere hori. Izan ere, argitasunik gutxien duenarentzat ere begibistakoa da gizakumeen ekintzak berauen ondorioz etor dakiekeen on eta kalteaz duen iritziak datozela; eta, beraz, botere subiranoari obeditzea desobeditzea baino kaltegarriago gertatuko zaiela uste duten gizakumeek ez dituzte legeak beteko eta horren bidez hankaz gora botako dute Estatu eta nahastea eta gerra zibila ekarriko, horixe ekiditeko eratu zelarik gobernamentu zibil oro. Horregatik, jentilen Estatu guztietan, subiranoek herriaren artzain deituak izan dira, ezein menekok ezin baitzion herriari legez irakatsi, haren baimen eta eskuespenez izan ezik.

Ez daiteke pentsa errege paganoen eskubide hori kristau-federa etortzean kendu egin zitzaizkion, Hark inoiz ere ez baitzuen agindu erregeak berarengan sinesteagatik erregetzat kenduak izan behar zirenik, hau da, beste inoren menpean egon behar zirenik, edo gauza bera dena, beren menekoen artean bakea atxikitzeko eta beren Estatuak kanpoko etsaiengandik defendatzeko behar den botereaz gabetu behar zirenik. Eta horregatik errege kristauak orain ere beren herriaren artzain gorenak dira, nahi dituzten artzainak ordenatzeko boterea dutelarik, Elizari -hau da, beren ardurapean jarri zaien herriari-, irakasteko. Gainera, artzainok aukeratzeko eskubidea (erregeak kristautu aurretik gertatzen zen moduan) Elizan bazegoen ere -halaxe izan baitzen apostoluen beren garaian ere, kapitulu honetan azaldu dugun moduan-, subirano zibil kristauarengan ere egon behar du. Izan ere, kristau denez, doktrinaren irakaspena baimentzen du eta, subiranoa denez (elizaren ordezkaria esatea adina dena), berak aukeraturiko irakasleak Elizak aukeratzen ditu. Eta Estatu kristau batean kristau-batzarren batek bere artzaina aukeratzen duenean, Subiranoa da hura aukeratzen duena, aukeraketa bere eskuespenez egiten delako. Hiri batek bere alkatea aukeratzen duenean bezala: botere subiranoa duenaren egintza da, eta egindako oro, haren egintza delako beraren baimenik gabe baliogabeturik geratzen delako. Horregatik, direnak direla historiatik atera genitzakeen herriak edo kleroak aukeraturiko artzainen adibideak, ez dugu horietan ezein subirano zibilen aurkako argudiorik, haiek aukeratu zituztenek subiranoaren eskuespenez aukeratu zituztelako.

Ikusirik, bada, Estatu kristau bakoitzean subirano zibila dela artzain goren, bere ardurapean duelarik bere menekoen artalde osoa, eta, beraz, beste artzain guztiak haren eskuespenez egiten direla artzain, eta irakasteko eta beste eginkizun pastoral guztiak burutzeko ahalmena dutela, hemendik segitzen da subirano zibilarengandik datorkiela beste artzain guztiei irakasteko, predikatzeko eta beste eginkizun pastoral guztiak betetzeko eskubidea, eta subiranoaren besteren ministrariei ez direla, hirietako magistratuak, auzitegietako epaileak eta armadaburuak Estatu guztiko magistratu goren, auzi guztien epaile eta indar armatu guztien buru denaren, hau da subiranoaren besteren ministrariei ez diren bezalaxe. Eta honen arrazoia ez da irakasten dutenak direla, irakaspena jasotzen dutenak baizik, haren meneko. Izan ere, jo dezagun errege kristau batek beste errege bati bere menpeko lurretan artzainak ordenatzeko eskuespena ematen diola (zenbait errege kristauk Aita Santuari botere hori emanez egin duten bezala); hori egitean, ez du bere gainetik dagoen artzain bat sortzen, ezta herriarengan subiranotasuna duen artzain goren bat ere, hori subiranoari berari botere zibila kentzea litzateke eta. Eta botere zibila, orduan, gizakume bakoitzak artzain horrekiko bere eginbeharrez lukeen iritziaren eta beste munduko zigorrei liekeen

beldurraren menpe egongo litzateke, baita eliz doktoreen gaitasun eta leialtasunaren menpe ere, hauek ez daudelarik bestelako gizakumeak baino libreago handiguratik ezezik ezjakintasunetik ere. Era honetan, kanpotar batek irakasleak izendatzeko autoritatea duen tokietan, irakasten duen tokiko subiranoak emana du autoritate hori. Eliz doktoreak gure eskolamaisuak dira kristautasunari dagokionez; baina erregeak familigurasoak ditugu, eta har ditzakete eskolamaisuak beren menekoentzat atzerritar baten gomendioz - baina ez aginduz, batez ere maisuon irakaskuntza txarretik gomendatzaileak onura ateratzen duenean-; eta inork ezin du subiranoa behartu maisuok herriaren onak eskatzen duena baino luzaroago edukitzera; jarri ere, herriaren ona zaintzea jarri baitzaie beraien ardurapean, beti ere subiranotasunaren eskubide funtsezkoa errespetatzen duten artean.

Horregatik, norbaitek bere eginkizuna betetzen ari den artzain bati, Apaiz Nagusiek eta zaharrek gure Salbatzaileari galdetu ziotena (Mt. 21, 23) galdetuko balio: Ze eskubidez egiten duzu, ba, hori? Eta nork eman dizu eskubide hori?, artzain horrek eman lezakeen bidezko erantzun bakarra Estatuaren eskubidez diharduela litzateke, eta Estatuak ordezkatzeko duen erregeak edo batzarrak eman diola eskubide hori. Artzain guztiek, artzain gorenak izan ezik, subiranoaren autoritatetik datorkien autoritatez betetzen dute beren kargua, hau da, jure civili. Baina erregeak, baita beste edozein subiranok ere, Jainkoarengandik zuzen datorkien eskubidez betetzen du bere kargua, hau da, jainkozko zuzenbidez edo jure divino. Eta, horregatik, erregeek baino ez dezakete jar beren tituluetan Jainkoaren besteren inoren pean ez egotearen adierazgarririk: Dei gratia rex, e.a. Apezpikuek beren Agirien aurrean jarri behar lukete: Errege bere Maiestatearen mesedez, honen elizbarrutiko apezpikua; edo ministrari zibilak bezala, Bere Maiestatearen izenean. Izan ere, Divina providentia esaten dutenean -Dei gratia esatea dena, nahiz eta mozorroturik-, ukatu egiten dute eskubide hori Estatu zibilarengandik hartu dutela; eta, maltzurki, ihes egiten diote menekotasun zibilararen idunekolari, hau Estatuaren batasun eta defentsaren kontrakoa delarik.

Baina subirano kristau oro beren menekoen artzain gorena bada, badirudi predikatzeko eskubidea ezezik, ziurrenik hau inork ez lukeelarik ukatuko, bataiatzeko eta Jaunaren Afariko sakramentua egiteko eta Jainkoaren zerbitzurako elizak eta artzainak sagaratzekoa ere badukeela, gehienek ukatzen dutena berau, aldeztu subiranoek egin ohi ez dutelako, eta aldeztu sakramentuak emateko eta eginkizun santuetarako pertsona eta lekuak sagaratzeko, ministeritza horretarako esku-ezarpen berdinez Apostoluengandik hona hurrenez hurren ordenatuak izan direnen esku-ezarpena behar delako. Beraz, errege kristauak bataiatu eta sagaratzeko boterea dutela frogatzeko, zergatik egin ohi ez duten arrazoitu beharra daukat, eta zergatik duten hartua, esku-ezarpenaren zeremonia arruntik gabe, eginkizun horiek nahi dutenean betetzeko ahalmena.

Ez dago dudarik erregeak, zientzietan trebea izanez gero, bere karguak daraman eskubidez, berak eman ahal izango litzukeela zientzietako ikasgaiak, unibertsitateetan ikasgaiok eman ditzaten beste batzuei baimena emateko duen eskubide berberaz. Hala ere, Estatuak arazotaria guztiak astia zeharo jaten dionez gero, ez litzateke komeni hura bera eginkizun partikular horretan aritzea. Erregeak, berak nahi izanez gero, epaimahian jezar eta edozertariko auziak juzga litzake, besteei bere izenean hori egiteko baimena eman liezaiekeen bezalaxe; baina aginte eta gobernamentuaren lanean bereganatua duen zamak etengabe leman egotera eta ministeritza-eginkizunak menpean dituen beste batzuei leporatzera behartzen du. Antzera batean, dudarik gabe bataiatzeko ahalmena zuen gure Salbatzaileak, ez zuen berak inor bataiatu (Jn. 4, 2), eta bataiatzera apostoluak bidali zituen. Halaber, San Paulok, bataiaketarik oso urrun zeuden lekuetan predikatu beharra baitzuen, banaka batzuk besterik ez zituen berak bataiatu: Korintoar guztietarik, Krispo, Gaio eta Esteban bakarrik bataiatu zituen (1 Ko. 1, 14-16); eta arrazoiak (1 Ko. 1, 17) haren egiteko nagusia predikatzea zela izan zen. Hemendik argi ateratzen da erantzukizun handieneko eginkizunak, Elizaren gobernamentuak, txikiagoak betetzetik lekatzen duela. Beraz, errege kristauak normalean ez bataiatzearen arrazoiak begibistakoa da, eta gaur egun apezpikuek pertsona gutxi, eta are gutxiago Aita Santuak, bataiatzea azaltzen duen arrazoi bera da.

Eta erregeak bataiatzeko eta sagaratzeko eskubidea izan dezan esku-ezarpena beharrezko ote den argitzeko, jarraian esango dena izan behar dugu kontuan.

Esku-ezarpena oso antzinako zeremonia publikoa zen juduen artean, beraren bidez norbaiten otoitz, bedeinkapen, opari, sagarapen, gaitzespen edo hitzeko beste edozein formulak erdietsi nahi zuen pertsona, leku edo gauza adierazi eta mugatzen zelarik. Horrela, Jakobek, Joseren semeak bedeinkatzean, (Has. 48, 14): Bere eskuak luzatu eta eskuina Efraim bere seme gazteenaren buru gainean ezarri zuen eta ezkerra Manases lehensemearen buru gainean; eta hau apropos egin zuen (nahiz eta Josek aurkeztu zizkion eran, biok bedeinkatzeko, besoak luzatu eta bataiaketaren gainean gurutzatu beharra izan zuen), bedeinkapen handiagoa nori eman nahi zion adierazteko. Era berean, harako opari errearen kasuan, Aaroni agintzen zaio (Ir. 29, 10) zekorrari buruan eskuak ezartzeko, eta (15. ber.) ahariari buruan eskuak ezartzeko. Gauza bera berriro Lb. 1, 4 eta 8, 14an ere. Era berean, Moisesek Josue israeldarren kapitain izateko ordenatu zuenean, hots, Jainkoaren zerbitzurako sagaratu zuenean (Zen. 27, 23): Eskuak gainean ezarri eta kargua eman zion, era honetan israeldarrek gerran obeditu behar zioten pertsona nor zen izendatu eta ziurtatuz. Eta lebitarren sagarapenean (Zen. 8, 10) Jainkoak agindu zuen: Han, Israeldarrek

eskuak buru gainean ezarriko dizkiete lebitarrei. Eta Jaunaren kontra birao egin zuen haren gaitzespenean (Lb. 24, 14) Jainkoak agindu zuen: Ezar biezaiote eskuak buruan aditu dioten guztiek; gero hil beza harrika israeldarren elkarte osoak. Eta zergatik ezarri behar zituzten haren gainean eskuak entzun ziotenak bakarrik, apaiz batek, lebitar batek edo beste justizi ministrariren batek egin beharrean, eta zergatik ez zen beste inor gai elkartearen aurrean izendatu eta erakusteko nor zen birao egin zuena eta hil behar zuena? Eta gizakume bat edo beste edozein gauza eskuaz izendatzeak nahastatzeko arrisku txikiagoa du, belarrira izena esanik egiten bada baino.

Eta hainbestearino betetzen zen esku-ezarpeneko zeremonia hori, non Aaronek, elkarte guztia batera bedeinkatzeko, hau guztiei eskuak ezarri egiterik ez zeukan arren (Lb. 9, 22), herriaren gainera eskuak jasorik, bedeinkatu egin zuen. Eta irakurtzen dugu paganoek ere antzeko zeremonia erabiltzen zutela, beren elizak bedeinkatzen zituztenean, apaizak elizako zutaberen batean jartzen baitzituen eskuak, sagartzeko hitzak esaten zituen bitartean. Izan ere, jendaurrean egindako Jainkoaren zerbitzuko kontuetan, oso naturala da adierazi nahi dena eskuaz izendatzea, begiak ikus dezan, hitzen bidez belarrira zuzendu beharrean.

Zeremonia hau, beraz, ez zen berria gure Salbatzailearen garaian. Izan ere, Jairok (Mk. 5, 23), alaba gaixorik zuelarik, gure Salbatzaileari alaba osatzeko barik, hari eskuak ezartzeko erregutu zion. Eta Mateo 19,13an irakurtzen dugu: Haurrak eraman zizkieten Jesusi, haien gain eskuak ezarri otoi ez egin zezan.

Antzinako errito honen arabera, apostolu, presbitero eta presbitero-taldeak berak ere, beren eskuak ezartzen zizkieten buru gainean artzain ordenatzen zituztenei, eta aldi berean haien alde erreztatzen zuten Izpiritu Santua har zezaten. Eta hau ez zuten behin bakarrik egiten, maiz baizik, horretarako parada berririk zegoen guztian. Baina xedea berbera zen beti: lan pastoral orokorrean edo eginkizun zehatz bat egiteko ordenaturiko pertsona zehazki izendatzea. Horrela (Eg. 6, 6): Apostoluek otoi ez eginez eskuak ezarri zizkieten zazpi diakonoei; hau ez zelarik Izpiritu Santua emateko (aukeratuak izan aurretik Izpiritu Santuz beterik baitzeuden, 3. bertsetean irakurtzen dugun moduan), kargu honetarako izendatzeko baizik. Eta Felipe diakonoak Samarian zenbait pertsona kristautu zituztenean, Pedro eta Joan hara joan ziren (Eg. 8, 17) eta eskuak ezarri zizkieten, eta Izpiritu Santua hartu zuten. Eta ez bakarrik apostoluek, presbiteroek ere bazuten ahalmen hori. Izan ere, San Paulok Timoteori hau xe aholkatzen dio (I Tm. 5, 22): Ez ezarri eskuak inori arinegi; hau da, inor ere ez izendatzeko arinegi artzain kargurako. Presbiteria guztiak ezarri zizkion eskuak buru gainean Timoteori, I Tm. 4,14an irakurtzen dugun moduan; baina hemen ulertu behar da norbaitek egin zuela hori presbiterioaren izendapenez, pertsona hori proetw;" edo prolokutorea, San Paulo bera izan zitekeelarik. Izan ere, Timoteori idatzi zion bigarren Epistolan (1, 6) dio: Indarberritu nik eskuak ezartzean Jainkoak eman zizun dohaina; pasarte honetan esan behar delarik Izpiritu Santuaz ez dela ulertu behar Hirutasun Santuaren hirugarren pertsona, artzain eginkizunerako behar diren dohainak baizik. Baita ere irakurtzen dugu San Paulori birritan ezarri zizkiotela eskuak: behin Atanasiok, Damaskon (Eg. 9, 17-18) bataioa hartu zuenean, eta berriro (Eg. 13,3) Antiokian, lehenengoz predikatzera bidali zutenean. Artzainen ordenazioan zeremonia honi dagokionez zegoen usadioa, beraz, botere horri ematen zitzaion pertsona izendatzea zen. Baina aurretik irakasteko boterea zuen kristauren bat egon izan balitz, bataiatzeak, hau da, kristau egiteak, ez ziokeen botere berririk eman, benetako doktrina irakastea besterik, hau da, bere boterea behar den moduan erabiltzea; eta, beraz, esku-ezarpena alferreko zatekeen: bataioa hartzea nahikoa zatekeen. Baina subirano orok, Kristautasuna baino lehenago, bazuen irakasteko eta irakasleak ordenatzeko boterea; eta, beraz, Kristautasunak ez zien eskubide berririk eman, egia irakasteko bidean gidatu besterik; eta, beraz, ez zuten izan esku-ezarpen beharrik, bataiokoaz gain, edozein eginkizun pastoral, eta zehazki bataiatu eta sagartzeko, gauzatzeko eskubidea izateko. Eta Itun Zaharrean, subiranoasuna Apaiz Nagusiak zuen garaian sagartzeko eskubidea apaizak bestek ez zuen arren, ez zen gauza bera gertatu subiranoasuna erregeak izan zuenean. Izan ere, irakurtzen dugu

(1 Erg. 8) Salomonek herria bedeinkatu, Tenplua sagaratu eta otoi ez publiko erreztatu zuela, otoi ez bera delarik gaur egun kristau eliza eta kaperak sagartzeko eredu bat erabiltzen dena. Eta hemendik argi ageri da Eliz gobernamendurako ezezik, elizkizunetarako ere bazuela eskubiderik.

Politika eta eliz arloetako eskubideak subiranoarengan finkatzen, begibistakoa da gizakume bati gizakumeen kanpo-egintzak gobernatzeko eman dakizkiokeen edozertariko botereak dituztela subiranoek, hala politika nola erlijio kontuetan, eta egoki deritzeten legeak egin ditzaketela, beren menekoak gobernatzeko, bai Estatuko kide direnez baita elizako kide direnez ere; gizakume berek osatzen baitute Eliza eta Estatua.

Nahi badute, beraz, Aita Santuari utz diezaiokete, errege kristau askok gaur egun egiten duen moduan, beren menekoen gobernamendua erlijio kontuetan; baina orduan Aita Santua puntu honetan haien menpe dago, eta eginkizun hau besteren manupeko lurraldean jure civili betetzen dute, subirano zibilaren zuzenbidez, eta ez jure divino, jainkoazko zuzenbidez; eta, beraz, ken dakieke kargu hau, Subiranoak bere menekoen onerako beharrezko ikusten duenean. Nahi badu, gainera, erlijioaren ardura artzain nagusi batengan edo artzain-batzar batengan utz dezake, eta komenigarrien ikusten duen boterea eman elizaren gain edo bata besteari gain; baita nahi dituen ohorezko tituluak ere: apezpiku, artzapezpiku, apaiz edo

presbitero; eta haien mantenurako nahi dituen legeak egin ere bai, hamarrenen bidez, edo bestela, hau kontzientzia onez eginez, kontzientziaren epaile bakarra Jainkoa delarik. Subirano zibila da Liburu kanonikoen epaile eta interpretatzaileak izendatzen dituen, bera baita lege egiten dituen. Bera da eskomikuei indarra ematen diena ere, zeren eskomikuak, libertino setatiak apalarazi eta gainontzeko Elizarekin batzera behartzen dituzten lege eta zigorreatatik ez balitz, mesprezua jasoko bailuke. Labur esanik, subiranoa da auzi guztietan, hala zibiletan nola elizakoetan, botere gorena duena egintza eta hitzei dagokienez, horiexek bakarrik ezagut eta sala baitaitezke; eta sala ez daitekeenaren epaile bakarra Jainkoa da, berak bakarrik ezagutzen baitu gizakumearen bihotz barrena. Eta eskubideok subirano guztiei datxekie, hala monarkei nola batzarrei; izan ere, kristau herriaren ordezkari direnak, Elizaren ordezkari dira, kristau jendekun Estatua eta Eliza gauza bera direlako.

Nahiz eta badirudien hemen eta liburu honen beste zati batzuetan esan dudana frogatu aski argia dela subirano kristauen eliz botere gorena baiezteko, hala ere, Bellarmino kardinaleak, De Summo Pontifice deritzon eztabaidan, indarrak handienaz defendatu duenez gero Erromako Aita Santuak unibertsalki galda dezakeela botere hori, beharrezko ikusi dut haren argudioen oinarriak eta indarra aztertzea ahalik laburren.

Gai honi buruz idatzi dituen bost liburuetarik lehenengoak hiru gai tratatzen ditu: Bat, zein den gobernamenturik onena, Monarkia, Aristokrazia ala Demokrazia; eta ondorio haxe ateratzen du: gobernamenturik onena hiruretariko bat barik, hiruren nahastura bat dela. Beste gaia, hauetarik zein den gobernamentu erarik onena Elizarentzat, eta nahasturaren alde bukatzen du, baina monarkiaren parte hartze handiagoz. Hirugarren eztabaidagaia monarkia nahasi honetan San Pedrok Monarkaren lekua izan zuenentz da. Haren lehen ondorioari buruz, behar bezainbatean frogatu dut (18. kapitulua) gizakumeak obeditu beharreko gobernamentuak bakunak eta absolutuak direla. Monarkian gizon goren bakarra dago; eta edozein motatako boterea duten guztiek haren mandatuz eta hark nahi dueno dute botere hori, eta haren enkarguz darabilte. Eta aristokrazia eta demokrazian, batzar goren bakar bat dago, monarkian monarkari dagokion botere berberaz, ez delarik subiranotasun mistoa, absolutua baizik. Eta hiru motetatik zein den onena ez da eztabaidatu behar, haietariko bat ezarri dagoen lekuan, ezarrita dagoena hobetsi behar baita beti, eta hari eutsi eta onentzat hartu, bai Naturaren bai Jainkoaren lege positiboaren, bien, kontra baitago ezarri dagoen gobernamentua hankaz gora botatzera doan ezer egitea. Gainera, ezein artzainen botereari ez dakarkio ezer (subiranotasun zibila ez badauka) zein gobernamentu mota den onena erabakitzea, bere eginkizuna ez delako gizakumeak gobernatzea, baizik haiei irakastea eta argudioen bidez haiek konbentzitzea, eta haien esku uztea irakatsi zaien doktrina onartu ala arbuiatu behar duten erabakitzea. Izan ere, Monarkiak, Aristokraziak eta Demokraziak hiru subirano mota ezartzen dizkigute, ez hiru artzain mota; ezta ere, esan genezake, haurrentzat hiru familiburu mota, ez hiru eskolamaisu mota ere.

Eta horregatik, bigarren ondorioak, Elizaren gobernamenturako erarik onenari dagokionak, ez du inolako zerikusirik Aita Santuak beren manupeko lurraldetik landa botereak izatearekin. Izan ere, bereak ez dituen Estatuetan (bererik badu), haren boterea eskolamaisuarena izango da, eta ez familiburuarena.

Bere hirugarren ondorioak, hau da, San Pedro Elizaren Monarka izan zela aldezteko frogatu nagusiztat San Mateoren pasarte haxe dakar (Mt. 16, 18-19): Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza... Jainkoaren erreinuko giltzak emango dizkizut; zuk mundu honetan lotua zeruan ere loturik geldituko da, eta zuk mundu honetan askatua zeruan ere askaturik geldituko da. Pasarte honek, ongi aztertutik, Kristoren Elizak artikulua bakar bat duela oinarri -Pedrok apostolu guztien izenean aitortu zuena eta hain zuzen ere gure Salbatzaileak hemen aipaturiko hitzak esatea ekarri zuena-, besterik ez du frogatzen. Kontuan izan behar dugu argi ulertu behar duguna zera dela, gure Salbatzaileak berak, apostoluek eta Joan Bataiatzaileak fede artikulua haxe besterik ez zutela predikatu: hura Kristo zela; beste artikulua guztiek horreketan oinarritzen direnez bakarrik behar dute guk sinestea. Joan hasi zen lehenengo haxe bakarrik predikatzen: Jainkoaren erreinua hurbil dago. Gero gure Salbatzaileak berak ere (Mt. 4, 17) gauza bera predikatu zuen; eta bere hamabi apostoluei beraien egitekoa zein zen jakinarazi zienean (Mt. 10, 7), ez zien aipatu artikulua horixe besterik beraien predikurako. Horixe zen oinarritzko artikulua, Elizaren fedearen oinarri dena. Geroago, apostoluak berriro etorri zitzaizkionean (Mt. 16, 13), galdetu zien guztiei, ez bakarrik Pedrori: Gizonaren Semea nor dela dio jendeak? Haiek erantzun: Batzuek Joan Bataiatzailea dela, beste batzuek Elias, besteek Jeremias edo profetaren bat. Eta orduan (15. ber.) berriro galdetu zien guztiei, ez bakarrik Pedrori: Eta zuek nor naizela diozue? Eta orduan Pedrok (denen izenean) erantzun zuen: Zu Kristo zara, Jainko biziaren Semea, hitzok, esan dudana moduan, Eliza guztia fedearen oinarri direlarik, eta berauotatik gure Salbatzaileak zera esateko aukera hartu zuen: Harri horrexen gainean eraikiko dut nik neure eliza. Hemendik argi ageri da Elizaren giltzarri esatean, Elizaren Fedearen oinarritzko artikulua esan nahi zela. Baina, zergatik orduan -ihardukiko du norbaitek- tartekatu zuen gure Salbatzaileak zu Pedro zara? Testu horren originala hertsiki itzuli izan balitz, erraz ikus zatekeen arrazoia. Kontuan hartu behar dugu, bada, Simon Apostoluak goititzen bat zuela, Harria, horixe baita Cephas hitz siriarrak eta Petrus grekozko hitzak esan nahi dutena. Gure Salbatzaileak, beraz, Pedrok



Oinarritzko Artikulu hau aitortu ondoren, haren izena aipatuz, esan zuen (gure hizkuntzaz esango genukeen bezala): Zu Harria zara, eta Harri horren gainean eraikiko dut nik neure Eliza; eta hau beste haxe esatea bezala da: artikulu haxe, ni Kristo naizela, da nire Elizako kide diren guztiei eskatzen diedan fede guztiaren oinarri. Izena aipatzea ez da gutxitan gertatzen dena hizkera arruntean. Baina hitz egiteko modu iluna zatekeen, baldin gure Salbatzaileak, Pedoren gainean bere Eliza eraikitzeke asmoz, esan izan balu: Zu harria zara, eta harri horren gainean eraikiko dut nik neure Eliza, argi eta anbiguotasunik gabe beste hau esan beharrean: Zure gainean eraikiko dut nik neure Eliza; eta, hala ere, haren izenarekiko alusio bera zegokeen hemen ere.

Hurrengo hitzei dagokienez, hau da, Zeruko giltzak emango dizkizut..., ez da gure Salbatzaileak gainerako ikasle guztiei eman ziena baino gehiago (Mt. 18, 18): Zuek mundu honetan lotua, zeruan ere lotua geldituko da, eta zuek mundu honetan askatua, zeruan ere askatua geldituko da. Baina, hau nolanahi interpretaturik ere, ez dago dudarik hemen ematen den boterea artzain nagusi guztiei dagokiela, eta artzain nagusi dira subirano zibil guztiak beren manupeko lurraldeetan. Halatan izan ere, non baldin San Pedrok, edo gure Salbatzaileak berak, subirano zibilen bat Kristorengan sinestera eta honen erreinua onartzera eraman izan balute, erreinu hori mundu honetakoa ez denez gero, haren menekoak federa ekartzeko lana subiranoaren beraren, ez besteren, ardurapean utzi zuket; bestela, subiranoari bere subiranotasuna kendu zioteten, irakasteko eskubidea askaezinki baitatxekio subiranotasunari. Eta nahikoa bedi esandakoa haren lehenengo liburua errefusatzeko, hau da, San Pedro Elizaren monarka unibertuala, hots, munduko kristau guztiena, izan zela frogatzen saiatzen den liburua.

Bigarren liburua bi ondorio ditu: bata, San Pedro Erromako apezpikua izan zela eta bertan hil zela; bestea, Erromako Aita Santuak haren oinordekoak direla. Konklusio biok eztabaidatu dituzte beste batzuek. Baina egiazkoak direla jorik ere, Erromako Aita Santuak Elizaren monarka edo artzain nagusia ulertzen badugu, lehenengo apezpiku hura ez zen izan Silbestre, Konstantino lehenengo enperadore kristaua baizik. Eta Konstantino lehenengo izan zen bezalaxe, ondoren beste enperadore kristau guztiak ere Erromatar Inperioko apezpiku gorenak izan ziren eskubidez. Erromatar Inperioko diot, ez mundu guztiko apezpiku gorenak, zeren beste enperadore kristauak eskubide bera zuten nork bere lurraldean, beren subiranotasunari funtsean zetxekion kargu gisa. Eta aski bedi hau haren bigarren liburuari erantzuteko.

Hirugarren liburuan Aita Santua Antikristoa oten den aztertzen du. Nik neuk ez dut Antikristoa dela frogatzen duen argudiorik ikusten, Idazteunak izen hori erabiltzen duen adieran. Antikristoaren izaeratik ere ez dut argudiorik aterako, Aita Santuak beste printze edo Estaturen baten manupeko lurraldeetan darabilen edo orain arte erabili duen agintaren kontra jotzeko.

Bistakoa da Itun Zaharreko profetek iragarri zutela eta juduek Mesias bat, hots, Kristo bat, espero zutela, haiek berek Samuelen garaian, beste nazioen antzeko errege bat eskatu zutenean, arbuia zuten Jainkoaren erresuma beren artean berrezarriko zuena. Esperantza honek ahul bihurtu zituen juduak, erregealdi hori berenganatzeko egarriz agertzen zirenen aurrez eta, gainera, mirakulu faltsuz, bizimodu hipokritaz edo otoitz eta doktrina itxuraz sinesgarri baliatuz, herria engainatzen trebe zirenen iruzurraren aurrez. Horregatik, gure Salbatzaileak eta haren apostoluek ohartarazi zien kontuz ibiltzeko profeta faltsuez eta Kristo faltsuez. Kristo faltsuak beren burua Kristotzat aurkezten dutenak dira, baina ez direnak; eta horrexegatik esaten zaie Antikristoak, elizan bi Aita Santu aukeratu eta zisma gertatzen denean, bata besteari Antipapa, edo Aita Santu faltsua deitzean erabiltzen den adieran. Horrela, Antikristo hitzak, bere adiera propioan, bi ezaugarri ditu: bata, norbaitek Jesus Kristo dela ukatzea; bestea, norbait horrek bere burua Kristotzat aitortzea. Lehen ezaugarria San Joanek adierazten du bere lehenengo Epistolan, 4,3: Jesukristo egiazko gizon egin dela aitortzen ez duenak, ez du Jainkoaren izpiritua, antikristoarena baizik. Bigarren ezaugarria gure Salbatzailearen hitzetan adierazten da (Mt. 24, 5): Asko etorriko dira nire izena berenganatuz eta esanez: Ni naiz Kristo; eta berriro -23. ber-: Norbaitek "Hona hemen Kristo" edo "Hara han" esango balizue, ez sinetsi. Eta horregatik Antikristoak Kristo faltsua izan behar du, Kristotzat aurkeztuko den bat. Eta ezaugarri biotatik -Jesus Kristo dela ukatzea, eta bera Kristotzat aurkeztea- berez dator Antikristoak benetako Kristo den Jesusen etsai izan behar duela, hau ere Antikristo hitzaren beste ohiko esangura bat delarik. Baina Antikristo guztion artean, bat berezia da, Αντιχριστοζ edo Antikristoa, pertsona konkretua dena, eta ez zehaztu gabeko Antikristoa. Orain bada, Erromako Aita Santuak ez diola bera dela Kristo eta ez duela ukatzen Jesus Kristo dela kontuan harturik, ez dut ikusten zergatik deitu behar zaion Antikristo, hitz honek ez baitu adierazten bere burua faltsuki Kristoren loktenente edo ordeko orokortzat aurkezten duena, baizik Kristotzat aurkezten duena. Bada Antikristo berezi honen garaiaren seinalerik ere, hala nola (Mt. 24, 15) Danielek aipatzen duen suntsitzaile gorrotagarri hura bere leku Santutik altxatu eta munduaren hasieratik izan ez den eta izango ez den moduko estularria sortarazten duenean; hainbestearinokoa, non asko iraungo balu (Mt. 24, 22) ez litzateke inor txo ere bizirik aterako; baina aukeratuak direla eta, laburtu egingo ditu egun horiek, hau da, egun gutxiago izango dira. Baina estularri hori ez da oraindik heldu; izan ere, haren ondoren berehala (29. ber.) eguzkia eta ilargia ilundu egingo dira, izarrak amildu egingo dira, zeruetan astindu handia izango da

eta gure Salbatzailea aintzaz etorriko da berriro hodei artean. Eta horregatik Antikristoa ez da oraindik etorri, bitartean Aita Santu asko etorri eta joan badira ere. Egia da Aita Santua, errege eta nazio kristau guztiei legeak emateko eskubidea bereganatzean, Kristok beretzat galdatu ez zuen mundu honetako erreinua usurpatzen ari dela. Baina ez du hori Kristo denez egiten, Kristoren ordezkari baizik, eta, beraz, ez du Antikristoari dagokion ezer.

Laugarren liburuan, Aita Santua fede eta ohituretako auzi guztietan epaile goren dela frogatzeko (hau, munduko kristau guztien monarka absolutu izatea adina delarik), hiru proposizio dakartza: lehena, haren irizpenak hutsezinak direla; bigarrena, benetako legeak egin ditzakeela, eta betetzen ez dituztenak zigor; hirugarrena, gure Salbatzaileak eliz eskumen guztia Erromako Aita Santuari eman ziola.

Aita Santuaren irizpenak hutsezinak direla frogatzeko, Idazteunera jotzen du; eta, lehenengo eta behin, Lk. 23, 31-32 testu hura dakar: Simon, Simon, Satanasek beretzat nahi zaituzte, garia galbahean bezala zuek astintzeko. Baina nik otoitz egin dut zure alde, sinesmena gal ez dezazun. Eta zuk, niregana bihurtzean, sendo itzazu senideak. Honek, Bellarminoren azalpenaren arabera, esan nahi du Kristok bi pribilegio eman ziola Simon Pedrori: bata, ez haren sinesmenak ez haren oinordekoenak ez zuela inoiz hutsik egingo; bestea, ez hura ez haren oinordekoak ez zirela inoiz erratuko fede edo ohiturei dagokien punturik definitzean, ezta aurreko Aita Santuren baten definizioaren kontrakorik eman ere. Baina interpretazio hau arrunt arraro eta bortxatua da. Izan ere, kapitulu hori arretaz irakur dezanak zera aurkituko du: ez dagoela Idazteun osoan pasarte bat bera ere, hau baino Aita Santuaren autoritatearen hain zuzen kontrakoago denik. Apaiz eta eskribak gure Salbatzailea Bazkoaz hiltzeko moduaren bila ari zirelarik eta Judasek hura saltzea erabakia zuelarik, Bazko opariaren eguna heltzean, gure Salbatzaileak Apostoluekin ospatu zuen, eta esan zien Jainkoaren erresuma iritsi arte ez zuela berriro ospatuko; eta beraietako batek salduko zuela ere esan zien. Eta haiek bata besteari galdezka hasi ziren euretako zein izango zen. Eta Maisuak hurrengo Bazkoa errege zela ospatuko zuela esan zielarik, eztabaidan hasi ziren beren artean nor izango ote zen orduan handiena. Gure Salbatzaileak esan zien nazioetako erregeek beren menekoen manupea zutela eta hebraieraz ongile esan nahi duen izenaz deitzen zitzaizkiela. "Baina nik ezin dut izan zuentzat hori, eta zuek bata bestea zerbitzatzen ahalegindu behar duzue. Nik erresuma bat daukat zuentzat, nire Aitak niretzat ukan duen bezala; erresuma hori oraintxe erosiko dut neure odolaz, eta ez naiz haren jabe izango neure bigarren etorrerara arte; orduan zuek neure mahaian jan eta edango duzue eta tronuetan jezarriko zarete Israelgo hamabi leinuak epaitzeko". Eta orduan San Pedrori esan zion: "Simon, Simon, Satanas, zuri oraingo jabaria iradokiz, zure etorkizunerako sinesmena ahuldu nahian dabil; baina otoitz egin dut zure alde, eta zure sinesmenak ez du hutsik egingo. Zuk, beraz, (ohartu honetaz), nigana bihurturik eta nire erreinua ez dela mundu honetakoa ulerturik, sendo ezazu fede berori zeure anaiengan". Eta honi San Pedrok erantzun zion (mundu honetan inolako aginpiderik espero ez duenak bezala): Jauna, prest nago zurekin presondegira ezezik, heriotzara ere joateko. Hemendik argi dago San Pedrori ez zitzaizola mundu honetarako inolako eskumenik eman, eta, aitzitik, beste apostolu guztiei eurek ere inolakorik ez zutela irakasteko mandatua eman zitzaizola. Eta San Pedrok fede kontuak definitzeko emandako irizpenetan zuen hutsezintasunari dagokionez, testu honetatik ezin da haxe besterik atera, alegia, Pedrok zera sinesten segituko zuela, hots, Kristo berriro etorriko zela eta Judizio egunean erresuma ukanen zuela, hau ez zitzaizlarik, testu honen arabera, haren oinordeko guztiei eman, mundu honetako eta oraingo erresuma galdatzen ikusten ditugu eta.

Bigarren pasarte Mt. 16, 18 da: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; eta ifernuko atea ere ez zaizkio nagusituko. Testu honen bidez, kapitulu honetan agertua dudan moduan, zera besterik ez da frogatzen, ifernuko atea ez zaizkio nagusituko hitzok eragin zituen Pedroken aitortpenari. Eta Pedroken aitortpena haxe izan zen: Jesus Kristo Jainkoaren semea dela.

Hirugarren testua Jn. 21,16-17 da: Bazka itzazu nire ardiak, irakasteko mandatua besterik adierazten ez duena. Eta ardiak hitz horrek gainerako apostoluak adierazten dituela onartuz gero, orduan irakasteko botere gorena adieraziko luke; baina nagusitasun horren jabe zen subirano kristaurik izan ez zen bitartean soilik. Izan ere, frogatu dut subirano kristauak, beren manupeko lurraldeen barruan, artzain gorenak direla, horrexetarako eratuak bataiatu izate hutsez, beste esku-ezarketarik hartu gabekoak izan arren ere. Izan ere, esku-ezarketa hori, pertsona izendatzeko zeremonia denez gero, ez da beharrezko gertatzen pertsona hori aurretik izendaturik dagoenean, berak nahi duen doktrina irakasteko boterea izateko, beren menekoengan botere absolutua izateko eratua delako. Zeren, lehen frogatua dudan moduan, subiranoak, duten eginkizunarengatik, irakasle gorenak (orokorki) dira; eta, horregatik, beren buruak behartzen dituzte (bataioaren bidez) Kristoren doktrina irakastera. Eta beren herriari beste batzuek irakastea jasaten dutenean, beren arimen arriskuz egiten dute hori. Izan ere, familiburuei eskatuko dizkie Jainkoak beren seme-alaba eta otseinen irakaspenaren kontua. Abrahami buruz, eta ez hark kontratatuturiko bati buruz, dio Jainkoak (Has. 18, 19): Badakit bere seme-alaba eta etxekoei aginduko diela Jaunaren bidea zaintzeko, on eta zuzen dena eginez.

Laugarren pasarte Ir. 28, 30 da: Ipin eipaiketarako bularrekoaren barruan "Urim" eta "Tumin" epaigailuak, Hirurogeita Hamarrek hau honelaxe interpretatu zutelarik:  $\delta\lambda\omega\sigma\iota\nu$  και  $\alpha\lambda\eta\theta\epsilon\iota\alpha\nu$ , hau da,

nabaritasuna eta egia. Eta hemendik Bellarminok deduzitzen du Jainkoak Apaiz Nagusiari nabaritasuna eta egia eman zizkiola, ia hutsezintasuna adina dena. Baina nabaritasun eta egia izan, edo oharrarazpena izan, argi informa zedin eta zuzen juzga zezan Apaiz Nagusiari eman zitzaiona, subirano zibilari eman zitzaion. Izan ere horixe zen, Jainkoaren hurrengo, Apaiz Nagusia Israelgo Estatuan; eta hau nabaritasun eta egiaren aldeko argudioa da, hau da, subirano zibilek beren menekoen gain duten nagusitasunaren aldekoa eta Aita Santuak ukan uste duen boterearen kontrakoa. Horiexek dira, Aita Santuak fedeko gaiei dagokienetz dituen irizpenen hutsezintasunaren alde ekarritako testuak.

Ohiturei buruzko haren irizpenen hutsezintasunari dagokionez, testu bakar bat dakar, San Joan 16,13: Egiaren Izpiritua etortzean, berak egia osoraino gidatuko zaituzte; eta Bellarminok dio egia osoa dioten tokian gutxienez salbaziorako beharrezko den egia esan nahi dela. Baina murrizketa honen bidez ez dio eratzikitzen Aita Santuari kristatutasuna aitortzen duen eta kondenatua izango ez den edozein kristauri baino hutsezintasun handiagorik. Izan ere, norbait salbatzeko ez erratzea beharrezko den punturen batean erratzen bada, ezinezko da hura salbatzea, horixe bakarrik behar baitzen salbatzeko, eta hori gabe salbatzerik ez baitago. Zein diren puntu horiek, hurrengo kapituluan azalduko dut Idazteunean oinarriturik. Hemen ez dut haxe besterik esango, alegia, Aita Santuak inolako errorerik ezin irakastea bermaturik balu ere, horrek ere ez luke gai egingo beste printze baten manupeko lurraldean inolako eskumenik izateko, zera esaten ez badugu bederen, edonor dagoela lanean langilerik onena jartzera beharturik, lan hori aurretik beste bati agindurik ukan arren ere.

Testuaz gain, arrazoiaren izenean argudiatzen du gero, hara nola: Aita Santua salbaziorako beharrezko direnetan erra ahal baledi, Jainkoak ez zukeen aurrejarri Elizaren salbaziorako behar bezainbateko neurririk, Aita Santuak jarritako ildoei jarraitzeko agindua eman baitio. Baina arrazoi hau baliogabea da, Bellarminok zera erakutsi ezean behintzat, hots, Kristok noiz eta non agindu zion edo aipatu zuen Aita Santua agindu horrekin loturik. Are, San Pedrori emaniko guztia Aita Santuari ere eman zitzaioela onarturik ere, kontuan harturik Idazteunean inori ez zaiola agintzen San Pedrori obeditzekorik Aita Santuaren aginduak legezko subiranoaren aginduen kontrakoa direnean, hari obeditzen dion inor ezin da zuzena izan.

Azkenez, ez Elizak ez Aita Santuak berak ez du inoiz deklaratu bera denik munduko kristau guztien subirano zibila; eta, beraz, kristauak ez daude ohitura kontuetan haren eskumena aintzat hartzera beharturik. Izan ere, ohituretako auzietan subiranotasun zibila eta epailetza gorena gauza bera dira; eta lege zibilak egiten dituztenak ez dira deklaratzera mugatzen, baizik ekintza bat zuzena edo zuzengabea izatea egin ere egiten dute; halatan, non gizakumeen ohiturak bidezko edo ez-bidezkoak izatea egiten duen gauza bakarra subiranoaren legearekin duten adostasun gradua baita. Eta, horregatik, Aita Santuak ohituretako eztabaidetan beretzat gorde nahi duenean nagusitasuna, gizakumeei subirano zibilari desobeditzen irakasten ari da, hau doktrina okerra delarik, eta gure Salbatzaileak bere apostoluei eman eta Idazteunean helarazi zaizkigun agindu askoren kontrakoa.

Aita Santuak legeak egiteko boterea duela frogatzeko, pasarte asko alegatzen ditu, hala nola, lehenik Dt. 17, 12: Baina, harrokeriak eraginda, Jaunaren zuen Jainkoaren zerbitzuan dagoen apaizaren nahiz epailearen erabakia onartu nahi ez duena hil egin behar duzue. Horrela ezabatuko duzue gaiztakeria Israeldik. Honi erantzuteko gogoratu behar dugu Jainkoaren pean hurrengo lekua zuen Apaiz Nagusia subirano zibila zela; eta epaile zibil guztiak hark eratuak behar zuten. Horregatik, hemen alegaturiko hitzak honelaxe irakurri behar ditugu: Agintean dagoen subirano zibilari edo haren funtzionarioei beraien eginkizunean desobeditzeko harrokeria duena, hori hil egin behar duzue..., hau argi eta garbi subirano zibilaren alde eta Aita Santuaren botere unibertsalaren kontra dagoelarik.

Bigarrenik, San Mateo 16, 19 alegatzen du: Zuk mundu honetan lotua... ; eta lotura hori eskriba eta fariseuei egozten zaien (Mt. 23, 4) loturatzat interpretatzen du: Zama astunak lotu eta besteei leporatzen dizkiete; Bellarminok honen bidez legegintza esan nahi dela dioelarik. Eta hortik ondorio moduan ateratzen du Aita Santuak egin ditzakeela legeak. Baina honek legegintza boterea subirano zibilak bestek ez duela frogatzeko ere balio du, eskriba eta fariseuak Moisesen jarlekuan jartzen baitziren, eta Moises baitzen Jainkoaren pean hurrengo subiranoa Israelen; eta, horregatik, Jainkoak agindu zien eskribek eta fariseuek esaten zuten guztia egiteko, baina ez haiek egiten zuten guztia. Hau da, haien legeak betetzeko, baina haien erredua ez segitzeko.

Hirugarren pasarte Jn. 21, 16 da: Zaindu nire ardiak. Hau ez da legeak egiteko boterea, irakasteko agindua baizik. Legeak egitea etxeko jaunari dagokio, honek egoki deritzon moduan aukeratzen dituelarik kaperaua eta bere seme-alabentzako eskolamaisua.

Laugarren pasarteari dagokionez (Jn. 20, 21), beraren kontra dago. Hitzak dira: Aitak bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet. Baina gure Salbatzailea bere heriotzaz sinesten zutenak berrerostera bidalia izan zen, eta bere predikuaz eta bere apostoluenaz haiek bere erresuman sartzeko prestatzera; eta erresuma horri buruz dio ez dela mundu honetakoa eta gero hura etor zekigun otoitz egiten irakatsi zigun, nahiz eta apostoluei ez zien esan nahi izan (Eg. 1, 6-7) noiz etorriko zen. Eta erresuma hau datorrenean, hamabi apostoluak hamabi tronutan jarriko dira (hamabiak agian San Pedrorena bezain garaiak)

Israelgo hamabi leinuak epaitzeko. Ikusirik, bada, Aita Jainkoak ez zuela gure Salbatzailea mundu honetan legeak egitera bidali, testutik ondorio hauxe atera genezake, hots, gure Salbatzaileak ere ez zuela San Pedro hemen legeak egitera bidali, gizakumeak konbentzitzera baizik, lehenik, fede erabakitsuz haren bigarren etorreraren zain egon zitezen, eta, hura etorri bitartean, meneko izanez gero, beren printzei obedi ziezaieten eta, printze izanez gero, berek ere horixe berori sinets zezaten eta eginahalak egin zitzaaten beren menekoei ere gauza bera sinets zezaten, hau apezpikuaren eginkizuna delarik. Pasarte hau, beraz, subiranotasun zibila eta eliz nagusigoa batzearen aldeko argudio indartsua dugu, eta Bellarminok hura alegatuz frogatu nahi zuenaren kontrakoa.

Bosgarren pasarte Eg. 15, 28 da: Ongi iritzi diogu Izpiritu Santuak eta guk zuei zamarik ez ezartzeari, beharrezko diren hauek izan ezik: ez dezazuela jan sasiainkoei eskainitako haragirik, ezta odolik nahiz odolustu gabeko abererik ere, eta utz ditzazuela legearen kontrako sexu-harremanak. Hemen ohartarazten du zamak ezartzea legegintzako botereari dagokiola. Baina nork esan dezake, testu hori irakurri ondoren, Apostoluen estilo hau ez dela aholkuak ematean legeak egitean bezain egoki erabiltzen den horietakoa? Legerako estiloa agintzen dugu da. Baina ongi iritzi diogu aholkua eman besterik egiten ez dutenen estiloa da; eta aholku moduan zama ezartzen dute, baina baldintzazkoa da, hau da, aholkua jasotzen dutenek helburua erdietsi nahi badute; eta zama, kasu honetan, itoriko animaliarik eta odolik ez jatea da, ez absolutuki, baizik erratu gura ez badute. Aurrerago (25. kapitulu) azaldu dugu legea honako honetan bereizten dela aholkutik: legeak egiten duenaren asmo eta onuratik hartzen duela arrazoa, eta aholkuak, oster, aholkua jasotzen duenaren asmo eta onuratik. Baina hemen apostoluek kristauturiko jentilen onura, hots, haien salbazioa beste xederik ez dute, ez baitzuten berentzako onurarik bilatzen; izan ere, beren eginbeharra bete zutelarik, izango dute beren saria, kristautuek haien esanak bete nahiz bete ez. Eta, beraz, Kontzilio honetako erabakiak ez ziren legeak izan, aholkuak baizik.

Seigarren pasarte Erm. 13 da: Gizaki orok izan behar du ezarritako agintarien menpeko, ez baita aginterik Jainkoarengandik ez denik; hau, dio Bellarminok, printze sekularrei ezezik, eliz pintzei ere aplikatu behar zaie. Honi erantzunez esan behar dut, lehenik, ez dagoela subirano zibilak ere badirenak beste eliz printzerik, eta beren printze eskubideak ez doaz beren subiranotasun zibilaren mugetatik harago; muga horiez handik daudenak doktoretzat har daitezke, baina ez printzetzat. Izan ere, San Paulok esan nahi izan baligu geure printzeen eta baita Aita Santuaren menpean ere egon beharra dugula, Kristok berak ezinezko zela esan zigun doktrina irakatsi zigukeen, hau da, bi ugazabaren otsein izan behar dugula. Eta, nahiz eta Apostoluak beste pasarte batean -2 Ko. 13, 10- dioskun: Zuengandik urrun nagoelarik idazten dizuet hau, gero, zuekin egongo naizenean, zorrotz ari izan beharrik izan ez dezadan, Jainkoak eman didan aginpidearekin; horrek ez du esan nahi beretzat galdatzen zuenik haietako inor herio-zigorrera kondenatzeko, gartzelaratzeko, erbesteratzeko, zehatzeko edo isunik jartzeko botererik, zigorrak diren ekintzak guztiok; galdatzen zuen bakarrik eskomikatzeko boterea zen, eta hau, botere zibilik gabe, haiengandik urruntzea eta haiekin jentilekin eta publikarekin baino harreman gehiagorik ez izatea besterik ez da, sarriaskotan honek eskomikatzailari eskomikatuari baino sufrimendu gehiago ekar liezaiokeelarik.

Zazpigarren pasarte 1 Ko. 4, 21 da: Zer nahi duzue? Ni zuengana zigorrarekin joatea ala maitasunez eta goxotasunez? Baina hemen ere zigor hitzaz adierazi nahi dena ez da lege-hausleak zigortzeko magistratu baten boterea, eskomikatzeko botere hutsa baizik, hau ez delarik berez zigorra, baizik Kristok, judizio egunean bere erresumaren jabe dela ezarriko duen zigorraren iragarpen hutsa. Eta orduan ere ez da zigor-zigorra izango, legea hautsi duen menekoari ezartzen zaion modukoa, mendekua baizik, gure Salbatzaileari bere erregetzarako eskubidea ukatzen dion etsai edo matxinoari ezartzen zaiona bezalakoa. Eta, horregatik, honek ez du frogatzen botere zibila ere ez duen ezein apezpikuren legegiteko botererik.

Zortzigarren pasarte 1 Tm. 3, 2 da: Apezpikuak behin bakarrik ezkondua izan behar du, zuhur, neurritsu..., Bellarminok dioenez, gomendio hau lege delarik. Nik uste nuen Elizan, Elizaren monarkak, hau da, San Pedrok izan ezik, inork ez zuela legerik egiterik. Baina jo dezagun agindu hau San Pedrok eman zuela, eta, hala ere, ez dakust honi lege, eta ez gomendio, esateko arrazoirik, kontuan hartuz Timoteo ez zela San Pauloren meneko, ikasle baizik, ezta haren ardurapeko ardiak erresumako menekoak ere, Kristoren Eskolako ikasleak baizik. San Paulok Timoteori emaniko agindu guztiak lege balira, zergatik ez da lege beste hura ere: Aurrerantzean, ez ezazu ur hutsik edan, ardo apur batekin baino zeure osasunagatik? Eta zergatik ez dira lege mediku onen aginduak ere? Baina ez da aginduzko hizkera aginduak lege bihurtzen dituen, pertsona bati zor zaion erabateko menekotasuna baizik.

Aurrekoen antzera, bederatzigarren pasarte ere (1 Tm. 5, 19): Ez hartu zahar baten aurkako salaketarik, bi edo hiru lekukoren aitopenez ez bada, agindu zuhur bat da, baina ez legea.

Hamargarren pasarte Lk. 10, 16 da: Zuei entzuten dizuenak niri entzuten dit, eta zuek ezesten zaituztenak neu ezesten nau. Eta ez dago dudarik Kristok bidalitakoen aholkua ezesten duenak Kristoren beraren aholkua ezesten duela. Baina nortzuk dira Kristok bidaliak, legeko autoritatez artzain ordenatuak besterik? Eta nortzuk dira lege ordenatuak, artzain subiranoak ordenatuak besterik? Eta nor da Estatu kristau batean artzain subiranoak ordenatua, hango subiranoaren autoritatez ordenatua besterik? Pasarte

honetatik, beraz, zera ateratzen da: kristau den bere subiranoari entzuten dionak Kristori entzuten diola; eta kristau den bere erregeak baimentzen duen doktrina ezesten duenak Kristoren doktrina ezesten duela. Eta hau ez da hemen Bellarminok frogatu nahi duena, hain zuzen haren kontrakoa baizik. Baina honek guztionek ez du legetik ezer. Are, errege kristau batek, artzain eta maisu denez, ez du hemendik ateratzerik bere doktrinak lege bihurtzeko indarrik. Ez du gizakumeak sinestera behartzeko ahalmenik, nahiz eta baduen, subirano zibil denez, bere doktrinarekin bateragarri diren legeak egiteko eskubidea, honek agian gizakumeak zenbait ekintza egitera behartuko dituelarik; eta zenbaitetan agian, bestela egingo ez luketen, eta hark agindu behar ez lukeen gauzarik egitera ere behartuko ditu; baina, hala ere, menekoei zerbait aginduz gero, agindua lege da; eta lege hori betetzeko barne-onespenik gabe egiten diren kanpo-ekintzak, subiranoaren ekintzak dira, eta ez menekoarenak, hau, kasu horretan, tresna besterik ez delarik, bere baitako inolako mugimenik gabekoa, Jainkoak agindu diolako haiei obeditzea. Hamaikagarrena, Apostoluak aholkatzeko erabili eta gizakumeak agindutzat hartu ohi dituzten hitzak dakartzaten pasarte guztiak dira, edo obediartzaren izenean betetzeko eskatzen dien aholkuak dakartzatenak. Era horretan, aipatzen du 1 Ko. 11, 2: Nire aginduak eman nizkizuen bezala betetzen dituzuenek gero, goratu egiten zaituztet. Grekoz dio: Eman nizkizuen gauzak, neuk eman bezala, betetzen dituzuelako, goratu egiten zaituztet. Hau, legeak edo horrelakoak, aholku onak baizik, zirela adieraztetik urrun dago. Orobat, 1 Tes. 4, 2 ere: Badakizue nolako aginduak eman genizkizuen; hemen grekozko esamoldea paraggeliva" ejdwvkamen da, paredwvkamen-en baliokidea -entregatu genizkizuen, aurreko pasartean bezala-, honek ez duelarik frogatzen Apostoluen tradizioak aholkuak zirela besterik, 8. bertsetean zera esaten bada ere: haiek gutxiesten dituenak ez du gizakia gutxiesten, Jainkoa baizik. Izan ere, gure Salbatzailea bera ere ez zen epaitzera, hau da, mundu honetako errege izatera etorri, baizik bekariengatik bere burua eskaintzera eta bere Elizako doktoreen esku uztera Kristoren bidea gizakiei irakastea, eta ez Kristorengana eramatea, Kristok ez baitu onartzen derrigorrezko ekintzarik (legeak eragiten duenik), bihotzaren barru-barruko konbertsioa baizik; eta hau ez da legeen lana, aholku eta doktrinarena baizik.

Eta 2 Tes. 3, 14 testutik ere: Eta norbaitek gutun honetan guk esanari jaramonik egiten ez badio, jar ezazue nabarian halakoa eta ez izan harremanik berarekin, ea lotsatzen den, Bellarminok inferitzen du Epistola hori lege zela Tesalonikarrentzat. Enperadoreen gutunak lege ziren, dudarik gabe. San Pauloren Epistola ere lege balitz, orduan bi ugazabari obeditu beharra zuket. Baina obeditu hitzak, grekoz  $\nu\alpha\kappa\omicron\nu\alpha$ , zigortzeko ahalmena duenak agindurikoari ezezik, gure onerako aholku moduan esandakoari ere arreta eman edo gauzatu esan nahi du. Beraz, San Paulo ez da ari desobeditzen duenari herio-zigorra ezartzeaz, ez zehatzeaz, ez kartzelaratzaz edo isuna jartzeaz, legeginek egin dezaketen moduan, baizik kristauak ohartarazten haren lagunartetik aparta daitezen, hura lotsa-lotsa eginik gera dadin. Eta hemendik begibistakoa da kristauak apostoluaren agintearen beldur barik, hark fededunen artean zuen itzalaren beldur zirela.

Azken pasarte Hebr. 13, 17 da: Egin zeuen zuzendarien esanak eta izan horien menpeko, zuetaz arduratzen baitira eta zuen kontu eman beharko baitiote Jainkoari. Eta hemen ere obediartzaz, haien aholkua betetzea esan nahi da. Izan ere, gure men egiteko arrazoiak ez dator gure artzainen nahizate edo agindutik, gure geure onuratik baizik, haiek nahi dutena gure arimen salbazioa baita, eta ez beren botere eta agintea goratzea. Pasarte horretan esan nahi balitz irakasten diguten gauza guztiak legeak direla, orduan Aita Santuak ezezik, artzain bakoitzak ere bere parrokiari legeak egiteko boterea luke. Gainera, beren artzainei obeditzera beharturik daudenek ez dute haien aginduak aztertzeke ahalmenik. Zer esango diogu, orduan, San Joani ohartarazten digunean (1 Jn. 4, 1) ez fidatzeko edozeinekin, eta aztertzeke lehenengo Jainkoarengandik datorren ala ez, munduan sasiprofeta asko sortu delako? Argi dago, beraz, gure artzainen doktrina eztabaida dezakegula, baina inork ere ez duela, ordea, legerik ezatabaidatzerik. Subirano zibilen aginduak lege dira alderdi guztietatik; harez gain besteren batek ere legeak egiterik balu, Estatu oro suntsituko litzateke eta, ondorioz, baita bake eta justizia oro ere. Eta hau lege ororen kontrakoa da, hala giza nola jainko-legearen kontrakoa. Ezertxo ere ez daiteke aipatu pasarteotatik, ez Idazteuneko beste ezeinetik, Aita Santuaren dekretuak, hark subiranotasun zibilik ez duen tokian, lege direla frogatzeko.

Frogatu nahi duen azken puntua hau da, Kristo gure Salbatzaileak arartegabeko eliz eskumenik Aita Santuari besterik ez diola eman. Puntu horretan ez da ari Aita Santuaren eta errege kristauen arteko nagusiagoaren auziaz, Aita Santuaren eta beste apezpikuen artekoaz baizik. Eta dio, lehenik, denak datozela bat apezpikuen eskumena, orokorki bederen, de jure divino, hots, jainkozko zuzenbidezkoa dela baieztean; eta hori frogatzeko Ef. 4,11 pasarte dakar, non San Paulok dioen Kristok, zeruetara igo ondoren, batzuk apostolu, beste batzuk profeta, batzuk Berrionaren zabaltzaile, beste batzuk artzain eta irakasle jarri zituela; eta hemendik inferitzen du Bellarminok aipaturiko guztiek jainkozko zuzenbidez dutela eskumena, baina ez du onartzen Jainkoarengandik zuzenean hartua dutenik, Aita Santuaren bitartez baizik. Baina, norbaitek eskumena de jure divino baina ez arartekorik gabe duela esaterik bada, zein eskumen dago, nahiz eta zibila izan, Estatu kristau batean de jure divino ez dena? Izan ere, errege

kristauek beren botere zibila Jainkoarengandik arartekorik gabe dute hartua; eta haren menpeko magistratuek nork bere kargua haren eskuespenez egikaritzen dute. Egiten duten guztia, beraz, de jure divino mediato da, eta honetan ez gutxiago apezpikuek, Aita Santuaren ordenazioaren indarrez, egiten dutena baino. Legezko botere oro Jainkoarengandik etorria da, arartekorik gabe gobernari gorenaren kasuan eta arartekoz haren menpean agintea duten guztien kasuan. Horregatik, Bellarminok onartu beharra du Estatuko funtzionari orok jainkozko zuzenbidez duela bere kargua, ala apezpikuek, Aita Santuak ezik, berena jainkozko zuzenbidez dutela ukatu egin behar du.

Baina, Kristok eskumena Aita Santuari bakarrik ala beste apezpikuei ere eman ote zien garbitu nahian egindako eztabaidok, Aita Santuak subiranotasun zibilik ez duen tokietara aplikatuz gero, de lana caprina deritzen auzi-mauziak dira; haietako inork ere ez baitu (subirano ez diren tokietan) inolako eskumenik. Izan ere, eskumena gizakumeak gizakumearekin dituen auziak entzun eta ebazteko boterea baita, eta zuzen eta oker denaren arauak agintzekoa, hau da, legeak egiteko eta justiziaren ezpataz bere ebazpenak obeditzera behartzeko boterea duenari besteri ez baitagokio, nahiz berak nahiz horretarako berak izendaturiko epaileek emanak izan ebazpenok. Eta hau subirano zibilak bestek ez dezake egin.

Horregatik Bellarminok, Lukasen 6. kapituluari oinarriturik, gure Salbatzaileak bere ikasleak bildu eta haietatik apostolu izena eman zien hamabi aukeratu zituela alegatzen duenean, gure Salbatzaileak guztiak (Matias, Paulo eta Bernabe ezik) aukeratu zituela eta irakasteko boterea eman ziela frogatzen du, baina ez du frogatzen gizakumeak gizakumearekin dituen auziak juzgatzeko botererik eman zienik, izan ere, hark berak ere ez baitzuen beretzat hartu nahi izan botere hori, esanez: Nork egin nau ni zuen artean epaile edo banatzaile? Eta beste pasarte batean: Nire erreinua ez da mundu honetakoa. Baina gizakumeak gizakumearekin dituen auziak entzun eta ebazteko botererik ez duenak eskumenik, inolakorik, duenik esaterik ez dago. Eta, hala ere, honek ez du eragozten baiezte gure Salbatzaileak apostoluei mundu guztian predikatu eta bataiatzeko boterea eman ziela, beti ere toki horietako subiranoek debekatu ezean; zeren Kristok berak eta apostoluek ere, pasarte askotan, beren-beregi agindu baitigute geure subiranoei obeditzeko edozertan.

Apezpikuek eskumena Aita Santuarengandik hartzen dutela frogatu nahian Bellarminok darabiltzan argudioak -kontuan harturik Aita Santuak berak ere beste printzeen manupeko lurraldeetan eskumenik ez duela- alferrekoak dira guztiak. Hala ere, argudio horiek hain zuzen ere kontrakoa frogatzen dutenez gero, hau da, apezpikuek, eskumenik dutenean, beren subirano zibilengandik hartua dutela, ez ditut aipatu gabe utziko.

Lehena Zenbakien 11. kapitulutik hartua da, non Moisesi, Israel herriaren aferak administratzeak zekarkion zama guztiari eusteko gai ez zelarik, Jainkoak hirurogeita hamar zahar aukeratzeko agindu zion, eta Moisesen izpirituaren zati bat hartu eta hirurogeita hamar haiei ezarri zien. Ekintza honetan ez da ulertu behar Jainkoak Moisesen izpiritua ahuldu zuenik, honek ez baitzuen haren zama arinduko, beste guztiek agintea harengandik hartu zutela baizik, honetan interpretazio zorrotz eta egiazkoa egiten diolarik pasarte honi. Baina kontuan harturik Moisesek subiranotasun osoa zuela judu-estatuan, bistan da pasarte honek esan nahi duena hirurogeita hamarrek subirano zibilarengandik hartu zutela beren autoritatea. Eta, beraz, pasarte honek zera frogatzen du, kristau Estatu orotan apezpikuek subirano zibilarengandik hartzen dutela beren autoritatea; eta Aita Santuarengandik, haren lurraldeetan soilik, eta ez beste ezein Estatuko lurraldetan.

Bigarren argudioa monarkiaren izaeratik ateratzen du; hemen autoritate osoa gizakume batengan dago, eta besteei harengandik datorkie. Baina Elizaren gobernamentua, dio Bellarminok, monarkikoa da. Honek monarka kristautentzat ere balio du, izan ere horiek beren herriaren monarkak baitira, hau da, beren Elizarenak, Eliza eta herri kristaua gauza bera dira eta. Aita Santuaren botereak, ordea, San Pedrorena izan arren ere, ez du arkikotik, ez kratikotik ezer, didaktikotik baizik, Jainkoak ez baitu onartzen, onartu ere, derrigorrezko obedientziarik, nahitakoa baizik.

Hirugarren argudioa, San Pedroren aulkiari San Ziprianok apezpikuen autoritatearen sorburu den buru, iturri, sustrai, eguzki deitu izanean oinarritzen da. Baina naturako legez, zuzena okerretik bereizteko gizakume hutsa besterik ez den ezein doktoreren hitza baino printzipio hobea berau, subirano zibila da eskumen ororen sorburu den buru, iturri, sustrai, eguzki. Eta, beraz, apezpikuen eskumena subirano zibilarengandik dator.

Laugarren argudioa haien eskumen ezberdinetatik ateratzen du. Baldin Jainkoak, dio hark, eskumena arartekorik gabe eman balie, eskumen hori denengan berdina zatekeen, harturiko ordena bezala. Baina ikusten dugu batzuk hiri bakar bateko apezpiku direla, beste batzuk ehundaka hiritakoak eta beste batzuk probintzia oso askotakoak. Eta aldeok Jainkoaren aginduz erabakiak ez direnez gero, haien eskumena ez dator Jainkoarengandik, gizakiarengandik baizik. Eta, horrela, batek besteak baino eskumen handiagoa du, Elizako Printzearen nahiaren arabera. Argudio honek, baldin Bellarminok aurretik frogatu izan balu Aita Santuak eskumen unibertsala duela kristau guztiengan, balio ziokeen bere helbururako. Baina ikusirik hau ez dela frogatu eta, oso jakina denez, Aita Santuak duen eskumen itzela eskumen hori zutenek eman ziotela, hau da, Erromako enperadoreek (Konstantinoplako Patriarkak ere, titulu beraren

indarrez, hau da, Inperioaren hiriburu eta enperadorearen hiriko apezpiku izateagatik, haren berdina izatea galdatzen baitzuen), ondorioz atera beharra dago beste apezpikuek ere eskumen hori darabilten hiriko subiranoengandik hartzen dutela. Eta horrexegatik haien autoritatea ez da de jure divino; eta Aita Santuarena ere ez da de jure divino, subirano zibil ere baden tokian izan ezik.

Haren bosgarren argudioa hauxe da: apezpikuek beren eskumena arartekorik gabe Jainkoarengandik hartuko balute, Aita Santuak ezingo liekete kendu, hark ezin duelako egin Jainkoak agindutakoaren kontra doan ezer. Eta ondorio hau zuzena eta ongi frogatua da. Baina, dio Belarminok, Aita Santuak bai ken diezaiekeela, eta kendu ere egin diela. Hau egia da, baldin bere manupeko lurralde barruan edo botere hori eman dion printzeren baten manupeko lurraldean egiten badu; baina ez unibertsalki Aita Santutzaren eskubidez. Izan ere, botere hori subirano kristau orori dagokio nori bere inperioaren esparruan. Israelgo herriak (Jainkoak Samueli emandako aginduz) beste nazioen antzera bere agintari erregea jarri baino lehen, Apaiz Nagusiak berea zuen gobernamentu zibila, eta berak ezik inork ez zuen beheragoko apaizik egiterik ez kentzerik. Baina botere hau gero erregeak izan zuen, Bellarminoren argudio beronen bidez frogatzen moduan. Izan ere, baldin apaizak, naiz Apaiz Nagusiak naiz beheragoko batek, bere eskumena arartekorik gabe Jainkoarengandik hartu izan balu, orduan erregeak ez zukeen hari eskumen hori kentzerik, ez baitzukeen ezer egiterik Jainkoak agindutakoaren aurka. Baina egia da Salomon erregeak (1 Erg. 2, 26) Abiatar Apaiz Nagusia bere kargutik kendu zuela, eta haren lekuan Zadok jarri zuela (35. ber.). Beraz, erregeek, era beretsuan, apezpikuak ordenatu eta kargutik kentzeko ahalmena dute, menekoak ongi gobernatzeko egokien deritzen eran.

Haren seigarren argudioa hauxe da: baldin apezpikuek beren eskumena de jure divino (hau da, zuzenean Jainkoarengandik) badute, hori aldeztu dutenek Jainkoaren hitza ekarri beharko lukete nonbaitetik hori frogatzeko. Baina ezin dute inondikorik erakutsi. Argudioa ona da; ez dut ezer beraren kontra. Baina ez da argudio eskasagoa, Aita Santuak berak ere beste printze baten manupeko lurraldean eskumenik ez duela frogatzeko.

Azkenik, bi Aita Santuren, Leon eta Inozentzioren, testigantza dakar argudiotzat; eta ez dut dudarik ia San Pedorengandik honako Aita Santu guztien testigantza ere ekar zezakeela arrazoi beraz. Izan ere, kontuan harturik botere egarria giza izaeran berez erroturik dagoela, Aita Santu eginiko bakoitza iritzi horretxeri eusten saiatu bide zen. Baina, ezingo zuten egin Inozentzio eta Leonek egin zutena baino gehiago: beren buruen testigantza eman, eta beraz, testigantza baliogabea.

Bosgarren liburuak lau ondorio ditu. Lehenengoa: Aita Santua ez dela mundu guztiko jauna; bigarrena: Aita Santua ez dela mundu kristau guztiko jauna; hirugarrena: Aita Santuak (berea duen lurralderik ez badu) ez duela inolako eskumen mundutarrik ZUZENEAN. Hiru ondoriook erraz onar daitezke. Laugarrena zera da, Aita Santuak beste printze baten manupeko lurraldean botere mundutar gorena duela ZEHARKA, eta hau ukatu egiten diot, zeharka dioenean, Bellarminok zera esan nahi ez badu bederen, Aita Santuak botere hori zeharkako bitartekoz bereganatu duela, kasu honetan haren konklusioa onargarria delarik. Baina nik ulertzen dut, hark dioenean Aita Santuak zeharka duela botere hori, esan nahi duena zera dela, eskumen mundutar hori eskubidez dagokiola, baina eskubide hau haren aginte pastoralaren ondorio besterik ez dela, hau ezingo lukeelarik erabili bestea ere honekin batera ukan ezean; eta, beraz, hark izpirituala esaten dion botere pastoralari nahitaez datzeko botere zibil gorena. Eta horregatik, erresumak aldatzeko boterea du, bati eman eta besteari kenduz, arimen salbaziora daraman bidea dela deritzon.

Bellarminok doktrina hori frogatu nahirik darabiltzan argudioak aztertzen hasi aurretik, ez da gaizki etorriko haren ondorioak argi eta garbi jartzea. Nork bere manupeko lurraldean subiranotasun zibila duten printze eta Estatuak pentsa dezatela beren kabuz ea berentzat komenigarri eta beren menekoen onerako den -horrixek buruz kontu eman beharko baitute judizio egunean- doktrina hori onartzea.

Aita Santuak (inoren lurraldean) ez duela zuzenean botere zibil gorena esaten denean, zera ulertu behar da: botere hori ez duela galdatzen, beste Subirano zibilek bezala, gobernatu beharrekoen jatorrizko menekotasunean oinarrituz. Izan ere bistakoa da, Tratatu honetan jada aski frogaturik geratu den bezala, subirano zibil guztien eskubidea, gobernatu beharreko guztien baiespenetik datorrela jatorriz. Eta hau horrela da, hala beren subiranoa aukeratzen dutenek etsaiarengandik defentsa komuna lortzeko egiten badute, nola babestuko dituen gizabanako bat edo batzar bat izendatzeko beren artean ados jartzen badira, eta orobat, beren bizia salbatzeko, azpiratu dituen etsaiaren menpean jartzen badira ere. Beraz, Aita Santuak beste Estatuaren gaineko botere zibil gorena zuzenean galdatzen ez duenean, bere eskubidea era horretara ez datorkiola besterik ez du ukatzen; baina hargatik ez da beste era batera boterea galdatu gabe geratzen; eta era berri hau zera da, gobernatuak izan behar dutenen baiespenik gabe eskubide hori Jainkoarengandik hartu izana, Aita Santutzara heltzean Jainkoak zeharka (berak dioen moduan) eman omen ziolako. Baina bide batetik edo bestetik galdatu, boterea bera da, eta, berea duela eskubide hori ziurtatuz gero, printzeak eta Estatuak kendu ahal izango ditu arimen salbaziorako den guztian, hau da, berak nahi duen guztian, zeren erabaki hori gizakumeen arimak salbatzeko beharrezko datekeen ala ez datekeen juzgatzeko boterea ere beretzat eta beretzat bakarrik galdatzen baitu. Eta hauxe da, Bellarminok

hemen eta doktore askok beren prediku eta liburuetan irakasten duten doktrina ezezik, Kontzilio batzuek dekretatu duten eta Aita Santuek haiekin ados, egokierarik izan dutenean, praktikara eraman dutena ere. Izan ere, Laterango laugarren Kontzilioak, Inozentzio III Aita Santua buru zela bildu zenak, De Haereticis hirugarren kapituluak kanon hauxe du: Baldin erregeren batek, Aita Santuak ohartarazi ondoren, bere erresuma hereserik gabe garbi utzi ez, eta, horregatik eskomikatua izanik, urte beteko epean bete ez badeza, haren menekoak hari obeditzetik aske geratuko dira. Eta hainbat alditan ikusi da arau hau praktikan jartzen; esate baterako, Txilperiko Frantziako erregea kendu zutenean, Erromatar Inperioa Karlomagnori transferitu zitzaionean, Ingalaterrako Joan erregea erori zenean; Nafarroako erreinuaren transferentzian, eta, oraintsuko aldian, Frantziako Enrike III.aren kontrako Ligan, eta beste kasu askotan. Uste dut gutxi izango direla hori injustu eta desagokitzat hartzen ez duten printzeak; baina errege ala meneko izatea guztiok erabaki lezaten nahi nuke. Gizakumeek ezin diote bi ugazabari zerbitzatu. Horregatik erregeek oztopo hori kentzen lagundu behar liekete, edo gobernamentuaren hedeak erabat beren eskuetan hartuz, ala hedeok erabat Aita Santuaren eskuetan utziz. Horretara, esaneko izan nahi dutenak beren obediencia babesturik aurkituko dira. Izan ere, botere mundutar eta botere izpiritualaren arteko bereizpenak hitz huts dira. Boterea, era berean, benetan eta arriskugarriro banaturik geratzen da, zeharkako nahiz zuzeneko beste botereren batekin erdibanatzen denean. Baina azter ditzagun orain haren argudioak.

Lehenengoa hauxe da: Botere zibila botere izpiritualaren menpean dago; horregatik, botere izpiritual gorenaren duenak printze mundutarrei agintzeko eta haien gauza mundutarrak izpiritualen menpean jartzeko eskubidea du. Botere mundutar eta izpiritualaren arteko bereizpenari dagokionez, azter dezagun zein adieratan esan daitekeen, ulertzeko moduan, botere mundutar edo zibila izpiritualaren menpean dagoela. Bi era besterik ez dago, hitz horiek zentzua izan dezaten. Izan ere, botere bata bestearen menpean dagoela esaten dugunean, horren esangurak izan behar du, edo bata duena bestea duenaren menpean dagoela, edo botere bata bestearekiko, bitartekoak helburuarekiko direna dela. Izan ere, ulertezina da botere bata bestearen gain boterea izatea, edo botere bata bestearen gain eskubidea edo agintea izatea, menekotasuna, agintea, eskubidea eta boterea, botereen akzidenteak barik, pertsonenak dira eta. Botere bat beste baten menpean izan daiteke, zelagilearen antzea zaldizkoaren antzearen menpean dagoen moduan. Orduan, baldin gobernamendu zibila guri zorion izpirituala ekartzeko bitarteko bat dela joz gero ere, hortik ez dator erregeak botere zibila eta Aita Santuak izpirituala daukalako erregea Aita Santuari obeditzera beharturik dagoenik, zelagilea zaldizkoari obeditzera beharturik dagoen baino neurri handiagoan. Horregatik antzearen menpekotasunetik, antze hori duenaren menekotasunetik inferi ez daitekeen moduan, gobernamenduaren menpekotasunetik ere ezin daiteke gobernatzailearen menekotasunetik inferitu. Beraz, Bellarminok dioenean botere zibila izpiritualaren menpean dagoela, subirano zibila subirano izpiritualaren menpean dagoela esan nahi du. Eta haren argudioa honelaxe geratzen da: Subirano zibila subirano izpiritualaren menpean dago; beraz, printze izpiritualak agindu egin diezaieke printze zibilei. Hemen ondorioa, frogatu behar zuen aurretikoa bera da. Baina frogatzeko, lehenik, arrazoi hauxe jartzen du: Erregeak eta Aita Santuek, kleroak eta sekularrek Estatu bakar bat osatzen dute, hau da, Eliza bakar bat; eta gorputz guztietan atalak bata bestearen menpean daude. Baina gauza izpiritualak ez daude gauza mundutarren menpean. Beraz, mundutarrak izpiritualen menpean daude, eta, beraz, mundutarrak izpiritualen menpekoak dira. Argudiaketa honetan bi errakuntza lodi daude: bata, errege kristau guztiak, Aita Santuak, kleroak eta beste kristau guztiak Estatu bakar bat osatzen dutela esatea da. Izan ere, bistakoa da Espainia Estatu bat dela, Frantzia beste bat, Venezia beste bat e.a. Eta kristauak osatzen dituzte, eta honek esan nahi du hainbat kristau-gorputz, hau da, hainbat Eliza daudela. Eta beren subiranoek ordezkatzeko dituzte, eta horregatik agintzeko eta obeditzeko, egiteko eta jasateko gai dira, gizakume naturala bezalaxe. Eta hori ezin du egin Eliza unibertsal edo orokorrak, lurrian ordezkariak ez duen artean, eta ez du. Balu, ukan, dudarik gabe, kristauteria guztiak Estatu bakarra osatuko luke, bere subiranoa ordezkari lukeelarik hala gai izpiritualetan nola mundutarretan. Eta Aita Santuari, ordezkari hori izatera heltzeko, hiru gauza falta zaizkio, gure Salbatzaileak eman ez dizkionak: agintzeko, epaitzeko eta zigortzeko ahalmena -ez bada berarengandik ikasi nahi ez dutenengandik alde eginez, eskomikuaren bidez. Izan ere, Aita Santuak, Kristoren ordeko bakarra balitz ere, ezingo luke gobernatu gure Salbatzailearen bigarren etorrerara arte. Eta orduan ere ez da Aita Santua, San Pedro bera baizik, beste apostoluekin batera, munduaren epaile izango direnak.

Haren lehenengo argudioko bigarren errakuntza Estatu orotako kideak, gorputz naturalaren atalak bezalaxe, bata bestearen menpeko direla. Egia da haien artean badela halako koherentzia bat; baina subiranoaren besteren menpeko ez dira, bera baita Estatuaren arima. Eta arimak huts eginez gero, Estatua gerra zibilean desagiten da, eta ez dago gizakumeen artean bata bestearekiko koherentziarik, subirano jakinarekiko menpetasun komuna falta delako, hain zuzen ere gorputz naturalaren atalak lurrian desagiten diren bezalaxe, baturik eutsiko dien arima falta zaielako. Ez dago, beraz, konparazio honetan ezertxo ere, sekularrak kleroaren menpean, edo funtzionari mundutarrak izpiritualen menpean dauden ondorioa inor eramateko. Batzuk eta besteak subirano zibilaren menpean daude, hark, noski, bere agindu zibilak arimen



salbaziora bideratu behar dituelarik, baina Jainkoaren menpean ezik, beste inoren menpean ez dagoelarik. Eta, horrela, argi ikusten dugu lehenengo argudio honen zimarku landua; izan ere, argudio honek gizakumeak engainatu eta ekintzek helburuarekiko duten menpetasuna, pertsonen bitartekoen administrazioan duten elkarrekiko menekotasunetik ez bereiztera daramatza. Zeren helburu bakoitzerako bitartekoak naturak zehazten ditu edo Jainkoak berak, modu supernaturalez; baina gizakumeei bitartekoak erabilarazteko boterea, nazio bakoitzean subirano zibilarri dagokio (gizakumeei emandako hitza jatea debekatzen dien naturako legeez).

Haren bigarren argudioa hauxe da: Estatu orok (berez perfektu eta buruaski dela suposatzen delako) bere menpeko ez den edozein Estaturi agin diezaioke eta haren gobernu administrazioa aldatzera behar dezake; eta are printzea bere kargutik ken eta haren ordeztu beste bat jar dezake, baldin hark egin diezaiokeen gaitzetik bere burua bestela defendatzeko modurik ez badu. Eta hori horrela bada, askoz arrazoi handiagoz ahal izango du Estatu izpiritual batek beste mundutar bati gobernu administrazioa aldatzeko agindu, printzeak kentzeko ahalmena ere baduelarik, on izpirituala defendatzeko beste modurik ez duenean.

Estatu batek, zuzengabekerieta bere burua defendatzeko, Bellarminok hemen dioen guztia egin dezakeela, legeez, egia da; eta ongi demostraturik geratu da honaino esan dugunean. Eta era berean egia balitz mundu honetan badela Estatu zibiletik diferentea den Estatu izpiritualik ere, orduan Estatu horretako printzeak, zuzengabekeria jasan ondoren, edo gerora zuzengabekeriari egin ez dakion neurri moduan, gerrara jo lezake, egindako zuzengabekeria kitatzeko edo segurtasuna lortzeko; hau, azken batez, beste printzea agintetik kentzea, hiltzea, menperatzea, edo beste edozein etsaitasun-ekintza egitea da. Baina arrazoi beragatik subirano zibil batek ez luke legez kontrakoagoa, antzerako zuzengabekeriak jasanez gero, edo zuzengabekeriaren beldur izanez gero, subirano izpiritualari gerra egitea, hau, nik uste, Bellarmino Kardinalak bere proposizioetatik inferituko zuena baino gehiago delarik.

Baina mundu honetan ez dago Estatu izpiritualik, Estatu izpirituala eta Kristoren erreinua gauza bera baitira, eta Kristoren erreinua, berak esan bezala, ez da mundu honetakoa, beste munduan gauzatuko dena baizik, hau da, berbizkunde egunean, zuzentasunez bizi eta Hura Kristo dela sinetsi duten guztiak, beren gorputz naturala hil ziren arren, gorputz izpirituala berbizten direnean. Eta orduantxe epaituko du gure Salbatzaileak mundua eta konkistatuko ditu bere arerioak, eta ezarriko du Estatu izpirituala. Bitartean, ikusirik mundu honetan ez dela gorputz izpiritualdun gizakumerik, ez daiteke izan Estatu izpiritualik ere haragi eta hezurrezko gorputzetan bizi diren gizakumeen artean, gizakumeei, berbizkunde egunean Kristoren erreinuan hartuak izan daitezen, irakasteko eta prestatzeko eginkizuna duten predikariei Estatu deitu ezean bederen, frogatua dudalarik horiek ez dutela inolako Estaturik osatzen.

Hirugarren argudioa hauxe da: Ez zaie legezko kristauei errege sinesgabe eta hereserik jasatea, honek kristauak bere heresiara edo sinesgabetasunera eraman nahian badihardu. Baina errege batek bere menekoak heresiara eraman nahi dituen ala ez erabakitzea Aita Santuari dagokio. Beraz, Aita Santuak badu printzeren bat agintetik kendu behar den ala ez ebazteko eskubidea.

Nire erantzuna honi, baieztatu biok faltsuak direla da. Izan ere, kristauak (edo edozein erlijiotako gizakumeei) beren erregea jasaten ez badute -direnak direla honek egindako legeak, eta erlijioarekikoak izanik ere-, beren hitza jaten ari dira, Jainkoaren legeak, hala naturalak nola positiboak, agintzen duenaren aurka; eta menekoen artean ez dago non den eta non ez den heresia ebazteko gai denik, subirano zibila izan ezik. Heresia, izan ere, hauxe besterik ez baita: setakeriaz atxikiriko eta pertsona publikoak, hau da, Estatuaren ordezkariak, irakasteko agindu duen iritziaren kontrako iritzi pribatua. Hemendik argi ateratzen da publikoki irakats dadin agindu den iritzia ez daitekeela izan heretikoa; ezta ere hereseak iritziok irakasteko baimena eman duten printzeak: hereseak, beren legezko subiranoak debekatu duen doktrinaren bat setati defendatzen dutenak besterik ez baitira.

Baina, kristauak ez dutela errege sinesgabe edo hereserik jasan behar frogatzeko, Deuteronomioko pasarte bat (Dt. 17, 15) dakar. Pasarte horretan, Jainkoak juduei, berentzako erregea jartzean, arrotzik aukeratzea debekatzen die. Eta hemendik inferitzen du Bellarminok kristauei ezlegezko zaiela kristau ez den erregerik aukeratzea. Egia da, kristau denak, hau da, gure Salbatzailea datorrenean hura bere erregetzat hartzeko egin beharra bere buruari jarri dionak, gehiegi tentatuko duela Jainkoa, baldin mundu honetako erregetzat legeez eta persuasioz bere hitza jaten ahaleginduko den norbait aukeratzen badu. Baina Bellarminok dioena da arrisku bera dela erregetzat kristau ez dena aukeratzea eta jada aukeraturik dagoena ez kentzea. Honi buruz esan behar dut kontua ez dela ez kentzeak duen arriskua, kentzea zuzena den al ez baino. Aukeratzea zuzengabea dateke kasu askotan, baina jada aukeratua denean kentzea ez da inoiz ere zuzena, beti baita hitza jatea eta, beraz, Jainkoaren betiereko lege den naturako legearen kontrako. Eta, gainera, apostoluen garaian, edo Erromako enperadoreen garaian, Aita Santuek Erromako subiranotasun zibila berenganatu zuten arte, inon ere ez dugu horrelako doktrinarik irakurtzen. Honi Bellarminok erantzun dio antzinako kristauak ez Neron, ez Diokleziano, ez Juliano, ez Balente ariotarra ere, kendu ez bazuten, horretarako indar mundutarrik ez zutelako izan zela. Baliteke hori horrela izatea. Baina gure Salbatzaileak ere, hots egin besterik gabe aingeru hilezin eta zauriezinen hamabi legio ukan

zitzakeenak, indar falta izan ote zuen, bada, Kaiserra -edo, Hura injustuki, errurik aurkitu gabe, juduei gurutziltza zezaten entregatu zien Pilatos bederen- kargutik kentzeko? Edo, baldin apostoluek Neron kentzeko indar mundutarrik ez bazuten izan, beharrezko izan ote zuten beren Epistoletan kristau eginberriei irakastea, egin zuten bezala, beraien gainean ezarritako botereari (orduan Neron zelarik botere) obeditu behar ziotela, ez haren haserrearen beldurrez, kontzientziaz baizik, obeditu ere? Indarrik ez, eta obeditu zutela ezezik, nahi ez zutena irakatsi ere egin zutela esango al dugu? Ez da, beraz, indarrik eza, kontzientzia baizik, kristauak beren printze paganoak, edo erroreren bat irakastea baimentzen duten printzeak (doktrina publikoa duenari ezin baitiot herese deitu) jasan beharraren arrazoia. Eta Bellarminok Aita Santuaren boterearen alde dioen arren San Paulok (1 Ko. 6) garai hartako printze paganoen erregealdian, printzeok agindu gabe, epaileak izendatu zituela, hori ez da egia. Zeren, San Paulok haxe besterik ez baitzuen egin, hots, kristauak beren artetik zenbait gizakume aukeratzeko gomendatu, beren arteko gorabeherak konpontzeko, legera jo eta beren arteko auziak epaile paganoen aurrera eraman beharrean. Eta hau gomendio osasungarria eta karitatez betea da, Estatu kristauetan praktikan jartzeko ere era berean balio duena. Eta kristauak printze pagano edo erratua jasatea erlijioarentzat izan daitekeen arriskuari dagokionez, menekoak juzgatzeko gai ez diren puntua da. Eta gai badira, Aita Santuaren meneko mundutarrek ere juzga litzakete Aita Santuaren beraren doktrinak. Izan ere, printze kristau oro, gorago frogatu dudak bezala, bere menekoen artzain gorena da, Aita Santua bereena den bezelaxe.

Laugarren argudioa erregeen bataiotik hartua da; argudio honen arabera, beren zetroak Kristoren menpean jarri eta kristau fedea zaindu eta defendatzea hitzematzen dutenak egin daitezke kristau. Hori egia da, errege kristauak Kristoren meneko besterik ez dira; baina arrazoi beragatik Aita Santuaren kide ere izan daitezke, beren menekoen artzain gorenak baitira, eta Aita Santua, Erroman bertan ere, ez baita errege eta artzain baino gehiagorik.

Bosgarren argudioa, Kristok esandako hitz haietatik, hots, Bazka itzazu nire ardiak, ateratakoa da. Hitz horien bidez artzain izateko behar den botere guztia eman zuen Kristok: otsoak uxatzeko boterea, eta otsoak hereseak dira; ahariak giltzapean sartzeko boterea, baldin aztoratu edo ardiei adarka hasten bazaizkie, eta ahariak, errege gaiztoak dira (kristau izan arren); eta artaldeari bazka egokia emateko boterea. Hemendik Bellarminok inferitzen du San Pedrok aipatu hiru botereak izan zituela eta Kristok eman zizkiola.

Nik honi haxe esanez erantzuten diot, alegia, azkenengo boterea ez dela irakasteko boterea edo, hobeto esanik, agindua besterik. Lehenengoa oinarritzeko darabilen pasartea Mt. 7, 15 da: Kontuz sasiprofeekin. Ardi-larruz jantzirik badatozkizue ere, otso harrapari dira barrutik. Baina hereseak ez dira sasiprofeak, ezta inolako profeta ere. Eta, otsoez profetak adierazi nahi direla onarturik ere, apostoluei ez zitzaizkien agindu hil zitzaizkien, edo, errege izanez gero, erregetzatik ken zitzaizkien. Agindu zitzaizkien bakarria haiengandik begiratzeko eta alde egiteko izan zen; eta Kristok ez zion San Pedrori ez beste ezein apostoluri aholkatu profeta faltsuengandik begiratzeko, baizik Kristori mendira jarraitu zion judu-jendetzari, gehienak oraindik kristau-federatu gabeak zirelarik; eta horrek erregeei ihes eragiteko boterea emango balu, botere hau banako konkretuei bakarrik barik, kristau ez ziren gizakumei ere eman zitzaizkien. Eta aharri suminduak, Bellarminok dioenez Erromako artzainaren pean izan nahi ez duten erregeak adierazten dituztenak, apartatu eta giltzapean sartzeko botereari dagokionez, gure Salbatzaileak berak ere ez zuen nahi izan bere gain hartu mundu honetan botere hori; eta haren aholkua judizio egunera arte garia eta iraka batera hazten uzteko izan zen. Eta botere hori bere gain hartu ez bazuen, askoz gutxiago San Pedrori eman; eta are gutxiago, beraz, eman ziezaiekeen San Pedrok beste Aita Santuei. San Pedrori eta beste artzain guztiei zera eskatzen zaie: Elizari, hau da, subirano kristauari esanik egiten ez dioten kristauak pagano eta publikautzat hartzeko. Ikusirik, bada, gizakumeek onartzen dutela Aita Santuak ez duela printze paganoengan inolako aginpiderik, onartu beharko lukete, era berean, paganotzat hartuak direnengan ere inolakorik ez duela.

Baina irakasteko botere soiletik, Aita Santuak erregeen gain botere hertsatzailea ere bazuela deduzitu zuen. Artzainak, dio, bazka egokia eskaini behar dio bere artaldeari, eta, beraz, Aita Santuak behartu ahal eta behar ditu erregeak beren eginbeharra betetzera. Eta hemendik segitzen da Aita Santua, kristauen artzain denez, erregeen errege dela, errege guztiek aitortu behar dutelarik hori; edo bestela haiek berek nork bere gain hartu erantzukizun pastoral gorena beren manupeko lurraldeetan.

Haren seigarren argudioa adibideetan oinarritzen da. Eta honi erantzun haxe demaiot: lehenik, adibideek ez dutela ezer frogatzen; bigarrenik, dakartzan adibideak ez direla iristen arrazoiaren probabilitaterik izatera ere. Jehoiadaren egintza, Atalia hiltzean (2 Erg. 11), edo Joas erregearen eskuespenez gauzatu zen, edo Apaiz Nagusiaren krimen ikaragarri bat izan zen, hau, Saul errege hautetsi eta gero arte, mene-

ko soil zelarik. San Ambrosioren egintza Teodosio enperadorea eskomikatzean, egin zuela egia bada, herio-delituak izan zen. Eta Gregorio I, Gregorio II, Zakarias eta Leon III Aita Santuei dagokienez, haien epaiak baliogabeak dira, beren auziaren defentsan eman baitzituzten, eta haiek doktrina honen arabera gauzatu zituzten egintzak (batez ere Zakariasena) gizaterian jazo daitezkeen deliturik handienak dira. Eta honaino eliz botereaz, laburrago aztertu nukeen gaia berau, Bellarminoren

argudiook ez baintuen ukituko, gizabanako pribatu moduan hitz egin balu, eta ez Aitasantutzaren paladin moduan, beste printze eta Estatu kristau guztien kontra.

## XLIII

Zer den beharrezko norbait zeruko erresuman hartua izan dadin

Estatu kristauetan, sedizio eta gerra zibilerako aitzakiarik erabilienean oraindik behar den moduan gaintitu ez den zailtasun batetik etorri izan da luzaro, alegia, Jainkoari eta gizakumeari aldi berean obeditu beharretik, haien aginduak elkarren kontrakoak direnean. Argi asko dago, gizakume batek bi agindu bata bestearen kontrako hartzen dituenean, eta badakienean haietako bat Jainkoarena dela, hau bete behar duela eta ez hura, bere legezko subiranoaren -dela monarka dela batzarra- edo bere aitaren agindua izanik ere. Zailtasuna, beraz, honexetan datza: gizakumeek, aginduren bat Jainkoaren izenean hartzen dutenean, ez jakitean kasu askotan agindu hori benetan Jainkoarengandik datorren, ala agindu hori ematen duena ez ote dabilen Jainkoaren izenaz baliatzen beretzako onuraren bat atera nahian. Izan ere, juduen elizan, amets eta ikuskariak zituzten plantak eginez herriaren onarpena bereganatu nahian jokatu zuten sasiprofeta asko izan zen moduan, halaxe Kristoren Elizan ere garai guztietan izan dira maisu faltsuak, doktrina fantasiazko eta faltsuak irakatsiz herrian ospebela dabiltzanak, ospe honen bitartez (handigura halakoxea da-eta) herria beren onerako gobernatzeko.

Baina Jainkoaren erresuman hartuak izateko zer den eta zer ez den beharrezko bereizten dakitenentzat, zailtasun hura garrantzirik gabekoa da. Izan ere, subirano zibilaren agindua betiko bizitza galdu gabe betetzeko modukoa bada, ez betetzea ez litzateke zuzena izango, eta Apostoluaren agindua aplikatu beharko da: Morroiok, egiezue esana denean zeuen ugazabei, eta: Seme-alabok, egiezue esana denean zeuen gurasoei; eta gure Salbatzailearen agindua: Eskriba eta fariseuak Moisesen aulkian jezartzen dira; errepara ezazue, beraz, eta egin esaten dizueten guztia. Baina agindua betiko heriotzara kondenatua izan gabe betetzeko modukoa ez bada, orduan zorakeria litzateke betetzea, eta gure Salbatzailearen aholkua aplikatu behar da (Mt. 10, 28: Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina arima hil ezin dutenei. Beraz, hala mundu honetako beren subiranoari esana ez egitearren jaso ditzaketen zigorrak, nola geroko bizian Jainkoari esana ez egitearren jaso ditzaketenak ekidin nahi duten gizakume guztiei, ongi irakatsi behar zaie bereizten betiko salbaziorako zer den eta zer ez den beharrezko.

Salbaziorako BEHARREZKO den guztia bertute bitan dago: Kristoganako fedean eta legeei obedientzian. Azkena ere, hobe zina izanez gero, nahikoa genuke. Baina Jainkoaren legea ez bete izanaren errudun denok garenez gero, Adanengan jatorriz ezezik, gure geure lege-hausteengatik ere, orain beharrezko dugu geratzen zaigun bizitzaldian obedientzia izatea, eta honez gain, iraganaldiko bekatuen barkamena, barkamen hau Kristorengan dugun fedearengatik saria dugularik. Gure salbaziorako beste ezer ez dela behar-beharrezko, argi dago honako hau kontuan izanik: zeruetako erresumak bekatariak bakarrik ixten dizkiela ateak, hau da, managaitzei eta lege-hausleei; eta haiei beraiei ere ez, damutuz gero eta salbaziorako beharrezko diren kristau-fedearen artikulua guztiak sinetsiz gero.

Jainkoak -gure ekintza guztietan egin beharra bete nahia estimatzen duenak- eskatzen digun obedientzia, berari obeditzeko ahalegin serioa da, eta ahalegin hori adierazten duten izen guztiak eman dakizkioke obedientzia horri. Horregatik obedientziari karitatea eta maitasuna esaten zaio batzuetan, obeditzeko borondatea inplikatzeko baitute. Eta gure Salbatzaileak gure Jainkoaganako eta bata bestearenganako maitasuna Lege osoa betetzearekin bat egin zuen; eta batzuetan zuzentasuna ere esaten zaio, izan ere, zuzentasuna nori bere ematea besterik ez baita, hau da, legeei men egiteko borondatea; eta batzuetan obedientziari damu ere esaten zaio, damutzea bekatutik alde egitea delako, hau da berriro obeditzeko borondatera etortzea. Beraz, Jainkoaren aginduak bete nahi duen nornahik, edo bere lege-hausteez zinez damutzen denak, edo Jainkoa bere bihotz guztiaz eta lagun hurkoa bere burua bezain maite duen nornahik, Jainkoaren erresuman sartzeko behar den obedientzia guztia dauka. Zeren, Jainkoak errugabetasun hobe zina eskatuko balu, ez legoke salbatu ahal izango litzatekeen haragirik.

Baina, zein agindu dira Jainkoak eman dizkigunak? Moisesen eskuz juduei eman zitzaizkien lege guztiak al dira Jainkoaren aginduak? Balira, zergatik ez zaie kristau guztiei betetzen irakasten? Izan ere, gure Salbatzaileak ez digu lege berririk eman, bete beharrekoak ditugunak, hau da, naturako legeak eta norberaren subiranoarenak, betetzen irakatsi baizik. Mendiko Predikuan ere ez zuen lege berririk egin juduentzat, lehendik ere bete beharreko zuten Moisesen legea azaldu besterik. Jainkoaren legeak, beraz, naturako legeak besterik ez dira, horietatik nagusia, geure hitza ez jatea delarik, beste modu batera esanik, elkarrekin egindako itun baten bidez geure gain jarri dugun subiranoari obeditzeko agindua. Eta lege zibilar men egitea agintzen digun Jainkoaren lege honek Idazteuneko agindu guztiei men egitea ere agintzen digu, izan ere Idazteuna, aurreko kapituluaren frogatu dudana moduan, subirano zibilar lege egin dituen lekuetan bakarrik baita lege, eta besteetan aholku huts, gizakumeak bere arriskura bidegabekiarik gabe obeditu gabe utz dezakeena.

Jakinik zein den eta nori zor zaion salbaziorako beharrezko den obedientzia, goazen orain aztertzea fedeari dagokionez norengan eta zergatik sinesten dugun eta zeintzuk diren salbatu behar dutenak sinetsi behar dituzten artikulua edo puntuak. Lehenik, sinesten dugun pertsonari dagokionez, ezein

pertsonarengan hark zer dion jakin aurretik sinestea ezinezko denez gero, beharrezko da hura guk hitz egiten entzunikoa izatea. Horregatik, Abraham, Isaak, Jakob, Moises eta profeta guztiek sinetsi zuten pertsona, Jainkoa bera zen, supernaturalki hitz egin ziena. Eta Kristorekin hitz egin zuten apostolu eta ikasleek sinetsi zuten pertsona, gure Salbatzailea bera izan zen. Baina ez Aita Jainkoa ez gure Salbatzailea inoiz ere mintzatu ez zitzaizkienei buruz ez dago esaterik haiek sinetsi zuten pertsona Jainkoa zenik. Apostoluengan, eta hauen ondoren Elizaren artzain eta doktoreengan sinetsi zuten, hauek Itun Zahar eta Berrian kontatzen den historian sinetsi behar zutela gomendatu zielarik. Era honetan, gure Salbatzailearen garai ondoko kristauen fedeak, lehenik, beren artzainen ospean eta, gero, Itun Zahar eta Berria fedearautzat hartzea ekarri dutenengan izan du oinarri. Eta hau subirano kristauek bakarrik egin zezaketen, berauek direlarik, beraz, artzain gorenak, eta kristauek Jainkoarengandik hitz egiten entzuten dituzten pertsona bakarrak, orain Jainkoak supernaturalki hitz egiten dien pertsonak kenduta. Baina munduan zehar ibili diren profeta asko dagoenez gero, gizakumeek, San Joanek aholkatzen digun moduan (1 Jn. 4, 2) Jainkoarenak diren ala ez aztertu behar dute. Eta doktrinak aztertzea artzain gorenari dagokionez gero, errebeldazio berezirik izan ez duten guztiek Estatu bakoitzean bertako subiranoarengan sinetsi behar dute, hau da, subirano zibilarengan.

Gizakumeek zeinahi kristau-doktrina sinesteko dituzten zergatiak askotarikoak dira. Fedea, izan ere, Jainkoaren dohaina da eta hark egokien deritzon moduan jokatzeko du gizakume bakoitzarengan. Kristau-fedeko edozein puntu sinesteko izaten dugun zergatirik arrunten eta zuzenena, Idazteuna Jainkoaren hitza dela sinestea da. Baina Idazteuna Jainkoaren hitza dela sinesteko zergatia oso kontu eztabaidatua da, ongi planteatu ez den edozein gairen inguruan nahitaez gertatzen den moduan. Zeren kontua ez baita zergatik sinesten dugun, baizik nola dakigun; sinestea eta jakitea gauza bera balitz bezala. Eta hortixe dator, batzuek beren ezagutza Elizaren hutsezintasunean oinarritzen duten artean eta beste batzuek izpiritu pribatuaren testigantzan, ez batzuek ez bestetziek ezin atera ahal izatea eurek nahi duten ondorioa. Izan ere, nola jakingo du inork Eliza hutsezina dela, lehenbizi Idazteuna hutsezina dela jakinez baizik? Edo nola jakingo du inork bere izpiritu pribatua sineskaria bat ez dela, eta beraren maisuen autoritate edo argudioetan, edo bere dohaiez buruiritzia izatean dagoela oinarritua? Gainera, Idazteunean ez dago ezer bertatik Elizaren hutsezintasuna atera ahal izateko balio duenik, eta askoz gutxiago Eliza partikularren baten hutsezintasuna; eta oraindik gutxiago, gizabanako baten hutsezintasuna.

Argi dago, beraz, gizakumeek jakin barik, sinetsi besterik ez dutela egiten Idazteuna Jainkoaren hitza dela eta Jainkoak gizakume arruntak sinets dezaten erabili nahi izan dituen bitartekoak naturalak direla, hau da, haien maisuen irakaspenak. Hauxe da San Pauloren doktrina kristau fedeari oro har dagokionez (Erm. 10, 17): Fedea entzutetik dator, hau da, geure legezko artzainei entzutetik. Eta beste hauxe ere badio (kapitulu bereko 14 eta 15. bertsetak): Nola sinetsi, haren entzuterik ez badute. Nola entzun, nork hots eginik ez bada. Nola hots egin, hartarako bidalarik ez bada? Hemendik bistakoa da Idazteuna Jainkoaren hitza dela sinestearen kausa gure fedeko beste edozein artikuluko sinestearen kausa bera dela, hau da, legeak irakasteko baimendu eta izendatzen ditueni entzutea, hala gurasoei geure etxeetan, nola geure artzainei elizetan. Eta hau oraindik argiago geratzen da esperientziaz. Izan ere, zeri besteri eratziki diezaiokegu Estatu kristauetan gizakume guztiek sinestea, edo aitortzea bederen, Idazteuna Jainkoaren hitza dela, beste Estatuetan, ordea, hori sinesten duen ia banakarik ere ez dagoen artean, Estatu kristauetan jendeari haurtzarotik horixe irakasteari, eta bestetan beste gauza bat irakasteari izan ezean.

Baina fedearen kausa irakaspena bada, zergatik ez dute denek sinesten? Egia da, beraz, fedea Jainkoaren dohaina dela, eta Hark nahi duenari ematen diola. Hala ere, ematen dionari maisuen bidez ematen dionez gero, fedearen kausa hurbila entzutea da. Askori irakasten zaion eta batzuek probetxuz ikasten duten eskola batean, probetxuz ikastearen kausa, maisua da; hala ere, ezin da hemendik inferitu probetxuz ikastea ez dela Jainkoaren dohaina. Gauza on guztiak Jainkoarengandik datoz; hala ere, ez dago esaterik gauza onak dauzkaten guztiak Jainkoak inspiratuak direnik, horrek dohaina supernaturala izatea eta Jainkoaren eskuhartze arartegabekoa inplikatzeko duelako. Eta Jainkoak inspiratua dela uste duenak profeta dela uste du, eta Elizaren azterketapean izatea dagokio.

Baina gizakumeek dela ezagutu, dela sinetsi, dela suposatuta egiten dutela Idazteuna Jainkoaren hitza dela, baldin iluntasunik ez duten hango pasarteetan oinarrituz lortzen badut erakustea fedeko zeintzuk artikuluko diren beharrezkoak bakarrik salbaziorako, gizakume horiek beharrezko izango dute artikuluko horiek ezagutu, sinetsi edo suposatzea.

Idazteunak salbaziorako nahitaez beharrezko egiten duen fede-ko artikuluko bakarra (unum necessarium) hauxe da: JESUS KRISTO DELA. Kristo izenez Jainkoak Itun Zaharreko profeten bidez mundura bidaliko zuela agindu zuen erregea ulertzen da, Jainkoaren pean Juduen eta harengan sinetsiko zuten beste nazio guztien errege izateko sekulorum sekulotan, eta Adanen bekatuaren eraginez galduriko betiko bizitza haiei emateko. Hau Idazteunetik frogatzen dudanean, beste artikuluko batzuei ere noiz eta zer adieratan dei dakiekeen beharrezko erakutsiko dut.

Salbaziorako behar den guztia artikuluko hauxe, hots, Jesus Kristo dela, sinestea dela frogatzen dezadan, nire lehenengo argudioa Ebanjelarien asmatik ateratakoa izango da, haien xedea gure salbatzailearen bizitza

kontatuz artikulu horixe, Jesus Kristo dela, argi jartzea izan baitzen. San Mateoren Ebanjelioaren laburpena hauxe da: Jesus Dabiden leinukoa zela, Birjina batengandik jaioa, hauek egiazko Kristoren ezaugarriak direlarik; Aztiak Juduen Errege zenez jaurestera etorri zitzaizkiola; Herodes horrexegatik ibili zitzaiola bila hiltzeko; Joan Bataiatzaileak aldarrikatu zuela; Jesusek, hala berak nola bere apostoluen bitartez, errege hori Bera zela predikatu zuela; legea irakatsi zuela, baina ez eskriba baten moduan, gizon autoritadedun moduan baizik; bere hitzaz, besterik gabe, osatu zituela gaixoak eta beste mirakulu asko egin, Kristok egingo zituela iragarririk zeudenak; Errege aldarrikatu zutela Jerusalemara sartzean; Kristotzat aurkeztuko zirenetatik begiratzeko esan ziela; atxilotu, akusatu eta heriotzara kondenatu zutela errege zela esatearren, haren kondenaren zergatia, gurutze gainean idatzirik: JESUS NAZARETARRA, JUDUEN ERREGE. Eta honen guztionen xedea hauxe besterik ez da: Gizakumeek Jesus Kristo dela sinetsi behar dutela azaltzea. Beraz, Ebanjelio guztiaren asmoa artikulu bakar hauxe zutik jartzea besterik ez zen izan. Eta San Joanek bere egiten du beren-beregi ondorio hori Jn. 20, 31n: Hemen kontatuak Jesus Kristo, Jainko biziaren Semea, dela sinets dezazuen idatzi dira.

Nire bigarren argudioa apostoluen predikuetatik hartua da, hala gure Salbatzailea mundu honetan bizi zela egindakoetatik, nola haren igokunde ostekoetatik. Apostoluak, gure Salbatzailearen garaian, Jainkoaren erresuma predikatuz (Lk. 9, 2) bidaliak izan ziren. Izan ere, ez pasarte horretan ez Mt. 10, 7.ean ez zien eman gure Salbatzaileak hauxe beste mandaturik: Zoazte eta predika ezazue Jainkoaren erreinua hurbil dela, hau da, Jesus, Mesias, Kristo, etortzeko zen erregea dela. Igokunde ondoren ere lehengo bera izan zela apostoluen predikua argi geratzen da Eg. 17, 6-7.ean: Jason eta beste zenbait senide -dio San Lukasek- hiriko agintarien aurrera eraman zituzten arrastaka, eta oihuka zioten: "Mundu guztia nahastu duten horiek bertoraino iritsi zaizkigu eta Jasonek etxean hartu ditu". Baita kapitulu bereko 2 eta 3. bertsetetan ere, non esaten den: Paulok, ohi zuenez, haiengana joan eta hiru larunbatez jardun zuen haiekin eztabaidan. Liburu Santuak oinarri harturik, Kristok sufritu eta hilen artetik bizitu egin behar zuela azaltzen eta frogatzen zien. Eta esaten zien: Nik hots egiten dizuedan Jesus hauxe da Kristo.

Hirugarren kapitulua salbaziorako behar den fede guztia gauza erraza dela agertzen den pasarteetatik hartua da. Izan ere, kristau fedeari buruz orain irakasten diren doktrina guztien (gehientsuak eztabaidatuak, gainera) barne-onarpena beharrezko balitz salbaziorako, mundu honetan ez legoke ezer zailagorik kristau izatea baino. Gurutzeko lapurra, damutu egin zen arren, ezin zatekeen salbatu, Jauna, gogora nazazu, zeure erreinuan sartzen zarenean esateagatik, aipatu esaldiaz Jesus errege zela beste artikulurik sinesten zuenik ez baitzuen erakutsi. Ez zegoen (Mt. 11, 30.ean bezala) Kristoren uztarria biguna eta haren zama arina dela esaterik ere, ezta haurtxoek harengana sinesten zutela ere, Mt. 18, 6.ean bezala. Eta San Paulok ere ez zezakeen esan (1 Ko. 1,21): Jainkoak, guk hots egiten dugun zorakeriaren bitartez salbatu nahi izan ditu fededunak. Eta San Paulo bera ere ezin zitekeen salba, eta gutxiago hain bat-batean Elizako doktore izan, agian inoiz ere ez baitzuen pentsatu ere egin ez Transubstantziazioan, ez Purgatorioan, ez gaur ezartzen zaizkigun hainbat artikulutan.

Laugarren argudioa pasarte esplizitu eta interpretazioko eztabaidarik ukan ezin dutenetatik hartua da; hala nola, lehenik, Jn. 5, 39: Liburu Santuak arretaz aztertzen dituzue, betiko bizia haietan aurkituko duzelakoan; horra, bada, Liburu Santuek ere nire testigantza egiten dute. Gure Salbatzailea hemen Itun Zaharreko Liburu Santuez soilik ari da, garai hartako juduek Itun Berrikorik arakatzerik ez zuten eta, ez baitzeuden idatzirik. Baina Itun Zaharrak ez dakar ezer Kristori buruz, Kristo etorri ondoren gizakumeak hura ezagutu ahal izateko ezaugarriak izan ezik; hala nola Dabiden ondorengoa izango zela, Belenen jaioa eta Birjina batengandik, mirakuluak egingo zituela, eta horrelakoak. Horregatik Jesus hau Hura zela sinestea nahikoa zen betiko bizitza erdiesteko; baina nahikoa dena baino gehiagorik beharrezko ez denez gero, salbaziorako ez da beste fede-artikulurik behar. Beste pasarte hau ere badugu (Jn. 11, 26) Eta bizi dena, niregan sinesten badu, ez da betiko hilko. Beraz, Kristorengan sinestea federik nahikoa da betiko bizitzarako, eta, ondorioz, ez da behar hau baino fede gehiagorik. Baina Jesusengan sinestea eta Jesus Kristo dela sinestea gauza bera dira, hurrengo datozen bertsetetan argi ageri den moduan. Izan ere, gure Salbatzaileak (26. ber.) Martari galdetu zionean: Sinesten al duzu zuk hau?, hark erantzun zion (27.ber.): Bai, Jauna, sinesten dut zeu zarela Kristo, Jainkoaren Semea, mundura etortzekoa zena. Horregatik, artikulu horixe bakarrik da nahikoa betiko bizitzarako; eta nahikoa baino gehiagorik ez da beharrezko. Hirugarrenik, beste pasarte hauxe daukagu, Jn. 20, 31: Hemen kontatuak Jesus Kristo, Jainko biziaren Semea, dela sinets dezazuen idatzi dira. Hor, Jesus Kristo dela sinestea nahikoa federik da bizia erdiesteko, eta, beraz, ez da beharrezko beste ezein artikulurik. Laugarrenik, 1 Jn. 4, 2: Jesukristo egiazko gizon dela aitortzen duenak Jainkoaren izpiritua du. Eta 1 Jn. 5, 1: Jesus Kristo dela sinesten duen oro Jainkoarengandik jaioa da. Eta 5. bertsetean: Nork garaitzen du mundua, Jesus Jainkoaren Seme dela sinesten duenak baizik? Bosgarrenik, Eg. 8, 36-37: Irenak esan zuen: Horra hor ura, zer eragozpen da ni bataiatzeko? Felipek esan zion: Bihotz-bihotzez sinesten baduzu, ez dago eragozpenik. Hark erantzun zion: Sinesten dut Jesukristo Jainkoaren Semea dela. Beraz, artikulu hori, Jesus Kristo dela, sinesten badugu, hori nahikoa da bataioa hartzeko, hau da, Jainkoaren erresuman hartuak izateko; eta, beraz, horixe da artikulu beharrezko bakarra. Eta, oro har, gure Salbatzaileak norbait Zeure fedeak salbatu zaitu

diotson pasarte guztietan, hori esateko arrazoa zuzen edo zeharka Jesus Kristo dela sinestea inplikatzan duen aitorpenen bat da.

Azken argudioa, artikulua hau fedearen oinarritzat jartzen duten pasarteetatik hartua da. Pasarte hauek dira: lehenik, Mt. 24, 23: Orduan, "Hona hemen Kristo" edo "Hara han" esango balizute, ez sinetsi. Izan ere, gezurrezko kristoak eta sasiprofetak agertuko dira eta mirari handiak eta egintza harrigarriak egingo dituzte. Hemen ikusten dugu Jesus Kristo dela dioen artikuluari eutsi egin behar zaiola, kontrakoa irakasten dutenek mirari handiak egin arren ere. Bigarren pasarteak Ga. 1, 8 da: Norbaitek, ni neu nahiz zeruko aingeru bat izanik ere, hots egiten nizuena ez beste berrion bat hots egiten badizue, izan bedi madarikatua. Baina San Paulok eta beste apostoluek predikatu zuten Ebanjelioa artikulua horixe, Jesus Kristo dela, besterik ez zen izan. Horregatik artikulua hau sinesteagatik, zeruetako aingeru baten autoritatea ere arbuia egin behar dugu; askoz gehiago gizakume hilkorrena, kontrakoa irakasten badu. Horixe da, beraz, kristau fedearen funtsezko artikulua. Hirugarrena, 1 Jn. 4,1 da: Ene maiteok, ez fidatu edozeinekin. Honelaxe jakingo duzue norbaitek Jainkoaren izpiritua duen ala ez: Jesukristo egiazko gizon egin dela aitortzen duenak Jainkoaren izpiritua du. Hemendik argi eta garbi dago artikulua horixe dela beste artikulua guztiak balioetsi eta aztertzeke neurri eta araua, eta, beraz, oinarritzkoa. Laugarren pasarteak Mat. 16, 18 da, non San Pedrok artikulua hau aitortu ondoren gure Salbatzaileari Zu Kristo zara, Jainko biziaren Semea esan zionean, gure Salbatzaileak erantzun zion: Pedro zara zu, eta harkaitz horren gainean eraikiko dut nik neure eliza; hemendik nik inferitzen dut Artikulu honexetan oinarria harturik daudela eraikirik Elizaren beste doktrina guztiak. Bosgarren pasarteak 1 Ko. 3, 11-12... da: Argi dago inork ez dezakeela ezarria dagoen oinarria besterik ezar; eta oinarri hori Jesukristo da. Baina oinarri honen gainean urrez, zilarrez, harribitxiz, zurez, belarrez edo lastoz eraiki daiteke. Jaunaren auzi-egunak agerian jarriko du norberaren lanaren balioa, sutan agertuko baita egun hori, eta suak frogatuko du nolakoa den bakoitzaren lana. Eraikitakoak suari eusten badio, egileak saria hartuko du; eraikitakoa erretzen bada, ordea, egileak galdu egingo du saria; bera, hala ere, bizirik aterako da, baina suaren bidez bezala. Hemengo hitzak alde argi eta ulerterrezak dira eta alde alegoriko eta ulergaitzak; argi ulertzen denetik inferi daiteke, oinarri hori, Jesus Kristo dela, irakasten duten artzainak, bertatik ondorio okerrak atera arren (gizakume guztiak daude batzuetan horren menpe), hala ere, salba daitezkeela. Eta arrazoi handiagoz salbatuko dira, artzainak barik entzuleak izanik beren legezko artzainek esandakoa sinesten dutenak. Beraz, artikulua hau sinestea nahikoa da; eta, ondorioz, ez dago beste artikulurik salbaziorako beharrezko denik.

Pasartearen alde alegorikoari dagokionez, esate baterako, suak frogatuko duela nolakoa den bakoitzaren lana eta Bera, hala ere, bizirik aterako da suaren bidez, edo sutatik igarota (originalean διὰ πυρός

baita), ez dauka ezer argiak diren beste hitzetatik atera dudan ondorioaren kontra. Hala ere, pasarte honexetan oinarritu denez purgatorioko sua frogatzeko argudio bat, doktrinak frogatze eta gizakumeak sutatik igarota bezala salbatze hori buruz dudan aierua azalduko diot irakurleari. Badirudi hemen apostoluak Zakarias profetaren hitzak (Za. 13, 8-9) aipatzen dituela, hark, Jainkoaren erresumaren berrezarkuntzaz mintzo delarik, dioenean: Lurralde guztian hirutatik bi kendu eta hil egingo da, eta heren bat soilik geratuko da. Heren hori sutan garbituko dut zilarra garbitzen den bezala, urrea arragoan bezala. Hark dei egingo dit eta nik erantzun egingo diot. Judizio eguna Jainkoaren erresumaren berrezarkuntza eguna da; eta egun horrexetan, diosku San Pedrok, izango dela (1 P. 3, 7-10-12) munduaren sutea. Han, gaiztoak suntsituak izango dira, baina besteak, Jainkoak salbatuko dituenak, sutatik igaroko dira minik hartu gabe, eta sutan (zilarra eta urrea zaborra kentzeko funditzen diren moduan) idolatriatik araztuko dira eta egiazko Jainkoaren izena goralduko dute. Honi buruz San Paulok dio egunak (hau da, judizio egunak, gure Salbatzailea Israelgo erreinua berrezartzera etorriko den egun handiak) frogatuko duela gizakume bakoitzaren doktrina, nortzuk diren, urre, zilar, harribitxi, zur, belar, lasto juzgatuz. Eta orduan egiazko oinarrian ondorio faltsuak eraiki dituztenek beren doktrinak gaitzetsirik ikusiko dituzte, eurak salbatu egingo diren arren, eta minik hartu gabe igaro su unibertsal hartatik eta eternalki bizi Jainko egiazko eta bakarraren izena goraltzeko. Interpretazio honetan ez dago Idazteuneko beste guztiarekin ados ez dagoen ezer, ezta purgatorioko suarekin zerikusirik duen ezertxo ere.

Baina norbaitek galde dezake hemen, ez ote den salbaziorako era berean beharrezko honako hauek sinestea: Jainkoa guztiahalduna dela; munduaren Kreatzailea dela; Jesukristo bizitu egin dela eta gizakume guztiak ere hilen artetik berbiztuko direla azken egunean. Honi erantzun behar diot horiek badirela beharrezko, eta beste artikulua asko ere beharrezko direla; baina guztiok daude Jesus Kristo dela dioen artikuluen barruan eta artikulua horrexetatik deduzi daitezke zailtasun handiago edo txikiagoz. Izan ere, nork ez dakusa Jesus Israelgo Jainkoaren Seme dela sinesten dutenek Jainkoa gauza guztien Kreatzaile guztiahalduna dela ere sinetsiko dutela? Nola sinets dezake inork Jesus errege izango dela eternalki, hilen artetik bizitu dela ere sinetsi ezean? Hilak ezin du erregetzako eginkizunik gauzatu. Labur esanda: Jesus Kristo dela sinetsiz oinarri horri eusten dionak, oinarri horretatik zuzen deduzi daitezkeela ikusten duen guztiari beren-beregi eusten dio, eta inplizituki hortik jaigiriko ondorio guztiei, ondorio horiek bereizteko

behar bezainbat gaitasun ez izan arren. Eta, beraz, indarrean segitzen du artikulu horixe bakarrik sinestea nahikoa dela damuturikoak bekatuen barkamena lortzeko eta, beraz, zeruko erreinuan sartzeko.

Erakutsi dudalarik salbaziorako behar den obedientzia guztia Jainkoaren legeari men egiteko borondatean, hau da, damutasunean, datzala eta salbatzeko beharrezko den fede guztia Jesus Kristo dela dioen artikulua hartzen duela, orain salbaziorako beharrezko den guztia bi horiek, biak baturik, hartzen dutela frogatzen duten pasarteak ekarriko ditut. San Pedrok Mendekoste egunean, gure salbatzailea zerura igo ondoren, predikua egin zien gizakumeek hari eta beste apostoluei galdetu zien (Eg. 2, 37): Zer egin behar dugu anaiok? Eta San Pedrok erantzun zien (hurrengo bertsetean): Damu zaitezte eta bataiatu guztiok bekatuak barka dakizkizuen, eta Izpiritu Santua hartuko duzue dohain. Beraz, damutasuna eta bataioa, hau da, Jesus Kristo dela sinestea, da salbaziorako beharrezko den guztia. Beste behin, handiki batek gure Salbatzaileari galdetu zionean (Lk. 18, 18): Zer egin behar dut betiko bizia ondareztat jasotzeko?, Hark erantzun zion (20. ber.): Badakizkizu aginduak: Ez egin adulteriorik, ez hil inor, ez ostu, ez egin gezurrezko testigantzarik, ohoratu aitamak; eta hark erantzun zionean betetzen zituela horiek, gure Salbatzaileak gehitu zuen: Saldu daukazun guztia eta eman behartsuei; gero zatoz eta jarraitu niri. Hau esatea, izan konfidantza neugan, erregea naiz-eta esatea beste izan zen. Beraz, legea betetzea eta Jesus errege dela sinestea da gizakumeak betiko bizitzara sartzeko behar duen guztia. Hirugarrenik, San Paulok dio (Erm. 1, 17): Zintzoa fedetik bizi da; ez edonor, zintzoa baizik; beraz, fedea eta zintzotasuna (hau da, zintzoa izan nahia edo damutasuna) dira betiko bizitzarako beharrezko den guztia. Eta gure Jaunak (Mk. 1, 15) predikatu zuen: Betea da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Damu zaitezte eta sinetsi berriona, hau da, Kristo etorri dela dioen Jainkoaren berria. Beraz, damutu eta Jesus Kristo dela sinestea da salbaziorako behar den guztia.

Ikusirik, bada, fedea eta obedientzia (damutasun hitzean sartuak) biak behar direla salbaziorako, bietako zeinek zuzenesten gaituen eztabaidatzen ibiltzeak ez du hemen lekurik. Hala ere, egoki dateke azaltzea biotako bakoitzak salbaziorako zer dakarren eta zein adieratan esaten den bata eta besteak zuzenesten gaituztela. Lehenik, zuzentasunaz egintzen euren zuzentasuna ulertzen badugu, ez da inor salba daitekeenik, inortxo ere ez dagoelako Jainkoaren legea hautsi ez duenik. Eta, horregatik, egintzengatik zuzenetsiak izan behar dugula esaten dugunean, egintza onak egiteko borondatea ulertu behar da, Jainkoak hau egintza ona bera bailitzen onartzen duelarik beti, hala gizakume onengan zein txarrengan. Eta zentzu honexetan bakarrik esaten da gizakume bat zintzoa edo gaiztoa dela edo bere zuzentasunak zuzenesten duela, hau da, zintzo titulua ematen diola Jainkoaren onarpenean eta fedetik bizitzeko gai egiten duela, lehenago ez zelarik horretarako gauza. Horrenbestez, zuzentasunak zuzenetsi egiten du, zuzenetsi norbait zintzo izendatzea den adieran, eta ez Legearen zamatik libratzen duela ulerturik, haren bekatuen zigorra zuzengabe bihurtuz.

Baina norbait zuzenetsirik dagoela esaten da baita haren estakurua, berez nahikoa izan ez arren, onartua denean, hala nola legea betetzeko dugun nahia eta ahalegina alegatu eta geure hutsegiteak damu ditugunean, eta Jainkoak bete bagenu bezala hartzen digunean. Eta Jainkoak gogoia egintzat fededunei besterik hartzen ez dienez gero, fedea da gure estakurua baliozko bihurtzen duena; eta adiera honexetan ulertu behar da fedeak bakarrik zuzenesten duela. Honenbestez, fedea eta obedientzia biak dira beharrezko salbaziorako, baina, hala ere, bakoitzak bere adieran zuzenesten du.

Azaldu dugularik, bada, zer den beharrezko salbaziorako, ez dugu zail izango orain Jainkoari zor diogun obedientzia subiranoari zor diogun obedientziarekin bateratzea, dela hau kristaua zein sinesgabea. Kristaua bada, Jesus Kristo dela eta honek barruan dituen edo beronetatik begibistako ondorio moduan deduzitzen diren beste artikulu guztiak sinetsiko ditu, horixe delarik salbaziorako beharrezko den guztia. Eta subiranoa denez, bere lege guztiei, hots, lege zibil guztiei obeditzea galdatuko du, hauen barruan naturako lege guztiak, hau da, Jainkoaren lege guztiak ere sarturik. Izan ere, naturako legez eta lege zibilaren zati diren elizako legez gain (legeak egiteko ahalmena duen Eliza Estatua baita), ez da beste Jainko legerik. Beraz, bere subirano kristauari obedi diezaion nornahik, ez du hargatik Jainkoarengan sinesteko eta hari obeditzeko eragozpenik. Baina jo dezagun errege kristau batek, Jesus Kristo dela dioen oinarritzko artikulua sinetsi arren, artikulu horretatik ondorio faltsuak, hau da, belar edo zurezko ondorioak deduzitzen dituela eta ondoriook irakasteko agintzen duela; bada, orduan ere, kontuan harturik San Paulok dioela hura salbatu egingo dela, arrazoi handiagoz salbatuko da ondoriook haren aginduz irakasten dituen, eta are handiagoz irakasten ez duena eta bere legezko maisuari sinetsi besterik egiten ez duena. Eta, kasurako, meneko bati subiranoak beraren iritziotariko batzuk aitortzen utziko ez balio, zein bidezko oinarri ote luke desobeditzeko? Errege kristauak erra daitezke ondorioren bat deduzitzerakoan, baina nork juzga lezake hori? Juzga al lezake gizakume pribatuak, jokoan dagoena bere obedientzia denean? Edo ba al du inork juzgatzerik, Elizak, hau da, hura ordezkatzeko duen subirano zibilak besterik? Edo juzgatzen duena Aita Santua edo apostolu bat bada, ez al du erratzerik ondorioren bat deduzitzean? Ez al zen erratu edo San Pedro edo San Paulo, gainegiturako ondorio batean San Paulok aurrez aurre gogor egin zionean? Ezin da, beraz, kontraesanik izan Jainkoaren legeen eta Estatu kristau baten legeen artean.

Eta subirano zibila sinesgabea denean, aurre egin diezaion meneko orok Jainkoaren legeen kontra bekatu egiten du (naturako legeak baitira) eta apostoluen aholkua arbuiatzen du, apostoluek kristau guztiei ohartarazi baitzien beren printzipioei obeditu behar zietela, eta haur eta jopu guztiek denean obeditu behar zietela beren guraso eta ugazabei. Eta menekoen fedea barrukoa eta ikustezina denez gero, Naamanek izan zuen baimena dute, eta ez dute beren buruak arriskutan jartzeko premiarik beren sinesmena dela eta. Baina arriskutan jartzen badira, orduan zeruan horren saria hartzea espero behar dute, eta ez subiranoaz kexatu eta are gutxiago haren kontra gerra egin; izan ere, martiri izateko abagunean egoteaz pozten ez denak ez dauka aitortzen duen fedea -egiten duena fede-itxura egin besterik ez baita, bere setakeriari gainean kolore apur bat jartzeko-. Baina zein errege sinesgabe izan liteke arrazoigabeko honako neurri honetaraino, hots, jakinik bere meneko batek, mundu hau suaz suntsitzen denean, Kristoren bigarren etorrera espero duela eta Kristori orduan obeditzeko asmoa duela (hauke baita Jesus Kristo dela sinesten duten guztien asmoa), bitartean bere burua errege sinesgabe horren legeak obeditzera behartuz (kristau guztiak baitaude kontzientziaz horixe egitera beharturik), hala ere, horrelako menekoa hil edo jazartzeko gauza izateraino? Eta, Jainkoaren erresumari eta eliz politikari buruz, nahikoa bedi esan duguna. Ez da izan nire asmoa horri buruz dudak jarrera proposatzea, zera azaltzea baizik, hots, zeintzuk diren, subirano zibilen boterea eta haien menekoen eginbeharra berresteko, kristau politikaren printzipioetatik (Liburu Santuak direlarik printzipiook) nire ustez atera daitezkeen ondorioak. Eta horretarako Idazteuna aipatzean, testu ilunak edo interpretazio eztabaidatuak ekiditen saiatu naiz; baita, adiera argienean eta aldi berean Jainkoaren erresuma Kristorengan berrezartzeko idatzi zen Biblia osoaren harmonia eta asmoarekin bat datorren adieran izan ezean, bat bera ere ez aipatzen. Izan ere, ez dira hitz hutsak, idazten dituenaren asmoa baizik, zeinahi idazki interpretatzeko behar den argia ematen dutenak. Eta testu isolatuei ekiten diotenek, testuaren asmo orokorra kontuan izan gabe, ez dute haietatik ezer argi ateratzerik; aitzitik, den baino ilunago bihurtzen dute edozer, Idazteun atomoak jaurtikiz, norbaiten begietara hautsa jaurtikitzen balebiltza bezala; trikimailu arrunta berau egiaren bila barik, beraientzako abantailen bila dabilzenengan.

## LAUGARREN PARTEA

### Ilunbeen erreinuaz

#### XLIV

Idazteuna gaizki interpretatzen sorturiko iluntasun izpiritualari buruz

Orain artean aztertu ditudan jainko eta giza botere subiranoaz gain, Idazteunean beste botere bat ere aipatzen da, hain zuzen (Ef. 6, 12) mundu ilun honetako nagusia, (Mt. 12, 26) Satanen erreinua, (Mt. 9, 34) Belzeburen printzegoa deabruengan, hau da, airean agertzen diren fantasmengan. Hau dela eta, Satani aireko agintedunen printzea (Ef. 2, 2) ere deitzen zaio; eta mundu honetako ilunbeetan errege denez gero, mundu honetako printzea ere deitzen zaio. Honen ondorioz, haren menpean daudenei, fededunen aurrez (hauek haren umeak baitira), ilunbearen ume deritze. Izan ere, Belzebu beren manupeko aire eta ilunbean bizi diren fantasmen printzea dela kontuan izanik, ilunbearen umeak eta demonio, fantasma, edo lilurazko izpirituok gauza bera dira. Hau kontuan izanik, ilunbetako erreinua, engainatzaileen konfederakunde bat besterik ez da, gizakumeak mundu honetan beren menpean edukitzeko, doktrina ilun eta errakuntzazkoen bidez, haiengan argia, hala naturarena nola Ebanjelioarena, iraugitzen saiatzen dena, era honetan, etortzekoa den Jainkoaren erresumarako prestatu gabe egon daitezen.

Jaiotzatik gorputzeko begien argirik gabe bizi diren gizkumeek argiaren inolako ideiarik ez duten moduan, eta une batean edo bestean bere azaleko zentzuez hauteman duen argia baino handiagorik inork irudimeneratzen ez duen moduan, halaxe gertatzen da Ebanjelioaren argiarekin eta adimenaren argiarekin ere; hau da, inork ere ez duela bururatzen berak eskuratu duena baino gradu handiagoko argirik izan daitekeenik. Eta hortik gertatzen da gizakumeek ez dutela beren iluntasuna ezagutzeko beste biderik, beren bideetan jazotzen zaizkien ustegabeko ezbeharrez arrazonatzea baino. Satanen erreinuko parterik ilunena Jainkoaren Elizatik kanpo dagoena da, hau da, Jesukristorengan sinesten ez dutenen artean. Baina ez dago esaterik, hala eta guztiz ere, Elizak, Gosheneko lurraldeak bezala, Jainkoak leporatu digun egitekoa betetzeko behar den argi guztia duenik. Nondik, bestela, Kristandadean, Apostoluen garaitik ia, izan den elkar bultzaka hori bata bestea bere lekutik botatzeko gerra atzerritar eta zibilen bidez? Nondik hainbeste behaztopatze gure zortearen laztasun txiki bakoitzean eta besteen zorteak sorturiko gorune bakoitzean? Nondik hainbeste bide diferente helburu bera, zorientasuna, erdietsi nahian, gure artean gau ilunik edo gurmari bederen ez balego? Oraindik, beraz, ilunbetan gaude.

Etsaia hementxe izan dugu gure ezjakintasun izpiritualaren gauean, eta errore izpiritualen hazi gaiztoa erein du. Lehenik, Idazteunaz abusatuz eta haren argia itzaliz, Idazteuna ez ezagutzearen erratzen baikara. Bigarrenik, poeta paganoen demonologia sartuz, hau da, giza irudimenetik bereiziko dituen izaera propiorik gabeko burmuineko irudikapen edo irudikariak besterik ez diren deabruen buruzko haien doktrina alegiazkoak, hala nola hilen izpirituak, maitagarriak eta atso-ipuinetako beste gai batzuk. Hirugarrenik,



Idazteunarekin erlijioaren zenbait geldikin eta grekoen filosofia huts eta erratuarekin, bereziki Aristotelesena nahasiz. Laugarrenik, aipatu bi horiekin tradizio faltsu edo badaezpadakoak eta istorio asmatu edo badaezpadakoak nahasiz. Eta horrela erratu egiten gara izpiritu liluratzaillei eta hipokresiaz beterik gezurrak esaten dituztenen demonologiari arreta emanez, edo, 1 Tim. 4, 1-2 originalak dioenez, kontzientzia kauterizatuz gezurti-papera jokatzaren dutenen, hau da, dakitenaren kontrakoa esaten dutenen demonologiari. Kapitulu honetan lehenbizi aipatu dudanari buruz hitz egingo dut, hau da, Idazteunaz abusatuz gizakumeak liluratzaren dituztenei buruz.

Idazteunaz egiten duten abusurik handien eta printzipalena, beste guztiak beronen ondorio direlarik, pasarteak gaizki interpretatzea da, Idazteunean hain sarri aipatzen den Jainkoaren erresuma oraingo Eliza dela frogatzeko, hau da, bai orain bizi diren, bai dagoeneko hil direlarik azken egunean berriro biztuko diren gizakumeak oro har. Baina Jainkoaren erresuma, eratu, Moisesen ministeritzaz eratu zen lehenbizi, eta juduentzat bakarrik, juduei, hargatik, haren herri berezia deitu zitzaielarik. Erresuma hori bukatu egin zen gero, Saul aukeratzean, beren herria Jainkoak gobernatzerik ez zutela nahi agertu eta beste nazioen antzerako erregea eskatu zutenean, Jainkoa horretarako zelarik, 35. kapituluaren luzeko frogatu dugun moduan. Ordudanik aurrera, ez zen munduan izan itunez ez bestela eraturiko Jainkoaren erresumarik, Jainkoa gizakume guztien eta izaki kreatu guztien errege eta bere nahiaren arabera eta bere botere infinituz munduaren gobernatzaile beti izana den, oraintxe den eta gero ere izango den heinean izan ezean. Hala ere, Jainkoak bere profeten bitartez bere gobernamendu hori berrezarri egingo zuela agindu zien, bere erabaki sekretuan horretarako jarririk zuen denbora guztiz betetzen zenean, eta juduak, damutu eta bizimodua emendatu ondoren, berriro berarengana bihurtzen zirenean. Eta ez hori bakarrik, jentilak ere gonbidatu baitzituen bere erreinura sartzera eta haren zorionaz gozatzera, haiek bezala jainkoarenganatu eta damutu ondoren. Halaber, agindu zien bere Semea bidaliko zuela mundura, bere heriotzaz denek bekatuak ordaintzera eta bere doktrinaz bigarren etorreran bera hartzeko prestatzera. Eta bigarren etorrera hori oraindik gertatu ez denez gero, Jainkoaren erresuma ez da oraindik heldu eta geure subirano zibilen beste erregeren menpean ez gaude itunez. Salbuespen bakarra zera da, kristauak graziazko erreinuan daudela jada, Kristo berriro etortzean hartuak izango diren promesa dutenez gero.

Oraingo Eliza Jainkoaren erresuma dela uste izatea den errakuntzaren ondorio bat, gizakume edo batzar bat izan beharra da, haren ahotik orain zeruan dagoen gure Salbatzaileak hitz egin dezan eta legeak eman ditzan, kristau guztien aurrean Kristoren pertsona ordezkatzuz; edo gizakume eta batzar ezberdinak egon beharra kristandadearen alde ezberdinetan horixe berori egiteko. Unibertsalki Aita Santuak eta Estatu bakoitzean bertako artzain-batzarrek galdatzen duten Errege-botere hori Kristoren pean (Idazteunak botere hori subirano zibilei bakarrik ematen dienean) sutsu eztabaidatua da, argi naturala itzaltzerainoko grinaz eztabaidatu ere, eta hain iluntasun handia sortzen du gizakumeen adimenean, non ez diren gauza ikusteko nori obeditzera engaiatu diren ere.

Aita Santuak oraingo Elizan (bere erreinu hori Ebanjelioak bideratzen gaituen erreinua omen delarik) Kristoren bikario edo ordeko orokorra dela esanez egiten duen galdapenetik dator beste doktrina hura ere, hau da, errege kristauak apezpikuarengandik hartu behar duela bere koroa, zeremonia honexetatik baletor bezala haren tituluan agertzen den Dei gratia; eta Jainkoaren graziaz errege izatera, Jainkoak mundu honetan duen gerenteordeko unibertsalak koroatzen duenean, ez bestela, heltzen dela; eta apezpiku orok, dena dela haren subirano zibila, bere kontsakrazioan Aita Santuari obedituko diola zin egiten duela. Honexen ondorio da Inozentzio III.aren pean egindako Laterango laugarren Kontzilioaren (3. kapituluak: De haereticis) doktrina ere, hauxe dioena: Baldin erregeren batek, Aita Santuak ohartarazi ondoren, bere erreinua hereserik gabe garbi utzi ez, eta, horregatik eskomikatua izanik, urte beteko epean bete ez badeza, haren menekoak hari obeditzetik aske geratuko dira. Hemen heresiatzat Elizak aldezte galarazi duen edozein iritzi ulertzen da. Eta horrelako jokabidez Aita Santuaren asmo politikoen eta beste printze kristau batzuen artean kontraesanik dagoenean, txitean-pitean gertatzen den moduan, hain gurma zarratua sortzen da haien menekoen artean, non ez diren gauza beren legezko printzearen tronua harrapatu duen arrotza haiek berek han jarritakoarengandik bereizteko; eta adimen-iluntasun horretan, borrokan hasten dira elkarren kontra, etsaiak lagunengandik bereizi gabe, inoren handinahia gidari dutela.

Iritzi beretik -oraingo Eliza Jainkoaren erreinua dela- dator artzain, diakono eta Elizaren beste ministrari guztiek klero deitzea beren buruari, beste kristauei laiktza, hau da herri xumea deitzen diotelarik. Izan ere, klero hitzaz zera esan nahi da, Jainkoak Israeldarren errege izan zen garaian beretzat gorderiko eta lebitarrei (haiek haren ministro publikoak ziren, eta ez zitzaaien lur zatirik eman, beren anaiei bezala, bizipidea handik ateratzeko) herentzi moduan esleituriko sarrerez mantentzen direnak. Aita Santuak, beraz, oraingo Eliza, Israelgo erresuma bezala, Jainkoaren erresuma dela esatean, sarrera horiek beretzat eta bere ministroentzat galdatzen ari da, Jainkoaren herentziaz dagokiela eta. Eta klero hitza egokia da galdapen hori egiteko. Hortik dator elizgizonek, Israeldarren artean lebitarrei jainkozko zuzenbidez ordaintzen zitzaizkien hamarrenak eta beste zerga batzuk jure divino, hau da, jainkozko zuzenbidez, kristauei galdatzea eta ateratzea. Horren bidez, herria nonahi zerga bikoitza ordaintzera beharturik egon da: bata Estatuari, bestea kleroari. Bi zerga horietatik kleroari ordaintzen zaiona, herriaren sarreren

hamarrena delarik, Atenaseko errege batek, tiranotzat zegoenak gainera, gastu publikoei erantzuteko bere herriari ateratzen ziona bi bider zela gertatzen da. Izan ere, ez zien hogeirena besterik eskatzen, eta horrekin Estatua mantentzeko adina zuen. Eta juduen erreinuan, Jainkoaren apaiz-erregealdian, hamarrenak eta opariak ziren sarrera publiko guztia.

Oraingo Eliza Jainkoaren erresumatzat hartze horrexetatik sortu zen lege zibil eta lege kanonikoen arteko bereizpena, lege zibilak subiranoek beren manupeko lurraldeetan emanikoak eta kanonikoak Aita Santuak bereetan emanikoak izanik. Kanonok -kanonak besterik, hau da, proposaturiko arauak besterik ez ziren arren, eta printzeek borondatez, ez bestela, onarturikoak Inperioa Karlomagnoengana iritsi arte-, gero, ordea, Aita Santuaren boterea areagotu ahala, ezarritako arau bilakatu ziren; eta enperadoreak berak ere, herri itsuari oker handiagorik etor ez zekion, legetzat pasatzera beharturik aurkitu ziren.

Horrexetatik toleratzen du Eliza Erromatarak, Aita Santuaren eliz boterea onartua den toki guztietan, judu, turkiar eta jentilen erlijioa -beti ere beren erlijioa agertu eta erabiltzean botere zibilari irainik egin ezean-; kristauarengan, ostera, atzerritara izanik ere, Erromatar erlijioa ez aitortzea herio-delitua da, Aita Santuak kristau guztiak bere menekotzat dituelako. Bestela, nazioen legearen kontra legoke kristau atzerritarra bere herriko erlijioa profesatzearen jazartzea, sinesgabetzat joz; are gehiago, kontuan izanik Kristoren kontra ez dagoena haren alde dagoela.

Halaber, hortixe bertotik dator, Estatu kristau bakoitzean gizon batzuk zergak ordaintzetik eta Estatuaren auzitegietatik salbuetsirik egotea ere. Egoera horrexetan daude, egon ere, monje eta fraideez gain, klero sekularrekoak ere, toki askotan populazioaren zati hain handia direlarik, non, behar izanez gero, beraiekin bakarrik osa daitekeen armada bat, Eliza militanteak bere printzeen edo atzerrikoen kontrako gerran erabiltzeko modukoa.

Idazteunaz egiten den bigarren abusu orokorra, sagaratzea konjurio edo enkantamendu bihurtzea da. Sagaratzea Idazteunean gizakume bat edo gauza bat Jainkoari eskaini, eman edo dedikatzea da, hizkera eta keinu jainkozale eta egokiz, pertsona edo gauza hori erabilera arruntetik bereiziz; hau da, sagaratzea norbait edo zerbait santifikatu eta Jainkoarena, ez besterena, bihurtzea da, Jainkoak bere ministro publiko izateko izendatu dituenek soil-soilik erabiltzeko (35. kapitulu luze frogatu dudan moduan); eta sagarapenaren bidez ez da gauza bera aldatzen, haren erabilera baizik, erabilera arrunta eta profanoa izatetik, santu eta beren-beregi Jainkoaren zerbitzurakoa izatera pasatzen delarik. Baina kontsakrazioko hitzez gauza bera bere izaeran aldatutzat aurkezten denean, hori ez da sagarapena, baizik edo Jainkoaren ezohiko ekintza edo konjurio huts eta erlijio gabekoa. Baina, ikusirik (beren sagarapenetan gauzen izaera aldatzen oso maiz dabiltzalarik, ezin daitezkeela mirakulutzat jo), hori konjuru edo enkantamendua besterik ez da, gizakumeei gauzaren izaeran gertatzen ez den aldakuntza gertatu dela sinestarazteko egiten dutena, giza ikusmenaren eta gainontzeko zentzuen kontra. Horixe gertatzen da, adibidez, apaizak Jaunaren Afariko sakramentuan ogi-ardoak Jainkoaren zerbitzu berezirako sagaratu beharrean (hori ogia eta ardoa beren erabilera arruntetik bereiztea besterik ez delarik, gizakumeei gogorarazteko gure bekatuengatik gorputza zatikatu zioten eta bere odola gurutzean isuri zuen Kristoren Nekaldiaren bidez berrerrusiak izan zirela), hori egin beharrean, diot, sinestara nahi duenean, sagarapenean gure Salbatzailearen hitzak, Hau neure gorputza da, eta hau neure odola da esatean ogia jada ez dela han, zer eta Kristoren gorputza baizik, nahiz eta hura hartzen duenaren ikusmenera edo beste edozein zentzutara, sagara aurretik izan dena besterik ezer agertu ez. Egiptoar konjuratzaileek, beren makilak suge eta ura odol bihurtu omen zituztenek, amarruren bat bitarteko ikusleen zentzuak engainatu zituztela uste da, baina, hala ere, enkantatzailatzat hartzen ditugu. Baina zer uste izan genukeen haiei buruz haien makiletatik sugaren antzekorik ezer eta uretik odolaren antzekorik ezer agertu ez balitz, eta erregea nahasten ari izan balira, makilak ziruditen sugeak eta ura zirudien odola erakutsiz? Hori enkantamendua eta gezurra, biak batera zatekeen. Eta, hala ere, apaizek beren eguneroko egintza horretan gauza bera egiten dute, hitz santuak zentzuetarako ezer berririk sortzen ez duten enkantamendu bihurtuz; eta ogia gizon, are Jainko, bihurtu dutela esanez engainatzen gaituzte. Eta gizakumeei esaten die gure Salbatzailea, Jainko eta gizon hantxe presente balitz moduan jauretsi behar dutela, era horretan idolatriarik handieneko ekintza gauzatuz. Izan ere, idolatriatik desenkusatzeko nahikoa balitz hura jada ez dela ogia Jainkoa baizik esatea, zergatik ez luke egiptoarren kasuan ere aitzakia berdinak balioko, zera esateak, alegia, jauresten zituzten porru eta tipulak ez zirela, izatez, porru eta tipula, Jainkoa baizik, barazki horien species edo itxuraren pean? Hau nire gorputza da hitzak beste hauen berdinkideak dira, alegia, Honek nire gorputza esan nahi du edo adierazten du, eta hizkera molde figuratu bat dira. Baina literalki hartzea abusua da, eta horrela harturik ere, Kristok bere eskuetan sagaratu zuen ogiari besterik ezingo litzaizkioke aplikatu. Zeren Kristok inoiz ere ez baitzuen esan zeinahi ogi, zeinahi apaizek hari dagokiola, Hau nire gorputza da, edo Hau Kristoren gorputza da esateaz transubstantziatu egingo zela benetan. Eta Erromako Elizak ere ez zuen transubstantziazioko dogma hau Inozentzio III.aren garaira arte ezarri, duela 500 urte baino gutxiago, Aita Santuaren boterea goren zegoenean, eta aldi hartako iluntasuna hainbestean areagotu zenean, non gizakumeek ez baitzuten bereizten ogia zenik jateko ematen zitzaiena, bereziki ogi horrek Kristo gurutziltzatutaren figura zeramanean estanpaturik, gizakumeei sinestara nahi baliote bezala ogi

hori transubstantziatu eta Kristoren gorputz ezezik gurutzearen egur ere bihurtua zela eta sakramentuan biak ematen zitzaizkiela jatera.

Sagarapena ez baina antzeko enkantamentua da bataioan erabiltzen dena ere, sakramentu honetan Jainkoaren izenaren abusuak hiru pertsonetako edozeinetan eta Hirutasun osoan, izen bakoitzean gurutzearen seinalea eginez, enkantamendua sortzen baitu. Izan ere, apaizak, lehenengo eta behin ur bedeinkatua egitean, hauxe esaten du: Ur kreatura hori, Aita Jainko Guztihaldunaren izenean, eta Jesukristo haren Seme bakar gure Jaunaren izenean, eta Izpiritu Santuaren indarrez, konjuratzen zaitut ur konjuratu bihur zaitezen eta etsaiaren botere guztiak uxa ditzazun eta etsaia deserro eta ordeztazazun, e.a. Eta gauza bera urarekin nahasiko den gatzaren bedeinkapenean ere: Gatz konjuratu bihur zaitezela, deabru maltzuraren fantasma eta bihurrikeria guztiek alde eta ihes egin dezatela zuk zipristinduriko toki guztietatik, eta biziak eta hilak epaitzera etorriko denak izpiritu satsu oro konjura dezala. Eta gauza bera olioaren bedeinkapenean ere: Olio kreatura honek uxa ditzala etsaiaren botere guztia, deabruaren oste guztiak, Satanen eraso eta fantasma guztiak. Eta bataioa hartzen duen haurrari dagokionez, enkantamendu asko jaso behar ditu: lehenik, eliz atarian apaizak hiru bider putz egiten dio aurpegira eta esaten du: Atera zaitez honen baitatik kanpora, izpiritu satsu hori, eta utz lekua Izpiritu Santu kontsolatzaileari. Ume guztiak, apaizak putz egin dute deabruak hartuak balira bezala. Eta elizara sartu aurretik berriro esaten dio lehen bezala: Konjuratzen zaitut, e.a., Jainkoaren mirabe honen baitatik irten eta alde egin dezazun. Eta gero, bataiatu aurretik ere exortzismo bera egiten da berriro. Hauexek eta beste enkantamendu batzuk dira, sagarapen eta bedeinkapenaren ordezt, bataio eta Jaunaren Afariko sakramentuetan erabiltzen direnak; berautan, erabilera santu horietako balio duen guztiak (apaizaren txu santifikatu gabea ezik) nolako edo halako exorzismoren bat hartu beharra du.

Gainerako erritokoak ere, hala nola ezkontza, azkenigurtzia, gaixoen bisita, eliza eta hilerrien sagarapena eta antzekoetakoak ere, ez daude enkantamendutik aske, haietan ere ur eta olio enkantatuak erabiltzen baitira, gurutzea eta Dabiden hitz santuak, Asperges me, Domine hyssopo, fantasma eta izpiritu irudizkoei alde eragiteko gauza eraginkortzat erabiliz.

Beste errakuntza orokor bat betiko bizitza, betiko heriotza, eta bigarren heriotza hitzak oker interpretatzen datorkena da, Izan ere, Idazteunean honako hauek argi irakurtzen baditugu ere, hots, Jainkoak Adan betiko bizitzako egoeran sortu zuela, bere agindua ez desobeditzeko baldintzaren pean, hilezkortasuna ez zelarik giza izaerako elementu, biziaren zuhaitzaren eraginaren ondorio baizik; eta zuhaitz honetatik jatea libre zuela Adanek, bekaturik egin ezean; eta bekatu egin zuenean Jainkoak paradisuetik kanpora jaurtiki zuela, zuhaitz horretatik jan eta betiko bizi ez zedin; eta Kristoren Nekaldiak bekatuak kentzen dizkiela harengan sinesten duten guztiei eta, ondorioz, fededun guztiei, eta beraiei bakarrik, berriro betiko bizitza ematen diela; hala ere, orain irakasten zaigu gizakume orok, izaeraz, betiko bizi duela, bere arima hilezkorra dela eta. Era honetan, paradisuako sarrera zaintzen zuen suzko ezpata hark, gizakumeari biziaren zuhaitzera heltzen uzten ez dion arren, ez dio galarazten haren bekatuengatik Jainkoak kendu zion hilezkortasunaren jabe izaten, eta hilezkortasun hori berreskuratzeko gizakumeak Kristoren sakrifizioa beharrezko ez izatea dakar; eta, beraz, fededun eta zintzoek ezezik, gaizto eta sinesgabeek ere betiko bizi izango dute, inolako heriotzarik gabe, eta are gutxiago izango dute bigarren eta betiko heriotzarik. Hau justifikatzeko esan ohi da bigarren eta betiko heriotzaz bigarren eta betiko bizitza adierazi nahi dela, baina oinazepean; kasu honetan ez izan ezik, sekula erabili gabeko hizkuntz figura berau.

Doktrina hau guztia Itun Berriko pasarterik ilunenetakoetan oinarriturik dago; pasarteok, hala ere, Idazteunaren asmo osoa kontuan izanez gero, adiera argi diferentia dute eta kristau federako beharrezko ez dena. Izan ere, gizakume bat hiltzen denean haren gorpua besterik ez dela geratzen suposatuz, ez al du Jainkoak, kreatura biziduna bere hitzaz bizirik gabeko hautsetik egin zuenak, hildakoaren gorpua erraz-erraz berriro bizteko ahalmenik, eta betiko bizirik iraunarazteko edo berriro hil dadin egiteko ahalmenik, beste hitz bat esanez? Idazteunean arima hitzak edo bizi edo kreatura biziduna esan nahi du beti; eta gorputz eta arima baturik, gorputz bizi. Kreazioko bosgarren egunean Jainkoak esan zuen: Sor ditzatela urek reptile animae viventis, bere baitan arima biziduna duen narrastia; ingelesezko itzulpenak, that hath life dio. Halaber, Jainkoak baleak, et omnem animam viventem sortu zituen; ingelesean, every living creature. Eta, antzera batean, Jainkoak lurreko hautsetik egin zuen gizakumea, eta biziaren arnasa egin zion aurpegira, et factus est homo in animam viventem, hau da, eta gizona kreatura bizidun bihurtu zen. Eta Noe kutxatik irten zenean, Jainkoak esan zuen ez zuela jada hilko omnem animam viventem, hau da, kreatura bizidun oro. Eta Dt. 12, 23an irakurtzen dugu: Ez duzu odolik jango, odola arima da eta, hau da, bizi. Pasarte hauetan arimak substantzia gorpuzgabea esan nahi balu, hemendik inferitu ahal izango litzateke hori, gizakiarengan bezalaxe, edozein kreatura bizidunengan ere horrelaxe dela. Baina fededunen arimek beren gorputzetan, beren izaeragatik barik Jainkoaren grazia bereziz iraungo dutela berbizkundetik hasi eta betiko, behar bezainbatean frogatua dut, Idazteunean oinarrituz, 38. kapituluaren. Eta gizakumea, gorputz eta arima, sutara jaurtikia izango dela dioten Itun

Berriko pasarteei dagokienez, horrek esan nahi du gorputz eta bizi, hau da, bizirik izango dela jaurtikia Gehennako betiko sutara.

Horixe da, lehenik, betiko oinazeen eta, gero, purgatorioaren doktrina ilunari sarbidea ematen dion leihoa, eta, ondorioz, hilen izpirituak, bereziki leku konsakratu, bakarti eta ilunetan, ibiltzen direla dioenari. Eta hortixe dator fantasmen exorzismo eta konjurioen premia, baita hilei inbokazioak eta indulgentzien doktrina ere, hau da, aldi baterako edo betiko purgatorioko sutatik, hots, arima gorpuzgabeak zerura sartzeko suaz garbitzen omen diren lekutik libratzeko modua eskaintzen duena. Izan ere, gizakumeak, gure Salbatzailearen garaia baino lehenago, eta grekoen demonologiak kutsaturik, jada konbentziturik zeuden giza arimak gurutzetatik diferenteak ziren substantziak zirela eta, beraz, gorputza hiltzean, gizakume bakoitzaren arimak, ona zein gaiztoa izan gizakumea, beste nonbait existitu behar zuela bere izaeraren bertutez, honetarako Jainkoaren dohain supernaturalik aitortu gabe; Elizako doktoreak dudamudatan ibili ziren luzaro zein lekutan egon behar ote zuten arimek gorputzekin batu arte, eta aldi luzez elizetako aldarepeetan ziratekeela uste izan zuten. Baina Erromako Elizak onurakorrago iritzi zion arimentzat Purgatorioko leku hori eraikitzeari, oraintsuko beste Eliza batzuek suntsitu duten lekua berori. Ikus dezagun orain Idazteuneko zein testuk berresten duten, itxuraz, ukitu ditudan hiru errakuntza orokor horiek. Bellarmino Kardinaleak, Aita Santuak administraturiko mundu honetako Jainkoaren erresumaren alde ekarririko testuei dagokienez (beste ezeinek baino froga-indar handiagoa izan dezaketen testuak), erantzun diet eta argi jarri dut Moisesek eraturiko Jainkoaren erresuma Saulen aukerarekin bukatu zela; garai horrez geroztik, apaizak inoiz ez zuen erregerik kendu bere autoritatez. Apaiz Nagusiak Ataliasi egin ziona, ez zion bere eskubidez egin, semea zuen Joas errege gaztearen eskubidez baizik. Salomonek, ordea, bere eskubidez kendu zuen Abiatar Apaiz Nagusia eta haren ordeztatu beste bat izendatu. Kristoren bidezko Jainkoaren Erresuma jada mundu honetan dagoela frogatzeko ekar daitekeen pasarterik erantzuteko zailena ez da Bellarminok, ezta Erromako Elizako beste inork ere, aipatzen duena, Bezak dakarrena baizik, erresumaren hasiera Kristoren biztueraren ondoren jartzen duelarik. Ez dakit horren bitartez Presbitergoa eraman nahi ote zuen Eliz botere gorenera Genebako Estatuan (eta beraz Estatu bakoitzean bertako presbitergoa), ala printzeak eta beste subirano zibilak. Izan ere, Presbitergoak beren erregeak eskomikatzeko eta erlijio kontuan erabakitzaile nagusi izateko boterea galdatu du beretzat Eliz gobernamentu era hau duten tokietan, Aita Santuak beretzat unibertsalki galdatu duen neurri berean.

Pasartea Mk. 9,1 da: Benetan diotsuet: Hemen daudenetako batzuk ez dira hilko, harik eta Jainkoa errege ahaltsu bezala etortzen ikusi arte. Hitz hauek, literalki harturik, zera dioskute, edo orduan Kristoren aurrean zeuden haietako batzuk oraindik bizirik daudela, edo, bestela, Jainkoaren erresuma oraintxe dela mundu honetan. Eta beste pasarte oraindik zailago bat dago. Izan ere, apostoluek, gure Salbatzailea biztu ondoren eta haren igokunde aurretik, gure Salbatzaileari galdetu ziotenean esanez (Eg. 1, 6): Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?, hark erantzun zien: Aitak bakarrik du hori erabakitzeko ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Izpiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko (martiri) izango zarete Jerusalemen, Judea osoan, Samarian eta luraren baztererraino. Hau zera esatea adina delarik: Nire erreinua ez da oraindik heldu eta zuek ez duzue aurretik jakingo noiz etorriko den. Heldu ere, lapurra gauez bezala helduko baita; baina Izpiritu Santua bidaliko dizuet nik, eta haren bertutez nire berbizkundearen testigu izango zarete mundu guztiaren aurrean, eta nik eginiko guztien eta nik irakatsi ditudan doktrina guztien testigu ere bai, nigan sinets eta betiko bizitza itxaron dezaten ni berriz etortzean. Ados al dago hau Kristoren erreinua haren berbizkundera etorri izanarekin? Eta San Paulok dioena (1 Ts. 1, 9-10) sasijainkoak utzirik, Jainko bizi eta egiazkoagana itzuli zirela, berau zerbitzatzeko eta zerutik etorriko den beraren Seme Jesusen zain egoteko, hemen zerutik etorriko den bere Semea itxarotea, haren etorrera, botereztatu izateko, itxarotea delarik, ez zatekeen beharrezko, erreinua jada hemen izan balitz. Orobat, baldin Jainkoaren erreinua, Bezak Mk. 9, 1ean oinarrituz dioen moduan, haren berbizkundera heldu izan balitz, zer arrazoi lukete haren berbizkunde osteko kristauak bere otoitzetan betorkigu zure erreinua esateko? Argi dago, beraz, ez dagoela San Markosen hitzak horrela interpretatzetik. Hemen direnetariko batzuek, dio gure Salbatzaileak, ez dute heriotza dastatuko Jainkoaren erreinua botereztatu etortzen ikusi arte. Erreinu hori Kristoren berbizkundera etorria bazen, zergatik esaten da batzuek, eta ez denek? Zeren, denak bizi izan baitziren Kristo berbiztu arte.

Baina pasarte honen benetako interpretazioa nahi dutenek, interpreta ditzatela gure Salbatzaileak San Joani buruz San Pedrori esaniko hitz antzeko hauek (Jn. 21, 22): Ni itzuli arte hori gelditzea nahi badut, zuri zer?; hitz horietan oinarritu zen Joan hilko ez zen zurrumurrua. Baina uste honen egia ez zen inoiz berretsi oinarrituntzat ezta hitz horietan gaizki oinarrituntzat errefusatu ere. Zailtasun bera ageri da San Markosen pasartean ere. Eta zilegi litzateke hitz horiek esan nahi dutena pasarte honen eta gauza bera esaten den San Lukasen pasartearen hurrengo datorrenera joz antzematea. Ez litzateke gertagaitz hurrengo bertsetetan deskribatzen den Itxuraldaketa buruzkoak direla esatea, hauxe diotelarik: Hitzaldi honetatik zortziren bat egunera, Pedro, Joan eta Santiago berekin hartu (ikasle guztiak barik batzuk, beraz) eta mendi altu eta bakarti batera igo zen Jesus otoitzera. Eta otoitzean ari zela, aurpegiko itxura aldatu egin

zitzaion, eta jantziak elurra baino zuri distiratsuago bihurtu, munduko ezein garbitzailek utzi litzakeen baino zuriago. Hartan Elias eta Moises azaldu ziren, eta Jesusekin mintzo ziren..., e.a. Era honetan, bada, aintza eta maiestatez ikusi zuten Kristo, etorriko zen moduan, eta zeharo beldurrak harturik zeuden. Eta horrela gure Salbatzailearen promesa ikuskari eran bete zen. Izan ere, ikuskaria izan baitzen, San Lukasengandik ziur aski atera daitekeen moduan, historia bera kontatzean (Lk. 9,28) zera baitiosku, alegia, Pedro eta berarekin zeudenak logura handiz zeudela. Baina benetan ere ikuskaria izan zela ziurrago ateratzen dugu Mt. 17, 9tik, hemen ere gauza bera kontatzen zaigularik, gure Salbatzaileak agindu haxe eman baitzien: Ez esan inori ikusi duzuea, harik eta Gizonaren Semea hilen artetik biztu arte. Dena dela, ez dago hemendik ateratzerik Jainkoaren erresuma Judizio eguna baino lehen hasiko dela. Aita Santuak subirano zibilengana boterea duela frogatzeko (Bellarminorenez gain) ekartzen diren beste testu batzuei dagokienez, hala nola Kristok eta haren apostoluek zituzten bi ezpatak izpirituala eta mundutarra zirela, Kristok San Pedrori eman omen zizkiolarik; edo argi bietatik handiak Aita Santua eta txikiak erregea adierazten dutela, horrela jokatz, norbaitek Idazteuneko lehen bertsetetik inferi dezake zeruak Aita Santua esan nahi duela eta lurrak erregea. Hau ez litzateke Idazteunean oinarriturik argudiatzea, printzei iraingarriro burla egitea baizik, hau, Aita Santuak beren handitasunean printze kristau guztiak mesprezatzeraino seguru egotera heldu zirenean jarri zelarik modan. Eta enperadoreen lepoa zapalduz, iseka egiten zieten haiei eta Idazteunari, Sal.91, 13.eko2 hitzez: Lehoiaren eta sugegorriaren gainean ibiliko zara, lehoia eta dragoia oinazpian hartuko.

Sagarapen erritoei dagokienez, gehienez Eliz gobernatzaileen zuhurtzia eta irizmenaren menpe dauden arren, eta ez Idazteunaren menpe, hala ere, gobernatzaile horiek beharturik daude ekintzaren izaerak agintzen duen bidea hartzera. Era honetan, zeremonia, hitz eta keinuek dezenteak eta esanguratsuak izan behar dute, edo egiten den ekintzarako egokiak behintzat. Moisesek Etxola, aldarea eta haietarako ontziak sagaratu zituenean (Ir. 40), Jainkoak horrexetarako egiteko agindu zuen olioaz igurtzi zituen eta santu izan ziren. Ez zen ezer araokatu, mamuak uxatzeko. Moisesek berak, Israelgo subirano zibilak, Aaron (Apaiz Nagusia) eta haren semeak sagaratu zituenean, uraz garbitu zituen (ez ur araokatuaz), soinekoak jantzi zizkien eta olioaz igurtzi zituen; eta santifikaturik geratu ziren Jainkoa apaizgoan zerbitzatzeko. Eta hau garbiketa eta apainketa xume eta dezente bat izan zen, Jainkoari haren morroi izateko aurkeztu aurretik. Salomon erregeak (Israelgo subirano zibilak) berak eraikiriko Eliza sagaratu zuenean (2 Erg.8) Israelgo herri guztiaren aurrean zutitu eta, herria bedekatu ondoren, eskerrak eman zizkion Jainkoari bere aitaren bihotzean hura egiteko asmoa jartzearen eta berari lan hura burutzeko grazia ematearren; eta gero otoitz egin zion Jaunari etxe hura onar zezan, haren amaigabeko handitasunerako egokia ez bazen ere, eta hara otoitz egitera joango ziren eta, joaterik izan ez eta, hara begira errezatuko zuten bere morroiaren otoitzak entzun zitzala erregutu zion; eta, azkenik, bake-oparia eskaini zuen eta Tenplua dedikaturik geratu zen. Zeremonia honetan ez zen prozesiorik izan, errege geldu egon zen zegoen tokian, ez zen ur araokaturik izan, ez Asperges me-rik ezta beste nonbait erabili beharreko hitzen erabilera desegokirik ere, hizkera dezente eta arrazoizkoa baizik, eta Jainkoari bere Etxe eraikiberria oparitzat eskaintze hau oso era egokian egin zen.

Ez dugu inon irakurtzen San Joanek Jordaneke ura araokatu zuenik ezta Felipek irena bataiatzeko erabili zuen ura araokatu zuenik ere; ezta artzainen batek bere txua hartu eta bataiatu behar zuen pertsonaren sudurrean jarri zuenik ere in odorem suavitatis esanez, hau da, Jaunaganako usain gozoan. Ez dago ez txuaren zeremonia hori, batere garbia ez dena bestalde, ezta Idazteuneko pasarte honen aplikapena ere, horren arinkeriaz egin, ezein giza autoritatez justifikatzerik.

Gorputzetik bananduriko arima betierekoz bizi dela frogatzeko, eta ez bakarrik aukeratuen arimak grazia bereziz -hau da, Adanek bekatuaz galdu eta gure Salbatzaileak bere burua sakrifikatuz berriz ekarri zigun betiko bizitza berrezarri-, baizik baita gaitzetsien arimak ere betierekoz bizi direla gizatasunari dagokion tasunez (Jainkoak gizateriari unibertsalki eman diona beste grazia gabe), hau frogatzeko, diot, badira pasarte batzuk, lehen ikusian horretarako balio dutela diruditenak; baina gorago (38. kapitulu) aipatu dudak Joben pasartearekin (Jb.14) konparatzen direnean, Joben hitzak baino interpretazio diferentean menpego daudela uste dut.

Eta, lehenik, Salomonen hitzak ditugu (12, 7): Hautsa lurrera itzuliko duk, handik sortua denez. Bizi-arnasa Jainkoarengana bihurtuko duk, berak emana denez. Testu hori frogarik nahikoa litzateke, zuzen berorren kontrakoa den beste testu bat ez balego, beste interpretazio honixe eusten diona, alegia, Jainkoak bakarrik dakiela, gizakumeak ez, zer gertatzen zaion gizakiaren arimari hura irautitzean; eta Salomonek berak liburu berean (3. kap. 20-21 ber.) esaldi bera dio neuk eman diodan adieran: Toki berera doaz denak (gizakumeak eta abereak) hautsetik datoz eta hautsera itzuliko dira. Ba al daki inork gizon-emakumeen arnasa gorantz igotzen den, eta abereen arnasa, aldiz, lurratzpira jaisten den? Hau da, Jainkoak bestek ez daki; eta ezagutzen ez ditugun gauzei buruz ez da ezohikoa Jainkoak daki zer, eta Jainkoak daki non esatea. Hor daukagu Has. 5, 24 ere: Jainkoak nahi bezala bizi izan zenez gero, behin batean desagertu egin zen, Jainkoak eramanik, hau Heb. 11, 5.ean azaltzen delarik: Jainkoak Henok heriotzarik jasan gabe eraman zuen; desagertu egin zen, Jainkoak eramanik. Baina, eramana izan zela esan aurretik, Jainkoak

nahi bezala jokatu zuela esaten da; testu honek, era berean dagoelarik arimaren zein gorputzaren hilezkortasunaren alde, zera frogatzen du, Henoken lekualdaketa hau Jainkoak nahi bezala bizi zirenei Hark ematen zien sari berezia zela, gaiztoei ematen ez zitzaiena, eta naturaren menpe barik graziaren menpe zegoena. Aitzitik, zer interpretazio emanen diogu, adiera literaletik aparte, Salomonen hitzei (Koh. 3, 19): Etorkizun bera dute gizon-emakumeek zein abereek; abereak hiltzen diren bezala hiltzen dira gizon-emakumeak ere. Arnasa (izpiritu) bera dute biek. Gizon-emakumeek ez dute deus ere abereek baino gehiago, eta dena huskeria da. Adiera literalaren arabera, pasarte honetan ez dago arimaren hilezkortasun naturalik, baina ezta aukeratuek graziaz gozatuko duten betiko bizitzarekin kontraesanik ere. Eta Koh. 4, 3.ean irakurtzen dugu: eta biok baino zoriontsuago jaio ez dena, hau da, bizi direnak edo bizi izan direnak baino; hau esatea gogorra litzateke, bizi izan diren guztiak hilezkorrak balira, honek esan gura izango lukeelako arima hilezkorra izatea arimarik ez edukitzea baino okerrago dela. Eta beste hau ere irakurtzen dugu (Koh. 9, 5): Badakite biziek hil beharra dutela; hilek, ordea, ez dakite ezer; hau horrelaxe da naturaz eta gorputza berbiztu aurretik.

Arimaren hilezkortasun naturalaren alde dagoela dirudien beste pasarte bat gure Salbatzaileak Abraham, Isaak eta Jakob bizirik daudela dioena da; baina hau Jainkoak egin zien promesaz eta berriz biztuko ziren ziurtasunaz esaten da, ez orain bizirik daudela adierazteko. Jainkoak Adani fruitu debekatua jan zezan egunean hil egingo zela esan zion pasartearen adiera berean interpretatu behar da goikoa ere, zera esan nahi baitzuen, alegia, handik aurrera Adanek herio-epaia zuela, epaia handik mila urtetara bete zen arren. Halaxe Abraham, Isaak eta Jakob

bizirik zeuden promesaz Kristok hitz egin zuenean ere, baina egotez ez daude bizirik berbizkundera heldu arte. Eta Aberatsaren eta Lazaroren historiak ez dakar ezer honen kontra, parabolatzat (horixe baita) hartzen badugu.

Baina badira Itun Berriko beste pasarte batzuk hilezkortasuna itxuraz gaiztoei eratxikirik agertzen dutenak. Izan ere, bistakoa da gaizto guztiak biztuko direla Judiziorako. Eta pasarte askotan esaten da, gainera, betiereko sutara joango direla, betiereko oinazeetara, betiereko zigorretara, eta kontzientziako harra ez dela sekula hiltzen; eta hau guztiau betiereko heriotza esapideak -betiereko bizitza oinazetan bezala interpretatu ohi denak-, hartzen du. Baina, hala ere, nik ez dut pasarte bat bera ere aurkitzen gizakia betiereko oinazetan biziko dela dioenik. Bestalde, gogorra litzateke esatea Jainkoak, errukiaren Aitak, zeru-lurretan nahi duen guztia egiten duenak, gizakume guztien bihotzak bere esku dituenak, gizakiengan hala haien jardunean nola gurarietan eragina duenak, bere dohako dohainik gabe gizakumeak ez onera jotzeko ez gaizki eginaz damutzeko ahalbiderik gabe ikusten dituenak, Jainko horrek gizakien legehausteak amairik gabeko zigorrez eta inork burura dezakeen baino oinaze handiagoz zigortzea. Aztertu beharra dugu, beraz, zer esan nahi duten Idazteunean betiereko suak eta antzeko esapideek.

Agertua dut Kristoren bidezko Jainkoaren erresuma judizio egunean hasten dela; egun horretan zintzoak gorputz izpiritual eta loriatsuetan biztuko direla eta Kristoren menekoak izango direla betierekoa izango den haren erresuma horretan; ez direla ez ezkonduko ez ezkontzeko emanak izango; ez dutela ez jan ez edango beren gorputz naturaletan zirenean egin zuten moduan, baina gizabanako moduan, espeziearen sortzetiko eternaltasunik gabe, betierean biziko direla. Eta gaitzetsiak ere biztu egingo direla beren bekatuen zigorra jasotzeko; eta orduan beren gorputz lurtarretan biziko diren aukeratuek gorputz horiek bat-batean aldatzen eta izpiritual eta hilezkor bihurtzen ikusiko dituztela. Baina Satanen erreinua osatzen duten gaiztoak gorputz loriatsu edo izpiritualak izango direla, edo Jainkoaren aingeruak bezalakoak izango direla, ez jan ez edan ez umatuko ez direnak, edo haien bizia eternala izango dela gorputz indibidualetan, gizakume zintzo ororena den moduan, edo, bekaturik egin ez balu, Adanena zatekeen moduan, ez dago Idazteunean hori frogatzeko pasarterik, betiereko oinazei dagozkienak izan ezik; baina hauek bestela ere interpreta daitezke.

Hemendik inferi genezake aukeratuek, berbiztu ondoren, Adanek bekatu egin aurretik zuen egoera bera berreskuratuko duten moduan, halaxe gaitzetsiak ere Adan eta haren ondorengoak bekatu egin ondoren aurkitu ziren egoeran izango direla, kontuan izanik beti Jainkoak Adani eta Beregan konfidantza izan eta damutzen ziren haren ondorengoei Berrerosle bat agindu ziela; gaitzetsiak bezala bekatuan hilko zirenei, oster, horrelakorik agindu ez zien artean.

Horiek guztiak kontuan harturik, betiereko sua, betiereko oinazeak edo inoiz hiltzen ez den harra aipatzen duten testuak ez daude bigarren eta betiereko heriotzaren doktrinarekin kontraesanean, heriotza hitzaren adiera propio eta naturalean. Gaiztoentzat Gehennan, Tophetean, edo dena delako tokian prestaturiko oinazeek baliteke betierean irautea; eta baliteke ez faltatzea han oinazeak sufrituko dituen gizagaiztorik; baina ez guztiak, ez bat bera ere, ez da izango han betierean. Izan ere, gaiztoak, Adanek bekatu egin ondoren izan zuen egoeran geratuko direnez gero, baliteke berbiztu ondoren lehen bizi ziren moduan bizitzea, eta ezkondu eta ezkontzeko emanak izatea eta gorputz sendar eta ustelkorrak izatea, gizateria guztiak egun dituen bezalaxe, eta, ondorioz, berbiztu ondoren aurretik bezala beti umeak sortzea, Idazteunean ez baitago horren aurkako pasarterik. Izan ere, San Paulok berbizkunderaz mintzo delarik

(1 Ko. 15), betiereko bizira berbizte moduan ulertzen du eta ez zigorrerako berbizte moduan. Eta lehenengoari buruz, San Paulok dio gorputza ustelkerian ereiten eta ustelgaiztasunean bizten dela, desohorean ereiten eta ohorean bizten, ahultasunean ereiten eta ahalean bizten, gorputz natural ereiten eta gorputz izpiritual bizten. Baina horrelakorik esaterik ez dago zigorra jasotzeko berbiztuko direnei buruz. Gure Salbatzailea, berbiztu ondoren gizakiak izango duen izaeraz mintzo delarik, betiko bizira berbizteaz ari da, ez zigorrerako berbizteaz. Testua Lk. 20, 34-35-36 da, testu emankorra: Mundu honetan gizon-emakumeak ezkondu egiten dira, baina datorren munduan eta hildakoen biztueran parte hartzeko Jainkoak gai aurkituko dituenak, gizonezko nahiz emakume, ez dira ezkonduko; izan ere ez daitezke berriro hil, aingeruen antzeko baitira eta Jainkoaren seme-alaba, biztueran parte dutenez gero. Adanek utzi zituen egoeran dauden mundu honetako seme-alabak ezkondu egingo dira, hau da, usteldu eta sortu egingo dira hurrenez hurren, hau espeziearen hilezkortasuna delarik, baina ez gizabanakoen. Eta ez dira kontatuko geroko mundua eta hilen artetik erabateko berbizkundea erdietsiko dutenen artean. Denbora laburrez baino ez dira berbiztuko mundu honetako biztanle moduan, eta beren setakeriagatik merezi duten zigorra jasotzeko soilik. Aukeratuak dira berbizkundearen seme-alaba bakarrik, hau da, betiereko biziairen oinordeko bakarrik; eurak bakarrik izango dira gehiagotan ez hiltzeko gai; eurak dira aingeruen parekoak eta Jainkoaren seme-alabak, ez gaitzetsiak. Berbiztu ondoren gaitzetsiei geratzen zaiena bigarren eta betiko heriotza da; eta berbizkunde eta bigarren heriotza horren arteko aldiak zigorrak eta oinazeak pairatu besterik ez dute egingo. Eta hori bekatarri guztiei gertatuko zaie hurrenez hurren, giza espeziearen ugalketak dirauen arte, hau da, betiere guztian.

Gorputzetik bananduriko arimen betieretasun naturalaren doktrinan dago oinarriturik, goian esan dudan moduan, purgatorioaren doktrina. Izan ere, betiereko bizitza graziaz bakarrik ematen dela jorik, ez dago gorputzarena beste bizi naturalik, ezta hilezkortasunik ere berbizkundera arte. Bellarminok purgatorioaren alde Itun Zaharreko Liburu kanonikoetatik ekarritako testuak, hauexek dira: lehenik, Dabiden baraua Saul eta Jonatanen alde, 2 Sm.1, 12an aipatua, baita 2 Sm.2, 35ean, Abnerren heriotzagatik. Dabiden barau hau, dio Bellarminok, Jainkoarengandik haientzat hil ondoren zerbait erdiesteko izan zen; izan ere, bere semea osa zedin barau egin ondoren, hil egin zela jakin bezain laster, okela ekartzeko eskatu zuen. Ikusirik arimak gorputzetik bananduriko existentzia duela eta jada zeruan edo ifernuan dauden arima horientzat ezer erdiesterik ez dagoela, hortik ateratzen da, ez zeruan ez ifernuan ez dauden gizakume hilen arimak izan behar dutela; eta, beraz, hirugarren tokiren batean, purgatorioan, egon behar dutela. Eta era horretan, testuak bortxatuz, Bellarminok pasarte horiek badela purgatorioa frogatzeko erabiltzen ditu, egia, oster, zera denean: dolu eta barau zeremoniak, deitoratzen dutenentzat onuragarri izan ez den bizitza eraman dutenen heriotza deitoratzeko erabiltzen direnean, haien pertsonak ohoratzeko izaten direla; eta zeremonia horiek dolua agertzen dutenei mesede egin dien norbaiten heriotzan egiten direnean, berriz, dolumina agertzen duten galera partikularretik datozela. Era horretan, Dabidek barau eginez Saul eta Abner ohoratu egin zituen; eta bere semea hiltzean, ohiko jatekoa janean, adorea hartu zuen.

Bellarminok ekarritako Itun Zaharreko beste pasarteetan ez da ageri frogarri arrasto edo itxurarik ere. Sumina, sua, erre, kitatu, garbitu hitzak agertzen diren testu guztiak dakartza, Elizako Gurasoek inoiz predikuren batean erretorikaz orduan jada sinesten zen purgatorioaren doktrinara aplikaturikoak izanez gero. 37. Salmoaren lehen bertsetak, Jauna, ez zigortu haserre, ez ni zentzatu sumindurik, zer zerikusi luke purgatorioarekin, baldin Agustinek haserre hitza ifernuko suari aplikatu ez balio? Eta zer zerikusi du purgatorioarekin Sal.66, 12.ekoak: Sutan eta uretan zehar igaro ginen, baina arnasa eman diguzu, eta antzeko testuek, garai hartako doktoreek beren predikuak eta iruzkina apaindu edo luzatzeko eta horrela gizon argi agertzeko erabiliak?

Baina Bellarminok Itun Berriko pasarteak ere badakartza, erantzuteko hain errazak ez direnak. Eta, lehenik, Mt. 12, 32: Norbaitek Gizonaren Semearen kontra zerbait esaten badu, barkatuko dio Jainkoak; baina Izpiritu Santuaren kontra hitz egiten duenak ez du barkamenik izango, ez mundu honetan eta ez datorrenean. Testu honetan, Bellarminok ulertzen du geroko munduan purgatorio bat izango dela, mundu honetan barkatzeko geldituriko bekatu batzuk barkatzeko lekua. Hala ere, bistakoa da hiru mundu besterik ez direla; bat Kreaziotik Uholdera doana eta urak suntsitu zuena da, Idazteunean antzinako mundua deritzona; beste bat, Uholdetik judizio egunera doana, oraingoxe mundua, suak suntsituko duena, eta hirugarrena judizio egunetik aurrera betiko izango dena, geroko mundua esaten dioguna eta, denen iritziz, purgatoriorik izango ez duena. Geroko mundua eta purgatorioa, beraz, bateraezinak dira. Zer esangura izan dezakete, orduan, gure Salbatzailearen hitz horiek? Aitortu behar dut ez dagoela erraz hitz horiek jada ahobatez onarturiko doktrina guztiekin uztartzen; baina ez dugu lotsarik izan behar Idazteunaren sakontasuna, giza adimen laburrak atzemateko baino handiagoa dela aitortzeko. Hala ere teologo jakitunagoei honako hau proposatzera ausartzen naiz, testuak berak iradokitzen duen moduan. Lehenik, ikusirik Hirutasunaren hirugarren pertsona den Izpiritu Santuaren kontra hitz egitea Izpiritu Santuaren egoitza den Elizaren kontra hitz egitea dela, badiardi honako bi hauek konparatzen dituela testuak, alegia: gure Salbatzaileak, mundu honi irakasten ibili zenean -hau da, mundu honetan izan zenean-, bere kontra irain eginikoekin duen biguntasuna, eta bere ondoreneko artzainek, oster, Izpiritu Santuak emaniko

agintea ukatzen dietenekin duten zorroztasuna. Zera esan nahi izan balu bezala: Nire boterea ukatzen duzuenok, ni gurutziltzatzeroa iritsiko zaretenok, nire barkamena izango duzue, damuturik bazatozkidate; baina nire ondoren Izpiritu Santuaren bertutez irakatsi zizuenen boterea ukatzen baduzue, haiek urrikigabeak izango dituzue eta ez dizuete barkatuko eta mundu honetan jazarrika ibiliko zaizkizue eta absoluturik gabe utziko zaituztete (nigana etorri arren ere, haien aurrean ere damutu ezean) geroko munduko zigorretara (haien eskuan dagoen neurrian) kondenaturik. Eta, era horretan, hitzok, kristau Elizan aspaldidanik nola izan diren azaltzeko profezia edo iragarpentzat har daitezke. Eta esangura hori ez bada -hain pasarte zailak interpretatzerakoan ez bainabil ziurtasun osoz-, agian, berbizkunde ondoren, badirateke tokiak bekatariak beren bekatuez damutzeko. Eta bada beste pasarte bat ere, azken aipaturikoarekin bat datorrela dirudiena. Izan ere, kontuan harturik San Pauloren hitzak (1 Ko. 15, 29), Badira zuen artean hilengatik bataiatzen direnak. Baina benetan hilak bizten ez badira, zertarako balio du haiengatik bataiatzeak?, norbaitek inferi dezake, batzuek egin ere egin duten moduan, San Pauloren garaian hilengatik bataioa hartzeko ohitura zegoela (orain helduak sinesteko gai ez diren haurtxoen fedearen bermatzaile diren moduan) eta hildako beren lagunen izenean gure Salbatzaileari obeditzea eta hura bigarren etorreran errege moduan hartzea bermatzekoa. Horrela ez legoke purgatorioaren beharrik geroko munduan bekatuak barkatzeko. Baina interpretazio biotan bada paradoxarik eta nik neuk ez diet sinespiderik ematen, eta, horregatik, Idazteunaren ikerketan arituei uzten diet bilatzea ez ote dagoen interpretazioon kontrako beste pasarte argiagoren bat. Hauxe besterik ez dut esango hemen, alegia, nik Idazteunean ikusten dudanetik, begibistako dela, nire ustez, Idazteunean ez dela ez purgatorio hitzik ez purgatorioa bera ageri, ez testu honetan ez beste ezeinetan, eta ezta ere ez dagoela Idazteunean gorputzetik bananduriko arimentzat lekuren bat egon behar duela frogatzera datorren testurik: ez Lazaroren arimarentzat hilik egon zen lau egunetan, ez Eliza Erromatarraren arabera orain purgatorioan oinazeak pairatzen omen dauden arimentzat. Izan ere, basa zati bati bizia emateko gai izan zen Jainkoak botere bera du orain gizakume hil bati berriro bizia emateko eta haren bizigabeko gorpu usteldua biziberritzeko, gorputz loriatsu, izpiritual eta hilezko bihurtuz.

Beste pasarte bat 1 Ko. 3 da, non esaten den benetako oinarrien gainean lasto, sarale eta abarrezko eraikinak eraikitzen dituenak egindakoa hondatzen ikusiko duela, baina bera, hala ere, bizirik aterako da, suteari ihes egiten diona bezala izan arren. Su hori purgatorioko sua dela ulertzen du Bellarminok. Hitz horiek, lehen esan dudan bezala, Zakarias 13, 9.aren aipu dira, non profetak dioen: Heren hori sutan garbituko dut zilarra garbitzen den bezala, urrea arragoan bezala, pasarte hau Mesiasen botere eta aintzaz beterik egingo duen etorreraz ari delarik, hau da, judizio eta oraingo munduaren konflagrazio egunean, egun horretan suak aukeratuak erre ez, baina garbitu egingo dituelarik, hau da, beren doktrina eta tradizio makurretatik aske eta zarakar horretatik garbi utziko dituelarik; eta gero benetako Jainkoaren izenari oles egingo diote. Antzera batean, Apostoluak dio, Jesus Kristo dela sinetsiz, oinarritzko printzipio horren gainean doktrina makurrak eraikitzen dituztenak, mundua berriztatuko duen suak erre barik, su horretan zehar igaroko direla beren salbaziora, beti ere beren lehengo erroreaz ohartu eta alde batera uzten badituzte. Eraikitzaileok artzainak dira; oinarritzko printzipioa, Jesus Kristo dela; lasto eta saralea, aipatu printzipioetatik ezjakintasunez edo arinkiaz ateratako ondorio faltsuak; erre, zilar eta harribitxiak haien egiazko doktrinak; eta haien xahuketa edo garbiketa, beren errorezi uko egitea. Horretan guztian ez dago, bada, arima gorpuzgabeen, hots, pairagaitzen, erreketaren arrastorik ere. Hirugarren pasarte bat lehen aipaturiko 1 Ko. 25, 29 da, hilengatiko bataioaz ari dena. Pasarte honetatik Bellarminok ondorio hauexek ateratzen ditu: lehenik, hilengatiko otoitzak ez direla alferrekoak; eta hortik deduzitzen du badela purgatorioko sua; baina ondoriotako bata ere ez da zuzena. Izan ere, bataio hitzari eman dakizkiokeen askotariko interpretazioetatik, hark hauxe onesten du lehenik: bataioaz esan nahi dena (metaforikoki) penitentziazko bataioa dela, eta adiera honetan gizakumeek barau eta otoitz egiten dutenean eta limosna ematen dutenean bataiatu egiten direla; eta, era horretan, hilengatiko bataioa eta hilengatiko limosnak gauza bera dira. Baina hau metafora bat da, adibiderik ez duena ez Idazteunean ez hizkuntzaren beste ezein erabileratan; eta era berean Idazteunaren asmo eta harmoniarekin ados ez dagoena. Bataio hitza (Mk. 10, 38 eta Lk. 12, 50) norberaren odolean murgiltzea adierazteko erabiltzen da, Kristo gurutziltzatua izan zenean esate baterako, eta apostolu gehienek kasuan, Haren lekukotza emateko. Baina bortxatuegia litzateke otoitz, barau eta limosnak, murgiltzeaz dutela zerikusiren bat esatea. Hitz bera erabiltzen da Mt. 3, 11.ean (purgatorioren alde datorrela dirudien adieran) suaz xahutzea adierazteko. Baina bistakoa da hemengo su eta xahuketa Zakarias profetak (Za. 13, 9) aipatzen dituen berak direla: Heren hori sutan garbituko dut, zilarra garbitzen den bezala...,e.a. Eta, Zakarias jarraituz, San Pedrok dio (1 P. 1, 7): Horrela, zuen fedea bere jatorria erakutsiko du, galkorra izan arren, sutan garbitzen den urreak bezala; eta urrea baino askoz baliotsuago den zuen fedea gorespina, ospea eta ohorea iritsiko ditu Jesukristo agertuko denean; eta San Paulok (1 Ko. 3, 13): Suak frogatuko du nolakoa den bakoitzaren lana. Baina San Pedro eta San Paulo Kristoren bigarren agerraldian izango den suaz mintzo dira; eta Zakarias profeta, berriro, judizio egunaz. Eta, beraz, San Mateoren pasarte hura gai berberaz ari dela interpreta daiteke, ez dagoelarik purgatorioko suaren premiarik.



Hilengatikoa bataioaren beste interpretazio bat lehen aipatu dudana eta Bellarminok daitezkeen artean bigarren jartzen duena da, hortik hilengatik otoiitz egitearen baliagarritasuna ere ateratzen duelarik. Izan ere, berbiztu ondoren, Kristoz ezer entzun ez dutenek edo harengan sinetsi ez dutenek Haren erresuman hartuak izateko ahalbidea badute, ez da izango alferrekoa lagunek haien alde otoiitz egitea, bizteko ordua iristen zaien arte. Baina zera onarturik ere, hots, Jainkoak, zintzoen otoiitzak entzutean, egin lezakeela Kristoren doktrinaren predikua entzun ez dutenak, eta, beraz, Hura arbuiatzeko aukerarik izan ez dutenak kristau bihurtzea, eta haien alde otoiitz egiten dutenen maitasuna ezin daitekeela gaitzets onarturik ere, hemendik ez da ezer ateratzen purgatorioaren alde, heriotzatik bizira biztea bat baita, eta purgatoriotik bizira biztea beste bat, hau da, bizitik bizira biztea, oinazeetako bizitik atseginetako bizira.

Laugarren pasarte Mt. 5, 25 da: Konpon zaitez lehenbailehen zeure etsaiarekin, berarekin auzitegira zoazen bitartean; bestela, epailearen eskuetan jarriko zaitu eta epaileak ertzainaren eskuetan, eta gartzelara botako zaituzte. Alegoria honetan iraintzailea bekataria da, arerioa eta epailea Jainkoa da; bidea bizitza haxe; gartzela, hilobia; ertzaina, heriotza; bekatariak ez du heriotzatik betiereko bizitzara jalgitzerik izango, bigarren heriotza jasan beharko baitu azken txanpona ordaindu arte eta Kristok bere Nekaldiaren bidez haren orde z ordaindu arte, haxe delarik edozertariko bekaturen, bekatu arinen zein delitu astunen erreskate bete-betea, Kristoren Nekaldiaren bidez mota biok berdinki arin bihurtzen baitira. Bosgarren pasarte Mt. 5, 22 da: Bere senidearekin haserretzen dena, kondenatua izango da; bere anaiari "raka" (kaskarin) esaten diona biltzarre nagusian kondenatua izango da. Baina "zoro" esaten diona, ifernuko sutara kondenatua izango da. Hitzotatik Bellarminok hiru bekatu mota eta hiru zigor mota ateratzen ditu. Eta, hirugarrena izan ezik, bekatuotako bat ere ez dela ifernuko suaz zigortuko deduzitzen du. Eta, ondorioz, bizitza honen ondoren zigorren bat dagoela bekatu arinagoengatik, zigor hau purgatorioan beteko delarik. Baina pasarte honi egin zaizkion interpretazioetan ez dago inferentzia horien arrastorik ere. Izango ote da, bada, bereizpenen bat, bizitza honen ondoren, justizi auzitegien artean -gure Salbatzailearen garaian juduen artean izan zen moduan-, delitu mota ezberdinak entzun eta epaitzeko, eta, era berean, epaile eta Kontseilu ezberdinak? Ez al dagokie Kristori eta haren Apostoluei epailetza oro? Beraz, testu hau ulertzeko, ez dugu isolaturik aztertu behar, aurrean eta ostean dituen hitzekin batera baizik. Gure Salbatzailea kapitulu honetan Moisesen Legea interpretatzen ari da, juduek, haren adiera literala hautsi ezean, betetzat izan ohi zutena, legegilearen epaia edo hark emaniko esangura hautsi arren. Horrela, uste zuten seigarren agindua, gizakumeren bat hil ezean, ez dela hausten; ezta zapigarrena ere, gizona bere emaztea ez den emakumearekin etzan ezean. Baina gure Salbatzaileak diotse gizakumearen barne-sumina, kausa bidezkorik ukan ezean, gizahilketa dela. Entzun duzue (diotse) Moisesen Legea: Ez duzu inor hilko, eta inor hil dezan oro kondenatua izango da epaileen aurrean, edo Hirurogeita Hamarren auzitegiaren aurrean. Baina nik diotsuet, norberaren anaiaz arrazoirik gabe haserretzea edo hari raka edo zoro esatea gizahilketa dela eta judizio egunean, Kristo eta Apostoluen aurrean, ifernuko suaz zigortua izango dela. Hitz horiek, hortaz, ez ziren erabili delitu ezberdinak, auzitegi ezberdinak eta zigor ezberdinak bereizteko, bekatu bat bestetik bereizteko baizik; juduek Jainkoari obeditu nahi izatetik barik, justizi auzitegi ezberdinekin zuten aldetik ateratzen zuten bereizpen bera; eta haiei erakusteko bere anaiari min egiteko asmoa zuena, emaitza irain batean geratu arren edo ezertan agertu ez arren ere, judizio egunean epaileek eta auzitegien bazkunak (alderik izango ez zutenek) ifernura jaurtikiko zutela. Hau kontuan harturik ez dut iruditzerik zer atera daitekeen testu horretatik purgatorioari eusteko.

Seigarren pasarte Lk. 16, 9 da: Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaren bidez; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuan hartuko zaituzte Jainkoak. Bellarminok testu hori mundu honetatik joandako Santuei otoiitz egitea frogatzeko dakar. Baina argi dago testuaren esangura geure aberastasunak pobreen lagun egiteko erabili behar ditugula dela, era horretan haien otoiitzak erdiesteko bizi diren artean. Pobreak damaionak Jainkoari prestatzen dio.

Zazpigarrena Lk. 23, 42 da: Jesus, oroitzat zaitez nitaz errege izatera iritsiko zarenean. Beraz, dio Bellarminok, bizitza honen ondoren bada bekatuen barkamena. Baina ez da ondorio zindoa. Gure Salbatzaileak une hartantxe barkatu zion eta, berriro aintzaz datorrenean, gogoan izango du betiereko bizitzara bizteko.

Zortzigarrena Eg. 2, 24 da, non San Pedrok Kristori buruz dioten Jainkoak bizitu egin zuela, Herioren oinazeetatik askatuz, Heriok ezin zuelako hura bere menpean eduki; Bellarminok interpretatzen du hori Kristoren purgatoria jaiste dela, arima batzuk beren oinazeetatik libratzera. Baina argi eta garbi dago Kristo izan zela libratu zena; bera zen Heriok, edo hilobiak, menperatu ezin zuena, eta ez purgatorioko arimak. Eta Bezak pasarte honi buruz bere oharretan dioena arretaz behatuz gero, ez dateke inor ikusiko ez duenik oinazeen orde lokarriak izan beharko lukeela; eta, beraz, ez dago beste arrazoirik testu honetan purgatorioaren aldeko ezer gehiagoren bila ibiltzeko.

## XLV

Demonologiak, eta jentilen erlijioaren beste zenbait geldikinez

Gorputz argitsuek ikus-organoetan eginiko inpresioak, behin lerro zuzenean behin lerro anitzetan gorputz opakuetan isladatuak edo gorputz gardenetan zehar pasatzean errefraktatuak, inpresio horren iturburu den

objektuaren irudia sortarazten du, organo horiek Jainkoak emanik dituzten izaki bizidunengan. Irudi hori ikuskaria deitzen dioguna da, eta ez du irudi hutsa denik ematen, baizik gorputza bera gugandik at. Norbaitek begietan presioa indartsu egin eta bere aurrean eta kanpoan berak ezik, beste inork hautematerik ez duen argi bat agertzen zaionean jazotzen dena bezalakoa da; izan ere, argi hori ez dago hori egiten duenarengandik at, eta badagoela pentsarazten diona bere barne-organoen higidura bat besterik ez da, haietan egin den presioaren kontra kanporantz erreakzionatuz. Eta presio horrek eraginiko mugimendua, presio hori sortarazi duen gorputza aldendu eta gero ere iraun dirauenean, irudimena eta oroimena deritzona da, eta lotan, zenbaitetan, gaixotasunak edo kolperen batek eraginik organoetan desoreka dagoenean, ametsa da. Gauza hauetaz ari izan naiz jada labur, bigarren eta hirugarren kapituluak.

Antzinatean ikuskariaren izaera ikertzen saiatu zirenek ikuskariaren izaera hau sekula aurkitu ez zuten zere gero -eta are gutxiago, jakina, beren eguneroko arazoetatik hain urruti dagoen halako ezagugai hori aztertzen geratzen ez direnek-, oso zail da gizakumeek irudimenean eta zentzuan dituzten irudi edo imajina horiek gugandik kanpo benetan existitzen diren gauza moduan, eta halaxe bakarrik, ez bururatzea; eta horrelako gauzak noizean behin desagertu egiten direnez, eta haiek ez dakitenez ez nora ez nola doazen, erabat gorpuzgabeak direla diote, hau da, inmaterialak, materia gabeko formak: gorputz koloreztatu eta irudikaturik ez duten kolore eta formak, airezko gorputzak har ditzaketenak jantzi moduan, gure gorputzeko begiek ikusteko modukoak izatea nahi dutenean. Beste batzuek gorputz eta izaki bizidunak direla diote, baina airez edo bestelako material mehats edo etereoagoz eginak, norbaitek ikustean kondentsatu egiten direnak. Baina batzuk eta besteak bat datoz objektu horiei DEMONIO izena ematean, ametsetan ikusten dituzten hildakoak beren burmuineko biztanleak ez, baina airekoak edo zerukoak edo ifernukoak balira bezala; irudimenak eragindako "fantasmak" ez, baina "izpirituak" balira bezala. Eta hori esateko, beste hauek esateko adina arrazoi dute doi-doi, alegia, ispiluan isladaturik beren izpiritua ikusi dutela, edo ibaian isladaturik izarren izpirituak, edo eguzkiaren gure ohiko ikuskariari -oinbete inguruko zirkulua- ikusten dugun mundu guztia argitzen duen eguzki handiaren demonioa edo izpiritua deitzeko adina. Eta horiek bitarteko, gizakumeak "izpiritu" horien beldur izan dira, mugagabeko boterez horniturik ikusi baitituzte, berei mesede edo kalte egiteko gai; eta, ondorioz, Estatu paganoetako buruzagiek beren beldur hori erregulatzeraz eraman dituzte, DEMONOLOGIA hori ezarriz -poetak zirelarik, erlijio paganoko apaiz printzipal gisa, horretara bereziki dedikatuak eta begirunez hartuak-, bake publikoa eta bakerako behar den menekoen obedientzia lortzeko. Eta erregulatzean, batzuk demonio on eta beste batzuk demonio gaizto egiten zituzten; batzuk, menekoak legea betetzera akuilatzeke, besteak, legea haustetik apartatzeko.

Zernolakoak ziren demonio izena hartu zutenak, aldeztu Hesiodok, Greziako poetarik zaharrenetako bat berau, idatzitako haien jainkoen genealogian ageri da, eta aldeztu beste historia batzuetan, batzuk gorago aipatu ditudalarik lan honen 12. kapituluak.

Grekoek, beren kolonia eta konkistaturiko lurraldeen bidez, Asia, Egipto eta Italiaraino helarazi zituzten beren hizkuntza eta idazkiak, eta horiekin batera, ondorio logiko moduan, beren demonologia, edo San Paulok deitzen dien moduan, beren demonioen doktrinak ere helarazi zituzten. Eta horren bidez kutsadura juduengana ere heldu zen, bai Judeako bai Alexandriako eta bai sakabanaturik zeuden beste leku batzuetako juduengana. Baina demonio izena ez zien eman, grekoek egin zuten bezala, demonio on eta txarrei, baizik txarrei bakarrik; eta demonio onei Jainkoaren izpiritu deitzen zien, eta norbaiten gorputzean sartzen baziren, hura profetatza hartzen zuten. Hitz batez, ezaugarri oro, ona izanez gero, Jainkoaren izpirituari eratzikitzen zioten, eta, txarra izanez gero, demonioren bati, baina kakodavimwn-en bati, demonio txarren bati, hau da, deabruren bati. Eta horregatik demoniakoak, hau da, deabruak hartuak deitzen zieten guk zoro edo ilargijoak esan ohi diegunei, edo erortzeko gaixotasuna zutenei, edo berek, adimen moztasunez, absurdutzat hartzen zituzten gauzak esaten zituztenei. Orobat, dexente legendadun zen pertsona bati buruz, izpiritu satsua zuela esan ohi zuten; mutuez, izpiritu mutua zutela; eta Joan Bataiatzaileari buruz (Mt. 11, 18), haren barauen berezitasunagatik, deabrua zuela esaten zuten; eta gure Salbatzaileari buruz, bere esanak betetzen zituztenak ez zirela in aeternum hilko esaten zuelako (Jn. 8, 52): Oraintxe bai dakigula deabruaren menpe zaudela. Abraham hil egin zen eta profetak ere bai. Baita horrelakoak esaten zituelako ere (Jn. 7, 20): Jesusek esan zien: Zergatik zabilzate ni hil nahian? Jendeak erantzun zion: Deabrua duzu zuk. Nor dabil zu hil nahian? Hemendik argi dago juduek grekoen iritzia bera zutela fantasmai buruz, hau da, ez zirela fantasmak, hots, burmuineko "idoloak", gauza errealak eta irudimenetik atekoak baizik.

Doktrina hori egiazkoa ez bada, norbaitek esan dezake, zergatik ez zion gure Salbatzaileak kontra egin? Are, zergatik darabiltza zenbait aldiz doktrina hori itxuraz berresten duten esapideak? Honi zera esanez erantzun dion, lehenik, Kristok dioenean Izpirituak ez du hezur-haragirik, izpirituak badirela adierazten ari den arren, ez du, hala ere, ukatzen gorputzak direnik. Eta San Paulok dioenean gorputz izpiritual bihurturik biztuko garela, izpiritu izaera aitortzen du, baina gorpuzdun izpirituak direla esanez, hau ulertzen zail ez delarik. Izan ere, airea eta beste gauza asko gorputzak dira, hezur eta haragi ez izan arren,

ezta begiz bereiz genezakeen bestelako gorputz sendar ere. Baina gure Salbatzaileak deaburen bati hitz egin eta gizakume batengandik irteteko agintzen dionean, deabru hitzaz gaixotasunen bat esan nahi izan bazuen, frenesia edo zorotasuna edo gorpuzdun izpirituren bat esan nahi izan bazuen, ez al da hori mintzakera desegokia? Entzumena ote dute gaixotasunek? Izan ote daiteke gorpuzdun izpiriturik jada bizi-izpirituz eta animali izpirituz beterik dagoen haragi eta hezurrezko gorputzean? Ez ote da, beraz, badirela gorputzik ez duten eta era berean irudipen huts ez diren izpirituak? Lehenengoari erantzun behar diot gure Salbatzaileak, berak osatu behar zuen gaixotasun, zorotasun edo lunatismoari aginduak ematean ez zuela jokatu desegokiroago, sukarrari edo haize eta itsasoari baretzeko agindu zienean baino, hauek ere ez baitute entzuterik; eta ezta ere ez zen izan, Jainkoak argiari, ortzeari eta izarrei aginduak ematea baino desegokiago, izateko agindu zienean, izan aurretik nekez entzun baitzezaketen. Baina hitz egiteko moduok ez ziren izan desegokiak, Jainkoaren hitzaren boterea adierazten dute eta; beraz, zorotasunari edo lunatismoari -deabru deituz, orduan gaixotasunoi halaxe deitzen zitzaielako- gizakume baten gorputzetik alde egiteko agintzea ere ez da gauza desegokia: Bigarrenari, hau da izpiritu gorpuzgabeak direla dioen baiezipenari dagokionez, ez dut Idazteunean pasarte bat bera ere aurkitu gizakumeren bat, bere gorputza naturalki mugitzen duen bere izpirituak izan ezik, beste ezein izpirituk sekula harturik egon dela ateratzeko oinik ematen duenik.

San Mateok dio (Mt. 4, 1) gure Salbatzailea Izpiritu Santuak, uso forman Haren gainera jaitsi eta berehala, basamortura eraman zuela; eta gauza bera esaten da berriro (Lk. 4, 1) honako hitz hauetan: Jesus Izpiritu Santuaz beterik zegoela, Izpirituak eramanik, basamortuan barrena ibili zen. Hemen argi dago Izpirituak Izpiritu Santua esan nahi duela. Pasarte honetan ezin da ulertu Kristo hartua izan zela, Kristo eta Izpiritu Santua substantzia bakar bera direlako, hau ez delarik substantzia edo gorputz batek bestea hartzea. Eta hurrengo bertsetetan, deabruak Hiri Santura eraman zuela eta tenpluaren goreneko ertzera jaso zuela dioen arren, deabruak Jesus hartu eta indarrez eraman zuela aterako al dugu hortik? Eta beste behin irakurtzen dugunean deabruak mendi oso garai batera eraman eta munduko erreinu guztiak erakutsi zizkiola, hemen ere ez dugu ulertu behar deabruak hartu edo behartu zuenik, ezta hemisferio oso bat erakusteko moduko mendi garairik zegoenik ere. Zein izan daiteke orduan pasarte horren esanahia, haxe ezik: Jesus basamortura bere kabuz joan zela eta gora eta beheara eramate hori, basamortutik hirira eta hiritik mendira, ikuskaria izan zela? Honekin ados dago San Lukasen esaldia, basamortura Izpiritu Santuak barik, Izpiritu Santuarengan eramana izan zela dioenean; mendira eta tenpluaren pinakulura eramateaz ari denean, oster, San Mateok bezala hitz egiten du, hau ikuskariaren izaerarekin ados dagoelarik.

Orobat, San Lukasek Judas Iskarioteri buruz dioenean Satanak sartu zela haren baitara, eta orduan apaizburu eta goardiburuengana joan zela, haien eskuetara Jesus nola eman hitz egitera, honi erantzun dakioke Satanak (hau da etsaia) sartu zela haren baitara dioen tokian, horren bidez bere Jaun eta Maisua saltzeko zuen etsaikeriazko asmo traidorea esan nahi dela. Izan ere, Izpiritu Santuaz Idazteunean maiz Izpiritu Santuak emanik grazia eta joera onak ulertzen diren moduan, halaxe Satanak sartzeaz, Kristoren eta haren ikasleen etsaien pentsamendu eta asmo gaiztoak uler daitezke. Izan ere, zail litzatekeen moduan baiezte Deabrua Judasen bihotzean, honek Kristoren kontrako egitasmorik egin aurretik sartu zela, halaxe litzateke desegokia esatea lehenbizi Judas bere bihotzean Kristoren etsai egin zela eta gero sartu zela deabrua haren baitara. Horregatik, Satanak sartzea eta haren asmo gaiztoak gauza bakar bera ziren. Baina ezein izpiritu materia gabekok ez ezein izpiritu gorpuzdunek giza gorputzik hartzerik ez badu, galde daiteke ea gure Salbatzaileak eta haren ikasleek zergatik ez zioten herriari hori argi irakatsi haien duda guztiak ezabatzeko moduan. Baina horrelako galderak jakinminari erantzuten diote, kristauaren salbaziorako beharrezko denari baino areago. Izan ere, gizakumeek galde dezakete beste hau ere, alegia, fedea, jainkozaletasuna eta edozertariko bertute moralak gizakume guztiei eman ziezazkiokkeen Kristok zergatik eman zizkien banaka batzuei bakarrik, eta ez denei; baita zergatik utzi zuen kausa naturalen eta zientziaren ikerketa gizakumeen arrazoimen naturalaren eta lanaren kontura, denei edo baten bati supernaturalki errebelatu beharrean. Honi guztioni buruz, arrazoi gertagarri eta jaierazkoak ekar daitezke. Izan ere, nola Jainkoak, israeldarrak aginduriko lurraldera ekarri zituen, han segurtasunik ez zien eman inguruko nazio guztiak menperatuz -haietako asko hantxe utzi baitzituen Israelen saiheitsaldeetan jarritako arantza moduan, noizik noizera haien jainkozaletasuna eta ahalegina iratzartzeko-, halaxe gure Salbatzaileak ere gu bere zeruetako erresumara gidatzean, ez ditu ezabatu arazo natural guztiak, geuk konpontzeko utzi baititu geure ahalegin eta arrazoimenaz. Izan ere, haren predikaren helburua salbaziorako bide xume eta zuzena guri erakustea besterik ez zen izan, hau da, fede artikulua haxe sinestea: bera Kristo zela, Jainko biziaren Semea, gure bekatuengatik bere bizia emateko eta aintzaz beterik bere aukeratuen betiko errege izateko mundura bidalia, haiek etsaiengandik betiko salbatzera berriz etortzen denean. Horretarako ez da eragozpen izpirituek edo fantasmek gizakumeak hartzen dituztela uste izatea, nahiz eta batzuentzat bidetik aldendu eta beraien asmakeriei jarraitzeko parada litzatekeen. Idazteunari Jainkoaren aginduak betetzeko traba egiten diguten arazo guztien azalpena eskatuz gero, Moisesek ere kexatu beharko genuke ez zuelako zehaztu noiz kreatu zituen Jainkoak izpiritu

edo fantasma horiek, lehorra, itsasoa eta animaliak kreatu zituen unea zehaztu zuen moduan. Amaitzeko, Idazteunean aurkitzen dut aingeruak eta izpirituak, onak eta txarrak, daudela; baina ez gorpuzgabeak direnik, gizakumeek ilunetan edo ametsetan edo ikuskarietan ikusten dituzten agerkariak diren bezala (latindarrek spectra esan eta demoniotzat hartzen zituztenak). Eta aurkitzen dut gorpuzdun izpirituak daudela (nahiz eta mehats eta ikustezinak). Baina ez dut aurkitzen haiek bizilekutzat harturiko gorputzik denik. Eta onartzen dut santuen gorputzak horrelakoxeak izango direla, hau da, gorputz izpiritualak, San Paulok deitzen dien bezala.

Hala ere, nirearen kontrako doktrina, hau da, izpiritu gorpuzgabeak badirela dioena, hain nagusitu da Elizan egundaino, non doktrina horrexen eraginez exorzismoa erabiltzea, hots, konjurio bidez deabruak jaurtikitzea ezarri den; eta, bakanki eta arinki praktikatzan bada ere, ez da oraindik guztiz desagertu. Hasierako Elizan deabrudun asko eta zoro eta horrelako gaixotasun berezidun gutxi izatea, gaur egun, ostera, zoro asko eta deabrudun gutxi ikusten edo haietaz hitz egiten entzuten dugun artean, gauzak aldatu izanetik barik, izenak aldatu izanetik dator. Baina nola gertatu den apostoluek, eta haien ondoren aldi batez Eliz artzainek, gaixotasun berezi horiek osatu egiten zituzten bitartean, orain osatzen ez ikustea; nola gertatu den egiazko fededunek egun ez izatea orduan fededunek, Mk. 16, 17.ean irakurtzen dugun moduan, egiten zituzten gauza guztiak egiteko botererik -hau da, Kristoren izenean deabruak bota, hizkuntza berriz mintzatu, sugeak eskuetan hartu eta, edari hilgarriren bat edanik ere, gaitzik egin ez, gaixoei eskuak ezarri eta osatu, eta hori guztia Jesusen izenean beste hitzik erabili gabe-, hori beste kontu bat da. Eta badaiteke aparteko dohain haiek Elizari gizakumeek Kristorengan oso-osoan sinetsi zutenean eta beren zoriona geroko bizitzan beste ezertan bilatzen ez zutenean bakarrik eman izana; eta, agintea eta aberastasunak bilatzen hasi eta mundu honetan erreinua erdiesteko beren abilezian konfidantza jartzen hasi zirenean, Jainkoaren dohain supernaturalok Jainkoak berriro kendu izana.

Jentilismoaren beste geldikin bat, imajinen gurtza da, ez Moisesek Itun Zaharrean ez Kristok Berrian eratu ez zutena; ez zen jentilengandik hartua ere, jentilak Kristorenganatzean beren artean gelditurikoa baizik. Gure Salbatzaileak bere doktrina predikatu aurretik, jentil guztien erlijioa, zentzu-organoetan kanpoko gorputzek eragindako inpresioaren ondoren burmuinean geratzen diren antzirudi horiek jainkotzat gurtzea zen, antzirudiok izen ezberdinak hartzen zituztelarik, hala nola, ideiak, idoloak, fantasmak, kontzeptuak, eragile dituzten kanpoko gorputzen irudikapenak baitira, ametsetan agertzen zaizkigun gauzak baino errealtate gehiagorik ez dutelarik. Eta horrexagatik dio San Paulok: Badakigu idoloak ezer ere ez direla; ez zuen esan nahi, jakina, metalezko, egurrezko edo harritzko imajina bat ezer ez zenik; baizik imajina hartan ohoratzen zuten edo beldurtzen zituena eta Jainkotzat zutena fikzio hutsa zela, bizirik, mugimendurik edo existentziarik gabekoa, burmuinaren mugimenduetan izan ezik. Eta idoloak jainko-ohorea emanez jaurestea da Idazteunean idolatria eta Jainkoaren kontrako errebelamendua esaten zaiona. Izan ere, Juduen Errege Jainkoa izanik eta haren loktenentea lehenbizi Moises, eta gero Apaiz Nagusia, herriari bere fantasiaren irudikapenak besterik ez diren imajinak jauresten eta haiei erregu egiten utzi izan balitzaio, ez ziren izango imajinon ezer antzekorik ere ez duen egiazko Jainkoaren menpean, ezta haren ministro printzipalen, hau da, Moises eta Apaiz Nagusien menpean ere. Aitzitik, nork bere burua bere gurari arabera gobernatuko zuen, Estatuaren azkena eta haien beren suntsipena ekarriz batasun faltaz. Horregatik Jainkoaren lehen legea ez zutela Jainkotzat ALIENOS DEOS, hau da, beste nazioetako jainkoak, hartu behar izan zen, egiazko Jainkoa bakarrik baizik, Moisesekin harremanean jarri nahi izan zuena, haren bidez israeladarrei legeak emanez bakea erdiesteko eta etsaiengandik salbatzeko. Eta bigarrena, ez zutela berek asmatutako imajinarik egin behar jauresteko. Zeren gauza bera baita errege bat kentzea edo beste baten menpean jartzea, dela inguruko nazio batek ezarria dela guk geuk jarria.

Jauresteko asmoz imajinak egitea edo Jainkoa jauresten den toki guztietan eraikitzea libre zela frogatu nahian ekartzen diren Idazteuneko pasarteak, lehenik, bi hauexek dira: bat Jainkoaren Kutxa gaineko kerubinez ari dena, bestea brontzezko sugearena. Bigarrenik, Jainkoarekin duten zerikusiagatik zenbait kreatura, hala nola Jainkoaren idulkia jauresteko agintzen zaigula adierazten duten testuak dira. Eta, azkenez, gauza santuak ohoratzea baimentzen zaigula adierazten duten testuak. Baina frogatu nahi dena frogatzeko, pasarteok duten indarra aztertu aurretik, jauresteaz zer ulertu behar den eta imajina eta idoloek zer ulertu behar den azaldu behar dut.

Azaldu dut, lan honen 20. kapituluaren, ohoratzea, pertsona baten boterea goi mailan balioestea dela, eta balioespen hori pertsona hori beste batzuekin alderatuz neurtzen dela. Baina boterean Jainkoarekin ezer konparatzerik ez dagoenez gero, ohoratu barik desohoratu egiten dugu Jainkoa, infinitua baino beheragokoa den edozerekin konparatzean. Eta, era honetan, ohorea sekretua eta bihotz-barrukoa da, izatez. Baina gizakumeen barne-pentsamenduak haien hitz eta egintzetan agertzen dira kanpora, ohorea ematen dugun seinale direlarik, eta JAURESPENA esaten zaio, latinean CULTUS. Beraz, otoitz egitea, zin egitea, obeditzea, zerbitzuan arduratsu eta atsegina izatea eta, hitz batez, min emateko beldurra edo laketa izan nahia adierazten duen hitz edo egintza guztiak jaurespena dira, benetakoak zein itxurazkoak izan; eta ohoratzen den seinale moduan egiten direnez, ohoreak ere esaten zaie arruntki.

Gizakitza besterik hartzen ez ditugune, hala nola erregeei eta autoritatea dutenei erakusten diegun jaurespena jaurespen zibila da. Baina Jainkotzat hartzen dugunari erakusten diogun jaurespena, direnak direla horretarako erabiltzen ditugun hitz, zeremonia, keinu eta egintzak, jainko-jaurespena da. Erregearen aurrean errege hori gizontzat bestetza hartzen ez duena makurtzea jaurespen zibila besterik ez da; eta Jainkoaren etxean dagoela-eta, elizan kapela kentzen duenak, ostera, jainko-jaurespenez jauresten du. Jainko-jaurespenaren eta giza jaurespenaren arteko bereizpena jauresleak berak duen asmoan barik δονλαα eta λατρεια hitzetan bilatzen duenak, iruzur egiten dio bere buruari. Izan ere, bi zerbitzari mota daude. Batzuk, erabat beren ugazaben menpean daudenak dira, hala nola gerran harrapaturiko esklabuak eta haien ondorengoak, beren gorputzetan ere eskubiderik ez dutenak (haien biziak ugazaben nahiaren menpean baitaude, desobedientziarik txikienagatik zigorra jasotzeraino), abereak bezala sal-erosten dituztenak eta δονλοι, hau da, zentzu hertsian esklabuak deritzenak; eta egiten duten zerbitzuari δονλαα deritza. Besteak, zerbitzua borondatez egiten dutenak dira (alokairuagatik edo beren ugazabengandik onuraren bat jasotzeagatik); Θηρεζ deritze, hau da, etxe-zerbitzariak, ugazabek haien zerbitzuarekiko, haiekin egindako kontratuetan hitzarturiko eskubideak besterik ez dituztelarik. Bi zerbitzari motok gauza bat dute bie dagokiena, beste batek jartzen diela lana. Eta Λατριζ hitza da bion izen orokorra, inorentzat lan egiten duena esan nahi duena, behin esklabu moduan behin borondatezko zerbitzari moduan. Hortaz, Λατρεια hitzak zerbitzu oro, orokorrean, esan nahi du; Douleiva hitzak, ostera, derrigorrezko zerbitzua eta esklabutasuna soilik esan nahi ditu. Hitz biok nahasirik erabiltzen dira Idazteunean (Jainkoaren zerbitzua adierazteko): δονεια, Jainkoaren esklabuak garelako; Λατρεια, Jainkoa zerbitzatzen dugulako. Eta zerbitzu mota orotan obedientzia ezezik, jaurespena ere badago, hau da, ohorea adierazten duten ekintzak, keinuak eta hitzak.

IMAJINA (hitzaren adierarik hertsienean) ikus daitekeen zerbaiten antzirudia da. Adiera honetan, irudimenak sorturiko formak, gorputz ikuskorren agerkariak edo begitazioak imajinak besterik ez dira; halakoxeak dira gizakume baten edo beste edozeren isladapena ur-azalean, erreflexioz edo errefrakzioz, baita eguzkiaren edo izarrena ere, airean zuzen ikusten direnean; imajinok, izan ere, ikusten ditugun gauzetan ez dira egiazko ezer, eta ez daude ageri diren tokian, eta ez dituzte objektu errearen magnitude eta figura berak, ikus-organoen aldaketen arabera aldatzen baitira, edo lenteak erabiltzen direnean; eta sarri geure irudimenean eta ametsetan hantxe izaten ditugu, objekturik ez dagoela ere; edo beste kolore eta forma batzuk hartzen dituzte, irudimenaren besteren menpe ez dauden gauzak bezala. Eta hauexek dira jatorriz eta zentzu hertsienean, ideia eta IDOLO deritzen imajinak, grekoen hizkuntzatik eratorriak, haien artean Ειδω hitzak ikusi esan nahi duelarik. Fantasmak ere esaten zaie, hizkuntza berean agerkariak esan nahi duen hitza. Eta imajina hauexetatik dator gizakumeen ahalmen bati imajinazioa deitza. Hori guztiagatik argi dago ez dagoela eta ez daitekeela izan ikustezina den ezerean imajinarik.

Halaber begibistakoa da ez daitekeela izan infinitua den zerbaiten imajinarik; gauza ikuskorren inpresioz sorturiko imajina eta fantasma guztiak figuradunak dira, eta figura erabat zehazturiko kantitatea da. Beraz, ez daiteke izan Jainkoaren imajinarik, ez giza arimarenik, ezta izpirituenik ere, baizik gorputz ikuskorrena soilik, hau da, beren baitan argia dutenena, edo hauengandik argia hartzen dutenena.

Baina gizakumeak sekula ikusi ez dituen figurak imajina ditzakeen moduan, izaki ezberdinen zatiez figura osatuz -poetek inoiz ikusi gabeko zentauroak, kimerak eta horrelako munstroak egiten dituzten moduan-, badute figura horiei materia ematerik ere, zur, buztina edo metalean modelatuz. Eta horiei ere imajinak deritze, ez inolako gorputzun gauzaren antza dutelako, egilearen burmuinean bizi diren irudizko biztanleen antza dutelako baizik. Baina idolook jatorriz burmuinekoak direnez eta gero gairen batean pintaturik, zizelkaturik, moldeaturik, husturik daudenez gero, hauen eta haien artean antzekotasuna dago, eta horregatik esan daiteke artez eginiko objektu materiala irudimenak naturalki eginiko idoloaren imajina dela.

Baina, adiera zabalagoan, imajina hitzak gauza batez beste bat irudikatze oro adieraz lezake. Horrela, mundu honetako subirano bati Jainkoaren imajina esan dakioke, eta beheagoko magistratu bati mundu honetako subiranoaren imajina. Sarri, jentilen idolatrian garrantzirik ez zitzaion ematen idolo materialaren eta haien irudimenekoaren arteko antzekotasunari; hala ere, haren imajina deitzen zitzaion. Izan ere, harri landugabe bat jarri izan da Neptunotzat, eta beste hainbat figura ere bai, haiek iruditzen zituzten jainkoen forma ez, baina oso ezberdina dutenak. Eta, gaur egun ere, Ama Birjinaren eta beste santuen imajina asko ikusten ditugu, bata bestetik oso ezberdinak direnak eta inoren irudimenarekin bat ez datozenak; eta, hala ere, balio dute egin ziren xederako, izenak ematea nahikoa baitute historian aipatzen diren pertsonak irudikatzeko. Eta, era horretan, imajina adierarik zabalenean, ikuskorra den zerbaiten antzirudia edo irudikapena da, edo biak batera, maizenik gertatu ohi den moduan.

Baina idolo izena are zabalago hedatzen da Idazteunean, eta eguzkia, izarra nahiz edozein gauza ikuskor edo ikustezin ere adieraz dezake, gauza hori jainkotzat jauresten denean.

Azaldurik jaurespena zer den eta imajina zer den, gauza biok batera ipiniko ditut eta bigarren aginduan eta Idazteuneko beste pasarte batzuetan debekatzen zaigun IDOLATRIA hori zer den aztertuko dut.

Imajina bat jaurestea, bi hauetako bat ohoratzeke zeinuak diren egintzak egitea da: edo imajinaren materia bera -zura, harria, metala edo beste gai ikuskor bat izan daitekeena-, edo burmuineko irudiak -materiaren forma edo figurak irudikatu nahi duenaren irudikapen edo antzirudiak direnez-; edo gauza biak, adibidez materia eta fantasmaz, gorputz eta arimaz bezala, osaturiko gorputz bizidun bat denean jauresgai.

Kapela kendurik egotea boterea eta agintea duen norbaiten aurrean, edo printze baten tronuan aurrean edo bera han ez dagoela printzeak horrela egoteko aginduriko beste toki batzuetan, gizakume edo printze hori jaurespen zibilez jaurestea da, inola ere ez baita tronua edo lekua bera ohoratzen den seinale, pertsona ohoratzen den seinale baizik; eta hori ez da idolatria. Baina horrela egiten duenak printzeen arima tronuan dagoela pentsatuko balu, edo tronuari berari eskaeraren bat egingo balio, hori jainko-jaurespena litzateke, eta idolatria.

Errege bati gure alde egin ahal dituen gauzak eskatzea, haren aurrean makurturik eskatu arren, jaurespen zibila besterik ez da, haren gain ez dugulako giza boterea besterik aitortzen. Baina eguraldi ona edo Jainkoak bakarrik egin dezakeen beste edozer nahita eskatzea, jainko-jaurespena da, eta idolatria. Beste alde batetik, errege batek heriotzaz edo bestelako gorputz-zigor handiz izuaraziz norbait hori egitera behartzen badu, orduan ez da idolatria, zeren, subiranoak bere legeen izuaz baliatuz berari emateko aginduriko jaurespena ez baita esana egiten dionak bere baitan Jainko moduan jauresten duen seinale, bere burua heriotzatik edo bizimodu miserabletik salbatu nahi duen seinale baizik; eta barne-ohorearen seinale ez dena ez da jaurespena, eta, beraz, idolatria ere ez. Ezta ere ez dago esaterik hori egiten duenak bere anaia eskandalizatu edo hari aurrean behaztoparria jartzen dionik, zeren, horrela jauresten duena jakitun eta zuhurrena izanik ere, inork ezingo du atera era horretan jauresten duenak nahita eta onetsiz egiten duela, beldurrez egiten duela baizik, eta, beraz, haren ekintza barik, haren subiranoarena dela.

Leku bereziren batean Jainkoa jaurestea edo imajina edo leku bereziren bati begira jartzea, ez da leku edo imajina hori jauretsi edo ohoratzea, santutzat aintzatestea baizik, hau da, imajina edo leku hori erabilera arruntetik aparte ipinirikoa dela ezagutzea. Izan ere, horixe da santu hitzaren esanahia, santu izateak ez diolarik ezartzen leku edo imajinari koalitete berririk, Jainkoarekiko hurbilpenezko erlazio berri bat baizik. Eta, horregatik, ez da idolatria, brontzezko sugearen aurrean Jainkoa jaurestea idolatria izan ez zen bezala, ezta juduek, atzerrian zeudenean, otoitz egiteko Jerusalemgo tenplurantz begira jartzea, edo Moisesek sandaliak kentzea sutan zegoen sasiaren aurrean Sinai Mendiko partean; izan ere, lurralde hura, Jainkoak bertan agertzeko eta Israelgo herriari bere legeak emateko aukeratu zuena zen, eta, beraz, leku santua zen, ez berez zatxekion santutasunez, Jainkoaren erabilerarako bereizita zelako baizik. Ezta ere ez da idolatria kristauek, erregearen edo elizaren beste ordezkariaren baten autoritatez, Jainkoari gurtzarako dedikaturiko elizetan jaurestea ere. Baina Jainkoa imajina eta lekuen barruan haiei bizia ematen eta haietan bizitzen, hau da, substantzia infinitu bat leku finituan bailegoen jaurestea, hori idolatria da, jainko finitu horiek, izan ere, inola ere erreala ez diren burmuineko idoloak besterik ez baitira, Idazteunean arruntki hutsalkeria, gezurrak eta deusez izenak ematen zaizkielarik. Orobat, Jainkoa leku edo imajina baten barruan beroni bizia ematen bailegoen barik, Hura edo Hark egindako zerbait gogoratzeko unetzat harturik jaurestea ere idolatria da, baldin leku edo imajina hori autoritate pribatuz, eta ez geure artzain subirano ditugun autoritatez, dedikatua edo jarria bada. Zeren aginduak baitio: Ez duzu zeuretzat imajina zizelkaturik egingo. Jainkoak agindu zion Moisesi brontzezko suga egiteko; eta Moisesek ez zuen beretzat egin; ez zuen, beraz, aginduaren kontra jokatu. Baina Aaronek eta herriak urrezko zekorria egitea, Jainkoarengandiko autoritatetik gabe egin zuteneko gero, idolatria izan zen, Jainkotzat hartu zutelako ezezik, erlijiozko erabilerarako egin zutelako, beren subiranoa zen Jainkoaren edo haren loktentearen onespenik gabe.

Jentilek Jupiter eta beren bizitzan beharbada ekintza handi eta gloriosoak egin zituzten gizakiek izandako beste batzuk jauresten zituzten, eta Jainkoaren seme-alabatzen hartzen zituzten jainko hilezkorren baten eta gizakume hilkorren baten artean sorturikotzat zituzten zenbait gizon eta emakume. Hau idolatria izan zen, Jainkoarengandiko eskuespenik gabe egin zituztelako berentzat jainko haiek, ez arrazoiaren lege eternalean, ez Haren nahi positibo eta errebelatuan oinarritu gabe. Baina gure Salbatzailea, gizon izanik ere, guk Jainko hilezkorra eta Jainkoaren Seme zela sinetsi arren, ez dago horretan idolatriarik, sinetsen hori geure irudimenean barik, Idazteunean errebelatu zaigun Jainkoaren hitzean oinarritzen dugulako. Eta Eukaristiaren jaurespenari dagokionez, baldin Kristoren hitzek, alegia, hau nire gorputza da, esan nahi badute Hura bera eta haren eskuetan erakutsiriko ogia -eta ez ogi hura bakarrik, baizik apaizek sagaratuko dituzten ogi zati guztiak ere- Kristoren gorputzak izango direla, guztiak, hale ere, gorputz bakar bera izanik, orduan ez da idolatria, hori gure Salbatzaileak eskuetsia delako; baina baldin testu horrek hori esan nahi ez badu, horren alde besterik ekartzerik ez dagoenez gero, orduan, gizakumeak eraturiko jaurespena delako, idolatria da. Izan ere, ez baita aski esatea Jainkoak ogia transubstantzia eta Kristoren gorputz bihurtu lezakeela. Jentilek ere Jainkoa guztiahalduna dela sinesten dute, eta balukete beren idolatria besteen pare desenkusatzetik, kristauen antzera, zura eta harria transubstantziatu eta Jainko Guztiahaldun bihurtzen direla esanez gero.

Beti ere, jainko-inspirazioa Izpiritu Santua gizakumearengan sartzea dela uste dutenak, eta ez doktrinaren bidez eta haren ikasketaren bidez Jainkoaren grazia norbereganatzea, dilema arriskutsuan daude. Izan ere, baldin era horretan pentsatzen dutenek horrela inspiraturiko gizakumea jauresten ez badute, jainkogabetasunean erortzen dira. Baina jauresten badute, idolatria egiten dute, apostoluek berek ez baitzuketen sekula nahi izanen inork horrela jauresterik. Horregatik biderik seguruenak hauxe sinestea da, apostoluengana usoa jaistea eta Kristok haien gainera arnasa egitea, Izpiritu Santua eman zientean, eta esku-ezarpenez Izpiritu Santua ematea, Jainkoak erabili edo erabiltzeko aginduriko seinaleak direla ulertu behar dela, zera adierazten dutenak, pertsona horiei bere erreinua predikatzeko ahaleginean eta beren solasaldietan, besteentzat eskandalagarri barik, esportzagarri izaten laguntzeko promesa.

Imajinen jaurespen idolatrak gain, bada haien jaurespen eskandalagarri bat ere, bekatu dena, baina ez idolatria. Izan ere, idolatria benetako barne-ohorearen seinaleak emanez jaurestea da; baina jaurespen eskandalagarria itxura hutsezko jaurespena da, eta, batzuetan, jauresgai duen imajinaren eta fantasiarako demonio edo idoloaren barne eta bihotzetiko gaitzespenarekin batera gerta daiteke; eta heriotzari edo beste zigor astunen beldurraren ondorio izaten da; baina, hala ere, horrela jauresten dutenek bekatu egiten dute, baldin beste batzuk beren ekintzei begira badituzte gidargitza hartu eta haien bidetara jarraitzeko, ezingo baitute ekidin erlijioaren bidean behaztopatu eta erortzea. Aintzat hartzen ez ditugunak ere, ordea, ez digu inolako eraginik egiten, geure irizpide eta zuhurtziaz jokatzeko uzten baitituzte, ez direlarik, beraz, gure erorketaren kausa.

Horregatik, besteei irakasteko eta bidea erakusteko lege izendaturiko artzain batek edo bere jakinduriagatik itzala duen edonork, beldurragatik idolo bati azalez ohore egiten badiu, baldin pertsona horrek bere beldur eta uzurtasun hori jaurespen-egintza bera bezain argi agertzen ez baditu behintzat, anaia gaizbideratzen du idolatria onetsi egiten duela emanez. Izan ere, haren anaiak, bere maisuaren edo jakituntzat handiesten duenaren ekintzan oinarrituz, ekintza hori berez zuzena den ondorioa aterako du. Eta eskandalu hau bekatu da, eta eskandalu garbia da. Baina, baldin artzain ez den eta kristau doktrina dakien itzal handirik ere ez duen batek egiten badu hori, eta beste batek jarraitzen badiu, ez da eskandalu garbia izango, ez duelako arrazoirik haren ereduari jarraitzeko; eta gaizbideratua izan dela esatea, estakuru bat besterik ez da, gizakumeen aurrean desenkusatzeko asmatuakoa. Izan ere, errege edo Estatu baten menpean dagoen gizakume ezikasi batek, herio-zigorpean idolo bat jauresteko agindua harturik, bere bihotzean idoloa gaitzesten badu, ongi jokatzeko du agindua betetzeko, nahiz eta, baldin idoloa jauretsi baino lehen heriotza jasateko adorea izanez gero, hobeto jokatuko lukeen. Baina, baldin Kristoren mezulari denez nazio guztiei kristau doktrina irakasteko hitza emana duen artzain batek hori berori egingo balu, beste kristauen kontzientziarekiko eskandalu galgarria ezezik, bere eginkizuna gaiztoki bete gabarik uztea ere balitzateke.

Imajinen jaurespenari buruz honaino esan dudaren laburpena hauxe da: imajina edo kreatura batean haren gaia edo norberak imajinan dagoela uste duen bere fantasiaren bat, edo biak batera, jauresten duenak, edo gauza horiek, belarrik ez begirik gabe, bere otoitzak entzun edo bere eraspenak ikusten dituztela sinesten duenak, idolatria egiten du. Eta zigorraren baten beldurrez jauresteko itxura egiten duenak, anaingan eragin handia duen pertsona izanez gero, bekatu egiten du. Baina berak aukeratua barik Jainkoak agindu dion imajinaren aurrean edo lekuan munduaren Kreatzailea jauresten duenak, juduek aldi batez kerubinen aurrean eta brontzezko sugaren aurrean, edo Jerusalemgo Tenpluan edo hara begira jauretsi zuten moduan, ez du idolatriarik egiten.

Erromako Elizan gaur egun ohiko den Santu, imajina, erlikia eta beste gauza batzuen jaurespenari dagokionez, esan behar dut Jainkoaren hitzak ez duela jaurespen hori baimentzen, eta, gainera, ez dela Erromako Elizan irakatsirik doktrinaren emaitza, aldez bederen jentilek kristautu ondoren han utzitakoa baizik, eta gero Erromako apezpikuek eutsi, berretsi eta areagotua.

Idazteuneko testuetan oinarriturik ekartzen diren frogak, hau da, Jainkoak imajinak erakitzeko agindu zueneko adibidei dagokienez, ez ziren herriak edo beste inork jauretsi zitzaizkion, haien aurrean Jainkoa bera jauretsi zezaten baizik; horixe gertatu zen Kutzaren gainean eraiki ziren kerubinen kasuan eta brontzezko sugarenean. Izan ere, ez dugu inon irakurtzen apaizak ezta beste inork ere kerubinak eurak jauretsi zituenik; aitzitik, irakurtzen dugu (Erg. 18, 4) Ezekiasen zati-zati egin zuela Moisesek eraikitako brontzezko suga, herriak haren aurrean intsentsua erre zuelako. Gainera, adibide horiek ez zaizkigu imita ditzagun eta beraietan Jainkoa jauresteko aitzakiaz geuk ere imajinak eraiki ditzagun ematen; izan ere, bigarren aginduko hitzek, Ez duzu zeuretzat imajina zizelkaturik egingo, ongi bereizten dituzte Jainkoak eraikitzeko aginduriko irudiak guk geuk zeuretzat eraikitakoetatik. Horregatik, kerubinetatik eta brontzezko suetik gizakumeak asmatuak irudien aldeko froga ateratzea, edo Jainkoak aginduriko jaurespenetik gizakumeen beren kabuzko jaurespena pasatzea, ez da argudiabide zindoa. Halaber, kontuan hartu behar da Ezekiasen brontzezko suga juduek jauretsi egiten zutelako egin zuela zati-zati, aurrerantzean horrelakorik egin ez zezaten. Eredu hori jarraituz, kristau subiranoei ere apurto egin behar dituzte beren menekoei jauretsi ohi dituzten imajinak, horrelako idolatriarik egiteko paradarik izan ez dezaten. Izan ere, gaur egun, imajinak jauresten diren tokietan, jende ezjakinak erabat sinesten du

imajinok jainko-boterea dutela; eta artzainek esaten diete imajinotako batzuek hitz egin, odola dariela jarri eta mirakuluak egin dituztela; eta herriak ulertzen du berek imajinarekin bat egiten duten santuak edo imajinan dagoela uste dutenak egin duela hori guztiori. Israeldarrek zekorra jauretsi zutenean, Egiptotik atera zituen Jainkoa jauresten zutela uste zuten; eta, hala ere, hura idolatria zen, zekorra Jainko hura zela edo sabelean Jainkoa zuela uste zutelako. Eta, norbaitek uste izan dezakeen arren herria ez dela imajina bat Jainkoa edo santu bat dela sinesteko bezain leloa, Idazteunean argi dago honen kontrakoa. Zeren, urrezko zekorra egin zenean, herriak esan baitzuen (Ir. 32, 4): Hona zure Jainkoa, Israel; eta Has. 31, 30.ean Labanen imajinei haren jainkoak deitzen zaie. Eta esperientziaz egunero ikusten dugu edozertariko jenderen artean, beren jatekoa eta erosotasuna beste ardurarik ez dutenek nahiago izaten dutela edozein absurdu sinetsi, gaia aztertzeke nekea hartu baino, eta beren fedeari eusten diote nahitaez uztezina balitz bezala, Lege espresu berri baten bidez izan ezik uzten ez dutelarik.

Baina badira batzuk beste pasarte batzuetatik inferitzen dutenak zilegi dela aingeruak pintatzea, eta Jainkoa bera ere, hala nola Jainkoa paradisuan paseatzen, edo Jakob mailadiaren goienean dagoen Jainkoari so, edo beste ikuskari edo amets batzuk pintatzen direnean. Baina ikuskari eta ametsak, naturalak zein supernaturalak, fantasmak besterik ez dira; eta horietako baten imajina pintatzen duenak ez du Jainkoaren imajinarik egiten, bere fantasmarena baizik, hori idolo bat egitea delarik. Ez diot norberaren fantasia gidari dela koadro bat pintatzea bekatu denik; baina Jainkoa irudikatu nahian eta ustetan egiten denean, bigarren aginduaren kontra jokatzeko da, jauresteko bestetarako ez baitaiteke erabil. Eta gauza bera esan daiteke aingeruen eta zenduen imajinei buruz ere, lagunen eta gogoragarri diren gizakumeen oroitzailu izateko eginak izan ezean. Izan ere, imajina bat horretarako erabiltzea ez da imajina jaurestea, orain denari barik, izan zen pertsonari ohore zibila egitea baizik. Baina hori geuk egindako santu baten imajinari egiten diogunean eta, hain zuzen ere, uste dugulako hark gure otoitzak entzuten dituela eta atsegin duela guk egindako ohorea, giza boterea baino gehiago eratzikitzen diogu eta, horregatik, idolatria da.

Ikusirik, bada, ez Moisesen legean ez Ebanjelioan ez dagoela ezer gizakumeek berentzat eraikitzen dituzten Jainkoaren imajinen edo bestelako irudikapenen erlijiozko jaurespena baimentzen duenik, ezta zero, lur edo lurpeko ezein kreaturaren jaurespena ere, eta halaber ikusirik Jainkoaren ordezkari biziak diren errege kristauak ez dutela jaso behar beren menekoen jaurespenik gizaki hilkoraren izaeraz goitiko boterea esleitzen dien inolako ekintzaren bidez, ez dago iruditzerik ere gaur egun erabiltzen den erlijiozko jaurespena Idazteunaren interpretazio okerraren ondorioz Elizara sartua denik. Geratzen zaigun azalpen bakarra, beraz, zera da, kristauturiko jentilek utzi zutela praktika hori Elizan, hain zuzen ere lehen jauresten zituzten imajinak suntsitu ez zituztelako.

Honen arrazoiak, kristauberriek imajina horien arte-balioa estimatuegi eta maiteegi izana da. Eta horrexek eragin zuen haien jabeek, nahiz eta kristauturik egon eta jada erlijiotasunez demoniotzat jauretsi ez, etxean gordetzea, aitzakiatzat jarriarik Kristoren, Ama Birjinaren, Apostoluen eta hasierako Elizako beste artzain batzuen ohoretan zeuzkatela; eta erraz izan zuten imajina haiei izen berriak eman eta lehen adibidez Venus edo Cupidoren imajina izana Ama Birjinaren edo haren Seme gure Salbatzailearen imajina bihurtzea, edo Jupiter bat Bernabe, edo Merkurio bat San Paulo, e.a. Eta artzainen artean handinahi mundutarra areagotu ahala, handinahi horrek kristautu berriei eder egitera eraman zituen eta gustatzen hasi zitzaizen ohoratzeko era hori, berak ere hil ondoan horrexetara ohoratuak izango ziren esperantzan. Eta era horretan Kristo eta haren apostoluen imajinen jaurespena gero eta idolatrako bihurtuz joan zen. Egia da, Konstantinoren garaia baino zerbait geroago, zenbait enperadore eta apezpiku eta kontzilio nagusi horren bidegabekotasunaz ohartu eta kontra jarri zirela, baina beranduegi eta ahulegi.

Santuen kanonizazioa da jentilismoaren beste geldikin bat. Ez dago Idazteunaren interpretazio okerrean oinarriturik, eta ez da Erromako Elizaren asmakizun berri bat ere, erromatar Estatua bera bezain zaharra den ohitura bat baizik. Erroman kanonizatu zuten lehenengoa Romulo izan zen, Julio Prokuloren deklarazioaren ondorioz izan ere, Senatuaren aurrean zin egin baitzuen Romulorekin hitz egin zuela hura hil eta gero eta zeruan zegoela esan ziola eta han Kirino zuela izena eta bere hiri berriaren ezarketaren alde egingo zuela. Eta hori dela eta, Senatuak haren santutasunaren testigantza publikoa egin zuen. Julio Zesarrek eta haren ondoko zenbait enperadorek ere testigantza bera lortu zuten, hau da, santutzat kanonizatu zituzten, horrelakoxe testigantzaz erabakitzen baita gaur egun KANONIZAZIOA; eta kanonizazioa eta jentilen *ἱεροποιῆσι*-a gauza bera dira.

Aita Santuek ere erromatar jentilengandik dute hartua PONTIFEX MAXIMUS izena eta boterea. Horixe izan zen antzinako Erromako Estatuan beren erlijioari zegozkion zeremonia guztiak arautzeko aginpide gorena zuena, Senatu eta herriaren pean. Eta Augusto Zesarrek, Estatua Monarkia bihurtu zuenean, kargu horixe eta herriaren tribunotza hartu zituen, hau da, aginpide gorena Estatu eta erlijio kontuetan, eta hurrengo enperadoreek ere aginpide bera izan zuten. Baina Konstantino enperadorea bizi zela, bera izan zelarik kristau-erlijioa aitortu eta baimendu zuen lehenengoa, haren fede-aitormenak ekarri zuen Erromako apezpikua izatea, haren menpean, erlijioa arautzen zuena; ez dirudien arren Pontifex izena hain goiz hartu zutenik, baizik eta geroagoko apezpikuak izan zirela izen hori berenganatu zutenak, erromatar



probintzietako apezpikuen gain zuten boterea berresteko. Izan ere, gainontzeko apezpikuen gain autoritate hori eman ziena, San Pedoren ezein pribilegio ez, baina Erroma hiriaren pribilegioa izan zen, enperadoreak pribilegio horri eusteko beti prest agertu zirelarik. Hau argi ikus daiteke honako hau erreparatuz, alegia, Konstantinoplako apezpikuak, enperadoreak hiri hura Inperioaren egoitza egin zuenean, Erromako apezpikuaren pareko izan nahi zuela; baina, azkenean, ez elkarren arteko liskarrik gabe, Aita Santua atera zen garaile eta Pontifex Maximus bihurtu, nahiz eta enperadoreak emandako eskubidez, ez bestela, ezta Inperiotik at ere. Eta enperadoreak Erroman zuen boterea galdu zuenean, Aita Santuak inon ere ez zuen boteretik izan; baina Aita Santua bera jabetu zen enperadoreak zuen botereaz. Horren guztiaren bidez ikus dezakegu ez dagoela arrazoirik Aita Santuak beste apezpikuen gain nagusitasunik izateko; hura bera subirano zibil den lurraldeetan izan ezik; eta enperadoreak, bere menpean, bere meneko kristauen artzainburu izateko, Aita Santua berariaz aukeratu duen tokian izan ezik. Prozesioan imajinak eramatea greko eta erromatarren beste geldikin bat da. Haiek ere lekuz leku eramaten zituzten bere imajinak, horrexetarako bereziki erabiltzen zuten karroza moduko batean, latindarrek thensa eta vehiculum Deorum esaten zietenean, eramaten zituztelarik. Eta imajina, ferculum deitzen zioten oholtza edo aldare antzeko batean jartzen zuten. Eta haiek pompa esaten zutena egungo prozesioa zen. Honen arabera, Senatuak Julio Zesarri egiten zizkion jainko-ohoreetako bat hauxe zen: zirkuko jokoetan egiten zen ponpan edo Prozesioan hark thensa eta ferculum-a izan behar zuen, hau da, karroza sakratua eta aldare bat, hau batetik bestera jainko gisa eramana izatea zelarik, gaur egun Goardia Suitzarrek Aita Santua paliopetan eramaten duten bezalaxe.

Prozesio hauetan zuzi eta kandela biztuak ere eramaten ziren jainkoen imajinen aurrean, hala grekoen nola erromatarren artean. Izan ere, geroago, Erromako enperadoreek ohore bera jaso zuten, hala nola, irakurri ahal dugun moduan, Kaligula, Inperioan harrera egin ziotenean, Misenumdik Erromara jendetza handi baten erdian, bideak aldarez apaindurik, oparirako abere eta guzti, eta zuzi biztuen artean eraman zutenean. Eta Karakala intsentsuarekin, lore jaurtika eta ὄδονχοιζekin, hau da, zuziekin hartu zuten Alexandrian; izan ere, Ὀδονχοί grekoen artean beren jainkoen prozesioetan zuziak eramaten zituztenak ziren. Eta urteak joan urteak etorri, jende jainkozale baina ezjakinek antzeko ponpaz ohoratzen dituzte beren apezpikuak beti, argizarizko kandelak eta gure Salbatzailearen eta santuen imajinak eramanez, Eliza barruan ere. Eta horrelaxe hasi zen argizarizko kandelak erabiltzea, gero antzinako Kontzilio batzuek ezarri zutelarik erabilera hori.

Jentilek ere beren aqua lustralis, hau da, ur bedeinkatua, zuten. Beraien jaiegunetan ere imitatzen ditu Erromako Elizak. Haiek beren bacchanalia zituzten, eta guk gaubeilak ditugu, haiek imitatuz. Haiek beren saturnaliak zituzten, eta guk geure ihauteriak eta hausterre-egun bezperan 3 jopuak libre uztea. Haiek beren Priaporen prozesioa, guk maiatz-zuhaitzak 4 ekarri, zutik ipini eta haien inguruko dantzak egitea; eta dantzatzea jaurespen mota bat da. Haiek Ambarvalia zeritzen prozesioak zituzten, eta guk geure prozesioa soroetan zehar errogatiben astea. Ez dut uste aipaturikoak Elizan utzi zituzten zeremonia guztiak direnik, baina une honetan ez datorkit besterik burura. Norbaitek arretaz irakurtzen badu greko eta erromatarren errituen historiek dioskutena, ez dut dudarik egiten jentilismoaren horrelako zahagi zahar huts asko aurkituko dituela, gero Eliza Erromatarreko doktoreek, utzikieriaz edo handinahiz, kristautasunaren ardo berriaz berriro bete dituztenak; eta iritsiko zaiela nahitaez apurtu beharko dituzten garaia ere.

## XLVI

Filosofia hutsaletik eta alegiazko tradizioetatik datorren iluntasunaz

FILOSOFIAz zera ulertzen dugu, arrazonamenduz hartzen den ezagutza, dela gauza bat sortzeko modutik abiatuz haren propietateetara iristeko, dela propietateetatik abiatuz gauza hori nola sortu ote den azaltzeko, honako helburu honexekin, hots, giza bizitzak behar dituen efektuak sortaraztea, aztergaiak eta giza indarrak uzten duteino. Horrela geometrariak figuren eraikeratik, haien propietate asko aurkitzen ditu; eta propietateetatik, arrazonatuz, eraikitze modu berriak aurkitzen ditu, lehorra eta ura neurtu ahal izateko eta beste gauza askotarako. Horrela astronomoak, eguzki eta izarren sorrera, sarrera eta mugimenduetatik, zeruaren alde ezberdinetan, gau eta egunaren eta urtaro ezberdinen kausak aurkitzen ditu, era horretan denboraren kontua eramanez. Eta gauza beretsua beste zientzietan ere.

Goiko definizioetik begibistakoa da ez dugula hartu behar filosofiaren ataltzat zuhurtasunaren muin den eta esperientzia deritzon jatorrizko ezagutza. Izan ere, zuhurtasuna ez da ezagumenez erdiesten, hala abereek nola gizakiak dutena baita; eta iraganeko jazoeren hurrenketa gogoratzean bestetan ez datza, jazoeron efektua alda dezakeen edozein zirkunstantzia txiki kontuan ez izateak, zuhurrenaren itxura guztiak zapuzturik uzten dituelarik. Arrazonamendu zuzenak, ostera, egia orokor, eternal eta aldaezinak besterik ez ditu sortzen.

Eta ez diogu eman behar filosofia izenik ezein ondorio faltsuri, zeren, ulertzen dituen berbak erabiliz zuzen arrazonatzen duenak, ezin baitu inoiz ere ondorio okerrik atera.

Ezta ere ez da filosofia norbaitek errebelazio supernaturalez dakiena, hori ez baita arrazonamenduz norbereganatzen.

Ezta liburuen autoritatean oinarriturik arrazonatzen dena ere, hori ez delako kausatik efektura arrazonatzea, eta ez da ezagutza, fedea baizik.

Arrazoitzeko ahalmena, hizkuntz erabileraren ondorio izaki, ez zatekeen posible, baldin arrazoimenak aurkituriko egia orokor batzuk, hizkuntza bera bezain antzinakoak, izan ez balira. Amerikako basatiak ere ez daude zenbait esakune moral on barik, eta Aritmetika apur bat ere badute eta sumatu eta banatu ahal dute handiegiak ez diren zenbakiekin, baina ez dira hargatik filosofoak. Izan ere, basoetan sakabanaturik arto eta mahats landare banakak hazten ziren moduan, ordura arte ezkur et urez bizi zen gizakia landareon onuraz jabetu eta elikatzeko erabili aurretik edo hark berak soro eta mahastietan hazi baino lehen, halaxe filosofia kontuan ere hasieratik izan dira, giza arrazoimenaren landare naturalak bailiren, espekulazio egiazko, orokor eta baliagarriak. Baina hasieran urri ziren espekulaziook gizakiek esperientzia landugabearen oinarriturik bizi ziren, ez zegoen metodorik, hau da, ez zen ereiten ez landatzen ezagumena bera, errakuntza eta aieruaren belar eta landare arruntetatik aparte. Eta horren arrazoa aisiarik eza zen, bizipiderako premiei erantzun eta ingurukoengandik defendatu beharrak ez baitzien astiarerik uzten, ezin zirelarik, harik eta Estatu handiak eratu ziren arte, gauzak bestela izan. Izan ere, aisia da filosofiaren ama, eta Estatu bakearen eta aisiaren ama. Hiri prosperorik non agertu lehenengo, hantxe lehenbizi landu da filosofia. Indiako gimnofisitak, Persiako aztiak eta Kaldea eta Egiptoko apaizak jotzen dira lehenengo filosofotzat; eta lurralde horiek izan ziren lehenengo erresumak. Filosofia ez zen sortu grekoen artean ez mendebaldeko beste herrietan, haietako Estatu txikietan, agian Luka edo Geneba baino ez handiagoak, inoiz ez baitzuten bakerik izan -batak besteari beldur berdina izan zioten aldietan izan ezik-, ezta elkarri besteri behatzeko aisiarik ere. Urteak joan urteak etorri, gerrak hiri txikietako asko hiri handiago eta gutxiagotan bildu zituenean, Greziako zazpi gizon jakitun ospea hartzen hasi ziren, batzuk beren esakune moral eta politikoengatik, eta beste batzuk ongi ezagutzen zutelako kaldear eta Egiptoarren jakinduria, hau da, astronomia eta geometria.

Atenastarrek Pertsiar armadak azpiratu eta Itsasoan (eta, beraz, Artxipelagoko irla eta itsas hirietan) eta Asia eta Europan ere nagusitasuna erdietsi zutenean eta aberats bihurtu zirenean, han bertan ez atzerrian lanik ez zutenek ez zuten non enplegaturik, (San Lukasek Eg. 17, 21ean dioen moduan) berriak bildubanatzen edo hiriko gazteekin filosofi gaiei publikoki ekiten izan ezik. Maisuek nork bere lekua hartu zuten horretarako: Platonek Akademos batengandik zetorren Akademia izeneko pasealeku batean, Aristotelesek Lizeo izeneko Panen Tenpluko pasealekuan, beste batzuek Stoa edo merkantziak desenharkatzen ziren apirikoan eta beste batzuek han eta hor nonbait. Eta hantxe ematen zuten denbora, beren iritziak irakasten eta eztabaidatzen. Batzuk gazteak hara bildu eta jendeak beren iritziak entzuteko moduko tokietan jartzen ziren. Eta horixe egin zuen Karneadesek ere Erroman, enbaxadore izan zenean. Horrexek ekarri zuen Katonek Senatuari aholkatzea gizon hura handik egozteko, gazteriarren ohiturak hondatuko zituen beldurrez, gazteria adurra zeriola egoten baitzen hari entzuten, hark esandakoei kontu bikainak irizten zielarik.

Hemendixe etorri zen haietako batzuek irakatsi eta eztabaidatzen zuten tokiari Schola deitzea, haien hizkuntzan hitz horrek aisia esan nahi baitu; eta haien eztabaidei diatribae esaten zieten, hau da, denborapasak. Eta filosofoek eurek ere beren sekten izena hartu zuten, zenbaitetan beren eskoletatik hartuz. Horrela, Platonen doktrinen jarraitzaileei Akademikoak zeritzen, Aristotelesen jarraitzaileei Peripatetikoak, ibiliz ikasten zutelako, eta Zenonen jarraitzaileei Estoikoak, Stoaetik, geuk, adibidez, jendea More-fields, Pauls-Church eta Exchange-tik eratorririko hitzez izendatuko bagenu bezala.

Hala ere, hain sakon errotu zen ohitura hori jendearen artean, non gero Europa guztian eta Afrikaren zati handi batean zehar hedatu baitzen; era honetan ia Estatu guztietan eraiki ziren lekzioak eman eta eztabaidatzeko eskola publikoak.

Juduen artean ere bazeuden eskolak antzina, gure Salbatzailearen garai aurretik zein ondoren; baina beren legea irakasteko eskolak ziren. Izan ere, sinagogak zeritzen arren, hau da, herri batzarrak, Sabbath guztietan legea irakurri, azaldu eta eztabaidatzen zenez gero, izanean barik, izenean soilik zuten alderik eskola publikoekiko. Sinagogak Jerusalemene ezezik, Juduak bizi ziren jentil-hiri guztietan zeuden. Horrelako eskola bat zegoen Damaskon ere, Paulo hangoak jazartzera hara sartu zenean. Beste batzuk ere izan ziren Antiokian, Ikonian eta Tesalonikan, horietara ere San Paulo eztabaidatzera sartu zen eta. Eta horrelakoxeak ziren libertinoen, zirenetarren, alexandriarren, ziliziarren eta Asiako jendearen sinagogak ere, hau da, Jerusalemen arrotz ziren libertinoen eta juduen eskolak. Eskola honexetakoak ziren San Estebanekin (Eg. 6, 9) eztabaidatu zutenak.

Baina, zertarako balio izan dute eskolak? Zer zientzia hartu dugu gaur egun lekzio eta eztabaida haien ondorioz? Egun geometriaren, beste natur zientzien amaren jabe izatea ez diegu eskolei zor. Platonek, filosofo grekorik onena izan zenak, maila batean jada geometria ez zirenei debekatu egiten zien bere eskolara hastea. Asko izan ziren, bada, zientzia hori ikasia zutenak, gizateriaren abantaila handirako. Baina haien eskolen inolako aipurik ere ez dago; geometria sektarik ere ez zen izan, eta ez zitzaien garai haietan filosofo izenik eman. Eskola haietako natur filosofiak ametsetik gehiago zuen zientziatik baino, eta zentzurik ez adierarik gabeko hizkuntzaz azaltzen zen, aurretik geometriarik menperatu gabe ekidin

ere ezin baitute hau filosofia irakasten dutenek. Izan ere, natura mugimenduz dabil, eta honen modalitate eta graduak ezagutzerik ez dago, aurretik lerro eta figuren proportzio eta propietateak ezagutu ezean. Haien filosofia morala haien beren grinren deskribaketa besterik ez da. Izan ere, gobernu zibilik ez dagoenean natur legea da joko-arau; eta lege zibila da, egon dagoen tokian, zer den onesta eta zer desonesta, zer zuzena eta zer zuzengabea eta, orokorrean, zer den ona eta zer txarra erabakitzen duena: Haiek, ostera, on eta txarraren arauak, berei gustatzen zaien eta ez zaienaz erabakitzen dituzte; eta hemendik ateratzen dena, hain gustu-ezberdintasun handia da, non ezertan ez dauden ados, eta bakoitzak, ausartzen den neurrian, bere ikusirako ona dena egiten du, Estatuaren iraulketaraino. Haien logika, arrazonamendu-metodo bat izan behar lukeena, hitz faltsu eta asmakeri mordoa besterik ez da, haiek auzitan jartzen saiatzen direnak nahasteko. Bukatzeko, ez dago absurdu bururagarriarik, antzinako filosofoek, berauetako bat zen Zizeronek dioen bezala, defendatu ez dutenik. Eta uste dut nekez izango dela ezer absurduagorik natur filosofian, gaur egun Aristotelesen Metafisika esaten zaiona baino; ezta gobernamenduaren kontrakoagorik, Aristotelesek bere Politikan esan dituen gauza asko baino; ezta ezjakintza handiagorik erakusten duenik, haren Etikaren zati handi bat baino.

Juduen eskola hasieran Moisesen legearen eskola izan zen. Moisesek agindu zuen (Dt. 31, 10) zazpi urterik behin, Etxolen Jaian, herri guztiari irakurri behar zitzaioela legea, entzun eta ikas zezan. Horregatik legearen irakurketak, gatiabaldi ondoan larunbatero egiten zenak, herriak bete behar zituen aginduak ezagutzea eta profeten idazkiak azaltzea beste xederik ez zuen. Baina gure Salbatzaileak egin zizkien agiriketarik argi dagoena da, juduek beren iruzkin faltsu eta tradizio hutsalez faltsuztatu egin zutela legearen testua; eta hain eskas ulertu zituztela profetak, non ez zuten ezagutu profetek iragarritako Kristo, ez Hark egindakoak. Era horretan, sinagogan izan zituzten irakurketa eta eztabaiden bidez, doktrina Jainkoaren eta izpirituen izaera ulertezinari buruzko halako fantasiazko filosofia bihurtu zuten, grekoen filosofia eta teologiarekin eta Idazteuneko pasarterik ilunenetatik ateratako beren fantasiekin nahasirik, beren helburuak lortzeko erraz-erraz aldrebestu zitzaizketen pasarteak berauek. Eta horri guztiari beren arbasoen alegiazko tradizioak gehitu zizkioten.

Egun unibertsitatea deritzona herri edo hiri bereko eskolen batasuna da gobernamendu bakarraren menpean. Batasun honetan eskola printzipalak honako hiru profesioetarako eratuta zeuden: Erromatar Erljioa, Zuzenbide Erromatarra, eta medikuntzako artea. Eta filosofiako ikasketak ez ziren erromatar erlijioaren tresna izateko bestetarako. Eta han Aristotelesen autoritatea besterik onartzen ez denez gero, ikasketak ez dira, izatez, filosofia (honen izaera ez baitago autoreen menpe), Aristotelismoa baizik. Eta geometriari dagokionez, ez zuen zientzia honek han lekurik oraintsu-oraintsu arte, egia hertsia beste ezeren zerbitzutan ez dagoelako. Eta baten bat, horretarako sena ukan eta, zientzia horretan hobakuntza mailaren baten jabe izatera helduz gero, aztitzat ukan ohi zuten, eta haren artea deabruzkotzat.

Orain, unibertsitateetara eta handik Elizara pasa diren eta aldeztu Aristotelesengan eta aldeztu adimen itsutasunean sorrera izan duten Filosofia hutsalaren doktrina partikularretara etorritik, haien hastapenak aztertuko ditut lehenik. Bada halako philosophia prima bat, beste zeinahi filosofia menpean izan behar lukeena, eta nagusiki honexetan datzana, hots, zuzen xedarriztean unibertsalenak diren deitura edo izenak. Xedarripenok arrazonatzean ambiguitasuna eta nahasketa ekiditeko balio dute eta definizioak deritze komunizki, hala nola gorputzen izaera eta sortzapenari buruz gizakumeak dituen kontzeptzioak azaltzeko beharrezko diren definizioak, adibidez, gorputz, denbora, leku, materia, forma, esentzia, subjektu, substantzia, akzidente, potentzia, aktu, finitu, infinitu, kantitate, koalitate, higadura, jarduera, jasaite eta abarrenak. Hitz horien eta beste batzuen azalpenak, hau da, esanahia ezartzeak, Metafisika izena hartu ohi du eskoletan, izenburu horixe duen Aristotelesen filosofiaren ataletik datorrena. Baina beste adiera batean hartzen da hau; izan ere, metafisika hitzak Aristoteles dagokionez zera esan nahi baitu, haren natur filosofiaren ondoren idatzi edo jarritako liburua; baina eskolek filosofia supernaturaleko liburutzat hartzen dituzte, metafisika hitzak bi adierok dituelako. Eta liburu horietan idatzirik dagoena hain da, izan ere, ulertezina edonorentzat eta arrazoimen naturalaren kontrakoa, non uste duenak han badela arrazoimenak uler dezakeen zerbaite, nahitaez sinetsi behar duen supernaturala dela.

Teologia eskolastikoa egiteko teologiarekin nahasten den metafisika honexetatik esaten zaigu munduan badela zenbait esentzia gorputzetatik bereizirik, eskolastikoei esentzia abstraktuak eta forma substantzialak deitzen dietenak. Merdara hau interpretatzeko, beharrezko dugu orain ohikoa baino arreta handiagoa jartzea. Barkatzeko ere eskatu behar diet mota honetako diskurtsora ohitu gabe daudenei, orain ohiturik daudenei noakie eta. Mundua (eta ez naiz ari gizakume mundutarrek maite duten munduaz soilik, baizik unibertsoaz, hau da, diren gauza guztien multzo osoaz) gorpuztuna da, hau da, gorputza da; eta magnitude-dimentsioak ditu, hots, luzera, zabalera eta sakonera; eta, beraz, unibertsoaren zati oro ere gorputza da, eta gorputza ez dena ez da unibertsoaren zati. Eta unibertsoa dena denez, honen zati ez dena ez da ezer ere, eta, beraz, ez dago inon. Hemendik ez da ateratzen izpirituak ezer ere ez direnik, dimentsioak baitituzte eta, beraz, gorputzak baitira, izen hori, hizkera arruntean, ikus eta uki daitezkeen gorputzei, hau da, opakotasun graduren bat dutenei, soilik ematen zaien arren. Baina eskolastikoei izpirituei gorpuzgabeak esaten diete, ohore handiagoko izena berau, eta jainkozaletasuna erakutsiz

Jainkoari eratziki dakiokena; izan ere, Jainkoaz ari garela, ez dugu begiratzin zein tasunek adierazten duen ondoen haren izaera, baizik zeinek adierazten duen hobeto guk daukagun hura ohoratu nahia.

Orain, esentzia abstraktuak edo forma substantzialak daudela diotenak zertan oinarritzen diren jakiteko, hitz horiek propioki zer esanahi duten aztertu behar dugu. Hitzak, geure adimenduko pentsamenduak eta kontzepzioak geuk finkatu eta besteei adierazteko erabiltzen dira. Hitzotako batzuk bururaturiko gauzen izenak dira, hala nola, gure zentzuei eragina egin eta irudimenean beren inpresioa uzten diguten edozertariko gauzen izenak. Beste hitz bat irudipenen euren izenak dira, hau da, ikusi edo gogoratzin ditugun gauzen ideien edo adimenduko irudi horienak. Eta beste batzuk, berriz, izenen izenak dira, edo hizkera mota diferenteenak, hala nola: unibertsal, plural, singular, izenen izenak direna, eta definizio, baiezpene, ukapene, egiazko, faltsu, silogismo, galera, promesa, itun, zenbait hizkera motaren izenak dira. Beste hitz batzuek izen batek beste batekiko duen ondoriotasuna edo kontraktotasuna adierazten dute, gizakumea gorputza da esaten dugunean bezala; esaldi horretan esan nahi duguna gorputza izena gizakumea izenaren nahitaezko ondorio dela da; eta objektu berari buruz, hots, gizakumeari buruz, beste izen batzuk ere esan daitezke; eta haien arteko ondoriotasun hori da hitzaz bata bestearekin lotuz adierazten dugu. Eta guk da aditza erabiltzen dugun moduan, latindarrek est erabiltzen zuten eta grekoek Εο τ1 aditza aditz-joko guztian. Munduko beste nazio guztiek beren hizkuntzetan horren berdinkide den hitzik dutenentz, ezin nezake esan, baina ziur hitz hori ez dela beharrezko, hitz biak elkarren ondoren jartzea nahikoa izan baitaiteke haien ondoriotasuna adierazteko, hori ohitura izanez gero (ohitura baita hitzei indarra damaiena), da, izan edo dira, e.a., esango balitz bezala.

Eta egon balego est, da edo izan aditzei erantzuteko hitzik ez duen hizkuntzarik, hizkuntza hori luketenak ez lirateke inola ere ezgaiago inferitzeko, ondorioak ateratzeko eta edozertariko arrazonamenduak burutzeko, latindar eta grekoak izan ziren baino. Baina zer gertatuko litzateke orduan entitate, esentzia, esentzial, esentzialtasun bezalako hitzekin, aditz hartatik eratorriak guztiak, eta horien menpekoak direnekin, oso arruntki erabiliak direlarik? Ez dira, orduan, gauzen izenak, baizik izen edo atributu baten beste batekiko ondoriotasuna bururatzen ari garela ezagutarazteko erabiltzen ditugun zeinuak. Horrela, gizakia gorputz biziduna da esaten dugunean, ez dugu esan nahi gizakia gauza bat dela, gorputz biziduna beste bat eta da edo izan hirugarren bat, zeren gizakia bada, orduan gorputz biziduna da hitzez adierazitako ondorioa, egiazko ondorioa baita, da hitzaz adierazia. Horregatik, gorputza izan, ibili, mintzo izan, bizi, ikusi eta antzeko infinitiboak, eta, era berean, gorpuztasuna, ibilaldia, mintzaira, bizia, ikusmena eta gauza bera esan nahi duten beste antzeko batzuk, ez dira ezeren izenak, beste leku batean hobeto azaldu dudan moduan.

Baina norbaitek galde dezake, zertarako horrelako mehekeriak gobernamentu eta obedientziaren doktrina azaltzea beste helbururik jarri ez diodan lan honetan? Bada, honexetarako da: gizakumeei pairatu beharrik izan ez dezaten inork beraiez abusatzea Aristotelesen filosofia hutsalean oinarrituriko esentzia bereizien doktrinaz. Izan ere, doktrina horren bitartez, hitz hutsez baliatuz ikaratu egiten dituzte gizakumeak beren herriko legeak bete ez ditzaten, txoriak artotzatik alde eragiteko ikaratzin dituzten moduan, horretarako mamu huts bat erabiliz, kapela eta kainabera oker eta guzti. Izan ere, horixe oinarri dutelarik, esaten digute, gizakumea hil eta ehorzten dutenean, haren arima (haren bizia dena) haren gorputzetik bereizirik ibil daitekeela eta gauez hilobi artean ikus. Horixe oinarri dutelarik esaten digute baita ere ogi zati baten figura, kolore eta zapoak barruan beste izaki bat dutela, jada ogia ez omen dena. Eta doktrina berean oinarriturik esaten digute beste hau ere, alegia, fedea, jakinduria eta beste bertute batzuk zenbaitetan isuri egiten zaizkiola gizakumeari, eta beste batzuetan zerutik putz eginda ematen zaizkiola, gizakume bertutetsua eta haren bertuteak bereizterik balego bezala. Eta beste gauza asko ere esaten dizkigute, menekoek beren herriko botere subiranoarekiko duten menpekotasuna laxatzeko balio dutenak. Izan ere, nor ahaileginduko da legeei men egiten, obedientzia bere baitara isuriko zaiola edo putz eginik emango zaiola espero badu? Edo nork ez dio obedituko Jainkoaren zereginak bere subiranoak baino hobeto, eta are Jainkoak berak baino hobeto, egiteko gaitasuna duen apaizari? Edo izpirituen beldur den nork ez die begirune handia izango izpirituak uxatzen dituen ur bedeinkatua egiteko gai direnei? Eta nahikoa izango da esandakoa Aristotelesen entitate eta esentzietatik Elizara etorri diren errorean adibidetzat; berak ere agian bazekien filosofia faltsua zela hau, baina beren erlijioarekin bateragarri eta haren indargarri zelakoan idatzi zuen; baita Sokratesek bezalako patua izateko beldur zelako ere.

Behin esentzia bereizien errore honetan jausiz gero, hortik datozen beste absurdukeria askoz inguraturik aurkitzen dira nahitaez. Izan ere, aipatu formak errealak direla baieztan denean, haiei lekuren bat eratziki beharra dago. Baina formok gorpuzgabeak eta kantitate-dimentsiorik gabekoak direla diotenez eta mundu guztiak dakienez gero lekua dimentsioa dela eta ez dagoela gauza gorpuztunez bestez betetzerik, beren jarrerari eusteko bereizpen bat egitera beharturik aurkitzen dira, esanez esentzia horiek ez daudela inon circumscriptive, definitive baizik. Termino horiek hitz hutsak dira, hemen esanahirik ez dutenak, eta latinez esaten dira, beraien hutsaltasuna estaltzeko. Gauza baten zirkunskripzioa, izan ere, gauza horren lekua mugatze edo definizioa besterik ez da, eta horrela bereizpenaren termino biak gauza bera dira. Eta zehazki gizakiaren esentziaz, haren arima omen denaz, ari direnean, arima guztia txirkandan eta arima

guztia gorputzaren edozein ataletan dagoela esaten dute, txikienean ere; eta, hala ere, ez dagoela gorputz osoan atal horietan baino arima gehiagorik. Ba al da inor pentsa lezakeenik absurdukerioz Jainkoa zerbitzatzen ari dela? Eta, hala ere, haxe guztia sinetsi behar dute gorputzetik bereiz arima gorputzgabea existitzen dela sinesten dutenek.

Eta azaldu behar dutenean substantzia gorputzgabeak nola sufri dezakeen mina eta nola jasan dezakeen tormentua ifernu edo purgatoriko sutan, ez dira ezer erantzuteko gai, suak arimak nola erre litzakeen jakiterik ez dagoela besterik.

Era berean, mugimendua lekuz aldatzea denez eta substantzia gorputzgabeek lekurik izan ezin dutenez gero, larri ibiltzen dira azaltzeko arimak hemendik zerura, ifernura edo purgatoria nola joan daitezkeen eta gizakumeen izpirituak (eta, gehituko nuke, agertzean daramatzaten jantziak) nola ibil daitezkeen gaez hara eta hona eliza, hilerri eta hilobiak dauden beste leku batzuetan. Eta nik ez dakit zer erantzun diezaioketen honi, zera esan ezean behintzat, definitive, ez circumscriptive edo izpiritualki, ez mundutarki ibiltzen direla, bereizpen bikainok, aplikatu ere, arazo zail orori aplikatu dakizkioke eta.

Eternaltasunaren esanahia emateko, ez dute onartzen amaigabeko denbora hurrenketarik denik, bestela ezingo bailukete eman arrazoirik azaltzeko Jainkoaren nahia eta etorriko diren gauzen aurre-ordenamendua nola ez lirakeen gauzon aurrezagutza baino lehenagokoa, efektuen aurretiko kausa erazle edo ekintzaren aurretiko egile denez; eta Jainkoaren izaera ezagutezinari buruz dituzten beste iritzi nabarmen batzuei ezingo liekete eutsi. Horren ordez irakatsiko digute eternaltasuna hemengo denboraren geratzea dela, nunc-stans bat, Eskolek esaten duten moduan, eskolastikoek ez beste inork ulertzen ez duen kontua berau, lekuaren handitasun infinitua adierazteko hic-stans erabiliko balute inork ulertuko ez lukeen moduan.

Eta gizakumeek beren pentsamenduan gorputza zatikatzen dutenez, haren zatiak zenbatuz eta, zenbatzean zati horiek betetzen dituzten lekuak ere zenbatzen dituztenez gero, ondorioa haxe besterik ez daiteke izan, alegia, zerbait zati askotan zatikatzean zati bakoitzari bere lekua ematen ari garela; eta hortik dator ezein giza adimenduk ezin bururatzea zatitan lekutan baino gehiago izatea, ezta gutxiago ere. Hala ere, eskolastikoek sinestarazten digute, Jainkoaren botere guztiahaldunez, gorputz bat aldi berean leku askotan izan daitekeela eta gorputz asko aldi berean leku bakar batean; dena ez dela, edo izan dena ez dela izan, esatea Jainkoaren ahala aitortzea balitz bezala. Eta aipatu ditugunak haiek dituzten inkongruentzien zati txiki bat baino ez dira, eta guztiak, Jainkoaren izaera atzemangaitza miretsi eta jauretsi beharrean, hartaz filosofikoki eztabaidatzearren; izan ere, Jainkoari guk eratxikiriko atributuek hura zer den adierazterik ez dutenez gero, asma genitzakeen apelatiborik onenez hura ohoratzeke daukagun nahia adierazi besterik ez dute egiten atributuok. Baina haiek ohorezko apelatiboetatik haren izaera arrazonatzeraz menturatzen dira eta, era horretan, ulertzeke gaitasun guztia galtzen dute lehenengo unetik, eta inkongruentzia batetik bestera erortzen dira amaigabeki eta geratu gabe. Gorteko zeremoniak ezagutzen ez dituenari jazotzen zaiona gertatzen zaie: tratatu ohi dituenak baino pertsona handiago baten aurrera joan, eta haren aurrean estropozu egitean, ez eroriko bai eroriko, soingainekoa lurrera, soingainekoa jaso nahian, kapela lurrera; eta horrela ezbehar batetik bestera, agerian utziz bere arruntasun eta arlotetasuna.

Fisikari, hau da, egitate naturalen kausa menpeko eta sekundarioen ezagutzari dagokionez, hitz hutsak besterik ez dute esaten. Norbaitek jakin nahi badu zergatik duten gorputz batzuek beherantz

lurrerantz egiteko joera eta beste batzuek lurretik aldentzekoa, eskolastikoek, Aristotelesengan oinarriturik, esango dizute beherantz egiten duten gorputzak astunak direla, eta haien astuntasunak eragiten diela beherantz. Baina astuntasuna zer den galdetzen badiezu, lurraren zentzurantz joateko ahalegina dela esango dizute. Era horretan, gauzak beherantz egitea sortarazten duen kausa azpian egoteko egiten duen ahalegina da, beste hau esatea adina dena, hots, gorputzak behera edo gora, egin egiten dutelako egiten dutela. Edo esango dizute lurraren zentrua gauza astunen pausagune eta gordeleku dela, eta horrexek sortarazten diela han izateko ahalegina, harriak eta metalak, gizakiak bezala, desirak izateko edo berentzako nahi duten lekua bereizteko gauza balira bezala, edo geldi egoteko irrikitzen baleude bezala, gizakia ez bezala; edo kristal bat leihoan, kalera erorita baino seguruago ez balego bezala.

Eta jakin nahi bagenu gorputz berak zergatik dirudien batzuetan handiago, ezer gehitu gabe, eskolastiko batek esango liguke gorputzak txikiago ematen duenean kondentsaturik dagoela, eta, handiago ematen duenean, arrarifikaturik dagoela. Zer da kondentsaturik eta arrarifikaturik egotea? Kondentsaturik, materia berean lehen baino kantitate gutxiago dagoenean; eta arrarifikaturik, gehiago dagoenean. Kantitate zehatz bat ez duen materiari izan ahal balitz bezala, kantitatea, izan, materiaren, hots, gorputzaren mugapena besterik ez denean, mugapen honexek ematen digularik ahalbidea esateko gorputz bat beste bat baino handiagoa dela halako edo horrelako neurrian. Edo gorputza inolako kantitaterik gabe eginga balitz bezala, gero jarritz gorputz horretan kantitate gehiago edo gutxiago, gorputz hori trinkoago edo ez hain trinkoa izatea nahi den kontuan harturik.

Giza arimaren kausari dagokionez, zera esaten dute, creatur infundendo eta creando infunditur, hau da, harengana isuriz kreatzen da eta kreazioz isurtzen da harengana.

Zentzuaren kausari buruz, species-en, hau da, objektuen irudikapen edo agerkarien nonahitasuna dela diote, begiari agertzen zaizkionean, ikusmena direlarik, belarriari agertzen zaizkionean, entzumen, ahosabaiari agertzean, dastamena, sudurrari agertzean, usaimena, eta gainontzeko gorputz atalei agertzean, ukimena.

Egintza partikularren bat egin nahi izatearen kausa, hau da, volitio deitzen diotenarena, gizakumeek batzuetan gauza bat eta beste batzuetan beste bat nahi izateko duten ahalmen orokorra, voluntas deitzen diotena, dela diote, potentzia aktuaren kausa bihurtuz. Gizakumearen egintza on edo txarren kausatzat egintzok egiteko hark duen gaitasuna jarri ahal bagenu bezala.

Eta sarri jazoera naturalen kausatzat beren ezjakintasuna jartzen dute, nahiz eta beste berba batzuek mozorroturik. Esate baterako, gauza kontingenteen kausa, hots, kausarik ezagutzen ez zaien gauzena, zortea dela esaten dutenean. Gauza bera gertatzen zaie hainbat efektu kausa estaliei eratzikitzen dietenean, hau da, haiek berek ezagutzen ez dituzten eta, hargatik, beste inork ere, haien ustez, ezagutzen ez dituen koalitatei. Eta sinpatiari, antipatiari, antiperistasiari, koallitate espezifikoei eta beste horrelako batzuei eratzikitzen dizkiote gauza horiek, terminook ez dutelarik adierazten ez gauza horiek sortarazten dituen egilea ez haiek sortzeko gauzatzen den eragiketa.

Hauek bezalako metafisika eta fisika filosofia hutsala ez badira, inoiz ez da ezer hutsalik izan; eta San Paulok ere ez zuen zertan etorri hori ekiditeko ohartarazten.

Haien moral eta filosofia zibilek, berriz, absurdukeria berberak edo handiagoak dituzte. Gizakume batek bidegabekeria bat egiten badu, hau da, legearen kontrako egintza bat, legearen lehenengo kausa Jainkoa dela diote, eta egintza horren eta beste guztien lehenengo kausa ere bai; baina gehitzen dute Jainkoa ez dela inola ere bidegabekeriaren kausa, bidegabekeria ekintzak legearekiko duen desadostasuna delarik. Filosofia hutsala da hau. Norbaitek baita ere esan dezake berak bi lerro egiten dituela, bata zuzena eta bestea okerra eta beste batek egiten duela haien arteko inkongruentzia. Eta premisak ezagutu aurretik ondorioak ateratzen dituzten guztiek horrelakoxe filosofia darabilte, ulertezina dena ulertu egiten dutela uste izanik; eta ohorezko atributuak izaerazko atributu bihurtzen dituzte, aukeramenaren doktrinari, hau da, Jainkoaren nahiaren pean ez dagoen giza nahiaren doktrinari, eusteko egindako bereizpena berau.

Aristotelesek ete beste filosofo pagano batzuek gizakumeen gutiziatik definitzen dute ongi eta gaizkia; eta hau zuzena da, gizakume bakoitza bere legeak gobernatutzat daukagun heinean. Izan ere, gizakumeek beren gutizia pertsonalak beste legerik ez duten egoeran, ez daiteke arau orokorrik izan zer den ona eta zer txarra ebazteko. Baina Estatu baten barruan, neurgailu hori faltsua da; gizabanako bakoitzaren gutizia ez, baina legea, hau da, Estatuaren nahi eta gutizia, da neurgailua. Hala ere, aipatu doktrina hori oraindik ere praktikan jartzen da, eta gizakumeek beren eta beste gizakumeen, eta are Estatuaren beraren egintzen on eta gaizkia beren grinaren arabera juzgatzen dituzte. Eta inork ez du ekintza bat ona ala txarra den lege publikoari begiraturik esaten, bere ikusirako ona ala txarra dela kontuan hartuta baizik. Salbuespen bakarra monje eta fraideek egiten dute, beren nagusiari denean obeditzera beharturik baitaude botoz, horixe berori egin beharko liokeelarik meneko orok bere subiranoari, naturako legez hari obeditzera beharturik dagoela kontuan harturik. Eta ona zer den ebazteko neurgailu pribatu hori, doktrina hutsal ezezik, Estatu Publikoarentzat galgarri ere bada.

Halaber filosofia hutsal eta faltsua da ezkontzako ekintza kastitate edo kontinentziaren kontrakoa eta, beraz, bizio morala dela esatea. Horixe da, kastitate eta kontinentzia oinarritzat harturik, klerikoei ezkontza ukatzen dietenek egiten dutena. Izan ere, horiek aitortzen dute Elizaren erakuntzaz dela beharrezko aldare eta eukaristiako zerbitzua etengabe betetzen duten ordena sakratudunek emakumei etengabeki uko egitea, etengabeko kastitate, kontinentzia eta garbitasunaren izenean. Horregatik, emaztearen legezko erabilpena kastitate eta kontinentzi falta dela diote; eta horrela, ezkontza bekatu bihurtzen dute, edo gizona aldarerako desegoki egiten duen gizon kutsatu eta lohi behintzat. Lege hori emaztearen erabilpena inkontinentzia eta kastitatearen kontrakoa delako egin bada, orduan ezkontza oro bizio da; eta Jainkoarentzat sagaraturiko gizon batentzat gauza kutsatuegi eta lohiegia bada, gizakume guztiek derrigor egin behar dituzten beste zeregin batzuk askoz ezduinago bihurtuko dute gizakumea apaizgorako, lohiagoak direlako.

Baina apaizei ezkontza debekatzeko arrazoi ezkutua ez dagoke ziurrenik hain arinki oinarriturik filosofiako errore horietan; ezta ezkongabearen bizitza ezkontza-egoera baino hobetzat jotzean ere, San Paulorengandik datorkigun ideia delarik, laster konturatu baitzen hura zenbat eragozpen zituen, jazarpeneko aldi haietan Ebanjelioa predikatzen zihardutenentzat eta herri batetik bestera iheska ibili behar zutenentzat emazte eta haurren ardura leporatu beharra. Arrazoiak zera da, geroagoko Aita Santu eta apaizek klero bihurtzea erabaki zutela, hau da, Jainkoaren erreinuaren oinardeko bakar, horretarako beharrezko zelarik ezkontzari uko egitea, gure Salbatzaileak dioelako bere erreinua etortzean Jainkoaren seme-alabak ez direla ez ezkondu ez ezkontzeko emango, zeruko aingeruak bezalakoak izango direlako, hau da, izpiritualak. Ikusirik, bada, izpiritual izena berek berenganatu dutela, inkongruentzia zatekeen premiarik gabe haiek emazteak hartu izana.

Aristotelesen Filosofia Zibiletik ikasi dute, baita, garai hartan Atenasko Estatua zen moduan herritarra ez den Estatu era guztiei tirania deitzen. Errege guztiei tiranoak esaten zieten; eta hogeita hamar gobernarrien

aristokraziari, atenastarrak menperatu zituzten Lazedemoniarrek han jarriari, hogeita hamar tiranoak. Halaber, demokraziaren pean zegoen herriaren egoerari askatasuna deitzen zioten. Jatorriz, tirano hitzak errege besterik ez du esan nahi. Baina gero Greziarik gehienez gobernamendu mota hori abolitu zenean, izen hori, lehen esan gura zuena ezezik, Estatu herritarrek monarkari zioten gorrotoa ere adierazten hasi zen. Era berean, errege izena ere gorrotagarri bihurtu zen Erroman erregeak agintetik kendu ondoan, gizakume guztiengan naturala baita, izan ere, hutsegite handi bat, mesprezua daraman eta etsai handi bati eratxikitzen zaion atributu baten bidez adieraztea. Eta gizakume berberok demokraziaren edo aristokraziaren administrazioa dutenekin disgustura daudenean ere, ez dute izen desatseginen bila gehiegirik ibili beharrik izango, beren haserre erakusteko; eta batari anarkia deituko diote, eta besteari oligarkia edo gutxi batzuen tirania. Baina herriari min ematen diona, bakoitzak bere burua gobernatuko lukeen moduan barik, bere ordezkari publikoak -dela gizabanako bat dela batzar bat- egoki irizten dion moduan gobernatua izatea da, hau da, gobernamendu arbitrarioz. Horrexegatik jartzen dizkie gaitzizenak beren nagusiei, konturatu gabe (gerra zibilen baten ondotoxan izan ezik agian) gobernamendu arbitrarioz gabe gerra zibileko egoera etengabea litzatekeela beti; eta gizonak eta armak direla, eta ez hitzak eta promesak, legeei indarra eta boterea ematen dietenak.

Eta hortik Aristotelesen Politikaren beste errore bat, alegia, ongi ordenaturiko Estatuan gizakumeek barik legeek agindu behar luketela. Bere zentzu naturalak dituen zein gizakume ez da jabetzen, irakurtzen eta idazten ez jakin arren, beldurra dien eta obeditzen ez badie hil edo kalte egingo diotela uste duen gizakumeek gobernatu dagoela? Edo nork sinets lezake legeak, hau da, hitzek eta paperek, min eman liezaiokeela, haren atzean gizonen esku eta ezpatak egon ezean? Errore galgarrietako bat da hau; izan ere, euren gobernariak gustuko ez dituzten guztian, haiei tiranoak deitzen dietenekin elkartzera eta haien kontra gerraz altxatzea zilegi dela pentsatzera eramaten baititu gizakumeak. Eta, hala ere sarriaskotan apaizteriak pulpitutik emandako animoak jasotzen dituzte.

Bada beste errore bat haien Filosofia Zibilean, ez Aristotelesengandik, ez Zizeronengandik, ezta beste ezein paganorengandik ikasi ez dutena. Eta errore hori zera da, ekintzen arau besterik ez den legea gizakumeen pentsamendu eta kontzientzien barru-barruraino hedatzea, haiek esana eta eginga legearekin ados egonarren, haiek uste dutena azterkerta eta inkisiziopean jartzen dutelarik. Eta honen ondorioz, gizakumeei zigorra ezartzen zaie uste dutena zintzo esatearren, edo zigorraren beldurrez gezurra esatera behartzen dituzte. Egia da magistratu zibil batek, ministro bati irakasteko ardura ematerakoan, galde diezaiokeela ea holako eta halako doktrinak irakasteko prest dagoenentz, eta, ezetz erantzunez gero, uka diezaiokeela kargua. Baina hura bere iritzien salaketa egitera behartzea, beraren ekintzak legeak debekaturikoak ez direnean, naturaren legearen kontrakoa da, bereziki gizakumea, kristau fedeko artikulu baten kontrako iritzitari eutsiz hilez gero, oinaze eternal eta izugarrietara kondenatua izango dela irakasten dutenengan. Izan ere, errore batek halako arriskua ekar lezakeela jakinik, nor ez da izango aiherrak, bere buruarenganako ardura naturalak bultzaturik, norbere arimaren etorkizuna norbere kondenazioaren ardura ez dion baten irizmenaren pean barik norberearen pean jartzera?

Gizabanako pribatu batek, Estatuaren eskuespenik gabe, hau da, haren ordezkariaren baimenik gabe, bere irizpidearen arabera legea interpretatzea beste errore bat da, baina ez Aristotelesengandik, ezta beste ezein filosofo paganorengandik ere aterarikoa. Izan ere, filosofo horietako bat berak ere ez du ukatzen legeak egiteko boterean, behar denean legeok azaltzeko boterea ere sarturik dagoenik. Eta ez al da Idazteuna, lege diren pasarte guztietan, Estatuaren autoritatez lege egina eta, beraz, lege zibilaren zati bat?

Horrelako beste errore bat gertatzen da subiranoa ez den norbaitek gizakumeren batek duen boterea (Estatuak murriztu gabea) murrizten duenean; errore hori Ebanjelioa predikatzeke boterea, legeak libre uzten duen tokian, halako ordenako gizakume talde bati bakarrik emanez mugatzen dutenek egiten dute. Estatuak predikatzeke edo irakasteko baimena eman badit, hau da, debekatu ez badit, inork ere ezingo dit debekatu. Ni Amerikako idolatren artean banengo, bekatu dela pentsatuko al nuke, kristau naizelarik nahiz eta ezein ordenakoa ez izan, Jesukristoren hitza predikatzea, Erromako ordenak hartu aurretik? Eta predikatu ondoren, debekaturik izango al nuke haien ezbaiei erantzutea eta Idazteuna azaltzea, hau da, haiei irakastea? Baina norbaitek esango du honetarako, haiei sakramentuak emateko bezala, premia misiorik askitzat jo daitekeela; eta egia da. Baina halaber egia da, premiagatik dispensa badago, ez dela dispensa beharrik izango hori egitea debekatzen duen legerik ez dagoenean. Horregatik, eginkizun horiek subirano zibilak ukatu ez dienei ukatzea, haiei legezko askatasun bat kentzea da, hori gobernamendu zibilaren kontrakoa delarik.

Teologia eskolastikoko doktoreek erlijiora ekarritako filosofia hutsalaren adibide gehiago ager daitezke, baina beste batzuek beren kabuz aurki ditzaten utziko ditugu. Hauxe besterik ez dut hemen gehituko: teologo eskolastikoen idazkiak, gehienbat, esanahirik gabeko hitz estrainio eta barbarismo kordak besterik ez direla, edo latinaren erabilera komunean dutenetik oso era diferentean erabiltzen diren hitzak, Zizeron, Varron eta antzinako Erromako gramatikariak nahasirik utziko lituzketenak. Baten batek honen frogarik nahi badu, saia dadila (aurrerago esana dudan moduan) teologo eskolastikoren bat hizkuntza oparoren batera, frantses, ingeles edo horietako batera itzultzen, horietako gehienetan ulergarri ez dena ez baita

latinean ere ulergarri. Esanahirik gabeko hizkuntza honek, filosofia faltsutzat sailka ezin nezakeen arren, badu, hala ere, egia estaltzeko ezezik, gizakumeei egia dutela pentsarazi eta bilatzeari uztarazteko ere gaitasuna.

Azkenez, istorio faltsu edo badaezpadakoek ekarririko erroreari dagokienez, zer dira Santuen bizitzetako fikziozko mirakuluen kondaira horiek guztiak, eta Eliza Erromatarreko doktoreek, ifernu, purgatorio, eta exorzismoaren botereari buruzko beren doktrinak eta ez arrazoimenean ez Idazteunean euskarririk ez duten beste doktrina batzuk ontzeko alegaturiko agerkari eta izpirituen istorio horiek guztiak, eta orobat berek Jainkoaren hitz ez-idatzia esaten dien tradizio horiek guztiak? Zer dira horiek guztiak, atso-ipuinak besterik? Eta horrelako kontuak antzinako gurasoen idazkietan han-hemenka aurkitzen ditugun arren, gurasoak informazio faltsuetan errazegi sinets zezaketen jendea ziren; eta haiek sinesten zutena egia zela frogatzeko beraien iritziak agertzeak ez du indarrik, San Joanen aholkuaren arabera (1 Jn. 4, 1) izpirituak aztertzen dituztenentzat; gehiago ere, Eliza Erromatarraren boterearekin zerikusia duten puntuetan (haren abusuen susmorik ez dutenak edo hartatik onura jasorikoak baitira) haien testigantzari sinespidea kentzeko balio dute, informazio horiei sinespidea ematean arinegi ibiliak direlako. Izan ere, gizakumerik zintzoenak ere, gurasoek ez zuten moduko kausa naturalen ezagutza ona izan ezean, erraz-erraz jausten dira horretan. Gizakumerik onenak izaten baitira, berezko izakeraz, jokabide engainakorrez gutxien susmatzen dutenak. Gregorio Aita Santuak eta San Bernardok purgatorioan omen zeuden izpirituak aipatzen dituzte, baita gure Bedak ere; baina ez dira, nik uste, beren lekukotzak, beste batzuegandik jasoak baizik. Baina, gizon horiek edo beste edozeinek horrelako istorioak beren ezagutza zuzenetik kontaturik ere, informazio horiek beren egiazkotasuna berretsi ez, baina beren ahultasuna edo iruzurra erakutsiko dute.

Ez legezko autoritatez ez beharrezko jakinduriaraz egiaren epaile izateko gai ez direnek Filosofia faltsua sartzearekin egiazkoaren ezabatzea lot genezake. Gure nabigazioek argi erakutsi dute, zientzietan eskolatua den orok dakien moduan, badirela antipodak. Eta egunean baino egunean argiago ageri da urteak eta egunak Lurraren higidurak erabakitzen dituela. Hala ere, beren idazkietan, doktrina hori proposatu dutenek, berorren kontra edo aldeko arrazoiak formula zitezen beste asmorik gabe, eliz autoritatearen zigorra jaso dute. Baina, zer arrazoi dago horretarako? Iritzi horiek egiazko erlijioaren kontrakoak direlako al da? Hori ezin daiteke izan egiazkoak badira. Gai diren epaileek azter dezatela, orduan, egia, eta errefusa dezatela egia horren kontrakoa dela jakin uste dutenek. Iritzi horiek ezarririko erlijioaren kontrakoak direlako al da? Isilarazi ditzatela orduan lege horiek irakasten dituztenen nagusien legeek, hau da, lege zibilek, zeren desobedientzia legez zigortu baitaiteke, legeen kontrako zerbait irakasten denean, egiazko filosofia izan arren ere. Ala gobernamentura desordena ekartzeko joera dutelako ote da, bada, jendea errebelamendu eta sediziora akuilatuz? Isilarazi ditzala doktrinok, orduan, eta zigor ditzala maisuak, bake publikoa zaintzeko ardura leporatu zaionak, hau da, agintari zibilak. Izan ere, elizgizonen beren eskubidetzat (Estatuaren meneko diren edozein tokitan) beren gain har dezaten zeinahi botere, jainkozko zuzenbide deitzen dioten arren, usurpazioa besterik ez da.

## XLVII

Iluntasun horretatik datorren onura eta nori egiten dion on

Zizeronek erromatarren artean epaile zorrotza zen Kasioetako baten ohorezko aipamena egiten du, zeukan ohitura bategatik: delitu-auzietan, lekukoen testigantza aski ez zenean, akusatzaileei galdetzen zien cui bono, hau da, zein onura, ohore edo sari erdietsi zuen edo espero zuen akusatuak delituaren ondorioz. Izan ere, norbaiti buruz susmatzera garamatzaten gauza guztien artean, ezerk ez du argiago jartzen nor izan den delitu baten egilea, egintza horretatik ateratzen den onurak baino. Arau horri jarraituz, kapitulu honetan saiaturiko naiz aztertzen nortzuk diren Kristandadearen alde honetan herriaz hain luzaro jabetzea lortu dutenak, gizateriak dituen gizarte baketsuen kontrako aipatu doktrinaren bidez.

Egun lurrean militatzen duen Eliza hau Jainkoaren erreinua dela (hau da, aintzazko erreinua eta aginduriko lurraldea, ez lurraldearen promesa besterik ez den graziazko erreinua) dioen erroreari loturik doaz honako onura mundutar hauek: Lehenik, Elizaren artzain eta maisuak, Jainkoaren ministro publiko direnez, Eliza gobernatzeko eskubidea izatea, eta, beraz -Eliza eta Estatua pertsona berek osatzen dutenez gero-, Estatuaren zuzendari eta gobernari izateko ere bai. Titulu horretxez baliatuz lortu zuen Aita Santuak printze kristauen meneko guztiek sinestea berari desobeditzea Kristori berari desobeditzea zela; eta Aita Santuaren eta printzeen arteko gatazka guztietan (botere izpiritual hitzaz liluratuz) haiek beren legezko subiranoak bazterrean uztea, hau Kristauteria osoaren gaineko monarkia unibertsala izatea delarik. Izan ere, Aita Santuak hasiera batean kristau enperadoreengandiko agintez izan ziren inbestituak, haien pean, erromatar inperioaren muga barruan (berek aitortu zuten moduan) kristau-doktrinaren maisu gorenak izateko eskubidearekin, Pontifex Maximus titulua hartuz, funtzionari hau Estatu zibilaren menpekoea zelarik. Hala ere, inperioa banandu eta ezabatu zenean, ez zitzairen zail gertatu jada beren meneko zen herriari beste titulu baten, hots, San Pedroren eskubidearen jabe ere bazirela onartaraztea. Horren bidez, galdaturiko botereari eutsi ezezik, erromatar inperioaren pean baturik ez zeuden probintzietara hedatu nahi izan zuten beren boterea. Botere monarkiko unibertsalaren onura hau



(gizakumeen aginte nahia kontuan harturik) zantzurik aski da uste izateko botere honen atzetik ibili eta erabili ere luzaro erabili zuten Aita Santuak izan zirela botere hori lortzeko behar izan ziren doktrinen egileak, hau da, egun lurlean den Eliza Jainkoaren erresuma dela dioen doktrinarenak. Izan ere, hau onartuz gero, ulertu beharra dago Kristok bere loktenenteren bat duela gure artean, Kristoren aginduak zeintzuk diren esango diguna.

Zenbait Elizak Aita Santuaren botere hau ukatu zuenean, arrazoiz espero zitekeen Eliza guztiotan subirano zibilek hain zuhurgabe galdu zuten boterearen zati handi bat berreskuratuko zutela, eta berriro haien eskuetan izango zela, eskubidez zegokien moduan. Eta Ingalaterran gertatu ere horixe gertatu zen, nahiz eta bazirudien erregearen izenean erlijioaren gobernamendua administratzen zutenak, beren kargua jainkozko eskubidezkotzat jotzean, nagusitasuna ez bada ere, botere zibiletik nolabaiteko independentzia bederen usurpatzen ari zirela; eta usurpazioa erabatekoa izatera heldu ez bazen, honexegatik izan zen: erregeari aitortzen ziotelako beraiei funtzio horien egikaritzea kentzeko eskubidea.

Baina eginkizun hori presbitergoak bere gain hartu zuen tokietan, Erromako Elizaren beste doktrina asko irakastea debekatu zen arren, Kristoren erresuma etorria dela eta gure Salbatzailearen berbizkundean hasi zela dioen doktrinak iraun egin zuen. Baina cui bono? Zer onura zetorkien hortik? Aita Santuek espero zuten bera: herriaren gain botere subiranoa izatea. Izan ere, zer ateratzen dute gizakumeek beren legezko erregea eskomikatzeak, bere erreinuan Jainkoaren zerbitzu publikora dedikaturik dauden leku guztietan sartzea hari debekatzea eta hark indarrez zuzendu nahi dituen indarrez erantzutea besterik? Edo, zer da pertsona bat eskomikatzea, horretarako subirano zibilarengandik harturiko autoritaterik izan gabe, hari legez duen askatasuna kentzea, hau da, beren anaienganako botere ezlegezko bat usarpitzea besterik? Erlijioan dagoen iluntasun honen egileak, beraz, Eliza erromatarra eta klero Presbiterianoa dira.

Aipatu izenburupean jartzen ditut subiranotasun izpiritual hori eskuratu ondoren botere horri eusteko balio duten doktrinak ere. Esate baterako, lehenik, Aita Santua bere gaitasun publikoan ezin dela erratu dioena. Izan ere, hau egia dela sinetsirik, nork ez dio Aita Santuari agintzen duen guztian obedituko?

Bigarrenik, gainerako apezpiku guztiek, zeinahi Estatutan, beren boterea ez Jainkoarengandik zuzenean, ezta beren subirano zibilarengandik zeharka, baina Aita Santuarengandik jasotzen dutela dioen doktrinak zera dakar: Estatu bakoitzean, Aita Santuaren menpean dauden eta hari, printze atzerritarra izan arren, obediencia zor dioten gizakume boteretsu asko izatea (izan ere horixe baitira apezpikuak); eta bitarteko hauek erabiliz, Aita Santuak ahalbidea du (egin ere sarri egin duelarik) bere gustura eta interesera gobernatua izatera makurtzen ez den Estatuaren kontra gerra zibila bizteko.

Hirugarrenik, apezpikuen eta apaiz eta monje-fraide guztien exentzioa lege zibilen boteretik. Izan ere, prozedura honen bidez, Estatu bakoitzeko populazioaren zati handi bat dago, legeen onura eta Estatu zibilaren babesa jaso arren, gastu publikoa ordaintzeko ezer pagatzen ez duena, eta bere delituengatik merezi duen zigorraren pean (gainerako menekoak bezala) ez dagoena. Eta, ondorioz, ez du Aita Santuaren beste inoren beldurrik; eta Aita Santuari bakarrik datzekio, haren monarkia unibertsalari eutsiz.

Laugarrenik, beren apaizei (Itun Berrian presbiteroak, hau da, zaharrak besterik ez zirenei) sazerdote, hau da, sakrifikatzaile, izena ematea; juduen artean, beren errege Jainkoa izan zuten artean, subirano zibilari eta haren ministroei ematen zitzaizen titulua berau. Orobat, Jaunaren Afaria sakrifizio bihurtzeak herriari zera sinestartzeko balio du, Aita Santuak kristauengan Moises eta Aaronek juduengan zuten botere berbera duela, hau da, botere osoa, eliz eta herri-boterea, garai hartan Apaiz Nagusiak zuen moduan.

Bosgarrenik, ezkontza sakramentua dela irakasteak ezkontzen legezkotasuna epaitzeko ahalmena damaio kleroari eta, ondorioz, ezkontzume nortzuk diren ebaztekoa; eta, hortik, herentziazko monarkietan oinordetza eskubidea ebaztekoa ere.

Seigarrenik, apaizei ezkontza ukatzeak Aita Santuaren erregeekiko boterea segurtatzeko balio du. Izan ere, errege bat apaiz balitz, ez luke ezkontzerik ez erreinua bere ondorengoei transmititzetik. Apaiz ez bada, ordea, orduan Aita Santuak galdatzen du aipatu eliz boterea harengana eta haren herriarengana.

Zazpigarrenik, aitortzak entzutetik printzeen eta Estatu zibileko beste pertsonaia handien planei buruzko informazio hobea eskuratzen dute, haiek Eliz Estatuaren asmoei buruz lor dezaketena baino.

Zortzigarrenik, santuen kanonizaziotik eta martiri nortzuk diren deklaratzearen bidez beren boterea segurtatzen dute, jende xehea subirano zibilaren lege eta aginduen kontra hisigogor jartzen baitute heriotzara bertaraino ere, Aita Santuak eskomikuaz herese eta Elizaren etsai, hau da, (beraiek interpretatzen duten bezala) Aita Santuaren etsai deklaratu baino lehen.

Bederatzigarrenik, Kristo egiteko, penitentziak agintzeko eta bekatuak barkatu eta atxikitzeko ahalmenaren bidez ere aipatu boterea segurtatzen dute.

Hamargarrenik, purgatorioaren, egintzen bidezko zuzen espenaren eta indulgentzien doktrinaren bidez kleroa aberastu egiten da.

Hamaikagarrenik, beren demonologia eta exorzismoak erabiliz eta honen inguruko beste gauza batzuen bidez herriak beren boterearen beldur handiagoa izatea lortzen dute, edo lortzen dutela uste dute.

Azkenik, unibertsitateetan irakasten diren Aristotelesen metafisika, etika eta politikak, bereizketa arinek, eta esolastikoen hizkera ilunek (Aita Santuaren aginduz ezarri eta erregulatu direnek), errore horiez inor

ohar ez dadin eta gizakumeek filosofia hutsalaren ignis fatuus Ebanjelioaren argitzat har ditzaten balio diete.

Aipaturikoei, nahikoa ez balira, beste doktrina ilun batzuk ere gehi dakizkieke, abantaila nabaria eskaintzen dutenak kristau herriaren legezko subiranoen gain ezlegezko boterea jartzeko, edo ezarri ondoren hari eusteko, edo haren eusleei aberastasun, ohore eta aginpidea emateko. Eta, horregatik, lehen esandako cui bono arauari jarraituz, argi esan genezake iluntasun izpiritual honen egileak Aita Santua eta erromatar kleroa direla, eta, hauez gain, baita ere gizakumeen adimenduetan honako doktrina oker hau ezartzen ahalegintzen diren guztiak: egun lurrean dugun Eliza, Itun Zahar eta Berrian aipatzen den Jainkoaren erreinu hura dela.

Baina beren agintepean erroreok eta antzeko beste batzuk -elizgizonek subiranoei dagozkien kontuetan muturra sartzeko erabili dituztenak, era honetan haien lurraldeetan eta haien menekoen lasaitasunean ezbeharrak sortuz- zabaltzen ikusi zituzten enperadoreak eta beste subirano kristauak ere, horren biktima izan ziren arren, doktrina horien ondorioak eta irakasten zituztenen asmoak aurrikusten ez zutelako jakin, berei eta herriari hortik etorritako okerren erruduntzat jo daitezke. Izan ere, haien eskuespenik gabe inork ez zukeen hasieran doktrina sediziosorik jendaurrean predikatzerik. Hasieran hau galaraz zitekeela diot.

Baina gizakume izpiritualok herriaz jabetu ondoren, inork ez zuen erremediorik aurkitzerik. Eta Jainkoak jar ditzakeen erremedioei dagokienez, jakinik Hark ez duela hutsik egiten garai egokian gizakumeen egien kontrako asmoak suntsitzeko eginkizunean, erremediook jartzea atsegin izan dezan arte itxaron beharko dugu; izan ere, Jainkoak sarri bere etsaien prosperotasun eta handinahiari hazten uzten die, utzi ere handinahi horren bortiztasunak aurreko belaunaldietan axolagabekeriak itxiriko begiak zabaltzeraino eta gizakumeak, Pedoren sarea arrain gehiegi harrapatu nahi izatearren arrainik gabe gelditu zen moduan, ezer ere gabe gelditzea lortzeraino; bitartean, beren menekoen begiak zabaldu aurretik mutur-sartze horren kontra saiatzen direnen urduritasunak, borrokatzen duten boterea haztea besterik ez du lortzen. Ez diot, hala ere, errurik botatzen Federiko enperadoreari aberkide dugun Adriano Aita Santuari ointokia sostengatu ziolako, konturatzen bainaiz, haren menekoek orduan halako jarrera zutela, non, hori egin ez balu, ez zukeela inperioan arrakastarik. Baina erruduntzat ditut, oster, hasieran, botere osoa zutenean, beren lurraldeetako unibertsitateetan doktrina horiek egos zitezen utziz, geroagoko Aita Santu guztiei ointokia sostengatu dietenak, subirano kristau guztien tronueta igo eta beraien herrien gainean zamalka zitezen, nahierara nekaraziz subiranoak eta beraien herriak.

Baina gizakumeen asmakizunak ehotzen diren modura zarrakutzen dira; prozedura bera da, baina ordena alderantzikatu egiten da. Ehuna boterearen lehengaiez hasten da ehoten, herriak, kristautu ondoren, obligazioz barik begirunez obeditu zien apostoluen jakinduria, apaltasuna, zintasuna eta beste bertute batzuk direlarik lehengaiok. Kontzientziaz aske ziren, eta beraien hitz eta ekintzak botere zibilaren beste inoren menpean ez zeuden. Gero, Kristoren artaldeak gehitu ahala, presbiteroak batzarrean bildu ziren zer irakatsi behar zuten aztertzeko eta, batzarrean erabakitakoaren kontrako ezer ez irakasteko obligazioa harturik, beren doktrinak onartzera beharturik zegoela pentsarazi zioten herriari. Eta jendeak beren doktrina onartzeari uko egiten zionean, artaldetik kanpo egozten zituzten (horixe zen orduan eskomikua), ez sinesgabe, baizik managaitz izateagatik. Eta hauxe izan zen haien askatasunari jarritako lehenengo korapiloa. Eta presbiteroak ugaltu ahala, probintziako hiri nagusietako presbiteroek beste parroketako presbiteroen gaineko aginpidea eskuratu zuten, eta apezpiku izena eman zieten beren buruei. Eta horixe izan zen kristau askatasunaren bigarren korapiloa. Azkenik, Erromako Apezpikuak, Inperioaren hiriburuko apezpiku zenez, Inperioko beste apezpiku guztien gaineko aginpidea bereganatu zuen (alde, enperadoreek eurek horrelaxe nahi izan zutelako eta Pontifex Maximus tituluagatik, eta, azkenaldera, enperadoreen boterea ahultzean, San Pedoren pribilegioengatik). Horixe izan zen hirugarren eta azken korapiloa eta Aita Santuaren boterearen sintesia eta eraikipena.

Botere horren analisi eta desosaketak ere bide bera darama, baina azken egindako korapilotik hasirik, Ingalaterrako Elizaren gobernamendu preterpolitikoaren desegintzan ikus dezakegun modura. Lehenengo Isabel erreginak deuseztu zuen erabat Aita Santuen boterea. Eta apezpikuek, lehen beren eginkizunak Aita Santuaren eskubidez egikaritzen zituztenek, ordutik aurrera Erreginaren eta haren oinordekoen eskubidez egikaritu zituzten, nahiz eta, jure divino esamoldea atxikiz, Jainkoak arartekorik gabe emandako eskubidea zela pentsatuz. Eta horrelaxe askatu zen lehenengo korapiloa. Geroago, Ingalaterran presbiterianoek apezpikutza eraistea lortu dute oraintsu. Eta horrelaxe ezabatu zen bigarren korapiloa. Eta aldi berean ia, presbiterianoek ere kendu egin zitzairen boterea, eta lehenengo kristauen independentziara etorri gara orain berriro, eta Paulori, Kefari zein Apolori jarraitzeko aske gara, nork berak gustuko den duenari. Izan ere hau, gatazkarik sortu gabe eta Kristoren doktrina honen ministroei diegun begikotasunaren arabera neurtu gabe (horrexegatik egin zelarik Paulok agirika korintoarrei) eginez gero, onena da agian. Lehenik, ez litzatekeelako egon behar botererik gizakumeen kontzientziengan, pertsona bakoitzarengan fedea sortarazten duen Hitzaren boterea izan ezik, ez duelarik hura landatu eta ureztatzen dutenen asmoen arabera sortarazten beti, baizik haziera damaion Jainkoaren nahiaren arabera. Eta bigarrenik, ez delako arrazoizko errore txiki batek hainbesteko arriskua ekar dezakeela irakasten dutenek

bere arrazoia duen gizakume bati beste gizakume baten, edo gizakume askoren botoen gehiengoaren, arrazoia jarrai diezaion exigitzea, hau norberaren salbazioa zotz egitea adina bailitzateke. Eta maisu horiek ez lukete desgustura egon behar lehen izaniko aginpidea galtzearen, zeren inork ez lezake beraiek baino hobeto jakin botereari eskuratzeko behar diren bertuteez eusten zaiola, hau da, jakinduriaz, apaltasunaz, doktrina argiaz, eta solas egiatiaz, eta ez natur zientziak eta arrazoimen naturalaren moralitasuna ezabatuz, ez hizkera iluna erabiliz, ez agertzen dena baino jakinduria handiagoa emanaz norberaren buruari, ez jainkozaletasun agerkizun engainakorre, ezta Jainkoaren Elizako artzainengan hutsegiteak ezezik, jendea haien aginpidea suntsitzera eramateko moduko behaztoparriak ere badiren egintzez ere.

Baina egun militatzen duen Eliza Itun Zahar eta Berrian aipatzen den Jainkoaren erresuma dela dioen doktrina munduan onartu ondoren, handinahia eta eliz karguak eskuratzeko irrika, batez ere Kristoren loktenentea izateko karguaz jabetzeko, baita kargu publiko printzipalak erdiestetik zetorren ponperia poliki-poliki hain nabari bihurtu zen, non elizgizonak berek galdu egin baitzuten eginkizun pastoralari zor zioten begirunea; hainbestearino galdu ere, non Estatu zibilean botereren bat zutenen arteko gizakume zuhurrenetako batzuek beren printzeen eskuespena besterik ez zuten behar izan, aurrerantzean artzainei obedientzia ukatzeko. Horrela, Erromako Apezpikuak, San Pedoren oinordekoa omen zela eta, apezpiku unibertsaltzat onartua izatea lortu zuen unetik, haien hierarkia osoa edo ilunbeen erreinua desegokitasunik gabe konpara daiteke sorginen erreinuarekin, hau da Ingalaterran kontatzen diren mamu eta izpirituez eta haiek gauez egiten dituzten aztikeriez ari diren atso-ipuinekin. Eta norbait eliz domeinu itzel honen jatorria aztertzen jartzen bada, laster hautemango du Aitasantutza ez dela Erromatar Inperio zenduaren mamua besterik, haren hilobiaren gainean koroaturik jezarrita. Izan ere, Aitasantutza botere pagano harexen hondakinetatik jaio zen derrepente.

Bai elizetan eta bai ekitaldi publikoetan erabiltzen duten hizkuntza, egun munduko ezein naziotan erabiltzen ez den hizkuntza, latina ere, zer da erromatar hizkuntza zaharraren mamua besterik?

Sorginek, edozein delarik ere biltzen diren nazioa, errege bakar bera dute, gure poetetako batzuek Oberon erregea deitzen diotena, baina Idazteunak Belzebu, demonioen printzea deitzen diona. Elizgizonak ere, antzera, errege unibertsal bat besterik ez dute ezagutzen, Aita Santua.

Elizgizonak gizon izpiritualak eta guraso izpiritualak dira. Sorginak izpiritualak eta mamuak dira. Sorginak eta mamuak iluntasunean, leku bakartietan eta hilobietan bizi dira. Elizgizonak doktrinaren iluntasunean, monasterioetan, Elizetan eta hilerrietan ibiltzen dira.

Elizgizonak beren eliza katedralak dituzte; eta katedralok eraikitzen diren edozein tokitan, ur bedeinkatua eta exorzismoak deritzen beste enkantamendu batzuen bidez, toki horiek hiri, hau da, inperio-egoitza, egiteko boterea dute. Sorginek ere beren gaztelu sorginduak eta mamu erraldoiak dituzte, beren inguruko alderdietan nagusi direnak.

Sorginak inork ezin ditu atxilotu, ezta egiten dituen kalteen erantzukizunik eskatu ere. Elizgizonak, era berean, hanka egiten dute justizia zibileko auzitegietatik.

Elizgizonak galarazi egiten diete gazteei arrazoimena erabiltzen, horretarako metafisika, mirakulu, tradizio eta Idazteunaren abusuz osaturiko enkantamendu mordo bat buruan sartuz, horren ondorioz gazteak ez direlarik haiek agintzen dietena egiteko bestetarako gauza. Antzera batean, sorginek ere haurrak beren sehasketatik harrapatu eta zoro natural bihurtzen omen dituzte, hori dela eta herriak iratxo deitzen dielarik, aldrebeskeriak egiteko gai baitira.

Atsoek ez dute zehazten zein ola edo laboratoriotan fabrikatzen dituzten sorginek beren enkantamenduak. Baina oso jakina da kleroaren laboratoriorik unibertsitateak direla, Aita Santuaren autoritatetik hartzen dutelarik beren disziplina.

Sorginek, norbaitekin haserre direnean, iratxoak bidaltzen omen dizkiote txatxamurka egin diezaioten. Eta elizgizonak ere, Estatu zibilen batekin haserre direnean, beren iratxoak fabrikatzen dituzte, hau da, meneko superstizioso eta sorginduak, printzei txatxamurka egiteko sedizioa predikatuz, edo promesa faltsuez sorginduriko printze bat beste bati txatxamurka egin diezaion.

Sorginak ez dira ezkontzen, baina beren artean batzuk inkubatuak dira, haragi eta odolez elkarbatzen direnak. Apaizak ere ez dira ezkontzen.

Elizgizonak lurraren esnegaina jasotzen dute, haien beldur diren gizakume ezjakinen opariak eta hamarrenak bide. Horixe gertatzen da sorginen ipuinean ere, behitegian sartu eta esnari esnegaina kenduz egiten duten orritsean.

Sorginen erreinuan zer moneta modu erabiltzen duten ez da haien ipuinetan jasotzen. Baina elizgizonak beren diru-bilketetan geuk onartzen dugun diru mota bera onartzen dute; baina berek ordaindu orduan, kanonizazio, indulgentzia eta mezatan ordaintzen dute.

Aitasantutza eta sorginen erreinuaren artean aipatu ditugun antzekotasunei beste hau ere erants dakieke: sorginak jende ezjakinaren irudimenean baino existitzen ez diren moduan, eta atsoen eta poeta zaharren tradizioetatik datozen moduan, halaxe Aita Santuaren botere izpirituala bere manupe zibileko dituen

lurraldeetatik at, herriak eskomikua jasotzeko duen beldurrean bestetan ez datzala, eta herriak entzuten dituen mirakulu faltsu, tradizio faltsu eta Idazteunaren interpretazio faltsuetan duela oinarria.

Ez zitzaion, beraz, zail egin Enrike VIII.ari bere exorzismoaz, ezta Isabel erreginari ere bereaz, izpiritu horiek kanpora jaurtikitzea. Baina, nork daki Erromako izpiritu hau, gaur atzerrietara joan eta fruitu handirik ezin eman diezaioketen Txina, Japonia eta Indiako lur lehorretako misioetan hara eta hona dabilena, ez ote den berriro etorriko, are izpiritu okerragoen talde handi batekin etorri ere, eta jada eskobatu eta garbiturik dagoen etxe honetara sartuz berton bizitzen ez den jarriko, azkena hasiera baino okerrago bihurtuz? Izan ere, ez da Erromako Elizako kleroa bakarrik Jainkoaren erresuma mundu honetan dagoela, eta hortik Estatu Zibilarenetik bestelakoa den botere bat dutela, sinestarazi nahi dutenak. Eta hauxe da POLITIKAREN doktrinari buruz esan nahi nuen guztia. Berrikus dezadanean, pozik erakutsiko diot neure herriko zentsurari.

# BIRPASA ETA KONKLUSIOA

Adimenduaren zenbait ahalmen naturalen artean, baita grina batzuen eta besteen artean gertatzen den aurkakotasuna dela-eta, eta hori guztia elkarbizitzan nola ispiatzen den ikusirik, argumentu bat atera da zera ondorioztatuz: ezinezko dela ezain gizakume ere behar bezain gai izatea betebeharrak zibil guztiei aurre egiteko. Epaitzerakoan zorrotzak izateak -diote- gizakumeak gogorregi bihurtzen ditu, beste gizaki batzuen errakuntzak eta ahuldadeak barkatzeko ezgai; irudimen txepelegiak, beste muturrean, zuzen dagoena eta oker dagoena zehazki bereizteko beharko liratekeen baino pentsamendu makalagoak sortzen ditu. Halaber, edozein erabakigai eta auzitan jarduteko arrazoimen sendoa duzu behar-beharrezko, zeren, hori gabe, giza ebazpenak lasterregiak eta epaiak injustuak baitira; hala ere, arreta erakarri eta adostasuna lortzeko moduko bokantza indartsuak laguntzen ez baldin badio arrazoimen horri, eragin murrizta baizik ez du izanen. Baina ahalmenok elkarren aurkakoak direla gertatzen da: lehena egiaaren printzipioetan oinarrituta dagoen bitartean, bigarrena, ordea, alde aurretik jasotako iritzietan, egiazko nahiz gezurrezkoetan, eta horren desberdin eta aldakor diren giza grina eta interesetan oinarritzen delako.

Eta grinaren artean kuraia dugu hor -zauri eta heriotza bortitzarekiko erdeinutzat definitzen dudana-, gizakumeak mendeku pribatura makurrarazten dituen, baita zenbaitetan bake publikoa asalatzera ere; eta beldurra beste muturrean, sarri askotan defentsa publikotik desertatzera bultzatzen duena. Baina bi grina horiek -diote- ezin gerta daitezke batera pertsona berberarengan.

Eta giza iritzien eta azturen arteko aurkakotasuna orokorki kontuan hartuz, zera diote: ezinezko dela gogaidetasun zibil iraunkor batera iristea munduko arazoetan halabeharrez bizikide ditugunekin; arazook, alegia, ohorea, aberastasunak eta aginpidea lortzeko etengabeko borroka besterik ez direlarik.

Eta hauxe erantzungo diet nik: horiek guztiok eragozpen handiak izan arren, ez direla halaz ere gaitzizkoak. Heziketa eta diziplinaren bidez konpon daitezkeelako eta konpondu ere egiten direlako zenbaitetan. Irizmena eta irudimena bai gerta daitezkeela gizakume berarengan, hurrenez hurren gertatzen badira ere, gizakume horrek daukakeen xedeak eskatu ahala. Israeldarrak Egipton zeudenean, behin adreilugintzan jarduten eta behin galtzutan kanpora irteten zirenez, halaxe gerta daiteke irizmena ere une batzuetan gogoeta jakin bati atxikitzea, eta fantasia beste zenbait unetan munduan zehar ibiltzea. Eta antzera gerta daiteke -ez beharbada natur zientzietan, baina bai moralaren arloan-, arrazoimena eta hitz-jarioa ere elkarrekin oso ongi konpontzea. Zeren, apaintze-beharrik izanez gero, errorea hobetsi eta apaintzeko aukera dagoen guztian, are aukera hobea izango baita nonbait egia hobetsi eta apaintzeko. Ez dago kontraesanik, ezta ere, legeen beldur izatearen eta etsai publikoaren beldur ez izatearen artean; ezta ere inori zuzengabekeriarik ez egitearen eta inork egindakoak barkatzearen artean. Giza naturan ez da ematen, beraz, zenbaitek uste bezainbesteko funtsgabetasunik betebeharrak zibilei buruz. Nik neronek ikusiak ditut batera irizmenaren argitasuna eta irudimenaren oparotasuna, arrazoimenaren sendotasuna eta eledertasun sotila, gerrarako kementa eta legeekiko begirunea, eta denok maila gorenean, gainera, gizaseme bakar batengan bildurik: Mr. Sidney Godolphin, nire lagun noble eta txit prestuarengan; eta berau hil egin zuten zoritxarrez, inor gorrotatu gabe eta inoren gorrotorik izan gabe; azken gerra zibilaren hasieran eman zion heriotza, gatazka publiko batean, esku ezezagun bezain ezjakin batek.

Hamabosgarren kapituluaren aurkeztutako Naturako Legeei beste hau eranstera noa orain: gizakume oro dagoela naturaz beharturik, ahal duen heinean, bake-denboran babesa ematen dion autoritate hura gerra-denboran babestera. Zeren bere gorputza zaintzeko eskubide naturala galdatzen duenak ezin galda baitezake, kontraesan agerian erori gabe, zaintza horretarako indarra damaiona suntsitzeko eskubide naturalik. Eta lege hori jadanik aipatutako zenbait legetatik ondoriozta badaiteke ere, beharrezko gertatzen da noizbehinka berraurkeztu eta gogora ekartzea.

Eta oraintsu argitaratutako liburu ingeles batzuetan jendea ez zaiola aski argi irakasten aurkitzen dudanez gerra zibilei buruz -ez gizakume bat zein unetan bihurtzen den bere konkistatzailearen meneko, ez konkista zertan datzan, ez zelan gertatzen den konkista horrek jendea bere legeak obeditzera behartzea-, zera esango dut jende horren informazio hoberako: gizakumea bere konkistatzailearen meneko bihurtzen den uneari buruz, hauxe dela unea: hari men egiteko askatasuna duelarik, nahiz hitz berariazkoz nahiz beste zeinu aski argiren batez haren meneko bihurtzea onartzen duenean. Eta gizakume batek noiz ote duen men egiteko askatasuna, azaldua dut lehenago 21. kapituluaren azkenean: hots, aurreko subiranoarekiko meneko arrunta izatea beste obligaziorik ez duenaren kasuan, beronen bizibideak etsaiaren guarnizio eta gotorlekuen barruan aurkitzen direnean; orduantxe baita bere lehenagoko subiranoaren babesak huts egin eta aurkako alderdiaren babesak hartzen hasiko den unea, bere lankidetasunaren truke. Kontuan hartuz etsaiarekiko lankidetasun hori ekidinezinezkoa dela, legezkotzat

jo beharrekoa da, nahiz eta etsaiari laguntzea izan; eta menekotasuna erabatekoa bada ere, etsaiari erabat laguntzea esan nahi duena, ezingo da ez-legitimotzat hartu. Kontuan hartuz, gainera, men egitea onartzen duenak bere ondasunen zati batekin besterik ez diola laguntzen etsaiari, meneratzea ezesten duenak ondasun osoarekin laguntzen dion bitartean, ez dago arrazoirik menekotasun edo konponbide horri laguntza deitzeko, etsaiari narraio eragitea denean areago. Baina baten batek, meneko gisa duen betebeharrak gain, soldadu izateko obligazioa ere bere gain hartua baldin badu, ez du izango orduan botere berri bati men egiteko askatasunik, ez behintzat lehengo subiranoak guduzealaian iraun eta bere armada nahiz goarnizioak bizibidez hornitzen dituen bitartean; zeren kasu honetan ezingo baitu esan babes faltan dagoenik eta soldadu bezala dagokion bizibiderik ez duenik. Baina horrek ere huts egin baleza, zilegi izango zaio soldaduari ere bere ustez ongien babestuko duenarengana jotzea babes bila, eta legezko izango du, beraz, ugazaba berriari men egitea. Eta aski bedi honekin gizakume batek, berak hala nahi izanez gero, subirano berri bati men egitea legezkoa litzatekeen uneari buruz. Behin men eginez gero, benetako meneko izatera lotzen du bere burua dudarik gabe, legez egindako kontratu bat ezin da-eta legez hautsi.

Goian esandakotik konkistarena ere ulertzeko moduan gaude, hots, zein unetan esan daitekeen gizakumeak konkistatuak izan direla, eta zertan datzan konkistaren izaera nahiz konkistatzailearen eskubidea; zeren aipatutako menekotasunak hori guztia inplikatzan baitu. Konkista ez da garaipena bera, baizik garaipenaren bidez gizakumeen pertsonen gain lortutako eskubidea. Horrela, bizia galdu duena garaitua izan da bai, baina ez konkistatua; eta preso hartua edo kateetan jarria, garaitua izan bada ere, ez da izan hargatik konkistatua; izan ere, horrek oraindik etsai izaten jarraituko du eta ahal duenean ihes egiteko eskubidea izango du. Baina obedientziaren promesaren pean bizia eta askatasuna eman zaizkiona, konkistatua gertatu da, bai, eta meneko bihurtu da: baina orduantxe, ezen ez lehenago. Erromatarrek esan ohi zuten halako beren jeneralen batek holako probintziaren bat bakearazi egin zuela, hau da, konkistatu egin zuela, gure hizkuntzaz diogun moduan; eta herrialde hori garaipenaren bidez bakearazia gertatu zela, bertako herriak imperata facere, hau da, erromatar herriak mana ziezaiona beteko zuela hitz ematerakoan; horixe zen konkistatzea. Baina hitz-emate hori espresuki edo tazituki egin zitekeen: espresuki, promesa eginez; tazituki, bestelako zeinuen bidez. Esaterako, halako promesa berariazkoa egitera deitu ez zaion bat (botere handirik ez duen pertsona izatearren agian), bere konkistatzaileen babespean bizi bada agerri-agerian, gobernu berriari men egin diola aditzera ematen dago; baina ezkutuan bizi bada han nonbait, Estatuaren ispi eta etsaitzat jo dezaten arriskutan dago. Ez diot bidegabekeriaren bat egiten duenik (ageriko etsaigoko egintzei ez baitzaie izen hori ematen), baizik herio-zigorra ezar dakiokela justiziaz. Era berean, bere lurraldea konkistatu dutenean kanpoan aurkitzen zen gizakumea ez da izan konkistatua, eta ez da, beraz, meneko; baina hara itzultzerakoan gobernuari men egiten badio, gobernu horri obeditzera beharturik dago. Hauxe delarik, honenbestez, konkista hitzaren definizioa: subiranotasun-eskubidearen lorpena garaipenaren bidez. Eta eskubide hori herriaren menekotasunarekin lortzen da, menekotasun horren bidez garailearekin kontratua egitean, biziaren eta askatasunaren truke obedientzia prometatuz.

29. kapituluaren Estatuaren desegintzaren kausetariko bat azaldu dut: Estatuon erakuntza akastuna, hain zuzen, botere legegile absolutu eta arbitrarioz egotatik. Horren faltaz, justiziaren ezpata bere eskuetan adorerik gabe erabiltzera beharturik egongo da subirano zibila, sendo oratzeko beroegi aurkituko bailuen. Eta horren arrazoi bat (han aipatu ez dudana) hauxe da: guztiek nahi izaten dutela botere hori hasiera batean lortu zuteneko gerra justifikatzea, beraien eskubide hori jabetzatik barik gerratik baitelortkien. Adibide bat jartzearen, Ingalaterrako erregeen eskubidea Gilen Konkistatzailearen zioaren ontasunean eta beraren oinordeko hurbilenek zuzeneko oinordetzaz heredatzean bailegoen. Baina horren arabera, menekoek ez zuketen agian gaur egun euren subiranoekiko obedientzi lokarri bat bera ere mundu osoan zehar; eta horrela beren buruak zuzitzen dituztelakoan, horretarako inolako beharrik gabe, jende baten handigurak beraien eta ondorengoen aurka altxa ditzan errebolta arrakastatsu orori bide eman besterik ez diote egiten. Hauxe jartzen dut, beraz, edozein Estatuaren heriotzaren hazi hilgarrietarikotzat: konkistatzaileek menekoei zera eskatzea, ez soilik euren egintzak etorkizunean menara diezazkieten, baizik baita beren iraganeko egintza guztiak ere onar ditzaten; nekez daitekeenean munduan Estaturik bere hastapenok kontzientziaren arabera justifika ditzakeenik.

Eta tirania izenak subiranotasuna izenaren esangura bera duenez, ez gehiago ez gutxiago -dela gizakume bakarrarengan, dela bat baino gehiagorengan egon-, eta desberdintasun bakarra tiranoa deitzen diotenarenganako haserrea aditzera ematea besterik ez delarik, uste dut tiraniarekiko gorrotoaren aurrean tolerakorrek izatea Estatuarekiko gorrotoa orokorki toleratzea dela; beste hazi txar bat, alegia, lehen aipatutakotik alde handirik ez duena. Izan ere, konkistatzailearen zioa zuzitzeak konkistatuaren zioa gaitzestea esan nahi du gehienbat, ez bata ez bestea delarik beharrezko konkistatuak obligazioa bere gain har dezan. Eta hauxe da diskurtso honen lehen eta bigarren zatia buruzko birpasan esateko neukana.

35. kapituluaren aski argi utzi dut, Idazteuneko testuetan oinarrituz, Judu Estatuan Jainkoa bera izendatu zutela subirano herriarekin egindako itunaren bidez, eta hortik horiei herri berezia deitzea, munduko gainerako nazioetatik bereizteko; zeren hauen gain Jainkoak ez baitzuen nazioon baiespenez erreinatzen,

baizik bere boterearen izenean. Eta erresuma horretan Moises zela Jainkoaren loktenente lurrean; eta berak komunikatzen ziela Jainkoak zeintzuk lege jarri nahi zizkien gobernabidetzat. Baina esan gabe utzi dut nortzuk ziren legeok betearazteko izendatutako funtzionariak, herio-zigorraren kasuan batez ere; ez neritzolako orduan, orain deritzodan moduan, derrigorrez esan beharrekoa. Badakigu, jakin, zigor fisikoak betearaztea botere subiranoaren zerbitzuko goardien edo bestelako soldaduen esku zegoea jeneralki Estatu guztietan, edota beharrak, ohorearen axolarik ezak eta gupidagabetasunak eginkizun horretarako egoki egiten zituen esku uzten zela. Israeldarren artean, oster, hona hemen zein zen subiranotzat zuten Jainkoaren lege positiboa: herio-zigorrera kondenatutakoa herriak berak harrika zezala heriotzaz hil arte; eta delituaren lekukoak izan zitezela lehen harria jaurtiki zezatenak, eta lekukoen ondoren gainerako herritar guztiak. Lege horrek zigor-betearazleak izendatzen bazituen ere, ez zion inori baimentzen delitugileari harririk jaurtikitzea, harik eta epaile-eginkizuna betetzen zuen elkarte osoak akusa eta kondena zezan arte. Hala ere, zigorra betearazi aurretik, lekukoei entzun beharra zegoen, delitua elkartearen beraren aurrean edo legezko epaileen aurrean burutua izan ezik bederen; zeren kasu honetan ez baitzen behar epaileak eurak beste lekukorik. Baina prozedura horrek, behar bezala ez ulertzearren, irtitzi arriskutsu bati eman dio oina, hots, gizakume batek zenbaitetan zelo-eskubidez eman diezaiokeela heriotza besteren bati; delitugileen exekuzioa antzinaldiko Jainkoaren erresuman subiranoaren aginduan barik zelo pribatuaren autoritatean oinarritu izan bailitzen; baina horren alde diruditen testuak aztertzen baditugu, zeharo kontrakoa frogatzen dutela aurkituko dugu.

Lehenik, lebitarrek urrezko zekorria egin eta gurtu zuen herriari eraso ziotenean eta hiru mila lagun hil, Moisesen aginduaren bidez izan zen, berak ere Jainkoaren ahotik jasotako agindua, Ir. 32, 27.ean ageri denez. Eta Israelgo emakumeren baten semeak Jainkoaren aurka birao eginez gero, ez zioten entzuleek eurek heriotza ematen, baizik Moisesen aurrera ekarri, eta honek zainpean jartzen zuen Jainkoak gizakume haren kontrako epaia ezagutzera eman arte; halaxe ageri da Lebitarren 25, 11-12.ean. Era berean, Fineasek Zimri eta Kosbi hil zituen (Zen. 25, 6-7), ez zen izan zelo pribatuaren izenean: haien delitua batzarraren aurrean burutua izan zen, ez zegoen lekukoen beharrik, legea aski ezaguna zen eta bera zen subiranotasunaren oinordeko ageria; eta, punturik garrantzitsuena, bere egintza haren legezkotasuna Moisesek ondoren berrestearren menpe geratu zen erabat, zalantzan jartzeko motiborik ez zukeen berrespena, alegia. Eta geroko berrespenaren presuntzio hori beharrezko gertatzen da batzuetan Estatuaren segurtasunerako; horrela, ustekabeko matxinada baten kasuan, matxinada hori hasi den eskualdean bertan bere indarraren bidez iraungi ahal dezanak, berariazko lege eta eskuespenez ez bada ere, legearen arabera egin dezake, bere egintza hori -dela burutzen duen bitartean, dela burutu ondoren- berretsia edo barkatua izango zaiola suposatuz. Era berean, hauxe esaten zaigu berariaz Zenb.35, 30.ean: Hilketarik denean, zenbait lekukoren aitorpenaz bakarrik eman ahal izango da hiltzailea heriotzara; baina lekukoak izateak epailatza formal bat suposatzen du, eta bazterturik uzten du, ondorioz, jus zelotarum delakoaren auzia. Moisesen legeak idolatriara makurtzen denari buruz, hau da, Jainkoaren erresuman Itunari uko egiten dionari buruz (Dt. 13, 8), debekatu egiten du horrelakoari barkatzerik, eta akusatzaileak heriotza eman diezaiola agintzen du, berak jaurtikiz, gainera, lehen harria; baina ez du agintzen kondenatu aurretik heriotza ematekorik. Honenbestez, idolatriaren aurkako prozesua zehazki finkaturik ageri da (Dt. 17, 4-5): izan ere, Jainkoak epaile gisa hitz egiten dio herriari eta zera agintzen dio, baten bat idolatriaz salatzen dutenean, egitate hori artaz iker dezatela, eta egia dela aurkituz gero, erruduna harrika dezatela; baina orduan ere lekukoaren eskua izan dadila lehen harria jaurtikitzen duena. Hori ez da zelo pribatua, baizik kondena publikoa. Era berean, seme zentzakaitza eta bihurria duten gurasoez hitz egitean (Dt. 21, 18), gurasook semea hartu eta herri-arduradunengana eramateko agintzen du, epaileen aurrera, eta orduan hiritar guztiek harrika emateko hil arte. Azkenez, lege horiexen izenean izan zen, eta ez inola ere zelo pribatuaren izenean, San Esteban harrika hiltzea; zeren heriotza eman aurretik, Apaiz Nagusiaren aurrean defendatu baitzuen bere auzia. Horretan guztian ez da ageri ezer, ezta gainontzeko inon ere Biblian, exekuzioak zelo pribatuaren izenean onar dezanik; zeina, sarritan jakinezaren eta grinaren nahastura besterik ez delarik, Estatu baten justiziaren eta bakearen kontrakoa gertatzen baita.

36. kapituluan esan dut ez zaigula azaltzen Jainkoak zein eratara hitz egin zion supernaturalki Moisesi. Ez da esan nahi zenbaitetan ametsen eta ikuskarien bidez hitz egin ez zionik, hala nola ahots supernatural baten bidez, gainerako profetei bezalaxe; zeren Zen. 7, 89.ean beren-beregi azaltzen baitzaigu Jainkoa nola zuzentzen zitzaion erruki-aulkitik, hitz hauekin: Jaunarekin mintzatzeko elkarketa-etxolan sartu ohi zenean, Jaunaren ahotsa entzuten zuen Moisesek; ahotsak itun-kutxa gaineko estalki gainetik, kerubinen artetik, hitz egiten zion. Ez zaigu esaten, hala ere, zertan zetzan Jainkoak Moisesi hitz egiteko modu horren nagusitasuna beste profeta batzuei hitz egiteko moduaren aldean -Samuel eta Abrahami, kasu, zeinei ahots baten bidez (hots, ikuskarien bidez) hitz egin baitzien baita ere-, desberdintasuna ikuskari horren argitasunean izan ezean behintzat. Zeren aurpegiz aurpegi eta ahotik ahora esapideak ez baitira hitzez hitz ulertzekoak Jainkoaren Natura infinitu eta hautemanezinaz jardutean.

Eta azal dutako doktrinari orokorki dagokionez, jarraitzen dut pentsatzen oinarritzat dituen printzipioak egiazkoak eta egokiak direla, eta arrazoiketa ere sendoa dela. Izan ere, ezagunak zaizkigun gizateriaren

jaugin naturaletan eta naturako legearen artikuluetan oinarritzen ditut subiranoen eskubide zibila eta menekoen betebeharra nahiz askatasuna; eta artikuluoek ezin ditu ezezagun izan bere familia pribatua gobernatzeko adina arrazoimen duela uste duen inork ere. Subirano horien eliz botereari dagokionez, berez ebidenteak diren eta Liburu Santuek euron osotasunean duten zioarekin bat datozen testuetan oinarritzen dut. Konbentziturik nago, beraz, diskurtso hau informatzeko asmo soilaz irakur dezanak bai aurkituko duela hemen informazioa. Aldiz, euren idazki, diskurtso publiko edo ekintza nabarien bidez alderantzizko iritziak mantentzeko konpromezuan sarturik daudenak ez ditu hain erraz konbentzituko. Kasu horietan zera gertatu ohi zaiolako jendeari: irakurri berri duenari objektzioak bilatu nahian, irakurtzen diharduenari arretarik ez eskaintzea. Eta horrelako kasuak erruz gertatuko dira nahitaez jendearen interesak aldatu egin diren garai batean (kontuan hartuz gobernu mota berri bat eratzea helburutzat duen doktrinak arestiko gobernuaren desegintza aldeztu zuenaren kontrakoa behar duela izan, hein handi batean).

Estatu Kristauari buruzko partean doktrina berriren batzuk datoz, alderantzizkoa erabat ebatzirik dagoen Estatu batean azaltzea errua litzatekeena, agian, irakasteko baimenik ez duen meneko batentzat; irakaslearen lekua hartzea bailitzateke. Baina egungo garai honetan -gizakumeek, bakearen zerbitzurako ezezik, egiaaren zerbitzurako ere, beraiek egiazkotzat dutena eta bakea nahiz leialtasuna bultzatzen duen doktrina oro zabaltzeko eskubidea galdatzen dutenean, gaiaren gainean oraindik deliberatzen ari direnek aintzat har dezaten-, nirea ez da besterik ardo berria zahagi berrietan eskaintzea baino, horrela biak batera onik gorde daitezten. Eta uste dut orduan, nobedadeak ezelango asaldurarik ez desordenurik sor ez dezanean Estatuan, jendea ez dela makurtuko horrenbeste antzinakoa hobestera eta, egia berri eta ongi frogatutakoaren aldean, erru zaharrak nahiago izatera.

Neure adierazteko moduaz fidatzen naiz ni gutxien, baina uste dut, inprimatze-akatsak salbu, ez dela iluna gertatuko. Gaur egun modan dagoenari kasurik egin gabe antzinako poeta, mintzalari eta filosofoen aipamenez nire lan hau ez apaintzea, horretan asmatu dudana ala ez aparte utziz, halaxe egitea egoki iritzi diodalako izan da, arrazoi askorengatik. Lehenik eta behin, doktrinazko egia oro, dela arrazoiaren dela idaztearen menpe dagoelako; idazle asko eta asko kreditatzen dituzten iturriak, hain zuzen, baina berauek inortxok ere kreditatzen ez dituenak sekula. Bigarrenik, hemengo arazo hauek ez direlako egitatezko arazoak, zuzenbidezkoak baizik, lekukoen beharrik ez dutenak, alegia. Oza-ozta aurki daiteke baten bat idazle zaharron artean bere buruarekin edo beste batzuekin noizbait kontraesanean erori ez denik, eta hortik haien lekukotza nahikotzat ez jotzea. Laugarrenik, antzinatasunaren izenean soil-soilik onartzen diren iritziak ez dira izaten berez, intrintsekoki, berorien aipua egiten dutenen aburua, baizik ahoz aho (aharrausien pare) iragan ohi diren hitzak. Bosgarrenik, sarri askotan gertatzen da asmo iruzurtidun gizakumeek beste batzuen agudeziaz baliatzea beren doktrina ustela iltzatzeko. Seigarrenik, ez dut aurkitzen orain apaindura gisa aipatzen dituzten antzinako horiek beren aurreko idazleekin gauza bera egin zutenik. Zazpigarrenik, indigestioaren seinale argia da greko eta latinezko aipuak behin eta berriro ekartzea mastekatu gabe, sarri egin ohi den bezala. Azkenik, begirune handia diedan arren egia hain sakonak idatzi zituzten edota egiok aurkitzeko bidean jarri gintuzten antzinategi gizakume haiei, uste dut, hala ere, antzinateari berari ez diogula inolako zorrik. Izan ere, garaiari begirune izatean baldin badatza arazoa, oraingo hauxe duzu garairik zaharrena; eta idazlearen zahartasunean badatza gakoa, ez dut uste ohore hori ematen zaien haietariko gehienak, idazten zihardutenean, ni neu orain naizen baino zaharragoak izango zirenik. Baina ondo pentsatuz gero, antzinako autoreei zuzentzen zaizkien laudorioak ez datoz hildakoenganako begirunetik, bizien artean dagoen lehia eta inbidiatik baizik.

Bukatzeko, ez dago ezer ere diskurtso honetan guztian, ezta lehenago gai berberari buruz latinez idatzi dudana ezertan, nik neuk hauteman dezakedanez behintzat, Jainkoaren Hitzaren edo ohitura onen kontra doanik, edota lasaitasun publikoa asaldatzera jotzen duenik. Onuragarri izango litzatekeela uste dut, beraz, argitara ematea, eta are onuragarriago unibertsitateetan irakatsia izatea, horretaz erabakitzea dagokienek horrela ikusiko balute. Izan ere, kontuan hartuz unibertsitateak direla, hain zuzen, doktrina zibilaren eta moralaren iturbegiak eta hortixe hartzen dutela predikariek eta nobleek ere bertan aurkitzen duten ura, gero herriarengana bai pulpitutik eta bai solasaldien bidez zabaltzen dutena, arreta handia jarri beharko litzateke ur hori garbia izan dadin, politiko jentilen pozoinak eta izpiritu iruzurtien enkantamenduek kutsatu gabea. Eta horrela gizakumerik gehienak, beren betebeharrak ongi ezagutuz, ez lirateke hain prest egongo Estatuaren kontrako asmoz jokatzeko duten kontentagaitz gutxi batzuen handinahiaeren zerbitzutuan jartzeko; eta zama arinagoa iritziko diote beraien bakerako eta defentsarako ezinbesteko zergei; eta gobernariek eurek ere motibo gutxiago izango dute behar diren baino armada handiagoak mantentzeko fondo publikoaren kontura, atzerriko etsaien inbasio eta mutur-sartzearen aurka askatasun publikoa defendatzeko.

Eta halaxe emanen diot amaiera Gobernu Zibil eta Eliz Gobernuari buruzko nire diskurtso honi, egungo desordenuen kariatz sortutakoari, alderdikoitasunik gabe, interes pertsonalik gabe, eta asmo bakar hauxe buruan dudala: babesaren eta obediēntziaren artean dagoen lotura estua jendeari begibistan jartzea, bai Giza Naturaren izaerak baita Jainkoagandiko Legeek (natural nahiz positiboek) eskatzen baitigute



obedientzia hori hautsi gabe betetzea. Eta Estatuaren iraultza-aldietan ezin espero daitekeen arren mota honetako egien jaiotzarako asturu bikainik -egiok kopeta iluna erakusten baitute gobernu zaharra desegin berri dutenei dagokienez, eta gobernu berria eraikitzen dihardutenen bizkarra besterik ez baitute ikusten-, ez dut uste, hala ere, gaurko aldi honetan kondena jasoko duenik, ez doktrina-epaile publikoaren aldetik, ez bake publikoaren iraupena nahi duen inoren aldetik. Eta itxaropen horrekin, itzultzerat noa etenda utzi dudana Gorputz Naturalei buruzko nire espekulaziora; eta horretaz bai espero dudala, Jainkoak lana amaitzeko osasuna ematen badit, Gorputz Artifizial honi aplikatuta mingarri ohi den bezainbat atsegin gertatuko dela nobedade hau. Zeren horrelako egiak, inoren etekinen ez atseginen kontra ez doazenez, ondo hartuak izaten dira guztien aldetik.

FINIS